



LITTLE


DOMEGAS


THE NEW YORK PUBLIC LIBRARY  
ASTOR LENOX TILDEN FOUNDATION




ATU  
ORR  
2270









M. 10609.

R. 4814

A.T.V.  
1880



# URTECO DOMECA

GUSTIJETARACO

VERBALDI ICASBIDECUAC,

CEINZUBETAN AZALDUTEN DAN

*ERROMACO CATECISMUA.*



Euretan aurquituco dabe Arima-zain euscaldunac, euren Elextar, edo Feligresai predicadu biar deutzen icasbidia : Baita bere Cristinau euscaldunac, cer jaquin, eta eguin biar dabeen.

COMPONDUBA

*Aita Fr. Pedro Astarloa S. Franciscubaren seme, Lectore Jubiladu, Burgosco Provincijaco Aita, eta Cantabrijaco Definidoriac.*

## LENENGO LIBURUBA.

BILBON:

---

Eusebio Larumbe Vizcaico Señorijoco moldatzailienian  
1816.

*Biar dirian escubidiacaz.*

URTECO DOMECA

GUSTIETARACO

VERBALDI ICASBIDEGUAC

CEINZUBETAN AZALDUTEN DAN

ERROMACO CATECISMUA.

Euretan aurquinco dabe Aitma-zain euzaldanac, euren  
Elezar, edo Feltigresai predichadu hiar deitzen  
icasbidia : Bata bete Cristianu euzaldanac, ez  
japun, eta egun hiar dabeen.

COMPONDUBA

Aita Fr. Pedro Astarion S. Franciscomaren seme, Lector  
Jubiladu, Burgoce Prohemijaco Aita, eta Cantabrijaco  
Definidorian.

LENNENCO LIBRUBA,

ELIBON:

Eusebio Larumbe Viscario Satorrijoco moldatzailean  
. 1816.

Ein hitian euzaldanac.



*EUSCALDUN ARIMA-ZAIN JAUNAI.*

**N**eure Jaun veneragarriac. Trentoco Batzar, edo Conci-  
lijuaren gurariric andijena izan zan, berac iracatzirico fe-  
de, edo sinisqueria guizon gustijen ezauerara eldu, eta  
gustijac eguijatzac euquitia. Uste izan evan, ez eguala  
onetaraco modu oberic iracasbide, edo Catecismo bat com-  
pondutia baño; nun azaldu, edo esplicaduric ifini ceitezan,  
berac iracatzi evan, eta Cristinaubac jaquin biar dabeen  
icasbide gustija: eta alan aguindu evan, eguin ceitequiala  
iracasbide au, eta artu eiquijela Obispo Jaun gustijac ar-  
duria, errijetaco itzcunza, edo verba modubatera itzuli,  
edo biurtuteco. Erromaco Aita Santubac bete even Bat-  
zarren gogua; batu cirian guizon zur, eta jaquitunac, eta  
compondu even jaquinbide au. Gueroco Aita Santubac  
aleguin andijac eguin ditubez itzcune, edo verba modu,  
gustijac euqui daijen iracasbide au. Obispo Jaun ascoc, eta  
beste guizon jaquitunac artu dabe euren ganian lan au, eta  
alan daquigu, erreinu, provincija, eta obispadu gustijac  
dauquela euren itzcunza, edo verba eguiten daben modu-  
ban. Euzqueraz bacarric ezta inos aguertu. Arrituric  
nenguan, igarri al baga, nundic etorri zatequian utzune  
ain andi au. Necuzan alde bateic, Trentoco batzarrac,  
aguinduten evala, esacune, edo verba modu gustijetara  
itzuli, edo biurtu ceitiala; eta atixe beraugaitic Cala-  
horraico Obispo Jaun ascoc gura izan eveela euzqueraz ifi-  
nicedin; nequijan bestetic, Arima-zain, eta beste guizon ja-  
quitun ascoc vici izan ciriala Vizcaitar euzcaldunen artian  
au eguin leijenac; orregaitic ecin inundic bere igarri al ne-  
ban, nundic etorri zatequian, ez inoc artu gura izana be-  
ragan lan au.

**I**cusiric cembat on ecarri leizan euzqueraz ifinirico Ira-



casbidia, atzacabe andi bat emoten euztan, Trentoco batzarren gurarija gueure errijetan bete baga egotiac. Sarri, eta sarri emon euztan, neuc lan au eguiteco goguac: baña jaquitia eninzala duin onetaraco, neure ezjaquitc, neure sortasun, eta neure astuntasuna gaitic, atzeratuten ninduban. Dempora lucian egon nintzan, cer eguin jaquin baga; baña azquenez alsubago edo poderosuago izan zan; liburu euzquerazco onec ecarri al leiquezan mesedien gurarija, neure duineztasunen ezaueria baño; eta alan azartu nintzan euzquerazco lan au artuten: bada modu onetan, argui, argui aguertuco da, curetatic badator onen bat, Jaungoicua bacar bacarric dala bere aurquile, edo autore. Cembat eta argalago, cembat eta gauzaezago, bitarteco, edo instrumentuba, aibat eta ezaunago, eguile lenenen, edo principalenen jaquiturija, eta escubidia. Orra cegaitic azartu, edo atrevidu nintzan, euzqueraz ifinten Erromaco Iracabide, edo Catecismua. Baña enintzan emen gueratu. Uste izan neban, mesede andi bat eguingo neutzela Arimazain euscaldunai, Icasbide au, ifini baneguijan Verbaldi, edo Platiquetan, errazago izan leijen Jaijegun gntzietan prediquetia. Nequijan, sarri, eta sarri, ez oi dabeela astiric euquiten, Verbaldi, edo Platicac compoundu, escribidu, eta buruz icasteco. Confesonarijuac batetic, Sacramentubac baserri urrinetara eruan biarrac bestetic: Emetic ilten lagundutiac, andic beste arazu ascoc daruaque demporia, Iecuric emon baga lan onetaraco. Ascoc, eta ascoc jaquin arren, cer predicadu biar dabeen, eztaquiije celan eusqueraz adi eraso, esan gura leuquiena. Sartu barri ascoc eztaquiije, ez nundic asi, ez ce liburu autu, edo escogidu, ez celan compoundu, ez celan eusquerara itzuli. Baña liburu au euqui ezquero, eztauque Arimazainac, icasbidia ez azaldu, edo espliquetaco achauquijaric. Emenche dau-

quez berrogueta amairu Verbaldi euzquerazco, ceinzubetan dagan Erromaco Iracasbide gustija. Domeca baco-  
chian bat predicadubagaz, adierasoco deutze euren Elextar  
edo Feligresai urte bete barru, jaquin biar dabeen gustija.  
Ezpadanque astiric emetic autu, edo escogietaco, esan nai  
leuquiena, nai buruz arceco; liburutic iracurri leije pulpi-  
tuan, onduen deritzuen icasbide edo platica bat, Eusebio  
erdal-errijetan iracurri oi dana leguez, eta bete moduben  
baten euren biar, edo obligacinoia.

Au obeto eguin al daijen Arimazain Jaunac, eguin dot  
aleguin gustija, Verbaldi, edo Platicac izan deitezan, gus-  
tijac aitu aldaijezan moducuac, nai dala guei, edo doctri-  
nan, nai dala euzqueran. Beguiratuten bajaca guei, edo  
doctrinari, icusico da, eztaguala aitu ecin leijan gauzaric.  
Misterijuac azaldu, edo espliquetan dira, al deitian argui,  
eta claruben; batzubean irudijacaz, beste batzubetan  
exemplubacaz, eta alan deritzat edonoc aitu leiquiala,  
Misterijuetan jaquin biar daben gustija. Mandamentube-  
tan barriz, ozta ozta aurquituco da Vizcaijan oficijoric,  
noren biar, edo obligacinoiac azaldu edo espliquetan ezta-  
nic. Euzqueriari beguiratuten bajaca, uste dot edocin Viz-  
caico erritan aituco dala. Marquinacua da nire euzqueria,  
ainche aci ninzalaco. Vizcaico erri ascotan predicadu dot  
euzqueraz, eta gustijetan esan deuzte, ondo, eta ondo ai-  
tu dabeela esan dodana. Baderitzat, esacune bat, edo bes-  
te ezala erri gustijetan aituco, albuan ifinten deutzat bes-  
te ordeco bat, erderiagaz nastaduba bada bere. Ezta erraz,  
erri gustijetaco itzcune modura esatia, eta guichijago es-  
crivietia. Lecu batzubetan dinue, *bacocha*: beste batzube-  
tan, *bacotza*. Emen *Santua*, an *Santuba*. Erri baten *ga-  
rija*, beste baten *garia*. Onecc *ichasoa*, areec *ichasua*. As-  
coc *ordea*, eta *ordezcua*, beste ascoc *ordia*, eta *ordiazcoa*:

baña Arimazaina, edo Curia ezta onetan gueratu biar. Esan begui bere errico modura, eta bere enzulac onduen aituco deutzena leguez, eta auxe izango da itzcune, edo enzquerarié oneen, oneena : baña jaquin beguije, obeto aituten dabeela euzquera on bat, erdi euzquera, eta erdi erdera baño.

Azquenez, neure Jaunac, ezta aguertu oraíndio euzqueraz, onelaco lanic. Icusi dira devocinoeco liburuchubac, baita icasbide, edo doctrinaco cartillac bere; baña ezta oraíndio arguitara urten Sermoesco liburuc. Venturaz au icusijagaz, vitzuco dira euzcaldun artian dagozan guizon jaquitun asco; eta egunian baño egunian icusico dira Sermoe, Verbaldi, eta Icasbide obiac. Modu onetan jaquingo dira obeto, eta obeto Erreliginoe santuco eguija andijac; ezagutuco dau bacochar, cer dagoquijon, eta beteco dira nire lan onetan dagozan utsune andijac. Ceimbat eta gueijago escribidu, aibat eta obeto ezagutuco da, celan arguijago azaldu, edo esplicaduco dirian Fedeco misterijuac, ezagutuco da cer esan nai dabeen itzcune ascoc; ceinzuc gustiz argui adi erasoten badabe bere doctrinaco misterijo, articulu, edo aguinduren bat, eztira aituten, eztagualaco eurac esateco oitura, edo costumbreric. Artu beguije, neure Jaunac, vorondate oso, eta bijotz onagaz opa deutzedan neure lan au, eta badacuze bertan gauza onic, bedeincatu beguije araco Jaungoico andi, ceinec daquijan ifinten, nai dabenian, jaquiturija umien miinian, eta idiguiten mutuben auac. Agur.

## CHRISTINAU EUSCALDUNAI

**N**erre Christinaubac: Ezeguizube uste Icasbide, edo Doctrinaco Verbaldi, edo Platica oneec, bacarric ifini ditudazala, Arimazainac predicadu deizubezan: nire gurari lenen, edo principalena izan da, zubei arguitan ifintia Christinau baten biar, edo obligacinoiac. Oneec Arimazainac azaldu arren, edo astuten dira enzun badira bere, edo ecin beti Meza nagusitara juan oi da, nai norbait echiaz induten gueratu biar dalaco, nai preminazco cereguinen bat dagualaco, nai beste onelaco gauzaren batgaiti: orregaitic sarri utz eguin biar izaten da Arimazainen Sermoe edo Verbaldija. Utzune oneec bete leitequez liburu au echian euquijagaz, bada aurquituten bada echadi, edo familijan, nai auzoteguijan iracurten daquijanic, onec iracurri, eta bestiac enzunagaz icasi leiqueez Christinaubaten eguin biarrac. Baña norzubenzat dan biarren biarren liburu au, da otzein, eta equinza edo oficijoren bat icasten dagozanenzat. Egunian egunian dacuzcu, esatera noiana. Dua mutil, nai nescatilaren bat otzein edo crijadu; beste bat lan, edo oficijoren bat icastera. Eurac eztaquije erdera, ezta artuten ditubezan ugazabac bere euzquera. Eta cer jazoten da? Echian sartu cirianian, ezpequijen doctrinacic, ez jaquite, edo ignorancia onetanche dagoz beti: bequijen sartu cirianian, barriztadu, edo errepasetan eztana leguez, astuten jaque demporiagaz. Duaz confesetara, eztaquije icasbide, edo doctriniaren apurric; itanduten jaque cegaitic icasten eztaben? eta eranzuten dabee: eztaucat noc iracatzi: nic eztaquit erdera, ehecuac eztaquije euzquera, eta alan ezteutz inoc jaramoten. Orra celan ez ugazaba, eta nagusijac beteten dabeen otzein, eta icasjardun, edo aprendizai, eta euren ardurara dauquezanai doctrinia ira-

casteco dauquen biar estuba, ez euroc arcen daben icas-  
teco moduric. Gura badabe onelaco euscaldunen ugazaba  
eta nagusijac bete, edo cumplidu obligacinoe estu au, ira-  
curri eraso beijo liburu au iracurten daquijan bati, aguin-  
du beijue beste lagunai enzun daijela, eta onexegaz icasi-  
co dabe jaquin biar dabeena. Au eguiten badabe ugazaba,  
eta nagusijac, icusico dabee celan ez jaquin arren eurac  
eusquera, ez otzeinac erdera, icasico dabeen oneec, Chris-  
tinau batec jaquin biar dabena. Au eguinagaz echadi, edo  
familijetan, eztira aurquituco aimbete ez-jaquite, edo  
ignorancija ain galgarri, ceinzucaz ascoc eta ascoc ez-  
taunquez pecatutzat, peccaturic icaragarri, eta lotzagarrije-  
nac. Jaungoicuaac atera daguizala Christinau gustijac ilum-  
be onetatic; eta arguitu deijuezala euren sensunac bere  
jaquiturijagaz, ibili deitezan Ceruraco bide artecetatic,  
Amen.

I

URTECO DOMECA GUSTIJETARACO  
VERBALDI ICASBIDECUAC.

S A R T A U R R I A .

I. VERBALDI EDO PLATIQUIA.

*Cer dan Christinauba, eta Curutze Santubaren ganian.*

**E**cin guizonac euqui leique mundu onetan, ez zorion andijagoric, ez diñade ereguijagoric, Christinau isatia baño, Euqui beguiz ondasunic ugarijenac, jan edanic gozuenac, eta olguratic atzeguinsubenac. Vici bedi Jauregui, edo Palacijoric zoragarrijenetan, goguac emon al deijozan poz, atseguin, eta gozatasunic betienen erdijan: au gustijau ezta zorionen guericia bere, Christinau izatiac emoten dabenen parian. Eldu bedi Erregueric alsuben izatera; euqui beguiz bere escupian Uriric aberatsenac, Provincijaric ugarijenac, eta Erreinuric zabalenac: beucaz bere aguindura mempeco, edo esclavoric humilen leguez aguintari, Principe, eta Erregueric sendo, eta andijenac, eta eldu bedi mundu guztijaren jaun izatera; anditasun gusti once emon aldeijon diñade, eta honria, ezta autz, eta simaurra baño, Christinau izatiac emoten deutzanen albuan; bada au guztijau euqui arren, beti gueratuco da autz pusca bat, luur zatibat, eta beti izango da ilcor, edo mortal, beste edo ceimbere guizon pobrechu, eta mempeco, edo esclavo leguez. Christinau izatiac barriz eguiten dau guizona Jaungoicuaren seme, bere ondasunen herederu, Jesu Christoren anaije, eta Ceruco erregue. S. Pedro Apostolubac cirautzen lenengo Christinaubai: Zubec zare generacinoe autu, edo escogidu, eta noblia, abadetasun, edo Sacerdocijo erriala, gente santuba, Jesu Christoc beretzat erosija,

ez cirar, urre, eta arri balijoso galducorracaz, ezpada bere odol precijo baguiagaz (1) Odol onec eguiten gaitu erre-gue, ez nosbait galduco dan erreinuben bateco, ezpada beti beti Jaungoicuagaz batera iraungo dabenco. Orregaitic eztoigu beste gauzatan ifini biar gueure honra, gueure glorija, gueure anditasun, eta gueure poza, Christinau izatian baño. Auxe da gure nobleza benetacua, auxe gure zoriona, eta auxe gure on gustija.

Eta zu Christinau zara? Deritzat bertatic, eta poz pozic dirauztazula: Bai Jauna Jaungoicuaren graciajagaitic. Alanche da: Christinau zara, ez ceurez, ez ceure aleguinez, ez ceure indarrez, ez ceue mereci, edo irabaci cendubalaco, ez ceure gurasuac Christinau izatia emon eutzubelaco; Jaungoicuaren ontasun, eta gracia utz utzagaitic, eta zugaz, beste ascogaz euqui estaben erruqui, eta misericordija euqui dabelaco, artu dozu mesede pare bago au. Zu sortu, eta jaijo cinianian, beste asco sortu, eta jaijo cirian; batzuc Turcu, eta Mauruben artian; beste batzuc Judeguben artian, eta asco, eta asco gentilen artian. Onec gustijoc (Jaungoicuac euren batzucaz misericordija berezco edo particular bat ezpadauca) eztira inos Christinau izango, eztira Elexan sartuco, eztabe bautismoric artuco, eta gurata gura ez leguez condenadu biar dira. Etzenduban zuc, onec guztijoc baño gueijago mereci izan guraso Christinaubacgandic jaijotia; ez onen arduraz bautismua artutia, ez Elexa santubaren seme, eta Christinau izatia. Orra cegaitic dinozun, Christinau zariala Jaungoicuaren graciajagaitic, au da, Jaungoicuac bacarric eguin eutzula mesede au. Christinabaren izena dator Christogandic, eta esan gura dau, Christoren guizona; au da, Christinauba da Christoren fedia daucana; fede au emon

(1) 1 Pet. c. 2 v. 9.

jacan bautismuan : ordubanche verbia emon evan, fede au beti gordeco evala, beti Christoren servizaile izango zala, eta berari jarraituco eutzala, berac iracatzirico bidetic. Ara irudi bat obeto jaquin daguizun cer esan nai daben Christinauben izenac. S. Franciscuben erreliginoian sarccen danari dei eguiten jaca Franciscua; S. Agustinenian sarccen danari Agustina; Santo Domingoenian sarccen danari Dominica; eta orregaitic Franciscuen izena dator S. Franciscubagandic; Agustina S. Agustingandic, eta Dominica Santo Domingogandic; alainche bada, Christinauben izena bere dator Christogandic. Eta cegaitic dei eguiten jaco Franciscua, S. Franciscuben erreliginoian sarccen danari? Bertan profesadu eualaco, eta profesinoe onetan verba emon eualaco, bere vici guztijan jaongo evala S. Franciscubac emonico erreguela, edo vici moduba. Ause berari jazoten da Christinaubagaz bere. Bautismua artu evanian profesadu evan, eta esan evan jaongo evala Christoc emonico erreguela, edo vici moduban aguinduten dan guztija, eta profesinoe au gaitic dei eguiten jaca Christinauba, eta da Christoren guizona.

Christinauben silu, eta ezaugarri, edo señaile, cetan igarten dan, norbaitdala Christinau, da curutze santuba; bada badacuzcu norbait señaleten, bertatic igarten deutzagu, Christinau dana. Eta cegaitic? bera dalaco Christo crucificadubarenirudija; bada bera dacuzcunian deritzagu, icusten dogula guizon bat besuac zabalic; eta Jesu Christo modu onetan bertan il zalaco, bera icustiac gomuta erasoten deuzcu, gure salvaguiliac ulce gogorraez josiric, irago evan erijotza crubela. Irudi, edo exemplu bategaz adierasoco deutzubet cer dan Curutze Santuba, Christinaubaren ezaugarri izatia. Icusten dozu Frayle bat, bada jaquin gura badozu, ce ordia, edo erreliginocco dan, eztaucazu be-



guiratu baño ce habitu modu daucan: modu onetaco habi-  
tu badauca, bertatic dinozu, urlija erreliginoeco da, beste  
modutaco badauca, urlicijacua da. Alainche bada bada-  
cuzcu norbait siñatuten dala, edo curutzia eguiten dabela,  
bertatic igarten deutzagu, Christinau dana. Curutze San-  
tuba, ez bacarric da Christinauben sillu, edo ezaugarri,  
Christinau eztirianetatic bereztu, edo distinguietan ditu-  
zana, ezpada, da bere curen honragarija; da Jesu Chris-  
toc, ceruco Erregue leguez, bere zaldun, edo cabelle-  
ruai emonico metallu edo medalla honratzubat leguez; be-  
re erreinuco anditzat ezagun izan deitezán. Sarri icusi  
izango dozube Marques, Conde, edo beste guizon andi-  
rembat, bere albuan darabilela metallu, edo medalla ci-  
rar, edo urrezco eder bat. Itanduco bacendu, cer esan gu-  
ra daben insignija arec? Bertatic eranzungo leuzquezube  
ori guizon andi bat da, Erreguec honradu nai izan dau,  
eta orregaitic autortu, edo concedidu deutza, berac emo-  
nico medalla ori erabiltia. Auxe berau da curutze santu-  
ba Christinaubenzat; eta orregaitic honradubago, andija-  
go, eta ereguijago dago Christinau bat curutziagaz, edo-  
cẽimberc Duque, Conde, edo Principe, Erregue gustijac  
emon aldeijuezan medalla, sillu, eta ezaugarri honra, eta  
diñade andijagocuenagaz baño. S. Paulo Apostolubac ci-  
nuan: Ez, ez, eztaucat beste gauzatan neure gloriija,  
neure honria, neure anditasuna Jesu Christoren curut-  
cian baño. (1)

Modu bitan siñatuten gara, edo eguiten dogu curutze  
santuba gure ganian. Lenengo iru curutze eguinagaz.  
Lenengua becoquijan, dinogula; Curutze santubaren seña-  
liagaitic. Bigarrena auan, dinogula; gueure arerijuetatic.  
Irugarrena bularrían, dinogula; libradu gaizuz, gueure

(1) Gal. 6 v. 14.

Jauna, eta Jaungoicua. Iru curutze onecc eguin biar dituguz escumaco atz nagusi, edo lodijagaz, edo orcoruagaz, beste atz eta escu gustija zabal daucaguzala, eta gueganunz beguira; icusten doguna leguez eguiten dabela Evangelijua mesan esan, edo cantetan dabenac. Ara celan: Curutze santiaren ✠ señaliagaitic: gueure ✠ arerijuetatic libradu gaizuz ✠ gneure Jauna, eta Jaungoicua. Eguiten dogu curutzia becoquijan, Jaungoicua zaindu gaguizan pensamentu deunguetatic; bada gure adin, edo entendimentuben lecuba buruba izanic, araxe botaten deuzcuz Demoninuac pensamentu char, eta dongac. Eguiten dogu auan, Jaungoicua zaindu gaguizan hitzcu-ne, edo verba deunguetatic; bada andic urteten dabecna leguez birao, maldicinoe, murmuracinoe, verba loi, eta beste itz, edo verba chaarrac, eguiten dogu curutzia auan; gnre minac onelaco lotzarizco gauzaric esan eztaguijan. Eguiten dogu curutzia bularrian, Jaungoicua zaindu, edo libradu gaizan gurari, eta eguiquera, edo obra donguetatic: bada bularrian daucaguna leguez vijotza, eta andic urteten dabecna leguez gogo, gurari, eta eguiquera, edo obra chaarrac, curutziagaz garbituten dogu, bertan erne eztedin, eta urten eztaijan gauza dongac.

Siñatu, edo curutze santuba eguiteco bigarren moduba da; eguitia atz lodi, edo escumaco nagusijaren urrengo bijacaz curutze bat, becoquitic, eta bularrera; ezquerreco solbardatic, eta escumacora, izentetan dogula Trinidad gustiz santuba, esaten dogula; atzac becoquijan ifinten dituguzanian, Aitiaren; bularrian ifinten dituguzanian, Semiaren; eta ezquerreco solbardatic ezcumacora daruaguzanian, Espiritu Santubaren izenian; eta escubac batuten dituguzanian: Amen. Ara celan: Aitiaren, Semiaren ✠ eta Espiritu Santubaren izenian, Amen. Curutze au, eta

bardin lenengo siñatuteco moduco irurac eguiten dituguz escumiagaz, eta ez ezquerragaz, escumia honradubago, eta obiago dalaco, ezquerbaño; eta alan asquenengo juicijuan, ceruraco dagozan santubac, Jaunaren ezcumatatic egongo dira, eta ezquerretatic condenadubac. Misterijo gustiz veneragarri, eta miragarrijac zarratuten dira curutze santuba eguitian, eta gustijac confesetan dituguz, sinatuten garian bacotzian. Lenengo: Trinidadecua; bada esanagaz Aitaren, Semiaren, eta Espiritu Santubaren, dinogu diriala iru persona berezco, edo distinto, eta esanagaz izenian, eta ez izenetan, dinogu, dala Jaungoico baccar bat. Bigarren: Araguinza, edo encarnacinocua: bada becoquitic bularrera escuba eruanagaz, adi erasotendogu, bigarren Trinidadeco personia, cein dan Semia, jatzi zala cerutic Ama Virginiaren errai garbijetara, aragui, edo guizon eguitera. Irugarren: Jesu Christoren Pasinoe, eta Erijotzacua; bada curutzia eguinagaz, adi erasotendogu, Salvaguilia il zala bertan, gu pecatarijoc salvetarren. Laugarren: Erredencinoecua, bada escuba ezquerreco solbardatic escumacora iragotian, adi erasotendogu, Jesu Christoc irago guenduzala Demoninuaren mempe, edo poderijotic, bere seme izatera.

Aibat misterijo veneragarri zarratuten dituzalaco sinatutiac, beti beti euqui dau Elexa Santubac curutzia bere escudo irme, eta senduenenzat bere arerijuen aleguinen contra. Apostolubac eurac euqui even euren armaric segurubenezat; beragaz goitu, edo vencidu citubezan arerijo, eta pellebururic icaragarrijenac, eta eurac iracatzi eutzen lenengo Christinaubai siñatuten, euren arerijuacgandic jaoteco; equijelaco, curutze santuban ifini evala Salvaguiliac indar, eta sendatasunic andijena, arerijuacaz irime pelietaco. Eta badaquizube nundic, edo cetatic da-

I. *Verbaldija.*

torquijon curutze santubari escubide ain alsu au? Ara bada. Gure arerijo oneec dira Demoninua, munduba, eta araguija. Oneec goitu cituzan Jesu Christoc curutzian ilagaz. Ainche quendu eutzen, lenago euquen al, edo poderijua; ainche irabaci evan euracgandic goitute, edo triunfo miragarri bat; ainche aspiratu, banatu, eta birrindu cituban. Guc curutzia gueure ganian eguinagaz, barristetan dogu gure Salvaguiliaren goitute, edo vtetorija au, eta bera icusijagaz gomutatuten jaque gure arerijo onei, celan aspiratu, eta zapalduric gueratu cirian; eta ain modutan cadendu, argaldu, eta indar baga ichiten dituz gomuta onec, ce bertatic igues eguiten dabe, ain neque andija emoten deutzeen curutzia ez icusterren. Orregaitic lecu gustijetan, echian, nai campuan, soluan, nai basuan, ordu gustijetan, egunez, nai gabez, goxian, nai arratzaldian, eguin biar gueunque gueure ganian osasuneco sillu au. Bafia gustiz nos eguin biar dogun da, obra onen bat eguitera guazanian, premina, estura, edo pelleburuben baten aurquituten garianian, tentacinoien bat sentietan dogunian, oetic jaguiten garianian, hechetie urteten dogunian, Elexan sartuten garianian, eta jatera, edo lotara guazanian. Eta cergatic ain sarri? Edonun gagoz arrabijaz beterico arerijoz inguraturic, beti beti dagoz oneec aleguin guztijac eguiten, gu galceco, eta orregaitic gueu bere aleguin guztijagaz sendatu biar gara gordegarri sendo onegaz.

Ezagaturic gure Ama Elexa santubac curutziagandic datorquiguzan on andijac, nai leuque, bere seme gustijac enqui deijuen devocinoe andi bat, ceruco erreguiaren irudi oni, eta oitu, edo acostumbradu deitezan, aibat sarrijen seinatutera. Onetaraco berac emoten deutze egemplu. Eztau gura, ecer eguin dedin bere Erreliginoeco gauc-

tan curutze baga. Sacramentuben bat eguin, edo emongo bada, bertan aurkitu biar dau curutziac. Meza esango bada, ezta isten curutze bagaco altaren esaten; Evangelijua esan, edo cantaduco bada, lenago esan, edo cantaduco dabenac, siñatu biar dau liburuba, eta bere buruba. Ogui, eta ardaua consagradu baño leenago, Jaungoicuari opa, edo ofrecietan bajacaz, curutzia eguiten da euraracaz. Ogui, eta ardaua consagraduco badira, edo Jesu Christoren gorputz, eta odol biurtuco badira; lenago, ez bein bacarric, ezpada sarri, eta sarri euren ganian curutzia eguiten da. Eta cembat bidar eguiten ezta consagradu ezquero? Comuninoia emoten bada, lenago hostijagaz curutzia eguiten da. Cerbait bedeincatuten bada, ainche dago curutzia. Inori bedeincacinoeric emoten bajaca, ainche dago curutzia. Nai leuque gure ama maite onec, edonun icusi daigun gueure Maesubaren irudi au, eta alan gura leuque edonun eregui dedin; Elexa, eche, guela, oe, bide, mendi, eta beste lecu gustijetan, edonun gomuta izan daigun Jaungoicuaren semiac, bertan ilagaz eguin euzcun mesede pare baguia; edonun euqui daigun demoninuaren contra armaric segurubena, eta edonun adoradu al daigun gueure Salvaguilia bere irudijan.

Bai, neure Christinaubac, adoradu biar dogu curutze santuba, Jesu Christo bertan josijaren irudija dalaco; edo obeto esaterren, curutzia adoretan dogunian, berari erreverencija eguiten deutzagunian, bere aurrian macurtu, edo belaunico ifinten garianian, eztoz adoretan, zur, edo maquila bi, curutzia eguiten daben arec, ezpada Jesu Christo bera curutzian josiric, noren irudija dirian zur bi, modu atan ifinijac; bada zur, arri, cirar, eta urre, cegaz eguiten dirian curutziac, eztira eurenez veneragarri, edo adoragarrijac, edo eztabe eurenez mercei adoracinoeric.

Jesu Christoren curutzia bera, edo araco curutze, nun ilzan Jesu Christo bagueunca, edo bere zati bat, adoraduco gueunque erliquijatzat, Jesu Christori ucutu eutzalaco, bere odolagaz bustiric egon zalaco, eta bertan Salvagui-liac gure erredencinoia eguin evalaco, bere gorputza josi-ric euqui even ulciac, aranzazco coroa, edo bere aranza bat, bere erropa, edo soñeco, eta berac erabilico beste gauzaren bat adoraduco gueunquiana leguez. Orregai-tic, beste curutzia eztituguz adoretan Jesu Christoren er-liquijatzat, ezpada bere irudi dirialaco. Baña, naidan mo-duban dala, adoretan doguna, beti da Jesu Christo. Cu-rutzia adoretaco Elexiac ifiniric daucan oracinoija da auxe: Adoretan zaituguz, Christo Jauna, eta bedeincatuten zai-tuguz, curutzia bitartez munduba erredimidu cenduba-laco. Orra celan curutzia adoretan dogunian, dinogun Je-su Christo bera adoretan dogula, eta ezquerrac emoten deutzaguzala, curutzian eguin euzcuzan mesede neurri ba-gacgaitic.

*Erasoguinza, edo Exortacinoia.*

Ó Jesu Christoren guizonaganaco amodijo parebagaia!  
 Ó caridade neurribagaia! Etzacan asco izan, gu bere erijotziagaz demoninuaren mempetic ateraric, bere seme eguitia. Jaquinic, ce indarsu, ce guesto, ce traidore, eta ce asmolari dan gure arerijua, celaco aleguinac eguingo cituzan, bere mempera gu biurtuteco; emon gura izan euz-cun arma seguru bat, arerijo crubel onegandic zainduteco, Baña ce erraza? Eztaucagu cer juan urrin bere billa; ez-taucagu cer escatu inori, eztaucagu cer emon ondasun, ez diruric bera erosteco. Gueure atzetan ifini evan gure Jau-nac indarric andijena, gure arerijuen asmuric gogorrenac banatu, eta birrinduteco; curutzia euracaz eguinagaz, gue-

Ado  
 tan e  
 bedin  
 tute  
 naib  
 Sidi  
 ceur  
 curu  
 tanta  
 gora  
 dula  
 Man  
 dja  
 con  
 kala

ratuten dira deseguinic bere indar gustijac. Ce gauza errazagoric siñatutia baño? Egunez, nai gabez, arguitan, nai ilunian, oian, nai maijan, echian, nai soluan, gucure ce-reguinac, eta arazubac ichi baga, peleadu guinaique arma onegaz, erresistidu guinaijue infernuco demonino gustijai, eta ichi indarbaga euren malicija gustija.

Baña esango deutzazu: sarri siñatuten naz, eta alambere eztacuzt oberie neugan; Demoninuac igues eguin biarran, beti jausi erasoten deutz pecatuban. Deritzat eguija dinozula. Baña cetatic dator negargarrizco gach au? Cegaitic zainduten etzaituz curutzia demoninuagandic? Devocinoe baga siñatuten zarialaco. Eztozuz beguiratuten, curutze eguite orretan dagozan misterijo miragarrijac, eta orregaitic siñatuten zara arrastaca. Ce negargarrizco gacia! Christinau deituten dirianic gueijenac dacuzcuz, curutze orde, edoecin modutaco caco batzuc baño eguiten eztitubezala. Auxe da Demoninuaren tentacinoerie andijena. Eztauca gure tentazaile onec curutzia baño arerijo andijagoric: berari deutz bildurric andijen: ezta azartu, edo atrevictan, bera daguan lecura urreratuten bere; bera icusijac bacarric gomuta erasoten deutz, Jesu Christoc bertan ilagaz, beragandic irabaci evan goitute, edo victoria; eta ain modutan lotzatuten dau acordu onec, ain caden isten dau, ain erquin; ce gueratuten da indar baga Salvaguiliaren irudi au bere ganian daucanen contra pelietaco, eta igues eguiten dau, bera ez icusterren. Ce eguiten dabela deritzazube bada infernuco asmolari onec, gugandic arma ain bildur deutzan au quenceco? Artu erasoten deutzee Christinaubai, arrastaca siñatuteco ecandu citala, modu onetan curutze orde, caco batzuc eguin daijezan, euraçaz pelietara datorrenian, aurquitu daguizan, ain bildur deutzan arma ori baga. Guizon ichubac! Christinau

sorrac! arrastaca eguinico caco orreec eztira Christinau-  
baren ezaugarri, edo señaia; eztira caco orreec Jesu Chris-  
to crucificadubaren irudija; eztira caco orreec Jesu Chris-  
toc demonino, mundu, eta araguijagandic irabacico vic-  
torijaren gomutia; orregaitic eztira caco orreec Jesu Chris-  
toc demoninuaren contra ichi euzcuzan armac, eta alan  
diabruba zubeaz pelietara datorrenian, aurquituten zaituz  
villox villoxie, sendagarri baga, eta eguiten dau zubeaz,  
nai daben gustija.

Siñatu zaituz bada: lenengo: astiro, artez, eta biar dan  
moduban eguiten dituzuzala curutzia; bigarngo: aldai-  
zun devocinoeric andijenagaz, ceure ganian ifinico bacen-  
du leguez Jesus crucificaduba berbera; eta irugarngo: adi  
zagozala esaten dituzuzan verbetara. Artu badozu curutze  
orde cacuac eguiteco ecandu citala, quendu eguizu, eta  
oitu, edo acostumbradu zaituz curutzia artez eguitera.  
Curutzian aurquituco dozu biar dozun gustija; orche dau-  
cagu gach, neque, eta lan gustijen erremedijua, bada ber-  
tan ifini evan Salvaguilia vicizia, osasuna, arimaco on-  
dasunac, eta viztute, edo erresurrecinoia. Beragaz idigui  
euzcuzan ceruco atiac, eta nai izan evan bera izan cedin,  
ceruraco vide arteza. Bera etorrico da juicijoco egunian  
Juczen aurretic, eta izango da beragaz devocinoe beneta-  
cua equi evenenzat pozgarriric andijena, bada ifiniric Je-  
su Christoren escumatatic enzungo dau bere bendicinoia.  
Amen.

Jesu-  
Christo  
irudija  
irud



## II. VERBALDIJA.

*Christinaubac Icasvide, edo Doctrinia jaquiteco, daucan-  
biar, edo obligacinoiaren ganian.*

**I**tandu nai badeutzagu Oseas Igarla, edo Profetiari, nundic datoza munduban dacuzcuzun aibat gach, eta pecatu; bertatic eranzungo deuzcu, Jaungoicuaren leguia ez jaquitetic. Eztago lurrian, dino, Jaungoicuaren ezaueraric; eta orregaitic urolac leguez gustija estaldu dabe madaricacinoe, guzur, guizon ilte, lapurquerija, araguiquertja, eta beste pecatu gustijac. (1) Augaitic dago luur gustija negarrez, guizonac dagoz cadenduric, abere, edo animalijac argalic, fruta, eta arbolac igarturic. Gach gusti oneceaz, eta andijaguacaz, cematuten dituz Jaungoicuac Isrraeltarrac Igarla, edo Profeta onen aotic, bere jaquiturija, edo doctrinia icasi gura eztabeelaco. Azquenez dirautze: zubeenizaz astu zarielaco, ni bere astuco naz zubeceaz, eta zuben gloriija, eta anditasun gustija deshonoraric lotzagarrijenian gueratuco da. Ain gach, eta castigu bildurgarrijac mercei bacituban Aitalenen, edo Patriarca, eta Igarla, edo Profeten bitartez emonico leguia ez jaquitiac; celaco Jaungoicuaren aserria etorrigo ezta, Jaungoicuaren seme berberac cerutic lurrera ecarri, eta bere aoz iracatzirico icasvide, edo doctrinia jaquin nai eztabeneen ganera? Celacogorputz, eta arimaco gach, neque, eta lanac artuco eztabee, doctrina christinauba guichitan daucana? Bildur izan cinaitequez cerueo icasvide au aasturic daucazunoc, esan eztaijan Jaunac zubeegaitic, anchina Isaijasen aotic bere eritar, edo puebluagaitic esan evana. (2) Nire leguia ez

(1) Osec. 4 v. 1. (2) Jsaj. 5 cap. 13.

equijalaco, mempeco edo esclavo eruan dabee, ez guizonen batzuben aspira, ezpada demonino erubelen aguindupera. Gach icaragarri oneen aspijan zapalduric aurquitu etzaitezen, eguizube aleguina, icasbide christinauba ondo icasteco. Onetaraco enzuzube cer jaquin biar daben Christinaubac.

Lau dira Christinaubac jaquin biar dituzan gauzac. Lenengua: cer sinistuco daben. Bigarrena: cer artuco daben. Irugarrena: cer eguingo daben: eta laugarrena: cer escatuco daben, edo ce oracinoe eguingo daben. Jaquingo dau, cer sinistuco daben, jaquinic Credua, edo fedeco Articubac; bada eurrectan zarratuten diriana leguez gure erreliginoe santuco Misterijuac, eurac jaquinic, daqui jaquin biar daben gustija. Jaquingo dau, cer artuco daben, jaquinic saspí Sacramentubac; bada emonic eurretan gracija, peatuben parcacinoia, arimaco janarija, ceruco bidetic ibilteco indarra, eta betico erreinura elduteco, biar daben gustija; eurac jaquinic daqui, artu biar daben gustija. Jaquingo dau, cer eguingo daben, jaquinic Amar mandamentubac, bost Elexacuac, eta Amalau obra erruquizco, edo misericordijazcuac. Eurretan esaten jacu cer eguin biar dogun Jaungoicuagaz, eta cer proximuagaz, ain modutan, ce ez bataganaco caridadiac, ez bestiaganacuac, aguindu al leiquegu mandamentu orreetan aurquituten eztan gauzaric. Jaquingo dau, cer escatuco daben, jaquinic Aita guria, Ave Marija, eta beste Elexaco oracinoiac. Ecin gueurez gauza onic enqui guinaique, gustija etorri biar jacu Jaungoicuagandic; berac nai dau, eta dirauzcu, berari escatu deijogula nai, eta biar dogun gustija. Ezcari au eguiteco, jaquin biar dogu cer, eta celan escatuco dogun; eta au ecin obeto eguin guinaique, Aita guria esanagaz baño; bertan dagozalaco escabide, on, biar, eta artecenac; eta

ecin Jaunari escatu al guinaiquijolaco, bertan eztaguan mesederic, ezta bertan dagozan baño modu obian bere. Orra celan daguan lau gauza oneetan, Christinau batec jaquin biar daben gustija. Ez Aitalenen, edo Patriarquetan, ez Igarla, edo Profetetan, ez anchinaco leguian, ez Evangelijuan, ez Apostolubetan aurquitu al leiteque, euretan eztaguan gauzaric: orregaitic euretan zarratuten dana jaquinic, daqui Christinau batec, jaquin biar daben gustija.

Eta nos jaquin biar dituz Christinaubac lau gauza oneec? Errazoien usura eldu deinian, errazoia zabalduten jaconian, edo sensun, adin, edo entendimentuba arguituten jaconian. Ezta erraz ezagututia au nos jazoten dan, bada dacuzcu, ume batzuc diriala surrago, beste batzuc sorrago, arei arguituten jaque errazoia goxago, onei berandubago, eta orregaitic ecin ciur ciur izentadu, edo señaladu leique, ce urte, edo demporatan arguituten jaquen errazoia; bacarric esan leique, au jazoten dala araco abijetan dirianian ezagututen, cer dan ona, eta cer dan donguia; eta au jazo oi dana leguez sci, saspí, edo zorcigarren urtian, guichi gorabera, esan guinaique, ordubanche elduten diriala errazoien usura. Orregaitic umien arduria dauqueenac, (baña gurasuac beste gustijac baño estubago) ardura andi bat euqui biar dabec orduraco jaquin daijezan lau gauzaac, eta euretan dagozan misterijoric lonen, edo principalen, eta biarrenac; azaldu, edo espliquetan deutzezala al daijen arguijen, edo claruben, eta eufac aitu al daijen moduric oneenian. Edoecin Christinauc bada, errazoien usuban sartu ezquero, jaquin biar dau, lau gauza onetan sarcen dan icasbide, edo doctrinia, pecatu mortalen beian. Pecatu mortala eguingo dau, sinistuten ezpadau Jaungoicuac sinistuteco aguinduten deutzana; eta ecin sinistu leique, ezpadaqui cer sinistuco daben. Pecatu

mortala eguingo dau, artuten ezpadituz, Jaungoicuae ar-  
ceco aguinduten deutzazan Sacramentubac; eta ecin artu  
leiquez, ezpadaqui, cer artuco daben. Pecatu mortal eguin-  
go dau, Jaungoicuae galazoco gauzaric eguiten badau,  
edo aguinduricoren bat eguiten ezpadau, eta ecin aguindu  
au zaindu leique, jaquin baga, cer eguingo daben. Pecatu  
mortal eguingo dau, oracinoe eguiten ezpadau, edo esca-  
tuten ezpadeutza Jaunari, berac escatu deijon nai dabena,  
eta ecin au eguin leique, ezpadaqui, cer escatuco daben.

Eztinot orregaitic, edoccin Christinauc jaquin biar da-  
bela doctrina christinau gustija ciatz, oiatz, eta errotic,  
edo sustrai gustijagaz; ccin gustijac onetara eldu leitequez;  
dinodana da, jaquin biar dabela araco icasbide edo doc-  
trina gustija, ccin jaquin baga, ccin eguin leiquian Jaun-  
goicuae aguinduten deutzan gustija. Naico dozube jaquin  
ceinzuc dirian onec. Ara bada: Jaquin biar dozube, ez-  
taguala Jaungoico bat bacarric baño. Jaungoico au dala  
sariemoile, edo erremuneradoria: au da, bacotzari emo-  
ten deutzana eguitade, edo obracgaitic mereci daben sa-  
rija; onai ceruba, eta dongai infernuba. Jaungoico au bat  
bacarric bada bere, Jaungoicotasun onetan dagozala iru  
Persona berezco, edo distinta, ceinzuc dirian Aitia, Se-  
mia, eta Espiritu Santuba, iru persona berezco edo dis-  
tinta, eta Jaungoico eguijazco bat. Iru persona onetatic bi-  
garrena, ccin dan Semia, eguin zala guizon Ama Virgi-  
niaren errai garbijetan; irago evala pasinoe gogorra; il  
zala; viztu, edo erresucitadu zala ilen artetic; igon evala  
cerubetara, eta andic etorrico dala, vici, eta ilac juzgue-  
tara. Jaquin bere biar dau edoccin Christinauc, cer dan  
Penitencijaco Sacramentuba, eta cer eguin biar daben on-  
do artuteco, bada eztaguana leguez beste moduric pecatu  
mortalian jausten dana jaguiteco bera baño, eta beste al-

detic izanic ain erraz bertan jaustia, gustiz dau gauza biarra, Sacramentu au, eta ondo artuteco biar dana jaquitia. Jaquin biar dau, comuninoco Sacramentuba, au da, hostija consagraduban artuten dala Jesu Christo berbera, eta cer biar dan ondo artuteco; bada esanic Jesu Christoc, eztala ceruban sartuco, bere gorputza jan, eta bere odola edaten eztabenic, eguingo badau Salvaguiliac dinuana, jaquin biar dau celan beteco daben aguindu au. Jaquin bere biar dituz Legueco amar mandamentubac; bada egonic eurentan Jaungoicuac aguindu, eta eragotziten deuzcuna; ecin au jaquin guinaique, ezpadaquiguz mandamentu oneec. Azquenez, jaquin biar dau, Aita guria; guizonac gauza onic euquico badau, Jaungoicuagandic etorri biar jaca; onetaraco berari escatu biar deutza, eta ecin guizonac jaquin leique, ez cer escatu, ez celan, Aita guria ezpadaqui. Ain da biarra, ain preminatsuba gauza oneec jaquitia, ce ecin inundic bere salvadu leiteque errazoien usura eldurico Christinauba, eurac ezpadaquiz.

Onezaz ostian; bacotzac jaquin biar dau bere egoera edo estadubari, eta oficijuari dagoquijon doctrinia. Esconduba zara? Bada pecatu mortalen beian jaquin biar dozu, cer dan esconza, edo Matrimonijoco Sacramentuba; eta cer aguinduten jaquen escondubai; celan vici biar zarian ceure senar, edo emastiagaz; cer eguin biar dozun ceure seme eta alabacaz; celan aci biar dituzuzan, ez bacarric verbiagaz, baita egemplu onagaz bere; celan maniatu, edo gobernadu biar dozun ceure echia. Tratulari zara? saldu erosijetan zabilz? Jaquin biar dozu celan, cegan, ce modutan gauzia saldu al cinaijan, lucreriya ez izateco; ce irabaci modubac dirian artezac; ceinzuc bide bagac, eragotzijac, eta pecatu: verba baten, jaquin biar dozu, ce tratu eguin cinaijan garbiro, eta pecatu baga. Alcate za-

ra, Fiel, edo Erregidore? jaquin biar dozu, ofiçijo ori ondo beteteco biar dan gustija; eta eztaquizun gauza gachen bat jazoten bajatzu, itandu, ceue baño obeto daquijenen bati, abasberuan, edo edoecin modutan erabagui baga. Ofiçijo onegaitic dinodana, dinot beste edoecimberegaitic, eta alan eurretan sarcen danac, enrac ondo beteteco jaquin biar dabena, jaquin baga, pecatu mortala eguingo dau. Onei ezteutze valijo esatiac: enequijan, ori pecatu zana; enequijan ori eguin biar nevanic, eta beste onelaco achaquijac; bada ofiçijua artuten dabenac, jaquin biar dau, bera celan ondo beteco daben, bestelan beti dago pecatu mortalian, euren vorondatez ifini dirialaco, utz eguiteco pelleburuban. Onccc eguin biar dabecna da, eguin aleguina, jaquiteco eurai dagoquijuená, itandu obeto daquijenai, eta urten, al daijen lasterren euren ez jaquitetic.

Eta cembat gach ez ete datoz doctrina christinauba, ez jaquitetic? Dacuzcuz mutil, eta nescatilla, urtectan aurre-ratubac, eta venturaz guizon, eta emacume escondubac, uste dabecnac, eztaguala seigarren mandamentuben contra beste peccaturic, araguijagaz eguiten dana baño; eta orregaitic eztaunquez peccatutzat, ez verbaric lotzagarrijenac, ez oracadaric ezainenac, ez ucututerie ciquinenac, ez mosuric errienac. Dacuzcuz tratulari asco, eta asco, edoecin lucreriija modu peccatutzat eztaunquezanac; diruric prestetan badabe, euneco onembeste darne; gauza charra, edo uste-la onzat, eta onaren precijuan, saldu al badaije, poz pozic eguiten dabee; eta irabaci on bat badator, eztabe beguiratuten artez, ala oquer badator. Cembat, eta cembatec uste dabe aurquituten dabecna eurena dala? eta uste onegaz, cerbait topetan badabe, eurenzat gordetan dabee itandu baga, ez jaquin gura baga, nor dan jauvia, edo nore galdu daben. Guraso asco dacuzcuz eztaunquezanac peccatu

mortalzat euren seme, alabai ezarten deutezan madaricacinoe, eta biraoric icaragarrijenac. Eneueque amaituco, esan gura banituz doctrina christinauba ez jaquitetic datozen pecatu gustijac.

Nundic, edo cetatic ete dator doctrina ez jaquite aintacaltetzu au? Asco dira gach onen sustraijac; bacarric esango ditudaz lenen, edo principalenac. Lenengo, dator doctrinia iracatzi biar dabenen arduracetic. Cembat guraso dacuzcuz, eztabeela arduraric artuten, euren umiai icasbide, edo doctrinia iracasteco? Edonun aurquituten dira zorci, bederatzi urte, eta gueijagoco mutil, eta nescatila, ozta, ozta daquijenac sinatuten, edo ceimbat Jaungoico dagozan; beste asco amalau, amabost urteco, ez bacarric confesadu, eta comulgadu eztirianac; baña eztaquijenac, cer dan confesinoia, cer biardan ondo confesetaco, cer dagan hostija consagraduban; cer dan comulguetia, eta celan eldu biardan Jesu Christoren gorputza artutera. Ez-jaquite onetanche aciten dira, ez-jaquite onexegaz esconduten dira, eta curac ez jaquinic, ecin euren semiai iracatzi leijue. Cembat ugazaba, cembat echeco jaun, eta andra aurquituten dira, euren crijadu, crijadai bein bere doctrinia itandu ezteutenac? Eztabe arduraren apurric artu gura, beguiratuteco daquijen ala ez. Eta cer jazoten da? Asco, eta asco urte lueietan dagoz otzein, sartu cirianian ezpequijen, inos eztabe icasten; eta bequijen, astuten jaque. Itanduten jaque onci doctrinia, eta icusiric, eztaquijela, esaten bajaque, cegaitic icasten eztabeen? bertatic erantzuten dabe: eztaucat noc iracatzi; echian eztabe itanduten. Bigarrenengo; dator jaquinez au ascoren ardura, eta gogoguchitic: astegunac iragoten dira echeco arazu, eta cereguinetan; dator jaijeguna, eta Jaunari egun au emon biarran, eta irago biarran arimien oneraco gauzetan, eta

onen artian doctrinia icasten, gustija emoten da jolaz, olgura, danza, erromerija, taberna, joco, eta beste zoraquerija galgarrijetan: eta orra cegaitic eztaguan doctrinia icasteco demporaric. Irugarren; dator sobervijatic. Ascoc, eta ascoc uste dabe doctrinia icastia umienzat baño eztala; eta lotzagarriztat dauque, cerbait jaquin ez arren, itandutia, edo villatutia, norc iracatzi deijuen; eta deunguen dana, iracurten jaquin arren, icasbide edo doctrinaco cartillia iracurtia. Laugarren; ascogan doctrinia ez jaquitia dator naguitasun, eta alperquerijatic. Cembati, eta cembati astun eguiten jaque doctrinaco sermoe, edo verbaldija enzutia? Ce lucia dan gure Arimazain, edo Curia-  
ren sermoia? ecin enzun leique mesa nagusija, eta ez bertan egoterren, enzuten dabe goxeco mecia; eta alan urte gustijan dagoz, doctrinaric enzun baga; eta orra celan euren vorondatez, eurac gura dabelaco, euren erruz dagozan, ceruraco vidia, ezagutu baga, eta cer eguin biar da-  
been jaquin baga.

Ez eguidazu, bada inoz achauquijaric ecarri doctrinia ez icasteco, ezta bestiai iracatzi biar deutzazubenac bere, ez iracasteco. Gurasuac, benetan nai badeutzezu iracatzi ceuben umiai, etzatzu falta demporaric, ardura au arceco. Dacuzeuna da, nai badozube ofcijoren bat icasi daijen zuben seme, alabac, beste modutan ecin badozube, ifinten dituzubezala ofcijato ataco baten echian; eta paguetan dozubela ceuben diruba iracatzi deijuen. Ofcijoco batec arcen badau norbait icasjardun, edo aprendiztat, ardura andi bat ifinten dau, ofcijua ari iracasteco. Cegaitic, bada, guraso, eta ugazabaac ardura auxe berau ifinico eztabe euren seme, eta crijadubac doctrinia jaquin daijen? Crijadu, crijadai, euren ugazabac doctrinia iracasten czpadeutze, etzaque falta icasteco moduba; euquico dabe lagun,



edo adisquideren bat, nori erregutu, iracatzi deijuela. Alcarregaz joco, barriqueta, eta venturaz, gauzaric galgarri-jenetan emoten dan demporia, iragoco balebe doctrinia alcarri itanduten, dudatzaca, ondo jaquingo leuquee. Ne-guco gabetan sutonduan gorubetan, edo beste cereguine-tan dagozarian, murmuracinoe, hipuin ezain, verba lotza-garri, eta barriqueta gangar orde, alcarri doctrinia itan-du, eta daquijanac eztaquijanari iracasten emongo balitz, guraso, ugazaba, seme, eta crijadu gustijac, ondo, eta ondo jaquingo leuquee. Neure enzula maitiac; eztago acha-quijarie, doctrinia ez jaquiteco, guizonie sor, eta astunc-nac icasi leique, benetan nai baleu. Dacuzcuna da, cer-bait jaquin nai dozubenian aurquituten dozubela, nori itandu, eta noc iracatzi.

*Erasoguinsa.*

Eztauca Christinaubac mundu onetan gauza biarrago-ric, doctrina christinauba jaquitia baño. Ezpadaqui, ecin benetan esan leique, Christinau dala. Christinaubac esan gura dau Christoren guizona, au da, Christoren fedia dau-cana, eta berari verbia emon eutzana, gordeco evala bere leguia: orregaitie, Christinaubaren oficijo, cereguin, eta lan gustija da, legue au jaotia. Ecin oficijo au bete, edo cumplidu leique, bera eztaquijanac, eta ecin jaquin leique, doctrina Christinauba jaquin baga; eta alan, au eztaquija-nac, ecin esan leique Christinau dala. Contu eguizu, gui-zon batec dinuala barberu, osaguile, edo cirujau dala; eta itanduric equinza, edo oficijo oni dagoquijozan gauzac gaitie, eztaquijala, ez celan bizarra eguin, ez celan san-gradu, ez celan epai bat lotu, ez celan zauri bat osatu, ez celan azur bat compoundu, ez beste osaguile, edo cirujau bati dagoquijon gauzaric: sinistuco ceuzquijo oni, osagui-

Je, edo barberu dala, berac dinualaco? Epai, zauri, azur urratu, zan eten, edo beste gachen bat baceunca, dei eguingo ceuzquijs? Lenago sinistuco neuque, esango ceunquiala: ori ezta osaguile, edo barberu, alperrie euquico dituz, nai dituzan paperac. Baña contu daigun, urratuten jatzula azurrembat, eguiten jatzula epai, edo zaurirembat: besterie eztaucazolaco dei eguiten deutzazu; iracusten deutzazu zauri, edo epaija, eta berac eztaqui, ez celan odola gueratu, ez cer ifini zaurijaren ganian, ez celan lotu, ez nundic asi, ez celan amaitu, edo acabadu. Cer eguingo ceunque orduban? Cer esango ceunque? Deritzat, bertatic botaco ceunquiala zugandic, eta esango ceuzquijs: Celan azartu edo atrevietan zara esaten osaguile, edo cirujau zariala, ori baño gueijago ez jaquinic? Etzara lotzatuten, ori aotic bere ateraten? Guzurti embusterubat zara, osaguile, edo barberu orde.

Auxe berau esan leiquezu zuri bere, badinozu Christinau zariala, eta doctrina christinauba ezpadaquizu. Celan esan cinaique Christinau zariala, ezpadaquizu christinaubaren ofiejua? Celan azartu, edo atrevietan zara esaten; Christinau zariala, ezpadaquizu izen oni dagoquijon gauzaric? Christinau batec sinistu biar dau Jaungoicuae sinistuteco aguinduten deutzana: Eguin biar dau bere aguinduba; artu biardau, arcen aguinduten deutzana; eta escatu biar deutzana, escatu deijon, nai dabena. Orra Christinaubaren ofiejua. Celan bada sinistu erasoco dozu Christinau zariana, ezpadaquizu Christinau izateco biarren biarren dana? Nun dozu Christinaubaren ezaugarri, edo seña- lia? Lotzagarrizco gaucia benetan, baita negargarrija bere. Itanduten bajaco zapatari bati, zapata josten daquijan; arotz bati, zura landuten daquijan, edo errementari bati, ulce bat eguiten daquijan; bertatic eranzungo dau aserre

moduban: Eztot jaquingo, orixe bada nire officijua? Ondo negoque, aimeste urtian icasi ezpaneu, ori eguiten. Auxe berau eranzun biar leuque eguijagaz, eta benetan, edoccin Christinauc bere: Eztot doctrinia jaquingo orixe bada nire officijua? Ondo negoque ori ezpanequi, aimbat urtian Christinau izan ezquero. Au eguijagaz eranzun ecin daijanac, ecin esan leique Christinau dala.

Orregaitic, Christinauba, zure lenengo cereguina, lenengo arduria, lenengo lana, doctrinia ondo jaquitia izan biar da. Au ezpadaquizu, alperric jaquingo dozuz mundu onetan izan dirian, dirian, eta izango dirian guizonic jaquitunenac icasi al leijen gustija; ezteutzu gusti onec ecer balijoco; onec gustijoc baño jaquinsubago izango zara, icasbide, edo doctrinia jaquinagaz. Ea bada Christinau zariala dinozuben gustijoc; guizon, eta emacumiac, zarrac, eta gastiac, guraso, eta umiac, ugazaba, eta otzeinac, andi, eta chiquijac; campora achaquijac; campora naguijac; campora lotza, eta bildurra; eta icasi ceuben officijua; jaquin al daizuben onduen Jaunaren borondatia; eta ezagaturic, cein dan, bete al daizun oso osuen, bere leguia; modu onetan izan zaitecen Christinau benetacuac, eta zainduric bautismuan Jaunari ezquini ceunzana, orduban berac opa entzun betico vicitzia, arta daguizuben bere aitaren echian. Amen.

# ICASBIDE EDO DOCTRINA CRISTINAUBAREN

LENENGO ZATI, EDO PARTIA,

CEIN DAN

CER JAQUINGO DAVEN.

## III. VERBALDIJA.

*Nun adi erasoten dan, cer dan Credua, eta bere lenengo articulu: Sinistuten dot Aita Jaungoico gustiz alsu, edo poderoso, ceru lurraren Eguile, edo Criadoriagan.*

**E**guinic Jesu Christo gure Juunac amabi Apostolubac mundu gustico Maesu, Elexaco lenengo arri, eta bere legue barrico predicadore; aguindu cutzen, juan ceitezala mundu gustitic, eta predicadu eijuela Evangelijua guizon gustijai. Igon ezquero Salbaguilia cerubetara, eta jatziric Espiritu Santuba euracana, artu citubezan euren Maesubaren aguinduba obedietaco goguae: baña bata bestiagandic alderatu, edo apartadu baño lenago, uste izan even, gustiz zala biarra compoundu, eta ifintia fedeco erreguela bat, nun zarraturic aurquitu ceitezan laburrian, Elexara etozanac sinistu biarco even gustija. Apostolubac compoundurico erreguela onixe dei eguiten deutzagu Credua. Iru errazoe euqui citubezan Apostolubac onetaraco: bata, Elexara etozan gustijac euqui eijen, ez bacarric fede bat, ez bacarric siniste bat, baita bere barruco fediareni adi eraso modu bat, edo confesinoe, eta esan modu bat; bata bestiagandic verbaz bere alderatu, edo apartadu etzeitezan fedian. Bestia; erreguela au izan cedin Christinau gustijen ezaugarri, edo señalía, eta bacotzac jaquin al leijan, nor zan, edo etzan Christinau. Irugarrena; Christinau gustijac euqui eijen escuerara, eta erraz jaquin al leijen, sinistu

biar even gustija; bada izaníc ain laburra, edoecin guizon, dan sor, eta astunenac, icasi al leique buruz. Orregaitic, Elexa santubac beti beti eguin dau aleguin guztija, eta ifini dau ardurarie andijena, erreguela au zaindu, eta jao-teco, Apostolubacgandic artu evan moduban, ecerbere gucitu, guichitu, eta aldatu бага, bera ondo jaquinic bere semiac, engañadu ez eguizan demoninuac, guizon ichutuben bitartez eriten dituzan sinisquera guzurti, eta oquerracaz. Auxe da bada orain azaldu, edo esplicuetara noiana.

Da Credua, Apostolubac Espiritu Santubaren arguijagaz compoundu, eta Elexiari emonico fedeco erreguela bat, nun dagan laburrian, chiquijan, edo verba guichitan, Christinau batec jaquin, eta sinistu biar daben gustija. Daucaz iru zati, edo parte. Lenenguan iracasten da, Aitari, edo Trinidadeco lenengo personiari dagoquijona, eta mundubaren eceretico eguitia, edo creacinoia. Bigarrenian; semiari dagoquijona, eta gure Erredencinoeco eguitate, edo obra miragarrija. Irugarrenian; Espiritu Santubari dagoquijona, eta guizonen santutute, edo santificacinoia. Lenengo alde, edo partiac dauca sinistamen, edo articulu bat, eta bertan csaten jacu Jaungoienaren batasuna irutasunagaz, bere onoidade, edo perfeccinoiac, eta ceru, lur, Aingeru, eta guizonaren utzetic eguitia, edo creacinoia. Bigarrenac daucaz sei articulu; euretan dago Semiari dagoquijona, bere sortute, edo araguinza, edo encarnacinoia, bere jaijatza, pasiñoc, crijotza, limbora jazte, viztute, edo erresurreccinoe, cerura igote, eta etorria munduba juzguetara. Irugarrenac daucaz bost articulu; eta euretan Espiritu Santubari dagoquijona, eta gu santutatu, edo santifiquetaco biar dana; once dira, daguala Elexa santuba, Santuben comuninoia, pecatuben parcacinoia, araguijaren viztute, edo erresurreccinoia, eta betico vicitzia.

Orra nun dagozan Credoco amabi articulubac. Amabionee-  
tan dagoz fedeco amalaubac, eta alan bardin bardin da  
esatia amabi diriala, nai amalau. Articulu onetan dagoz  
gure erreliginocco misterijoric lenen, edo principalenac,  
eta alan Credua esanagaz, confesetan dogu, Christinauboc  
daucagun fedia: au da, adi erasoten dogu campotic mijna-  
gaz gueure barruco, edo vijotzeco fedia, eta confesetan  
dogu, eguija ciur, edo ciertutzat daucaguzala, eta sinistu-  
ten dituguzala, fediac iracasten deuzcuzan misterijo gus-  
tijac. Confesinoe au eguin daizuben, biar dan ezaueriagaz,  
eta jaquin daizuben, cer sinistu biar dozuben sinistamen,  
edo articula bacoedian, azalduco deutzubedaz gustijac ba-  
na banaca, al daidan arguijen, asiric orain lenengotic,  
cein dan.

*Sinistuten dot Aita Jaungoico gustiz alsu, edo Poderoso,  
ceru lurren Eguile, edo Criadoriagan.*

*Sinistuten dot.* Auxe da Creduaren asijeria, eta lenen-  
go verbia; eta da, esango baguendu leguez: ciur ciur na-  
go, sendo sendo, eta bildur, eta dudiaren ispi baga sinis-  
tuten dot, vijotz oso osotic, eta confesetan dot mijnagaz,  
fedeco erreguela onetan daguan gustija. Eztinogu uste dot,  
edo deritzat; bada au dinogunian, eguijatzat badaucagu  
bere dinoguna, beti daucagu bildurren bat, alan etc dan  
ala ez; bada izan leiteque, alan ez izatia; baña Credua si-  
nistu, eta dinogunian, eztaucagu onelaco bildurric, eta se-  
guru gagoz, alainche dala, eta ecin beste modutan izan  
leitequiala.

*Aita Jaungoico gustiz alsu, edo Pederoso, ceru lurren  
Eguile, edo Criadoriagan.* Auxe da Credoco lenengo sinis-  
tamen edo Articuluba, ceinetan sinistu, eta confesadu biar  
dogun, daguala Jaungoico bat bacarric; eztaguala eta

ecin aurquitu, edo izan leitequiala besteric, bera bacar bacarric baño. Jaungoico au dala gustiz alsu, edo poderosua, edo nai daben gustija eguiteco, escubidia daucana, eta bera dala ceru lur, eta euretan daguan gustija ccerberecetatic eguin evana. Eztinot guizonac, ezta Ainguerubac eurac bere ecin adi eraso leije, cer dan Jaungoicua, baña alambere aldaigun moduban cerbait ezagututeco, ichumustuban bada bere, dinogu; Jaungoicua dala, Jaunbat, Aingueru eta guizonac uste, eta esan al leijen baño bere, andijagua, miragarrijagua, eta arrigarrijagua. Jaunbat, ona neurribaga, alsu, edo poderosua neurribaga, jaquinsu neurribaga, artez, edo justu neurribaga; eta gauza gustijen asijera, edo principijua, eta asquen, güen, edo fina. Da gustijen asijera, berac gusti gustijac eguin cituzalaco, eta ezalaco aurquituten, berac eguin eztaben gauzaric ceruban, ez luurrian. Da gustijen güena, azquena, edo fina; gustijac eguin cituzalaco beragaitic, eta gustijac arteztuten dirialaco, edo duazalaco beragana.

Gure Jaungoicua, bat bacarric bada bere; Jaungoicotasun bacar onetan dagoz iru persona. Lenenguari deituten jaca Aita: bigarrenari Semia: eta irugarrenari Espiritu Santuba. Dei eguiten jaca lenenguari Aita, bera dalaco beste persona bijen urtaijera, edo beste bijac beragandic datoalaco: berac bere adin, edo entendimentubagaz sortuten dau bigarrena; eta bere vorondatetic dator irugarrena. Bigarrenari dei eguiten jaca Semia, Aitaren adin, edo entendimentuban sortuba dalaco. Irugarrenari dei eguiten jaca Espiritu Santuba, ez Aita, eta Semia Espiritu Santu eztirialaco, ezpada euracgandic bereztu, edo distinguierarren; eta emoten jaco izen au izanic amodijua, Aita eta Semiaren vorondatetic datorrelaco. Orregaitic, Aita ezator inorgandic; Semia dator Aitagandic; eta Espiritu San-

tuba dator Aita, eta Semiagandic: alambere, ez Aita da semia baño zarrago, andijago, ez lenago Semia baño; ez Semia da Aita baño gastiago, chiquijago, ez guerua-go; ez Espiritu Santuba da Aita, eta Semia baño gastiago, chiquijago, ez gueruago: irurac dira bardinac anditasun, izate, jaquituriĵa, betiraute, edo eternidade, eta beste gauza gustijetan. Aita Jaungoico benetacua da, Semia Jaungoico benetacua da, Espiritu Santuba Jaungoico benetacua da; eta alambere eztira iru Jaungoico, bat bacarric baño; bada iru personac, berezco, banacaco, edo distinta badira bere, eztaueque irurac izate, edo naturaleza bat bacarric baño. Aita ezta Semia, ez Espiritu Santuba; Semia ezta Aita, ez Espiritu Santuba; Espiritu Santuba ezta Aita ez Semia; bada irurac izate, edo Jaungoicotasun bat badaueque bere, bacotza da persona berezco, banacaco, edo distintia bestiagandic.

Jaungoicotasunagaitic dinoguna, esan bere biar dogu bere onoidade, edo perfeccinoiac gaitic; eta alan dinogu Aita ccerbercetatic eguiten dabena, edo Criadora da; beti irauten dabena, edo eterna, salvaguilia, eta ceru-emolia da: Semia Criadore, beti diraubana, Salvaguile, eta ceru emole da. Espiritu Santuba utsetic eguile, edo Criadore, beti-dirauban, Salvaguile, eta glori-emole da; baña eztira, ez iru eguile, ez iru betico, ez iru Salvaguile, ez iru glori-emole; ezpada bat bacarric. Orra cegaitic misterijo veneragarri oni dei eguiten jacan Trinidadia; iru dagozalaco baten; eta bat irutan. Ara neure Christinaubac obeto aitu daizuben Trinidadien izen au; dei eguin guinaijo euzqueraz Irucadia; bada onec esan gura dau, iru dagozala baten, eta bat irutan; au da iru persona Jaungoicotasun baten, eta Jaungoicotasun bat iru personatan. Jauna, ecin aitu dot ori celan izan leitequian. Ezta neuc



bere, ezta Theologuric jaquitunenac bere, ezta santuric arguitubenac bere, mundu onetan vici garian artian. Misterijo au bete betian aitutia dago gorderic, Jaungoicua arpeguiz, arpegui ceruban icusi daiguneco; eta alan zarratu beguijac, eta sinistu ichu ichuban, Jaungoicua Elexiari adi eraso deutzana, eta Elexiac dirauscuna; bestelan utz andijetan jausteco pelleburuban vicico zara. Alambere ifinico deutzut irudi bat, cerbait aitu al daizun urrinctic, eta ilunian baño ezpada bere. Arima bat daucazu; arima onec daucaz iru eguial, sensun, edo potencija; gomuta, edo memorija; adin, edo entendimentuba, eta vorondatia: gomutia ezta adin, edo entendimentuba, ez vorondatia; adina ezta gomutia, ez vorondatia, eta orregaitic bere, iru sensun onec eztira iru arima, bat bacarric baño; iru sensun arima baten, eta arima bat iru sensunetan.

Gure Jaungoicua eztauca gorputzic, dalaco Espiritu utz utza, edo puruba. Ezta erraz adi erasotia, cer dan Espirituba; baño alambere ifinico deutzubet irudi bat, cerbait ezagutu al daizuben. Ecin ueatu cinaique, bacotzac daucazula arima bat. Arima orrec, Espiritu puruba dalaco, eztauca gorputzic, eztauca, ez escuric, ez oiñic, ez bururic, ez beguric, ez belarriric; eta alambere zure arima orrec gomutia dauca, aitu, edo entendietan dau, nai dau, eta vici da. Eguija au ceuc ceugan dacutzu ceure barruban; baño ezagutu gura badozu, cer dan zure arima ori, edo adieraso, celacua dan, eztaquizu, ez cer pensau, ez cer esan. Ecin bera icusi cinaique, ecin oratu, ezta ueutu bere cinaijo; eztauca coloreric, eztauca usainic, eztauca gorputzic; eta alambere gurata gura ez, sinistu, eta confesadu biar dozu, izatia daucala, bene benetan daguala zure gorputzian, eta vici dala. Alainehe bada, Jaungoicua bere; Espiritu utz, utz edo puruba dalaco, eztauca escu-

ric, oñic, beguiric, belarriric, ez beste gorputz gauzaric, eta dacuz begui baga, danzu belarri baga, eguiten dau escu baga, verba eguiten dau min baga, eta vici da arima baga. Eguija da sarri, eta sarri, emoten jacazala Jaunari Escritura Sagraduban onelaco gorputz, alde, edo partiac; bada dirauzcu, bere escubac eguin dabeela izatia daucan gustija; bere beso senduac eguin dituzala mirarijac; gustija dacuzecla bete beguijac: Creduan dinogu, Jesu Christo daguala jarriric Aita gustija al dabenen escumatatic; baña esacune onectan eztoqu uzte biar, Jaungoicuac daucala oñi, escu, begui, edo belarriric; bada au diranzcu Escritura Sagradubac, gure sortasun, eta astuntasunari adi erasoteco, al dedin moduric onenian, Jaunaren ontasun, erruqui, escubide, jaquiturija, eta beste onoidade, edo perfeccinoe miragarrijac.

Beste gauza batzue dagoz, Espiritu puruban aurquituten dirianac, eta orregaitic Escritura Sagradubac dirauzcu nian, Jaungoicuac daucala onelacoren bat, sinistu biar dogu, bene benetan dagozala beragan. Alan Jaungoicuac dauca benetan entendimentuba, eta vorondatia. Aitac dauca entendimentu, eta vorondatia; Semiac dauca entendimentu, eta vorondatia; Espiritu Santubac dauca entendimentu, eta vorondatia; baña eztaunquez iru adin, edo entendimentu, eta iru vorondate, ezpada entendimentu, eta vorondate bat. Baña eztauca Jaungoicuac gomuta, edo memorijaric; bada izanic au, iragoco, edo aurrian eztaucaguzan gauzac gomuta izan, edo acordetaco, euquiric Jaungoicuac irago dan, eta etorrico dan gustija bere aurrian, eztauca gomuta, edo memoria biarric. Bardin dinogu, Jaungoicua dala artez, edo justuba, ona, jaquinsu, alsu, edo poderosua, eta doatsuba, edo zorionsuba; baña onoidade, edo perfeccinoe onec eztaucaz guizon, edo Ain-

guerubac leguez. Guizon, edo Ainguernuba on, artez, jaquinsu izango bada, bestegandic etorri biar jacaz gauza oneec; eztaunquez eurenenez, eta alan jazo leiteque eurac galceia, edo eurac baga aurquitutia. Jaungoicua barriz, berez, edo bere izatez, edo naturalezaz daucaz, eta alan ecin eurac baga aurqutu leiteque, ecin galdn leiquez, Jaungoicotasunagaz beragaz ganza bat dirialaco.

Jaungoicua da gustiz alsu, edo gustija al dabena, bere naijagaz eguiten dabelaco gura daben gustija; eta eze-recetic eguilia, edo Crijadoria, gustija utzetic eguin evalaco; da Salvaguile, edo Salvadora, gracija emon, eta pe-catubac parcatuten dituzalaco; da glori-emoile, edo glorificadora, gracijan ilten danari emoten deutzalaco bere gloria. Da sariemoile, edo eremuneradora, bacochari emoten deutzalaco mereci daben sarija; onai ceruba, bere aguindu, edo mandamentubac zaindu citubezalaco, eta dongai infernuba, gorde etzitubezalaco. Jaungoicua beti beticua da, beti beti izan da, eta beti beti izango da. Ezta inos izaten asi; ez eguan oraindio munduric, ceruric, ez Aingueruric, eta Jaungoicua eguan bera beragan; ain zorionsu, ain andi, ain jaquinsu, ceinda orainche. Ez da inos ilgo, ez da inos amaitu, edo acabaduco. Eguija da, Ainguerubac, eta gure arimia bere eztiriana inos amaitu, edo ilgo; baña au eztaunque eurenenez, Jaungoicua leguez. Jaungoicua lecu gustijan dago, berac beteten dituz ceru luurac, gustija dacuz, gustija daqui, eta eztago beragandic escutadu al leitequian gauzaric. Jaungoicuaren onoidade, edo perfecioe oneec biar dabe azaldute, edo explicacinoe arguijago bat, oboto ezagututeco bere anditasun miragarrija, eta alan ichiten diudaz beste verbaldijan, al dedin onduen adi erasoteco.

*Erasoguinzá.*

Ez gueunque inos bere astu biar, neure Christinaubac, Jaungoicuaren anditasun neurri baguia; bada auxe izango litzateque asco, guizonic arruena luurreraño humilduric gueratuteco. Ifini bedi guizonic andijena, erregueric alsubena, aguintariric aberatz, sorionsubena, eta lur gustija bere aguindupian daucana Jaungoicuaren aurrian: beguiratu begui cer, eta nor dan Jaungoieua, eta cer dan bera; eta auxe asco izango dau ezagututeco, eztala luurreco inurri bat beste. Jaun onenzat mundu gustija ezta goxeco ijunz tantachubat baño, eta gente gustijac eztira, ezpalira baño gueijago, eta erreinubac dira luurrian agüiri eztan autza. Begüira ce zabalac dirian cerubac, bada gustijac daucaz arra barruban. Ain gauza pusquia badira cerubac, eta mundu guztija, cer izango da guizona Jaungoicuaren aurrian? Ozta, ozta agüiri badira erreinuric zabalenac Jaungoicuaren albuan, cer izango da erreinu onetan ozta ozta icusten dan guizona? Nundic nora, bada, arrotu leiteque guizona? nundic nora equi leique aimbeste antuste?

Eta alambere gauzaric chiquijen chiquijena da asco guizon erua puztuteco. Bestiac baño diru apur bat gueijago equitia, bestiac baño ondasun pusca bat gueijagoren jauve izatia, bestiac baño ezcubide, mende, diñade, honra, edo nobleza pitin, pitin bat gueijago equitiac, arrotu querijaz beteten dau luurrian agüiri eztan simaur puscachu au. Esan eguidazu guizon ichuba: Cer da zue daucazun, eta equi al cinaijan gustija, zure vijotz ori modu orretan puztuteco? Ecer bereez, aixiac daruan autza, gueriza bat, ames laburchu bat. Eta cer zara ceu? Goxian jaijo, arratzaldian loratu, eta iluncian sicututen dan lorachu bat; beingo beinguan irago, eta deseguiten dan lurrunchu bat. Baderichu, au alan eztala esan eguidazu: Nun cengozan

orain oguei, berroguai, iruroguei, edo lauroguei urte? Inumberez. Cer ceuncan orduban? Ecerberetz. Cer cinian? Ecerberetz. Eta cer euquico dozu emetic beste aimbete urtera? ecerberetz. Cer izango zara? Lur zatibat, autz puscabat, simaur ustel, eta atsitu bat. Eta nun aurquituco zara? Ez orain aimbete puztuten zaitubezan gauzeen artian. Baña betico iraungo balebe bere, antuste ain andija emoten deutzubezan gauza orreec, eztaucazu cer arrotu orregaitic. Estaucazuz ceurez, bestegandic etorri biar jatzuz. Cer daucazu bada artu eztozunic? Eta artu badozuz, cetaco puztuco zara, artu ezpacenduz leguez?

Christinaubac, eztago mundu onetan betico iraungo dabenic; eztago berez pobre eztanic, eztago besteren biar eztanic. Jaungoicua bacarric. Auxe bacar, bacarric da berez andija, berez aberatza, berez beticua, berez inor biar eztabena. Cegaitic bada arrotu cinaitequez guizon argal, pobre, eta cadena, ez izanic luur zati, eta autz pusca bat baño? Atzo etorri cinian mundura, eta bijar juangozara mundutic. Atzo etzinian ecer, eta bijar simaur ustel izango zara; eta dempora apur pusca au iragoteco, prestadu deutzubezan alsic, chucherija, eta autztrapu zatar batzuc gaitic ereguico zara bestien gañera? Ez, ez, Christinaubac ez. Ifini gaitezan Jaungoicuaren aurrian, icusi daigun bere anditasun neurri baguia; jatzi gaitezan guero gueure chiquitasunera, eta ezagutuco dogu ozta ozta gariala ar, inurri, edo elchochu bat. Ezauera onegaz beeratuco gara luurren aspiraino, humilduco gara, gueure burubac gustijen asquenengotzat euqui artian; euquico dogu vijotzeco humiltasun benetacua, jarraituco deutzagu araco Jaungoicuaren Semiaric, cein izanic ceruco erregue humildu zan erijotzaraño, eta curutzeco erijotzaraño, eta Jaungoico andijac, noren ain gogoco dan humiltasuna, emongo deuceu ceruban humilic emoten deutzen gracijagaz irabacirico coroa. Amen.

## IV. VERBALDIJA.

*Azaldu, edo espliquetan dira Credoco lenengo articuluco verba oneec: gustiz alsu, edo poderoso, cerubaren, eta luurraren eguliagan.*

**E**san ezquero Credoco lenengo Articuluban: *Sinistuten dot Aita Jaungoicuagan*, bertatic dinogu; Jaungoico au dala gustiz alsu, edo poderosua, edo gustija al dabena. Asco eta miragarrijac dira Jaunaren onoidade, edo perfe-cinoiac, bafia gustijen artian autu, edo escogidu even Apostolubac esatia, zala gustija aldaijana, onetanche zar-ratuten dirialaco beste gustijac; bada esanic, dala gustiz alsu, edo poderosua, dinogu, dala beti beticua; betirauna, edo eternua, neurrialeza, edo neurtu ccin leitequiana, gus-tija daquijana, eta beste beragaitic esan al guinaijan gus-tija; ecin izan leitequialaco gustija al dabena, onoidade, edo perfecinoe gustijac euqui baga. Ezta guizonenzat, ez Ainguerubenzat bere, ezagututia, eta guichiago adi eraso-tia gustijac, curac, euregan dirian moduban; au bacarric gueratuten da Jaunaren jaquituriya neurri baguienzat; gue-bacarric ezagutu guinaique, berac fede bitartez adi eraso-nai izan deuzcuna, eta gura izan deuzcun moduban; eta alan bacarric esango deutzubet, cer dirauzcun fediac bere escubide, edo poderijo, bere betiraune, edo eternidade, bere neurtuezgarri, edonun-aurretute, eta jaquiturijaren ganian; emetic, al daizuben moduban, ilun abarrian baño czpada bere, ezagutu daizuben celacua izango dan bere anditasun cabu baguia.

Lenengo bada, Jaungoicua da gustiz alsu, edo poderosua, edo gustija al dabena, berac nai dabena gustija eguiten dabelaco ceruban, eta luurrian, eta au eguiteco, eztau inor biar. Orregaitic, bera bacar bacarric da gustija al daijana, bada beste gustijac ecin ecer leije eurennez, eta bestec lagundu baga. Erregueric andijena cer izango litzateque bacar bacarric, inoç lagundu baga balego? cer valijoco leuzquijo erregue izatiac? Ecerbercz: pobrechuric pobrechubena, eta cadenena baño bere, pobriago, cadenago, eta nequetsubago aurquituco litzateque; baña gure Jaungoicuaç, obraric andijenac, eta miragarrijenac eguiteco, eztau inor biar izan; ain zan andi, ain alsu, ain Jaungoico, munduba eguin baño leenago, bacar bacarric eguanian; ecin da munduba eguin ezquero. Eztago inumbere Jaun oni, nai dabena eguitia galazo al leiquionic. Bein erabagui ezquero, cerbait eguingo dala, edo izango dala, eztago ceruban, ez luurrian, vorondate onen contra ecer leiquianic. Alperric batuco dira guizon, Aingueru, eta Demonino guztijac, Jaunaren aguinduba beteco da. Eguija da Jaungoicua ecin il leitequiala, ecin guzurric esan leiquiala, ecin inor engañadu leiquiala, ecin peccaturic eguin leiquiala, baña ecin orregaitic esan guinaique, ezcala gustija al daijana; bada onecc utzune, edo faltac dira, eta alan ecin eguin badituz, da gustiz alsu, edo poderoso dalaco; eta eguin albaleguiz, ez litzateque izango gustija al dabena. Badinogu articulu onetan; Aita dala gustiz alsu edo poderosua; ezta au, Semia, eta Espiritu Santuba eztirialaco; bada irurac dira gustija aldaijenac; ezpada, izanic Aita gustijen iturri, eta urtaijeria, berari dagoquijo, edo emoten jaca escubidia, Semiari emoten jacana leguez jaquiturija, eta Espiritu Santubari amodijua.

Bigarrenço: Jaungoicua da beticua, betirauna, edo

eternua; ez talaco inos izaten asi, eta ez talaco inos il, amaitu, edo acabaduco. Eztago beretzat, ez iragoric, ez etortecoric; iraguac, eta etorrigo dirianac, gustijac daucaz aurrian. Ezta beretzat demporaric iragoten, ezta inos zaartu, ez zaartuco bere. Ezta orain zarrago, munduba eguin evanian baño, ez orduban gastiago orain dan baño: beti beti dago sen baten. Egunac duaz, eta egunac datoz; astiac duaz, eta astiac datoz; ilac duaz, eta ilac datoz; urtiac duaz, eta urtiac datoz; guizonac duaz, eta guizonac datoz; baño Jaungoicua beti bat, inos bere aldatu, edo mudadu baga. Eguija da, Aingueru, eta gure arimac bere ez tiriana il, ez amaitu, edo acabaduco, eta beti iraungo dabena, baño ez tira orregaitic beticuac, betiraunac, edo eternuac; bada ez tira beti izan, nosbait izaten asi cirian; eta beti izango badira bere, eztabe iraute au euquico eurenaz; ezilcor, edo immortalac badira, Jaungoicuac emonico doia da, eta berac gura beleu, bertatic quendu al leijue; eta biurtu leiquez, izatia artu baño leenago euqueen ecerecerra. Baña gure Jaun, eta Jaungoicua berez, bere izatez da il-ecincorra, edo ecin il leitequiana, eta au eztauca bestec, berac bacarric baño. Orregaitic bera bacarric da betirauna, edo eterna.

Irugarrengo: Jaungoicua da neurriezgarrija, neurribagua, edo ecin neurtu leitequiana; eta alan andijago da ceru-luurrac baño; berac gustijac beteten dituz, gustijac datorquijoz estu, eta balegoz eun milla ceru, gustijac beteco lituquez, eta gustijac labor etorrigo leitequijoz. Bere neurribagaco anditasun au gaiti, Jaungoicua dago lecu gustijetan; eztago baster ain escutu, ain ilunic, nun ezta guan ceruban, luurrian, ez infernuban; eta alan ceru, lur, guizon, Aingueru, eta izatia daucagun gustijoc gagoz Jaungoicuagan, arrainac ichasuan urez alde gustijetatic



inguiraturic dagozan moduban. Baña lecu gustijan badago bere, ecin eccc gachic eguin, ez nequeric emon leijo; infernuban dago, eta ecin ango subac erre leique; lecuric loijenian dago, baña loitu baga; lecuric atsitubenian dago, baña ango usain donguiac nequeric emon baga: ichasoco uren barruban dago, baña ito baga: moduben baten egusquijagaz jazoten dana leguez: dago bere arguija carcabarric atsitu, eta loijenian, baña loitu, ez atsitu baga: dago surtan, baña erre baga; eta bardin beste gauza gustijetan, neque, lanic, edo beste gachic artu baga. Gure Jaungoicua, lecu gustijan daguana leguez, gustija dacuz, gustija daqui, eta gustija ezagututen dau bere neurri, eta cabu bagaco jaquiturijagaz. Eztago beretzat gauza, ez lecu escuturic; gure vijotzeco pensamenturic chiquijena, gure gutariric isilena argui, arguitan dago beretzat. Araco uste dozunian, bacar bacarric zagozala, eta bacartasun onec azarquera, edo atrevimentuba emoten deutzunian, gauzaric lotzagarrijena eguiteco, ainche dago Jaungoicua, eta dacuz eguiquera cital ori. Araco guizonen beguijetatic escutetan zarianian, lotza, edo bildur zarialaco, norbaitec jaquin eztaijan, cer eguiten dozun, ainche dago Jaungoicua; bere beguijen aurrian eguiten dozu, guizonen aurrian eguitiac bildur, eta lotzaz beteco zeunquezan gauza lotzagarri, eta bildurgarri ori. Zoraquerija andija benetan! Ichumendi cinisezgarrija! Bildur jaca guizona guizonari; lotza jaca luurra autz pusca bati; sarri, eta sarri ezta azartuten bildur, eta lotza emon leijolaco, naijen daben gaucia eguiten; eta ezteutza bildur emoten, ezta lotzatuten, auxe berau Jaungoicuaren beguijen aurrian eguitiac. Neure enzula maitiac, ez eguizube inos astu guere Jaunaren onoidade, edo perfeccinoe au. Zagozan lecuban zagozala, nai bacartasunic andijenian, nai iluntasunic ichubenian, ezaizu zeure bijotzian; emen-

gure  
Jaunaren  
onoidade  
edo  
perfeccinoe  
au.

Orotasun  
edo Perfeccinoe  
au.

ehe dago Jaungoicua, berac nacuz, berac daqui, cer eguin gura dodan; eta icusico dozu, celan tentacinoeric gogor, eta andijena eztan asco izango, pecatu erasoteco. Orra cer adi eraso gura dogun, eta cer sinistuten dogun, dinogunian, Jaungoicua dala gustiz alsu, edo poderosua. Icusi daigun orain, cer confesetan dogun dinogunian.

*Cerubaren, eta lurraren eguile, edo Criadoriagan.*

Obeto aitu daguizuben verba oneetan dinogun, eta sinistu biar doguna, leenago azaldu, edo esplicadu biar da, cer esan gura daben Criadoriaren izenac. Modu bitan cerbait eguin leiteque: lenengo: lenago izatia daucanagaz, edo gueijagaz: Esateraco; jostun batec eguiten dau capabat: baña eguiteco, euqui biar dau oijal, edo beste gueiren bat; bada bestelan, ecin leique; bardin jazoten da arotz, arguin, errementari, edo beste edoceimbere oficijocuagaz; cerbait eguiten badabe, lenago zan, edo izatia eucan gauziagaz eguin biardabe, eta orregaitic eztira eguiten daben ganciaren Criadore. Bigarren eguite moduba da: guei-baga, ecerberecetic, edo utzetic: Alainche Jaungoicuae ceru lurrac eguin cituzan; bada orduban ez bacarric, ez eguan luurric, ez eguan ceru, eztinot gueiric, ezta cegaz eguin bere guei au; gustiya zan utza, gustiya ecereza; eta orregaitic da euren Criadore. Izanic ain andija ceruba, ain miragarrijac bertan dagozan egusqui, ilargui, eta izarrac; aimbat generocuac, luurrian aguiri dirian guizon, abere, arbola, lora, eta beste gauzac; etzacan ecer costa au eguitia, etzan obra onetan ecer necatu, ez euan izerdiric emon; berac gura izatia, asco izan zan, gustijac ecerberecetic urte-teco. Esanagaz bacarric; eguin bedi ceruba; eguin bedi lurra; eguin bedi arguija, artu even izatia. Sei egunian

eguin evan Jaunac mundu gustija, eta bertan daguan gustija, eta eztago berac eguin eztaben gauzaric. Onetatic asquenengo eguin evana, izan zan guizona.

Gueratu gaitezcan emenche pusca bat, neure Christinaubac; beguiratu daigun al dogun onduen, celan eguin evan guizona, eta arritu gaitezcan, icusiric Jaungoico battec berari iracusten deutzan on-guria. Ezteutza izatia emoten beste gauza gustijai leguez: eztino, eguin bedi guizona, esan evana leguez, eguin bedi ceruba, eguin bedi lurra, eguin bedi arguija; ezpada ifinico balitz leguez pensescan, celan atera leijan bere escubetatic, orduraño eguin evan gauzaric andijena, obiena, eta miragarrijena, eta esan evan: Eguin daigun guizona gueure ans, eta irudira, eta ifini daigun ichasoco arrain, ceruco chori, abere edo animalija, eta luur gastico aguintari. Alainche eguin evan Jaun andijac. Eguin evan gorputza luurretic, edo bustiniagaz, atera evan arimia ecerecetic, sartu evan, edo batu evan arima au gorputzagaz, eta orra nun aguertu zan lenengo guizona, nori deitzen Adan. Onen saijatzetic eguin evan lenengo emacumia, nori dei eguin eutzan Adanec Eva; eta cein-artu evan bere emastetzat. Onexec dira gure lenengo gurasuac. Bete cituzan jaquiturijaz, arguitu eutzezan euren sensunac; ifini cituzan Paradisuco gozatasun artian, bere ordeco luurreco erregue, eta gauza gustijen nagusi. Gustijai aguinduten deutze obediu deijuela euren esanari, eta alan eguin daijen, ifinten dau euretan guizonaganaco bildurra. Ain guichi iraun beban lenengo guizonaren nagusitasun, eta egoera, edo estadu zorionsu onec, bere eruz izan zan; beste lecu baten azaldu, edo esplicaduco dana leguez. Orra laburrian, celan Jaungoicuac eguin cituzan ceru luurrac, eta cegaitic dan euren Criadoria.

Baña mundu oncc orainguino iraun badau, eta aurrera

iraungo badau, ezta azco Jaungoicuac lenenguan eguitia; jaon bere biar dau bere eguiliac; bada bestelan berbertatic biurtuco litzatēque leengo ecerez, eta utsera. Jaungoicuaren eguitade, edo obrac eztira guizonarenac lezeuac. Guizonac eguinico gauzac bein izatia artu ezquero, eztira bere biar irauteco; nai astu daijala, nai jaramonic ez deijola, nai il deila, iraungo dau orregaitic. Eguiten dau arguinac eche bat, bada nai arguina astu deila, nai jaramonic ezteijola, nai il deila, bardin iraungo dau echiac: baña ezta alan Jaungoicuac eguinico gaucetan. Iraungo badabe, ezta asco lenenguan eguitia, zaindu bere biar dituz eguin cituzanac; eta alan ceru luurac badiraube, ezta bacarric Jaunac eguin cituzalaco, ezpada eguin ezquero, zainduten bere dituzalaco. Euren eguiliac bada zainduten dituz, eta ez bacarric zaindu, baita gobernadu bere. Orregaitic Jaunaren vorondate baga ezta ecer jazoten. Ez iguzquiya jaijotenda, ez ilarguijac urteten dau, ez euriric jausten da, berac aguindu baga. Lurac laboreric emoten badau, arbolac fruturic badacarre, abereric jaijoten bada, Jaungoicuac nai dabelaco, eta berac aguinduten dabelaco, daucaguz on gusti onec. Berac dauca gustijen arduria, ez bacarric gauza nagusijena, baita chiquijen chiqijenena bere. Ardi chiquichu bat, ozta ozta aguiri dan inurrichu bat, elchochuric apurrena, ezta vici Jaunac bere arduria daucalaco baño. Berac dauca gauzaric puscarenen arduria; berac dirianai emoten deutze janari, vicitza, ibilte, izate, eta biar dabeen gustija. Guc eguiten dogun gustija, berac gugaz eguiten dau, eta eguingo ezpaleu, ecin guc guinaique: ez gara duin atzchubat albora eguiteco, berac gugaz ezpaderabil, ezta cirquinchubat bere eguiteco.

Ez bacarric datoz Jaungoicuagandic, guc on, eta zotionecotzat daucaguna, baita dongatzat beguiratuten di-

tuguzanac bere. Berac bialduten dituz nequia, gacha, lana, goscia, egarrija, pobrecia, esturia, guerria, eeacha, eta mundu onetan inguiraturic gauquezan gach gustijac. Betoz nundic nai, edo dala berez jazua, edo dala guizonen vorondate donguiac eguina, edo dala demoninuaren asmu-ba; beti dator Jaunaren vorondatetic. Gogor eguiten jaca gure astuntasun, eta sortasunari au sinistutia, baña verba eguingo badogu fededun Christinau leguez, gurata gura ez sinistu, eta confesadu biar dogu, eztala munduban jazoten, Jaungoicuae eguin bagaco gachic. Baña cer dinot? Ez bacarric datoz bere escutic, ezpada dira deuzcun amodijuaren, eta gugaz daucan arduriaren ezaugarri, edo señaleric ciur, eta segurubenac: joten bagaituz, azotetan bagaituz, neque, gach, eta lampian bagaucaz, ezta gorroto deuzculaco, ezpada gueure oneraco. Pecatari, eta dongac bagara, euren bitartez atera gura gaituz ecandu citatetic, eta ichi eraso gurari galgarrijac, modu onetan biur-tu gaitezcan infernuraco daruagun videtic. Onac bagara, nai dau gachac paciencijagaz eruanagaz, obiac izan gaitezcan, arimaco ondasunac irabaci, eta gueitu daiguzan. Au alan jazoten ezpada, ezta Jaunaren erruba, ezpada gueuria. Seme batec deungaro eguiten dabenian, edo biar dabena eguin gura eztabenian, bere aitac castiguetan badau, asco gura deutzalaco, eta ondu dedin nai dabelaco, castiguetan dau; eta semia ondu biarrian, aserratuten bada, ezta au aitaren erruba, semiaren guestaquerija baño. Auxe berau gue bere esan biar dogu, araco gueure ceruco aitac gachac bialduten deuzcuzanian.

Ez bedi enzun Christinauben aotic, larregui esaten oidan, verba sensun бага, eta fede бага bat. Araco gach, pobreza, neque, edo preminac estututen dabenian, ascoc, eta ascoc esan oi dabe; ondo aasturic nauca Jaungoicuae,

ez edo nau gomuta. Ezacune au, neure enzula maitiac, ezta fediac iracasten dabena, ezta errazoiac bere. Ezta ecer, ez onic, ez gachic munduban jazoten, bere vorondate baga, eta jazoten dan gustija gure oneraco da. Gauza bat baccarrie eztator Jaungoicuagandic, eta da pecatuba. Isten dau eguiten, baña eztau berac eguiten. Emon eutzan guizonari escubidia, nai evana eguiteco, eta ez quenduteren, edo ez indarrie eguiterren vorondate oni, ezteutza galazoten goguac emon deijon gauria, charra bada bere, autu, edo escogietan. Orregaitic guizonac pecatu eguiten badau, berac nai dabelaco eguiten dau, bere vorondate citalagaz; ona autu edo escogidu al daijala, charra, eta pecatuba naijago dabelaco.

*Erasoguinza.*

Credoco lenengo articulu onetan ezagutu biar dogu Jaungoicubaren guranaco amodijuaren anditasuna. Mundu au eguin beban, etzan izan bere biarric eucalaco, ez bere escubide, ondasun, anditasun, edo glorija gueituteco; bada ecin inundic bere aci leiteque, eta ecin ecer emon leijue, berac eguinico gauza gustijac. Mundu au eguin beban guizonari eutzan amodijuagaitic eguin evan. Bai, guizona; zu zorioneco eguiterren, atera cituzan bere escubetatic ceru, luur, eta euretan dagozan gauza gustijac. Ezagutu nai badozu eguija au, beguiratu eijezu euretan dagozan gauzai, eta eztozu aurquituco zugaitic, eta zuretzat eguin eztanic. Cerubac eguin cituzan zure vici lecutzat; egusqui, ilargui, eta izarrac zuri argui eizuben; luurra zuri janari, edari, eta beste vici izateco biar cendubana emon eizun. Ainguerubac, ceure bide guztijetan zaindu ceijezen; verba baten, zuretzat da eguin evan gustija. Arrituric David erreġua Jaunaren guizonaganaco amodijuagaz, cirautzan be-

rari: (1) Cer da guizona, Jauna, ain modutan berorréc gomuta izateco? Edo guizonaren semia, modū orretan ereguiteco? Eguin cenduban Ainguerubac baño puscabat guichiago, apaindu cenduban glorijaz, eta honraz, eta ifini cenduban, zure escubetatic urtenico gauza gustijen ganian. Alan, Jaungoicuac beragaitic eguin evana leguez guizona, alainche guizonagaitic eguin cituzan beste gauza gustijac. Ez evan gura izan besteren aguindupian egon cendizan berian baño, ez eutzun beste aguintari, edo nagusiric ipini, bera baño.

Orra, guizona, celacua eguin cenduzan Jaungoicuac. Orra ce lecu erreguijan ifini cenduzan. Orra cetaraco eguin cenduzan ceure Jaunac. Baña ó zure negargarrizco ichumendija! O lotzagarrizco zoraquerija! Egonic ain honra andijan, asto sensun бага biurtu cinian, dirautzu David erreguiac. (2) Emon eutzun Jaunac gomuta, edo membrija, bera beti goguan euqui cenguijan; emon eutzun sensun, edo entendimentuba, bera ezagutu cenguijan, eta emon eutzun vorondatia, bera ametaco. Au gustijau eguin evan zugaz, emon eutzun anditasunian sendo egon cinaitezan; eta zu, ez bacarric eguin zara asto sensumbaga; ezpada jatzi zara, Jaunac ifinirico lecu eregui, eta honraz betetic, eta ifini zara demoninuaren aspijan. Naijago izan dozu, mempeco cital izan, ez edonoren, ezpada ceure arerijoric gogorrenen, ceure Jaungoicuaren seme, bere ondasunen herederu, eta betico doatsu baño. Gueijagotan euqui dozu, demoninuac isquini deutzun bertatico gurarichu bat, diru puscabat, amesa baño lecnago iragoten dan honrien guerizabat, ceure eguiliac emonico miragarri gustijac baño. Celaco lecu altutic jansi zara? eta celaco ondora eldu zara? Luur gustico nagusi cinian, eta ceure pecatubacaz eguin zara gus-

(1) Ps. 8. (2) Ps. 48.

tijen oin aspico. Eztau gura Jaungoicuac, bera baño beste-  
ric euqui daguizun ceure ganian, eta zuc artuten dozu  
ceure nagucitzat demoninua bera; emoten deutzazu escubi-  
de gustija, eta zagoz prest, aguindu deizun gustija eguiteco.

Ez eguizube uste, neure Christinaubac, au andisca edo  
ponderacinoien bat dala. S. Paulo Apostolubac dirautzu:  
bacotza, nori obedietan deutzan, arexen mempeco dala,  
(1) eta orregaitic pecatubari eta demoninuari obedietan  
deutzanac, bere mempeco eguiten da.

Ce desprecijo andijagoric eguin cinaijo ceru luurren  
eguilari? Ce guichijagotan euqui cinaique araco Jaun, be-  
re ordeco luurrian ifini cenduzana? Bildur izan gaitezan,  
lotzabagaquerija au eguiten, bere escutic gaucazan mundu  
gustijen Jaubiagaz, bada gustiz da icaragarrija, bere escu-  
betan jaustia. Onelaco gauzaric jazo eztaquigun, eztaigun  
inos astu celacuac eguin guenduzan; eta eguin daigun ale-  
guina, ez inos pecatubaren bitartez jausteco, emon euzcun  
honratic; emon deijoguzan esquer andijac, bere escutic ar-  
tu dituguzan mesede neurribagacgaitic, eta amadu daigun,  
bere echian gorderic daucan araco, ez beguic icusi, ez be-  
larriric enzun, ez guizonaren gogora eldu dan betico zori  
ona. Amen.

#### V. VERBALDIYA.

*Celnetan azaldu, edo esplikuetan dirian Credoco bigarren,  
eta irugarren Articulubac.*

**C**redoco bigarren articuluban dinogu: *Eta bere seme ba-  
car Jesu Christo gure Jaunagan.* Articulu onctan sinistu,  
eta confesadu biar dogu, Trinidadeco, iru personetic bi-  
garrena, dala semia; au da: Aita betico, edo eternuac dau-

(1) Rom. 6 v. 16.



cala seme benetaco bat, cein sortu evan bere entendimentutic. Seme au ain da andi, ain Jaungoico, ain anchinaco, betico, edo eternu, cein da Aita bera. Ezta erraz adi erasotia, celan, izanic Aita benetaco, norganic datorren seme benetacua, seme au izan leitequian ain anchinaco, cein da Aita; baña au gach eguiten bajacu, da, mundu onetan dacuzculaco aita gurata, gura ez zarrago izan biar dala, beragandic jaijorico semia baño: baña au ezta alan Jaungoicuagan. Aita eternua beti beti izan da Aita, eta cein izan leiteque Aita beti beti, semia euqui baga. Guizon bat cein izan leiteque aita, semeric ezpadauca, eta alan ezta beti aita, semia daucanetic baño. Orregaitic, izanic Aita beticua, edo eternua, beti aita izateco, beti euqui biar evan semia; eta orra cegaitic dan semia ain anchinaco, cein da aita. Irudi bategaz au cerbait azaldu, edo esplicaduco deutzubet. Ispilu garbi, eta argui baten aurrian ifinten bazara, berbertatic aguertuten da bertan zure irudi benetacua; ceinec, ez bacarric cirudizan bete betian, baña eguiten bere dau zuc eguiten dozun gustija: besua creguiten badozu, berac bere ereguiten dau; buruba badarabilzu, darabil berac bere: gueldiric bazagoz, gueldi dago; bazabilz, dabil; ain modutan, ce cein eguin cinaique, zure irudi orrec eztaiquian gauzaric. Eta cembat dempora iraungo dau zure irudi orrec? Zu ispilu orren aurrian zagozan gustija; ain modutan, ce bacengoz munduba asi zanetic, eta bera amaitu arte gustijan, ainche egongo litzateque zure irudija. Oraindio bere: ispilu ori aurquitu albalciteque, Jaungoicua Jaungoico danetic, eta zu egon bere aurrian, ordutixec icusico litzateque zure irudi ori.

Modu onetanche esan guinaique, edo adi eraso guinaique, datorrela Jaungoico Semia bere Aita beticua-gandic, eta alambere ain dala anchinacua, cein da Aita bera. Jaun-

goicotasunari dei eguiten deutza Escritura Sagradubac (1) orban bagaco ispilu garbi, eta arguija. Jaungoicuaren adin, sensun, edo entendimentuba beti beti dago ispilu oni adi, edo veguira; adi egon, edo veguiratute onetatic, urteten dau Aitaren irudi, edo imaginiac, eta irudi ause da Jaungoicuaren semia, edo Trinidadeco bigarren personia; eta alan S. Paulo Apostolubac dei eguiten deutza Aitaren irudija. (2) Aitaren sensun, edo entendimentubac bere izaite, edo Jaungoicotasuna ezagutubagaz semiac urteten dabelaco, dinogu, semia datorrela Aitaren adin, sensun, edo entendimentutic. Izen ascogaz dei eguiten jaco Jaungoicuaren seme betico oni; bada dinogu, dala Jaungoicuaren verbia, edo itza; Aitaren Jaquituriya, Aitaren, edo Aitagandic sortubacarra.

*Sortu zan Espiritu Santubagandic.*

Jaungoicuaren seme bacar auxegaitic dinogu irugarren articuluban; *sortu zan Espiritu Santubagandic*. Verba oneetan sinistu biar dogu, Trinidadeco bigarren personia, cein dan semia, eguin zala guizon, Ama Virginiaren errai garbijetan, Espiritu Santubaren eguite, edo obraz, eta gracijaz. Etzan Aita guizon eguin, ez Espiritu Santuba, ezpada Semia bacar bacarric. Bigarren Trinidadeco persona oni, guizon eguin zanetic, deitzo Jesu Christo. Deitzo Jesus, ceinec esan gura daben Salvaguilia, Salvazailia, edo Salvadoria, berac salvadu, libradu, edo atera guenduzalaco pecatupetic, eta demoninuaren mempe, edo poderijotic. Deitzo Christo, ceinec esan gura daben orijotuba, edo ungiduba, bera Espiritu Santubac bete evalaco bere onoidade, edo virtute, eta santutasuneco doe gustiz ugarijacaz. Jesu Christo, gure Jauna etzan sortu bere amaren

(1) Sap. 7 v. 26. (2) Paul, ad Cor. 2 cap. 4 v. 4.

sabelian, beste guizonac leguez; bada sorrera, edo sortute onetan ez euan guizonac parteric euqui; gustija izan zan mirari arrigarriz betia, eta Espiritu Santubac inos eguin daben obraric andi, eta Jaungoicozcuena. Misterijo au, al dedin moduban, cerbait ezagutu daguizuben, esango deutzubet, celan jazo zan, eta cembat gauza eguin cirian.

Araco eldu zanian Jaungoicuac bere seme bacarra guizon eguinic mundura bialduteco izentadu, edo señaladuric eucan demporia, aguindu eutzan S. Gabriel Ainguerubari, jatzi ceila cerutic Marija eitzon Virginiagana; eta esan eijola, beragan sortu, eta beragandic jaijo gura zala Jaungoicuaren Semia. Itandu eutzan Virginiac Ainguerubari: celan au jazo leiteque, Jaunari beti garbi izateco verbia emonic badaucat? Eranzun eutzan Ainguerubac: Espiritu Santuba etorrico da zugana, eta ceure osotasun, edo virginidadia galdu baga, zugan sortu, eta zugandic jaijoco da Jaungoicuaren semia. Au enzunic Virgina garbijac, esan eutzan Ainguerubari: Ara emen Jaunaren mempeco, edo esclavia; eguin bedi nigan zuc dinozuna. Ama Virginiaren bai onegaz batera eguin cirian lau gauza. Lenengo: eguin euan Espiritu Santubac gorputz bat Ama Virginiaren odol garbijagaz. Bigarrenengo: crijadu, edo eguin euan ecerbere ecetatic arima bat. Irugarrenengo: gorputz, eta arima au batu, edo unidu cituzan alcarregaz, eta eguin zan modu onetan guizon oso, edo perfeto bat; edo eguin zan Jesu Christoren guizatasuna. Laugarrenengo: gorputz, eta arima alcarregaz batu, edo unidu oncec, nai guizatazun au artu euan beragan, edo unidu euan beragaz Trinidadeco bigarren personiac, cein dan Semia, eta gueratu zan, leen Jaungoico baño etzana, Jaungoico, eta guizon benetaco.

Lau gauza oncec etzirian bata bestien leijan, edo ondoren eguin, ezpada beingo beingo baten, edo berbertati-

co instantechu baten; eta alan Jesu Christoren gorputza etzan lecnago egoin, arimia baño; onec bijoc etzirian alcarregaz lenago batu, euracaz Jaungoicotasuna baño; eta orregaitic, Jesu Christo etzan guizon izan lecnago, Jaungoico baño; ezpada guizon izaten asi zan zanetic, zan Jaungoico bere: baña dinogu; lenengo eguin zala gorputza, guero arimia, guero alcarregaz batu ciriala, eta azquenez unidu ciriala bigarren personiagaz; ecin beste modutan aitu craso leiquiolaco gure astuntasunari misterijo arrigarri au. Izanic Jesu Christo, gure Jauna, Jaungoico benetaco, eta guizon benetaco, daucaz izate, edo naturaleza bi, bata Jaungoicotasuna, edo divinidadia, bestia guizatasuna, edo humanidadia. Jaungoicotasuna dauca aita betico, edo eternuagandic; noganic artu evan, ama baga; guizatasuna, barriz, amagandic aita baga: orregaitic, Jaungoico danez, dauca aita ama baga, eta guizon danez, dauca ama aita baga. Jaungoico danez, da Aita betico, edo eternuagaz bardin bardina jaquituriya, escubide, beticotasun, edo eternidade, eta beste onoidade, edo perfecinoe gustijetan; baña guizon danez, edo guizon dan partez, da chiquijago Aita baño. Daucaz Jesu Christoc, adin, sensun, edo entendimentu bi; bata Jaungoico danez, eta bestia guizon danez: vorondate bi; bata Jaungoico danez, bestia guizon danez. Eztauca gomuta, edo memoriya bat baño, eta au guizon danez; bada izanic memoriya, iragorico gauzen gomuta izateco, eztau biar Jaungoicuac, norenzat eztaguan iragorico, edo etorteco dan gauzaric, bada izanic bere jaquituriya neurri baguia, gustiya dauca bere aurrian, edo presente.

Jesu Christoc eztauca persona bat baño, edo Jesu Christogan eztago persona bat baño, eta au da Jaungoico danez, eta Trinidadeco bigarrena berbera; bada guizon danez,

edo dan partez eztauca personaric. Orregaitic Jesu Christo, Jaungoico eguijazco, eta guizon eguijazco bada bere; edo Jaungoicotasuna bere sensun, edo entendimentu, vorondate, beste onoidade, edo perfeccinoe gustijacaz, eta bardin guizatasuna beragan badagoz bere, onec eztira Christo bi, bat bacarric baño. Eta cegaitic? Jaungoicotasun onec, eta guizatasun onec persona bat baño eztirialaco. Ara irudi bat, obeto aitu daguizuben. Zuc gorputza, eta arimia daucazuz; gorputza ezta arimia; ez arimia da gorputza: arimiac bere izate, edo naturalecia dauca; eta gorputzac beria: eta alan zure arimia, eta gorputza gauza bi dira. Orregaitio bere, zu etzara guizon bi, bat bacarric baño: eta cegaitic? Persona bat baño etzarialaco, edo eztaucazulaco. Alainche bada Jesu Christo bere, Jaungoico, eta guizon izan arren, ezta bi, bat bacarric baño, persona divino, edo Jaungoicozco bat baño eztaucalaco. Jesu Christogure Jaunac persona bat baño eztaucalaco, eta Jaungoicotasun, eta guizatasuna persona onetan bat eguin, edo uniduric dagozalaco, Marija gustiz santuba da Jaungoicuaren Ama benetaco. Ez eutzan Jaungoicotasunari izate-ric emon, ez eutzan ecer gueitu, bada ceru luurren Jauna, beti beti izan da; ecin inorgandic ecer artu leique; ain andi, ain aberatz, ain gustiz alsu, edo poderoso izan zan guizon eguin baño lenago, cein da guizon eguin ezquero; baño benetan izatia emon eutzan guizatasunari, bada bere odolagaz bere erraijetan eguin zan Jaunaren gorputza, Espiritu Santubaren obraz, eta gracijaz. Guizatasun au, persona bat baño eztaucalaco Jaungoicotasunagaz, bat bacarric da Jaungoicotasunagaz, au da; onec bijoc Christo bat bacarric dira, eta izanic Ama Virginia Jesu Christoren ama benetaco, bere guizatasunari izatia emon eutzalaco, da bere Jaungoicuaren ama benetaco, Jaungoicotasuna

guizatasunagaz, bijac persona bategan bat eguinic edo uniduric dagozalaco. Ezcutuba da, eta gure sensun, edo entendimentuben gañeticua misterijo veneragarri au; orregaitic, biar dogu fedeco arguitasun, eta sendatasuna, bera sinistuteco: baña, gach bada bere, celan dan adi erasotia, ifinico deutzubet irudi bat, cerbait aitu daguizuben, ilunabarrian baño ezpada bere. Ume bat sortuten da emacume baten erraijetan; eta jaijoten da beraganic. Emacume au, bene benetan, eta eguija gustijagaz da ume aren ama; alambere emacume onec, ez deutza izatia emon ume gusti ari; gorputza bacarric sortu zan beragandic, ez arimia; bada au Jaungoicuac bacarric eguin evan ecerbecetatic. Orregaitic bere, ume gustija, gorputz, eta arima, da emacume aren seme. Eta cegaitic? Bere erraijetan sorturico gorputz, eta Jaungoicuac ecerberecetatic eguinic arimiac, persona bat baño cztauquelaco. Alainche, bada, Jaungoicotasunac ez eban artu izatia Ama Virginiagandic, baña arturic guizatasunac, onec persona bat daucalaco, edo persona bat dalaco Jaungoicotasunagaz, da Marija gustiz santuba Jaungoicuaren ama benetaco. Emecche ezaguruc dozube, Jesu Christogan eztagozala semetasun bi, bata, ceinegaz dan Aita beticuaren seme, eta bestia, ceinegaz dan Ama Virginiarena, edo bata Jaungoico danez, eta bestia guizon danez; ezpada bat bacarric, eta alan Aita eternuaren semia berbera, da Virginiarena bere; mundu onetan aitac, eta amac seme bat bacarric dauquena leguez.

Badinogu bere, Jesu Christo sortu zala Espiritu Santuben obraz, eta graeijaz; ez evan berac bacarric eguin misterijo arrigarri au, ezpada Trinidadeco iru personae batera; eta esatia, sortu zala Espiritu Santubagandic, da adierasoteco, sortute au datorrela Jaunac deuzcun amodijotic; eta amodijuaren eguitade, edo obraac dagoquijoz, edo

emoten jaco<sup>z</sup> Espiritu Santubari, Aitari escubide, edo poderijua, eta Semiari jaquiturija leguez. Iru personac eguin beeven bere Encarnacinoeco misterijua, etzirian irurac guizon eguin, ezpada semia; eta alan, etzan Aita guizon eguin, ezta Espiritu Santuba bere; bada onecaz etzan bat eguin, edo unidu guizatasuna, semiaren personiagaz, bat eguin, edo unidu zana leguez. Contu eguizube, jostun batec eguin nai dabela soñeco bat beretzat, onetaraco dei eguiten deutzee beste biri, eta iruren artian eguiten dabee jastecua. Eguinic daguanian, jasten dau, beste bijac jasten lagunduten deutzeela: Irurac eguin arren soñecua, eta irurac janci eraso arren, eztira irurac janciric gueratuten, ezpada bacarric erropia bere soñian artu dabena. Auxe berau, bada, jazo zan Encarnacinoian bere: iru personac eguin even guizatasuna, irurac unidu, edo batu even Jaungoicotasuna guizatasunagaz; baña bigarrenac baño janci ez evalaco guizatasuna, bera bacarric gueratu zan guizon eguinic. Jesu Christo sortu bazan bere Espiritu Santubagandic, ezta orregaitic bere Aita; bada onetaraco ezta asco cerbait eguitia; biar bere da, beragandic urtetia, edo berac bere izatetic izatia emotia seme danari; eta alan, guizon batec eguiten badau aulqui, mai, cucha, edo beste gauzaren bat, ezta orregaitic euren aita, beragandic euren izatiac urteten eztabelaco; alainche bada, ecin Jesu Christori dei eguin leijo Espiritu Santubaren semia, baña bai Aita Eternuarena, beraugandic urteten dabelaco, edo beraugandic datorquijolaco bere izatia. Obeto aitu daguizuben misterijo andia; Encarnacinoiac esan gura dau eusqueraz araguincia, edo aragui eguitia; au da esatia, Trinidadeco bigarren personia aragui eguin zala, eta au eguija gustijagaz; bada dirauzcu (1) S. Juan Evangelistiac, Jaungoicvaren itz, edo

(1) Joan cap. i v. 14.

verbia, cein dan semia, aragui eguin zan; baña ez, aragui biurtu zan; bada gueratu zan oso osoric, leen zana leguez Jaungoico, ecer aldatu baga, eta eguin zan leen etzan aragui, edo guizon.

*Erasoguiza.*

Cetara datorrela, deritzazube, Jaungoico baten semia cerutic Iurrera? Cetaraco artu nai dau gure araguija? Emenche bai arritu, eta mututuric gueratu biar gariala, icusiric, Jaungoico baten guizonaganaco amodijo, eta ongura parebaguia. Gu pecatupetic ateraric, bere seme eguiteco gurarijac dacar mundu onetara. Eguin guenduzan Jaun onec bere anz, edo irudira; eguin guenduzan bere ordeco luurrian. Ifini cituzan gure aguindura, bere escubetic urtenico gauza guztijac; eta gura izan evan, mundu onetan gozatasun artian vici izan ezquero, irago guenduzan cerura, beti betico atseguin artian egotera. Zorion gusti au galdu guenduban lenengo guraso Adanen pecatubagaz, eta gueratu guinian erijotzara condenaduric, Demoninuaren mempeco, cerutic erbestetu, edo desterraduric, Jaungoicuaren arerijo, eta gueugan daeuzcuzan gach bildurgarriz inguiraturic. Ain izan zan andija, ain gogorra jausquera au, ain gueratu guinian argal, ain caden, ain podere baga, ce ez gueuncan inundic bere indarric, lengo anditasunera biurtuteco. Ain beera jausi guinian, ain urrin guengozan Jaungoicuagandic, ce ecin inundic bere bergana urreratu al guinaitequezan. Ez eguan luur, ez ceruban, gure cate sendo oneec urratu al leiquezan indarric: alperric batuco cirian munduco Santu, Aitalenen, edo Patriarca, eta Igarla gustijac, alperric aleguin gustija eguingo even Ainguerubac, etzirian asco izango gu aterateco, gueuncan egoera negargarriscotic. Cer eguiten dau, bada,



gure Jaungoico andijac, gu betico galduric gueratu ez gaitazan? Guc beragana igon ecin dogulaco, bera jatziten da gugana. Guc pecatubaren cateiac urratu ecin doguzalaco, berac arcen dituz pecatubaren gachac bere ganian, cateegogor oneec urratuteco. Guc presondegui, edo carcela ilun, atsitu, eta usteletic urten ecin dogulaco, eta bertaco atiac ecin idigui dituguzalaco, ceruco erreguia bera jasten da lecu onetara, gu libre ifintera.

Eta celaco mirarijac eguiten eztitu, zuri pare bagaco mesede au eguiterren? Noc sinistu leiquez, fediac esango ezpaleu? Araco ceru zabalac eztu dituzan anditasun gustija, zarratu, eta estututen da ozta, ozta icusi al leitequian gorputz chiquichu baten. Araco Jaungoico, ceru luur, eta eurretan dagan gustija ecerberecetic eguin cituzana, dago doncella baten sabelian zarraturic. Araco Jaungoico, ceru, egusqui, ilargui, eta izarrac arguiz, eta edertasunez janci cituzana, dago pecatu aneeco araguiz estalduric. Araco Jaun, beti beti izan dana, ceru lurra baño anchinagocua, inos izaten asi ezdana, dago umechu sortu barri eguinic. Araco Jaungoico gustiz alsu, edo poderoso, noren aurrian dagozan macurtu, eta bildurrez icara munduba euren ganian dauqueenac, dago seinchu indar guichico, eta inoren biarreco eguinic. Eta cetaco beeratu aimestera Jaungoico ain andi, ain alsu, edo poderoso bat? Zu lecuric garai, edo alubenera ereguiteco. Zu izanic Adanen seme, Jaungoicuaren seme izan zaitezcan, Jaungoicuaren semia eguiten da Adanen seme. Zu araguizco izanic, Jaungoicozco izan zaitezcan, Jaungoicua eguiten da aragui. Zu lurrezco izanic, ceruco izan zaitezcan, ceruben jauvia eguiten da lurrezco. Zu ilcor, edo mortal izanic, ilezcor, edo immortal izatera irago zaitezcan, ilezcor, edo il ecin leitequiana eguiten da ilcor, edo mortal. Zu Jaunaren anaije

izan zaitez, Jauna bera eguiten da sure anaiĵe.

Ó Jaungoico benetaco baten humiltasun pare baguia guizona honradu, eta lecuric altubenera ereguiteren! Ó guizonaren honra neurri baguia! Emon euzcun bere humiltasunagaz Jaungoicuaren seme eguiteco escubidia, dino S. Juan Evangelistiac (1), bada bera gure anaiĵe nagusi eguini, eguin guenduzan bere anaiĵe, eta bere aita betiaren seme, ereguiten guenduzala, Ainguerubac baño diñade andijagora. Bai, Christiñaubac, ezteutza oraindio Jesu Christoc Aingueruri dei eguin anaiĵen izen gozuagaz, guri leguez. Ezteutza Aingueruri esan inos: Zu zara nire semia, guri gure anae nagusi, Jesu Christogan leguez. Ecin Ainguerubac esan leijue Jaungoicuari guizonac leguez, zu zara nire aita, edo ni naz zure semia; baña guri guizonoi, ez bacarric autortu, edo concedietan deuzcu, ezpada aguinduten deuzcu, esan deijogula ao betian: Aita guria, cerubetan zagozana (2) Eta cegaitic? ez evalaco inos artu Aingueruben izate, edo naturalecia, ezpada Abranen semiena, edo guizonena; au da; etzalaco Jaungoicua, inos Aingueru eguin, guizon eguin zana leguez, dino S. Paulo Apostolubac (3). Beguira, beguira guizona, celaco honra, celaco diñade, eta celaco anditasunian ifini zaituzan Jaunac bere araguinza, edo Encarnacinoiagaz. Jesu Christoren anaiĵe zara, eta Jaungoicuaren seme. Lotza izan zaitez, bada, demoniuaren mempera ostera biurtuten peatuben bitartez; bildur izan zaitez ceure anaiĵe nagusi, Jesu Christoc, zurctzat gorderic daucazan ondasun ugarijac galcen; eguizu aleguina, Jaungoico baten Semiari dagoquijon moduban viciteco, guero ceruban artu daguizun bere herencia oso osuan. Amen.

(1) Joan I cap. v. 12. (2) Mat. 6 v. 9. (3) Hebr. cap. 2 v. 16.

## VI. VERBALDIJA.

*Azaldu, edo espliketan da irugarren Articulo bigarren zatiya, eta isinten da laburrian Jesu Christoren vicitzia.*

**C**redoco irugarren Articulo bigarren zati, edo partian dinogu: *Jaijo zan Marija Virginlagandic.* Jesu Christo, gure Jauna, guizon eguin ezquero, egon zan bere Amaren sabelian bederatzi ila betian, beste umiac egon oi dirian moduban, bere gorputza aciten zala beste gorputzac aci oi diriana leguez euren ameen erraijetan; baña etzan bardin izan bere arimiagaz. Beste seinen arimac eztauque arguituric erazoia, edo eztauque errazoien usuric, euren ameen sabelian dagozan artian; eta alan, eztabe nequeric arcentango iluntasun, estuia, eta ozta ozta cirquinic eguitiac; baña Jesu Christo gure Jaunaren arimia, izatia artu ebanetic, egon zan sensun arguitubagaz: ordutixec euqui evan guizon, eta Aingueru gustijac baño jaquiturija gueijago; eta orregaitic sentietan cituzan erraijetaco lecu estu, iluntasun, eta beste nequiac; eta ordutisec zana leguez gure bitarteco, gustijac opa eutzazan Aitari gure pecatuben orde. Mundu onetan sartu zanetic, asi zan erreguz gugaitic bere Aitari; dino S. Paulo Apostolubac (1), eta onetanche emon cituzan, bere amaren errai garbijetan irago cituzan bederatzi ila betiac.

Bederatzi ila bete onec irago cirianian, urten evan bere Amaren sabeletic; baña celaco mirari arrigarriz betia izan zan jaijotza Jaungoicozco au? Etzituzan urratu, ezta idigui bere, Amaren erraijac, euretatic mundu onetara ur-

(1) Hebreo. cap. 10 v. 7.

teteco. Ain osoric gueratu cirian jaijoten zanian, eta jaijo ezquero, cein da jaijo, eta sortu baño leenago; bada Jesu Christoren gorputzac, irago euan bere amaren araguija, egusquijac vidrijera bat irago oi dabena leguez. Sarri icusi izango dozube, celan egusquijac joten daben vidrijera baten. Egusguijaren argui, edo arraijuac iragoten dabe vidrijuia ausi, idigui, eta erdibitu baga; eta ez bacarric oso osoric gueratuten da, baita bere leen baño arguijago, eta ederrago. Alainche, bada, Jesu Christoc bere irago euan bere ama gustiz doatzubaren erraijetaco araguija, ez bacarric urratu edo idigui baga, bere osotasuna galdu baga, ezpada, garbijago, ederrago, eta miragarrijago ichiten evala. Orregaitic dinogu; Marija, Jaungoicuaren Ama, beti beti izan zala Virginia gustiz garbi, Jesus beragandic jaijo baño leenago, jaijo zanian, eta jaijo ezquero, inosbere, inosbere galdu baga bere osotasun, edo donzellatasun miragarrija. Etzituzan euqui Jaungoicuaren amac bere semiaren jaijatzan, beste emacumiac euren seinguinzetan euqui oi ditubezan min, ala, eta nequiac. Eta cegaitic? Beste emacumiac euqui oi baditubez ain aurmin andijac, edo seinguinzaco ala gogorrac, da, Jaungoicuac lenengo amari, pecatu eguin evanian, bota eutzalaco madaricacinoe, edo maldicinoia: min gogor artian bere seinac eguingo cituzala; eta emacume gustijac, eutracaz dacarrena leguez maldicinoe au, orregaitic dauquez ain ala crubelac seinguinzan. Baña ceruco erreguina onec, ez euan beragaz ecarri lenengo gurasuen pecatuba, eta orregaitic ezta beragan aurquituten lenengo Ama Evari botarico maldicinoia: orregaitic, ez bacarric, ez euan euqui bere seme be-deincatubaren jaijatzan ala, min, ez nequeric; ezpada poz, atzeguin, eta ceruco alegrija artian emon eutzan mundubari bere erremedijoraco Jaungoicuaren senia. Ez euan

Jesus onae ecarri odolic, edo beste umiac jaijoten dirianian, ecarri oi daben loiqueriaric; urten evan bere amaren sa-beletie garbi garbiric. Verba baten; jaijatza onetan gustija izan zan garbitasun, poz, eta atseguina, gustija izan zan Jaungoicozcu.

Eztirauzcu ecer Creduae Jesu Christoren vicitziaren ganian, jaijo zanetic eta bere pasinoeraño; baña gustiz dagoquijo ondo Christinaubari, jaquitia, ee viei modu equi evan bere Jaungoicuac: eta elan esango deutzubet verbal-di onetan, Jesu Christoren vicitzia, laburrian baño ezpa-da bere. Jaijo, eta zorcigarren egunian circuncidadu even; au da, evagui eutzen, guizon zana ezagututen zan lecu-ban, aragui zatibat, eta ordutisee asi zan bere odola gu-gaitic emoten. Circuncisinoe au zan, orain bautismua le-guez, eta ordubanche ifinten jacan izena seinari. Ifini eut-zen izena, izan zan Jesus. Etzan izen au guizon, ez Ain-gueruben batec autu, edo escogiduba; Jaungoicuac berac dei eguin eutzan beragaz. Ainguerubac esan eutzan Ama Virginiari, eta guero S. Joseperi: Jesus izango da bere ize-na. Andie egun guichi barru, etorri cirian iru Erregue Ma-guac, ceinzuc ieusiric izar barri bat, eta ezaguturic oneta-tic, erregue andi, eta alsuben bat jaijo zala, etorri cirian: Jerusalenera, eta iragoric andie Belenera, ainche igarri even, jaijo barri portale zatarchu atan, ain pobre egua-na, guizon, eta Jaungoieo zana; eta atacotzat ezaguturic: adoradu even, eta opa eutzeezan urre, incensu, eta mir-ria. Jaijo, eta berroqueigarren egunian eruan even Marija, eta Josepec ume Jaungoicua Jerusalenera, eta ango Tem-pluban ofrecidu entzeen Jaunari bere Seme bacar, guizon: eguina; emoten eitubezala ama semiagaitic usacume bi. Ainche artu evan Simeon agura santubac seinchuba bere besartian, eta emon eutzazan Jaunari esquer andijac, bere

seme bacarra, munduba pecatupetic ateratera, bialdu evalaco.

Au jazo ezquero, aguertu jacan Aingueruba S. Joseperi, eta esan eutzan: Herodes ibilico zala sein aren billa, vicitzia quenduteco; eta alan artu eguizala ume, eta umiaren ama, eta igues eguijala euracaz Isitura, eta egon ceila ainche, berac esan artian. Bertatic eguin evan S. Josepec Ainguerubaren esana; eta arturic umechuba, eta bere ama, juan zan aimbat legua bidian, ondarza sicu artetic, basamortu icaragarrietatic, Isitura. Ainche egon cirian erbes-tetu, edo desterraduric, Herodes il artian. Erregue au il zanian, aguertu jacan barriro Aingueruba S. Joseperi, eta esan eutzan; biurtu ceila Israelgo lurrera ama semiacaz, bada il ziriala, mutilchu aren vicitzia galdu gura evenac; bafia enzunic Herodesen semia erregue sartu zala bere aitaren ordez Judeaco errietan, bildur izan zan ara juaten; eta irago zan Nazaretheco urira, nun vici izan zan Jesu Christo amabigarren urtera eldu artian. Orduban juan cirian Jesus, Marija, eta Josepe Jerusalenera Pascuetan, urte gustijetan juan oi cirian leguez. Echera biurtuten ciriala, escutadu jaquen Jesus. Araco icusi evenian, etzala aguri aide, eta ezagunen artian, biurtu cirian Jerusalenera, eta ibili cirian iru egunian bere billa. Irugarrenian aurquitu even templuban, jaquitunen artian, enzuten eguala, cer cinuen, eta curai itauniac eguiten eutzezala. Gustijac egozan arrituric ain jaquituriya andiya icusiric, emoten cituzan eranzute, edo errespuestetan. Esan eutzan bere amac: Ene seme maitia, cetaco modu orretan escutadu zaijacuzuz? Zure aitac eta nie atsacabe andijagaz villatu zaituguz. Eranzun eutzan Jesusec: cetaco ibili zare nire ondoren? Etzenquijen, neure Aitaren cereguinetan ibili biar nazana? Au esanic, eldu zan euracgana. Juan zan Nazaret-

hera euraez, eta vici izan zan euren escupe; eta aguindura,

Emetic aurrera, Jesu Christo ogueta amargarren urtera eldu artian, estirauzcu Evangelijuae beragaitic beste gauzaric, ezpada joiala acijaz, alan urtetan, ceinda jaquiturijan Jaungoico, eta guizonen beguijetan. Eldu zanian ogueta amar urtera, guichi gora bera, juan zan Jordaneco ibaira, nun eguan S. Juan Bautista pecatarijac bateatuten, eta euretarico bat balitz leguez, escatu cutzan S. Juani, bautizadu eguijala. Lenenguan gustiz atzera egon zan S. Juan, pecatuben contraco erremedio au emoteco berez santuba zanari; baña jaquinic, auxe zala, utsic ecin eguin leijanen vorondatia, bateatu evan. Etzan saribaga gueratu Jaungoicuaren semiaren humiltasun parebaga au; bada bateo ostian, oracinoian eguala, idigui zan ceruba bere parian; ifini zan Espiritu Santuba usuaren irudijan bere ganian, eta enzun zan, Aita betico, edo eternuac cinuala cerutic: Auxe da neure seme maite, nogan daucadan neure poza. Jordanetic juan zan basamortu itsalsu batera, nun egon zan berroguci egunian, ecerbere ecerbere jan baga, eche baga, luur gogorra baño beste oe baga, eta abereric uzubenac baño, beste lagun baga. Gura izan evan, iru bidar tentadu eguijan diabrubac, berac goituric gure arerijo au, eta argalduric bere indarrac, guc bere errazago aspiratu guenguijan gure tentazaile au.

Amaituric garizuma gogor au, urten evan gure Salvazailiac ermu atatic guizonen beguijetara, egusqui eder bat leguez, munduba arguitutera bere predicacinoiagaz. Asi zan, gustijai iracasten cerutic ecarren legue barrija. Euquiteco noc lagundu eijon lan onetan, batu cituzan icaslari edo discipulubac. Onetatic lenen, edo principalenac izan cirian amabi; ceinzui deitu eutzen Apostoluben izenagaz, edo ifini eutzen Apostoluben izena, eta bialdu cituban uri,

eta errijetatic, ceruco erreinuba prediquetara. Obeto bete eguijen euren oficijua, emon eutzen escubidia, demoninuac gorputzetatic botateco, eta guexuac osatuteco. Eurac, barriz, ebilzan uri, erri, eta baserrijetatic, ceruco maesubac iracatzì eutzen icasbidia prediquetan. Baña icusirie, oncec amabijoc etziriala asco, lecu gustijetan ceruco acija eriteco, autu, edo escogidu cituzan beste irurogueta amabi, eta aguindu cutzeen, juazala binan binan, bere aurretie, bera guero elduco zan uri, erri, eta lecubetara. Euracaz batera cvilen guizonen maesu Jaungoicozco au, iracasten gustijai, cer eguin biar even, ceruco erreinu, eta betico glorijara elduteco.

Sinistu erasoteco mundubari, bera zala Mesias eguijazco, Aitalnen, edo Patriarcai isquinija, Igarla, edo Profetae csana, guizonen Salvagulia, eta Jaungoicuaren semia, mirari andijacaz lagunduten evan bere predicacinoia. Itsubac dacuze, errenac dabilz, sarnatijac garbituten dira, gorrac danzube, ilac viztuten dira, demoninuac urteten dabee gorputzetatic, eta eztago berac eguiten eztaben miraririe. Amaitu, edo acabetan bada ardaua estegubetan, berac biurtuten dau ura ardao gozo. Itsasua aserre badago, bere verba bat da asco, ecachie gogorrena beeratuteco. Juan gura badau, itsasuen erdijan daguan chalupara, uren gafietic emoten dituz pausubac, lur gogorrian balitz leguez, ondatu, eta busti baga. Ezpadauque guizonac, cer jan ermuban, eta gosiac ilie badagoz, bost ogui, eta arrainchu bigaz aseten dituz bost mila guizon. Baña noe esan leiquez, Jesus onac eguinico mirari gustijac? Zan mundu gustijaren jauve, gauza gustijac eucazan bere aguindura; eta alan ceru, eta lurrac, guizon, eta Ainguerubac, abere, eta arrainac, osasun, eta guexuac, vicitza, eta erijotzia, egusqui, eta eurija, eta izatia dauquen gauza gustijac, egozan



bere aguindura; eta berac cerbait nai izatia zan asco, bere vorondatia bertatic eguiteco. Mirari arrigarri onecaz, esagutu erasoten eutzeen guizonai, Jaungoicuaac bialduba zana, bada ecin inoc gauza areec eguin leiquezan, Jauna beragaz ez egonic.

Baña Jesu Christoren mirari gustijen artian andijena izan zan bere santutasun, eta vici moduba. Prediquetan beutzen guizonai; vici ceitezala artez, eta ibili ceitezala onoidade, edo virtutezco videtic; bera joian aurretic bere ejemplubagaz. Badino, berari jarraitu gura deutzanac, ichi biar dabela, daucana; ain pobre eguiten da, izanic gustijen Jauna, ce, munduban jaijoco bada, eztauca beste eche-ric, portale zar, erdi jausi, eta zatar bat baño. Ceruco erregue onen lenengo cumia asca bat izan zan, lasto utsao bere lenengo oia. Mundu onetan vici izan zan ogueta amairu urtetan, ez evan euqui bere echechu bat, nun etzin bere buruba; ez evan euqui ez diruric, ez ondasunic, ez soloric, ez beste mundu onetaco ganzaric. Prediquetan badau humiltasun, malsotasun, eta paciencija, nor bera baño humil, otzan, eta paciencija andijagocoric? Bere erritarrac amildu, edo ach batetic beera bota nai dabe; Escriba, eta Phariseuac aldaijezan asmo gustijac artuten ditubeez, bera galceco, edo guichienez onria quenceco; dei eguiten deutze ordija, hechizeru, magicu, sorguin, Jaungoicuaren are-rijo, biraocari, blasfemu, eta aora datorquijuen gustija; batzubetan, eztabe artu gura errijetan; beste batzubetan arrica eguin gura deutze, eta sarri il nai dabe. Eguiten dituzan mirariric arrigarrijetan dauque cer esan. Ucatu al badaijez, ucatuten ditubez; eta ecin badaijez, dinue. demoninua daucala, eta bere bitartez eguiten dituzala, bada bestelan, bera lezco guizon pecatari, Jaungoicuaren leguia jaoten eztabenac, ecia onelaco mirarijac eguin leiquezala.

Au gustijau etzan asco izan, bere malsotasun, eta pacien-  
cija galdu erasoteco. Ez euan inoc aserraturic icusi, ez eut-  
zan inoc verba garratsic enzun; cembat eta astunaguac ci-  
rian esaten eutzezan errazoiac, aimbat eta erriagua zan,  
euracganaco eracusten euan amodijua; cembat eta citala-  
guac cirian eguiten eutzezan chacharquerijac, aimbat eta  
aleguin gueijago eguiten euan, ceruco bidetic eurac artez-  
tuteco. Esaten badau, eci biar dala araguija penitencija-  
gaz: noc eruan dau, berac baño vici necatubagoric? Abe-  
lechebaten jaijo zanetic, eta curutzebaten il zaneraño, gus-  
tija izan zan nequia, lana, gosia, egarrija, eta pobrecia.  
Evilen erriric erri, eta uriric uri, araguija estalduteco biar  
euan erropia baño beste baga; beti oñez, beti ortosic, le-  
eu, eta bideric latz, eta garratzena izan arren; gueijenetan  
egarriz itoten, eta gosiac ilic, limosnaz artuten evala, jan-  
go evana; batzubetan beruac erreric, izerdija erijola; bes-  
te batzubetan, otzac ilic; egunac biarrian, gabac oraci-  
noian, lurra baño beste oe baga; lo puscabat eguingo bee-  
ban, beti cispuru artian, sarri negarretan urturic, aitari  
erreguz gure pecatubacgaitic, inosbere atseguinic artu  
baga.

*Erasoguinsa.*

Orra, neure Christinaubac, ce vici modu euqui euan  
Jaungoico batec mundu onetan. Orra celaco bidetic juan  
zan glorijara. Berez santuba zan, pecatu baguia zan, be-  
ria euan ceruba, eta bertara sartuteco, ez eucan necatu  
biarric; baña gura izan euan, neque, lan, eta gach andi  
artian vici, guri iracasteco, celaco bidetic ibili biar guen-  
duban, nai baguenduban, eldu betico atseguinetara. Equi-  
jan, astun eguingo jacona gure araguijari, nequepian beti  
ibiltia; orregaitic capitea sendo, eta ona leguez, juan gura

izan evan gure aurretic, gure bere, bere ejemplubagaz vizturic, poz pozic jarraitu guenguijon berari. Onetara<sup>2</sup> dei eguiten deuceu, dirauzcunian: nigana etorri nai dabenac, artu biar dau bere curutzia, ichi bere gurarijac, eta jarraitu niri; bestelan ecin nire diña izan leiteque (1). Auxe berau dirauzcu S. Paulo Apostolubac (2) Ifini eguizubez ve-  
guijac Jesu Christogan, ceinec euqui baga, aibat gach iragoteco preminaric, eta poz, eta atseguin artian egon za-  
tequiala, irago evan curutzia, eta guichitan euqui evan, ain lotzari andijan egotia. Gomuta eguizube, ez eguizube inos astu, celaco gachac irago eraso eutzeezan pecatarijac; eta auxe asco izango da, ez aricatuteco, jazoten jatzube-  
zan naibagacaz.

Eta alambere, ce atzera! ce nagui! Salvaguiliac iracatzirico vide onetan sareco! Ce otz, Jaungoico bati jarraituteco! Nun da gure fedia? Nun da gure errazoia? Jaungoico, ceru lurren jauvia, ain pobre eguiten da guizonagaitic, ce eztauca ondasunic, ez diruric, ez echeric; ozta ozta dauca vici izateco biar daben janarija; eta simaur zatibat baño eztaucan guizona, dabil arrastaca, nundic nora batuco dituzan diru, eta ondasunac, dan modutan dala, beguiratu bere baga, artez, ala oquerra dan bere irabacija. Jaungoico bat dago negarrez inoren pecatubac gaitic; euren paracinoiagaitic dua ermu, eta mendi-jetara, nun iragoten dituzan egunac, eta gabac oracinoian, gose, egarritan, eta gaubela artian, bere Aitari escatuten deutzala, parcatu deijuezala guizonai euren pecatu gustijac; eta guizon pecatuz betiac, eztau ecer eguin gura, bere pecatubac parcatu daquijozan: beti vici gura dau barre, olgura, eta poz artian; astun eguiten jaca penitencija; ecin irago dau baruba, gaubelia, gosia, egarrija, oraci-

(1) Luc. cap. 14 v. 26. Marc. cap. 8 v. 37. (2) Heb. cap. 12 v. 2 et 3.

noia, eta pecatubac parcatu daquijozan eguin biar dabena. Ceru, lur, guizon, eta Aingueruben honragarrija, deshonoradu nai dabee guizon peccatarijac; dinue beragaitic, dala ordija, hechiceru, magicu, eta engañalarija. Dirautze bere arpeguijan, Demoninua daucala, Jaungoicuaren arerijua dala, ezabela jaoten leguia, eta aora datorquijuen lotzabagaquerija gustija; eta berac, ez bacarric danzuz paciencijarie andijenagaz bere arerijuae esan aldeijuezan verbaric astun, eta garratsenac; ez bacarric dago malsotasunie gueldi, eta otzanenagaz, danzuzan guzur, eta falso testimonioric icaragarrijenen erdijan; ezpada ordubanche iracusten deutze amodijoric andijena, dirautzeez verbaric gozuenac, eta eguiten dituz, eurac ceruraco irabasteco, aleguinie andijenac: baña peccatari ichubac, verba gorgorchu bat esaten badeutze, errazoe astinchubago bat enzun badagui, eztau ecer parcatu gura; bertatic aserratuten da, irrituten da, eranzuten dau beste gogorrigo bat, eta eztau paciencijatan eruan nai, beragaitic aimbete paciencija eugui daben Jaunagaitic.

Eta alambere uste dau guizon ichubac, nai daben gustija eguinie, nai daben moduban vici izanie, nequeric irago baga, paciencija baga; olgura, poz, barre, algará, eta jolaz artian demporia emonic, artez artez sartuco dala ceruco erreinuban. Baña engañaduric dago, au uste daben Christinauba. Eztago ceruraco beste bideric, Jesu Christoc erabili, eta berac iracatzi ebana baño. Bera jaocu esaten; bedeincatubac pobriac, bedeincatubac neque artian vici dirianac, bedeincatubac negar eguiten dabeenac, bedeincatubac gose, eta egarri dirianac, onelacuenzat izango dalaco ceruco erreinuba; baña estino bedeincatubac aberatsac, bedeincatubac barre eguiten dabenac, olgura artian, atzeguin andijan, eta jan edanetan dabilzanac, eurenzat

izango dalaco ceruco erreinuba (1) Ez, ez, ez dino olacoric: oquerretara, onelacuacgaitic dinuana da: (2) Zuben dichabaguaia aberatsac, bada euqui dozube ceuben poza. Zuben dicha baguia, aseric zagozanoc; bada gosiac ilic egongo zare. Zori galducuac, barre cguiten dozubenoc; bada negar eguingo dozube. Auxe da ceruraco bidia, eztago besteric. Alperric ibilico zara, guizona, beste bideren baten billa, Jesu Christogana elduteco. Eztau ceruban daganec, ara igon neque, lan, eta gachen bidetic baño. Ortixec ibili dira ceruban dagozan Santubac. Ez eguizu uste, oraindio icusi eztan bide barriren bat idiguico dala, zuc ara necatu baga, aricatu baga, igon daguizun. Eztau zugaz eguingo, bere seme maitiagaz, ezta beste bere servi-zaile, eta adisquideric andijenacaz eguin eztabena. Neure Christinaubac, betico galdubac izan gura ezpagara, ichi daigun infernura daroian bide nasai, eta atseguinsuba; sartu gaitezcan curutzeco bide estu, eta garratzetic; onexec eruango gaitu betico atzeguinetara. Amen.

## VII. VERBALDIJA.

*Azaldu, edo expliquetan da Credoco laugarren articuluba.*

**L**augarren Credoco articuluban dinogu: *Irago, edo pa-  
decidu evan Poncio Pilatosen mempe, edo poderijuen beian:  
izan zan crucificaduba, il, eta obipetu edo sepultaduba.*  
Verba onectan sinistu, eta confesadu biar dogu; Poncio  
Pilatos Judeaco aguintari, edo nagusi zan demporan, ira-  
go evala Jesu Christoc pasinoeric itsalsu, eta icaragarrije-  
na. Guizon, eta Aingueruben minagaz verba eguingo ba-

(1) Mat. cap. 5 v. 3 et seq. (2) Luc. cap. 6 v. 24.

neu bere, eninzateque elduco adi erasotera, Jesu Christo gure Jaunac bere negargarrizco pasinoian irago evan gustija; baña alambere esango dot cerbait aldaidan moduban. Ezagututeco, ce mimbera, ce garratz, ce andija izan zan Jesu Christoren pasinoia; eztaucaugu icusi baño, celan necatu evan Jesus lastana bera irago biarren gomutiac. Aimbeste larritu evan, ain urrian icustiac irago biar cituzan zauri, azote, min, ala, eta lotzarijac, ce bere gorputz gustitic darijoz odolezco izerdijac; ain ugari botaten dau izerdi au, ce, ez bacarric busti eutzan bere gorputz gustija, ezpada eldu zan, luurra bere bustitera. Bada, aimbeste estutu, eta necatu beeban, iragoco cituzan ala, min, eta tormentubac icustiac; cer izango zan, bere gorputz, eta ariman gustijac euquitiac? Daquiguna da, guizon gustijac irago ditubezan gustijac, eztiriala berienen guericia bere, ain ariman, cein da gorputzian.

Bere arimaco atsacabe, eta naibaguiari beguiratu gura badeutzegu, icusico dogu, ecin inundic bere, gueijagora, ezta aimbestera bere, eldu zeitequezala. Berac, inoc baño obeto equijan, cer valijo evan arima batec; eta orregaitic poz pozic, eta vorondate osuagaz emoten zan pasinoe gogor, eta erijotza crubelera, gustijac Jaungoicuaenzat erosterren; baña icustiac etziriala gustijac, eguiten jaquen mesede parebaga onegaz, valijoco; eta asco, eta asco galduco ciriala euren erruz, erdibituten eutzan bere arima caridadian erria. Ecuzan, beste aldetic, ce pecatu icaragarrijac eguiten cirian bere pasinoian; S. Pedroren argaltasuna, ceinegaz bera ucatuten evan; Judasentraicinoe icaragarrija, ceinegaz ifinten evan bere arerijoric crubelenen escubetan; beste discipuluben olloquerija, bada gustijac igues eguiten dabee, bacarric ichiric araco Maesu, noganic artu ditubezan aibat mesede. Ecuzan borreguben go-

gortasuna, Escriba, Phariseo, eta Sacerdotien ichumen-  
dija. Enzuten cituban, esaten citubezan blasfemijac, ere-  
guiten citubezan guzurrac, eta eguiten citubezan diadar-  
rac, euren Jaungoicuaren erijotzia escatuten evenian. Baña  
noc esan leique, noraino eldu zan bere arimaco atzacabe,  
eta naibaguia, enzun eguijanian, Judegu ichubae artuten  
evela euren, eta euren semien ganian araco odol precijo-  
baga, mundu gustija garbitu, eta erosteco asco zana; ja-  
quinic berac emoten beban guizon gustijen salvacinoeraco,  
eurac euren condenagarri biurtuten eveela? Eztago mijnic,  
adi erasoteco, celaco alasco espata zorrotzagaz zatituten  
eutzeen Jesus lastanari bere vijotz amodijoz betia pecatu  
gusti oncec.

Gorputzian euqui cituzan min, eta tormentubai begui-  
rata nai badentzegu; icusico dogu, ain izan ciriala asco,  
andi, eta crubelac; ce ecin guizon batec, sufridu al leiza-  
la, milla bidar vicitzia galdubaga, Jaungoicuac zainduten  
ezpadeutza. Lotuten dabee hortu santuban gustiz irrima  
soca sendo, eta catee astunacaz, eta darne Anas, eta Cai-  
fasen hechera, arrastaca, eta estropezuca, lancian bein  
luurrera jausten zan moduban, eta jauste bacoedian zauri  
andijac eguiten jacazala, oin, beso, escu, eta arpeguijan.  
Andic eruan even Pilatosen aurrera, berac erijotzara con-  
denadu eguijan. Noc esan leiquez, lecu oneetan, eta bate-  
tic besteraco bidetan irago cituzan nequiac, esan eutzezan  
lotzabagaquerijac, eguin eutzezan burla, eta barriac, eta  
iracori eutzezan testimonino guzurtijac? Cembat osticada,  
cembat ucabilcada, cembat maquilacada, cembat belarron-  
doco? Baña au gustijau etzan ecer, azotadu evenian euqui  
evan ala, eta minen parian. Agvinduten dau Pilatosec,  
gustiz irrima azotadu daijela. Au eguiteco, ifinten dabe  
villos villosic; eta lotzariric andijenian; lotuten dabe pilar

baten contra, eta emoten deutzeez bost milla azote, eta gueijago, ain gogortasun andijagaz, ce jausiric aragui zati andijac lurrera, ifinten dira aguirijan azurrac. Urratuten dira zanaç, eta odola darijo bere gorputz gustitic. Eztauca guizonen ancic bere. Au guichi balitz leguez, asmetan dabe borregubac, ozta, ozta inos enzun izango dan gogortasun bat. Eguiten dabee aranzasco coroe icaragarri bat, ifinten deutzee buruban, sacatuten deutzee gustiz irime euren indar gustijacaz, sartuten jacaz bere punta zorrotzac bere buru gustitic, abijetan dira urteten odolezco iturri ugarijac, eta gueratuten da gorputz gustija alde oso baga, zauri andi bat eguinic burutic biatzera.

Etzan onegaz ase Judeguben arrabija, ezebelaco guichiago gura, erijotzaric crubelena emotia baño. Erregu, cematute, eta diadarracaz emon erasoten deutze Pilatosi curutzeco erijotziaren sentencija. Ifinten deutzee bere ganian curutze astun, pisutsu, eta esquerga bat, eta darue, bera lepuan dabela, Calvarijoco mendira, nun jazo zan Articulo onetaco bigarren zati, edo partiac dinuana, ceindan:

*Izan zan crucificaduba.*

Verba oneetan sinistu biar dogu, Jesu Christo, gure Jauna curutze baten josija izan zala. Etzan ondo eldu mendira, nun quendu eutzeezan bere soñecuac, gueratuten zala villosic, eta lotzariric andijenian. Josi even curutzian ulce gogorracaz bere escu, eta oñetatic. Eregui even curutzia, andijagua izan cedin bere lotzari, eta deshonia. Iru orduban egon zan Jesus ona curutzian viciric, guizonen irago al leiquezancen min, ala, eta tormenturic icaragarrienen artian. Ez eucan bere gorputz gustijan, minic vicijenac ez eucazan alde, edo parteric; buruba aranzazco



coroe gogor bategaz zulaturic; arpeguija ucabilcada, eta golpiacaz mallaturic; min, eta auá biastun, eta vinagriagaz mingosturic; solbardac curutziaren pisubagaz idiguiric; lepo, eta bularrac azotiacaz zatituric; escubac, eta oñac ulce gogorrez josiric: eta, beinguan esaterren, bururic biatzera zauri andi bat eguinic. Iru ordu oneec iragoric; izan zan

*Il eta obipetu edo sepultaduba.*

Verba oneetan sinistu biar dogu, Jesu Christo bene benetan il zala. Erijotza au etzan beste gauzaric izan, arimia gorputzetic alderatu, edo apartetia baño, beste guizon gustijen erijotzan leguez: baña, Jaungoicotasuna etzan alderatu, ez gorputzagandic, ez arimiagandic; eta alan gorputza gueratu zan curutzian bat eguinic, edo uniduric Jaungoicotasunagaz, eta arimia jatzi zan infernubetara, Jaungoicotasun beronegaz baturic, edo uniduric. Irudi bategaz au aitu cinaique obeto. Guizon batec dauca ezpatia leca, edo bainan sarturic; arcen dau ezquerrian, eta ateraten dau escumiagaz leca, edo bainatic, eta gueratuten da espatia escuman, eta lequia ezquerrian dabela; espatia, eta lequia gueratuten dira, bata bestiagandic alderatu, edo apartaduric; baña, ez bata, ez bestia alderatuten da guizonagandic, bada, berac daucaz bijac. Modu onetanche, bada, Jesu Christoren erijotzan bere gorputz, eta arimia, bata bestiagandic alderatu arren, eteirian alderatu Jaungoicuagandic, berac eucazalaco bijac. Jesu Christo il zan guizon danez, edo guizon dan partez, baña ez Jaungoico danez; cegaitice Jaungoicua ilezcorra, edo ecin il leitequiana da: alambere dinogu, Jaungoicua il zala, il zan guizatunac, eta ecin il leitequian Jaungoicotasunac, persona bat bacarric dauquelaco; auxe berangaitic dinoguna le-

guez, Jaungoicua sortu, eta jaijozala, eta Ama Virginia dala Jaungoicuaren ama benetaco.

Il bazan Jesu Christo, etzan il, ilteco premina, necesidade, edo il biarric eucalaco, beste guizon gustijoc dau-caguna leguez. Ara au celan dan. Eguin evan Jaunac gu-re lenengo guraso Adan, eta aguindu eutzan, ez eguijala jan, Paradisuben erdijan eguan arbolaco frutatic; cematu, edo amenacetan evala, jaten beeban, bertatic ilgo zala be-ra, baita beragandic etorrico cirian semiac bere. Jan evan Adanec, Jaunac eragotzirico sagarra, eta jausi zan guizon gustijoen ganera erijotzaco sentencija; eta orra nundic da-torquigun, il biarra. Jesu Christo, Jaungoico benetacua za-na leguez, etzan aurquitu sentencija onetan, etzan jaijo Adanen pecatuban; eta alan etzan bere ganian jausi aren ganian ezarri zan erijotzaraco condenacinoia. Il bazan; il zan, berac nai izan evalaco; berac nai izan evanian; be-rac nai izan evan moduban; eta berac autu, edo escogidu evan erijotziagaz. Berac emon ezpaleutza escubidia erijot-ziari beragana elduteco, Aingueru, guizon, eta Demonino gustijac etzirian asco izango, berari vicitzia quenceco. Al-perric batuco cirian Herodes, Pilatos, Escriba, Phariseo, Judegu, eta Soldadubac; alperric eguingo citubezan bere contra aleguin gustijac; bada etzirian asco izango calteric chiquijenic eguiteco, bera, bere vorondatez, ifini ezipalitz euren escubetan, berac Pilatosi esan eutzana leguez: Er-zēunque nigan escubideric euquico, goitic emon ezipalit-zatzu. (1)

Arratzaldeco irurac cirian guichi gora bera, Jesu Christo gure Jauna il zanian, eta egon zan curutzian, il ezquero iluncera artian. Orduban eldu cirian calvarijora Jo-seph, eta Nicodemus, eta eretsi even gorpuba; guero ba-

(1) Joan cap. 19 v. 11.

turic izara garbijetan, obipetu edo sepultadu even achian idiguirico sepultura barri baten, zarratuten eveela sarria losa, edo arri andi bategaz. Gauza bigaitic nai izan evan Jaunac, bere gorpuba obipetu edo sepultadu eguijen; bata, ciurrago, edo ciertubago egon guendizan benetan il zala; bada jaquinic, iru egunian egon zala obipe, edo sepulturan; ciertu, edo ciurrago gagoz benetan il zana; ez talaco erraz, guizon vici bat iru egunian obipe, edo sepultura baten egotia; bestia, bere viztute, edo erresurrecinoia munduban obeto sinistu cedin; bada, ez bacarric esan eyeen Jesusen icaslari, edo discipulubac viztu zala, ezpada obi-jaole egon cirian soldadubac bere, izan cirian, an jazo cirian mirarijen testigu, eta euren bitartez jaquin zan, venturaz Jaunaren discipulubai sinistuco ez jaquiena.

Orra, neure enzula maitiac, Jesu Christoren pasinoe, erijotza, eta sepultura laburrian baño ezpada bere. Eta cegaitic, deritzube, aimbeste irago gura izan evala? Cegaitic, uste dozube, il gura izan evala curutze baten, erijotza ain crubel, ain itzalsu, ain lotzagarri, eta deshonnagarrijagaz? Gugaitic; gu pecatutic, eta demoninuaren mempetic ateraterren. Veguiratu daigun, al daigun onduen, gure Erreliginoeco misterijo arrigarri au, ezagututeco bertan, Jaungoicuaren guganaco amoriaren anditasuna, pecatubaren esquerguetasuna, eta euqui biar dogun gucure arimiaren arduria. Ain izan zan erremedijo baguia gure lenengo gurasuen jausqueria; ain andija bere bitartez gueure ganian, artu guenduban zorra; ain irime gueuncazan loturic Demoninuac bere aguindupian, ce ez eguan criatura gustijetan, guizon nai Ainguerubetan; ez noc gu eregui egoquera atatic, ez noc urratu gure catee astunac; cegaitice guri mesede au eguiteco, pagadu biar zan, Jaunari gueunizan zor gustija. Etzan aurquituten Jaungoicuaren

beian, bera paguetaco duin zan ondasunic; bada izanic moduben baten neurri baguia, Jaungoico neurri baga, eta asquen baga bati eguinico lotzabagaquerija, eta injurija zalaco; biar zan neurribagaco pagu bat, eta au ecin aurquitu leiteque, ez ceru, ez lurrian. Cer deritzube bada eguiten dabela Jaungoico andijac, ain lastan daben guizona, betico galduric gueratu eztedin? Eguiten da bera guizon; artuten dau beragan gure zor gustija; eta bete beian Aitari paguetaco, iragoten dau pasinoe gogorra; galeen dau curutze baten bere vicitzia; eta botaten dau bere zanetaco odol precijo baguia. Pagaduric modu onetan gustiz ugari Jaunari gure zor gustija, eta erosiric gu, ceru lurrrac euqui al leijen ondasunic andijen onegaz; eguin cituzan bere aita, eta gure arteco baquia; atera guenduzan demonino, eta pecatubaren mempe, edo poderijotic, eta irago guenduzan, Jaungoicuaren seme izatera.

Auxe da adi eraso gura doguna, dinogunian, Jesu Christo il zala, gu pecatutic ateraterren. Baña jaquin biar doguna da, ez bacarric atera guenduzala lenengo gurasuen pecatutic, baita mundubaren asijeratic, eta amaitu artian eguin dirian, eguiten, eta eguingo dirian gustijetatic bere; eta alan, ezta inos parcatu, ezta parcatuco bere, Jesu Christoren pasinoe, eta erijotziaren bitartez baño: beronegaz pagadu eutzalaco, guizon gustijac eguin citubezan, eta guero demporetan bere, pecatubacaz eguingo citubezan zorrac. Baña, ez eguizube uste, Jesu Christoc zure pecatuben zorrac pagadu cituzalaco, zuri parcatuco jatzuzala, zeue ecerbere eguin baga: bada ezteutzu ecerbere valijoco ain ondasun andi, eta ugarijac euquitia, ceue aleguina eguiten ezpadozu, merecimentu oneec ceuretu, eta euracaz Jaungoico bati deutzazuzan zorrac paguetaco. Irudi bategaz obeto aituco dozube, au celan dan.

Contu eguizube, erri bateco auzo gustijac dauquezala zor gustiz andijac, eta eztaquela zurico bat bere, cegaz pagadu. Arcecodunac daucaz estura, eta premina andijan; eta ozta ozta viciten bere isten deutze. Dator erri atara guizon chitoco aberats bat, inoribe inoribe zorric ezteuzana, eta noren ondasunac ugarijago dirian pare baga, erri ataco auzuac euqui al daijezan zorrac baño. Dirautze bada erri ataco gustijai: bere zor gustijac pagadu gura dituzanac, doiala bere echera, eta artu daijala, bere zorrac paguetaco, biar daben gustija. Orañ bada; balego eche atara juan gura eztaben auzo bat, edo zorrac paguetaco biar daben diruba, artu gura eztaben bat, onec ez leuque pagaduco bere zorra, ez leuque urtengo zorpetic, ez guizon aberats arec ifini eztabelaco, cegaz pagadu, ezpada berac nai eztabelaco. Auxe berau jazoten da Jesu Christo, eta gugaz bere. Ifini dituz gure vorondatera bere Pasinoe, eta erijotzaco merecimentuben ondasunac, eta dirauzcu: nai dogunian, guazala bere echera, au da Elexa Santura, eta Sacramentu Santubetan artu daigula, nai dogun ondasun gustija, eta pagadu deijogula bere Aitari, deutzagun zor gustija. Baña cer valijoco deuzcu Elexa Santuco Sacramentubetan gueure auquerara aimbat ondasun Jaungoicoseo euquitiac, juan nai ezpadogu, eurac artutera? Beti egongo gara pecatubaren zorpian, beti demoninuaren membian, beti pecatu astunen aspijan, ez, Jesu Christoc mereciz an ezteuzculaco euren parcacinoia, ez eztaucagulaco, cegaz pagadu; ezpada gueuc gueure naguitasun, atzeracunza, edo beste ecandu citalen bat ez ichiterren, artu nai ez togulaco, biar dogun gustija, eta gueijago. Orregaitic munduco pecatu gustijac parcatuten ezpadira, peccatarijen erubã da, ez Jesu Christo gure Jaunac atera ez guenduzalaco pecatupetic, eta ichi ez euzculaco cegaz santutu, eta cegaz aberaztu gueure arimac.

Baguina, biar dan moduco Christinaubac, ez gueun-  
que inosbere astuco Salvaguiliac irago euan pasinoe go-  
gorra, eta erijotza crubela. Egunez, eta gabez erabilico  
gueunque goguan, Jaungoico batec euqui euzcun amo-  
dijua, eta amodijo onen gomutiagaz isioeo litzateque gu-  
re vijotzian beraganaco ezquer onaren gar bicija. Eta be-  
netan; nor erreco ezta, ondo ondo, eta biar dana leguez  
beguiratuten badau noraino elduzan, Jaunac euqui deuz-  
cun on-guria? Ez bacarric jatziten da cerutie luurrera,  
ez bacarric arcen dau pecatu anceco araguija, ez bacarric  
vici da lan nequetsu artian, ez bacarric emoten dau be-  
re zanetaco odol gustija, ez bacarric galeen dau bere vi-  
citzia; ezpada nai dau, iragoten daben erijotzia, izan de-  
din, guizon batec irago al leiquian mimbera, eta lotza-  
garrijena. Noc sinistu leique, fediac iracatzico ezpaleu,  
beste onen beste eguin evala ceru lurren eguiliac pecata-  
ri galdubatgaitic? Mesede siniezgarribat izango litzate-  
que, Jaungoico batec beguiraune bat eguitia; andijagua  
ondo gura izatia; gustiz andijagua, bere arduria euquitia,  
neurribagua beragaz bat eguitia. Cer izango da, bada,  
beragaitic, bera presondegui, eta crijotzatic ateraterren,  
curutze lotzagarribaten vicitzia galecia? Nor azartu, edo  
atreviduco zan uste izaten, mundubaren Jauvia onelaco  
amodijo baten guenera elduco zala? Eta alambere guizon  
bati gogora eldu bere ecin leiquijon humiltasunera, jatzi  
zan gure Jaun, eta Jaungoicua.

Eta ain parebagaco mesede au ezta asco izango, zu  
ezquer oneco eguiteco? Jaungoico baten vijotza su gar  
bicijan erreric daucan amodijua, ezta asco izango, zure  
vijotz ori berotuteco bere? Jaungoico bat ondatuten da

nequezco ichaso baten, zu pecatuben ondotic ateraterren, eta zuc eztozu nequerie chiquijenechubat bere iragoco, Jaun onen aguinduba, eta vorondatia zainduterren? Ezteutzazu ucatuco zeure gorputzari, berac nai daben gurrarichubat? Eztozu puscachubat ceico ceure araguja? Eztozu paciencia puscachu bat euqui nai, verba garratzagochuben bat dirautzubenian, calteren bat eguiten deutzubenian, edo mia puscaren bat sentietan dozunian? Cereguingo ceunque bada, escatuco baleutzu Jaun once eguin daizula beragaitie, berac zugaitie eguin daben beste? Aguinduco baleutzu, artu daguizuzala bost milla azote, eta guejago, euqui daguizula aranzazco coroe icaragarri bat ceure buruban, gueratu zaitezala zauri andi bat eguinie burutic biatzera? Emon daizuzala ceure escu, eta oñac ulce crubel, eta ezquerga batzueaz zulatu, birrindu, eta josi deizubezan zur baten contra, eta egon zaitezala curutze batetic eseguirie iru orduban lotzaririe andijenian? Baña ez, Christinaubac, ezteutzu onelaorie escatuten Jaun once: Nai dabena da, jaon daguizula, berac emonico legue bigun, samur, eta amodijoz beterico bat. Onetaraco etzaituz bacarrie isten, berac lagundu gura deutzu, berac isquiniten deutzu bere gracija, poz pozie, atseguin andijagaz, eta nequerie bapere baga gorde daguizun bere leguia. Eta alambere, astun eguingo jatzu au puscau bere eguitia, zugaitie aibeste eguin daben Jaungoico bat gaitie? Bada benetan dinot, abere, edo animalijac baño sensun guichijagoco, eta ezquer gogorragoco zariala. Abererie uzubenac ezagututen dau, eguiten jacan mesedia, eta jarraituten deutzua bere onguiliari; baña zuc eztozuz ezagutu nai, Jaunac eguin deutzuzan on, eta mesederie miragarrijenac. Christinaubac, ez gaitezcan izan, ain ezquer gogorrequeac gueure Jauviagaz, eztaigun inos

astu Jesu Christoc bere pasinoe, eta erijotziagaz ecarri deuzcuzan ondasunac; eguin daigun aleguina, gomuta onegaz isioteco gucure vijotzac beraganaco amodijuan; modu onetan eldu gaitezana, berac bere erijotziagaz irabaci euzcun glorijara. Amen.

### VIII. VERBALDIYA.

*Azaldu, edo expliquetan da Credoco bostgarren Articulu-  
luba.*

**C**redoco bostgarren articuluban dinogu; *Jatzi zan infernubetara: irugarren egunian viztu, edo erresucitadu zan ilen artetic.* Articulu onen lenengo zati, edo partian sinistu, eta confesadu biar dogu; Jesu Christo gure Jaunaren arimia, gorputzetie curutzian aldendu, edo apartadu eta bertatic, jatzi zala infernubetara. Articulu au ondo aituteco jaquin biar dogu, infernubac esan gura dabela beeco lecuba, edo lurraren barruban dagan lecuba. Lau dira lecu, edo toqui oneec. Lenengua da, condenadubac dagozana, nun iragoten ditubezan neque, lan, ala, eta tormentu, esan, eta pensadu bere leiquiezan baño icaragarrijaguae. Bigarrena da, garbilecu, edo purgatorijua, nun dagozan gracijan il eirianen arimaac, zeinzuc Jaungoicuaaren adisquide badira bere, ez dagoz gustiz garbi; ezteutze Jaunari pagadu, pecatuben bitartez eguineven zorra, eta ecin inor sartu leitequiana leguez ceruban, orbanie chiquijena garbitu, eta zor gustija pagadu artian; dagoz purgatorijuan su icaragarrijen erdijan, garbi garbi gueratu artian, eta zor gustija, asquenengo zuricoraño pagadu artian, eta orduban sartuco dira ceruban. Irugarrena da limbua; esan gura dau lecu iluna. Lecu onetan dagoz,



bautismua artu baga, eta pecatu originala baño, beste baga, il cirianac. Onec estauque min, ala, ez tormenturic, ez euquelaco, euren vorondatez eguinico pecaturic; bafia eztauque glorijaric bere, orbanduric dagozalaco pecatu originalagaz; eta orregaitic eztagoz gracijan, ez cerura sartuteco biardan garbitasunagaz. Laugarren lecubari dei eguiten deutzua Escritura Sagradubac, Abrahamen coleua, edo alzuua. Toqui, edo lecu onetan egozan, mundubaren asijeratic, eta Jesu Christoren erijotzaraino, gracijan il cirian gustijac. Onec beuqueen cer garbitu, edo cer pagadu Jaungoicuaren justicijari, juazan garbitegui, edo purgatorijora; eta an garbitu ezquero, edo ezpenquen cer pagadu, il da bertatic, juazan lecu onetara.

Dinogunian, Jesu Christo jatzi zala infernubetara, eztoqu aitu biar, jatzi zala condenadu, eta demoninua egozan infernura, ez pecatu originalagaz bacarric il cirianac egozanera, ezpada Santubac, eta gracijan egozanac, aurquituten cirianera. Onec egozan icharoten Jesu Christoren etorreria, equijelaco, ordubanche urtengo evecla lecu atatic, eta asico ciriala zorioneco, eta doatsu izaten. Ara au celan zan. Ain modutan gueratu cirian zarraturic ceruco atiac Adanen pecatubagaz, ce ez eguan guizon, ez aingueruben artian, eurac idigui, al leizanic; eta alan ate onec idiguiteco, biar zan Jaungoicuaren semia iltia: orregaitic an egozan Aitalenen, edo Patriarca, eta Igarla, edo Profeta, eta beste santuben arimac, garbiric, eta gracijan begozan bere, ecin cerura eldu leitequezan, ecin glorijara sartu leitequezan. Il zan Jesus ona, goitu cituzan bere erijotziagaz demoninua, eta erijotzia, idigui cituzan ceruco atiac, jatzi zan infernubetara, atera cituzan, an egozan arima santubac, eta ordutixec sartu cirian bertico glorijan, Esan arren, Jesu Christo jatzi zala infernu-

betara, etzan jatzi gorputz, eta arima, ezpada arimia baccaric, Jaungoicotasunagaz batu, edo uniduric. Arima au lecu ilun atan sartu zanetic, izan cirian bedcincatu, an egozan santuben arimac; ordutixec asi zan euren gloria; bada arimiagaz batu, edo unidurico Jaungoicotasuna, aguertu jaquen, cein icusi even arpeguiz arpegui; eta onctanche daguana leguez ceruco gloria, ceru biurturic gueratu zan lecu ilun a. Alambere etzituzan an ichi gura izan, atera cituzan andic beragaz batera, guero demporia eldu ceitenian, beragaz cerura eruateco, eta alan lecu, edo toquia uts utsic gueratu zan.

*Irugarren egunian viztu, edo erresucitadu zan ilen artetic.*

Credoco bostgarren Articulubac dirauzeu: *Irugarren egunian viztu, edo erresucitadu zan ilen artetic.* Jesu Christo gure Jauna il zan Varijacu arratzaldian, viztu zan domeca goxian, eta alan, etzan iru egun oso egon ilic; baña alambere eguija gustijagaz dinogu, viztu zala irugarren egunian; il zanetic, eta varijacu gaberdiraino, izan zan lenengo eguna; bigarrena, zapatu gustija; eta irugarrena; Domequia asi zan gaberditic, eta viztu zaineraino. Viztute, edo erresurrecinoe au, etzan beste gauzaric izan, ezpada bere erijotzan gorputz, eta arima alcarandic aldendu, edo apartadu cirianac, barrico alcarregaz batu, edo unictia. Jaungoicotasuna, etzana leguez alderatu, ez arima, ez gorputzagandic, etzan unidu, edo batu, ez batagaz, ez bestiagaz. Jesu Christoren erijotzan ifini zan irudi, edo eejempluba, bestera aitubagaz, ezagutuco dozube, celan au izan zan. Esan guenduban; Jesu Christoren erijotzan, etzala alderatu, edo apartadu Jaungoicotasuna, ez gorputza ez arimiagandic; eta obeto au ezagututeco, ifini guenduban guizon, ezpata bat bere le-

ca, edo bainan daguala, daucanen irudija; ateraten dau espacia lecatie, eta gueratuten da, leca eta espacia beragaz dituzala. Irudi auxe bestera ifinijagaz aituco dozube erresurrecinoeco misterijua. Contu eguizube, daucala guizon onec escuman espacia, eta ezquerrian bere lequia: zarcen dau espacia lecan, eta orra nun batuten dirian oneec bijoc: baña ecin esan leiteque, guizon agaz batu diriala, ez espacia, ez vainia; bada lenago, ez egozan beragandic alderatu, edo apartaduric. Auxe berau aitubiar dogu, dinogunian Jesu Christo viztu, edo erresucitaduzanian, gorputz, eta arima, leen alcargandic alderaturic egozanac, batu ciriala alcarregaz, baña, ez Jaungoicotasuna, etzalaco inos eucargandic alderatu.

Jesus onaren viztute au etzan, bestien viztute, edo erresurrecinoia lezcua izan. Asco, eta asco, daquigu, il ezquero, vicitzara biurtu ciriana: celacuac dirian Lazaro, Naingo alargunaren seme bacarra, Jairoren alabia, eta Dorcas; baña viztu oneec gustijoc, etzirian erresucitadueurenez, ez euquelaco nai evenian il, eta nai evenian, ilen arteric urteteco escubideric; bestee viztu biar izan cituban. Jaungoicuac daucaz bacarric, vicitza, eta erijotzaeco gnilzac; eta orregaitic Jaungoico eztana, ecin berac nai dabengan il, edo viztu leiteque. Etzan bada onelacua izan Jesu Christoren viztute, edo erresurrecinoia; ez evan onctaraco besteric, edo besteren laguntasunic biar izan; Jaungoicua zan, eta orregaitic bere vorondatera eucana leguez, berac bere buruba viztu evan, berac nai izan evanian, il zana leguez, berac gura izan evanian, berac gura izan evan moduban; eta nai izan evan demporan. Berac eucan lenagotic esanic: Escubidia daucat vicitzia, isteco, eta ostera arecco. (1)

---

(1) Joan. 10 v. 18.

Urtenic Jesu Christoren arimiac limbo, edo lecu ilu-  
netic, andic atera cituzan santubac lagun cituzala; juan  
zan Calvarijoco mendira, nun eguan bere gorputza ilic,  
zauritu, odolustu, ezaindu, eta zatituric. Sartu zan gor-  
putz atan; eta bertatic gueratu zan gorputza, ez bacarric  
viciric, ezaintasun, eta zauri baga, baita bere, milla egus-  
qui baño bere gustiz ederrago. Gueratu zan gorputza  
apainduric glorijaco lau doe, edo dotiacaz, ceinzue di-  
rian, nequezcortasuna, edo impasibilidadia, arguitasu-  
na, edo claridadia, minztasuna, edo sutilecia, eta arin-  
tasuna, edo agilidadia. Lenengo doiagaitic, ecia ecec  
gachic eguin, edo minic emon leijo Jesu Christoren gor-  
putzari, ez subac erre leique, ez espata, edo cañubitac  
zauritu leique, ez beste gauzac minic emon leijo. Bigar-  
ren doiagaz, cein dan arguitasuna, ain gueratu zan eder,  
ain argui, ce aguertuco balitz mundu onetan, egusquiya  
bera, araco eguberdico arguiric andijenian daguanian,  
ilun, ezain, eta balz balzic gueratuco litzateque bere pa-  
re, eta aurrian. Irugarrena da minztasun, edo sutilecia,  
eta doe au daucalaco Salvaguilien gorputzac, irago lei-  
que beste edoceimbere gorputz, erdibitu, urratu, edo da-  
guan lecutic quendu baga; edo egon leiteque, beste gor-  
putz bat daguan lecuban beragaz batera. Alainche urten  
evan obija, edo sepulturatic, au zarratuten evan arriya  
quendu baga, eta oso osoric gueratuten zala: sartu zan  
icaslari, edo discipulubac egozan echian, atiac ichiric  
egozala, onec urratu, eta idigui baga. Laugarrena da  
arintasuna, edo agilidadia: doe au daucalaco Jesu Chris-  
toren gorputzac; berbertatic irago leiteque lecu batetic  
bestera, eta aurquitu, orainche Erroman, eta orainche  
Madrilen, orainche ceruban, eta orainche Iurrian. Ceu-  
gan daucazu prestatasun, edo lastertasun onen irudija.

Zure gogo, edo pensamentuba, ain laster dago Españan, eta ain laster Indijetan, orainche ceruban, eta berberratic infernuban; modu onetanche bada, Jesu Christoren gorputza, ain laster, cein da zure gogua, aurquitu leiteque, berac nai daben lecubetan.

Salvaguiliaren gorputzac urten beban bere obipe, edo sepulturatic gustiz ederric, bere pasinoian artu cituzan balzune, ezaintasun, eta zauri baga; etzituzan ichi gura izan, bere bularrian lancia, eta bere escu onetan ulciac eguin cutzezan bost zaurijac; beragaz euqui gura izan cituzan, ez bacarric mundu onetan, viztu ezquero, vici izan zan artian; baita bere cerubetara igon ezquero, eta orainche bere beragaz daucaz. Errazoe ascogaitic. Lenengo; ciur, edo ciertutzat euqui guenguijan, Jesu Christoc gorputz benetacua artu evala, eta bene benetan il zala; bada eguija onen beti betico testigubac dira, bere gorputzian orainche bere aguri dirian zaurijac. Bigarrenengo; izan zeitezan bere erijotziagaz Demonino, mundu, eta erijotziagandic irabaci evan goitute, edo victorijaren gomutagarrijac; eta alan zauri oneec, ez bacarric, eztabe ezainduten gorputza, ezpada gustiz apaindu, edertu, eta arguituten dabee. Irugarrenengo; peccatarijac uste, edo confianza bete, eta osuagaz beragana eldu deitezan, euren peccatuben parcacinoia ezcatutera, icusiric, deutzen amodijuac, gorde eraso eutzazala, curacgaitic arturico zaurijac.

Erraz jacan Jesu Christori, berac nai izan baleu, il eta bertatic viztu, edo erresucitetia, iru egun luzatu baga; baña gura izan evan, iru egun eguin obija, edo sepulturatan, eta urten ilen arteric irugarren egunian; inoc achauquijaric euqui ez eguijan, ez sinistuteco benetan il, eta viztu zala; bada au eguin baleu il da bertatic, uste,

edo sinistu leitequian, etzala il, ez erresucitadu; ezpada izan zala lo, aldigesto, edo beste jazo oi dan erijotzia dirudijan gauzaren bat; bada au gustijau jazota bere, astun eguin bajaquen discipulu, eta Apostolubēn batzui, sinistutia, Salvaguilia benetan il, eta viztu zala; celan guero demporetan sinistuco zan misterijo arrigarrian, il, eta bertatie vicitzara biurtu balitz? Ezevan iru egun baño gueijago luzatu nai izan, ez luzatuterrēn, bere viztutiagaz bere icaslari, edo discipulu, Elexa santu, eta mundu gustijac artuco evan poza. Onezaz ostian; etzan conveni, araco gorputz bedeincatu, aibat irago evana bere pasi-noian, dempora luzaguan egon cedin, ain ugari irabaci evan, glorijaren sarija artu baga; eta moduben baten, erijotziac bere mempian cuqui eguijan, bera goitu, eta aspiratu evana. Baita bere, viztu zan irugarren egunian, bete ceitezan bere erresurrecinoien ganian, eguini egozan Profecijac.

Ain dira andijac, Jesu Christoc bere viztute, edo erresurrecinoiagaz ecarri euzcuzan mesediac, ce, ecin gustijac adi eraso leiquez, eta alan esango deutzubedaz ezagun, eta andijenac. Lenengo; urtenic berac obipe, edo sepulturatic, atera guenduzan gu pecatuben obipetic. Bigarren-go; emon euzcun uste, edo esperanza osua, gueu bere viztucō guiniala bera viztu zana leguez. Irugarren-go; santutu guenduzan; bada, il bazan gure pecatubacgaitic, urten evan ilen artetic, gu santututerrēn, dino S. Paulo Apostolubac. (1) Laugarren-go; sendatu evan gure fediac; bada jaquinic, Jesu Christoc viztu, edo erresucitadu evan la bere buruba, gurata gura ez confesadu biar dogu, bera dala Jaungoico benetacua; eta au sinisturie, ciur gagoz eguija dala, iracatzi denzcun gustija. Bostgarren-go;

(1) ad Rom. 4 v. 25.

iracatzi euzcun, celacua izan biar zan gure erresurrecinoia. Christoc, ain modutan urten evan ilen artetic, ce ezta gueijago ilgo, eztau ostera bere ganian erijotziac escubideric euquico. Onelacoxia izan biar da gure erresurrecinoia bere; urten badogu pecatuco sepultura atsitutic, ez gara ostera bertara biurtu biar, ez gara ostera pecatubaren erijotziagaz il biar, beti vici biar gara Jaungoicuarrenzat. Azquenez; emon euzcun betico vicitzara elduteco aste, edo esperanza osua; eta moduben baten isquini euzcun, bere gorputz zauritu, ezaindu, eta ila, glorijaco doemiragarrijacaz apaindu, eta edertu evana leguez; alainche nosbait gure gorputz lurrezco, eta ilcorrac, arguitu eta edertuco dituzala ceruban.

Izanic misterijo au gure fede, eta erreliginoeco sustrai, eta cimentuba, gura izan evan Jaunac mundu gustijac ciur sinistu eguijan. Onetaraco jatzi zan cerutic Aingueru bat, arguiz janciric, bere arpeguija arraijo moducua, eta soñecuac eurra baño zurijago. Eguin zan luicara andi bat, eta onegaz batera, quendu evan obija, edo sepulcruen ganjan eguan arrija. Arguitasun, luicara, eta arriquendute onegaz, ain modutan bildurtu cirian, Judegubac ifinirico obija edo sepultura jaoten egozan soldadubac, ce, luurrera jausiric gueratu cirian, ilic leguez. Al izan evenian, jagui cirian, eta esan eutzen Judeguben Abade, edo Sacerdotiai, icusi even gustija. Dei eguin eutzeen Sacerdotiac Zarrai; batu even batzar, edo Concilijua, eta esan eutzeen Soldadu gordezailiai: Diru zati andi bat emongo deutzugube, badinozube; Zubec lotan cengozala, etorri ciriala Jesusen icaslari, edo discipulubac, eta eruan eveela gorputza. Alainche esan even Soldadubac, eta zabaldu even Judegubac; baña ecin gustijai sinistu eraso, al izan eutzeen guzur au. Pilatosec be-

rac escrividu euan, Soldadu jaoliac icusi, eta esan evecna; eta modu onetan jaquin zar, Jesu Christoren viztute, edo erresurrecinoia. Beste modu ascotan bere iracutzi euan Salvaguiliac, benetacua, eta eguijazcua izan zala bere viztutia. Aguertu jaquen, ez bati, edo beste bati, ezpada, bosteun baño gueijagori; jan euan euren aurrian, iracutzi eutzezan bere zauriac, adoradu even sarri. Ain irrimo dago sendaturic misterijo onen eguija, ce bera ucatu gura izatia, izango litzateque zoraquerija, eta ichumendiric andijena.

*Erasoguinsa.*

Sinistuten dogu, neure Christinaubac, Jesu Christoc, benetan viztu, edo erresucitadu zala ilen artetic; baña ezta au asco, erresurrecinoe onegaz etorri jacuzan mesede, eta ondasunetan, alde, edo parte equiteco. Onetara-co jarraitu biar deutzagu Salvaguiliari gueure viztute, edo erresurrecinoian. Jesu Christoc urten euan ilen artetic, ez inos osteria iltera biurtuteco; onelacoxia izan biar da gure viztutia. Pecatubaren obipe, edo sepulturan guengozan. Jesus onac berac ilen arteric urtenagaz, atera guenduzan obipe onetatic; bada bera viztu zana leguez, osteria ez ilteco, alainche gu bere jagui biar gara pccatubetatic, ez gueijago euretara biurtuteco; bada bestelan, ezta benetacua izango gure viztute, edo erresurrecinoia; eta oraindio bere, deungago gueratuco gara, Icen baño; bada au ezta guichijago, Jesusec irabaci euan goitute, edo victorija ilundu, eta deseguitia baño. Ara celan. Adanen pecatubagaitic, Demoninuaren aguindupian guengozan, berac eucan escrituria. Jesu Christoc bere erijotza, pasinoe, eta viztute, edo erresurrecinoiagaz borradu, eta urratu euan escritura au; goitu cituzan arerijo onec, eta



irabaci euan euracgandic triunfo andi bat. Eta cer eguiten dogu guc pecatu eguiten dogunian? Barristadu, Jesu Christoc urraturico escritura au; ifini gueure burubac Demoninuaren mempian; eta biurtu berari Salvaguiliae quendu eutzan nagusitasuna. Eguin leiquijo Jaunari lotzabaquerija andijagoric? Eunki leique Salvaguilia guichijagotan? Ezetz deritzat; bada au da esatia, obagotzat daucala Demoninua, Jaungoicua baño; naijago dabela enqui diabruba jauvetzat, Jesu Christo baño. Astun eguingo jatzu venturaz, sinistutia; baña, ondo beguiratuten badogu, cer eguiten daben, pecatutic urten esquero, barriro biurtuten danac, gurata gura ez, icusico dogu, auxe dala eguiten dabena.

Pecatuban cengozanian, ceuncan ceure ugazaba, eta nagusitzat Demoninua. Pecatutic urten cendubanian, ichi cenduban demoninua, eta irago cinian Jesu Christoren servizari izatera: bera daucazu zeure nagusitzat. Orain bada: baquizu, celacua dan demoninua, eta celacua Jesu Christo; daquizu, celan juan jatzun batagaz, eta bestiaz. Pecatu eguiten badozu, ichiten dozu Jauna, eta zuaz demoninuagana; eta au ezta beste gauzaric, ezpada esatia, naijago dozula diabrubaren crijadu izan, Salvaguiliaren baño, eta au eguiten dozula, ugazaba obatzat daucazulaco satanasa, Jaungoicuaren semia baño; bada bestelan etzeunque ichico, agana juateco. Bai neure Christinaubac, auxe, eta ez guichijago, eguiten dabela, dino S. Paulo Apostolubac, Jesu Christogaz gracijara viztu esquero, ostera pecatubaren obija atsitura biurtuten danac; bada onelacuac burla, eta barre eguiten deutzala Jaunari; eta ain modutan aserratuten dabela Jaungoicua lotzabaquerija onegaz, ce gustiz dala gach ostera gracijara biurtutia. Enzuzu Apostolu andi onec dinuana, bil-

dur izan zaitezan Jaungoicuaren gracijan egon ezquero; pecatura biurtuten: Ecin izan leiteque bein arguitubac izan dirianac, ceruco doia artu dabenac, eta Espiritu Santubaren gracijagaz apainduric egon dirianac, osteran pecatuban jausi ezquero, barriro biurtutia penitencija eguiteran. Cegaitic? Onelacuac barriro curutzian josten dabelaco Jaungoicuaren semia, eta euren burlagarri eguinic dauquelaco. Jaungoicuaren maldicinoia jausi aguinian dago onelacuen ganian. (1) Orregaitic dino S. Pedro Apostolubac: au eguiteco, oba ceunquian, egon ceuben pecatubetan, bada deungago gueratuten zare, leen cen gozan bano. (2)

Urten badozube, bada, pecatuben obipe, edo sepulturatic vicitzara, zagoze sendo artu dozuben gracijan; igues eguizube, ez bacarric pecatubeetatic, baita bere eurretan jausteco pelleburubetatic. Ichi eguizubez gurari cital, aserracunza, gorroto, araguijen gozo, lucrerija, eta beste pecatu gustijac. Vici zaiteze ardura andi bategaz, viztute, edo erresurrecinoe onetan sendo irauteco, araco aguertu deinian, gugaitic il, eta viztu zana, aurquitzaguizan gracijaren vicitziagaz, eta jaguiric bigarren viztute, edo erresurrecinoiagaz, vici zaitezen erijotziari bildurric ezteutzan betico vici zorionecuan. Amen.

### IX VERBALDIĴA.

*Credoco sei, eta zazpigarren Articulubaren ganian.*

**C**redoco seigarren articulubac dirauzcu: *Igon zan cerubetara: nun daguan jarriric Aita Jaungoicuaren escumatic. Igote au jazo zan bere viztute, edo erresurrecinoe-*

(1) Paul. ad Heb. cap. 6 v. 4. (2) 2 Pet. cap. 2 v. 21.

tic berroqueigarren egunian. Nai izan evan Jesu Christoc, egon luurrian berroquei egunian, euretan quenceco Apostolubaegandic, bere pasinoe, eta erijotziagaz artu even bildurra; sendatuteco bere fedian; eta sinistu. erasoteco, benetan, eta eguija gustijagaz viztu, edo erresucitadu zala. Au eguin evan, sarri, eta sarri aguertubagaz; bere zaurijac iracutzijagaz; euracaz batera janagaz; eta beste modu ascogaz. Gueratu bere zan, iracasteco bere Apostolu, eta discipulubai, Elexa santuba sendatu, eta mundu gustitic zabalduiteco jaquin biar even gustija. Aguin eutzen, juan ceitezala mundu gustitic, Evangelijua prediquetara gente gustijai, eta gorde eraso eijuela, eurai esan eutzen gustija. Au ondo eguiteco, iracatzi eutzeen, celan bateatuco citubezan federa etozanac; celan emongo citubezan beste Sacramentubac; nor izangozan Elexaco buru, edo nagusi: verba baten; berroquei egun oneetan azaldu, edo explicadu eutzen, cer eguin biar even, guizon gustijac artu eguijezan bere erijotza, eta pasinoiagaz irabaci eutzezan ondasun ugarijac; eta ondo icasi, eta jaquin eijen berac esanico gustija, arguitu eutzezan euren sensunac. Eguinic gauza gusti oneec, eldu zanian berroqueigarren eguna, igon zan cerubetara, nun daguan jarriric Aita Jaungoico gustiz altsu, edo poderosuen escumatatic. Derjzat ecin obeto adi eraso neiquezubela misterijo arrigarri onem anditasuna, esanagaz: baño, Escritura Sagradubac dirauzcuna bere ganian.

Jaten egozala amaeca Apostolubac, aguertu jaquen euren Maesuba; atera cituzan echetic, eta eruan cituzan eurac, eta euracaz bertan egozan beste icaslari, edo discipulu gustijac, Oliveteco mendira. Juazan artian bidian, eta guero mendijan bertan, iracatzi eutzezan icasbide, edo doctrina Jaungoicozcuac, eta eguin eutzezan isquini, edo

promesa andijac. Guero, ereguiric bere escubac, bota eutzen bendicinoc gustiz ugarija; eta eurac ecusela, asi zan gueldi gueldica cerura igoten; eta ya altuban eguanian, ifini zan euren, eta Jesusen artian odei eder bat, ceinec escutadu evan euren beguijetatic. Ain gueratu cirian arritu, mututu, eta concerturic, mirari ain andijac icusijagaz, ce ezpecucen bere euren Maesu maitia, ecin alderatu cirian lecu santutic. Egozan cerura beguira. Alan egozala, aguertu jacuezan Aingueru bi zuriz janciric, eta esan eutzeen: Guizon Galileatarrae, cer eguiten dozube or, cerura beguira? Orraco Jesus zuben artetic cerura igon dan au, ostera etorrico da, zubece cerura igoten icusi dozuben moduban. Au enzunic biurtu cirian Jerusalem. Igon zan Jesu Christo cerubetara berez, edo bere indar, eta escubidez; au da, ez evan biar izan besteren laguntasunic, edo bestec cerura eruatia; bada Jaungoico benetacua izanic, eucan escubide, edo poderia, nai evan gustija eguiteco. Beste santu ceruban dagozan gustijac, eztira euren ez igon cerubetara, bestec ara eruan dituz: Jaungoicuaren laguntasunac, edo Jaunac eruatia, biar izan even. Ara irudi bat. Chori batec aidian igoteco, eztau besteren laguntasunic biar; bada eguae daucazana leguez, beragan dauca, alan igoteco biar daben gustija; bafia arri batec ecin au eguin leique, eztaucalaco berez au eguiteco egoric, eta bestec bota, edo eregui biar dau. Igon zan guizon danez, edo guizon dan partez, eta ez Jaungoico dan partez; bada Jaungoicua lecu gustijan dago, beteten dituz ceru luurrae, eta alan guizon eguin zanian, ez evana leguez ichi ceruba, alainche cerura juanzanian, ez evan Jaungoicotasunac ichi luurra. Jesu Christo igon zan cerubetara gorputz, eta arima. Etzan bacaric igon; beragaz eruan cituzan limbo, edo Abrahamen

alzotic atera cituzan santubac. Bera sartu zan lenengo, gustijen aurretic; bada idiguiric berac ceruco atiac, eta izanic Elexa santubaren buru, eta nagusi, berari egoqui-jon lenengo sarceia.

*Dago jarriric Aita gustiz altsu, edo poderosuen escumatatic.*

Dinogunian, *daguala jarriric*: eztoqu uste biar, egoe-ra modu au daucala. Eguija da, bere gorputza egon leitequiala jarriric, gu egon guinaitequiana leguez; baña zorionzu, edo doatsu izanic, atzeguinez egoteco, eztauca jarriric egon biarric; eta alan bardin deutza jarriric, edo zutunic egotia; dinogu, daguala jarriric, adi erasoteco: lenengo; bere anditasun, edo magestade, escubide, eta al, edo poderijo neurri baguia; icusico baguendu leguez erregue bat, bere jar lecu, edo tronu errialian jarriric: bigarrengo; esateco sendo, eta irrima ifiniric daguala bere erreinuba, cein eztan inosbere, ez galdu, ez chiquitu, ez aldetuco bera gandic; eta Jaungoicua Jaungoico dan artian iraungo dabela. Eztinogu: Aita Jaungoico gustiz altsu, edo poderosuen escumatatic, Aita Eternuac escuma, edo esquerric daucalaco; bada izanic espiritu utsa, edo puruba, eztauca gorputzie; eta orregaitic, ez escumaric, ez esquerric. Dinogu, bada, daguala jarriric Aita Jaungoico gustiz altsu, edo poderosuen escumatatic, adierasoteco; Jesu Christo gure Jaunac daucala, Jaungoico danez, escubide, glorijs, jaquiturijs, eta ontasun bardina bere Aitagaz; edo ain dala gustiz altsu, edo poderoso, ain jaquitun, ain eguile, edo Criadore, ain andi, cein da bere Aita: barriz, guizon dan partez, andijago, alsubago, beste eguinac, edo criatura gustijac baño. Alainche confesetan dabee, ez bacarric luurreco criatu-

rac, baita bere ceruco Ainguerubac; gustijac adoretan dabee, auspaz bere aurrian macurturic, bera ezagututen dabe euren buru, eta nagusitzat, eta confesetan dabee, berari zor jacala gloriya, honria, alabancia, ezquerrac, eta bedeincacinoia.

Andijac izan cirian benetan, Salvaguiliac bere mundura etorreriagaz eguin euzeuzan mesediac; baña etzirian chiquijaguac izan, cerubetara igonagaz ecarri euzeuzanac. Au ezagutuco dogu, jaquinic, cetara igon zan. Lenengo: Espiritu Santuba guri bialdutera. Bigarren: guri an lecuba prestetara, eta gure izenian ceruba artutera, edo betico gloriyaren mempe, edo posesinoe artutera. Irugarren: bere Aitaren aurrian gure bitarteco eguinic, gugaitic erregututera. Laugarren: gu beragaz, moduben baten, cerura cruas, eta Aitaren escumatatic, jarri erasotera. Bera da gure buru, eta gu bere gorputz; eta gorputz, eta buru au bat izanic, egonic buruba ain lecu ereguijan, ainche dago gorputza bere. Bostgarren: gure izate, guizatasun, edo naturalecia honretarren. Eguijada, honraric andijena emon eutzafa, beragaz batu evanian, edo guizon eguin zanian; baña au etzan icusi, cerura igon artian; bada beti egonzan humildu, eta aspiraturic; baña cerura juan zanian aurquituzan, izatia dauquen gustijen ganian, Querubin, Serafin, eta mundu, eta ceruban daguan, eta aurquitu al leitequian gustijen buru, nagusi, eta aguintari. Orra ce mesediac dacarguzan Jesu Christoren cerura igotiac. Orregaitic cirautzen Apostolubai, eta euretan guri: Conveni jatzube, ni cerura juatia. (1)

*Andic etorríco da, vicijac, eta ilac juzguetara.*

Credoco zazpigarren articulu onetan sinistu biar do-

(1) Joan 16 v. 7.

gu, Jesu Christo gure Jauna jatzico dala cerutic luurre-  
 ra, guizon gustijac eguin ditubezan obra, esan ditubezan  
 verba, eta euqui ditubezan pensamentuben contu ciatz,  
 eta estuba arcera. Jaquin daguizuben, ce bildurgarrija  
 izango dan juicijo au, esango deutzubet, Evangelijuac  
 bere ganian dirauzcuna. Juicijo au baño leenago icusico  
 dira bere ezaugarri, inos icusi dirian icaragarrijenac. Ja-  
 guico dira gentiac gentien contra, erreinubac erreinu-  
 ben contra, eta izango dira guerra erubelac: gustija izan-  
 go da gosia, gacha, eta erijotzia. Egusquiija ilunduco da,  
 ilarguijac ezta arguiri emongo, izarrac jausico dira,  
 luurra icaratuco da, ichaso, eta ibaijac horroe eguingo  
 dabe. Igarturic, eta sicaturic guizonac bildurren bildur-  
 rez, ozta ozta euquico dabe, oñen ganian egoteco pode-  
 reric. Guero jatzico da cerutic suba, eta erre, eta urtuco  
 dituz cerubac, eta luurra, dino S. Pedro Apostolubac. (1)  
 Garbitu, eta barristadu ezquero mundu gustija su onegaz,  
 urtengo dau Aingueru batec trompeta bategaz, eta esan-  
 go dau: Jagui zaiteze ilac, eta erdube juicijora. Ain zoli,  
 eta sendua izango da diadar au, ce enzungo da luur,  
 ichaso, ceru, eta infernubetan. Batuco dira gorputz gus-  
 tijen zatijac, dagozan lecuban dagozala; jatzico dira ce-  
 ruban dagozan arimac; igongo dabee infernuban dago-  
 zanae, sartuco da bacotza mundu onetan eucan gorputz-  
 zian, eta vizturic guizon gustijoc, aurquituco gara Jo-  
 saphateco ibarrian, mundubaren asijeratic, eta orduraño  
 jaijo, eta jaijoco dirian guizon, eta emacumiac, bat ba-  
 carric faltatzaca.

Baturic guizon gustijac; aguertuco da Jesu Christo  
 odei argui baten, bere aurretic dacarrela curutze santuba.  
 Jatzico da ain anditasun, edo magestade arrigarrijagaz,

(1) 2 Petr. cap. 3 v. 10.

aimbat milla aingueruz inguiraturic, ce guizon, aingueru, eta demonino gustijac adoradu biarco dabee, eta eza-gutuco dabe Jaun, Jabe, gustijen eguile, eta Jaungoico eguijazcotzat. Jarrico da odcizco jar lecu, edo trono ilzazu baten. Urtengo dabee Ainguerubac, eta alderatu, edo apartaduco ditubez deunga, eta peca tuban dagozanac, on eta pecatu baga, edo gracijan dagozanen artetic: ifinico ditubez on, eta santubac Jaunaren escumatatic; deunga, eta charrac barriz, bere esquerretatic. Au eguinic asico da guizon gustijen juicijua; baña ce estuba? ce ciatza? Eztozu equi ceure vici gustijan, an urtengo eztaben gogo, gurari, edo pensamenturic. Ainche urtengo dabee, ceuc bacarran, inoc etzccuzala, eguin cenduzan obraric chiqui, eta escutubenac: ainche urtengo dabee arguitara, esan cenduzan verbaric labor, eta arinenac; ainche aguertuco dira mundu gustijen veguijetara, ceuc bacarric daquizuzan, eta inori esan bere ezteutzazuzan pensamenturic isil, eta estaldubenac. Ezta ilunian gueratuco zure vijotzeco basterric. Guizon, Aingueru, eta Demoninuac icusico ditubez, eta izango dira zure eguitade, edo obra on, edo charren testigu.

Ondo, eta ciatz examinadu esquero, bacocharen ondo, edo deungaro eguinac, emongo jaco, eurac gaitic mereri daben sentencija. Biurtuco da Jauna, lenengo bere escumatatic dagozanaegana, eta esango deutzee arpegui pozgarri, biguntasun parebaga, eta verbaric gozuena-gaz: Erdube nire Aitaren bedeincatuboc; artu eguizube, zubenzat munduba baño lenagotic prestaduric daguan ceruco erreinuba; bada gose izan ninzan, eta emon euztazuben jaten; egarri izan ninzan, eta emon euztazuben edaten; erbesteco izan ninzan, eta ceuben echian artu ninduzuben; carcelan, eta guexoric e gon ninzan, eta visita-



du ninduzuben; bada nire pobrechubacaz eguin cendu-  
 beena, neugaz eguin cenduben. Guero biurtuco da esquer-  
 retatic dagozanaegana, eta esango deutze arpegui aserre,  
 eta itsalsu bategaz, eta trumoia lezco verba gogor icara-  
 garri, eta garratzacaz; Zuaze madaricatuboc, Demoni-  
 nuarenzat ifiniric dagozan su beticuetara; bada gose nin-  
 zan, eta ezeuztazuben jaten emon; egarri ninzan, eta  
 ezeuztazuben edaten emon; arrotz, edo campoco izan nin-  
 zan, eta eninduzuben echian artu; carcelan, eta guexoric  
 egon ninzan, eta etzinian icustera etorri; bada nire po-  
 brechubacaz eguin etzendubana, etzenduban nigaz eguin.  
 Onegaz, onac juango dira cerura, betico pozetara; eta  
 dongaac infernura, inos amaituco eztirian subetara.

II, eta vicijac dinogunian, eztogu uste biar, juicijo  
 atan aurquituco diriala batzuc viciric, eta beste batzuc  
 ilic; bada gusti gustijoc aurquituco gara viciric; cegaiti-  
 ce lenago ilgo bagara bere, juicijua eguin baño leenago  
 viztuc dituz Jaungoieucac gure gorputzac, eta alan ezta  
 ilic bapere aurquituco. Ilen izenian aituten dira, pecatu-  
 ban dagozanae, bera dalaco benetan arimaco erijotzia;  
 eta vicijen izenian, gracijan dagozanae, bera dalaco ari-  
 maco vicitzia. Juicijo au eguingo dau Jesu Christoc Jaun-  
 goico dan partez, eta berez daucan escubide, edo potes-  
 tadiagaz; eta izanic gauza bat Jaungoicotasunian Aita,  
 eta Espiritu Santubagaz, Trinitade gustija izango da,  
 orduban juzgaduco dabena. Eguingo bere dau, guizon  
 dan partez, bere aitagandie onetaraco artu evan escubi-  
 diagaz; bera izentadu, edo nombradu evalaco, vici, eta  
 ilen Jueztzat. Juicijo au izango da mundubaren amai, edo  
 azquenian; baña eztogu uste biar orregaitic, orduban  
 acabaduco dala mundu au; bada juicijo ostian iraungo  
 dabe cerubac, eta luurrae; baña mundu gustiija erreco

dana leguez, eta garbituric gueratuco dalaco, esan guinaique S. Pedro Apostolubagaz, beste ceru, eta luur bari batzuc izango diriala. (1) Onezaz ostian, ordutic aurre-ra, ezta izango jaijoterie, ez ilteric, saldu, ez erosteric, ezconzaric, ez traturic, udaric, ez neguric, egunic, ez gauric; eta orregaitic juicijoco egunari dei eguiten jaca asquenengo eguna, eta mundubaren azquena.

Juicijo onezaz ostian, dago beste bat bere, eta da batcotzarena, edo particulara; eta au eguiten da, norbait il, eta bertatic; eta ordubanche arcen dau arimiac obra on, edo deungaro eguinen sarija: gracijan badago, eta ezpadauca cer garbitu, edo zorric ce pagadu, bertatic dua cerura: badauca, dua purgatorijora, garbi garbi gueratu artian, eta ordubanche juango da cerura. Pecatu mortalian badago, bertatic jausten da infernubetara. Alambere, gura dau Jaungoicua guizon, Aingueru, eta demoninuen aurrian, gustijen juicijo au eguin dedin; berac daqui cegaitic: alambere guc bere jaquin guinaiquez errazoien batzuc, ceinzuegaitic eguingo dan gustijen juicijo au. Lenengo; gustijac ezagutu daguijen bere justicija, eta artestasuna, ceinecin orain ain ondo icusi leitequian euquiric beguijen aurrian donga, eta gwestuen zori ona, eta on, eta santuben estura, eta preminac. Bigarrenngo; andijagua izan dedin santuben honria, eta aguertu deitezan isilian, eta inoc jaquin baga, eguin citubezan obra miragarrijac. Irugarrenngo; gucituteco peccatarijen lotzarija; bada urtenngo dabe, escutuban eguin citubezan pecatu lotzagarrijenac, eta jaquingo da, mundubac on, eta santutzat eucazan asco, eta asco, peccatari ezain, eta ichusi izan ciriala. Laugarrenngo: Jesu Christoren honria, eta glorijagaitic; nor bere arerijuac aspiratu, humildu, eta beccratu even,

(1) 2 Pet. cap. 3. v. 15.

al eguijen gustija; beste batzuc, ez eveen confesadu nai izan Jaungoicotzat, ezpada euqui eveen guzurti, embusteru, eta engañalaritzat; baña asquenengo egun atan ezagutuco dabe, Jaungoicuaren seme dana, eta bere arcrijo leguez aurquituco dira bere oin aspijan. Bostgarrengo: gorputzac bere artu daguijen, edo ondo eguinen sarija ceruban, edo dongaro eguinen castiguba infernuban; bada mundu onetan arimacaz bat eguinic egozan artian, lagundu eutzena leguez eurai ondo, eta charto eguiten, lagundu bere deijuen, euracaz irabacirico, ceru, edo infernuban.

*Erasoguinza.*

Articulu bi oneec, bete biar gaitubez poz, eta bildurrez. Seigarrenac emon biar deuzcu atseguin, eta olgura andi bat. Ce poz andijagoric euqui leique Christinau bateg, jaquitia baño, bere anaijeasco gura deutzan bat daucala ceruban, bere bitarteco eguinic Jaungoicuaren aurrian, beti beti erregututen deutzala beragaitic? Esan eguidazu: celaco atseguin, celaco alegrija artuco ceunque, bacenqui Erregue Españacoc eguin dabela bere urrengo guizon zure anaije,asco gura deutzun bat? Bera ifini dabela bere albuan? Eguin dabela bere erreinu gustico nagusi, eta deutzan amodijo andijagaitic, berac cerbait esatia dalaasco, erreguec berbertatic eguiteco? Celaco mesediac icharon ez cinaiquez erregue gandic, ain lastan zaituzan anaije onen bitartez? Ce ondasun ugari, ce zorion subertetzu etorrico ez litzatequezuz anaije onen esubetatic? Bada auxe berau da Jesu Christo gure anaije nagucijagaz ceruban jazoten dana. Ain da andija, deuzcun amodijua, ce guichitan euqui dau bere vicitzia galceia, gu zorioneco eguiterren. Gure anaije auxe dago jar-

ririć Jaungoico gustiz alsuben escumatatic; bera da ceru, luur, guizon, Aingueru, eta criatura gustijen nagusi, eta gustijac daucaz bere aguindura. Gure anaije ain alsu, eta ain eregui auxe dago gure bitarteco eguinić, beti prest gugaític erregututeco, gure escarijac Aitari aurrian ifinteco. Ce zorian andijagoric au baño euqui guinaique? Cer ucatu leiquegu, onelaco anaije ain lastan gaituzan bateg? Eta cer ucatu leiyo Jaunac onelaco bere seme, bere gogo gustiya beragan dauca bati? Gagoz seguru, ez gueure anaije nagusi au egongo dala gugaític Aitari erregutu бага, ez Aitac ucatuco deutzala gugaític escatuco deutzan gauzaric. Sarri, eta sarri viztu evan Jesu Christoc gure uste au, cirautzenian bere Apostolubai, eta Apostolubeten Elexiaren seme gustijai: Aitagana nua, eta aínche bere aurrian erregutuco deutzat zubecgaitic. Escatu eguijozube Aitari nire bitartez, nai dozuben gustiya; icuico dozube, celan emongo jatzen, escatuten dozuben gustiya. Pecatariric ichu, eta andijenac eztau galdu biar bere ichoromen, edo esperancia. S. Juan Evangelistiac dino: (1) Neure semechu maitiac, ez eguizube peaturic eguin, baña norbait peatuban jausten bada, daneagu gure bitarteco Aitaren aurrian, Jesu Christo justuba; berac errugutuco dau gugaític, eta beragaitic parcatuco jacuz peatubac. Eldu gaitazan, bada, gracijaco jarlecu, edo tronura uste oso osuagaz, dirauzcu S. Paulo Apostolubac; erruqui, edo misericordija alcanzadu, eta gracia artu daigun, Jaunaren laguntasunagaz. (2)

Baña orain gure bitarteco maite, eta arduratsu dan auxe berau, izango da egunen baten juez gogor, eta erruquibaga: eta orain poz, eta alegrijaz beteten gaituzan onexec, euquico gaituz bildurrez icara. Aguertuco da az-

(1) Ep. 1 Joan cap. 1 v. 1. (2) Hebr. cap. 4 v. 16.

quenengo egunian, eta artuco deuzcu gueure vicico con-  
tu ciatz, eta estuba. Cembat eta andijaguac dirian orain  
eguiten deuzcuzan mesediac; aibat eta gogorragua izan-  
go da, orduban escatuco deuzcun contuba. Cembat eta  
gueijago erregututen deutzan Aitari gugaitic; cembat eta  
ondasun guijago bialduten deuzcuzan cerutic gure arima-  
raco; cembat aleguin andijaguac eguiten dituzan, gu be-  
ragana eruateco, aibat eta erruquibagago izango da  
orduban gugaz eguingo daben juicijua. Cer etanzungo  
deutzagu Jaun oni, araco jarriric odei, eta susco tronu  
icaragarrizco baten, eta ifniric gu bere aurrian, esan dai-  
gunjan: Celan valijadu cinian nire vici, pasinoe, eta eri-  
jotziagaz irabaci neutzuzan gracijacaz? Cer eguin dozu  
nire Aitac, nire bitartez eguin deutzuzan mesediacaz? Zu-  
re dichabagua, Christinauba, orain valijetan ezipazara  
Jesu Christoe opa deutzun bitartecotasunagaz. Orain zure  
oneraco, eta zuri mesediac eguiteco dirian gauza gustijac,  
zure condenagarri izango dira orduban. Araco Jaunaren  
gorputzeco zauri, zugaitic aibeste bidar Aitari iracutzi  
deutzanac, bere aserria bigunduteco; zure contra diadas  
eguingo dabee, eta izango dira zure esquer donguiaren  
testigu. Ce larritasuna orduban zuria! Ce esturia! Ce bil-  
durra! Aurquitu etzaitez, bada, egun atan premina ain  
bildurgarrijan, eldu zaitez uste oso oso, vijotz garbi, eta  
fede vici bategaz ceure bitarteco alsu, edo poderosuaga-  
na, eta humiltasun andi bategaz escatu eguijozu Aita be-  
ticuari, bere aguindubetaco videtic ibilteco gracia, aur-  
quitu zaitez bildur, eta ardura baga juicijo atan.  
Amen.

## X. VERBALDIJA.

*Credoco zorzi, eta bederatzigarren Articuluben ganian.*

**C**redoco zorcigarren Articuluban dinogu: *Sinistuten dot Espiritu Santu Jaunagan*: Verba onectan sinistu, eta confesadu biar dogu: daguala Espiritu Santuba, eta dala Trinidadeco irugarren personia. Da Jaungoico eguijazcua, Aita, eta Semialequez, eta bat bacarric euracaz. Da, eurac lequez, Eguile, edo Criadore, neurribaga, asquen baga, eta gustija al daijana. Dauca izatia, edo dator Aita, eta Semiagandic, eta alambere, ezta chiquijago, ez gueruago, ez gastiago eurac baño; gauza gustijetan da bardin bardina euracaz. Au celan dan aitu daguizun, al dedin moduban ilun abarrian baño ezpada bere, azaldu, edo explicaduco deutzubet, celan au izan leitequian. Aita Jaungoicua beti beti eternidadetic izan da Aita. Aita izateco, ordutixec euqui biar evan semia, bada ecin izan leiteque Aita semeric eztaucana. Izanic bada beti beti, eternidade batetic Aita, eta Semia, ordutixec maitetu, edo amadu evan Aitac Semia, eta Semiac Aita. Izanic, bada, Espiritu Santuba Aitac, eta Semiac alcarric deutzen amodijua, ain anchinaco izan biar dau amodijo onec, edo Espiritu Santubac, ecin da dirian eurac. Orra cegaitic dinogun, Espiritu Santuba datorrela Aita, eta Semiagandic. Auxe beraugaitic dinogu: Espiritu Santuba datorrela Aita, eta Semiaren vorondatetic; dinoguna lequez, Semia datorrela Aitaren sensun, adin, edo entendimentutic; bada izanic amodijua, urten biar dau vorondatetic, gure amodijuac gure vorondatetic urteten dabena lequez.

Trinidadeco irugarren personiari dei eguiten jaca Espiritu Santuba, beste ascori conveni bajaca bere izen au; bada Aita Eternua da Espirituba, eta da santuba: Semia da Espirituba, eta da Santuba: Ainguerubac dira Espiritubac, eta dira Santubac; ceruban dagozan arimac dira Espiritubac, eta dira Santubac; eta alan izen au, ez baccarrie dagoquijo Trinidadeco irugarren personiari, baita bere beste ascori: orregaitio bere, izen onegaz dei eguiten jaca berari, beste bijacgandic bateztu, edo distinguietaco; eta alan dinogunian Espiritu Santuba, adi eraso gura dogu irugarren Trinidadeco persona auxe. Espiriu Santuba pintetan oi da, nso baten irudijan; ez alacua dalaco; bada izanic Espiritu utsa, edo puruba, eztauca gorputzie. Ifinten da irudi onetan, alainche aguertu zalaco Jordanecco ibaijan Jesu Christoren ganian: baita bere, adi erasoteco, arimetan eguiten dituzan mirarizeco eguitadiac; bada izanic usua sinciluba, garbija, celotsuba, eta ugarija; pintadubagaz Espiritu Santuba usuaren irudijan, adi erasoten da, onoidade onecaz apainduten dituzala, bera artuten ditubezanen arimac. Ifinten bere da Apostoluben ganian susco minen irudijan, alainche aguertu zalaco, euren gañera etorri zanian Mayatz Pascuetan. Ezta onelacua bere; baña onetan ezagutu erasoten da, bete cituzala caridade, jaquiturija, gracija, eta Evangelijua mundu gustitie zabaldutecco biar evene gustijagaz; iracasten eutzeela mundu gustico erreinu, eta gentien itzcune, edo verba eguite modu gustija. Irudi onetan esan gura bere da, Espiritu Santubac eguiten dabela, bera artuten dabentan, subac eguiten dabena. Subac garbituten dau urria, cirarra, eta beste edocimbere metallu: alainche Espiritu Santubac bere garbituten dau, bera daucana. Subac berotu, eta erretan dau; Espiritu Santubac bere berotu, eta

erreetan dau, bera daucanen vijotza. Subac argui eguiten dau, bardin Espiritu Santubac bere arguituten dau, bera artuten dabena. Orra cegaitic pintetan dan susco miinen irudijan.

*Elexa Santu Catholicuba.*

Bederatzigarren Articuluban sinistu biar dogu da-guala Elexa Santuba. Elexa au ezta beste gauzaric, ezpada Christinau fededun gustijen batzar, edo Congregacionia. Elexia dinogunian, eztoguaitu biar, araco lecu, nun batuten garian erregetara, meza enzutera, confesetara, comulguetara, eta beste eguitade santu, edo devotuetara; bada lecu oneec, esateraco, Elexa au, nun gagozan orain, ezta arri, care, zur, ol, eta lurra baño, eta oneec eztaunquee sensun, ez vicitzaric; eta Creduan dinogun Elexa Santuba gauza vici, eta sensunduna da. Gacu, bada, munduban, ceruban, eta Purgatorijuan gagozan Christinau gustijoc gara Elexa au. Ara irudi bat, obetoaitu daguizuben: dinogunian, urlija erric, uric, edo erreinuc aguin-du dau au, edo bestia; erri gustijac nai izan dau; uri gustija batu da; uri, edo erri onen izenian ezituguz aituten eche, cale, solo, mendi, baso, ez arbolac, ezpada, erri, edo uri ataco guizonac, edo auzuac. Alainche; Elexia dinogunian bere, aitu biar doguz Christinau gustijac. Elexa onen buru, edo nagusi da Jesu Christo gure Jauna; bada bera da bere ipinle, edo fundadore; berac zainduten dau, eta berac gornetan dau. Baña guri conveni jacun, bera cerura juatia, eta ez mundu onetan egotia. Orregaitic ichi evan munduban bere ordeco bat, izan cedin Elexa onen buru, edo nagusi icusgarri, edo icusi al ceitequian bat. Elexaco buru au izan zan S. Pedro; berari emon eutzan Christinau gustijen arduria; aguindu eutzan



iracatzi eijuela jaquin biar evena, eta sendatu eguizala fedian; emoten eutzala oficijo au beteteco, biar evan escubide, edo podere gustija. Beti betico iraungo evan Elexa onec euqui eguijan beti inos faltatzaca buru; eta nagucija; gura izan evan, S. Pedroren ondoren Erromaco Obispo izango cirianac, izan bere ceitezala bere ordeco; eta auxe da Aita Santuba. Da bada, beinguan esaterren, Elexaco buru, Aita Santuba; cein dan Erromaco Obispo, Jesu Christoren ordeco, edo Vicarijo; nori gustijoc obediu biar deutzagun; eta alan jaquin ezquero, norbait autu, edo escogiduba izan dala Erromaco Obispotzat, auxe euqui biar dogu Aita Santu, Jesu Christoren ordeco, eta Elexiaren burutzat, nori obediu biar deutzagun.

Contu andi bat euqui biar dozube, Christinaubac, onen garian. Ain modutan, ain sendo sinistu biar dogu Aita Santubac Elexa, eta Christinaubai iracasten deutzen icasvide, edo doctrinia, ce berac iracatzico baleuzcu gauza bat, eta mundu onetaco guizon jaquitun gustijac beste bat; leenago sinistu biar deutzagu berari, beste gustijai baño; errazago dalaco gustijac uts eguitia, berac baño; eta alan; Aita Santu Erromacuac cerbait iracatzi dau? Asco da, ezta besteric biar sinistuteco. Elexa onetaco atia da Bautismua, nundic bertara sarcon garian, Christinau eguiten gariala, Elexiaren seme, eta bere alde, edo parte: baño onetaraco esta asco bateatutia bacarric, jaon bere biar da bere fedia; sinistu, berac sinistuten daben gustija; eta obediu Elexiaren buru, edo Aita Santubari; eta alan, eztira Elexiaren seme, edo parte Judegu, Mauru, Turcu, ez Gentilac, bateatu baga dagozalaco; ez herregiac, bere fedia eztauquelaco; ez zatizaile, edo cismaticubac, bere burubaren aguindura egon nai eztabelaco.

Lau dira Elexiaren ezaugarri, edo señaliac, zeinzu-

betan ezagututen dan, bera bacarric dala benetaco Elexia; eta dira, izatia bat, Santuba, Catholicuba, eta Apostolicuba. Lenengo: Elexia ezta bat bacarric baño; bat dalaco bere ipinle, edo fundadore Jesu Christo; eta berau, bere buru icusten eztana; bat buru icusten dana, cein dan Erromaco Aita Santuba; bat daucan fedia; bat bertan sartuteco atia, cein dan Bateoa; eta bat adoretan daven Jaungoicua; eta alan España, Francija, Italiya, Indija, eta beste munduco Christinau gustijoc, Elexa bat gara. Irudi bategaz ezagutu erasoten deutzube eguija au S. Paulo Apostolubac. (1) Zuc gorputz bat bacarric daucazu: gorputz orrec alde, edo parte asco daucaz, escubac, besuac, oñac, caderac, beguijac, belarrijac, eta beste asco; baño oneec gustijoc gorputz bat bacarric baño eztira, eta zu bat bacarric zara, buru baten beian dagozalaco, eta arima bat baño eztaquelaco zure alde, edo parte gusti orrec. Alainche, bada, guizon gustijac bere, nai dala Gentil, nai dala libre, nai mempeco, nai dala Erromatar, nai Griegu, edo beste edoceimbere lecutaco, bein Bautismua artu, eta Aita Santuben beian egon ezquero, Elexa bat bacarric eguiten dabee. Bigarren Elexiaren ezau-garri, edo señalía da izatia Santuba. Da santuba; bere ipinle, edo Fundadore Jesu Christo dalaco, ez bacarric santuba, baita bere santidade gustijaren sustrai, eta iturija; santuba, adoretan daben Jaungoicua; santubac, bere sacramentubac; santubac, bere leguiac; santubac, bere aguinu, edo mandamentubac; santuba, bere fedia; guizonac santututeco ifinija izan da; santu asco aurquitu dira bertan, aurquituten dira, eta aurquituco dira; eta azquenez, Espiritu Santuba da, bera zaindu; eta gobernetan dabena.

---

(1) Rom. cap. 12 v. 4.

Elexiaren irugarren ezaugarri, edo seña-  
 lia da izatia Catholicuba. Izen onec esan nai dau gustijenzacua. Le-  
 nengo da gustijenzacua; nai daben gustija bere seme, edo  
 parte izan leitequialaco, nai dala Judegu, nai dala Tur-  
 cu, nai Mauru, edo Gentil, nai guizonic guesto, eta gal-  
 dubena; bere atiac beti beti dagoz idiguiric bertan sartu  
 nai daben gustijenzat. Bigarreno: da mundu gusticua,  
 ezta Españacua bacarric, ez Francijacua, ez Jerusalen-  
 gua, ez Indijetacua, ez beste erreinuben batecua bacarric;  
 ezpada mundu gusticua; gustitic dago zabaldu-  
 ric, eta edonun dagozan Christinaubac, ainche dago Elexia. Iru-  
 garreno: da dempora gustijetacua; bada Adan, eta Eva-  
 gan asi zan izaten, eta iraungo dau, mundubac iraungo  
 daben gustija. Elexiaren laugarren ezaugarri, edo seña-  
 lia da; izatia Apostolicuba; Apostolubac izan cirialaco  
 bere lenengo arrijac; euren ganian irime ifini, edo fun-  
 dadu evan Jesu Christoc; eurac zabaldu even mundu Gus-  
 titic; eta eurac iracatzi eutzeen Elexiaren semiai, Salva-  
 guiliagandic artu even icasvide, edo doctrinia. Orainche  
 bere daucaguzan, Aita Santu Erromaco, Obispo, Abade,  
 edo Sacerdotiac, Apostoluben ondorengo, edo succeso-  
 riac dira; eta euren bitartez icasten dogu Jesu Christo,  
 eta Apostolubac iracatzirico icasvide, edo doctrinia. Ele-  
 xiac daucaz iru egoera, edo estadu. Batari deitzo Triun-  
 falari, edo triunfantia. Emen dagoz ceruco Santubac,  
 ceinzue goitu ezquero euren arerijuac, dagoz poz, eta at-  
 zeguin artian. Bestiari deitzo guerralarijena, edo militan-  
 tia. Egoera edo estadu au daucagu munduban gagoza-  
 noc; bada gagoz guerra vicijan gueure arerijuacaz. Iru-  
 garrena; garbitegui, edo purgatorijuan dagozanena, oni  
 deitzo purgantia bada bertan dagoz araco, gracijan il-  
 arren, gustiz garbiric ez egozanac; eldu deitezanian ego-

tera, cerura iragoteco. Iru estadu oneec eztira Elexa bat, baño; eta alan ceruban, luurrian, eta purgatorijuan gagozan gustijoc, gara Elexa bat bacarric.

*Santuben Comuninoia.*

Dinogunian: Elexa Santuban daguala *Santuben Comuninoia*, esan gura dogu: Christinau fededunac dauque-la parte, beste Christinaubac eguiten ditubezan obra on gustijetan; ain modutan, ce Christinau batec eguiten dituzan oracinoe, baru, penitencija, mortificacinoe, gaubela; eta beste eguitade, edo obra onac, eztira bere oneraco bacarric; ezpada Christinau gustijeneraco; eztira euraraz aberastuten eguiten ditubezanac bacarric, baita bestiac bere. gustijac gorputz bat dirialaco. Gueure gorputzaren irudijagaz azaldu, edo expliquetan dau S. Paulo Apostolubac, cer dan, eta celan dan. Santuben Comuni-noia. Bacotzac daucagu dino (1) gorputz bat: gorputz onec daucaz alde, edo parte asco: oneec eztaque ofeijio bat, ezpada bacotzac beria: baña parte bacotzac eguiten dabena, ezta beretzat bacarric, da beste alde, edo parte gustijen oneraco bere. Jaten dau ao, eta estarrijac, arcen dau janarija estamangubac, baña ez eurenzat bacarric, ezpada gorputz gusti, eta gorputzeco alde bacocharenzat; bada gustijac vici, aci, eta sendatuten dira, eurac arturico janarijagaz. Oñac dabilz, baña eztira eurac bacarric aldatuten, ezpada gorputz gustija. Beguijac dacuze gauza ederren bat, baña eztira eurac bacarric postuten, ezpada gorputz gustija. Auxe berau jazoten da Santuben comunoiagaz bere, dino Apostolu andijac. Gorputz bat da Elexia, gorputz onec alde, edo parte asco

(1) 1 Corint. cap. 13 v. 11 et seq.

daucaz, batzuc dira Obispo, beste batzuc Abade, edo Sacerdote, eta Diaconu, oneec Virgina, areec escondu; oneec eguiten ditubezan obra onac, gorputz onen alde gustijen oneraco dira.

Santuben comuninoe au ezta bacarric aurquituten, luurrian vici dirian Christinauben artian; dauquee bere ceru, eta garbitegui, edo purgatorijuan dagozanacaz; bada gorputz bat componduten daben leguez, alainche dauque curacaz comuninoia; eta alan, batzuc bestiai lagundu guinaijue. Lurrian gagozanoc lagundu guinaijue garbitegui, edo purgatorijuan dagozanai, andie urten, eta cerura juaten, Jaunari izquini, edo ofrecidubagaz curacgaitic gueure erregu, oracinoe, baru, limosna, Meza, eta beste obra onac. Ceruban dagozanac erregututen deutzee Jaunari mundu onetan gagozanocgaitic, eta euren bitartez datorquiguz gracia, mesede, eta beste arimaco ondasun ugarijac. Santuben comuninoe au, ez bacarric dauque gracijan dagozanac, baita bere pccatuban dagozan Christinaubac. Eguija da ez jaquela gueituten bestien obra onacaz gracia, ez merccimenturic; bada onetaraco biar da, gracijan egotia., eta gorputz onen alde vicija izatia; eta pecatuban daguana, ezta alde, edo parte vicija, ila baño. Orregaitio bere, Elexiac beti beguiraten deutzee, eta daucaz bere zati, edo partetzat; erregututen deutza Jaunari euraegaitic, eta eguiten dau aleguina, gracia, eta Jaungoicvaren adisquidetasunera biurtu deitezana. Ezeomulgadubac dira Santuben Comuninoian, alde, edo parteric eztauquenac, beragandic, edo Elexiagandic evaguiric, edo apartaduric dagozalaco. Oneec dira adar evaguijac. Arbola bati evaguiton badeutzee adar bat, eztau onec artuten sustraitic, ez indar, ez sabi, edo jugoric, ecin emon leique arbola arec emoten daben frutaric.

Bardin jazoten da excomulgadubagaz bere, dalaco Ele-  
xiagandic evaguirico adarra.

*Erasoguinza.*

Articulu bi oneetan daucaguz ieasvide andi bi. Eu-  
retatic lenenguan icasi biar dogu Christinauboc, celan  
alcar maitetu, edo amadu biar dogun, eta celaco batac  
bestien arduria euqui biar dogun. Au iracasten deuzcu S.  
Paulo Apostolubac, gueure gorputzeco alde, edo partia-  
caz jazoten danagaz. Oncec eztaucque bata bestien embi-  
dijaric. Eztira inos bata bestien contra jaguiten. Eztaucque  
euren artian aserre, ez auciric. Ezteutza beguijac belar-  
rijari esaten, enaz zure biar; ezta burubac bere oñari,  
eztaucat zure biarric. Eztau oñac inoz buru izan gura,  
ezta escubac bere begui; bacotza dago baquian dago-  
quijon lecuban. Baña ez bacarric eztira bata bestien con-  
tra jaguiten, ezpada danque bestien ardura andi bat. Al-  
deren batec gach, edo minic badauca, gustijac necatu,  
eta tristetuten dira, eta eguiten dabe aleguina min, eta  
gacha beragandic quenceco. Sartu bedi aranza bat oñian,  
bertatic urreratuten dira beguijac, icusteco cer dan; es-  
cubac eguiten dabe aldaijena, arancia ateretaco; miinac  
escatuten dan biar dana, osatuteco, eta biar bada osatu-  
ten daquijanen bat. Guexoric daguan alde, edo partia  
osatuteco biar bada gueldiric, edo oian egotia, gustijac  
dagoz oian, edo gueldiric; ibili biar bada, dabilz. Verba  
baten; gustijac eguiten dabe aleguina, guexoric daguan  
alde, edo partia osatu dedin. Barriz gorputzeco alderen  
bat pocie badago, gustijac postuten dira. Euretatic bat  
honretan bada, bacotzac beretzat dauca honra au. Bu-  
rubac dauca coroa? edocein alde, edo partec beguira-

tuten dau beretzat honra au, eta gustijac dira erregue. Bularrian, edo besuan dago metalla, edo medallia? Oin, cadera, escu, arpegui, eta beste alde gustijac onradu, eta postuten dira beragaz.

Auxe berau eguin biar dogula Christinauboc bere bafac bestia gaz, dino Apostolu Santubac. (1) Gustijoc gara gorputz bat, eztaucagu buru bat baño, cein dan Jesu Christo; bateo bategaz bateatubac, Espiritu bategaz vici gara, eta bata bestien alde, edo parte gara; eta alan ezta aurquitu biar gure artian, ez aserretic, ez gorrotoric, ez auciric. Beian dagozanae, eztabe goijan dagozanen embidijaric; ez goijan dagozaneac guichitan cuqui, edo despreciadu biar ditubez beian dagozaneac. Norbait neque, min, ala artian badago; aleguina eguin biar dogu, bera neque arteric aterateco. Tristeric badago, tristetu biar gara beragaz; pozic badago poztu; honra, anditasun, ondasun, edo zorionen bat badatorquijo, gueuria balitz leguez beguiratu biar deutzagu, eta poztu biar gara.

Articulu onetan bigarren iracasten jacuna da, gueure arimaco ondasunic ugarijenac batuteco moduba. Au eguin guinaique, Santuben Comunioiaren bitartez. Onen bitartez eguin guinaiquez gueuriac, Jesu Christo gure Jaunac, bere Ama Virgina gustiz doatsu, eta beste ceruco Santu gustijac eguin ditubezan obra on, eta curacaz irabaci ditubezan merecimentubac. Euracaz pagadu guinaijoz Jaunari, gueure peccatubacaz eguinico zorrac. Euracaz mereci guinaiquez arimaco ondasun andijac, eta izan gustiz aberats. Eta alambere naijago dogu, izan gueure ariman pobre, erquin, eta egon gosiac ilic, merecimentu onetan parte cuquiteco biar puscabat eguin, eta

(1) 1 Cor. cap. 12 v. 12 et seq.

ardura apur bat artu baño. Dudatzaca; ain erraz balitz munduco ondasun, eta dirubac irabastia, cein da arima-  
 euac, ez litzaque aimbeste pobre ieusico. Esan eguidazu:  
 bacengoz gustiz pobre, vilox, eta gosiae ilie, zorrez car-  
 gaduric, alde gustijetatic estututen zaitubezala zugar ar-  
 tuben dauquenac, eta esango balentzu gustiz aberats ba-  
 tec, zuazala bere echera, eta artu daguizula, nai dozun  
 diru gustija, beragaz equi daguizun, cer jan, janci, eta  
 cegaz pagadu ceure zor gustijac; egongo cinatequez ceu-  
 re naguitasun, alperquerijagaitic, edo ardura pascabat ez  
 artuterren, guizon arec opa deutzuzan ondasunac artu-  
 tera juan baga? Lenago sinistuco neuque, puntuehubat  
 bere luzatu baga, juango cinatequezala diru aren billa.  
 Bada auxe beran jazoten da zugaz, eta Elexa santubagaz.  
 Zagoz pobre, villox, gose, eta zor andijac deutzazuzala  
 Jaunari: dirautzu Elexa santubac; beragan dagozala Je-  
 su Christo, bere Ama, eta Santuben merecimentubac; ar-  
 tu daguizula ondasun onetan, biar dozun gustija, aberas-  
 tu daguizula ceure arimia. Etzaitez, bada zoro izan, abe-  
 nastu zaitez euracaz, zorioreco izan zaitezcan cerubana.  
 Amen.

*XI. VERBALDIJA.*

*Credoco asquenengo iru Articuluben ganian.*

**C**redoco amargarren Articulubac dirauzen: *pecatuben  
 paracinoia.* Articulu onetan sinistu, eta confesadu biar  
 dogu: Elexa santuban daguala peatubac pareatuteco es-  
 enbidia, cein emon eutzan Jesu Christo gure Jaunac. On-  
 do ezagututeco, Articulu onetan iracasten jacuna, lenago  
 jaquin biar dogu, cer dan peatuba. Da bada; esatia,



eguitia, penseetia, edo gura izatia erbaít Jaungoicuaren leguiaren contra, edo Jannac aguinduten dabenen contra. Da modu bitacua, bata da originala, eta bestia bacotzac bere vorondatez eguina, edo personala. Originala da, gure lenengo guraso Adanec eguin evana bere vorondatez, norgandic datorquigun guizon gustijoi, eta ceinegaz sortu, eta jaijoten garian. Ara au celan izan zan. Eguin evan Jaungoicuac Adan luurretic, eta emonic arima bat bere anz, edo irudira, ifini evan Paradisuco gozatasun artian guizon gustijen buru, eta nagusi. Aguindu eutzan ez eguijala jan Paradisuben erdijan eguan arbolaco fruta, edo sagarric; cematuten evala jaten beeban, bertatic ilgo zala; ain modutan, ce jaoten beban emon eutzan aguinduba, zorioneco izango zala luurrian, eta vici ezquero munduban neque, lan, eta gach baga, iragoco zala il baga, ceruco gozatasun, eta atzeguinetara beti betico; baña jaten beban, gueratuco zala erijotzara condenaduric, cerutic erbestetu, edo desterraduric, eta vicico zala neque, gach, eta lampian. Ifini cituzan Jaunac gure vorondatiac Adanegan, eta gura izan evan opetzi, edo prometidu eutzazan zorionac, eta cematurico gach, neque, eta azquenez erijotzia izan ceitezan, ez bacarric beretzat, czpada beraganic etorrico cirian guizonenzat bere; ain modutan, ce jaten czpeban, gustijoc izango guinian zorionsu, eta iragoco guinian cerura il baga; baña jaten beban, bera, eta gustijoc gueratuco guinian erijotzara, eta gueugan dacuzcuzan gachetara condenaduric. Ausi evan gure lenengo gurasuac Jaunaren aguinduba; jan evan, eragotzirico sagarra; eta orra nun galdu evan, ez bacarric beretzat, baita bere seme gustijenzat bere gracia, vicitzia, eta ceruraco eucan escubidia, edo derechua, eta ondatu guenduzan inguiraturic gauquezan aijari, cis-

puru, eta negargarrizco estura, eta preminetan. Adanen gugana datorren pecatu auxe da originala, ceinetan gustijoc sortu, eta jaijoten garian.

Eguija bada bere, eta fediac iracasten dabena Adangandic dacargula pecatu originala, ezta ain erraz jaquitia, celan datorren. Alambere ifinico deutzubet irudi bat, cerbait esagutu al daizuben. Contu eguizube; Erregue batec eguiten dabela norbait bere urrengo guizon, eta bere erreinuco andi, edo Marquez, Conde, nai Duque. Emoten deutzaz ondasun ugarijac, hacienda zabalac, eta erri, uri, eta provincijetaco nagusitasuna, dirautzala: Ara; nire aguindura bazagoz, eta nire esana eguiten badozu, beti izango zara emon deutzudazan anditasun, ondasun, uri, eta provincijen jauve, eta ez zeuc bacarric euquico dozu au gustijau, baita bere zure seme, zure semien seme, eta onen oste gustijac, beti betico: baña nire aguindutic urteten badozu, nire esana eguiten ezpadozu, edo traidore bazara, quenduco deutzut emon deutzudan gustija, eta izango zara esclavo, edo mempeco, eta vilau; eta bardin jazoco jaquee, zugandic jaijoco dirian seme, semien seme, eta zure casta gustijai. Orain bada: Jaguiten da guizon au, aibat mesede eguin deutzazan erreguearen contra; ezteutza obediñ nai, eta eguiten deutzat traicinoeric icaragarrijena. Cer jazoco litzateque? Galduco leuque guizon onec Erreinuco andi, Marques, Conde, edo Duque izatia; gueratuco litzateque ondasun, diru, eta hacienda бага, eta izango litzateque vilau, eta mempeco; eta ez bacarric berari, baita bere seme, semien semiai, eta onen ondorenguai jarraituco leusquijue gach onec; eta sortu, eta jaijoco litzatequez vilau, eta mempeco, edo esclavo; ez eurac eguin daben pecatu, edo traicinoen bat gaitic, ezpada euren anchinaco, edo aasa-

ba arec eguin evana gaitic; eta alan aren pecatubari modubenen baten, dei eguin leiyo pecatu originala. Auxe berau jazo zan gure lenengo gurasuagaz bere, eta orregaitic darcargu beragandic pecatu originala, gueuc gueure vorondatez eguin ezpaguenduban bere.

Pecatu bacotzarena, edo personala da, norberac bere vorondatez, edo berac nai dabela, eguiten dabena. Da modu bitacua: mortala, eta veniala. Mortala da esatia, eguitia, pensetia, edo gura izatia cerbait Jaungoicuaren legue, edo aguindubaren contra gauza naguci, edo gravian. Mortala bardin da cein ilguilia, edo ilten dabena; eta dei eguiten jaca izen onegaz, ilten dabelaco, bera eguiten dabenen arimia. Ara au celan dan. Arimiac gorputzari vicitzia emoten deutzana leguez; alainche gracijac arimiari emoten deutzana vicitzia; eta gorputza anima baga ilic daguana leguez, dago ilic arimia gracia baga; eta pecatu mortalac arimiari gracia quenduten deutzalaco, dei eguiten jaca mortala, edo ilguilia, edo ilten dabena. Pecatu veniala da esatia, eguitia, pensetia, edo nai izatia cerbait Jaungoicuaren legue, edo aguinduben contra gauza guichi, edo chiquijan. Venialac esan gura dau parcagarrija; eta dei eguiten jaca izen onegaz, erraz guizona pecatu onetan jausten dalaco, eta erraz parcatu leiquijolaco. Pecatu venialac ezta arimia ilten, mortalac leguez; baña zaurituten dau, orbandu, edo manchetan dau, erquindu, eta guexotuten dau. Orregaitic chiquija bada bere pecatu venialac arimiari eguiten deutzan caltia pecatu mortalac eguiten deutzanen parian, ezta chiquija berez; bada gustiz, eta pare baga da andijago, guizon Aingueru, eta demonino gustijac eguin leiquijuena baño.

Pecatu gusti onen parcacinoia dago Elexa Santuban; bada Jaungoicuac bacarric parcatu al baleguiz bere, ifi-

ni gura izan euan bere esposa maite onegan escubide au, esan entzarian S. Pedrori; zuri emongo deutzudaz cerubetaco guilzac, eta zuc luurrian parcatu daiquezuna, parcatuba izango da ceruban; eta zuc parcatu eztaiquezuna, parcatubaga gueratuco da ceruban. (1) Orregaitic Elexatic campora eztago pecatu parquetaric. Pecatu originala parcatuteco dauca Bateo, edo Bautismua. Bacotzarena, edo personala parcatuteco, daucaz beste Sacramentubac. Pecatu au mortala bada, gurata gura ez, eldu biar da Penitencijaco Sacramentura; eta acto contricinocua eguiten bada, enqui biar da guichienez gogo, edo vorondatia confesetaco, Elexa Ama Santubac aguinduten dabenian. Pecatu au veniala bada, parcatuten da confesadubagaz, edo beste edoceimberre sacramentu artubagaz. Onezaz ostian, dagoz beste modu asco, pecatu venialac parcatuteco; baña jaquinenac dira bederatzi. Lenengua, Meza enzutia. Bigarrena, comulguetia. Irugarrena, Confesinoia, edo *Ni peccatarija* esatia. Laugarrena, Obispua-ren bendicinoia. Bostgarrena, ur bedeincatuba arcia. Seigarrena, ogui bedeincatuba jatia. Zaspigarrena, Aita guria erreccetia. Zorcigarrena, Sermoia enzutia. Bederatzigarrena, bularrac golpetutia, Jaungoicuari parca escatuten jacala. Orra cembat modu dagozan Elexan gure pecatu venialac parcatuteco. Dacuz gure Ama arduratsuan onec, ce laster, eta erraz jausten garian pecatu venialian; eta laster jagui gaitezcan ifinten deuzcuz aimbat erremedio, eta ain errazac. Baña, beguira neure Christinaubac; pecatu veniala parcatuteco, ezta asco, gauza onec edoccin modutan eguitia; izan biar da atencinoe, devocinoe, eta peccatutic al dedin gustija alderatu, edo apartaduteco goguagaz; eta alan erreccetan bada Aita gu-

(1) *Math. 19 v. 19.*

ria, esateraco, devocinoe baga, pecatu veniala eguin dabelaco neque baga, eta aurrerancian ez eguiteco gogo baga, edo ostera bere, eurac eguiteco ustiagaz, etzaca parcatuco pecatu venialic. Arritu gaitezan Jaungoicua-ren guizonaganaco ontasun, eta amodijo parebaguiagaz: izanic pecatuba ain icaragarrija, eta ain modutan bera aserrtatuten dabena, ee modu errazac ifini cituzan gach ain esquerga au osatuteco, eta bere aserria amatetaco!

*Araguijaren viztute, edo erresurrecinoia.*

Credoco amargarren articulubac diranzcu: *Araguijaren viztute, edo erresurrecinoia.* Verba oneetan sinistu, eta confesadu biar dogu, Adangandic, eta güenengo, edo asquenengo guizonaraino jaijo, eta il dirianac, edo jaijoco, eta ilgo dirian gustijac, viztu, edo erresucitaduco diriala. Viztute, edo erresurrecinoe au, ezta beste gauzaric izango, ezpada erijotzan alcargandic alderatu, edo apartadu cirian gorputz eta arimac barriro alcarregaz batutia. Viztute, edo erresurrecinoe oni dei eguiten jaca araguijarena; bada gure gorputza viztuc da bacarric, ez arimia, dalaco espiritu utsa, edo puruba, eta orregaitic ilezcorra, inmortala, edo ecin inos il leitequiana: viciric urteten dau gorputzetic, eta viciric egongo da ceru, infernu, edo beste lecutan, gorputzian zarcera biurtu artian. Aurquituco gara, bada, guizon gustijoc vizturic, orainche daucaguzan gorputz, eta arima onexecaz, ez beste euren ordecoren batzucaz. Esecu onexec euroc, oin onexec euroc, buru onexec euroc, vegui onexec euroc, cuquico dituguz, ez beste barriro eguinen batzuc. Erre beguijez, bota beguijez aidian euren autsac, edo zabaldu beguijez mundu gustitic; jan beguijez chacur,

otso, edo arrainac; Jaungoicuae batuco dituz ecerbere ecerbere faltatzaca; ulechu bat bere ezta galduco.

Viztute onetan gorputzac aurquituco dira oso osoric, mundu onetan cerbait falta bajaquen bere; eta alan ezta an izango ez errenic, ez beguibacotsic, ez manguric, ez itsuric, ez gorric. Ezta inor ume izango, ezta agura bere; gustijoc viztucoc gara Jesu Christo il zan urte, edo edadeco; au da, ogueta amairu urteco guichi gora bera. Guizonac viztucoc dira guizon, eta emacumiac emacume. Jaungoicuae berac eguingo dau viztute, edo erresurrecinoe au; bada berac bacarric, eta ez bestec, ez Aingueruc, ez guizonc dauca au eguiteco escubide, edo poderic. Guizon gustijac viztucoc badira bere, ezta bardina izango gustijen erresurrecinoia. Santuben gorputzac egongo dira milla egusqui baño arguijago, inori gogora eldu leiquijon baño ederrago, glorijaco doe, edo onoidade arigarriz apainduric. Martirijenetan barriz aguirico dira, Jesu Christogaitic artu citubezan zauri, epai, eta oreñac; ain argui, ain eder, ain miragarti, ee mundu onetan icusi al leitequezan perla, diamante, eta edertasunic icusgarrijenac; esaintasuna bera dira euren parian. Pecatarijenac, barriz, urtengo dabe, obipe, edo sepulturam usteldu, atsitu, eta arrac janic egozarian baño bere ezainago, eta bildurgarrijago; eta ordutisee asico da, asquenengo articulubac iracasten deuzcuna.

*Betico vicitzia Amen.*

Asquenengo articulu onetan sinistu biar dogu, Ienagoco articuluban esan dan viztute, edo erresurrecinoia eguinezquero, euquico dabeela guizonac beti betico itaungo daben vicitzia; eta Santubac Ceruban vicico diriala,

inosbere il baga; condenadu tristia beti beti egongo dala icaragarrizco subaren erdijan, erre, eta quisquilduten; baña su onec emongo badeutzaz bere ala, min, eta tormentu esan, ez pensadu al leitequezanac, eztau inos ilgo, eztau auts biurtuco, mundu onetaco subac eguingo leuquiana leguez. Bardin da beste ala, min, eta tormentubacaz; ecin inoc irago leiquez an condenadubac, ez dinot daucazan gustijac, ezta parteric apurchubena bere, berbertatic il baga; baña ez bacarric ez dira ilgo, ezta etzaque sensuna bere amatadu, edo guichituco. Il guraco dau condenadu zori galducuac, eta erijotziac igues eguingo dau beragandic; eta icusiric inosbere inosbere eztiria-la amaituco bere neque, bere min, eta bere tormentu icaragarrijac, biurtuco da bere buruben contra, eta arrabijen arrabijaz zatitu, eta puscatuco dituz bere araguijac, atzamarca, eta aguinca. Alainche egon biarco dau beti betico, secula seculaco, poz, atseguin apur puscabat inundic bere aguri baga, eta icharon baga. Eta alan vici zori gogorreco oni obeto dei eguin leijo betico erijotzia, betico vicitzia baño.

Orregaitic betico vicitzia dinogunian, aituten dogu bedeincatubac ceruban dauquena, bera dalaco benetaco vicitzia; bertan euquico dabelaco, ez beguic icusi, ez bejaarric enzun, ez guizonaren gogora eldu bere leitequian glorija. Euquico ditubez pilloca on gustijac gachen guerizaric bere baga. Eztago an nequeric, ez lanic, ez negarric, ez cispururic, ez goseric, ez egarriric, ez pobrezaric, ez estururic, ez preminaric, ez erijotzaric. Gustija izango da baquia, poza, atseguina, olgoria, eta on gustijac bete betian euquitia; eta au izango da inosbere galceco bildur baga. Icusico dabe Jaungoicua arpeguiz arpegui, eta argui arguitan; ez gorputzeco beguijacaz, ezpa-

da arimacuacaz; eta bera icusijagaz, aseco dira euren gurari gustijac; Jaungoicuac berac janci, eta beteco dituz bere Jaungoicotasunez, eta moduben baten iragoco dituz Jaungoico izatera. Jauna bera izango da gustija gustijetan, eta gustijenzat. Alperric nabil, neure Christinaubac, alperric nabil, zubei adi erasoten ceruco santuben zorion, eta glorijaren anditasuna. Cer dinot? Beto munduban izan dirian guizonic jaquitunenac, Apostolu, Santu, Iracarla, edo Doctore, Martiri, eta izan dirian arguituben gustijac; batu bediz ceruco Ainguera, Querubin, eta Serafinac; eguin beguije aldaijen gustija, zubei azaldu, edo espliquetaco Santubac ceruban dauquen glorijaren anditasuna; bada eztira elduco bere alderic, edo parteric chiquijena bere adi erasotera. Eurac esan aldaijen gustija, ezta izango zorion subertetsu aren guericia bere.

*Erasoguinsa.*

Beguiria, Christinauba, ce ondasun ugari, ce zorion miragarri, ce gloria daucan gorderic Jaungoicuac zuretzat, eta ce bide errazac ifini deutzuzan euren jauve izatera elduteco. Ce amodijo andijagoric iracutzi al leiquezu? Ce ardura andijagoric euqui leique zugaz? Andija izan zan benetan, lenengo guizona eguin evanian iracutzi evana; baña gustiz izan zan andijagua, barristau cenduzanian euqui entzuna. Ieusiric, galdu ciniala lenengo gurasuen pecatubagaz, bera jatzi zan cerutic luurrera, zu pecatu onetatic ateratera; eta emonic bere odol, eta vitizia, crosi evan curacaz Elexa Santuba. Ifini evan Bautismua, Adanganic cencarren pecatuba parcatuteco. Esaguturic, etziniala sendo egongo bateo, edo bautismuan arturico gracijan, gustiz argala cinialaco, eta etzala erraz



vorondatezco pecatuban ez jaustia; ifini euan gach onen contraco osasunguei, edo medicina, emoten eutzala Elexiari, pecatu gustijac cirianac ciriala pareatuteco escubidia, ceure auquera, edo elecinoian ifinten eutzula, nosnai artutia osaguei au. Auxe da penitencijaco Sacramentuba. Etzatzu diruric, ez ondasunic escatuten beraugaitic; eztaucazu munduba cer aratu bera erosteco; eztaucazu cer ibili vide luce, aldatz, eta basamortubetatic; eztaucazu cer sartu oncijetan, eta irago itsaso ecach, eta pelleburuz betecoric. Etzatzu escatuten Elekara juan, Confessore baten onjetan ifini, eta confesetia baño. Ce gauza errazagoric au baño? Era alambere, ce nagui, ce atzera, pecatupetic urteteco! Eguneric egunera, asteric aстера, ileric ilera, eta urteric urtera luzatuten da arimaco gach, edo enfermedadetic urtetia. Araco confesetaeo premina, edo obligacinoia eldu deinian; uste leiteque, urcamendi batera daroiezala. Ce itsumendi astunagoric! Ce zoraquerija galgarrijagoric!

no! Ay neure Christinaubac, eguingo ceunque ceuben gorputzagaz, ceuben arimiagaz eguiten dozuben beste onembeste? Ezezt deritzat dacuzcunez. Eguiten da epai, edo zaurirembat? Artuten da golperembat? Urratu, edo ateraten da beso, oin, edo caderaren bat? Bertatic barberu, azuripinle, edo gacha ondo curetan daquijana. Ezta gastuba beguiratuten, ezta izten aleguinic eguin baga. Osatuteco biar bada oian, edo echetic urten baga egoitia, ezta urteten; ichiten dira jolazac, danzaae, errimerijac, eta naijen dirian olgurac; eta alambere, gastu andijac eguin ezquero, eta naijen dirian gurarijac ichi ezquero, osatuten bada, Jaunari milla esquer. Jausten da guexoric gorputza, bertatic medicuba; ez luzatu, bestelan ilteco pelleburuban ifinico da. Laster sangrija, arras-

taca boticaqua, costa bedi costa ala. Artuten dira osagueti, edo medicinarie mingotz, eta garratzeenac; eta gustija belnguan esateco, ezta isten osatu al dañan gazaric; eta au gustijau eguiten da, jaquin бага valijoco deutzan, ala ez. Urteten dau guexotic, aguinduten badau medicubac ezteila jan, ezta jaten, goseric andijena euqui arren. Aguinduten badau echetic ez urteteco, axetan ez ibilteco, edo naijen daben gauzia ez eguiteco, bertan isten da.

Noc eguiten dau beste onembeste arimiagaitic? Jaus-  
ten da arimia guexoric; esan bequijo pecatari oni osatu  
zaltez; orche daucazu ceure escura medicuba, orche biar  
dozun osasungueti, edo medicina gustija; etzatzu ecer  
costaco, dua duaric emongo jatzu biar dozun gustija;  
eztaucazu egua, aste, edo il osuetan cer egon oian; ceure  
echeco arazubac, edo biarrae ichi бага, osatu cinaite-  
quez: Alambere atzera arimaco osasuna alcanzetaco, iza-  
nic ain erraz, eta ciur, edo ciertuba. Confescetan da; da-  
cuz arimaco Medicu, Confesoriac, osatu arren, ichiten  
badeutza leen leguez, barriro eta laster jausico dana, leen  
euqui daben gachian; orregaitic aguinduten deutza, ez-  
taguijala jan, au da, barau eguin daijala; ezteila axetan  
ibili, au da, ezteila jolaz, danza, erromerija, eta beste  
lecu pellebutsubetara juan; igues eguin daijala, leengo  
gach, edo enfermedadian jausi eraso leijuen pelleburu-  
betatic; astun eguiten jaca medicuben aguindu oneec jao-  
tia. Neure Christinaubac, eguizube arima guexuagaz, gor-  
putz guexuagaz eguiten dozubena; ez eguizube luzatu  
bera guexoric daguanian biar daben osasungueti, edo me-  
dicina arceia; eta bera osasunagaz badago, ardura andi  
bat euquizube osasun au jaoteco, modu onetan gorputz,  
eta arimiac euqui daijen betico vicitzia. Amen.

## CHRISTINAUBAREN ICASBIDE,

EDO DOCTRINIAREN BIGARREN ZATIJA,

cein dan

*Cer artuco daben.*

## XII. VERBALDIJA.

*Cer dan Sacramentuba; eta Sacramentu gustijai batera dagoquiuenen gantian.*

Sacramentuben izena bardin da, cein gauza santu escutuba, edo estalduba; edo escutaduric dagan gauza santu, edo sagraduba; eta da, icusten dan ezaugarri, edo señale bat, ceinec adi erasoten deuzcun, gu santututen gaituzun gauza santu bat. Esateraco. Cer daucuzu, edo sentietan dogu Altaraco Sacramentuban? Oguijaren colore, usain, eta gustua. Orra sentietan dan ezaugarri, edo señalia. Eta cer adi erasoten deuzcube ezaugarri, edo señale oneec? Jesu Christoren gorputz icusten eztoguna, ceinec santututen gaituzan. Auxe berau jazoten da beste Sacramentu gustijetan; gauza bat icusi, edo sentietan dogu; eta daucuzcun gauza onec igarri, edo ezagutu erasoten deuzcu, eurac emoten deuzcuben gracia santuten gaituzana. Jesu Christo gure Jauna da Sacramentu onen ipinle, edo autoria; bada berac bacarric, eta ez bestec emon leiquiana leguez gracia, eta santutu gure arimia; alainche berac bacarric, eta ez bestec ifini, edo emon bere leiquez gracia, eta santutasun onen ezaugarri, edo señaliac; bada eztira Sacramentubac ezaugarri edo señale utsac, ezpada eurac emoten dabe, edo euren bitartez emoten deuzcu Jaungoicuae bere gracia

Sacramentu onec dira zazpi, ez gueijago, ez guichia-  
go. Ecin onen beste errazoeric emon guinaique, ezpada  
alainche nai izan evala Jaungoicuac; bada berac gura  
izan baleu, Sacramentu baga santutu guinaizan. Alambe-  
re; esan guinaique, nai izan evala Jaunac izan ceitezan  
zaspi, gure arimiac artu eguijan vicitzia, aci eta sendatu  
ceitian, gorputzac izatia artu, aci, eta sendatuten dan  
moduban; eta onetaraco zaspi gauza biar diriana leguez,  
gura izan euan izan ceitezan zaspi Elexaco Sacramentu-  
bac. Guizona izan dedin: Lenengo: biardan gaucia da  
jaijotia; bada jaijoten ezpada, eztago guizonic. Bigarren-  
go: aci, eta sendatutia. Irugarrengo: jaatia. Laugarrengo:  
guexoric daguanian osatutia. Bostgarrengo: indar galdu-  
bac barriro artutia. Bost gauza onec biar dituz bacotzac  
beretzat; baña guizona beretzat bacarric ez izanic, eta  
bestiacaz vici biar dabena leguez, euqui biar dituz nagu-  
si, eta aguintarijac, eta artu moduba, guizonac amaitu  
ezteitezan; bada dagozanac ilcorrac izanic ecin beti iraun  
leije, eta biar da onen ordez beste batzuc etortia. Auxe  
berau biar dabe gure arimac bere, eta auxe eguiten da-  
bee zaspi Sacramentubac. Lenengo: jaijoten da arimia  
bateo, edo bautismuan; eta berac eguiten dau Jaungoico,  
eta Elexiaren seme. Bigarrengo: aci, eta sendatuten dau  
Confirmacinoiac. Irugarrengo: dauca janari, eta edarija  
Altaraco Sacramentuban. Laugarrengo: guexotuten ba-  
da, dauca osasunguei, edo medicina Penitencijacuan.  
Bostgarrengo: Extremauncinoe, edo Oleacinocuac biur-  
tuten deutzaz galdurico indarrac. Seigarrengo: Ordiaacuac  
emoten deutzaz nagucijac, noc aguindu, eta gobernadu.  
Zaspigarrengo: Matrimonio, edo esconciac emoten di-  
tuz Christinau ilen ordez beste guei batzuc. Orra ce ja-  
quiturija arrigarrija.

Zaspi Sacramentu onetatic, batzue dira biar biarrecuac, ceinzuec baga, ecin inor salvadu leitequian: oneece dira: Bautismua, eta Penitencija. Ain da biarra Bateoa, ce ecin inor sartu leiteque ceruban, bera artu baga; eta ecin badau, bera artuteco gogo, edo gurari baga. Ain estu au aguinduten da, ce artuten ezpadau, bere erruz, edo culpaz ez izan arren bere, ecin cerura eldu leiteque. Umechu bat bateatuten ezpada, estau bere erruz isten; bada alambere ezta salvaduco. Penitencijaco Sacramentuba ain da biarra pecatu mortalian jausi danenzat, ce al daijala confesetan ezpada aguinduten jaconian, etzaca inundie bere parcatuco pecatuba; alperric eguingo dituz obraric andi, eta miragarrijenac; barriz, ecin confesadu al bada, eta eguin nai badau acto contricinoeco bat, euqui biar dau confesetaco gogua. Beste Sacramentu batzuec dira aguindubac, oneece dira, araco ain biar biarrenac ez izan arren, Jaungoicuac aguindu dauen eurac arceia; eta orregaitic, guizonac gracia artu albalei bere bera baga; artuten ezpaditu aguinduten jacan demporan, pecatu mortala eguingo dau. Au da Altaracua. Beste batzuec eztira biar biarrecuac, eta eztago eurac arceco aguindu gogor gogorric. Alambere ichico balitu artu baga, guichitan daucazalaco, edo uste dabelaco eztiriala ecartaraco gauza, pecatu mortala eguingo leuque. Oneece dira Confirmacinoe, eta Oleacinoecua. Beste batzuec dira bacotzaren vorondatera dagozanac, bada nai dabena artu leiquez, edo ichi leiquez; bada Elexa gustijarenzat biarrecuac badira bere, ez bacotzarenzat. Oneece dira Ordia, eta esconzacua. Sacramentu bacotza adi erasoten darian, au obeto azaldu, edo esplicaduco da.

Sacramentu onetatic batzui deitze ilenac, edo ilie dagozanenac: beste batzui vicijenac, edo vicirie dagozane-

nac. Henac dira, ifiniric dagozanac, pecatubaren erijot-  
zatic gracijaco vicitzara iragoteco; eta oneec dira, Ba-  
teo, eta Penitencija. Orregaitic oneec arecco ezta biar  
gracijan egotia, baña biar da daucan pecatubaren damu-  
ba euquitia. Vicijen Sacramentuba da, leen daguan gra-  
cija gueituteo ifiniric daguana. Onelacuac dira beste bos-  
tac. Oneec biar dan leguez arceco, gracijan egon biar  
da. Jaungoicuac berac bacarric emon al badau bere gra-  
cija, eta parcatu pecatubac; alambere, mesede au eguin  
nai izan euzcun guizonen bitartez: Eurac autu cituzan  
Sacramentuben Ministrotzat, eta emon eutzeen escubide,  
edo potestadia Sacramentubac eguin, eta euren bitartez  
gracija emon, eta pecatubac parcatuteo. Orregaitic, con-  
fessoriac dinuanian nic absolvietan, edo ascaturten zaitut  
ceure pecatubetatic, eguija gustijagaz dino, eta bene be-  
netan parcatuten deutzaz confesetan danari bere peca-  
tubac; ez berez daucan escubidiagaz, ezpada Jaungoi-  
cuaren ordeco leguez, eta bere izenian. Emetic ezagutu-  
ten dogu, eztala sacramentubac eguiten ditubezania  
biar gracijan egotia, euren bitartez gracija emoteco. Nai  
pecatuban egon deila confesadu, eta absolvietan daben  
Abade, edo Sacerdotia, nai gracijan egon deila, bardin  
bardin pecatubac parcatuten dituz: nai S. Pedroe batea-  
tu daijala, nai Judasec bateatu daijala, bardin izango da  
bateua.

Jaquinic cer dan Sacramentuba, eta cembat dirian  
Jesu Christoc bere Elexan ifini cituzanac; icusi daguigun  
celacuac dirian euren eguitade, edo efectuae, edo cer  
eguiten dabeen biar dan moduban artuten ditubenetan.  
Emoten deutzee, bada, gracija. Da gracija, izate Jaungoi-  
cozco bat, ceinec eguiten daben guizona Jaungoicuaren  
seme, eta ceruco herederu. Uxala argui arguitan ifini al

baneizube cer dan ceruco doe miragarri au, ondo ondo ezagutu daizuben bere arrigarrizeo anditasun pare baga au, ezauera onegaz viztu zaitezen, bera bacarric gueijagotan euquitera, mundu onetaco ondasun, anditasun gustijac, baita ceuben vicitzia baño bere: baña ecin au eguin neique, Aingueruben miinagaz verba eguingo baneu bere. Alambere, eguingo dot aleguina, cerbait adi erasoteco gracijac emoten daben Jaungoicuaren semetasun au. Guizon bat beste baten seme izateco, biar da beragandic izatia artutia; eta aita izateco biar da, seme danari bere izate edo naturalezatic izatia emotia. Batari deitza bestiaren semia, bere izatetic izatia artu dabelaco, eta bestiari aita, bere izatetic, izatia semiari emon deutzalaco; eta semia da aitaren zatija: orregaitic aita semiac dira izate, edo naturaleza batecuac. Guizonen artian gorputzetan jazoten dana, jazoten da Jaungoico, eta arimen artian bere. Eguiten da guizona Jaungoicuaren seme, artuten dabelaco gracijaren bitartez Jaungoicuagandic izatia; eta da Jaungoicua guizonaren aita, emoten deutzalaco izatia bere izatetic gracijaren bitartez; ain modutan, ce, guizonac gracia artuten dabenian, artuten dau Jaungoicozco izate bat, edo Jaungoicotasunen zati, edo parte eguiten da. Orra cergaitic dinogun gracia dala Jaungoicozco izate bat. Ecin inundic bere ezagutu guinaique, ceilan eguiten daben gracijac Jaungoico, eta guizonaren arteco mirarizeo Aitatasun, eta semetasun au; baña daquiguna da, Escritura Sagradubac dirauzcula, auxe, eta ez guichijago eguiten dabela. S. Pedro Apostolubac dino, gracijac eguiten gaituzala Jaungoicotasunaren partari, edo parte euquile. (1) S. Juan Evangelistiac dirauzen: Beguiraneure lastanae, ce maite gaituzan Jaungoicuac;

(1) 2 Petr. 1 v. 4.

bada nai izan dau, ez bacarric bere seme deitu gaitezan, baita izan gaitezan bere; eta alan bere seme gara. (1) David erreguiac dirauzcu: Neuc dinot; Jaungoico zare, eta Jaunaren seme zubez gustijoc. (2)

Gracija oni deitza santutuguina, santuten dabena, edo santificantia; bera artuten dabena, edo daucana santu eguiten dabelaco. Da modu bitacua; bata da araco pecatu mortalian daguanac artuten dabena, eta deitzo lenengua, bada, ez euquiric gracijaric pecatuban daguanac, bera da lenen beragan sartu dana, eta alan beronec iragoten dau arimia pecatuco erijotzatic gracijaco vicitzara. Bestiari deitzo bigarrena, datorrelaco arimara leen eucan gracijaren ganera; eta alan ezteutza emoten leen ez eucan vicitza gracijacua, ezpada aci, eta gueituten dau leen eucana. Gracija santutuguille, edo santificante onezaz ostian, dago beste bat, ceini deitzon erasognuille, edo actuala; eta da Jaungoicuac emoten deuzcun socorru, edo laguntasun bat; edo obeto esaterren, da Jaungoicuac berac lagundutia obra onen bateraco. Ain da biarra gracija, edo laguntasun au, ce bera baga ecin obra onic asi, aurrera eruan, ez amaitu guinaique. Onelaco gracija, edo laguntasunac dira bertatico erijotza, sermoe, pensamentu santu, gurari on, gach, edo enfermedade, castigu, eta beste gauza gusti, ceinecaz atera gura gaituzan Jaunac pecatutic, eta eruan bere adisquidetasunera.

Zaspi Sacramentubac emoten deuzcubez gracija gusti oneec: Batzuc ifini cituzan Jaunac, lenengo gracija emoteco; au da, pecatutic gracijara iragoteco; eta dira Bateo, eta Penitencijacua. Orregaitic, oneec euren ez emoten dabee lenengua; baña nosbait emon leije bigarrena bere. Confesetan da bat ondo pecatu mortalic euqui ba-

(1) 1 Joa cap. 3 v. 1. (2) Ps. 81 v. 6.



ga, edo pecātu venialacaz bacarric; orra celan Sacramentu onec gueituten deutzan leen eucan gracia, edo emoten deutzan bigarrena, ifinirie badago bere lenengua emoteco. Beste bost Sacramentubac emoten dabe bigarren gracia, bada bera emoteco dagoz Elexan. Orregaitic, euras biar dan moduban artuco dituzana, egon biar da gracia. Gracia onezaz ostian, Sacramentu bacochoac emoten dau gracia berezco, edo particular bat; eta da indar, edo laguntasun bat Sacramentu atañ artu daben santutasunian sendo irauteco, eta bere bitartez artu daben officio, edo obligacinoiac ondo beteteco. Bateoac emoten dau gracia berezco, edo particular bat, bertan artu dan garbitasuna zainduteco, eta Christinau bati dagoquijozan biar, edo obligacinoiac bete, edo cumpletaco. Confirminoiac, fedia edonun lotzabaga confesetaco, eta biar bada, nequeric andijenac, eta erijotzaric gogorrena iragoteco. Comuninoiac, janari onegaz artuten dan osasun, eta indarrian aurrera juateco. Penitencijac, parcatuten daben peçatura ez ostera biurtuteco. Oleacinoiac, demoninuaren tentacinoien contra irrime pelietaco. Ordia-cuac, Obispo, Abade, edo Sacerdote, eta Elexaco beste ordendubac, eurai dagoquijuezan obligacinoiac beteteco; eta Esconciac emoten deutzee escondubai gracia, alcar maitetu, eta umiac ondo aziteco.

Baña Sacramentubac mirarizco gracia onec eguin daijezan, ezta asco euras edoccin modutan arceia; eldu biar da euras escatuten dabecen prestatasun, edo disposicinoiagaz. Ilen Sacramentubac badira, euqui biar da daucazan peçatuben damuba. Guizon aci bat batcatuten bada, artu biar dau berac bere vorondatez eguinico peçatuben garbajja. Bardin da confesetan danagaz. Beste bostac artu gura dituzana, eldu biar da euretara gracia

daguala; eta ezpadago, ifini biar da; bestelan gracia, eta euren laguntasuna artu biarrian, pecatu mortal barri bat eguingo dau. Onezaz ostian; Bateo, Confirmacinoe, eta Ordiaco Sacramentubac dauque beste eguitade, edo efecto bat; eta da siluba; edo esan oi dana leguez, caractera; cein eztan beste gauzaric, ezpada iru Sacramentu oneec ariman eguin, edo ifinten dabeen silu, ezaugarri, edo señale bat, ceinetan igarten jacan sacramentu oneec artu dituzana; eta alan, bateatu danac dauca bere ariman silu, edo señale bat, cetan igarten jacan bateaturic daguana. Bardin da confirmaduric, eta ordenduric dagozanaz. Ain sendo itzatzi, edo imprimietan dabee Sacramentu oneec silu, edo ezaugarri au, ce etzaca bein artuten daben arimiari quenduco, ez bacarric mundu onetan, ezta bestian bere; eta alan euracaz egongo dira ceruban santubac, eta infernuban condenadubac. Orregaitic, beste Sacramentubac sarri artu al baleitequez bere, oneec iruroc ecin barriztadu leiquez; edo bein artu dituzunac, ecin ostera artu leiquez. Beste gauza asco dagoz cer esan sacramentuben ganian, baña azalduco dira, bacocho adi eraso daigunian.

*Erasoguinza.*

Cembat bide ceruraco idigui deuzcuzan gure Jaungoienac! ce celai! ce errazac! Bera cerutic luurrera jatzi artian, zarraturic egozan glorijaco atiac: ara elduteco gustija zan aldatz nequetsuba, lupatza ondobaguia, estropezu pelleburutsuba, eta gustija eguan, infernuco lapurrez beteric. Etorri zan Jesu Christo, eta bere neque, bere lan, bere odol, eta bere erijotziagaz lautu cituzan aldatzac, bardindu cituzan lupatzac, quendu cituzan estropezubac, lotu cituzan infernuco lapurrac: beinguan

esaterren; idigui euzcuzan bide seguru, artez, eta neque-  
 baguiac. Bide onetatic sartuteco, ifini deuzcu Bateoa. Con-  
 firmacinoian emoten deuzcuz ibilteco indarrac. Gose, edo  
 egarrijac emoten badeuzcu, Altaraco Sacramentuban  
 daucagu janari, eta edari ugarija. Estropezadu, eta jaus-  
 ten bagara, zauri, edo eparen bat eguiten bajacu, gach,  
 edo enfermedaderen batec arcen bagaitu, Confesinoe, edo  
 Penitencijan daucagu osasunguei, edo medicina. Infer-  
 nuco lapur, gueure arerijo demoninuac urteten badeuz-  
 cube bideric estubenian, Oleacinoian artu guinaiquez, eu-  
 rac aspiratu, eta goituteco indarrac. Ezpadaquigu bidia,  
 eta bagagoz uts eguiteco, edo bide oquerretic arceco pe-  
 lleburuban, ordeaco Sacramentubac emoten deuzcuz  
 Obispo, eta Sacerdotiac, norzui itandu nundie ibili biar-  
 garian. Araguijen pisubac macurtuten dabena, Matrimo-  
 ninuac arinduco deutza pisu au, eta emongo deutzaz in-  
 darrac, esconziac dacarzan carga astunac vidian necatu  
 eztaizan. Azquenez; bacarric ibili ez gaitezan bide one-  
 tan, bera izan gura da gure bidelagun, eta onetaraco  
 gueratu da Altaraco Sacramentuban.

Ce bide errazagoric nai ceunque, neure enzula mai-  
 tiac, Jesu Christoc ceruraco ifini deuzcuna baño? Ce bi-  
 de celaijagoric? Eztaucagu achauquijaric bertatic poz po-  
 zic ez ibilteco. Baña esango deutzazube: Eztatzula ain  
 erraz, ain lau eguiten bide onetatic ibiltia; eztacutzula  
 esan dan pozic, ez laguntasunic, ez atzeguinic. Ay neure  
 Christinaubac: sinistuten dot eguija dinozubela, eta de-  
 ritzat, ascori, eta ascori latz, garratz, bacar, eta nequet-  
 su eguiten jatzubela. Baña cegaitic? Ez bidia bera onela-  
 cua dalaco, ez Sacramentubac esan dan poz, olgura, eta  
 indarra emoten eztabelaco; ezpada bide onetati zabilza-  
 laco, ceure ganian pisu esquerga, eta carga ccin jazo al

dozun bat dozula. Zubei jazoten jatzube, guizon bati bidian jazo al leiquijona. Dua guizon bat ozta ozta ganian euqui al daijan carga bat lepuan dabela. Dabilen bidia gustiz da ederra, celaija, biguna, arguija, eta zabala; duaz beragaz bidelagunac; daucaz nai izan al leiquezan janari, eta edaritic gozuenac; alambere, astun, garratz, eta nequetsu eguiten jaca bide au; eta cegaitic? Ez bidia bera charra dalaco, ezpada lepuan carga icaragarrija daroialaco: Bota begui daroian pisuba, eta erraz eguingo jaca bidia.

Auxe berau zuri bere jazoten jatzu. Bigun, artez, celai, eta pozez betia da ceruraco bidia; baña pica, latz, eta gogor eguiten jatzu zuri, ceure ganian daruazulaco pecatuben pisu esquerguia, eta ceure ecandu citalen carga gustiz astuna. Orregaitic zuaz luurreño macurturic, necatu, aricatu, eta icerdi artian ito aguinian. Zagoz aurrera juateco adin, eta indar baga. Ecin zeure buruba goratu al dozu, ozta ozta pausuchu bat aurreranz emoten dozu. Orra nundic datorquizun, ain garratz, eta astunzat euquitia ceruraco bidia. Bota eguizu zeure gañetic pecatuben pisu icaragarri ori penitencijaren bitartez; quendu eguizu ecanduben carga luurreraño macurturic zaucazan ori; jagui zaitez daucazun naguitasun orretic, eta icusico dozu, celan, ez bacarric eztan gogorra cerura doian vidia, ezpada biguna, arguija, ederra, pozez, atseguinez, eta olguraz betia. Zauri, edo eparen bat gaiti errenca basabilz, penitencijagaz osatuco dozu; gose, edo egarrija cadenduric bazaucaz, jan, eta edan eguizu naico gustija altaraco maijan: janari onec emongo deutzuz indarrac, arin aringa juateco ceure Aitaren echera. Infernuco lapurren bildur bazara, escatu eijozu Jaunari, lagundu deizula bidian; bera juango da zugaz, bera izan-

go da zure bidelagun, eta bera zugaz izan ezquero, eztaucazu cer euqui inoren bildurric; berac zainduco zaituz, berac eruango zaitu bide artecetic, eta ezteutzu ichico, ceruco Aitaren echian ifini artian. Amen.

### XIII. VERBALDIȚA.

*Bateo, edo bautismoco Sacramentubaren ganian.*

**E**lexa Ama Santubaren zaspí Sacramentubetatic lenengua da Bateo, edo Bautismua. Bautismuac esan gura da garbitutia, eta emoten jaco izen au, bera eguiteco, gorputza uragaz garbitu biar dalaco; baita bere, berac arimari quenduten deutzazalaco daucazan orban, edo mancha gustijac. Deitza bere bigarren sortuera, eta jaijatzia. Lenengo; sortu, eta jaijoten gara gorputza emon euzcuben gurasuaegandic, eta orregaitic gara euren seme. Bigarren; sortu, eta jaijoten gara Bateo, edo Bautismuan artuten dogulaco Jaungoicuagandic gracijazco izate barri bat; eta orregaitic jaijatza bigarren augaitic, gara Jaungoicuaren seme. Beste izen asco badaucaz bere, oneexec dira lenen, edo principalenac. Da bada bautismua uragaz gorputza garbitutia, batera ezanagaz aguinduric dagozan verbaac. Edo da, Jesu Christo gure Jaunac bere Elexan ifinirico Sacramentu bat, guri emoteco gracia, noren birtartez artuten dogun sorrera, eta jaijatza barribat.

Modu bitan emon leiteque bautismua. Lenengo. Elexan aguinduric dagozan cirimonijacaz. Modu onetan baccarric emon leije Obispo, Cura, eta beste Abade, edo Sacerdotiac. Oni dei eguiten jaca Elexbateua. Bigarren; premina, estura, edo necesidadecua; eta da araco

umia ilteco pelleburuban daguala, edo coin vicirie Ele-  
xara eldu leitequialaco bildur danian emoten dana, ba-  
teatu baga il eztedin. Oni deitza echebautismua. Izanic  
ain gauza biarra bateatutia, ce coin bestelan inor salvadu  
leitequian, nai izan eban Jesu Christoc, edonoe euqui  
leijan bera emoteco escubidia. Orregaitic; edonor aur-  
quitu leitequialaco bautismua emoteco premina, edo biar-  
rian, gustijac jaquin biar dabe celan bateatuten dan,  
arimaren bat galdu eztedin ez jaquinagaitic. Ara bada,  
cer eguin biar dozuben onelaco preminarie danian. Ba-  
dago Abade, edo Sacerdoteric, onexec bateatu biar dau;  
badago Evangelijoz ordenduricoric, onec bestec baño le-  
nago: guero Epistolia daucanac; onen urrengo beste or-  
dearie daucanac; guero guizonac, azquenez emacumiac;  
baña emacumiac guizonac baño obeto badaqui celan ba-  
teatu biar dan, ~~edo guizonac bateatu biar dau.~~  
onduen daquijanac bateatu biar dau. Seina azurrian, edo  
erdi jaijorie badago, onduen onduen izango da andra-  
maestriac bateatutia; baña bateatu daijanac bateatu daija-  
la, bateaturic gueratuco da. Uragaz bacar bacarric ba-  
teatu biar da, ez ardaugaz, ez ezniagaz, ez aguardien-  
tiagaz, ez garnubagaz, ez lora, arbola, edo bedarretatic  
aterarico sucu, edo uragaz, ez beste ur benetacua eztan  
gauzagaz. Izanic bada ura, ezta import edonungua izatia,  
nai dala ibaicua, nai dala iturricua, nai dala pozucua,  
nai dala ichasocua, nai dala itusuracua, nai dala garbija,  
nai dala loija, nai dala otza, nai dala epela, nai dala be-  
rria. Bateatuteco esan biar dirian verbaac, dira onexec:  
Nie bateatuten zaitut, edo bautizetan zaitudaz Aitiaren,  
Semiaren, eta Espiritu Santubaren izenian. Amen. Verba  
oneec esan biar dituz ura ezarten deutzanac berac; bada  
batec botaten badau ura, eta beste batec esaten badituz

verbaac, eztago bautismoric. Verba oncec esan biar dira, ura ezarrizagaz batera, edo ura botaten daguan artian. Ura bota biar da burutic beera, eta ecin bada, gorputze-co alde, edo parteric nagusi, edo principalenian, eta ecin bada an bere, nai oñ, nai escu, nai atzian. Au eguiten danian euqui biar da gogo, vorondate, edo intencinoia, eguitemo Elexa Santubac eguiten dabena, edo bateatuteco.

Oraindio bere; ondo ondo icasi daizuben celan bateatuteco dozuben, zuben ez jaquinagaitic arimaren bat galdu eztedin bautismo faltaz, esan gura deutzubet, cer eguingo dozuben onelaco premina, edo necesidadian. Artu eguizu ura nai iturricua, nai ibaicua, nai pozucua, nai loiija, nai garbija, nai otza, nai berua; ura bacarric, ez beste gauzaric bere orde, eta ezegaz bere nastadu barga; ezarri eguizozu seinari, edo bateatu gura dozunari burutic beera. Botaten zagozan artian esan eguizu bateatuteco gogo, edo intencinoiagaz: nic bautizetan zaitut Aitiaren, Semiaren, eta Espiritu Santubaren izenian. Amen. Onceexec bacar bacarric esan eiquezuz bestegaz nastadu barga, ez Maria gustiz Santu, ez S. Josepe, ez S. Pedro, ez S. Paulo, ez beste santuben izenic. Dudan bazagoz umia vici dan ala ez, bateatu eguizu dinozula: vici bazara, edo viciric bazagoz, nic bauticetan zaitut Aitiaren, Semiaren, eta Espiritu Santubaren izenian. Amen. Ain modutan au eguin biar dozu, ce gustiz ciur ciur, edo ciertu ciertu ezpazagoz ilic daguala, zuri eretzi arren eztaguala viciric, beti bateatu eiquezu esan dan moduban. Seinaren Aitac, edo Amac eztabe inosbere beru bateatu biar, badago beste bateatu al leijanic, alainche aguinduric dagualaco; baña umia ilteco pelleburuban balego, eta eurac baño besteric ezpalego, edo egon arren,

nai ezpaleu bateatu, edo ezpalequi celan bautizadu, orduban bautizadu leique nai batac, nai bestiac.

Beste gustiz jaquin biar dan gauza bat emenche esan gura deutzubet; au da, cer eguin biar dan emacumeren batec seina galduten dabenian. Onelaco gauzarembat jazoten danian, ezta sabeletic urteten daben gorpuzchuba bertatic bota biar dan demporacua dala, nai ila betecua, nai bicua, nai irucua; cegaitice eztaqui oraindio inoc ciur ciur ce dempora barru, edo nos artuten daben arimia amaren zabelian daguan gorpuzchubac; eta alan jazo leiteque, zubece uste izan arren arimanic eztaucala, arimia euquitia. Jazo bere leiteque, zubece uste izatia ilic daguala andichubagua dan ume dempora baga urtena, cirquinic eguiten eztabelaco, negarric, ez arnasaric sentietan ez jacolaco, eta alambere viciric egotia; eta alan balitz, arima a ez litzateque salvaduco bautismo faltaz. Orregaitic, ara cer eguin biar dozun orduban. Eguin biar dozu aleguin gustija jaquiteco viciric daguan, ala ez; eta ezin jaquin albadaizu, (ecin jaquin al leitequiana leguez gucijenetan) quendu eguijozu seinlaguna, edo araco azalhu ceinetan daguan, eta bateatu eguizu esan dan moduban. Orduban esango dozuna da: duin bazara, edo capaz bazara, nic bautizetan zaitut Aitiaren, Semiaren, eta Espiritu Santubaren izenian. Amen. Au eguinagaz ezta ecer galceen, eta asco aurreratu leiteque: arimanic ezpadauca, edo ilic badago, ecer galcen ezta, bada ezta orregaitic Sacramentuba guichitan euquiten, edo desprecietan; eta viciric badago, idiguiten jaca ceruco atia.

Bautismo oni deitzo urezco bateoa, uragaz eguiten dalaco; baña, onezaz ostian dagoz beste bautismo modu bi. Batari deituten jaca odolezcua, bestiari gogo; gurari, edo vorondatezcua. Odolezcua da martirijua; au da, vicitzia



galceia Jaungoicuagaitic, bere leguia gaitic, edo fediatgaitic. Esateraco; ilgo baleu Gentil, Turcu, edo Judegubatec bateatubaga daguan ume bat Christori deutzan gorrotuagaitic, jaquinic bere gurasuac bateatuteco dauqueela; edo oraindio bautizadu baga daguanen besterembat, Christoren legue, edo fediarene contraerbait eguin gura eztabelaco; au bateatuco litzateque odolezco bautismuagaz, parcatuco leiquijoz bere pecatugustijac, eta salvaduco litzateque. Gogo, edo gurarizcua da euquitia bautismua arceco vorondate oso, eta gurari vici bat. Esateraco. Ezagututen dau Gentil, edo Judegu batec, Jesu Christoren leguia dala bacarric benetacua; eta jaquinic bautismua dala Christinau eguiteco lepengo biardan gaucia, artuten dau bateatuteco vorondate benetaco bat berac eguinico pecatuben damubagaz, eta urrengo al daijanian Saeramentu au artuteco uste, edo propositubagaz. Auxe da Bautismo gogozcua, edo gurarizcua: onec parcatuten deutzaz pecatu gustijac, eta emoten deutzaz gracia; eta gogo au daucana ilgo baliz urezco bautismo baga, bere erruz ez izanic, salvaduco litzateque.

— Emenche emon gura deutzubet itundute, edo consejubat. Jazo leiteque venturaz, zuc, eta beste gustijac uste izan arren bateaturic zagozala, ez egotia; edo biar dan moduban verbaac esan etzirialaco, edo ur orde beste gauzaren bategaz busti cendubezalaco, edo andramaestriac arrastaca ebilela ondo bateatu etzenduzalaco, edo beste usune, edo faltaren batgaitic. Onelaco gauzaren bat jazo bazan zu bateatu cendubezarian, etzagoz bateaturic. Alde bateticecin inoe bateatu cinaiquez barriro; besteticecin cerura sartu cinaitequez bautismo baga. Ce erremedijo bada? Euqui gogo vici, eta vorondate oso bat, ba-

teaturic ezpacengoz, bautismua artuteo; bada gurari onegaz betetan da, urezco bateo atan aurquitu al ceitequian utsunia, edo faltia. Orregaitic gustiz da gauza ona, noxiambein barristetia bautismua arceco gogo, edo vorondatia; bada bautizaduric ezpacengoz, gurarizco bautismo onec betetan dau urezco bautismuari falta izan jacana, eta bateaturic bazagoz, asco mercci cinaique Jaungoicuaren aurrian.

Andi, eta miragarriac dira bautismuaren eguitade, edo efectuac. Lenengua da; pecatu originala quenceia, edo araco gueure lenengo guraso Adanganic dacargun pecatuba parcatutia. Bigarrenengo; bateatuten danac badauca beste peaturic, areec bere parcatutia. Esateraco. Bateatuten da urteetan aurrera doian guizon bat. Daucaz onec bere vorondatez eguinico pecatu asco, eta andijac; bada bautismuac, ez bacarric quenduco deutza pecatu originala, baita bere, bere vorondatez eguinico daucazan gustijac, alan mortalac, cein da venialac. Irugarrenengo: quencen deutza pecatu bitartez bere ganian artu evan zorra, edo eucan orban, edo manchia; eta ain modutan garbituten dau, ce peccatariric andijena bateatu ezquero ilgo balitz beste peaturic eguin baga, artez artez, eta Purgatorijotic irago baga juango litzateque cerura. Bafia eztau quencen bautismuac lenengo gurasuen peccatutic datorquigun gacheraco gurari, echutasun, edo inclinacioia. Gueu gara eguija onen testigu; bada bateaturic bagagoz bere, gueure araguijan dacuzcu, edo sentietan dogu gach, eta dongaroraco etzuntasuna, ceinec gurata gura ez leguez garuazan gwestoquerijara, eta latz, eta garratz uste erasoten deuzcu on eta santidadeco bidia. Alambere; gueure araguijaren etzutasun, eta gurari cital au peccatutic badator bere, ezta berez pecatu gueuc gueu-

re guraz, edo vorondatez baija, edo consentimentuba emoten ezpadeutzagu. Ez euzcun quendu nai izan Jaungoicuac gorputzaren etzuntasun, edo inclinacinoe cital au, euqui guenguijan arerijo au nogaz peleadu, bera eciteco aleguinagaz irabaci guinaijan goitute, edo victorija; cein бага ehtaguan glorijaco coroeric ceruban. Onetaraco ez gaituz bacarric isten, berac lagunduten deuzcu guerra onetan bere gracijagaz.

Bautismuaren laugarren eguitade, edo efectua da gracia santutuguille, santututen daben, edo santificantia. Gracia onen bitartez quencen da ariman eguan pecatuba. Ara celan. Pecatuba ezta beste gauzaric, ezpada iluntasun bildurgarri bat; eta gracia da ceruco argui, eder, miragarrija: orregaitic, bardin da gracia ariman sarceia, cein da pecatuba bertatic quenceia. Sartu eguizu guelarie ilunenian argui bat, icusico dozu celan berbertatic quencen dan len eguan iluntasuna. Bostgarren eguitade, edo efectua da; emotia gracijagaz batera fede, esperanza, eta caridadia. Beste lecubaten astiruago azaldu, edo esplicaduco dira iru onoidade edo virtute onec. Seigarrena; eguitia bateatuten dana Jaungoicuaren seme, eta ceruco ondasunen herederu. Zaspigarrena; emotia arimiari berezco gracia, laguntasun, eta indarra, arturico gracia, eta Jaungoicuaren semetasunian sendo egoteco. Zorzigarrena; eguitia guizona Elexiaren parte, eta beste Sacramentubac artuteco duin, edo capaz; eta alan bautismua da Elexaco ate ain biarra, ce ecin inundic bere Elexa santuban sartu leiteque Sacramentu onetatic baño; eta bera artu eztabena, Elexatic campora dago; orregaitic bateatu бага daguanac ecin beste Sacramenturic artu leique. Azquenengo eguitasun, edo efectua da, ariman ifinten daben silu, edo caractera, cein cztan beste gauzaric,

ezpada bautismuac ariman ifinten daben ezaugarri inos ecin quendu leitequian bat, ceinetan ezagututen dan nor dan bateatuba, edo bateaturic daguana.

Ainchinaco oitura, edo constumbria da Elexa Santuban, emotia bateatuten danari Aita besuetaco, edo pontacuac. Onei dei eguiten jacuen Arzailaac, artuten eveelaco eureen ardurara, bateatuten zana; baita bere isquinzailiac, isquini, edo prometietan eveelaco, Christinau onac izango ciriala bautizetan cirianac. Deituten bere jacuen fijadoriac, eurac dirialaco, euren seme besuetacuai Jaungoicuac emonico arimaco ondasun ugarijen fijadore. Ain dagoz asturic Christinauben artian Aita besuetacuac euren seme pontacuacganaco dauquezan obligacinoiac; ce gueijenac eztaquiye cetaco dirian bere. Uste dabe eztaquela beste cer eguinic, ezpada lagundu Elexara, artu besuetan bateatuten dirian artian, eta guero juan echera. Ara bada cetaraco nai daben Elexiac bateatuten dirianac euqui daijezan Aita besuetacuac, eta ceinzuc dirian euren biar, edo obligacinoiac. Bautismua bigarren jaijotzia da; eta edocein guizonec jaijoten darian gurasuac daucazana leguez, alainche nai dau Elexiac, jaijotza barri onetan euqui daguizan gurasuac, eta orregaitic emoten deutzaz gurasotzat Aita besuetacuac; eta gurasuac euren semien zainzaile diriana leguez, alainche Aita besuetacuac izan biar dira euren seme pontacuen zainzaile. Emetic dira ezagun euren biar, edo obligacinoiac. Lenengo; maitetu, edo amadu biar ditubez, guraso batec bere umiac lastan ditubena leguez. Bigarrenengo; iracatzi biar deutze doctrina Christinauba ezpadaquiye, edo euren gurasuac, edo bestec iracasteco arduraric ezpadauque. Irugarrenengo; aleguina eguin biar dabe confirmacinoeco Sacramentuba artu daguijen. Lau-

eta agundu deutze bere errcinuco andijai, ceinzuc dirian Aingueru, eta Santubac, ezagutu zaijezala bere semetzat.

Orain bada; ce erreguec, ce aguintari, edo Emperadorec, ce beste guizonec, lur gustico jauve balitz bere, eregui cinaiquez onelaco diñade, honra, eta anditasunera? Ez inoc. Orregaitic atzochuric pobrien pobriena, guizonic bastertubena, nequetzubena, billoxena, andijago, honradubago, aberatzago, zorionecuago da Christinau izanic, mundu onetaco Marques, Conde, Duque, Erregue, Aguintari, eta guizonic andijenen gustijac baño. Atzochu pobre, bilox, basterchubaten otzac ilic, eta gustijac asturic zagozana, cetaco daucazu jauregui ederretan nai ditubezan janari, jasteco, eta ondasun ugari artian vici dirian Señora, edo andreen embidija? Christinau zara? Andijago zara, aberatzago zara, honradubago zara erreguinaric andijenen gustijac baño: Jaungoicuaaren alaba zara, Jesu Christoren arreba, ceruco erreguina zara. Ateric ate esquian erdi biloxic zabilzan pobrechuba, cetaco daucazu guizon andi, capitea enzun, caballero aberatz, eta erregue alsu, edo poderosuen embidija? Christinau zara? Eztago luurren ganian zu baño aberatzagoric, ez principe, edo erregue alsu, edo poderosuagoric, nobliagoric, ez honradubagoric; bada oneec gustijoc gaur badira, bijar eztira: gaur erregue sendo, jauregui, edo palacijo ederretan ondasun ugari, janari gozo, olgura naico artian; bijar, pobre, villox, azur pillo bat eguinic, obipe, edo sepultura baten estutu, eta zarraturic, eta gustijac asturic. Baña Christinaubaren honra, diñade, eta anditasunac ceruban dauca sustraija; beti beticua izango da; ezta inosbere galdu, amaitu, ez guichituco, berac nai ezpadau.

eta agundu deute bere erreinuco andijai, ceinzuc dirian Aingueru, eta Santubac, ezagutu zaijezala bere semetzat.

Orain bada; ce erreguec, ce aguintari, edo Emperadorec, ce beste guizonec, luur gustico jauve balitz bere, eregui cinaiquez onelaco diñade, honra, eta anditasunera? Ez inoc. Orregaitic atzochuric pobrien pobriena, guizonic bastertubena, nequetzubena, billoxena, andijago, honradubago, aberatzago, zorionecuago da Christinau izanic, mundu onetaco Marques, Conde, Duque, Erregue, Aguintari, eta guizonic andijenen gustijac baño. Atzochu pobre, bilox, basterchubaten otzac ilic, eta gustijac asturic zagozana, cetaco daucazu jauregui ederretan nai ditubezan janari, jasteco, eta ondasun ugari artian vici dirian Señora, edo andreen embidija? Christinau zara? Andijago zara, aberatzago zara, honradubago zara erreguinaric andijenen gustijac baño: Jaungoicuaaren alaba zara, Jesu Christoren arreba, ceruco errequina zara. Ateric ate esquian erdi biloxic zabilzan pobrechuba, cetaco daucazu guizon andi, capitea enzun, caballero aberatz, eta erregue alsu, edo poderosuen embidija? Christinau zara? Eztago luurren ganian zu baño aberatzagoric, ez principe, edo erregue alsu, edo poderosuagoric, nobliagoric, ez honradubagoric; bada oneec gustijoc gaur badira, bijar eztira: gaur erregue sendo, jauregui, edo palacijo ederretan ondasun ugari, janari gozo, olgura naico artian; bijar, pobre, villox, azur pillo bat cguinic, obipe, edo sepultura baten estutu, eta zarraturic, eta gustijac asturic. Baña Christinaubaren honra, diñade, eta anditasunac ceruban dauca sustraija; beti beticua izango da; ezta inosbere galdu, amaitu, ez guichituco, berac nai ezpadau.

Eta alambere, ce guichitan daucagun Jaungoicuaaren seme, eta ceruco ondasunen herederu izate au! Edoceimberere gurarichu citalgaitic galcen dogu: Ce zoraquerija gogorragoric? Ce itsumendi negargarrijagoric? Esan eguidazu: ce esango ceunque icusico bacendu Españaco erregeren seme nagucija, gvestuen gvestoz, eta gura daben moduban vici izaterren, igues eguiten dabela bere aitarren jauregui, edo palacijotic, botaten dituzala eucazan soñeco ederrac, eta alsis janciric, erdi billox, ortocic, eta gosiac ilic, charrizain sarcen dala? Etzeunque esango zoro galdu, sensun bagabat dala? Bada, au baño gustiz charrago da gue peecatubagaz eguiten doguna. Igues eguiten dogu gueure aita cerucuagandic, bota, urratu, eta zatituten dogu bautismuan emon jacun erropa ederra, eta erdi billoxie eguiten gara demoninuaren mempeco, edo esclavo, noren parian gustiz da gauza honraduba, charrizain izatia. Ez gaitezaz zoruac izan, zaindu daigun bateuan arturico gracija, emon daquigun betico glorija. Amen.

#### *XIV. VERBALDIJA.*

*Confirmacinoiaren gantian, nun adierasoten bere dan, ceresan gura dabeen Bateo, eta Confirmacinoeco ceremonijac.*

**E**lexa Ama Santuco bigarren Sacramentuba da Confirmacinoia. Confirmacinoiac esan nai dau sendatasuna, edo sendagarrija; eta alan da, Jesu Christoc bere Elexan ifini evan Sacramentu bat, ceinec sendatuten gaituzan bautismuan artu guenduban fedian. Irudi bategaz au adi erasoco deutzubet. Jaijo guinianian chiqui guinian, eta orregaitic ain argal, ce edoceinec goitu, eta aspiratu guinai-

zan; baña, celan aci gorputza, alainche joian sendatubagaz, eta artuten izan dogu indar gueijago. Auxe berau jazoten da gure arimiagaz bere. Bautismuan jaijoten gara, eta gara ume jaijo barri; orregaitic daucagu indar guichi gueure arerijuen contra pelictaco. Confirmacinoiagaz aciten gara bautismuan arturico gracijaren izatian, eta orregaitic sendatuten gara, eta irmetuten gara Sacramentu onegaz, gueure arimaço arerijuen contra pelieta-co, eta edonun confesetaco daucagun fedia, eta biar bada, vicitzia, eta odola beragaitic galceco. Obispua da, Sacramentu au emon biar dabena, eta emoten dau orijo balsamuz nastaduricuagaz curutze bat eguinagaz becoquijan, dirautzala: Sillatuten zaitut curutze santubagaz, eta confirmadu, edo sendatuten zaitut osasuneco chrisma, edo orijo balsamuzcuagaz, Aitiaren, Semiaren, eta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

Sacramentu au artuco dabena lenago bateaturic egon biar da, bada bateatu бага daguanac, ccin beste Sacramenturic artu leique. Ondo litzateque confirmaduco danac, errazoia zabalduric, edo arguituric euqitia, edo errazoién usura eldu ezquero artutia, jaquin daguijan cer artuten daben; baña, ez izanic erraz Obispo Jaunac ain zarri confirmetara etortia, edocin confirmadu leiteque bateaturic egon ezquero, nai dala umia, nai dala acija, nai dala gastia, nai dala zaarra. Sacramentu au vicijena da; orregaitic bera artuco dabena, gracijan egon biar da; bestelan, bertan emoten dan gracija artu biarrian, pecatu mortal barribat eguingo dau; eta alan confirmadu gura dana, pecatu mortalian badago, gracijan ifini biar da. Au eguin albaleiteque bere acto contricinoecoATEGAZ, onduen onduen, eta segurubago izango da confesetia. Gurasuac ardura andibat euqui biar dabe, curen seme, eta



alaba confirmadu biar dirianac, lenago confesadu deitezan. Sacramentu au ezta preminazcua, edo biar biarrecua cerura elceco; bada bera artu ezarren salvadu leiteque, ichiten ezpadau guichitan daucalaco, edo desprecijetan dabelaco; eta artu gura ezpadau Sacramentutzat eztaucalaco, edo uste dabelaco, eztala emoten gracijaric, ez beste doe miragarriric, edo eztala ecetaraco gauza, pecatu mortala eguingo dau. Onelaco desprecijoric ezcuqui arren, gustiz charito eguingo dau, al daijala artuten eztabenac, gauza bigaitic; bata, galzen dituzalaco bertan emoten dirian arimaco ondasun, doe, eta gracija ugarijac; bestia, bere arerijuen aspijan jausteco pelleburuban ifinten dalaco. Ara cegaitic: Arerijo gogor, sendo, eta crubelez inguiraturic vici gara. Oneec aleguin, eta indar gustijac botaten ditubez gu galceco; eta alan, gure vici gustija guerria da. Sacramentu onetan emoten jacuz indar andijac, eta arma senduac arerijo onecaz pelietaco. Celan bada, egongo ezgara arerijo onen aspijan jauzteco pelleburuban, opa jacuzan arma onec artu nai ezpadituguz? Sacramentu onec emoten daben indar, sendatasun, eta laguntasunagaz bere, ozta ozta goitu al badaiguz arerijo oneec, cer izango da gugaz laguntasun au baga? Dudatzaca betico galdubac izango gara. Orregaitic, eraquerija icaragarrija izango da, al daijanac ez artutia.

*Celuzuc dirian, eta cer esan gura dabeen Bautismo eta Confirmacinoeco ceremonijac.*

Elxebateuan eguiten dirian ceremonijac eztira biarrae bateatuteco; bada eurac baga norbait bateatuco baltiz, benetan bateaturic gueratuco litzateque. Nai izan dau bada Elcxa Ama Santubac, ceremonija oneec eguin

deitezan, iru errazuagaitic. Lenengua: Christinaubetan viztuteco bautismo santubaganaco devocinoia. Bigarrena: ezagutu daguijen euren bitartez Sacramentu onen, eta bertan emoten dirian doe miragarrijen anditasun parebagaia; eta irugarrena: jaquin daijan Christinaubac celaco obligacinoiac artu cituzan beragan bateatu zanian. Auxe beraugaitic esan nai neuzquezube, ce ceremonija dirian oneec, eta azaldu, edo esplicadu, cer adi eraso nai dabeen. Iru ceremonija modu dira bateatuten danian eguiten dirianac; batzuc, pontara eldu baño lenagocuc; bestiac, pontan bateatutera doianecuc; eta irugarrenac, bateatu ezquerocuc.

Eruan cendubezan bautizetara; baña, ez eutzuben ichi Elexan sarcen, etzinialaco diña an zarceco. Cengozan pe-catuban, Demoninuaren vici lecu cinian, gustijori cengozan atsitu, loitu, eta ezainduric; eta orregaitic gueratu eraso eutzuben Elexaco ateetan. Urten evan Cura Jaun, edo Abadiac, eta itandu eutzun ordubanche ifinten eutzula euquico cenduban izena: Urtija, ceren billa zatoz Elexara? edo cer escatuten deutzazu Elexiari? Eranzun ceuntzan: Fedia. Itandu eutzun barriro; cetaco dozu fedia, edo cer emoten deutzu fediac? Eranzun ceuntzan. Betico vicitzia. Bada vici orretan sartu gura bazara, esan eutzun zaindu eguizuz aguindu, edo mandamentubac. Amadu eguizu Jaungoicua zeure vijotz gustitic, ceure arima osuagaz, eta ceure indar gustijacaz, eta ceure proximua ceure buruba leguez. Lenengo Elexa Ama santubac zugaz eguin evana, izan zan dei eguin, ordubanche ifinten jatzun santuben baten izenagaz. Iru gauzataraco ifini jatzun izena. Lenengo; modu onetan honretaco Santu aren izena, eta berari escatuteco, artu zaizala bere egape, eta ardurapian. Bigarrenge; devocinoe andi bat euqui deihozun berari, eta

irugarrengo; ceure estura, premina, edo necesidadetan, dei eguin deijozun. Itandu eutzun cer nai cenduban, adi erasoteco, Elexara etorri nai dabenac, bere vorondatez etorri biar dala. Eranzun cenduban: fedia escatuten cendubala, berac cerura eruan cenguizan; baña esan eutzun Elexiac Cura Jaunaren aotic: Cerura eldu gura bazara zaindu eguizuz mandamentubac; esan baleutzu leguez, ondo eguiten dozu fedia escatutia cerura elduteco, bada berabaga ecin an sartu cinaiteque; baña jaquin biar dozu fede uts, eta obrabaguiac etzaituzala ara eruango; onetaraco lagundu biarco dituzuzala obra onac, ceinzuc eguingo dituzuzan, aguindu, edo mandamentubac gordiagaz.

Icasbide, edo doctrina au emonic, arnasia bota eutzun iru bidar arpeguira, zugandic urten eguijan barruban ceuncan Demoninuac, esaten eutzala onetaraco: Urten eguizu au gandic espiritu loija, eta eguijozu lecu Espiritu Santubari. Guero eguin eutzuzan curutze bi; bata becoquijan, eta bestia vijotzaren ganian, cirautzula; eutzi curutziaren ezaugarri, edo señalia becoqui, eta vijotzian, eta artu eguizu ceruco mandamentuben fedia, eta euqui eguizuz Jaungoicuaren templu izateco biar dirian oitura, edo costumbriac. Esango baleutzu leguez; orainguino Demoninuaren vici lecu eguinic egon zara, bota da zugandic, eta bere orde z ifini da zukan Jesu Christoren curutzia; irago zara Jesu Christoren soldadu izatera, etzaitte bada ostera biurtu demoninuaren mempera: zagoz sendo Jaungoicuaren aldetic, eta ez eguizu bota ceugandic curutziaren silu au. Etzan onegaz contentadu Elexa Ama Santuba; bete cenduzan alde gustijetatic curuttez, ceure gorputzeco edocein aldetan icusirie osasuneco ezaugarri, edo señale au, beti euqui daguizun beguijen aurrian ino astu baga. Guero ifini eutzun gatza auan cirautzula: Eutzi

jaquiturijaco gatzá, valija daquizun betico vicitzara el-  
duteco. Esan baleutzu leguez; ondo ondo icasi eiquezu  
Doctrina christinauba, eta zaindu eiquezu icasten dozuna,  
eldu al zaitezán betico vicitzara. Barrero agundu eutzan  
demoninuari urten egujala zugandic cirautzala: Diabru  
madaricatuba, ezagutu eguizu zure contra emonic daguan  
sentenciya; honradu eguizu Aitia, Semia, eta Espiritu  
Santuba; igues eguizu Jaungoicuaren servizaile augan-  
dic; bada Jesu Christo gure Jaunac dei eguin gura izan  
deutza bautismua artutera.

Botaric zugandic demoninua, edertu, sendaturic  
curutze santubagaz, eta ifniric zure espanetan jaquituri-  
jaco gatzá; cinian Elexa barruban sarceco diña. Orregai-  
tic artu cenduzan cirautzula Cura, edo Abadiac; sartu  
zaitez Jaungoicuaren Elexan, euqui daguizun parte Jesu  
Christogaz batera betico vicitzan. Sartu cinian Elexan,  
baña celan? Errecetan cendubala aita besuetacuen bitar-  
tez Credua, adi erasotcco fedia dala Elexan sarceco atia.  
Elexan sarturic, lenengo eguin eutzuna izan zan, artu be-  
re atzagaz bere aoco chistuba, eta eguin beragaz curutze  
bi ceure belarri bijetan, bat bacoedian cinuala; sentietaco  
usain gozua. Esan baleutzu leguez; beti beti idiguiric, eta  
zur euqui eiquezuz ceure belarriac enzuteco Jaungoicua-  
ren verbia, edo dala Sermoietan, edo berac bialduten di-  
tuzan castigubetan, edo dala egusqui, ilargui, izar, eta  
beste mundu gustico edertasunian, edo dala ceure vijot-  
zeco bacartasunian, verba eguiten deutzunian; eta ezagu-  
turic Jaunaren deijaren gozua, ez eiquezu iragoten ichi,  
ezpada obediu eijozu berbertatic. Orta pontara eruan ba-  
ño lenagoco ceremoniac. Icusi daiguzan orain, pontan  
eguiten dirianac.

Eruan cendubezan bateotegaira, eta arturic Aita besuetacuac ifini cenduzan pontā ganian. Bertatic itandu eutzuben: Ucatu, ernegau, edo errenuncietan deutzazu Satanasari? Eranzun cenduban: Ucatuten deutzat. Itandu eutzun barriro: Ucatu, ernegau, edo errenuncietan dituzuz bere eguiquera gustijac? eranzun cenduban: errenuncietan ditudaz. Itandu eutzen irugarrenez: Ichiten dituzuz bere ustazun, edo vanidade gustijac, eta arroquerija, edo pompaac? Eranzun cenduban: Ichiten dodaz. Au eranzunic, orijotu, edo ungidu cenduzan etorbarri, edo catecumenuen orijuagaz bular, eta espaldan, curutziaren ezaugarri, edo señalia eguiten evala ezanagaz onegaz batera: Nic orijotu, edo ungieta zaitut osasuneco orijuagaz, Jesu Christo gurc Jaunagan betico vicitzia euquidaguzun. Ce icasbide andijac daucaguzan ceremonija oneetan! Eldu einianian pontara, esan eutzun Elexa santubac Cura Jaunaren aotic: Gura badozu nic bateatu zai dazan, lenago verba emon biar dozu, etzariala inos diabrubagana biurtuco; etzariala inos bere ustasun, edo vanidadien ondoren ibilico; eta botaco dituzuzala betico bere arroquerijac; bada bestelan ecin nic bateatu einaiquedaz; eta zuc Sacramentu au artuterren, esan cenduban; botaten ditudaz betico Satanasa, bere ustasun, edo vanidadiac, bere antuste, edo pompac. Orduban Elexiac ezaguturic zure aragujaren argaltasuna, sendatu gura izan cenduzan, orijo santubagaz eguinico curutze bigaz; lenengo vijotzaren ganian, emon ez cinaijon bertan zarzajeraric demoninuari; eta espaldan, sendo peleadu cenguijan arerijo onen tentacinoien contra. Enzunic zure baija Cura Jaunac, itandu eutzun: Nai zara bateatu: Esango beleutzu leguez; ceure guraz, edo vorondatez zatoz bautismua arcera? Eranzun cenduban: Nai dot, au da bateoa-

ren gurari vici bat daucat, vijotz gustitie gura dot bateatu naizun. Au enzunic bautizadu cenduzan. Onexec dira pontan eguimico ceremonijac bateo aurrian. Icusi daiguzan orain bautismo ostecuac.

Bateatu eta bertatic, orijotu, edo ungidu cenduzan balsamubagaz nastaurico orijuagaz, jaquin cenguijan Christogaz bat eguin ciniala, gorputza burubagaz bat dana leguez; eta alan, beti emon biarco cendubala obra on, eta santidadiaren usain gozua. Guero emon eutzun jasteco zuri bat cirautzula: Eutzi soñeco zuri auxe; eta contu garbi, eta orban бага gordiagaz, beragaz aurquitu zaitez an juicijuan Jesu Christoren aurrian, artuteco betico vicitzia. Guero emon eutzun candela isiobat cirautzula: Eutzi candela isio au, eta zaindu eguizu artu dozun bautismua, aguiracarie mercei eztaizun moduban; zaindu eguizuz mandamentubac, Jauna estegubetara datorrenian bidera urten al deijozun ceruco Santu gustijacaz, euqui daguizun seculaco vicitzia, eta vici zaitez an beti betico. Erropa zurijan dirautzu; zure arimia daguala gracijazco soñeco zuri, eta garbijagaz janciric, eta beronegaz loitu бага aurquitu biar zariala, nai badozu ceruban sartu, ez talaco an aurquituten gauza itzusi, ez ezainic. Arguijan barriz dirautzu, orain emon jatzun fedia caridadeco subagaz isiorie daguala, baña candela amatauba eztana leguez gauza cerbait icusteco; alainche amatetan badozu pecatubagaz fedeco candelia, ezteutzula ecer valijoco fede il au euquitiac. Enzunic ceinzue dirian bautismoco ceremonijac, eta cer esan gura dabeen: enzuzuz Confirmacionoecuac.

Ceremonija bi dagoz Sacramentu onetan. Bata da oleatutia, edo ungiatia orijo bedeincatubagaz confirmetan danen becoquija, curutze bat bertan eguiten dala. Gauza

bi adi erasoten jacuz ceremonija onetan. Lenengo; Espiritu Santuba emoten jacula Sacramentu onen bitartez, eta eguiten gaituzala bere vici lecu, edo templu vici. Bigar-  
 rengo: curutzia becoquijan eguinagaz emoten deuzcu Je-  
 su Christoren soldaduben ezaugarri, edo señalia; eta au  
 da esatia, Jesus onarenac gariala: ez gariala inos lotza  
 izan biar, bere señale au gure ganian erabilten. Oquer-  
 retara: gure honra, gure gloriya, eta gure anditasun gus-  
 tija izan biar dala curutzia. Berau euqui biar dogula gueu-  
 re sendagarrizat, beronegaz irrima pelietaco gure ari-  
 maco arerijo gustijen contra. Bestia da; Obispuac confir-  
 madu danari belarrondoco bat emotia; jaquin daguijan,  
 prest prest egon biar dala, mundu onetaco neque, gach,  
 eta lanic gogorrenac iragoteco fedia gaitic, eta leenago  
 galdu biar dituzala ondasun, honra, eta vicitzia bera be-  
 re fedia baño.

*Erasoguinza.*

Orra celaco ceremonija misterijo miragarritz betiacaz  
 sartu cinian Elexan; artu cenduzan Jaungoicuae bere se-  
 metzat; eta aci cinian Aita ceruco onen echian. Ez eique-  
 zuz inosbere astu: baño gustijetatic gueijen gomuta izan  
 biar dozuna, gueijen bildurtu biar zaituzana da, bateatu-  
 tera cinuzanian emon cenduban verbia. Escatu ceuntzan  
 Jaungoicuari bautismua, onen bitartez fedia artuteco.  
 Eranzun eutzun Jaunac Cura Jaunaren aotic: ondo dago:  
 Prest nago ni, zuri escari ori emoteco; baño jaquin biar  
 dozu, neuc bere gauza bat escatuten deutzudala. Emen-  
 che verbia emon, eta juramentu eguin biar deutzazu, et-  
 zariala inos Satanasen parteco izango, ezteutzazula inos  
 jarraituco; ichico dituzuzala bere eroqueriya, edo vanida-  
 diac; bada verba au emoten ezpadeutzazu, ezteutzut nic

bere emongo, ez bautismoric, ez fede viciric, ez betico vicitzatic. Cer eranzuten deutzazu? Eranzun eeuntzan: Emoten deutzat Jauna neure baija. Eguiten deutzat juramentu, enazala inos Satanasen aldetic egongo; enazala inos bere jarrai ibilico. Ucatuten deutzet, edo errenuncietan ditudaz betico bera, bere ustasun, edo vanidadiac, bere antuste, edo pompac. Juramentu au etzenduban eguin basterren baten, ez basamortu bacarric cengozenen baten, ezpada Elexa gustijaren aurrian, otsandi, edo solemnidaderic andijenagaz. Zure bai, eta juramentu onen testigu dira ceruco Santu gustijac, eta Ainguerubac; bada euren aurrian eguin cenduban. Eta azartuco zara ceruban, eta luurrian dan anditasunic miragarrijenen beguijetan eguinico juramentu, eta promesa au austen? Euguico dozu arpeguiric urratuteco, ain ots edo solemnidade andi, aibat testiguren aurrian eguinico contratu au? Eta urratuten badozu, ce castigu merecico eztozu Jaungoicuagaz eguiten dozun lotzabagaquerija augaitic? Ezautu eguizu cerbait irudi, edo egemplu onegaz.

Contu eguizu, guizon bat daguala carcela ilun baten erijotzara condenaduric, catee astunez inguiraturic, burdinaz josiric, viloxic, gosiac ilic, egarriz itoten, eta ija ija urcamendi batera urteteco. Erruquituric Espanaco erregue, dua presondegui atara bere erreinuco andijacaz, eta itanduten deutza guizon oni: cer nai dozu eguin deizudan? Eranzuten deutza berac: Jauna atera naguijala presondegui onetatic; autortu, edo concedidu daguidala vicitzia, eta emon daidala cegaz vici. Ondo dago, dirautza erreguec; au gustijau, eta uste al cinaizan baño bere mesede andijaguac eguingo deutzudaz, gauza bat prometietan badeutzazu, eta da etzarijala nigandic iguez eguinic nire arerijuacgana iragoco. Emoten deutzazu verba



au? Eguiten dozu juramentu neure Erreinuco andi oneen aurtian? Bai Jauna, dino preso daguan onec; eguiten dot juramentu enazala inos berorren arerijucaz izango, eta nai dot, Jaun gusti onec izan deitezan nire juramentu onen testigu. Onegaz batera ateraten dau presondegui, edo carcelatic; darua bere jauregui, edo palacijora; jastan dau soñecoric ederrenacaz; dauca bere maijan, eta auturic bere seme, eta bere ondasun gustijen herederu, aguinduten dau erreinu gustitic, atacotzat ezagutu daijela gustijac. Orain, ce lotzabaquerija izango ez litzateque guizon onena, bere onguila andijen arerijuaegana iragoco balitz? celan azerratuco ez litzateque Erreguia? Ce castigu merecico ez leuque?

Bada neure enzula maitiac, auxe beran jazoten da zugaz bere. Cengozan pecatubaren presondegui atsituban. Emetic zu ateraco itandu eutzun Jaunac, beragaz beti egongo bacinian? eta baijezco juramentu zuc eguinic, eruan cenduzan bere jaureguira, au da Elexara; apaindu cenduzan gracijaren soñeco ederragaz; artu cenduzan bere semetzat, eta ceruco ondasunen herederutzat; aguindu eutzeen Aingueru gustijai, euqui, eta ezagutu cinaijezala atacotzat. Eta izango zara ain lotzabagaco, ain esquer-gogorreco, ce beragandic iguez eguinic juango zara bere arerijoric andijenacgana, eta ibilico zara guerra vicijan bere contra? Celan aserratuco ezta zugaz zure onguile ain andi, zure Aita ain on, zure Jaungoico ain amodijoz bete au? Eta ce castigu jatsico ezta zure gañian, onelaco chacharquerijarie eguiten badozu ceure onguila parebaga onegaz? Etzaitez bada ifini betico galduba izateco pelleburuban; izan zadiz mundu onetan bere seme maite, artu daguizun bestian onelacuenzat daucan herencia. Amen.

*XV. VERBALDIJA.**Altaraco Sacramentu, edo Comunioiaren ganian.*

**E**lexa Ama Santuco irugarren Sacramentuba da Comunioia; eta da Sacramentu bat, ceinetan ogui, eta ardauaren irudipian dagan bene benetan Jesu Christoren gorputz, eta odol benetacua. Gorputza ifinten da, oguijaren ganian consagracinoeco verbac esanagaz bat batera; eta odola, ardauaren ganian esaten dirianian; ain modutan ce verba onec esan baño leenago hostijan eztago oguija baño; eta calizan ardaua baño: baño consagracinoeco verbac esanagaz batera oguija biurtuten da Jesu Christoren gorputz, eta ardaua Jesu Christoren odol; gueratu baga ez hostian oguijaren substancia, edo izateric, ez calizan ardauaren izateric, edo sustancijaric; bacarric gueratuten dira ogui, eta ardauaren anz, edo irudijac, au da, usaina, coloria, eta gustua, edo savoria. Zure beguijac dacuzee ogui, eta ardauaren coloria, zure surrac sentietan dabec euren usaina, eta eurac jan, eta edaten badozuz, daucazu auan euren gustua; baño eztago eurentan, ez oguijen, ez ardauen izate, edo sustancijaric, ezpada, anz, irudi, edo accidente areen beian dagoz Jesu Christoren gorputz, eta odol benetacua. Oguijaren anzpian dago gorputza, eta ardauarenian odola. Jesu Christodago nai hostijan, nai calizan oso osoric, eta viciric, mundu onetan vici izan zanian leguez; eta alan hostijan dago ez bacarric gorputza, baita bere odola, arimia, Jaungoicotasuna, eta orregaitic Aitia, Semia, eta Espiritu Santuba. Bardin calizan dago bere gorputz, odol,

arimia, eta Jaungoicotasuna: baña dinogu, hostijan daguala gorputza; bere ganian esaten dirian verben indarrez ezta laco an ifinten gorputza baño; eta calizan odola ezta laco ifinten bere ganian esaten dirian verbeen indarrez odola baño. Cer esaten da hostijen ganian? Auxe da nire gorputza; bada emen ezta adi erasoten gorputza baño. Cer esaten da calizen ganian? Auxe da nire odola; verba onetan ezta beste gauzaric aituten Jesu Christoren odola baño. Orra cer esan nai dogun dinogunian, Jesu Christoren gorputza daguala hostijan, eta odola calizan, batian, eta bestian Jesu Christo gorputz, arima, odol, eta Jaungoicotasun egon arren.

Jesu Christo dago hostijan, eta bardin calizan ain oso, ain andi, cein da mundu onetan vici zanian; eta ez bacarric hostijan, baita bere hostijaren parte, edo alde ric chiquijenian. Alambere, ezta andijago gure Jauna hostija andijan chiquiric chiquijenian baño. Berbera da hostija baten daguana, eta mundu onetaco hostija gustijetan daguana; eta berbera ceruban Aita betico, edo Eternuaren escumatatic jarriric daguana, eta gure altaretan aurquituten dana, eta gue comulguetan garianian gueure auan artu, gueure estarritic irago, eta gure bularran sartuten doguna; bada ez gure altaretan egoteco dauca cer ichi ceruba, ez altara, edo hostija baten ifinteco dauca cer urten beste leen eguan altara, ez hostijatic. Echaca erraz eguiten gure astuntasunari mirari ain andi onece ezagututia; alambere sinistu biar dogu sendo sendo, eta dudatzaca, araco Jaungoicuaren seme Marija Virginia-gandic sortu, eta jaijo, ogueta amairu urtian mundu onetan vici, curutze baten il, irugarren egunian ilen arteric viztu, cerubetara igon, eta Aita beticuaren escumatatic jarriric daguana, auxe berberau dala hostija bacotzian,

eta hostijaren alde, edo parteric chiquijenian oso osoric, eta chiquitu baga daguana ceruban, eta mundu onetaco hostija gustijetan batera. Confesadu bere biar dogu, hostija erdi bi eguiten bada, edo zatituten bada, Jesu Christo gustija daguala zati, edo erdi bacotzian; baña eztala orregaitic erdibitu, edo zatituten an daguan gorputza.

Irudi bat ifinico deutzubet, ez arguitan ifinteco, edo espliquetaco Sacramentu onetan eguiten dirian mirari oncec; bada au ecin aitu leique, eta guichijago adi eraso guizonen sensun, eta miinec, ezpada ezagutu daguizuben, eztala emen emoten dan icasbide, edo doctrinia, jazo ecin leitequian gaucia. Jaijo cinianian ceuncan gorputza, eta arimia: arimia eguan gorputz gustijan orain daguana leguez. Zure gorputz ori ozta ozta zan cana-erdi. Juan zan acijagaz ain modutan, ce orain ija da cana-terdi, edo bi, alambere zure arima cana bico gorputz orretan daucazunori, ezta andijago cana erdico gorputzian eguanian baño; eta alan zure gorputza aci arren, eztauca ce aci arimiac gorputz aci onen alde gustijetan egoteco. Alainche, Jesu Christo gure Jauna bere dago hostija chiquijan ain andi, cein da hostija andijan. Beste gauza bat: zure gorputza daguan lecu gustijan dago zure arimia bere, ain modutan ce artu, edo beteco baleu zure gorputzac mundu gustija, mundu gustijan egongo litzateque zure arimia bere, eta gustija egongo litzateque gorputz gustijan, eta gustija edoceimbere alde, edo partetan. Arima orrec gorputzaren alde baten egoteco, eztauca cer ichi beste bat, eta alan, oñacaz ibilteco eztauca cer ichi buruba, veguijacaz icusteco eztauca cer ichi belarrija; batera dagualaco oso osoric alde gustijetan. Alainche bada, daguan lecuban daguala hostija, edo ardao consagraduba, ainche dago Jesu Christo, eta hostija baten ifinteco,

eztauca cer ichi, ez eeruba, ez beste hostija consagradu-  
bac.

Jesu Christo gure Jauna da Sacramentu onen ipinle,  
edo eguilia; bera da bere gorputza oguijaren auzpian, eta  
bere odola ardaurenian ifini evana. Bere buruba bere  
arerijuen escubetan ifinico evan gabian; eta bere vicitzia  
gugaitic galduco evan egun aurrian, afaldu ezquero bere  
discipulubacaz; artu evan bere escu santu, eta veneragar-  
rijetan oguija, eta emonic Aitari ezquerrac, bedeincatu,  
zatitu, eta errepartidu eutzeen bere icaslari, edo discipu-  
lubai, cirautzela: Eutzije, eta jan eguizube, bada auxe da  
nire gorputz zubezgaitic emongo dana. Au eguinic, artu  
evan bere escubetan ardaua eucan caliz, edo oncija; ira-  
cori cituzan ceruranz bere beguijac, bedeincatu evan, eta  
emon eutzeen bere icasla, edo discipulubai cirautzela:  
Eutzije, eta edan eguizube, auxe da nire odol zubezgai-  
tic izuri, edo ezarrico dana. Esanagaz, auxe da nire gor-  
putza; biurtu evan oguija bere gorputz; eta esanagaz,  
auxe da nire odola, biurtu evan ardaua bere odol. Verba  
onexecaz nai izan evan eguin cedin beti beti bere Elexan  
Sacramentu miragarri au. Auxe aguindu eutzeen Aposto-  
lubai esan eutzenian, eta euretan legue barrico Sacerdo-  
te gustijai: Au eguiten dozuben bacochoian, neure gomuta,  
edo memorijan, au da, nire izenian eguin eiquezube.  
Noc esan leique? Noc adi eraso leique? Noc pensadu be-  
re leique cembat, eta celaco mirari arrigarri eguin citu-  
zan gure Jaungoico andi, gure onguile maitetsu, eta gu-  
re Salvaguile amodijotan erriac Sacramentu au eguin  
evanian? Ez guizonec, ez Ainguerue bere; bada onexec-  
gustijoc eguiten dira, edoecin Abade edo Sacerdotec Sa-  
cramentu au eguiten daben bacochoian.

Emetic ezagutuco dogu cembat eta andijago, cembat

eta miragarrijago dan Sacramentu au beste seirac baño. Gauza bitan dago anditasun au. Lenengo: beste Sacramentubac iragocorrac dira, au da, eztabe irauten eguiten dirian artian baño. Esateraco: bauticetan da norbait, bautismuac eztau irauten ura bota, eta verbac esaten dirian artian baño; au eguinic eztago ija bautismoco Sacramenturic. Eguija da, bautizaduric gueratuten dala Sacramentu au artuten dabena, eta beragan gueratuten dala Sacramentubac emonico gracia; baña Sacramentuba bera bertatie irago zan. Ezta alan Altaraco Sacramentuban. Esaten dira verbaac, eta iragoten dira, ezta gueratuten ogui, ez arduaren izate, edo sustancijaric; baña gueratuten dira ogui, eta arduaren anz, irudi, edo accidentiac, eta euren beian Jesu Christoren gorputz, eta odola; eta onetanche daguana leguez Sacramentu onen izatia, accidente, edo anz onec dirauben artian, dirau Sacramentubac bere; eta alan Sacramentu au dago Altaran, edo Sagrarijuan dempora lucetan, ez iraun arren consagracioniac. Bigarren Sacramentu onen anditasuna bestien parian dago, bertan arren dan doc, edo gauciarren anditasunian. Beste Sacramentu gustijac emoten dabec arimia santututen daben gracia, ceinec garbitu, edertu, eta apainduten daben; baña onetaraco arimiari itzatziric, edo ariman egon biar dau, eta ecin beragan, edo bestegan aurquitu baga, iraun leique. Sacramentu onec barriz, ez bacarric emoten deutza arimiari santutu, apaindu, eta edertuten daben gracia; ezpada beragan dauca, eta beragaz artuten da gracia, zorion, eta edertasun gustijaren iturri, jauve, emoile, eta eguilia; au da, Sacramentu onetan dago, eta emoten jacu Jaungoico berbera bene beneten, eta eguija gustijagaz.

Jaquinic cer artuten dan Altaraco Sacramentuban,

erraz da ezagututia, ce arrigarri, eta Jaungoicozcuac izango dirian bere eguitade, edo efectuac. Ezta niretzat, ez beste araguizco guizonenzat, ezta Ainguerubenzat bere ezagututia, eta guichiago azaldu, edo espliquetia cembat, celacuac, eta ce andijac dirian. Alambere, al dodan moduban eguingo dot aleguina azaldu, edo espliquetaco. Lenengo: aci edo gueituten dau ariman lenago eguan gracija santutuguile, santututen dabena, edo santificantia. Beste Sacramentubac bere emoten dabe gracija au; baña ez ain ugari cein da onec; bada egonic Sacramentu onetan on gustijen iturrija; bestetan emoten dana ezta emetic urteten dabenen erretena baño. Bigarrenngo: emoten deuzcu indarra gueure arerijo gustijen contra irrimet pelietaco, eta curac goitu, eta aspiratuteco. Irugarrenngo: eciten dituz gure araguijaren gurari citalac, eta quendu, edo guichienez guichituten dituz euretaraco daucaguzan ecandu charrac. Laugarrenngo: parcatuten dituz pecatu venialac. Bostgarrenngo: guichituten dau, gure araguijac pecaturaco daucan echutasuna. Seigarrenngo: urrinduten gaitu pecatuben pelleburubetatic. Zaspigarrenngo: isioten dau gugan Jaungoicuaganaco amodijo, eta caridadia. Zorzigarrenngo: viztuten dau gugan bere pasinoe, eta erijotziaren gomuta, edo memoriija. Baña nora nua? Nundic nora uste neique nic adi eraso neiquezubezala, Sacramentu once eguiten dituzan mirari gustijac biar dan moduban artuten dabeenetan? Ez inundic bere; bada dira neurri baga, asquen baga, eta cabu bagac. Bacarric esan neiquezube Trentoco Batzar, edo Concilijuac dirauzeuna: Jesu Christo gure Salvaguiliac mundu onetatic bere Aitagana iragoteco eguanian, ifini, eta eguin evala Sacramentu au, nun bota, izuri, edo utsitu cituzan moduben baten bere guizonaganaco amodijuaren onda-

sun gustijac, eta etzacala gueratu gueijago cer emon. (1)

Gach eguiten bajatzu au sinistutia; beguira cer artu-  
ten dozun ogui copauchu orretan, eta naita nai ez sinis-  
tuc dozu eguija dala dinotzudana. Cer da bada artuten  
dozuna? Jesu Christo gure Jauna, bere gorputz, bere  
arima, bere odol, eta bere Jaungoicotasuna, berari dago-  
quijozan anditasun, escubide, jaquituriya, eta bere neur-  
ribagaco onoidade, edo perfeccinoe gustijacaz. Ogui on-  
~~retan~~ ifinten dozu ceure anan, iragoten dozu ceure estar-  
ritic, eta sarcen dozu ceure bularrian Jaungoico gustiya,  
Aitia, Semia, eta Espiritu Santuba, eta au ez edocein  
modutan ezpada zure jaanari eguinic. Eta cer deritzu  
eguiten dabela zure arimiagaz zuc janico Jaungoico onec?  
Gorputzeco janarijac gorputzagaz eguiten dabena. Jaten  
dozun oguija ez bacarric iragoten da zure estarritic, ez  
bacarric elduten da zure bular, edo estamangura; eldu-  
ten bere da zure izate, eta sustancijan biurtutera; zure  
gorputz eguiten da, zu berberori eguiten da. Auxe berau  
bada jazoten da zugaz, eta zuc Sacramentu onetan jaten  
dozun Jaungoicuagaz; baña ez gorputz, eta bere janari-  
jagaz jazoten dan moduban, ezpada bestera: bada gor-  
putzac bere izate, edo substancijan biurtuten dau berac  
jaten dabena, baña Sacramentu onetan Jaungoico janac  
biurtuten dau beragan, edo bere izatian, bera jaten da-  
ben arimia, eta eguiten dau Jaungoico, dino S. Agusti-  
nec. (2)

Ain neurribaguia bada bere Jesu Christoc iracutzi  
euzcun amodijua bere gorputz, eta odola gure janaritzat  
emonagaz, etzan onetaraco bacarric gueratu Sacramentu  
onetan; beste errazoe asco, eta andijac equi cituzan gu-  
re altaretan gueratuteco, eta gustijetan icusten da deuz-

(1) Concil. Trid. Sess. 13, cap. 2. (2) Lib. 7 Conf. cap. 10.



cun amodijo gorijaren anditasuna. Lenengo: gure lagun izateco munduco erbestetasun, edo destierruban. Equijan arerijo gogor, eta crubel ascoren artian ibili biarco guiniala ceruraco bidetic, eta gure argaltasuna izanic ain andija, galdubac izango guiniala; orregaitic gure bidelagun izaterren, gure arerijuacgandic zainduterren, nai izan evan gugaz gueratu: eta alan gueuc nai dogun gustijan eldu guinaitequez beragana; nai dogun gustijan verba eguin guinaijo; eta eruan guinaijoz gueure escarijac, bada onetaraco dago aimbeste Elexatan. Bigarrengo: Sacramentu onen bitartez barristadu guenguijan bere erijotza, eta pasinoien gomuta, edo memoriya; eta alan, inos astu baga euqui guenguijan orduban eguin euzcun mesede parebaguia, eta modu onetan esquer oneco izan gaitazan. Irugarrengo: euqui daigun betico glorijaren baituria, edo prendia, eta bertara elduteco icharomen, edo esperanza irme, edo seguruba. Onetaraco, Jesu Christo berbera, Jaungoico, eta guizon eguijazco emoten jacu Sacramentu onetan baitura, edo fijadore; eta lecnago ucatu, edo faltaduco dabe ceru luurac, Jaunaren baijac, edo verbiac baño. Laugarrengo: jaquinic Christinau gustijoc daucagula mai bat, nun gustijoc jarten garian, gustijoc jaten dogula ogui bat, gustijoc daucagula buru bat, noren beian gustijoc garian gorputz bat; izan gaitazan gustijoc gauza bat, eta orregaitic gustijoc maitetu, edo amadu daigun alcar, aserre baga, auci baga, eta gorroto baga.

*Erasoguiza.*

Ce anditasun, ce zorion obagoric Jaungoicuac Sacramentu onetan guizonari emoten deutzana baño? Ce ondasun ugarijagoric? Ce janari, ce edari gozuagoric Jaun-

goico baten aragui, edo odola baño? Ce falta jaca Jaungoicua beragan daucan Christinaubati? Ce nai izan leique, edo ceren gurari euqui leique, ceru luurren egulia beragaz bat eguini daucañae? Zabaldu eguizuz ceure gurari gustijac ceruban, eta luurrian aurquitu al leitequezan gauza gustijetara, eta eztozu aurquituco ogui copauchu orretan emoten jatzun beste izan leitequianic. Ecin gogora bere eldu leitequezu zorion andijagoric. Ce suberte obagoric euqui leique guizon batec altaran daucana baño? Jarri maibaten Jaungoicuagaz beragaz escuz escu, eta jan, ez Aingueruben bat, ezpada Jaungoicua berbera, eta irago mirarizco moduban Jaungoicuaren vicitziagaz vicitera, Jaungoicuan beragan egotera, Jaungoicua bera izatera? Esan eguidazu celaco pozagaz, celaco devocinoiagaz artuco ceunque, emongo baleutzube Jesu Christoren soñeco, ule, zapata, edo beste gauzaren bat? Esango baleutzube, Jesu Christo daguala erri onetaco eche baten, etzinate juango aimbat lasterren bera icusterren, berari verba eguiterren, beragaz egoterren? Bada, Christinauba, Jaunac emoten deutzu ogui copauchu orretan, ez bere soñecoren bat, ez zapataren bat, ez beste bere gauzaren bat; ezpada bera dan gustija, bere Jaungoicotasun, anditasun, eta onoidade, edo perfeccinoe gustijacaz. Nai dozun gustijan egon cinaitequez beragaz; euqui cinaiquez verbaldi, edo conversacinoe luciac; adi eraso cinaijoz ceure biar, edo premina gustijac; escatu cinaijo euren erremedijua. Onetaraco eztaucazu cer juan urrin. Orche daucazu, altara orretanche daucazu. Nai dozun dempora gustijetan, ordu gustijetan egon cinaitequez beragaz. Ez ez etzaitu botaco, ezta aserratuco sarrijegui zuazalaco beragana, ez laarregui escatuten deutzazulaco. Baña oraindio bere guazan aurrerago. Esango baleu-

tzu Jesu Christoe, zeugaz vici gura dabela eche baten ceugaz jan mai baten, ceugaz egon ceuc nai dozun gustijan zugandic inosbere alderatu, edo apartadu baga ceuc nai ezpadozu, celaco poza artuco ceunque? Ce zorion andijagoric gura cinaique? Bada au ezta ecer, Salvaguiliac eguin nai deutzun mesediaren parian. Ezta contentetan zugaz eche baten vici izanagaz, mai baten janagaz, zugaz adisquide bat bestiagaz leguez egonagaz; urrago cuqui gura zaituz; gueijago estutu nai da zugaz. Gura dau zu bere vici lecu, edo eche izan zaitezcan; gura dau zure barrura sartu, zukan egon, zugaz gauza bat izan. Ce zorion andijagoric? Cembat bidar euqui izango dozu Apostoluben embidija, Jesu Christogaz vici izatia, beragaz ibiltia, bere verbac enzutia mereci izan evelaco? Cembat bidar esan izango dozu: A! vici izan baninz Jesus ona munduban evilen demporan, bera ezagututeco, bera icusteco, eta bere verba gozuae enzuteco? Bada eztaucazu cer euqui onelaco embidijaric: au, eta gueijago autoritu, edo concedietan deutzu Salvaguiliac. Ezta conteteetan zugaz verba eguinagaz; au guichi da deutzun amodijuarenzat; gueijago gura dau. Ezta contentetan, eche baten zugaz vici izanagaz; au guichi da deutzun amodijuarenzat; gueijago nai dau. Ezta contentetan, zugaz mai baten jan, zure anaije, zure lagun maite, adisquide lastan, zure jaole leijal izanagaz; au guichi da deutzun amodijuarenzat; gueijago nai dau. Gure ogui eguin da; gure janari eguin da; gueure auan sartu daigun, gueure estarritic irago daigun, gueure bularrian sartu daigun, beragaz gauza bat izan gaitezcan, bera izatera irago gaitezcan, bere vicitziagaz vici gaitezcan.

Beguiratu dozu nosbait, neure Christinaubac, arrigarrizco mirari au? Ifini zara inos comulgadu ezquero

aldaizun onduen pensetan, cer daucazun, ez ceure echian, ez ceure albuan, ez ceure laguntasunian, ezpada ceure barruban, ceugaz gauza bat eguinic? Egon zara nosbait adi ezagututeco zugar jazo dan Jaungoicozco mirari siniegarrija? Bada errazto esan daiquezu ogui ceruco au artu ezquero: Onezquero enaz lur, enaz auts; Jesu Christoren gorputz naz, bere azurren azur, bere araguijaren aragui; Jesu Christoren alde, edo parte naz; Jesu Christo bera naz. Vici naz ni, baña ez ni; ezpada Christo vici da nigan; beragan vici naz, eta bera vici da nigan: bere vicitziagaz vici naz. Modu onetan verba eguin biar dogula, dirauzcu S. Juan Chrisostomoc (1): bada auxe, eta ez guichijago jazoten dala Jesu Christoren gorputza Sacramentu onetan artuten dabenagaz. O Jaungoicuac eguifico mirari gustijen mirarija! O Jaunaren guizonaganaco amodijuaren ezaugarri, edo señale gustijetatic andijena! Noc sinistu leiquian? Noc uste leiquian? nori gogora bere eldu leiquijon, Jaungoico batec ain modutan eztutu, batu, eta beragandu guraco evala simaur zati bat baño eztan guizona? Baña gure Jaungoico maitiac irago dituz gure icharomen, edo esperanza gustijac, eta eregui gaituz, ozta sinistu al guinaijan anditasunera. Bedeinca milla bidar, aimbeste maitetu gaituzan Jaungoico ona; berari honria, berari alabancia, berari ezquerrac, orain eta beti lurrian, eta ceruban. Amen.

---

(1) Lib. 61 ad pop.

## XVI. VERBALDIJA.

*Celaco guertutasun, prestatasun, edo preparacinoia eruan  
biar daben, comulguetara doianac.*

**E**ztau Christinau batec ecetan bere ardura andijagoric ifini biar, comulguetaco ondo prestetian baño. Modu bitacuac dira prestaera, edo disposicioe oneec; batzuc, biar biarrecuac, ceinzuebaga norbaitec arcen badau Jesu Christoren gorputza, gracia artu biarrian bere condenacinoeco sentencija iruncico dau. Bi dira prestatasun oneec, bata gorputzecua, eta bestia arimacua. Gorputzeco prestatasun, edo disposicioia da baruba; eta alan comulgaduco dana, barutan egon biar da gaberdiric aurrera, ecerbere ecerbere artu baga, ez ogui apurchu bat, ez ur tangachu bat, ez beste gauzaric; bestelan pecatu mortal eguingodau. Baña guexoric daguanac Elexacuac artu biar badi-tuz, eztauca ce egon baruric. Arimaco aldetic biar dan prestatasun, edo disposicioia da garbitasuna; au da, pecatu mortalian ez egotia, edo graciajau aurquitutia; eta alan pecatu mortalian daguana comulgadu gura bada, lenago confesinoeco sacramentuben bitartez garbitu biar dau bere arimia, edo conciencija. Pecatuban daguanenzat ezta asco comulguetaco, acto contricinoeco bat eguitia; bada asco bada bere pecatuba parcatuteco, ez Jesu Christoren gorputza artuteco, Elexiac aguinduten dabelaco pecatu mortala eguin dabenac, comulgadu nai badau, leenago confesadu deila, acto contricinoecua eguingo baleu bere. Bazuaz confesetara, eta astuten bajatzu ceure erru baga pecatu mortalen bat, guero comulgadu baño leenago gomuta, edo acordetan bajatzu, confesadu biar dozu,

baña gogora badatorquizu comulgadu aguinian zagozala, eta zure alderatu, edo apartetiac escandalu, edo cer esanen bat emongo badau; eguinic aldaizun moduban acto contricinocua, edo arturic pecatu aren damuba; comulgadu cinaique, eta urrengo confesinoian confesadu biarco dozu asturico pecatuba.

Bigarren prestatasun, edo disposicinoe moduba da obedana; esan gura dau, bein barutan, pecatubaga, edo gracijan egon ezquero Sacramentu au artuten danian, artucodala berac emoten daben gracia; baña alambere conveni dala, eta Jaun oni dagoquijola bera artutia bacotzac aldaijan devocinoe, humiltasun, eta amodijoric andijenagaz. Deritz, neure Christinauba, ecin obeto adieraso neiquezula celan guertu, edo preparadu biar zarian Jaun ceruco au ceure bularrian arceco, S. Juan Chrisostomoc, eta S. Gregorijo andijac ifinten dabeen irudijagaz baño. (1) Contu eguizu erregue Españacoc dirautzula: zure echera etorri nai dabela, eta bertan vici gura dala zugaz batera Onetaraco, prestadu daguizula zure vici lecuba. Ondo ondo garbitu daguizula, bada bera datorrenian loiquerijarie badago, zuri mesediac eguin biarrian, urcamendi baten galduco dozula ceure vicitzia lotzariric andijenian. Au eguinic, apaindu daguizula aldaizuzan gauzaric eder, eta valiozuenacaz; bada ceimbat eta garbijago, ceimbat eta ederrago ifini daiquezun, aimbat eta ondasun ugarijaguacaz aberastuco zaituzala, aimbat eta bere erreinuco andijago eguingo zaituzala, eta aimbat eta zori obecuago izango zariala. Cer eguingo ceunque Erregueren mandatu au artuco bacendu? Deritzat demporaz asico cinatequiala ceure echia garbituten. Etzeunque bertan ichico, ez bacarric simaur, basatsa, edo

(1) Chrisost. hom. 61 ad pop. Greg. hom. 30 in Evang.

loiquerija andi, eta atsituric, ezta auts, araman, eta loirie ehiquijenic bere. Aratuco ceunquez ceure echecho baster gustijac, eta gustija ifinico ceunque garbi garbi ispilu bat leguez. Guero apainduco ceunque eche gustija gauzaric eder, eta valijosuenacaz, baña gustiz ardura andijagua-gaz Erregue berarenzat daucazun guela, edo aposentuba; eta ezpaceunca ceuc, topaduco ceunque, prestaduric baño ezpalitz bere ezagun, eta adisquidien artian.

Bada, neure Christinauba, mandatu auxe bialduten deutzu, ez Españaco erreguec, ez lur gustico Aguintari, edo Emperadoren batec, ezpada ceru, eta luurreco erreguec, Jaungoico eguijazcuac Aitiac, Semiac, eta Espiritu Santubac dirautzu: zure bular, eta arimia autu, edo escogidu dabela bere vici lecutzat; orraxe datorrela, eta au ceuc gura dozunian, bada zugana etorri nai badau ezta zure biar dalaco, zuri deutzun amodijuac dacar, zu ceruco ondasunez aberastu, zori oncco eguin, eta beragan biurtuteco gurarijac dacarrela. Onetaraco garbitu da-guizula arimia pccatuben loiquerija gustijetatic, bada bat bacarric gueratuten bajatzu, zori oneco, eta doatsu izan biarran, ceure condenacinoia iruncico dozula. Au eguini-c, apaindu daizula aldaizuzan virtute, humiltasun, devocinoe, caridade, fede, eta esperanciagaz, berac bere vici lecutzat autu, edo escogidu daben zure arima ori. Oraín bada cer eguin biar eztozu zuc, Jaun oni bere gogoco vici lecuba prestetaco? Eguingo ceunquiana ceure echiagaz, Erregue alsu, edo poderoso batec etorri nai baleu bertara.

Lenengo eguin biar dozuna da, garbitu ondo ondo zure arimia, Onetaraco etzaitez contentadu arrastaca eguinico confesinoe bategaz. Dempora lucia bada confesadu cinjala, artu eguizuz egunen batzuc. Cembat eta

dempora gucijago egon zarian confesadu baga, cembat eta loijago daucazun ceure arimia, aibat eta astiruago aratu, edo erregistradu biar dituzuz ceure conciençijaco basterrac. Atera eguizuz dirianac arguitara, conciençijaco examina arduratsu bategaz; eta gustijacaz pilo bat eguinic, ifini zaitez eurai adi ceure arimaco beguijacaz. Icusi eguizu aldaizun onduen euren ezaintasun itsusija, eta ezagutu eguizu celan zagozan infernucõ demoninuen charricorta ustel, atsitu, eta gustiz ezain eguinic. Eurac gaitic egon zariala Jaungoicuaren arerijo, demoninuaren mempeco, eta infernucõ su beticuetara jausi aguinian. Euracaz daucazula gustiz aserratu, eta irrituric Jauna, bacotzagaz il deutzazulaco bere seme bacar maitia: orregaitic daguala bere justicijaco espata zorrotza escuban dabela, zu zatitu, eta infernu beçera botateco. Bildurturic gustijori ezauera onegaz, asi zaitez aın pelleburu andijan ifini zaitubezan pecatubai gorrotoz beguiratuten. Artu eguizu damu bene benetaco bat ceure Jaun, eta Jauve aın onguile, aın bigun, aın arduratsuba aserratu dozulaco; gogo, edo propositu sendo bategaz ez inos gueijago biurtuteco pecatubaren loiquerijaric ceure vijotzian sartutera.

Au eguinic asi zaitez batuten ceure arimaco echia apainduteco biar dituzuzan virtute, edo onoidadiac. Lenengo ifini biar dozun gancia da, humiltasun benetaco bat. Viztu eguizu onetaraco ceure fedia, eta beguiratu eguizu beragaz aldaizun onduen, nor dan zure bularrera etorri gura dabena. Da araeo Jaungoico, nori estu, eta labur datorquijozan ceru zabalac, noren escubidiaz eztaucan neurric, noren jaquiturijac eztaucan caburic, noren aurrian icara dagozan ceruba euren ganian dauquenac, eta nor adoretan dabeen, lurreraino macurturic aim-



bat mila milinoe Ainguerue. Jaungoico gasti auxe zuaz artutera ogui copauchu orretan, eta iragoten da zure barrura. Eta nor, edo cer zara zu nogana datorren Jaun neurri baga, asquen baga, eta cabu baga au? Lur puscabat, simaur zati bat, auts apur bat. Eta oraindio bere deungago dana, demoninuaren mempeco cital bat izan zarian, pecatubaren charricorta ustel, atsitu, eta ezain bat, Jaunaren contra ibili zarian, berari guerrarie vici, eta crubelena eguin deutzazuna. Ezauera onegaz humilduric gustijori luurreraño, eta arrituric gustijori Jaungoico baten ontasun parebaguiagaz esan eguijozu mirariz beterie: Nundie nora mereci neiquian nie, Jauna, berori nigana etortia? Orraco ceru luurren jauve, gustija ecerbecetatic eguin evana, ceruba jar lecutzat, eta lurra oin aspico aulquitzat daucana; onaco criatura cital, ustel, atsitu, ezain, zatar, pobre, eta demoninuaren mempian egoncuagana. O Jauna! O Jauna! ce ondo aguri dan berorren niganaco ontasun, biguntasun, amodijo, eta onguria? Baña, noc esango leuque, noc sinistuco leuque, noc uesteco leuque aimestera elduco zala Jaungoico ain alsu, edo poderoso baten ontasuna, berorree esango ezpaleu?

Humilduric al zaitezcan gustija ceure puscatasun, apurtasun, edo obeto esaterren, ceure ezerezagaz, eta arrituric gustijori ceruco erreguec eguin gura deutzun mesede parebaguiagaz, escatu eijozu berari, eguin zaizala bera zeure bularrian arceco diña. Apaindu daguijala bere vici lecutzat autu, edo escogidu daben zure arimia bere anditasunari dagoquijon edertasun, eta garbitasun gustijagaz. Ain zarijala pobre, ain zagozala utsic, ce eztauczula alsichubat bere cegaz estaldu ceure villostasuna; eta alan emon deizula fede vici bat, bere anditasuna ezagututeco; caridade erria, bera maitetu, edo ametaco; uste, edo es-

peranza osobat, beragan icharoteco; gurari isio bat, be-  
ra artuteco; eta beste biar dituzuzan onoidade, edo vir-  
tute gustijac, berari bere gogo, edo gustoco eche bat pres-  
tadu, edo ifinteco. Zagoz ciur, eta seguru, biar dan hu-  
miltasunagaz eguiten badozuz escari onccc, autortu, edo  
concediduco deutzuzala; bada vorondate, eta gogo on,  
eta osuagaz enzuten dituz humilen escabidiac. Onetara-  
co, etzaitez contentadu berari escatubagaz, ceuc bere  
eguizu aleguina virtute onccc zeuretuteco. Jaungoicuac  
obeto enzun zaizan, ifini eguijozuz bitartecotzat bere  
Ama gustiz santuba, eta ceure devocinoeco santubac.

Modu onetan prestadu ezquero zuaz confesetara, ifi-  
ni zaitez confesorien onetan al daizun humiltasunic an-  
dijenagaz. Contu eguizu eztala Confesoria guizon ilcor-  
ren bat, ezpada Jesu Christo berbera. Sinistu eguizu Jesu  
Christori dirautzazuzala ceure pecatubac, eta araco Jaun-  
goico gustija dacuzana jaotzula enzuten ceure confesi-  
noia; eta alan, atera eguizuz dirianac ceure vijotzeco  
echetic campora, bapere ichi baga, examiniagaz baturic  
ceuncazana leguez; barriztadu eguizu len artu cenduban  
damuba, eta ifini eguizu ez gueijago pecatura biurtuteco  
gogo, edo propositu sendua. Arturic absolucinoia ija za-  
goz guertu comulguetaco. Alambere, ondo da ez arras-  
taca, eta bertatic juatia Jaunaren gorputza artutera; ba-  
da dempora guichi dana leguez pecatuben loiquerijac  
urten dabeela, garbiric gueratu bada bere, ez oi da ain  
laster quencen curen ats, eta usain donguia. Orregaitic  
gustiz da ondo usain gozoco gauzaren bat erretia. Usain  
gozo au emongo dabena da oracinoia, bada berac igoten  
dau Jaungoicuaren aurrera, incensu errien lurrunac le-  
guez, dinue David erreguiac, eta S. Juan Evangelistiac. (1)

(1) Heb. cap. 12 v. 18 et seq.

Ifiniric Jaungoicuaren aurrian, eta vizturic ceure fedia al daizun gustija, beguiratu eguizu nora zuazan. Etzuz, dirautzu S. Paulo Apostolubac, Sinaico mendira anchina Moyses leguez; etzara sarcen su, each, laño, trumoe artera, ezpada Sion Santura, Jaungoicuaren urira, Jerusalem cerucora, cerura bertara sarcen zara. Eztozuz or enzungo an enzun cirian trompeta soñu zolijac, edo Ainguerubac verbaz, ezpada Jaungoicua berbera zuri verba vicitzaco gozuac dirautzuzala. Etzuz Israeltarren artera, ezpada aibat milla millinoe Aingueruben erdira. Celaco humiltasunagaz bada, celaco devocinoiagaz, celaco bildur santubagaz irago biar etzara aibat milla Aingueruben erditic, eta eldu Jaungoicua berbera gana? Sinaico mendija, legue zarra emon zanian bertan, ozta ozta zan altara orren guericia bere; alambere ain eguan itzalsu, ain bildurgarri, ce izanic Moyses, munduban orduban zan santubena, Jaungoicuaren lastanena, eta Jaungoicuagaz adisquide bat bestiagaz leguez conversacinoe lucietan egon oi zana; gustija gueratu zan bildurrez icarra, bere uliac lasturic. Celan bada azartu cinaiteque su vicija dan Jaungoicuagana urreratuten? (1)

Alambere, ez atzeratu. Baderitzu, etzariafa diña, Jaungoico ain andi bategana elduteco, humilduric lurrerañozuz aurrera; orche aurquituco dozu bera artuteco duin eguingo zaituzana. Altara orretanche dago testamentu barrico Jesu Christoren odola, ceince diadar andijaguac eguiten dituzan bere Aitaren aurrian zure oneraco, Abelenac Cainen contra eguiten cituzanac baño. Eldu zaitez bada aldaizun humiltasunic andijenagaz, adoradu eguizu devocinoeric isijuenagaz, eta artu eguizu Aingueruben oguijaceruco janarija, eta sartu eguizu ceure barruban,

(1) Ps. 140 v. 2. Apocol. 2 v. 4.

ez Santuben bat, ez Aitalenen, edo Patriarcaren bat, ez Igarla, edo Profetaren bat, ez Aingueru, Querubin, edo Serafinen bat, ez Ama Virgina ceru luur, eta Aingueruben Erreguina; ezpada oneec gustijoc baño andijagua pare бага; oneen, eta mundu gustijaren eguile, edo Criadore, Jaun, Jauve, eta onguilia. Arturic onelaco Jaun mirariguile, eta neurribaguia, etzaitez bertatic juan ceure arazubetara. Etzaitez izan chacur gosiac ilic dagozan batzuc leguez. Sarcen dira eche baten, icusten dabe ogui zati bat, ezarten deutze aguina, eta ez ondo artu auan nos duazan iguesi campora. Ez ez, eztau mereci onelaco lotzabagaquerijaric Jaun onec. Zagoz Elexan, eta ichiric albo batera ceure cereguin gustijac, quenduric ardura gustijac, eta botaric campora gogo, eta pensamentu gustijac, sartu zaitez ceure barruban, eta idiguiric fedeco beguijac, beguiratu zaitez al dozun onduen. Arritu, mututu, eta concorturic gueratuco zara, ondo ezagutu nai badozu cer jazo dan zukan. Zagoz Elexa, edo templu eguinic, zagoz Sagrarijo eguinic: cer dinot? Zagoz benetaco ceru eguinic; bada eztago ango zabaltasun gustijetan zuc zure bularrian eztaucazun anditasun, mirari, ez edertasunic. Orche daucazu ceure barruban Aita betico, edo eterna bere escubide, al, edo poderijo gustijagaz. Orche daucazu Semia bere jaquituriya gustijagaz, eta Espiritu Santuba bere amodijo, eta caridade gustijagaz. Beguira, beguira ondo, ceure inguruban icusico dituzuz aibat mila milinoe Aingueru auzpaz luurreraño macurturic humiltasunic andijenagaz adoretan dabeela, zuc ceure bularrian daucazun Jaun ori. Orche enzuten dira cerutarrac poztuten ditubeezan canta, eta soñu gozuac. Orche cantetan dabee Serafinac, Santuba, Sautuba, Santuba, Jaun, eta Jaungoico gustija al dabena; zure andi-

tasunez dagoz beteric ceru luurac. Gustijac dagoz arri-  
turic zугanaco Jaunac daucan ongura, eta amodijuagaz,  
eta euqui albaleije embidijaric, ez leuque besteric euquico  
zure zorionen baño; bada curac izanic ceruco lenen, edo  
principe, vici izanic aimbat urtian Jaungoicuagaz eche  
baten, eztabe mercci izan zuri eguin jatzun leezco mese-  
deric. Ezta inos euracgan egon Jaungoicua, zугan da-  
guana leguez; ez tira inos Jaungoicuagan aurquitu, zu  
aurquituten zariana leguez.

Arrituric gustijori Jaunac eguin deutzun mesede ozta  
sinistu bere al leitequian onegaz, eguizu aleguina esquer-  
rac emoteco; baño ez aurquituric ce ezquer modu emon,  
esan eijozu: Cer biurtu al neijo, Jauna, eguin deutzazan  
on gustijoncecgaitic? Eztaucat, eta ecin euqui bere nei-  
que, euren duin izan leitequian gauzaric. Baña, ó Jau-  
naren ontasun cabu baguia! Ezteutzu beste sariric esca-  
tuten eguin deutzuzan mesede ain ugari onecgaitic, ez-  
querrac emon daguijozuzala baño. Vizturic, eta pozturic  
ain gauza labur, eta chiquija baño escatuten ez jatzulaco  
mesede ain ugarijen orde, izan zadiz esquer oneco; ado-  
radu, alabadu, eta bedcincatu eguizu euren emolarija, eta  
ez eguizuz inos astu bere betico misericordijac. Convida-  
du eguizuz mundu gustico criaturac, eta cerutarrac, eta  
erregutu eijezu emon deijuezala zugaitic, zue ecin emon  
cinaijozan ezquerrac. Biurtu zaitez ceure inguruban dau-  
cazuzun Ainguerubac gana, eta escatu eijezube arren la-  
gundu deizubela ezquer oneco izaten; eta curacaz bat  
eguinic santutu, alabadu, bedcincatu eguizu euracaz ba-  
tera bere izen santuba. Etzaitez gueratu esquer utsetan;  
opa bere eguijozuz ceure gorputz, ceure arima, ceure  
sensun, ceure vijotz, eta ceure gauza gustijac. Zagoz se-  
guru ce ain chiqui, eta apurrac badira bere, gogo, eta

vorondate onagaz artuco dituzala, ondo ifniric badagoz; bada eztau inos botaco, eztau guichitan euqui, edo despreciaduco, ez vijotz humilduba, ez arima bere maitecorra, ez sênsun fedez arguitubac, ez gorputz garbija; sacrificijo usainsu, eta gozuaguac dira onee Jaungoicuarrenzat, leguiac izquini al leijozan idi, chaal, eta ardijen odol, eta aragui gustijac baño.

Escatu eguijozuz Jaunari nai dozuzan escari gustijac, auxe da demporaric ónena biar dozun gustija beragandie arceco. Echeco Jaun batec bere echian óstatu emoten badeutza erregueri, eta pozic badago erregue ondo tratadu dabelaco, nai, eta escatu daguijan gustija autortu, edo concedidu oi deutza erreguec. Auxe berau jazoco da zugaz, eta ceure bularreco echian daucazun ceruco erreguiagaz bere. Ez eguizu galdu era ain on au. Ezcatu eguijozu nai, eta biar dozun gustija. Ez eguizu bildurric euqui aserratuco jacola larregui escatuten deutzazulaco; bada izanic zure arimien oneraco, ceimbat eta gueijago escatu deijozun, aibat eta pozago egongo da caridadia beradan Jaun ori. Berac dirantz: villatu eguizu, eta aurquituco dozu; escatu eguizu, eta emongo jatzu; jo eguizu atia, eta idiguico jatzu. (1) Asquenez, neure Christinaubac, arturic Jaun ori ceure arimaco besartian, anchina Jacobec leguez, eta euracaz estuturic, erregutu eguijozu humiltasun, negar, eta cispuru andijacaz bedeincatu zaguizala. Azartu zaitetz esaten: Ezteutzat Jauna ichico emetic juaten, emoten ezpadeuzt lenago berorren bendicinoe ugarija. Ez bildartu azarquera onegaitic, bada beronegaz mereci izan evana leguez Jacobec Jaunac bere bendicinoia ezarri eguijon, alainche mercecico dozu zuc bere.

(1) Luc. 11 v. 9.

*Erasoguinza.*

Usteco dozube venturaz, neure enzulac, larreguija dala comulguetaco escatuten jatzun prestatasuna; baña baguina biar dan lesco Christinaubac, gueure vicico ordu gustijetan egongo guinaitequez comulgadu al guinaiquian moduban; baña gustiz gach izanic au gure araguijen argaltasunari, etzacu gach, eta astun eguin biar egunen bat, edo beste arceia, Jaun onenzat vici lecuba guertu ifinteco; eta cembat eta dempora luciago irago dan comulgadu eztala bat, aimbat astiruago prestadu biar da. Urteric urtera baño altarara elduten etzirianai cirautzen S. Juan Chrisostomoc: uste dozube urte gustijan comulgadu baga egon ezquero, asco diriala garizumaco berroguei egunac ceuben arimia prestetaco? (1) Cer esango euan Santu andi onec icusi baleu asco, eta asco duazala Jesu Christoren gorputza artutera, egun erdi bere prestantan emon baga? Arrastaca confesadu, arrastaca comulgadu, eta ozta ozta formia artu, bertatic arrastaca eche-  
ra euren arazu, eta cereguinetara? Eta orra nundie datorren ain provechu guichi ateratia comuninoetic. Baguina biar dan moduco Christinaubac, elduco baguina biar doguna leguez altarara, eta artu ezquero Aingueruben oguija, estuturic gueugan daucagun Jaunagaz emongo baleutzaguz esquerrac; humilduric bere anditasunen aurrian eguingo baleutzaguz gueure escarijac, eta galduco ezpaguendu dempora ain on au; comuninoe bat asco izango litzateque gu santu andi batzuc eguitcco; bada bertan artuco gueunque onetaraco biar dogun gustija; gracija ugarija, gure arimia santidadiaren ondasunez aberaztu-

(1) Chrisost. hom. 61 ad pop.

teco; sendatasuna gueure ecandu citalac, eta araguijaren gurarijac eciteco; indarra demoninuaren contra pelietaco; osasuna gueure arimaco gachac osatuteco. Baña cer aurquituco ez gueunque euquiric gueugan zorion, poz, atseguin, eta gura al izan guinaijan on gustijen iturrija? Bada, neure Christinaubac, comulgadu nai dogunian, ez gaitez an arrastaca ibili; artu daigun demporaz cer eguin gustijen cer eguin au; prestadu deijogun aldaigun onduen vici lecuba Jaungoico andijari; eta bein artu ezquero eztaigun bertatic bota echetic campora; eztaigun bacarric ichi; jarri gaitez an bere onetan humiltasunic andijenagaz, gagozan ainche bere gozatasuneco verbac enzuten; eta escatu deijogun biar dogun gustija, bere Aitaren echera elduteco. Amen.

### *XVII. VERBALDIYA.*

*Penitencijaco Sacramentubaren ganian; eta celan aratu, edo examinadu biar dan concienciya, ondo confesetaco.*

**B**agueunca gueure arimiagaz biar dogun arduria, baguina gueure Jaungoicuaganaco esquer oneco, beti beti jaungo gueunque bateo, edo bautismuan artu guenduban gracija, eta ez gueunque euquico garbitu biarric gueure arimia penitencijaco Sacramentubagaz. Baña ezaguturic gure Salvaguiliac etzacala erraz gure argaltasunari irautia Bautismuan arturico garbitasunian, ifini nai izan euan bere Elexa Santuban, bateo ostian eguinico pecatubac parcatuteco moduba. Auxe da bada Penitencijaco Sacramentuba; cein eztan beste gauzaric, ezpada Jesu Christoc bere Elexan ifinirico Sacramentu bat parcatuteco bautismo ostian, edo bateatu ezquero eguinico pecatubac, nai



diriala mortalac, nai diriala venialac. Ain da biarra Penitencijaco Sacramentuba bautismo osteco pecatu mortalac parcatuteo, cein da bautismua pecatu originala quenceo; eta alan, bautizadu ezquero pecatu mortala eguin dabenac, nai badau parcatu daquijon, confesadu biar dau, edo guichienez enqui biar dau gogo, edo intencinoe benetacua confesetaco, Elexa ama santubac aguinduten dabenian, bada vorondate au baga ezteutza acto contricinocua parcatuco; edo, obeto esateo, eztago acto contricinocua benetacoric biar danian confesetaco propositu baga.

Jesu Christo gure Jauna da Sacramentu onen eguile, ipinle, edo autore, eta lenago ez eguan onelaco Sacramenturic. Eguija da eguala erremedijua pecatuben contra, edo pecatu mortala parcatuteo moduba, eta penitencijaco onoidade, edo virtutia; au da, damuba, edo contricinoina; baña Jaunaren ontasunac eregui nai izan euan damu, edo contricinocua au Sacramentu izatera, gueitu, edo ezarriric damu oni confesinoe, eta absolucinoina. Iru errazoegaitic au eguin gura izan euan gure Salvaguiac. Lenengo: obeto ezagutu guenguijan ecin gueurez, edo gueure indarrez urten guinajala demoninuaren mepetic, ezta eldubere bere adisquide izatera, ezpada au datorgula Jesu Christoren pasinoe, eta merecimentubetic. Bigarrenago: errazago izan leigun pecatutic urtetia. Sacramentu au ifini baño leenago pecatu mortala parcatuco bazan, biar zan contricinoina. Au eguitia, edo artutia etzan ain erraz guizonaren argaltasun, eta astuntasunarenzat: baña Penitencijaco Sacramentuba ifini ezquero asco da atricinoina, eta au errazago izanic contricinoina baño, errazago da pecatuben parcacinoina Sacramentu onen bitartez, anchina contricinoinagaz baño. Irugarrenago:

ciurrago, edo ciertubago egon gaitezana parcatu jacuzala pecatubac. Contricinioia ecin icusi leiteque, ecin enzun leiteque, eta alan ez eguan pecatubac parcatu e egozanen ezaugarriric, ez euan inoc esaten parcatu jatzuz pecatubac; baña Penitencijaco Sacramentuban daucagu confesinoia, eta beragaz ateraten dituguz campora pecatubac. Enzunic gure confesinoia, dirauzcu Confesoriac: Nic absolvietan zaitut ceure pecatubetatic: Esango baleuzcu leguez, Jaungoicucac guexuari esan eutzana: Euguqui eguizu uste, edo confianza andi bat, parcatu jatzuz ceure pecatubac. (1)

Jaquiteco cer eguiten daben ariman Penitencijaco Sacramentubac, edo celacuac dirian bere eguitade, edo efectuac, lenago jaquin biar dogu, cer eguiten deutzan pecatubac mortala bada guizonari. Lenengo: quenduten deutza gracija, eta beragaitic eucan edertasun miragarrija, eta ifinten dau esan al leitequian baño ezain, eta itusijago. Bigarrenengo: quencen deutza eucan Jaungoicucaren semetasuna, eta beraugaitic ceruco ondasunetara eucan escubide, edo derechua; eta eguiten dau onen orde deomoniuaren mempeco, edo esclavo, condenetan dabela orregaitic infernuco su icaragarrijetara. Irugarrenengo: quenduten deutzaz orduraino eugin dituzan obra on gustijen merecimentubac, ain modutan ee, Elexa santuban daguan Santuric andijenac eguingo baleu pecatu mortal bat, bertatic galduco leuquez bere merecimentu gustijac, eta gueratuco litzateque ain pobre, ain billox, ain erruquigarri, ecin da peccatariric andijena. Iru gach onec quenduten deutzaz Penitencijaco Sacramentubac guizonari, eta euren orde de biurtuten deutzaz pecatubac quendurico iru onac. Lenengo: quenduten deutza ezaintasun

(1) Math. 9 v. 2.

bildurgarri gustija, eta emonic galdu euan gracia, biurtuten deutzaz beragaz leen euan edertasun miragarrija. Bigarrengo: ateraten dau demoninuaren mampetic, eguiten dau Jaungoicuaren seme, eta emoten deutzaz lenago euan, eta pecatubac quendu eutzan ceruco ondasunetaraco escubide, edo derechua. Irugarrengo: biurtuten deutzaz pecatubac quendu eutzazan merecimentu gustijac, bapere faltatzaca. Baña, ecin Sacramentu onec ecarri leiqueguz mesede miragarri oneec, bost gauzagaz aurquituten ezpada, ceinzuc dirian. Lenengua: examina concien-cijacua. Bigarrena: pecatuben damu, edo doloria. Irugarrena: ez gueijago peccaturic eguiteco gogarte, edo proposituba. Laugarrena: pecatu gustijac confesetia; eta bostgarrena: Confesoriac aguinduten daben penitencija bete, edo cumpletia. Izanic ain biar, eta preminacua Penitencijaco Sacramentu au batiatu ezquero pecatu eguin dabenezat, ce bera baga eztaguan Salvacinoeric; eta ecin ondo inor confesaduric bost gauza oneec baga; nai neuzquezubez aimbat onduen azaldu, edo esplicadu. Orretaraco adi erasoco deutzubedaz banaca, bacotza verbaldi baten.

*Conciencijaco Examina.*

Confesetaco gogo, vorondate, edo intencinoia badaucazu, lenengo lenengo eguin biar dozun gaucia da, ifini aldaizun humiltasunic andijenagaz. Jaungoicuaren aurrian; ezagutu, ce zauritu, ezaindu, eta guexotu, baita bere ilic zaucazan pecatubac; ce aserratu, eta irrituric daguan Jauna zugaz euraegaitic; eta aren magestadia bigundu, eta bere adisquide eguiteco gurari bicijagaz, escatu eijozu emon deizula ceruco arguija bere contra eguidituzuzan gustijac, ezagutu, eta burura ecarteco. Ain

da biarra mesede au Jaunari escatutia, ce bere laguntasuna baga ecin gomuta guinaiquez gueure pecatubac biar dana leguez. Escatu ezquero Jaunari bere gracia, eta laguntasuna, artu eguizu ceure conciençija ondo aratuteco biar dozun demporia, eta etzaitequez arrastaca, eta arin aringa ibili ceure betico salvacinoia doian arazu, edo negocijo onetan. Jaquin naico dozu venturaz, cembat dempora biar dan conciençija examinetaco? Ecin au inoc esan leiquezu; bada ezta gustijenzat dempora bardina biar. Gueijago biar dau urtebeteric urte betera baño confesetan eztanac, ilabeteric ila betera confesetan danac baño; gueijago onec zorciric zorçira eguiten danac baño. Gueijago tratu, edo saldu erosi andijetan sarturic daguanac, egun gustijan achurren daguanac baño; gueijago auci artian sarturic daguan batec, bere echian baquian daguanac baño; gueijago ecandu citaletan, ordiquerija, lapurquerija, araguizco loiquerijetan ocotzeraino sarturic daguanac, onelaco oitura galgarriric eztaucanac baño; eta alan bacarric esan neiquezu, bacotzac artu biar dabela ondo conciençija examinetaco biar dan demporia, arrastaca, eta estropezuca ibili baga.

Eta celaco arduria artu biar da examina onetan? Iru-di, edo exemplu bategaz au adi erasoco deutzubet. Urte-ten dozu ceure echetic diru polsa andi bat ceugaz darua-zula cerbait erosteco, zorren bat paguetaco, edo beste gauzaren bateraco. Elduten zara erri, edo eçhera; zuaz ceure polsia ateratera, eta aurquituten zara bera baga. Beguiratuten dozu eche atan jausi bajatzu, eta icusiric ara eldu baño leenago galdu jatzula, cer eguiten dozu? Biur-tuten zara etorri zarian bidetic, bide, eta bere albo gusti-jetara beguira inun aguri bada, ceure barruban dinozula, nun galdu al neiquian nic polsia? Urlija lecutan neugaz

neucan, bada ainche atera neban au, edo beste gaucia paguetaco; beraz andic ona galdu izango dot. Urlija lecutan jarri ninzan, eta albuan ichi neban jaquia: beste lecu atan igon izan biar neban lugaban bat. Erreten bat irago biar izan neban, eta zabala zalaco salto andi bat emon neban. Lecu oneen baten jausi zatequian. Modu onetan biurtuten zara leen ibilico bidetic; ardura andijagaz beguiratuten dozu bidia, eta albuac; baña gustiz ardura gueijagogaz zabilz, eta erregistetan dituzuz nun deritzun galduco jatzula ceure polsia. Auxe berau eguin biar dozu conciencija examinadu nai dozunian. Biurtu zaitez urrengo confesinoe ondo eguinetic orainguiño erabili dituzuzan bideetic. Beguiratu eguizu alde gustijetic, aguiiri bada peaturic; baña ardura andijago bategaz beguiratu biar dozuz araco lecu, nun deritzun galdu cinaiquiala ceure arimia. Au eguin biar dozu astiro ez arrastaca, bada bestelan ecin esan cinaique conciencija examinetan dozula. Esan eguidazu: Bacinuaz polsia galdu dozun bide orretatic aldaizun arin arinca, edo carra gustijagaz, esan cinaique bide orretan galdu jatzun polsa baten billa zabilzala? Ezetz deritz, bada edonoc esango leuzquezu: Guizona, celan esan cinaique galdurico polsien billa zabilzala bide orretan ain arin aringa bazuaz? Polsa ori aurquitu nai badozu zuaz astiro beguira alde gustijetic inun aguiiri bada, bestelan ezteztzu inoc sinistuco galdurico diruba aurquitu nai dozula. Auxe berau zuri bere esan cinaiquezu, arrastaca, eta aringa basabilz conciencijaco examinan.

Oraindio bere: obeto, eta obeto jaquin daguizun celan eguin biar dozun examina au, nai deutzut gueijagobanacatu, eta ciaztu ce modutan eguin biar dozun. Escatu ezquero Jaunari onetaraco biar dozun gracija, eta

arguija; beguiratuten dozu cembat dempora dan azque-  
nengo confesadu ciniala, eta ateraten dozu contu zorzi  
ilabete diriala. Beguiratuten dozu guero ona izan bazan,  
ala ez orduban eguin cenduban confesinoia, eta deritzu  
etzacala ecer falta izan. Au eguini asten zara aratuten  
amar Mandamentubetatic, bost Elexacuetatic, eta ceure  
vici modu, edo estaduco obligacinoietatic zorzi ila bete  
onetan euqui dozun vicitzia, eta peccaturic eguin bado-  
zu dempora gusti onetan. Asten zara bada Jaungoicua-  
ren legueco lenengo aguindu, edo mandamentutic; be-  
guiratuten dozu cerbait esan badozu, edo blasfemadu ba-  
dozu Jaungoico, edo bere Santuben contra, fedeco arti-  
culuben contra cerbait sinistu badozu. Ieusiric eztauca-  
zula ecer mandamentu onen contra, iragoten zara bigar-  
renera. Gomuta, edo acordetan jatzu auci valijo andico  
bat euqui dozula, ceinetan sarri juramentu artu deutzu-  
ben, eta testigu ascoc zugaitic, edo zure erreguz jura-  
mentu eguin dabeen; daquizu sarri guzurragaz juramentu  
eguin dozula, sarri aldatu, guichitu, edo gueitu dozula;  
sarri testigubai escatu deutzazubela guzurragaz juramen-  
tu eguin daijela; sarri gorroto euqui deutzazula ceure au-  
cico arerijuari; sarri birao, eta maldicinoiac bota deutzaz-  
uzala; sarri maldicinoe onec izan diriala ceure seme  
alaben aurrian. Examina au ezta ascoc biar dan moduban  
confesetaco, bada eztozu esaten, edo etzara acusetan ez  
cembat dirian zure juramentu guzurrescuac, ez cembat  
dirian bestiai erasuac, ez cembat gorrotuac, maldici-  
noiac, ez cembat seme, eta echeeuai emonico ejemplu-  
donga, eta escandalubac. Ara bada celan buru, edo me-  
morijara ecarri biar dituzuzan peccatu orrecc.

Ifini zadiz astiro astiro pensetan celan asi zan auci  
oti; ceuri emon beutzuben, ala ceuc emon bacenduban.

Errazuari baceuncan ala ez, edo auci emoteco, edo emon eutzubenari jarraituteco; emon bacenduban venguetaco gogo, edo intencinoiagaz; edo ceuntzan gorroto, edo embidijagaitic. Ce caltiac etorri jacazan bestiari zue bide, eta errazuabaga emon, edo jarraiturico auci onetatic. Calte onen contu aterarie aldaizun onduen, irago zaitez ceuc eguinico juramentubetara, eta atera eguizu contu cembat bidar eguin dozuzan guzurragaz, cembat dudiagaz eguija bazan, ala ez, cembat eguija izan arren cerbait gueitu, edo guichitu cenduban. Irago zaitez guero testigubac zure erreguz eguin ditubezanetara. Contu atera eguizu cembat bidar escatu deutzezun juramentu guzurrezco, edo falsuac eguin daijezala, cembat bidar eguin dabeen, eta cembat bidar eguin nai izan eztabeen; bada curac nai ecebenian eurai pecatu eraso ezpaceuntzen bere, zue zeure aldetic eguin cenduban pecatu. Ezta ain gach contu ateratia, cembat bidar guzurragaz eguin dan, eta cembat bidar besteri eraso jacan. Irago zaitez gachago dan examinara, au da, ceure arerijo aucicuari euqui deutzazun gorroto, eta ezarri deutzazuzan maldicinoietara. Asten zara contu ateraten cembat bidar gorroto euqui deutzazun; baña, edo auci onetatic etorri jatzuzan caltiac andijac dirialaco, edo deritzulaco bide, eta errazua baga emon jatzula aucija, edo ceure genijua erria dalaco pitian pitian euqui deutzazu gorroto, eta aucija gogora etorquizun gustijan, ezarten ceuntzazan madaricacinoiac. Orregaitic, ecin contu ciatz atera cinaique, cembat bidar gorroto euqui deutzazun, cembat maldicinoe ezarri deutzazuzan, ez cembat bidar izan dirian seme, alaba, eta beste ehecuen aurrian. Orduban eguin biar dozuna da, atera contu cembat izango cirian guichi bat gora bera astian, edo guichienez egunian. Au bere ecin badozu, ecarri

eguizu burura cembat dempora iraun daben gorroto, eta maldicinoiac botateco equi dozun ecanduba; ce cratan gueijen viztu oi cinian ceure arerijuen contra, cembat bidar equico cenduzan era, edo ocasinoe oneec, eta cembat gorroto equi, edo cembat maldicinoe botaco cenduzan bacotzian.

Bigarren mandamentutic irago zaitez irugarrenera, eta andie laugarrenera, eta eguizu bacoehian aguindu onetan esan deutzudana. Badaucazu ecandurembat, edo equi badozu ocasinoeren bat aguinduren baten contra peccatu eguiteco, ainche gueijago gueratu biar zara, ainche ardura andijago bategaz aratu biar dituzuz ceure conciençijaco basterrac. Modu onetan ibili ezquero Jaungoicuaeren legueco amar mandamentu, eta bost Elexacueta-tic, irago zaitez ceure estadu, edo vici moduco cereguin, edo obligacinoctara. Onetan ardura andijago bategaz beguiratu biar dau bacotzac eguin ezpadau eguin biar dabena, ce ez eguin badau eguin biar eztabena, bada errazago ezagututen da gach eguina, ce eguin biar dana ez eguitia. Esconduba zara? Beguira celan eguin dozun ceure vici modu, edo estadubac aguinduten deutzuna. Iracatzi deutzuzube icasbide, edo doctrina Christinauba ceure seme, alaba, eta otzeinai? Eci dozuz chiquiehu cirianetic ceure umien muquerquerija, oquerquerija, eta gues-taquerijac? Evagui dozuz, edo eguin dozu aleguina atera-teco sustraitic euren ecandu citalac buruba atera cijenetic? Ichi deutzuzube nai daben gustijagaz urteten, negar cz-taijen? Egon zara celata nora duazan, nogaz dabilzan, celaco lagunacaz batuten dirian? Verba baten: Zara ceuben umien Aingueru guardaco? Auxe gustijau examinadu biar dau confesadu nai daben escondu, eta guraso batec. Zara errico fiel, edo urico Alcate? Celan beguiratu dozu



zure ardurara daguan uri, edo errijagaitic? Galazo dozu deungaro gastadu, edo galdu ezteitezan uri, edo errico errenta, ondasun, eta dirubac? Eguin dozu aleguina auzotegui gustija baquian vici dedin? Artu dozuz aldaizuzan modu gustijac quendu, eta erbestuteco escandalu gustijac? Castigadu dituzuz gaizquin gustijac, alan ceure seme, aide, eta adisquidiac, cein da beste gustijac bardin bardin? Ichi deutzezu guizon, eta emacume galdubai nai daben gustija eguiten? Modu onetan examinadu biar dau bacotzac bere conciencijs, bere vici modu, edo estaduco biar, edo obligacinoien ganian.

*Erasoguinsa.*

Enzun dozu, Christinauba, ce modutan ecarri biar dituzuzan gogo, edo memorijara ceure pecatubac ondo confesadu gura bazara. Sarri, eta sarri au esan oi da pulpi-tuetatic: alambere deritz asco, eta asco confesadu oi diriala dongaro examinien faltaz. Au ezagututeco eztaucagu beguiratu baño confesetara datozen ascogaz jazoten dana. Innten dira confesoriaren onetan, sinatuten dira, eta dagoz isil isilic taiju, edo bulto batzue balira leguez; eztaquije cer esan, ez celan asi confesetan. Itanduten deutza Confesoriac: Cembat dempora da urrengo confesadu ciniala? Eranzuten dau zorzi, amar ilabete, edo urte bete. Itanduten deutza Confesoriac: Eguin dozu examina conciencijacua? Bertatic dino: Bai Jauna. Eta cembat dempora emon dozu conciencijsa examinetan? Zorci egun Jauna. Edonoc usteco dau au enzunic, zorci egun emon dituzala guizon onec pecatubac burura ecarten. Baña cembat dempora emon dozu egun bacotzian pecatubac burura ecarten? Eztaqui cer eranzun, bacarric dino: Zorci egun

da gaur confesetaco uste, edo intencinoia artu nebala; eta egunez, eta gabez oian, echian, soluan, basuan, eta edonun egon naz confesadu biar dodala. Baña esan eguidazu: ifini zara ceure bacarran pensetan nundie ibili zarian, cembat pecatu eguin dozuzan mandamentu bacotzaren contra? Eztozu itaune onecaz beste gauzaric ateraco, ezpada confesetaco artu euan gogo, edo intencinoiari dei eguiten deutzala conciençijaco examiniá, eta gueijen gueijen eranzungo deutzuna da: Guei daucaguzan artu emon, eta tratuboc eztira andi andijac bere. Ain otzic au esaten oi dabe, ce bertatic ezagututen da eztabeela dempora apur puscabat bere eguin conciençija examinetan. Aurrera.

Dirautza Confesoriac, eguin dozun ezquero examiniá confesadu eguizuz gogo, edo memoriara ecarri dozuzan pecatubac. Itandu beguit berorrec; eranzuten dau. Asten da itanduten, eta elduric maldicinoc, birao, verba loi, ordiquerija, edo beste ecanduren bat daucan pecatubetarra; itanduten deutzá: bota deutzazu ceure seme, edo alabai maldicinoc, edo biraoric? Bai Jauna, eranzuten dau. Eta cembat bidar? Sarri Jauna. Esan boquijo confesinoe ori eztala asco, esan dagujala cembat izan dirian bota dituzan birao, eta maldicinoiac. Alperric eguingo dau aleguina Confesoriac jaquiteco cembat izan dirian, edo cembat bidar. Gueijen gueijen eranzungo dabena da; intencinoe donga baga izan dira. Cer dauca cer icusi batac bestiagaz? Ezaizu cembat izan dirian maldicinoiac, eta guero icusico dogu intencinoiagaz, edo vijotzetie izan dirian, ala ez. Beste batzuc eranzun oi dabe, izango cirian oguei, edo ogueta amar. Esaten badeutza, eztala ori conciençija examinetia, eranzuten dabe, ecin bada nic gueijago esan inci. Beste batzuc bein esan badaije, oguei bidar

eguin dabeela pecatu bat, gustija da ogeui. Ogeui juramentubac, ogeui maldicinoiac, ogeui gorrotuac, ogeui verba loijac. Confesinoe modu onec Pelleburutsubac dira, eta bildur izan leiteque euretatic gueijenac, gustijac ez esaterren, chaarrae diriala, conciençijaco examinien faltaz; bada au eguin baga gurata gura ez, gueratu biar dabe pecatu ascoc confesadu baga. Eguin arren Confesoriac aleguina bere itauniacaz, pecatu gustijac arguitara aterateco, ecin icusi leiquiana leguez cer daguan an barruban, bijac ibili biar dabec ichumustuban.; confesoriac eztacuzalaco, eta icusi bere ecin leiquialaco cer daguan conciençijaren barruban; confesetan danac eztabelaco ondo aratu bere conciençija. Orregaitic, bada, neutre enzulac, nai bazara neque guichijagogaz, eta ondo confesadu, artu eguizube demporia, eta aleguin gustijagaz aratu eguizubez ceuben conciençijaco baster gustijac. Au eguiten badozube, eztozube euquico confesetara zuazanian aurquitu oi dozuben arazutic. Confesoriac lagunduco deutzube bere itauniacaz arguitan ifinten ceuben conciençija, gustiz nastaduric badago bere, quenduco dozube ceuben ganetic macurturic zauquezan pecatuben carga pisutsuba, vicico zare mundu onetan poz andijan, eta artuco dozube bestian penitencija benetacua eguiten dabee-nenzat gorderic daguan gloriija. Amen.

### *XVIII. VERBALDIJA.*

*Ondo confesetaco euqui biar dan damubaren ganian.*

**C**onfesinoe on bat eguiteco bigarren biar dana da damuba; au da, euqui biar dau benetaco damu bat, cdo be-

ne benetan damutu biar jaca pecatu eguina. Modu bita-  
cua izan leiteque damu au; bata berezcua, edo naturala;  
bestia naturalezaz, edo berezgañeticua, nai sobrenatura-  
la. Ezagutu nai badogu nos daucan batec damu bata, edo  
bestia, eztaucagu beguiratu baño cegaitic daucan damu  
au; badauca damuba, pecatubac ecarri deutzalaco gor-  
putzeco sensunacaz icusi, edo jaquin al leijan gachen bat,  
berezco, edo naturala da damu au; ezta duin, edo asco  
ondo confesetaco. Artuten dau justicijac lapurretan dabi-  
len guizon bat; ifinten dau carcela baten; erri gustitic za-  
balduten da lapurreta au, eta damututen jaca lapurretan  
ibilija: baña cegaitic? bere buruba carcela baten, eta lo-  
tzari ain andijan dacuzalaco. Damu au berezcua, edo na-  
turala da, bada gach oneec ezagututeco ezta federic biar,  
bere beguijacaz dacuzaz, bere gorputzagaz sentietan di-  
tuz. Damu au ezta asco ondo confesetaco. Damu, izate,  
edo naturalezaz gañeticua (sobrenaturala) dauca guizo-  
nac damu dabenian pecatu eguina, pecatubac ecarri deu-  
tzazalaco gachen batzue, ceinzue ecin ezagutu leiquezan  
fede baga, edo fediac bacarric iracusten dituzan, bada  
ecin beguijacaz icusi, ez beste gorputzeco sensunacaz sen-  
tidu leiquez. Esateraco: leen esan dogun lapurretan evi-  
len guizonac icusiric bere buruba lecu itzalsu baten, ca-  
tee, eta grilluz josiric ain lotzari andijan, asten da be-  
guiratuten ce lecu bildurgarrija izan biar dan infernuba;  
ce ezain egon biar daben bere arimiac galduric graci-  
jaren edertasuna, celaco lotzarija euqui biar daben, ain  
ezain, eta itzusi egonic Jaungoico, eta Aingueruben aur-  
rian. Beguirane, edo consideracinœ onecaz artuten dau  
damu andi bat, ez eguin daben lapurretia gaitic carcelan  
dagualaco, ez guizonen beguijetan lotzari ain andijan da-  
gualaco, ezpada bere arimiari aimbat gach icatagarrizco

*Damu  
tar gar  
edo ber  
nelian*

ecarri deutzazalaco. Damu au naturalezaz gañetico, edo sobrenaturala da, bada arimari ecarri deutzazan gach oneec, ecin guizonac berez, eta fede baga ezagutu leiquez, Jaungoicuagandic dator damu au, eta asco da ondo confesetaco.

Oraindio bere: nai neque arguijago azaldu, edo explicadu nos dagan damu bata, eta nos bestia. Onetaraco ifnico deutzubet irudi, edo ejemplu bat. Vici da nescatilla, edo doncella ondo jaijo, aci, eta eche andico bat bere guraso noble, eta zaldun, edo caballeruacaz. Erri gustijac dauca on, garbi, modusco, eta charquerija bagacotzat; jausten da mutil bategaz araguijazco pecatuban, eta egonic mutila gach atsitu, eta lotzagarriz ustelduric, itzitzen deutzaz bere gacha. Eguneric egunera dua aurrera gacha, baña lotzaz beteric ezteutza inori esan gura. Jausten da guexoric, eta dago oe baten erdi ilic, gustija erquinduric, azur, eta azala baño eztaucala, eta erdi ustelduric. Zabalduten da erri gustitic, ce gach modu daucan; eta gustijac daquije, ce pecatu eta loiquerijetan ibili dan. Orra nun dagan doncella au gach modu bigaz; gorputzecuacaz, eta arimacuagaz: gorputzecuac ezagututeco ezta federic biar, bada edonoc icusi leiquez, eta nescatiliac berac sentietan dituz bere gorputzian pecatu arec ecarri deutzazan argaltasun, zauri, min, eta alac; bestiac dira arimacuac; oneec dira Jaungoicuaren arerijo, eta demoninuaren mempeco izatia, ceruba zarraturic cuquitia, infernu bateco su beticuetara condenaduric egotia, Jaungoicua aserraturic cuquitia, eta beste esan bere ecin leiquezan gachac. Icusiric bere buruba egoquera, edo estadu onetan artuten dau mutilagaz eguin eituzan araguijasco pecatuben damu benetaco bat; vijotz gustitic deutzaz gorroto pecatu ari; beti dago negarretan urturic, cispuru

artian, eta atzeguin baga. Nai dozu jaquin dama, edo doncella onen damuba celacua dan? Berezco, edo naturala, ala naturalezaz gaineticua, edo sobrenaturala, eta Jaungoicuagandic datorrena? Beguira cegaitic daucan damu au, cegaitic dirian negar, eta cispuru onccc. Badi-  
ra aimbat min, eta gachegaz oian dagualaco, bere gura-  
suac aserraturic daucazalaco, euqui al leijan esconza on  
bat euqui ecin leiquialaco, eta beste onelaco gorputzeco  
gachacgaitic, damu au berezco, edo naturala da, ezta  
gauza Penitencijaco Sacramenturaco, alperrie eguingo  
dan Magdaleniac baño negar geijago. Daucan garbai, edo  
damuba bada arimaco caltiac gaitic, gracijaren edertasu-  
na galdu dabelaco, Jaungoicua beragaz aserraturic da-  
gualaco, edo beste onelaco gauzaren bat gaitic, natura-  
lezaz gaineticua, edo sobrenaturala da, eta asco da Sa-  
cramentu Penitencijacua eguiteco.

Modu bitacua da damu au; batari deitza contricinoia,  
eta bestiari atricinoia. Contricinoia da, euquitia damu be-  
netaco bat Jaungoicua pecatubagaz aserratu dabelaco,  
ez beragandic artu leiquian mesederen bat gaitic, ez be-  
rac castigadu al leiquialaco, ezpada bera dana dalaco  
ain on, ain santu, ain andi, eta ain maitegarri; eta alan  
damu onetan ezta beguiratuten, ez ceruba galdu izana,  
ez infernuba mereci izana, ezpada Jaungoicuaren onta-  
sun, anditasun, eta ain maitegarri izatia. Atricinoia da,  
euquitia damu andi bat eguin daben pecatubagaitic, be-  
ragaz ezaindu dabelaco bere arimia, zarratu dabelaco  
ceruba, mereci izan dabelaco infernuba, eta bildur dala-  
co Jaungoicuac bota eztaijan ango subetara eguin daben  
pecatubagaitic. Contricinoia dator Jaungoicuari deutzagun  
amodijotic, atricinoia barriz beragan daucagun icha-  
rote, edo esperanzatic. Gueijenac uste dabe, damu bi

onetatic edocein dala duin, edo asco ondo confesetaco; alambere aleguina eguin biar dogu, contricinoecua eruatéco, bada contricinoiac berac bacarric parcatuten dau pecatu mortala; baña ez atricinoiac. Orregaitic balijuaz pecatu mortalian dagozan bi confesetera, bata contricinoiagaz, eta bestia atricinoiagaz, eta ilgo balira bijac confesadu baño leenago, salvaduco litzateque contricinoia eroiana, eta ez atricinoia eroiana.

Damu au izan biar da pecatu gustijeena, bapere ichi baga; bestelan etzaco parcatuco, ez bacarric araco pecatu noren damuric eztaucan, ezta araco pecatu noren damuba daucan bere. Esateraco: daucaz guizon batec zorci pecatu mortal, darua confesinoera zaspiren damuba, baña ez zorcigarrenena; bada guizon oni, ez bacarric etzaco parcatuco zorcigarren pecatu noren damuric eztaucan, ezta beste zaspí, noren damu euqui daben bere: eta alan urrengo confesinoian gusti gustijac confesadu biarco ditu bardin cein da inorembere damuric euqui ezpaleu. Damu au izan biar da bijotzecua, edo benetacua, eta alanezta asco campotieua, eta aozcua bacarric izatia. Orregaitic ezta asco esatia: Damu dot Jauna berori aserratuba, ezta ucabilagaz bularra jotia, ezta negarretan urturic egotia, cispuru andijac botatia, vijotza gorgor badago, pecatubari deutzan zaletasun, edo affinoia quencen ezpada, eta gorroto gustizco bat berari euqui ezpadaquijo. Pecatubaren damu au, garbai au, min au, cein icusi, enzun, edo sentidu leique, ez beguijacaz, ez belarricaz, ez beste gorputzeco sensunegaz; eztau gorputzian minic eguiten, gustija da barrucua, edo vijotz, eta arimacua, eta jazo leiteque negar baga, cispuru baga, eta campotico, edo gorputzeco neque, min, eta sentimentu baga benetaco garbajia euquitia; eta jazo leiteque negar andijacaz, cispuru

artian, bularra gogor, eta irrimc juagaz, eta sarri esana-  
gaz damu dot, benetaco damuric ez euquitia.

Damu au euqui biar da Confesoriac absolucinoia emon  
baño leenago, edo guichienez Confesoriac absolucinoia  
emoten dabenian, bada orduban ezpadauca eztau eeer ba-  
lijo bere confesinoiac, guero damututen bajaca bere pe-  
catu eguina. Asco bada bere damu artu, edo euquitia con-  
fesetan danian, edo absolvietan danian; gustiz da pelle-  
burutsu orduraco istia damu arceia; bada orduban peca-  
tubac gomutadu, edo acordetiac, ciatz confesetiac, eta  
pecatuben bat isteco bildurrac darue ardura gustija. Pe-  
catubac confesadu ezquero eguiten dau Confesoriac ale-  
guina artu erasoteco confesadu danari esan dituzan pe-  
catuben garbaija, baño dempora guichija dalaco batetic,  
eta pecatuben bat ichi ete dabenen bildurragaitic beste-  
tic, ezta erraz arceia orduban damu benetacua. Orregai-  
tic, oneen oneena da, damu au confesetara eldu baño  
leenago arceia. Demporaric oneen oneena da, examina  
conciencijacua eguin da bertatic. Ara celan. Conciencia  
examinadu ezquero ceure pecatubac gogo, edo memori-  
jan dituzuzan artian, ifini zaitez Jaungoicuaren aurrian,  
eta humiltasunic beerenagaz escatu eijozu vijotz gustitic  
examinadu dituzuzan pecatu gustijen damu benetaco bat.  
Gustiz da biarra escari au Jaunari eguitia; bada izanic  
damu, eta garbai au Jaungoicuac pecatari bati eguin lei-  
jon mesederic andijena, ecin berez euqui leique guizonac;  
ecin bestec emon leiyo Jaungoicuac bacarric baño; eta  
orregaitic nai badau pecatarijac damu au euqui, Jaunari  
ezcatu biar deutza. Ezcabide au eguinic, beguiratu zadiz  
celacua zauqueezan pecatu orreec. Ce ezain, ce itzusi, ce  
atsitu zagozan; icatz bat baño balzago, demonino bat di-  
rudizula; gorputz ustel bat leguez, eta an aarrac batetic



bestera dabilzana leguez, alainche dabilzala demoninuac zure arimaan bere jauve eguinic. Beguira ondo celaco caltiac ecarri deutzazuzan ceure burubari pecatu orrec-  
caz; zagoz cerutic erbestetu, edo desterraduric, eta infer-  
nubetara condenaduric, Jaungoicua dago ain irritu, eta  
aserraturic zugaz, ce dauca bere besua ereguiric bere jus-  
ticijaco espata billoxa dabela, zu zatitu eta infernura bo-  
tateco. Bildurturic gustijori eldu zaitez Jaungoicuaren mi-  
sericordijara jaquinic andijac badira zure pecatubac, an-  
dijagua dala bere ontasun, eta erruquija. Au zugaz euqui  
daguijan artueguizu aimbat calte ecarri deutzubezan peca-  
tuben gorrotua, eta icharon eguizu Jaunagan parcatuco  
deutzuzala Jesu Christoren vicitza, pasinoe, eta erijotzia-  
ren merecimentubac gaiti.

Jaungoicuaren seme onen erijotza, eta pasinoian ale-  
guina eguin biar dozu, Jaungoicuaren zuganaco amodi-  
juaren anditasuna ezagututeco, eta ezauera onegaz isioric  
ceure vijotza beraganaco amodijuan, damu andi bat ar-  
tuteco bera aserratu dozulaco, izanic ain on, eta maite-  
garrri. Jatzi zan cerutic luurrera zu pecatutic ateraric, be-  
re seme zorioneco eguitera; onetaraco vici izan zan ogue-  
ta amairu urtian mundu onetan, neque, lan, eta gachic  
andijenen artian; zuri eutzun amodijo, eta ongura uts  
utsagaitic irago cituzan bere negargarrizco pasinoian,  
esan bere ecin leiquezan zauri, epai, burla, eta barriac;  
artu cituzan bost milla azote eta gueijago; euqui evan  
buruba aranza gogorrezco coroe esquerga bategaz zula-  
turic; eta azquenez, bere vicitzia galdu evan curutze ba-  
ten ulce gogorracaz josiric lotzariric andijenian. Beguira  
ondo ondo noraino eldu zan Jaungoico baten zuganaco  
amodijua, ezquer oneco izan zaitezain ain maite izan zai-  
tuzan Jaunagaz. Ceru luurren eguiliaren amodijo onegaz

isio biar dozu ceure vijotza beraganaco amodijuan. Zagoz seguru, ce ceuc ceure aldetic eguiten badozu aleguina, ezteutzula ueatuco Jaunac onetaraco biar dozun bere laguntasun, eta gracia. Berac bere ceruco su onegaz erre, eta garbituco deutzu ceure vijotza; baña bazuaz ceure vijotza prestadu baga, usteric Confesoriac dirautzunagaz artuco dozula benetaco damuba, bildur izan cinaitequez, ezteutzula Jaunac emongo onetaraco biar dozun gracia.

Gauza gustiz biar bat emenche esan gura deutzubet, deritzadalaco beran ondo ez beguiratutiarren, confesinoe char asco eguiten diriala. Ondo confesadu gura dabenac eztau ecetan bere ardura andijagoric ifini biar bere pecatuben damuba euquitian baño; bada Trentoco Batzar, edo Concilijuac dirauzcu: Penitencijaco Sacramentubaren alde, edo parteric lenen, edo principalena dala damuba, eta orregaitic biarric biarrena. (1) Bera baga eztago pecatuben parcacinoeric. Jazo leiteque Examina baga, eta confesinoe baga parcatutia. Emoten deutzua bati aldiguesto batec, eztauca nogaz confesadu, eguiten dau acto contricinoeco bat, ilten da onegaz; orra nun oni parcatu jaczan bere pecatu gustijac, eta salvadu dan. Emoten deutzua beste bati gach bertatico batec, elduten da Confesoria, eztauca lecuric, ez examinaric eguiteco, ez bere pecatu gustijac confesetaco: esaten dau pecatu bat bacarric, eta absolvietan dau Confesoriac; bada badauca benetaco damuba, parcatuten jaczaz. Baña au ezpadago ecin inundi bere pecuric parcatu leiteque, alperrac izango dira examinaric arduratsubenac, eta alper confesinoeric ciatzenac. Orra cegaitic esan deutzubedan confesadu nai dozunian arduraric andijena ifini biar dozubela pecatuben damu, edo dolorian. Eta ardura au ez artutia gaitic deritz

(1) Ses. 14 cap. 4.

gustiz asco diriala dongaro confesetan dirianac. Ara ce-  
gaitic.

Confesadu nai dabeneetatic gueijenac ardura gustija ifini oi dabe conciençija examinetan; onetan emoten dabe dempora gustija; bildur gustija da pecatuben bat asturic gueratu eztedin, auxe euren ezturia, auxe euren larrija, bein ondo examinadu arren ostera biurtuten dira peccaturic ichi ete dabeen, ez bacarric confesetara juan baño leenago, baita bere Confesorien oñetan dagozan dempora gustijan; eztabe beste gauzatarra aituten, eztabe damubaren jaramonic eguiten, ez confesetara juan baño leenago, ez confesetan dagozarian, ez confesadu ezquero; eta alan bildur izatecua da onelacuen confesinoiac eztiriala onac garbai, edo damu faltaz. Jaquin eguizube biarragua dala damuba examinia baño, eta ezauera onegaz artu eguizube ardura andijago bat damuba euquitian examinia eguitian baño. Confesetara juan baño leenago artuten badozu damuba confesinoia bere obiagua, humilagua, negartzubagua izangø da. Guero absolucinoia artuteco demporia eldu deitenian, eztaueazu barristadu baño damu au, eta auxe da asco confesinoia ona izateco.

### *Erasoguinza.*

Nai badozube bada, neure Christinaubac, ez pelleburuban egon confesinoe donguia eguiteco, eguizube aleguina confesetara juan baño leenago artuteco pecatubeen damuba. Bertatic dira ezagun confesonarijuan au eguiten eztabeenac. Ifinten dira belauñico, eguiten ditubez arras-taca caco batzuc curutze ordeç, eta esanic: *Ni peccatarija* arin aringa, ifinten dira Confesoriari adi ija cer itanduten deutzan. Baña celaco modubagaz, celaco oztasunagaz?

Edocean conversacinoetan lagunacaz balegoz leguez. Itanduten deutza Confesoriae: Badaucazu Jaungoicua aserratu dozulaco damuric? Bertatic eranzuten dau: Bai Jauna; baña ezta inundic bere beragan aguiari damu onen ezaugarri, edo señaletic. Asten da Confesoria pecatubac itanduten, eztau berac ecer aurreratuco. Etzaco beste gauzaric enzungo, ezpada bai Jauna, edo ez Jauna. Itanduten bajaca: cembat bidar eguin dozu pecatu au, edo bestia? Eztaqui cer eranzun, eta nosbait esaten badau cembat izan dirian, da abasberuan, edo destaiju. Amaituric celan, edo alan confesinoia, abijetan da Confesoria aldaijan indarric gucijenagaz vijotz a bigunduten, eta pecatubeen damuba artu erosoten; baña esan al daijon gustija ezta azco cirquinhubat bere erasoteco. Ainchedago gogor gogorric, arribat balitz leguez batera, eta bestera beguira estu, eta larri absolucinoia artu artian, luce derichala an emoten dabena demporia, nai leuquiala aibat lasterren amaitu dedin, bere arazu, edo cereguinetara juateco. Nundic ezagutu leiteque onec benetaco damuba daucala?

Baña onelacuac damuric eztaucanen bildurric andijena emoten dabena da, ifinten jaca penitencija arceco dauquen atzeracuncia, eta aurquituten ditubezan achaquijac. Dacuz Confesoriae guizon, edo emacume arce confesadu dituzan pecatubac dauquen sustraija daguala pelciburban, edo daucan ocasinoian. Esateraco: ordituten bada, dala tabernara doialaco, eta ara juaten ichiten bajaca biurtuco dala orditutera. Emacumeren bat pensamentu loi, edo araguijazco pecatuban jausten bada, dala mutil gasteren bategaz adisquidetasuna daucalaco, eta quencen ezpajaca eztituzala pecatu areec ichico. Daqui bestien aserre, juramentu, maldicinoe, eta birauac jocotic datorquijozala, eta ichiten ezpadau, beti pecatu oneetan vicico.

dala. Aguindu beguijo bada, batari ezteila tabernara eldu; bestiari ichi daguijala mutil gastiaren adisquidetasuna, jocalarijari ezteila joca lecu, edo echera urreratu bere. Onegaitie dinodana dinot beste pecatuben pelleburu, eta ocasioiaegaitie bere. Ce penitencija astuna! Ce aguin du garratza! Ce achaquijac ez artuteco? Ce verba? Ce isquini? Ce propositu aoscuae tabernara juan arren eztala ordituco; mutilagaz, edo nescatiliagaz egon arren eztala jausieo; jocora juan arren eztabela birao, ez maldicinocric botaco? Baña ezagaturic Confesoriae au demoninua ren asmuba dala peccarija peccatuban beti euquiteco, eztau absolvidu gura peccatubaren pelleburu, eta ocasioia isten ezpadau. Orduban dira larrijae, orduban esturaac crausi, edo errepliac. Cetatie dator au? Damuric ez euquitetic. Balego biar dan garbaija, balitzaco peccatubari biar jacan gorrotua, berez, eta Confesoriaren aguin du baga, alderatu, edo apartaduco litzateque peccatuben pelleburubetatic; baña eztaucalaco, nai leuque Confesoriae absolucinoia emon deijon, eta ichi daguijan leengo pelleburuban; baña au dago sendo biar dabena leguez. Cer eguiten dau? Absolucinoia ueatu eztaquijon emoten dau verbia ichico dabela euqui daben pelleburuba, au da, eztala taberna, edo joco echera, edo lecura juango, edo ichico dabela mutil edo nescatiliaren adisquidetasuna; arren dau onegaz absolucinoia, eta dua aserraturic, eta puzca Confesoriaren contra. Noc esango dau onec benetaco damuba dauqueela? Ez inoc.

Emetixec dator, egunian egunian icusten dogun ascoren negargarrizco vici moduba. Ordijac confesadu arren, ordi gueratuten dira. Lapurrae confesadu arren, lapur gueratuten dira, loijac loi, biraocarijae biraocari, murmularijae murmulari. Datoz confesetara prestadu baga,

damuric artuteco ardura бага. Eztizubez artu nai confesoriae emonico penitencijarie biarren biarrenac; uste dabe Confesoria estubeguija, edo gogorreguija dalaco ifinten deutzazala ain garratz, eta astunzat dauquezanac. Orregaitic deritze penitencija au bete, edo cumpletaco biar, edo obligacinoeric eztauquela gogorreguija dalaco, eta alan absolucinoia ucatu ezteijuen emoten dabe cumpliduco dabencen baija. Uzte dabe onegaz bein absolucinoia artu ezquero ondo confesaduric duazala, eta gueratuten dira leen baño dcungago, eta pecatu gueijagogaz. Orra cegaitic dacuzcun ecandudunac confesadu arren leen leguez gueratuten diriana. Bildurturic egoera icaragarrizco onegaz eguizube aleguina demporaz artuteco ceuben pecatuben damuba, emon deizuben confesinoiac gracia, artu daguizun bere sari betico gloria. Amen.

### XIX. VERBALDIJA.

*Ondo confesetaco biar dan gogarte, edo proposituba.*

**E**sanic confesinoe on bat eguiteco enqui biar dala pecatuben damuba, dago bere esanic, euqui biar dala gogo, edo propositu sendua peaturic ez gueijago eguiteco; bada ecin inoc esan leique cerbait eguin dabelaco damuba daucala, beste aimbeste eguiteco gurari, edo vorondatia jaoten badau. Ezpabere, esan eguidazu: Ebaguico beleutza guizon batec bestiari buru, beso, edo oin bat, eta esango baleutza damu andi bat daucala epai au eguin deutzalaco; baña daucala gogo, edo vorondate osua ur-rengo al daijarian beste aimbeste eguiteco, noc sinistuco leuzquijo benetaco garbaija daucala? Ez inoc. Alainche

bada, ecin inoc esan leique pecatu eguin dabelaco damu-  
ba daucala, ezpadauca ostera ez eguiteco gogo, edo pro-  
posituric. Orregaitio bere, nai deutzubet, berez azaldu,  
edo esplicadu, cer dan ondo confesaduteco biar dan pro-  
posituba, obeto jaquin daguizuben, cer dan, eta celacua  
izan biar dan.

Da bada proposituba, bene benetaco gogo, edo vo-  
rondate sendo bat arceia, ez ostera pecatu eguitera biur-  
tuteco. Iru gauza euqui biar ditu propositubac ona izate-  
co: izan biar da pecatu gustijena; sendo, edo irmia; eta  
eraguilia, au da, igues eraso biar deutza daucanari peca-  
tu, eta pecatuben pelleburu, eta mugaldi, edo ocasinoe  
gustijetatic. Lenengo: izan biar da gustijena, au da, euqui  
biar dau gogo, edo propositu sendo bat isteco, ez pecatu  
au, edo bestia, ezpada gusti gustijac, eta alan ezta asco  
pecatu batzueganaco vorondatia istia, gordetan bada  
besteren batzueganacna. Esateraco. Guizon batec ichi dau  
mecia jaijegun baten bere guraariz, eta dauca ecandu, edo  
costumbria bere araguijagaz pecatu eguiteco, edo orditu-  
tcco; bada onen gogarte, edo proposituba ona izateco ez-  
ta asco artutia gogo benetacua ostera mecia ez isteco jai-  
jegunian, euqui bere biar dau vorondate oso osua pecatu  
loi, edo ordituteco daucan ecandu citala goitu, edo ven-  
cietaco; bestelan onen proposituba utsa da, eta etzaco  
pareatuco ez bacarric pecatu loi, edo ordiquerija noren  
proposituric eztaucan, baña ezta meza galduba bere no-  
ren proposituba daucan. Ecandu, edo costumbrezeo peca-  
tuben bat badago, euretara ez biurtuteco proposituban  
ifni biar da arduraric andijena, eta eguin aleguinic guci-  
jena; gustiz gachago dalaco eurac isteco gogo, edo vo-  
rondatia artutia, guichitan eguiten dana ez eguiteco ba-  
ño. Sarri, eta sarri dacuzen eguija au. Betor confesetara

norbait pecatu modu bigaz. Izan bedi bata noxian bein  
baño eguiten eztabena, eta noganaco ecanduric eztauca-  
na: Esateraco: Mecia nosbait arduaezagaitic galceia.  
Izan bedi bestia noren ecanduba daucana; equi begui or-  
dituteco, edo araguijazco pecatura oitura, edo costum-  
bria; bada erraz eguingo bajaca bere artutia gogarte, edo  
propositu sendo bat ez ostera mecia galeeco, gustiz astun,  
eta garratz eguingo jaca ardao, edo araguijazco pecatu-  
baren ecanduba istia. Aguinu bequijo, ordituteco ecan-  
duba daucanari, ezteila tabernara juan; ce gach, ce ne-  
quetsu eguiten ez jaca? Artuco diuz penitenciaric go-  
gorrenac, baña ecin inundic bere, ecarti al izango da ta-  
bernia istera; celaco achauquiac? celaco aleguinac? cela-  
co promesac? eta biar badira, celaco juramentubac eztala  
ostera ordituco tabernara juan arren? Aldaijan gustija  
eguingo dau, Confesoriac galazo ezteijon tabernara juatia.  
Betor confesetara mutil, nescatilen bategaz pecatu egui-  
ten dabenen bat, eta jolaz, olgura, erromerija, eta dan-  
zan ibilija gaitic, pecatuban jausten danen bat; onec ba-  
dauca beste pecatu ecandu baga bat, bertatic ifnico dau,  
ez ostera eguiteco proposituba, eta emongo dau verba  
sendua eztala ifnico pecatu atan jausteco pelleburutan;  
baña aguinu bequijo ichi daguijala nescatila agaz dau-  
can adisquidetasuna, eztaijala beragaz equi verbaldi,  
edo conversacinoeric, ezteila beragaz bacarric icusi, ez-  
teila juan jolaz, erromerija, danza, eta conversacinoe ari-  
netara, ce penitencia astuna? ce gogor? ce garratza? ezta-  
go inundic bere pelleburu onec ichi crasoteco moduric.  
Badaquizube cegaitic dan ain gach ecanduzco pecatube-  
tara ez biurtuteco gogarte, edo proposituba equitia? Ara:  
cembat eta sarrijago eguin pecatuba, aibat eta andi-  
jagua da beraganaco echutasuna; ceibat eta andijagua



echutasuna, aimbat eta gozuago; ceimbat eta gozuago, aimbat eta naijago; eta ceimbat eta naijago, aimbat eta gachago bera istia.

Gura dozube oraindio bere obeto, eta obeto ezagutu ce gach dan ecandu charra quenceco gogarte, edo propositu euquitia? Beguira bada cer jazo oi dan ecandu, edo oitura donguen bat daucanagaz. Sarri icusten dira guizon, eta emacume gustiz santu dirudijenac; egunian egunian errosarijua errezau, eta meza enzuten dabee, sarri confesadu, eta comulgadu, beti errecetan, eta aldaijen gustijan Elexara; pecatuben guericiaac bildurtuten dituz, eta nosbait pecatuban jausten badira eztaunque atseguinic confesadu artian, eta uste leiteque artez artez duazala cerura. Euqui begui onetarico batec ecandu cital bat: Esateraco; sartu bedi tratu bidebaguetan, edo saldu erosi oquerretan; atera begui irabaci on bat, zaletu bedi irabaci onetara, aberastu bedi bere lucrerijacaz, itsatzi bequijoz vijotzian dongaro irabacirico ondasunac; bada icusico dozu celan eztaben pecatutzat bere euquico daucan irabaci modu oquer au. Aurrera darua bere devocinoia, errosarijo, meza, barau, limosna, eta beste eguitade, edo obra onac; baña aurrera darua bere tratu oquer, eta irabaci chaarra. Esan bequijo eztiriala beriac daucan ondasunac, ichi daguijala saldu erosi bidebaguia, lucreriya dalaco; eztau jaramonic eguingo, eztau sinistu bere guraco pecatu danic. Cetatie deritzu datorrela beste pecatu gustijen gorrotua euqui arren, lucreriya pecatutzat bere ez euquitia? Artu daben ecandutic.

Saldu erosi oquer, edo tratu chaarraegaitic dinodana, dinot beste ceandu citalacgaitic bere, celacuac dirian ordiquerija, loiquerija, murmuracinoe, birao, eta maldicinoinac. Eta cer balijo deutsu, beste pccatu gustijen

proposituric senduena euquitia, ezpadaucazu gustijena? Cer valijoco deutzube ceure meza, errosarijo, oracinoe, baru, confesinoe, eta comuninoiac? Ecerberez. Ain zaucaz catigu demoninuac, cein da inoren gogarte, edo proposituric ezpaceunca. Chorichu bati jazoten jacana jazoten jatzu zuri bere. Arcen dau mutil batec chorichu bat, eta lotuten dau cadera batetic arijagaz. Chorichu onec libre dauca buruba, libre dauca iduna, libre dauca cadera bata, libre daucaz eguac, libre dauca bustana, eta esan leiteque nai daben lecura juan leitequiala. Abijetan da egaz, eta esan leiteque libre dabilela, eta eztaguala inundic catigu. Baña ce importa da, buru, idun, gorputz, eta eguac libre euquitia catigu badago caderatic? Araco uste dabenian libriago daguala, eta nora nai egaz eguingo dabela eztazaulaco caderaco arija baño beste locarriric, tira eguiten deutzua mutilac, eta dacar bere escura, eta eguiten dau beragaz nai dabena. Auxe berau jazoten da zugaz, eta demoninuagaz bere; loturic zaucaz ecandu citalagaz. Zuc oitura oni deutzazun echuntasunagaz eztozu ezagututen loturic zagozanic, eta beste peaturic ceugan eztacutzulaco, deritzu libre zagozala. Ceure devocinoe, meza, errosarijo, confesinoe, comuninoe, eta limosnacaz uste dozu cerura zuazala egaz: baña engañaduric zagoz, demoninuac zaucaz catigu ecandubaren arijagaz, eta ezteutza arduraric beste pecatu gustijetic libre egotia, bategaz bacarric bazaucaz bere aguin-dura. Orregaitic nai badozu urten demoninuaren atzamarretic, pecatu gustijetara zabaldu biar dozu zure gogarte, edo proposituba.

Bigarreno: gogo, propositu, edo vorondate au izan biar da sendo, edo irmia, au da, prest egon biar da au daucana galceco, biar bada ondasun, diru, honra, diña-

de, erreñu, eta bere vicitzia bere peccatura biurtu baño leenago. Propositu au euqui leiteque bildur izan arren venturaz ostera jausico dala peccatuban. Esateraco. Dauca batec bere araguijagaz peccatu eguiteco ecandu, cdo eostumbre donguia. Bildurturic infernuban jausteco daucan pelleburubagaz, artuten dau peccatutic urteteco gurafi vici bat. Onetaraco al daijan onduen prestaduric confesetanda. Dauca onelaco peccatura oztera ez biurtuteco gogo benetaco bat; baña ezaguturic ce luzaro irauñ deutzan oitura citalac, ce indar andija artu daben, ce gozo eguiten izan jacan, ce echutasun andija sentietan daben bere araguijan, bildur da ostera jausi erasoco deutzala bere argaltasunac peccatu onetan. Onec, bada, bildur izan arren peccatuban jausico dala, badauca vorondate osua iguez eguiteco aleguin gustijagaz peccatubaren pelleburubetatic, euquico dau gogarte, edo propositu benetacua. Baña cer dinot? bildur au ez bacarric ezta gogo, edo propositubaren contracua, ezpada benetacua bada, berac sendatucodau; bada artu erasoco deutzala, peccatuben pelleburu gustijetatic igues eguiteco arduraric andijenac.

Irugarrengo: izan biar da gogarte, edo proposituba erasoguilia, au da, artu eraso biar dituz peccatuban barriro ez jausteco al deitezan modu gustijac. Auxe da propositubac biarren daben gaucia, eta cetan ezagututen dan benetacua dan, ala ez; eta jaquin gura badozu euqui dozun ala ez biar dan proposituba, beguira celan vici zarian confesadu ezquero. Ciatz, eta ondo bete edo cumpletan badituzuz Confesoriac emonico penitencija gustijac, ez bacarric araco peccatubaren zorrac paguetaco dirianac, ezpada peccatura ez biurtuteco dirianac, eta gurari onegaz ichiten badituzuz leen peccatu erasoten eutzubezan ocasinodiac, eta igues eguiten badozu peccatuban

jausteco pelleburubetatic, ezaugarri, edo señalla da zure gogarte, edo proposituba ona, eta sendua izan zala. Baña ezpadozuz ciatz, eta ondo beteetan araco penitencija, pecatutic alderatu, edo apartetaco dirianac, ichiten ezpadozuz peccaturaco ocasinoiae, eta pelleburubac, eta ezpadozu eguiten aleguin gustija oitura citala quencecco, ezaugarri, edo señale ciurra da eztozula euqui gogo, edo propositu benetacoric, eta etzariala ondo confesadu. Alperric esango dozu gogarte, edo propositu irmia daucazula, ez eguiteco ostera peccaturic; alperric eguingo dituzuz penitencijaric icaragarrijenac; alperric emongo dozu egun gustija erreccetan, eta alperric negarretan urtucó zara, eztaucazu gogo sendoric, utsac dirá ezaugarri, edo señale onecc.

Obeto jaquin daguizuben nos daucazuben, eta nos ez propositu benetacua, nai deutzubet ifini guertaldi, edo ejemplu bat. Dago eche baten nescatila bat otsein, edo crijada. Dauca soldata ona, provechu andijac, eta betico ondo gueratuteco ichoromen, edo esperanza osua. Artuten dau adisquidetasun loi, eta lotzagarri bat ugazaba, edo beste ehecuen bategaz, eta dago dempora lucian hichuturic icaragarrizco peccatu loijan. Idiguiten dituz nosbait bere arimaco beguijac, eta icusiric infernu baten jausi aguinian daguala, dua negarretan urturic confesetara. Oran bada nai dozu jaquin onen gogarte, edo proposituba sendua, eta benetacua dan, ala ez? Beguira cer eguiten daben. Ciatz, eta ondo bete, edo cumplietan badau Confessoriae emonico penitencija, eta onecc aguinduten deutzalaco urtetten badau eche atatic, eta naijago baditu galdu daucazan provechubac, ondo gueratuteco ichoromen, edo esperanzac, eta biar bada artubén daucazan soldatac peccatura biurtuteco pelleburuban egon baño; ezaugarri, edo

señalia da propositu eguijazcua daucana. Baña atzera badago eche atatic urteteco, eta aleguinac eguiten badituz Confesoriac urten eraso ezteijon, edo baija emonic Confesoriari urtengo dabela absolvicinoia ueatu ezteijon, bertan gueratuten bada, soldatac, eta provechubac ez galcerren, gueroco ondo gueratuteren, edo cer esango da beenagaitic, eztauca gogarte, edo proposituric, eta confesinoe charra eguin dau. Oni ezteutza valijo esatiac, eche atan-egon arren eztala barriro pecatuban jausico, eztalaco bacarric egongo orduraño pecatu eguin dabenagaz, ezteutzala urreratuten ichico, eta artuco dituzala aldai-zan modu gustijac pecatuban ez jausteco; bada bertan daguan artian pecatuben ocasinoe, eta pelleburuban dago, eta orregaitic ecin esan leique propositu benetacua daucala.

Auxe berau dinot beste pelleburubacgaitic bere, eta alan tabernan ordituten danac ecin esan leique propositu benetacua daucala, tabernia ichiten ezpadau; jocuan asceratuten danac, birao, eta maldicinoiac ezarten dituzanac ecin esan leique gogarte benetacua daucala jocua isten ezpadau. Jolaz, olgura, danza, eta mutil nescatila arteco adisquidetasunetan infernuco su ciquin, eta loijetan erretan danac, eta verba atsitubac esaten dituzanac, ecin esan leique propositu irmia daucala, pelleburu gusti onetatic igues eguiten ezpadau. Beste gauza baten bere ezagututen da propositu faltia; eta da Confesoriac emonico penitencia arceco atzeracunzan. Dacuz Confesoriac confesctan danac daucala ecandu citalen bat, edo oraindio ezpadauca bere, erremedijetan ezpada laster artuco dabela. Esateraco: dacuz bere araguijagaz pecatu loija eguiteco oitura, edo costumbria daucala, edo jausteco pelleburuban daguala. Deritza, ecandu au quenceco, edo bertan

jaustia galazoteco, erremedijoric alsu, edo poderosuen dala, amabosteric amabostera confesetia: aguinduten deutza, bada, penitencija au. Ce garratz! ce astun eguiten ez da penitencija ain bigun au? Celaco achaquijac villatuten ez dira ez artuteco? Ce erauste, edo errepliac? Beste edo ccimberc penitencija gustiz astunago izan arren bere, errazago eguiten jaque. Beste batec dauca maldicinoiac, birauac, eta juramentu guzurrezcuac ezarteco oitura, edo costumbria; dacuz Confesoriac ecandu au daucala urteric urtera baño confesetan ezalaco, eta orregaitic ifinten deutza penitencija ila beteric, ila betera confesadu deila. Ce penitencija nequetsuba? Ce aleguinac beste bat emon deijon? Onec, eta onelacuac eztaucque peccatura ez biurtuteco proposituric; bada baleucque, poz pocic artuco leucque euren arimen medicubac emoten deutzen osasunguci, edo medicina.

*Erasoguinza*

Esan danetic aituco dozube, neure enzula maitiac, confesinoe on bat eguiteco gauzaric gachena, baita biarrena bere dala peccatubac gustiz ichiteco proposituba: orregaitic onctanche ifini biar dozube arduraric andijena. Derizt aimbeste confesinoe donga eguiten badira, gueijenac propositu faltaz diriala. Ascoc, eta ascoc uste dabe bein examina eguin, peccatubac confesadu, eta absolucinoia artu ezquero, eguinc daguala ondo confesetaco biar dan gustija. Dacuz Confesoriac peccaturaco mugaldi, edo ocasioian daguanen batec ezabela urten gura pelleburutic, eta ueatuten deutza absolucinoia. Orduban dira lartijac, orduban esturac, orduban negarrac. Celaco erregubac? celaco escabidiac absolucinoe baga bialdu eztaijan? Dirautza Confesoriac, ichi dagujala leenago pe-

caturaco vidia, urten daguijala daucan pelleburutic, eta emon daguijala leenago bere propositubaren ezaugarrija, bada bestelan absolvietan badau, bijen arimaac galduco dituzala. Ezteutzala ecer valijoco absolvicinoiac, leen baño deungago gueratuco dala; bada pecatubac parcatu, eta gracia artu biarrian beste pecatu icaragarri bat eguingo dabela. Adi eraso daijala leenago bere gogarte, edo proposituba, eguinagaz aleguina bere ecanducitala quendu, edo guichienez guichituteco, ichi daijala pecaturaco bidia, urten daijala pelleburutic, eta au eguin bago, ecin inundic bere absolvidu leiquiala; baño au gustijau ezta asco. Nai leuque leengo ecanduban aurrera juan, mugaldi, edo ocasioian gueratu, leengo pelleburuban egon, eta absolucinoia artu, eta deunguen deunguen dana, uste dau absolvietan badau Confesoriac parcatu jacazala bere pecatu gustijac.

Guizon itsuba, emacume sensumbaguia, cetaco dozu, cer valijo deutzu absolvicinoc orrec? Cer aurreratuten dozu bera artubagaz? Pecatuban aurrerago zarceia; demoninuaren laquijuan irrimiago catigaturic gueratutia; Jaungoicuaren arerijuago izatia, eta infernubaren urrago juatia. Orregaitic, ecin Confesoriac mesede andijagoric eguin leiquezu, absolvicinoia ucatutia baño, eta eguin leiquezun gach, eta calteric andijena da absolvietia; bada ucatuten badentzu da urten daguizun infernura daruazun videtic, eta sartu zaitezcan ceruco vide artectic, baño emonagaz absolvicinoia, ichiten zaituz ceure betico condenacinoera daruazun bidian, eta charren dana sinistu erasoten dentzu ceruco videtic zuazala. Ichuturic modu onetan aurrera daruazuz ceure ecanducitalac, eta nos guichiago deritzun aurquituco zara infernucoc atetan. Nai badozu bada, zure Confesinoia ona izan dedin, eta Con-

fesoriac absolvidu zaizan, emon eguizuz ceure proposi-  
tubaren ezaugarri, edo señaliac; urratu eguizuz ecandu  
citalac; ichi eguizuz mugaldi, edo ocasinioiac, urten egui-  
zu pelleburubetatiē, eta erdu Jesu Christoren oñetara,  
esan eguijozuz berari Confesoriari esanagaz, ceure peca-  
tu gustijac, eta ordubanche gueratuco zara pecatuben ca-  
tee бага, eta ibilico zara bide artecetic, ceinec eruango  
zaituzan cerura. Amen.

## XX. VERBALDIYA.

### *Confesinoiaren gamian.*

**C**onfesinoe on bat eguiteco laugarren biar dan gaucia  
da pecatu gustijac, bapere ichi бага confesetia. Confesi-  
noia ezta beste gauzaric, ezpada, Confesoriari bere peca-  
tu gustijac zalatu, edo acusetia, beragandic arceco  
euren absolvicinoe, eta parcacinoia. Ona izateco euqui  
biar dituz lau gauza. Lenengo: izatia humila, bigarren-  
osua, irugarren-eguijazcua, eta laugarren- tolez, eta  
achaquija baguia. Lenengo: izan biar da humila, edo hu-  
mildia, au da, eztira pecatubac esan biar ipuin bat, edo  
jazo dan beste gauzaren bat esango balitz leguez, ezpada  
eguin dituzan gach andi, eta calte icaragarrijen parca  
ezcatuten dabenac leguez. Edonoc daqui norbait badua  
beste bati eguin deutzan gach andijen parca escatutera,  
eldu oi dala lotzaz beteric, eta humiltasun andiATEGAZ.  
Cembat eta andijago dan personia, cembat eta aserriago  
dagan beragaz, cembat eta andijaguac dirian eguin deu-  
tzazan gach, eta caltiac, aibat eta humilago dua bere  
aurrera parca ezcatutera. Beguira bada, nori dirautzazu-  
zan ceure pecatubac, eta cetaraco acusetan zarian, eta



auxe bacarric asco izango da, humiltasun, bildur santu, eta lotzaz beteric ceure pecatubac confesetaco.

Ara bada; Confesorien ofietara bazuaz, eta zure pecatubac berari confesetan badeutzazuz bere, Confesore ori Jaungoicuaren ordeco da; orregaitic, bere ofietan belaunico ifinten zarianian Jaungoicuaren aurrian ifinten zara; berari acusetan zaijacaz; berari dirautzazuz bere contra eguinico pecatubac. Bera dago zugaz gustiz irritu, eta aserraturic, beragaz euqui dozun lotsabaquerija gaitic; bada zatitu, zauritu, eta il deutzazu bere seme bacar maitia. Orregaitic zaucaz condenaduric infernu batera. Confesetan zarianian salatu, edo acusetan zajacaz Jaunari berari, eta dirautzazu, ceuc zatitu, birrindu, odolustu, eta il dozula bere seme bacar maitia, eta confesinoe au eguiten dozu parca escatubagaz ain aserre daucazun Jaungoico oni. Celaco humiltasunagaz? celaco lotsa, celaco bildur santu, eta celaco devociniagaz esan biar ezteutzazuz ceru luurren Jaun oni ceure pecatubac?

Bigarrengo: izan biar da osua. Au da, conciencijaco examinia eguin ezquero, edo conciencija ciatz, eta ondo aratu ezquero; confesadu biar dituz gogo, edo memori-  
jan daucazan pecatu gustijac bapere ichi baga, conciencija examinadu zanian gogora ecarri citubana leguez; bada bere gomuta, edo memori-  
jan daucazan etatic bat bacarric ichiten badau lotza, bildur, nai guestaquerija, edo malicijaz, confesinoe donguia eguingo dau, eta lecnagoco pecatubac parcatu biarrian, beste pecatu mortal bari bat eguingo dau, eta ez bacarric etzaco parcatuco confesadu eztaben pecatuba, ezta confesadu dituzanac bere. Orregaitic nosbait ichi badozu pecatu mortalie confesadutzaca zeure erruz, edo guraz, guero confesadu biarco dozuz, ez bacarric confesadu etzenduzanac, baita confe-

sadu cenduzanac bere. Esateraco. Lau urtian eugu dozu pecatu bat isilie lotzaz; bada, nai badozu parcatu daquizuzan pecatubac, confesadu biar dituzuz ez bacarric isilie eugu dozuzanac, baita bere dempora gusti onetan eguin dituzuzan gustijac lenago confesadu arren bere, eta onezaz ostian eguin dituzuzan confesinoe, cte artu dituzuzan comunioiac. Baña confesinoe baten, edo bestian ichi bacenduban pecatuben bat lotzaz, eta guero astu batzuzun gustiz pecatu au ceure erru baga, eta orregaitic confesadu ecpacenduban, biurtu biarco zara confesetara lotzaz ichiricua, eta confesinoe atan confesadubac, baña ez guero cuac. Esateraco: chiquichu, edo gastechu cinianian, eguin cenduban araguijazco pecatu loi bat, eta juanic confesetara ichi cenduban lotzen lotzaz. Iragozan demporaren bat confesadu baga, eta astu jatzun pecatu a. Irago cirian urteren batzuc, eta, edo Sermoeren bat enzuncendubalaco, edo Confesoriac eguin eutzun itauneren bat gaitic, edo beste moduben baten, gomutetan jatzu pecatu a ichi cendubana lotza, edo bildurra gaitic. Oran bada, ondo ondo beguiratu, eta ceure conciencija araturic, ciur bazagoz etzendubala ceure erruz salatu baga ichi gueroeco confesinoietan, eguin biar dozuna da barristadu araco confesinoe ceinzubetan ceure erruz, edo lotzaz etzenduban confesadu pecatu loiija, eta eztaucuzuz cer barristadu gueroco confesinoiac. Araco examina conciencijacua ondo eguinic astuten danian peaturen bat, eztago cer barristadu orduban confesinoe gustija, asco da esatia asturico pecatuba bacarric.

Confesinoia osua izan dedin, ezta asco esatia eguin dan pecatu generua, edo esatia sarri pecatu eguin dabela; esango bacendu leguez, acusetan naz sarri ostu dodala. Au ezta asco, dinot ostera bere. Esan biar dozu cembat

bidar ostu dozun, edo cembat bidar aserratu zarian, verba loijac esan dituzuzan, edo beste edoocimbere pecatu mortal eguin dozun; ecin badozu esan cembat bidar, edo labere guichi gora bera; au bere ecin badozu egunian, edo astian; eta au bere ecin badozu, cuqui dozun ecanduba, eta cembat dempora iraun daben, examinien ganeco icasbide, edo doctrinan esan dana leguez. Onezaz ostian, confesadu biar dituzuz pecatubac daucazan alde, edo circunstancija beste pecatu dirianac. Esateraco: jo dozu ceure aita? ezta asco esatia jo dot guizon bat, confesadu biar dozu; jo neban neure aita. Eguin dozu araguijazco pecatu bat neba, arreba, aide, escondu, castidadeco votua daucanagaz? Etzara osoro confesaduco esanagaz baccaric, eguin dot araguijco pecatu bat, esan bere biar dozu, onetarico bategaz izan dala, bada orduban araguijco pecatubagaz ostian dago beste bat, eta esaten ezpadozu, nogaz pecatu eguin dozun, eztozu salatuten bestia, eta alan esto zu eguiten confesinoe osua.

Confesadu bere biar dira pecatuben gueigarrijac, edo pecatuba aci, edo gucituden ditubezan albo, edo circunstancijac. Esateraco: ostu dozuz eun doblua; bada ondo confesadu gura bazara, etzara contentadu biar esanagaz ostu dot gauza nagusi, edo grave bat, esaizu ostu dituz eun doblua; bada emen pecatu barriric ezpadago bere, gustiz da andijagua, eta conveni da Confesoriac jaquitia celaco pecatuba dan, datorquijon penitencija, eta erremedijua ifinteco. Confesadu bere biar dira uste oqueragaz eguinico pecatubac. Esateraco: uste cenduban astegun baten jaijeguna zala, eta ceure naguitasun, edo alperquerijagaitic etzenduban meza enzun; guero jaquin cenduban etzala jaijeguna; au bere confesadu biar dozu, bada ezpazan bere berez pecatu astegun atan meza ez er-

zutia, zuc uste cenduban jaijeguna zala, eta uste oquerreco onegaz eguin cenduban beindunic bein pecatu mortala. Bardin da pecatu venial baño eztan gauzaren bat eguiten badozu, baderitzu pecatu mortal dala.

Confesoriac itanduten badeutzu euqui bacenduban le-nagoco confesinoietan, orain confesadu dozun leezco peccaturic, cembat bidar jausi cinian, ce pelleburutan egon cinian, leenago euqui bacenduban ecanduric, edo beste onelaco gauzaric, artetz artetz eranzun biar deutzazu. Esateraco. Dirautzazu Confesoriari, bost, edo sei bidar euqui dituzuzala ceure araguijan ucutute, edo tocamentu loijac. Itanduten deutzu Confesoriac euqui badozu leenagoco confesinoietan onelaco peccaturic; cembat dempora dan pecatu au eguiten avijau ciniala; cembat bidar jausi oi cinian aste, edo il bacotzian, ce penitencija ifini cutzuben; bete, edo cumplidu bacenduzan penitencijac; oni gustijoni, eta beste onelaco itaunai eranzun biar deutzezu artetz, ecer estaldu baga. Ascoc, eta ascoc onelaco gauzaric itanduten jaquenian eranzun oi dabe; ori gustijori confesaduric daucat, irago zan, cetaco orain barristetia? Ezta import. Confesoria zure arimaco osaguile, edo Medicuba da, eta itaune oneec eguiten baditu da ezagutute-co ce gach, edo enfermedade modu daucazun, eta jaquiteco ce osasunguei, edo medicina modu biar dozun, peccatubaren gachetic urteteco; orregaitic nai badozu benetan, Medicu onec osatu zaguizan, eranzun eguijozu artetz eguiten deutzuzan itaune gustijetara. Beinguan esateco. Eguizu examina conciencijacua lenic esanic daguan arduariagaz; esan eguizuz ceure pecatu gustijac gomuta dozuzana leguez; eranzun eguijozu Confesoriari eguiten deutzuzan itaunetara artetz, eta humiltasunic andijenagaz, eta orra nun eguingo dozun confesinoe osua.

Irugarrengo: Confesinoia izan biar da eguijazcua: au da, eguija esan biar da, eta confesadu biar da guzurric esan baga, ecerbere guichitu, ez gueitu baga; bada guzurren bat badino gauza nagusi, edo gravian, lenagoco pecatubac parcatu biarrian, beste barri bat eguingo dau; pecatu ciur, edo ciertubac confesadu biar dira, ciur, edo ciertubac leguez, edo ciertutzat; dudacuac dudacotzat, gustijac bere conciencijan daucazan moduban, bada jaquinic ciertu pecauren bat eguin dabela, badino dudan daguala eguin daben ala ez, pecatu mortal eguingo dau: bardin da dudan egonic eguin daben ala ez, ciertutzat coniesetan badau. Confesinoia ezta eguijazcua izango guichitu edo gueituten bada, eta alan badino dirian baño guichijago, edo gueijago diriala, ezta ondo confesaduco. Esateraco: Conciencia aratu, edo examinadu dozunian, atera dozu contu zorci bidar gorroto euqui deutzazula proximuari; bada salatu, edo acusetan bazara zaspí bidar euqui deutzazula, etzara ondo confesetan, eta bardin da badirautzazu Confesoriari bederatzi bidar euqui deutzazula. Ascoc, eta ascoc onetan utz eguin oi dabe. Uste dabee cztala ecer pecatu gueijago csatia, dinuela; oba da gueijago ifintia guichijago baño, eta alan contu ateraten badabe lau pecatu eguin ditubezala, dinue, bada ezpada esan daidan sei diriala. Au ezta confesinoe eguijazcua, ezta gauza; etzacaz bere pecatubac parcatuten. Beste gauzaric litzateque, ezpalequi ciut ciur cembat pecatu dirian, eta dudan balego amar, edo amabi dirian; orduban esan leique, eta esan bere biar dau, amar, edo amabi diriala.

Laugarrengo: confesinoia izan biar da tolez, eta achaquijsa baga. Izan biar da tolez baga; au da, argui argui, eta claru clarutan ifini biar deutzaz Confesoriari bere pecatu gustijac, euren anditasun gustija ezagutu al daijan

moduban, ibili baga contu luce, eta ipuin moducuae esaten, uste erasoteco Confesoriari eztala dan lezco andija bere pecatuba. Sinistu eguidazube, ascoren contu luce, inguru, eta conteetan ditubezan juan etorri luci ac eztira pecatuba escutadu, edo guichienez chiquitufeco asmubac baño. Ezarri deutzazu noribait maldicinoia? euqui deutzazu gorrotua? Confesadu eguizu bota dozun maldicinoe, edo euqui dozun gorrotua, ibili baric aurrera, eta atzera contetan ari eguin deutzazuzan mesediac, zugaz euqui daben esquet deunguia, eguin deutzun chachaque-rija, eta beste milla ipuin confesinoeraco biar eztirianac. Eguija da esan oi dabeela, uste dabeela jazo zan gustija esaten ezpadabe deritzela eztiriala ondo confesetan; baña ccin au sinistu leijue; gora bera oneec eztira beste gauzaric eurac arcen ditubezan asmubac baño, sinistu eraso albadaijue Confesoriari euren pecatuba, edo eztala mortala, edo bada bere ez ain andija, cein da lenenguan esan leiquian; eta alan contu luce oneen sustraija da, edo lotzia, edo sobervija.

Confesinoia izan biar da achauija baguia, au da, etzaco besteri ezarri biar bacotzac eguinico pecatuben eruba. Ascoren confesinoiac obeto dirudije pecatu eguin dabena ucatutia, pecatubac salatu, edo acusetia baño. Edo ceimbere pecaturaco dauque achauija, eta billatuten dabe nori erruba ezarri. Jauna maldicinoe, eta birao gustizasco bota deutzadaz senarrari, baña cer eguingo dot? ain da galduba, ain alperra, ain ardura guichicua, ce ezteutz ecetan bere lagundu gura. Ain da ordija ce cerbait irabasten badau, gustija da ardaoraco. Echera datorrenian gustija da aguiraquia, errijetia, eta venturaz maquilia, eta golpia. Nic aldaidan gustija etzat elduten neure umiai jaten emoteco, eta euren araguijac estalduteco. Onexec

gueijen estütuten nau, eta auxe gaitic maldicinoerle guei-  
jenac ezarten deutzadaz. Nie beste senar modu bat ba-  
neuca, eneuque neure vici gustijan maldicinoechu bat bo-  
taco. Betor onen senarra etzaco oni bere atzaquijarie fal-  
ta. Jauna, dino, maldicinoe asco bota ditudaz: baña, cer  
eguingo dot? Daucat emaste bat ain min lucecua, ain ir-  
rituba, ain genijo citalecua; ce ezteutz inosbere baquetan  
isten; beti beti dago oñoten. Tragochu bat edaten badot  
gustija da aguiraquia; puscachubat berandubago banua  
echera, gustija errebolbietan dau; egun gustijan biarrian  
egon arren deritza alperric naguala, aora datorquijon Gus-  
tija esaten deust, alperra, ordija, ardura baguia. Verba  
astun oneecaz arrabijau erasoten deutz, ce bestelan eli-  
tzateque inosbere nire aotic maldicinoe, ez biraoric en-  
zungo. Modu onetan edoceimbere pecaturi aurquituten  
deutze achauija, eta ez jaque falta nori erruba ezarri.  
Emastiac senarrari, senarrac emastiari, gurasuac semiai,  
semiac gurasuai, ugazabac otzeinai, eta otzeinac ugaza-  
bai, eta lagunac lagunai; izan bedi pecatuba vorondate  
oso, gurari beté, inoc tentadu baga eguina; bada ordu-  
ban bere aurquituco da nori erruba egotzi; eta besteric  
ecin bada esaten dabec, demoninuac engañadu ninduban.  
Baña achauija gusti oneec utsac dira; pecatu, edo gais-  
qui eguiten badogu gueuc nai dogulaco eguiten dogu, eta  
gueuc gura czpaguendu, ez senar, ez emaste, ez guraso,  
ez seme, ez lagun, ez ugazaba, ez demonino, ez infer-  
nucio gustijac asco izango litzatequez guri pecatu eraso-  
teco.

*Erasoguinzá.*

Beguiratucó balcbe Christinaubac noren aurrian da-  
gozan, nori dirautzezan euren pecatubac, ez litzatequez

ibilico achauija billa; ez leuquijue besteri egotzico erren pecatuben erruba. Jaquin biar dozube bada, Jaungoico berberaren onetan zagozala, eta onixe dirautzazuzala ceure pecatubac. Jaun onec dacuzaz zure vijotzeco basterric escutubenac, ecin ecer escutadu al cinaique bere beguijetatic, eta alan nai argui argui, edo claru claru esan daguizuzala, nai achauijacaz escutadu daguizuzala bardin dacuzaz Jaun onec. Cer aurreratuten dozu, bada, gora bera, eta achauija oneeaz? Ecerbercz. Venturaz engañadu cinaique Confesoria, sinistu eraso cinaijo ezta- la zure pecatuba dan baicen andija, edo izanic mortala ezta- la veniala baño; baño ecin engañadu cinaique gustija dacuzan Jaungoicua. Eguin cinaique, emon deizula Confesoriac, ondo confesaduco bacina emongo ez leuquezun absolvicinoia, edo ifini ezteizula ifinico leuzquezun penitencia gustija: Baña cer valijoco deutzu Confesoriari engañubagaz aterarico absolvicinoe onec, Jaungoicuae absolvietan czpazaitu? Leen baño deungago gueratuten zara, bada leengo pecatuben ganian beste bat ezarten dozu. Ce valijoco deutzu uste erasoten badeutzazu Confesoriari etzagozala peaturaco bide, edo ocasinioian, edo pelleburuban, eta orregaitic ezteizula aguindu urten daguizula, badacuz Jaungoicuae ceure vorondatez zagozala, eta urten nai eztozula? Zure asmu gusti onec, achauija gusti onec, absolvicinoe onec, eta Confesoriac pelleburutic urteten ez aguindute onec, pecatupetic atera biarrian barrurago sartuten zaitube; zure arimia osatu biarrian, gacha aci, eta gueituten deutzee.

Ai neure Christinaubac, bildur izateco da confesioera dacarzuzan inguru, eta achauija onec ifinten dituzubezala, pecatuben benetaco damuric, eta euretatic urtete- co benetaco gogo, edo gurariric eztauczubelaco. Be-



netaco damu bat eztabil achauquija billa; benetaco gorroto batec bertatic botaten dau beragandic gorroto deutzan gaucia. Guexoric bazagoz, eta medicubari dei eguiten ba-deutzazu, artez artez, eta claru esaten deutzazu ceure gach, edo guexuaren ganian daquizun gustija, eta inguru бага eranzuten deutzazu itanduten deutzun gustira. Nai badozu benetan osatu zaguizan, gura bere biar dozu uts eguin, eta oquerreco osasunguei, edo medicinac emon ezteizuzan. Nai badozu uts eztaijan, claru claru esan biar dozu ceure guexuaren asijera, sustrai, eta daquizun gustija, eta artez, eta argui eranzun itanduten deutzun gustira; bestelan ecin eguijagaz esan cinaique gura dozula medicubac osatu zaguizan. Auxe berau eguin biar dozu Confesoriagaz bere: bera da zure arimaco osaguile edo medicuba. Beragana bazatoz, da zure arimaco guexua osatu deizun. Onetaraco emon biar deutzuz zure gachari dagoquijozan osasunguei, edo medicinac, eta aguindu cer eguin biar dozun, ez bacarric osatuteco, baita bere guexo ostian osasuna jaoteco; eta au ecin leique, zuc claru claru arguitara ateraten ezpadituzuz ceure barruco gach, eta peaturic escutubenac. Au ez eguinic gustiz da erraz oquerreco medicinac emotia, ceinzuc gachac quendu biarian gueituco leuquezan. Orregaitic estaldu, edo guichituten badituzuz ceure pecatubac, ecin esan cinaique nai dozula arimaco osasuna. Confesadu eguizuz, bada, ceure pecatu gustijac bapere ichi бага, lotza бага, bildur бага, inguru бага, achauquija бага, ezaguturic Confesoriac, esan deizun, eta iracatzi deizun cer eguin biar dozun, modu onetan parcatu daquizuzan gustijac, eta biurtu etzaitzezan ostera curetara. Modu onetan izango da ona zure confesinoia, quenduco dira ez bacarric pecatubac, baita peaturaco vide, eta pelleburubac bere; vicico zara

Jaungoicuaren adisquidetasunian, eta ibilirie ceruraco bide artecetatic, elduco zara artutera Jaungoicuac benetaco penitencija eguiten dabenezat daucan sariya. Amen.

### *XXI. VERBALDIYA.*

*Confesoriac aguindurico penitencija bete, edo cumpletia.*

**C**onfesinoe ona eguiteco, bostgarren biar dan gaucia da, Confesoriac aguinduten dabene penitencija cumpletia. Penitencijaren alde, edo parte oni dei eguiten jaca paguba, edo satisfacinoia, beragaz paguetan jacalaco Jaungoicuari, guizonac pecatu eguin evanian artu evan zorra. Au celan dan ezagututeco jaquin biar dogu, pecatu mortal bacochian dagozala gauza bi; bata da erruba, edo culpa, orbana, edo manchia, ceingaitic daguan condaduric peccatarija infernucosubetara. Bestia da pecatu au gaitic, edo culpa, nai orban au gaitic, peccatarijac mereci izan dabene betico neque, edo suba. Confesinoe ondo eguinac quencen deutza orban, edo mancha au, eta eguiten dau Jaungoicuaren arerijotic bere adisquide; bania ezteutza beti parcatuten erru, culpa, edo orban au gaitic mereci evan pena gustija; eguiten dabena da, ezteila izan neque au beti beticua infernuban, ezpada demporaren battecua. Pena onen zorra pagadu biarco dau, edo mundu onetan vici dan artian obra onac eguinagaz, edo Purgatorijuan. Irudi bat ifinico deutzubet, au obeto aitu al da guizuben.

Dauca erregue batec dirutegui, edo tesoru andi bat. Ostuten deutzazu erregue oni ondasun onen zati andi bat, eta galcen dozu gustija ceure guestaquerijetan. Artuten

zaiuz preso, eta condenetan zaituz urcamendi baten viticia galcera lotzaririe andijenian. Bildurturic gustijori sentencija onegaz, damututen jatzu lapurretan eguina; escatuten deutzazu erregueri arren parcatu deizula ceure erru, edo culpia. Emoten deutzazu verbia, etzariala osterabiurtuco beste aibeste lapurreta eguitera, eta eguingo dozula aleguina, quendu deutzazun diruba paguetaco. Erruquituric erregue dirautzu; ondo dago, nic parcatuten deutzut ceure erru, edo culpa gustija, etzara ilgo, etzara urcamendi baten icusico, neure adisquide zara; baña ecin parcatu neiquezu quendu deutzazun ondasuna. Zor au paguetaco emoten deutzut sei, zorci, edo amar urteco epia. Orduraco paguetan ezpadozu asquenengo zuricoraino, carcela ilun, atsitu, eta gustizco nequetsu baten egon biarco zara burdinaz josirie, gosiac ilic, egarriz itoten, eta minic gogorrenen artian, eta eztozu andic urtengo, edo quendu dozun ondasunari dagoquijon pena gustija irago artian, edo norbaitec zugaitic zor gustija pagadu artian. Auxe berau jazoten da zugaz, eta Jaungoicugaz bere confesetan zarianian: parcatuten deutzu Jaunac pecatubaren erru, edo culpia, quencen dau zure contra infenuraco emonic eguan sentencija; baña ezteutzu parcatuten pecatubari dagoquijon zorra, gusti gustija pagadu artian, edo mundu onetan eguitade, edo obra onacaz, edo bestian Purgatorijoco neque, eta su artian.

Orain bada, Confesoriac emonico penitencija bete, edo cumplidubagaz, paguetan dozu zor au, edo guichinez bere zati, edo parteren bat, eta orregaitic penitencija oni dei eguiten jaca paguba, edo satisfacinoia. Edoceimbere eguitade, edo obra onagaz pagadu guinaique zor au, baña alambere obcto, eta gueijago pagaduco dogu Confesorien aguinduz eguinagaz. Esateraco: Errezadubagaz.

errosarijo bat, baru eguinagaz, edo limosna emonagaz paguetan da Jaunari deutzagun zor au, edo bere zatiren bat, baña gustiz gueijago pagaduco dogu, Errosarijo au erreccetan badogu, baru au eguiten badogu, edo limosna au emoten badogu, Confesoriac penitencijatzat ifinten deuzcunian; bada Confesorien aguinduz eguiten dituguzanian, Penitencijaco Sacramentuben alde, edo parte dira, eta Sacramentubetan ifini evana leguez Jesu Christoc bere merecimentuben ondasuntegui, edo tesoruba, orduban artuten dogu obra oneecaz gracia ugarijagua, eta emoten deutzagu Jaunari gueure zorren pagu andijagua. Ain dira andijac pecatu eguinagaz gure ganian artuten dituguzan zorrac, ain valijo guichicuac gure eguitade, edo obrarie andijenac, ce escatuco baleuzcu Jaungoicuac gogor gogorrian gustijen paguba, ecin gue inundie bere biur taal guinaijo gusti gustija oso osuan. Jesu Christoc bacarrie pagadu eutzan modu onetan bere aitari orduraño eguin cirian, eta guero mundubac dirauban artian eguingo dirian pecatu gustijacgaitic; eta alan gue penitencijagaz paguetan badeutzagu Jaungoicuari deutzagun zorra, da Jesu Christoren merecimentubetatic arcen dogulaco. Orregaitic, cembat eta humiltasun andijaguagaz, cembat eta damu benetacuagaz, cembat eta gogarte, edo proposito senduaguagaz confesetan garian, eta cembat eta devocinoe gueijagogaz bete daigun, Confesoriac emonico penitencija; aibat eta gueijago arcen dogu Jesu Christoren merecimentubetatic, eta aibat zor gueijago paguetan deutzagu Jaungoicuari.

Baña nai badozu, penitencija onegaz pagadu dedin pecatuben zorra, graciañan aurquitu biar zara bete, edo cumplietan dozun demporan; bada orduban pecatu mortalian bazagoz, cumpliduco badozu bere Confesorien

aguinduba, eta pecatu barriric eguingo ezpadozu bere, eztozu ecer merecico, ezteutzazu Jaungoicuari pecatuben zorric pagaduco. Orregaitic, gauzaric oneena da, aimbat lasterren, eta gracijan zagozan artian penitencija cum-  
 plietia, eta venturaz jausi bazara pecatuban, eguizu le-  
 nago acto contricinoeco bat. Emetic ezagutuco dozube  
 pecatuba parcatuteco eztañá biar Confesoriac emonico pe-  
 nitencija bete, edo cumplietia, bada au eguin baño leena-  
 go ija dago parcaturic, damu, eta propositu benetacua-  
 gaz confesadu, eta absolvicinoia artu bazan; baño peca-  
 tuba parcatuco bada, euqui biar da confesetan danian  
 vorondate, edo gogo benetacua, Confesoriac ifini daiqui-  
 jan penitencija cumplietaco; eta alan bazuaz confesetara  
 vorondate, edo gogo benetaco onegaz, parcatu zan pe-  
 catuba, guero aldaturic zure vorondatia, bete, edo cum-  
 plietan ezpadozu bere; baño eguingo dozu pecatu mortal  
 barri bat, cein confesadu biarco dozun urrengo confesi-  
 noian. Confesoriac emoten daben penitencija bada peca-  
 tubai dagoquijona, ecin artu baga ichi leique, eguin al-  
 badedi; eta ecin badedi, esan biar jaca Confesoriari, bes-  
 te bat ifini daijan. Esateraco. Deritza Confesoriari, zu  
 aberatz, eta ondasun andijen jauve zariala; eta orregaitic  
 aguinduten deutzu, emon daguizula limosna on bat; ba-  
 ña zuc ozta ozta daucazu ceuretzat, eta ceurientzat biar  
 dozuna; esan eijozu orduban ecin cinaiquiala limosna ori  
 emon, eta ifini deizula orren ordian beste penitencija bat.  
 Penitencija bete, edo cumplidu biar da aguinduten dan  
 demporan, eta moduban; eta demporaric izentetan ezpa-  
 dau, aimbat lasterren.

Gauza bitaraco ifinten da penitencija, dino Trentoco  
 Batzar, edo Concilijuac; (1) bata, leen eguinico pecatu-

(1) Sesio 14 cap. 8,

bac castigadu, eta paguetaco; bestia, osterara euretara biurtutia galazoteco, eta edoceimbere penitencijatan beguiratu biar dira gauza bi oneec. Alambere; batzuc lenen, edo principalmente ifinten dira leengo pecatuben castiguraco, eta beste batzuc, euretara osterara biurtutia galazoteco. Orainguino esan doguna, lenengo moduco penitencijen gannian izan da. Oran esango dogu bigarren moducuen gannian. Onei dei eguiten jacue osaguei, edo medicinalac. Oneetatic batzuc ain dira biar biarreco, edo preminacuac, ce ecin Confesoriac aguindu baga ichi leiquez, ez confesetan danac bere artu, edo jaon baga. Esateraco. Daucazu ceure echian araco emacume, ceinegaz pecatu eguiten dozun, nos nai echetic bota al daizula; ecin Confesoriac ichi leiquezu echian euquiten, ezta zuc bere euqui cinaique. Dacuz Confesoriac jocuan ifinten zarian gustijan, zagozala birao, maldicinoe, eta juramentu urtica; gurata gura ez aguindu biar deutzu, ichi daguizula jocua, eta zuc bere obediu biar deutzazu. Dacuz Confesoriac eztituzuzala zorrac pagadu nai, euqui arren cegaz; ecin ichi leiquezu aguindu baga, pagadu daguizuzala, ezta zuc, ez eguin baga bere esana. Dacuz Confesoriac, urlija, edo urlijagaz batuten zarian bacotzian, daucazuzala alcarragaz verba, ucutute, edo beste loiquerijac; ecin ichi leiquezu penitencijatzat ifini baga, etzaitezala alcarregaz batu. Beinguan gustija esaterren: jaquinic, edo ezaguturic Confesoriac, cerbait dala zubenzat pecatuban jausteco pelleburu, edo ocasinoia, gurata gura ez aguindu biar deutzu ichi daguizula, eta ichiten ezpadozu, ecin absolvidu cinaiquez, ecin curutzeric emon leiquezu. Alperric esango dozu: Jauna emon beguit beste edoceimbere penitencija dan gogorrena, bada au ez aguintutia izango litzateque zu pelleburu, eta mugaldi, edo ocasinoian is-

tia, cein eztan beste gauzaric ezpada peccatu barruban istia. Orregaitic baceunca peccatura ez biurtuteco vorondate benetacua; etzeunque biar Confesoriaren aguin duric pelleburu orretatic urteteco, ceuc ceurez urtengo ceunque.

Beste penitencija modu batzuc dagoz, ceinzuc ain biar biarrecuac ezpadira bere, gustiz da conveni, ciatz ciatz eguitia peccarijac negargarrizco peccatutic urten nai badau. Onelacuac ifinten oi dira, peccatuben ecandu citala dauquenai, euren pelleburuba quenceco escubide baga. Esateraco; mutil, guizon, edo emacume batec dauca ecandu citala, bere araguijagaz peccatu eguiteco; ecandu citala daucan onec, ecin urrindu, alderatu, edo apartadu leique beragandic, daucan pelleburuba; bada au dago beragaz bat eguini daucan araguijan, eta alan ez izanic ain biar biarrecuac oni ifinten jacazan penitencijac, aldatu, edo guichitu leijoz Confesoriac, baita bere escatu leijo confesetan danac, beste batzubetara aldatu deijozala. Ara obeto aitu daguizun. Deritza Confesoriari, mutil onen ecanduba quenceco moduric onena dala iru bidar baru eguitia: aguin duten deutza bada penitencija au, eta asiric baru eguiten, dacuz ecin aurrera irago leitequiala, edo gorputz gustiz argala daucalaco, edo necazalia izanic ecin biarric eguin leiquialaco, edo beste gauzaren bat gaitic; onec escatu leijo Confesoriari aldatu deijola, eta Confesoriac emon leijo beste dagoquijola deritzan penitencija bat. Penitencija osaguei, edo medicinal onec Confesoriac aguin duten deutzubezan moduban bete, edo cunplidu biar dituzubez, ecerbere guichitu, edo aldatu baga; bada izanic zuben vici moduba sucenduteco, eta infernuco bide oquerretatic ceruco arteccatara aterateco, arduraric andijena ifini biar dozube, humiltasun, eta devocinoeric andijenagaz Confesoriaren aguin duba eguitian;

bada au eguiten badozube, eztabe asco iraungo zuben ecandu citalac.

— Emenche neure Christinaubac, emon gura deutzubet itundute, edo conseju osasunsu, baita bere erraz bat. Andija da benetan pecatu bacoehian gueure ganian arcen dogun zorra, baña modu gustiz asco daucaguz, zor au paguetaco. Ez bacarric pagadu guinaíjox Jaunari Confessoriac ifinirico penitencijacaz, baita bere beste edoceim-bere eguitade, edo obra onacaz, celacuac dirian oracinoe, baru, limosna, Meza enzute, Errosarijo, Calvarijo, Aita guria, Ave Marija, eta beste obra on gustijac. Ez bacarric onecc arcen dituz Jaunac deutzagun zorren pagu, baita bere bacoehac bere vici modu, edo estaduco obligacinoiac beteteco iragoten dituzan neque, lan, izerdi, biar, premia, estura, eta naibague gustijac. Emenche bai ichi euzcuzala Jaunac ondasuntegui, edo tosuru miragarrijac cegaz pagadu dentzaguzan zorrac! Baña, ce errazac? Ceure arazu, ceure cereguin, ceure eheco ardurac, ceure biar, edo obligacinoiac bapere ichi, ez astu baga, batu cinaiquez arinaco ondasun andijac, cegaz pagadu Jaunari zor deutzazuna. Zara esconduba? Eguizu escondu bati dagoquijon gustija, Jaungoicuac emon eutzun estadu orretaco obligacinoiac beteteco gogo, vorondate, edo intencinoiagaz. Opa eijozuz Jaunari onetaraco irago biar dirian nequiac, nai dala eheco arduria equiteco biar dirianac; nai dala senar, edo emastiagaz baquian vici izateco, nai dala semiac ondo aciteco, nai dala eurenzat jan, edan, oña, eta soña irabasteco, nai dala eurai vici moduben bat emon, edo irabasteco, orra nun aurquituco dozun cegaz pagadu Jaunari ceure zorrac. Otsein, edo crijadu zara? Obediu eijezu nagusi, edo ugazabai Jaungoicuac berac agunduco baleutzu leguez;



eguiu zure vici modu, edo estadubari dagoquijona ceure obligacinoa cumplidu, edo beteteco gogo, edo intencinoiagaz; izquini, edo ofrecidu eguijozuz onetaraco Jaunari eguiten dozun biar gustija, eta iragoten dituzuzan nequiac; orra ondasuntegui, edo tesoru ugari bat cegaz pagadu ceure pecatuben zorrac. Necazalia zara? Araco soluan zagozarian egusqui berotan quisquilduten achurra, laijac, edo escubaria escuban dozula, alde gustijetatic izerdija darijazula, irago eguizuz lan onec ceure obligacinoa beteteco biar dirialaco, ofrecidu eguijozuz Jaunari, orra nun daucazun cegaz pagadu ceure pecatuben zorrac. Onec gaitic dinodana dinot beste edoceimbere ofijoco gaitic bere.

Ain da andija Jaungoicuaren guganaco amodijo, eta onguria, ce ez bacarric arcen dau gure pecatuben zor orde Confesoriac emonico penitencijac, ez bacarric gueure vorondatez, edo guraz eguinico obra onac, ez bacarric bacochoac bere vici modu, edo estaduban iragoten dituzan lanac, baita bere berac pecatuben castigu bialduten deuzcuzan gach, eta nequiac; eta alan paciencijan badarua-guz berac bere aserriagaz bialduten deuzcuzan gach, peste, edo enfermedade, guerra, ecach, labore falta, gosse, pobreza, ondasun galce, eguiten deuzcubezan lapur-reta, ondasun, edo diru quence, edo Jaunac bialdu al leiqueguzan gach gustijac, curacaz pagaduco deutzaguz gure Jaungoicuari, deutzaguzan zorrac. Au ondo beguiratuco baguendu, ez litzatequez icusico aimbeste errijeta, aimbeste aserre, aimbeste gorroto, eta aimbeste embidija, ez echeetan, ez errijetan; bacochoac ezagutueo leuque gach, eta nequeetan dagan ondasun ugarija, eta atzacaberit artu biarrian poztu, eta alegraduco guinaitequez.

*Erasoguinza.*

Baña ce atzera gagozan, Jaunari zor deutzaguna paguetaco! ce astunac pecatuben bidiaic ichiric cerucuetan zarceco! Cembat, eta cembat dacuzcuz ez batera, ez bestera cirquinic eraso leijuela? Etorrico da guraso bat confesetara, salatu, edo acusaduco da maldicinoc asco, eta icaragarrijac ezarri deutzeezala seme, alaba, eta beste echeuai. Itandu bequijo oni, cer eguin daben ecandu auquenceco? Eta aurquituco da, eztabela ecerbere eguin. Esan bequijo; eguin daben Confesoriac aguindu eutzana? Eta icusico da ez evala eguin. Aguindu beutzan maldicinoc, birao, edo juramentu eiquian bacotzian lurrari mun eguijola, edo Ave Marija bat bere semien aurrian errezadu eguijala, eztau ecerbere eguin; eta itanduric cegaitic? Eranzuten dau, lotza izan ninzan aimbesteren aurrian eguiten. Dacuz Confesoriac bestia blasfemija, birao, aserre artian vici bada dala tabernara, edo jocora doialaco; aguinduten deutza, ezteila batera, ez bestera juan; baña eztau berac jaramonic eguiten, eta biurtuten da bere ecandubetara. Itandu bequijo, cegaitic ausi daben Confesoriaren aguinduba? Eranzungo dau, adisquidiac eruan ninduben; eninzan juan jocatuteco ustiagaz; uste neban, enebala birao, edo blasfemijaric ezarrico, baña nai ecie leguez urteten oi eusten. Ezagututen dau Confesoriac, bestia ordituten bada, araguijazco pecatuban jausten bada, edo bere ecandu citalac aurrera baduaz, dala urteric urtera baño confesetan eztalaco; aguinduten deutza confesadu deila ila beteric ila betera, eztau jaramonic eguiten. Itandu bequijo, cegaitic jaon eztaben aguindu jaccana? Eranzungo dau, luzatu eguin jat, beti nenguan con-

fesetaco, etzatan gogua falta, baña beti atzeratuten jatan. Bide bagaco achaquija onecaz eztabe eguin gura penitencija sacramental; eta alan euren pecatu, euren oitura citalac guichitu biarrian, gueitubagaz duaz: egunian baño egunian dira ordijago, egunian baño egunian loijago, egunian baño egunian biraocarijago.

Icusirie gure Jaungoico maitiac, eztabeela artu gura guizonac euren pecatubac quenceco erremedijo ain bigun, ain erraza; atera nai leuquez daroien bide onetatic castigu, eta azote gogorruguacaz. Bialduten dau labore urritasuna, bialduten dau gosia, pobrecia, eta billoxtasuna, bialduten dau guerria, gacha, edo pestia; bialduten dituz nequia, atzacabia, naibagua, eta lanac, modu onetan eruan aldaizan gogorrian, bigunian eguin nai eztaben penitencijara; baña azote, eta zauri oneec bere eztira asco guizon ichubac pecatubaren lo sorrotic iratzartuteco. Eguija da, gach oneec estututen gaitubezarian esan oi dogula; au Jaungoicuaren castiguba da, au gueure pecatubetatic dator, baña emenche gueratuten da gure ezaue-  
ra gustija. Eztogu ecer eguin gura gach oneen sustraija, een dan pecatuba, quenceco; eztogu ecer eguin gura Jaunaren aserria bigunduteco; eztogu ecer eguin gura aita cerucuari escuban daucan azote, edo cigorra quenceco. Baña cer dīnot? Gueure pecatuben penitencija eguin biarrian, Jaunari parca escatu biarrian, aurrera daruaguz gueure pecatubac, egunian baño egunian dira andijaguac: barriren barri aserratuten dogu ceruco Aita, eta orregaitie gure gach, eta nequiac guichitu biarrian, beti duaz gueitubagaz. Cegaitic? Gu gach onecaz humildu biarrian, eta paciencija andi bategaz gueure pecatuben ordian itago biarrian, gueijago, eta gueijago irritu, eta aserratuten garialaco eucacaz. Eztaquit, cer eguin daiquian Jaungoi-

cuac zubez. Onian, eta biguntasunagaz urrindu gura bazaituz pecatubetatic, ezteutzazube jaramonic eguiten; Confesorien bitartez agunduten deutzun erremedijoric eztozube artu nai; aurrera daruazube ceuben guestaquerija. Gogorrian artu gura bazaitubez, gustija da negarra, cispuruba, zotina, eta aijariya; baña emendadu baga; eta alan, ez onian, ez gachian eruan al zaitube Jaunac beragana. Etzaiteze, Christinaubac, zoruac izan, pagadu eijozubez Jaunari deutzazubezan zorrac ciatz ciatz, eta arduraric andijenagaz; artu eguizubez Confesoriac agundurico penitencijac, ez eizubez astun, eta gogorzat euiqui: bada balira bere, gozo eguin biar jatzubez, jaquinic euracaz irabasten dozubela ceruco erreinuba. Amen.

*endu h  
gai***XXII. VERBALDIYA.***Parcacinoe, edo Indulgencijen ganian.*

**J**aungoicuari gueure pecatubac gaitic deutzaguzan zorrac pagadu guinaijoz, ez bacarric Confesoriac emonico penitencijagaz, ez bacarric gueure vorondatez eguinico obra onacaz, ez bacarric bere ontasunac bialduten deuzcuzan gach, eta nequiac paciencijagaz eruan, eta gueure pecatuben ordian bere magestadiari isquinijagaz; baita Indulgencijacaz bere. Da Indulgencija gueure pecatubac gaitic irago biar gueunquian, edo eguin biar gueunquian penitencija parcatutia, edo pecatubacgaitic Jaungoicuari deutzagun zorra Elexiaren ondasuntegui, edo tesorutic paguetia. Esanic dago leenagotic, eguiten dogun pecatu bacotzian arcen dogula gueure ganian zor bat, cein pagadu biarco deutzagun Jaunari, edo mundu onetan eguitade, eta obra onacaz, edo bestian Purgatorijoco neque,

eta su icaragarriscuen artian, ain modutan ce ecin ceruban sartu guinaitequez, zor gusti au bete betian asquenengo zuricoraino pagadu artian. Esatia bada indulgencijsa daguala, da esatia, Elexa santubaren dirutegui, ondasuntegui, edo tesorutic paguetan dogula, mundu onetan, edo Purgatorijuan pagadu biarco guenquian zorra.

Au celan dan obeto jaquiteco, sinistu biar dozube Elexa Santubac daucazala neurri baga, eta asquen bagaco ondasunac. Ondasun onecc dira Jesu Christo gure Jaunac bere vicitza, pasinoe, erijotza, eta odolagaz irabaci cituban mercedimentu gustijac, eta onecc neurri, eta caburic eztauquena leguez, eta mundu onetan eguin al leitequezan pecatu gustijac euracaz pagadu arren, amaitu, edo acabadu ecin leitequezana leguez, alainche Elexiaren tesoru au da cabu baguia, eta mundu onetaco guizon gustijac eguin al leiquezan pecatu gustijen zorrac pagadu arren, ez litzateque ez bacarric amaitu, edo acabaduco, ezta guichituco bere. Onezaz ostian, dagoz ondasun, edo tesoru onetan Ama Virgina, eta beste Santu gustijen mercedimentubac bere. Tesoru onen guilzac emon eutzazan Jesu Christoc Aita Santu Erromacuari, baita bere, Obispo Jaunai. Orain bada, esatia Indulgencijsa daguala, edo irabesten dala, da adi erasotia, Aita Santubac, edo Obispuac idigui dabeela Elexiaren ondasun au, eta eguinagaz eurac aguinduten dabeena, artuten dogula, eurac autortu, edo concedietan daben beste ondasun, cegaz pagadu Jaunari deutzagun zorra. Irudi bategaz argui, edo clarubago azaldu, edo esplicaduco deutzubet.

Contu eguizube, erri bateco auzuac deutzeela erregeri zor andi bat. Erreguec dirautze, zor gustija pagadu biarco deutzazube lau, bost, edo sei urte barru, eta pagadu ezteidana dempora onetan, carcela ilun, eta atsitu

baten egon biarco dau nequeric andijenen artian. Auzo oneec eztaucque cegaz pagadu zor au; curen ondasun gustijac emonic bere, eztira onetara elduten. Dator guizon gustiz aberatz, eta dirutsu bat erri onetara, eta erruquituric dacuzazalaco auzo areec euqui baga cegaz pagadu euren zorra, dirautze: Eztaucanac cegaz pagadu erregueri deutzan zorra, betor neure echera, eta artu begui neure dirubetatic biar daben gustija: onetaraco agnindu deutzat neure ordeco, edo maijordomuari, emon deijola bacotzari ondo deritzana. Orra celan auzo oneec pagadu al leijuezan erregueri deutzezan zorrac bestec irabacirico ondasunacaz. Auxe beran jazoten da Indulgencijacaz. Jaungoico ceruco erreguec dirauzeu mundu onetan vici garianoi; pagadu beguit bacotzac deutzan zor gustija lau, bost, edo sei urte barru, au da, vicitziac dirautzan artian; bada orduraco pagadu ezpadai, purgatorijoco presondeguian egon biarco dau, deutzan zorrari dagoquijon neque, edo pena gustija irago artian. Ain da esquerguia guc gueure pecatubacaz artu dogun zorra, eta bestetic, ain gara pobriac, ain argalac, ce eztaucagu cegaz pagadu zor au. Dator Jesu Christo mundura, irabasten dituz bere vici, pasinoe, erijotza, eta odolagaz merecimentuben ondasun ain ugarijac, ce dira duin paguetaco ez bacarric jaijo, eta jaijoco dirian guizon gustijac eguin al leijezan zorrac, baita bere beste milla munduco guizoneenac balira bere. Ondasun gusti oneec dagoz Elexa Santuban, eta onecaz batera beste Santugustijeenac. Dirautzu bada Jesussec: nai badozuz ceruco Jaunari deutzazuzan zorrac pagadu, zuaz nire echera, cein dan Elexia, eguizu nire ordeco, edo Vicarijuac dirautzuna, eta onegaz emongo deutzu berac nire ondasunetatic onetaraco biar dozuna, bada berari deutzat emonic escubide gustija. Orra modu-

ben baten azaldu, edo esplicaduric cer dan Indulgencija.

Modu bitacua da Indulgencija; bata betia, osua, edo plenarija: bestia partearra, edo parciala. Indulgencija betia da, batec eguin dituzan pecatu gustijai dagoquijon pena gustija parcatutia, edo Jaungoicuari pecatubacgaitic deutzan zor gustija bete betian Elexiaren ondasun, edo tesorutic paguetia, edo pagadu al izatia. Ara obeto azaldu, edo espliquetarren. Indulgencija plenarija da, idiguitia Elexiac beragan daucan Jesu Christo, eta Santuben merecimentuben ondasuncada, edo tesoruba, eta emotia Christinaubari escubidia, Jaunari euracaz paguetaco deutzan zor gustija bete betian: Partearra, edo parciala da, ceinegaz eztan parcatuten pecatu gustijai dagoquijuen pena, edo zorra; ezpada bere zati bat. Esateraco: autortu, edo concedietan da berroquei, edo laroguei eguneco Indulgencija, Aita guria, eta Ave Marija bat errecetarren Jesu Christo, edo Ama Virginiaren irudi, edo imagina baten aurrian: ezta onegaz parcatuten, edo etzaco Jaunari paguetan jacon zor gustija, ezpada autortu, edo concedietan dan berroquei, laroguei, edo eun egunecua. Ezagutu gura badozube, cer esan nai daben Indulgencija aibat egun, edo urteco onec; jaquin biar dozube, ifiniric eucala anchina Elexiac, Christinaubac eguin biarco even penitencija pecatu bacotzagaitic, paguetaco Jaunari euren bitartez eguinico zorra: Esateraco: Inori guzurrezco juramentu erasoten eutzanari aguinuten eutzan egujala berroquei egunian ogui eta urezco baru, eta egon ceitjala penitencijan zaspian. Bere gurasuai maldicinoeric botaten deutzanac, cinuan, eguingo dau berroquei eguneco penitencija, ogui eta ura baño beste gauzaric jan, ez edan baga. Orain bada: esatia berroquei eguneco Indulgencija irabasten dala Aita gure bat errezadu

bagaz Jesu Christoren aurrian, da esatia parcatuten jaca-  
cala, anchina berrogei egunian eginico penitencijagaz  
parcatuten jaca beste peatubeen zorra.

Esan arren Indulgencia bete, edo plenarija dala pe-  
catu gustijai dagoquijen pena, edo zorra paguetan da-  
bena, edo cegaz parcatuten dan mercei dan neque, edo  
penia, sarri jazo leiteque, edo gueijenetan jazo oi da, ez  
parcatutia pena gustija; ez Indulgencijaren faltaz, ez ez-  
tagualaco Elexaco ondasunetan zor gustija parcatuteco  
duin, ez aurquituten ezta laco onetaraco biar dan escubi-  
dia; ezpada Indulgencia irabasten dabenac eztaucalaco  
bere peatu gustijen damu biar leuquiana, edo ezta laco  
irabasten biar dan devocinoe, eta humiltasunagaz, edo  
beste falta, edo utzuneren batgaitic; eta alan irabasten  
ezpada, edo paguetan ezpada Indulgencia plenarijagaz  
peatubagaitic irago biar dan pena gustija, ezta onoc ez-  
taucalaco, edo beronegan eztagualaco onetaraco biar da-  
na, ezpada irabastera doiana ezta laco elcen biar dan pres-  
tatasun, edo disposicioiagaz. Dago iturri ugari inosbere  
liortuten ezta bat; edonoc artu leique biar daben ur gus-  
tija: zu bazuaz iturri onetara, eta ezpadacarzu echian  
biar dozun ur gustija, eztauca erruric iturrijac, ezpada  
ccuc; edo eruan eztozulaco biar dozun ur gustija cabie-  
tan daben oncija, edo bete gura eztozulaco daruazun pi-  
charra. Auxe berberau jazoten da Indulgencia bete, oso,  
edo plenarijagaz; elduten zara irabastera, eta eztozu ar-  
tuten ceure peatuben penia parcatuteco biar dozun gra-  
cija gustija; ez berari ezta rijolaco, zuc, eta mundu gus-  
tijac biar daben baño bere Jesu Christoren mercedimentu-  
ben ondasun gueijago, ezpada zuc ezta ruazulaco biar dan  
prestaera, edo disposicioia.

Jaquin naico dozu celan eldu biar zarian, ce presta-



tasun eruan biar dozun, edo cer eguin biar dozun Indulgencia irabasteco. Enzuzu bada. Lenengo: egon biar zara gracijan, bada pecatu mortalian daguanac ecin inundi bere Indulgencijaric irabaci leique; alperric eguingo dituz arduraric andijenagaz aguinduten dirian gauza gustijac; bada lenago da erruba, edo culpa quenceia, berrari dagoquijon penia parcatutia baño. Emetic ezagutuco dozube, Indulgencijac ecin quendu leijeela pecatubaren orban, mancha, edo culpa, eta alan pecatu mortalian daguanac, eguiten badituz bere, Indulgencia irabasteco aleguin gustijac, pecatu mortalian gueratuco da confesetan ezpada, edo acto contricinoeco bat eguiten ezpadau. Bigarrengo: eguin biar dau, Indulgencia irabasteco aguinduten dan gustija, aguinduten dan moduban ciatz ciatz ecerbere ichi baga. Esaten dau confesadu, eta comulgadu deila? Ezta asco Indulgencia irabasteco acto contricinoeco bat eguitia; bada au ezta confesetia, eta gracijan egon arren bere, confesetan ezpada eztau Indulgencia irabacico, beste aguindurico gustija eguiten badau bere. Irugarrengo: gorroto euqui biar deutze pecatu gustijai, ez bacarric mortelai, baita venialai bere, eta euqui gustijen damuba; bada gordetan badau venialen batzuberaco echutasun, edo inclinacinoia, etzaco parcatueo onei dagoquijuen penia, edo zorra. Laugarrengo: euqui biar dau, Jaunari deutzan zorra paguetaco gurari benetaco bat.

Indulgencijac irabaci leitequez, edo bacochoac bereztat, edo besterenzat. Baña ecin edoceimbere Indulgencia irabaci leiteque besterenzat, ezpada autortu, edo coneedietan danian escubidia onetaraco, eta Indulgencia emon, edo ifinten daben Aita Santubae badino irabaci leitequiala beste il, edo vicijacgaitic. Orduban irabaci leiteque nai bada viciric daguanen bat gaitic; baña ari

Indulgencijac valijo deijon, egon biar da gracijan; bada pecatu mortalian daguanac ecin pagadu leiquiana leguez bere zorra pecatuban daguan artian, alainche ecin bestec bere pagadu leique beragaitic. Irabaci leiteque ilac gaitic bere araco autortu, edo concedietan danian, eurenzat apliquetaco escubidia, eta onei purgatorijuan badagoz, valijoco deutze andic urten, eta cerura juateco; baña ecin irabaci leiteque ceruban daguanenzat, biar eztabelaco; ez infernuban daguanenzat, an erremedijoric eztagualaco. Indulgencija betia bacarric autortu, edo emon leique Aita Santu Erromacuac, baita bere beste vici, edo Purgatorijoco arimenzat irabasteco escubidia. Obispo Jaunac bacarric emon leije, berroguai egunecua, baña ez Christinau gustijenzat, ezpada bere aguindura dagozanenzat, edo bere Obispadu barruban. Besteren batzue bere emon leijez Indulgencijac, emoten badeutze Aita Santubac escubidia onetaraco.

Enaz ni duin, adi erasoteco, Christinau batec irabaci al leiquezan Indulgencija gustijac, alan bete, edo plenarijac, cein da partear, edo parcialac. Bacarric esan neiquezube, egunian egunian irabaci al guinaiquezala gustizasco. Errosarijua, Ave Marijetacuac, estacinoia, edo Calvarijua errecetia gaitic, Altarac visitetia gaitic, eta besté egunian egunian eguin oi dituguzan gauza onasco gaitic, dagoz Indulgencija ugarijac. Orregaitic gauzaric oneena da, goxian goxian ifintia gogo, edo intencinoia, egun atan eguin daiquezan obra on gustijac gaitic dagozan Indulgencija gustijac irabasteco. Onezaz ostian, egunic gueijenetan dago Indulgencija betia, edo plenarija, Santisimoco estacinoia errebadubagaz, edo bost altarac visitadubagaz, eta alan gustiz da osasunsuba egun gustijetan Santisimoco estacinoia errebadu, eta bost altarac

visitetia. Ascoc, eta ascoc ecingo dabee au egunian egunian eguin, baña leije jaijegunetan meza enzutera datozanian: ce costaco jatzubee meza aurrian, edo ostian, sei Aita gure, sei Ave Marija, eta sei glorija Patri erretetia? Ce dempora biar da bost altarac, bacotza iru Aita gure, iru Ave Marija, eta iru glorijagaz visitetaco? Ecin Christinau batec au ez eguiteco benetaco achaquijatic equi leique. Au ezta naguitasun, eta alperquerija baño.

Altaretaco Indulgencija bete, edo plenarija onec irabaci leitequez Arima Purgatorijocuenzat, eta Arimien egun bada, ateraten da Purgatorijoco araco arima norgaitic irabasten dan Indulgencija, edo norgaitic visitetan dirian Altarac. Arimia aterateco eguin biar dozubena da, errezadu altara bacotzian iru Aita gure, iru Ave Marija, eta iru glorija, ceubec nai dozuben arimia Purgatorijotic aterateco intencinoiagaz, eta onec biar ezpadau, Jaungoicuac nai daben arimiagaitic. Gustiz da santuba, eta provechu andicua ilacgaitic erregututia Jaungoicuac atera daguizan Purgatorijotic, ez bacarric eurenzat, baita bere euracgaitic erregututen dabeenezat. Ez eguizube uste galduco dozubela, edo ezteutzubela ecer valijoco euracgaitic eguin daizubenac; cegaitece obra onegaz mereci daiquezubena, ecin besteri emon cinaijo, ceubentzat bacar bacarric izango da, eta arimiari eguiten deutzazuben mesedia, Jaungoicuaren aurrian aurquituco dozube gueituric; Jesu Christoc berac dirautzube; Emon eguizu, eta emongo jatzu. Bestiai eguin deijezun on gustija biurtuco jatzu, ez bera bacarric, ezpada aciric, gueituric, eta emon cenduban baño gustiz ugarijagoric.

*Erasoguinza.*

Orra, neure Christinaubac, ce erraz jacun Jaunari

deutzaguzan zorrac paguetia Indulgencijacaz. Orra ce ondasun ugarijac daucaguzan gueure auquerara, edo elecinoera, cegaz aberaztu gueure pobrecia, sendatu gure argaltasuna, bigundu Jaungoico gugaz aserratuba, eta idigui beragana elduteco, pecatubacaz zarraturico bidia. Beti euqui dau Elexa Santubac beragan Jesu Christo, eta beste Santuben merecimentuben ondasuntegui, edo tesoru au; baña esan daiquegu, anchinaco demporetan zarraturic euqui dabela bere semeenzat. Orduban gustiz senduac cirian seme oneec, eta orregaitic, ez eguan eurentzat Indulgencia, edo parcacinoeric. Bacotzac irago biar evan eguiten evan pecatubari egoquijon penitencia, pena, edo min gustija. Norbaitec guzurrezco juramentu eguiten badau, cinuan Elexiac, berroguet egunian baru eguin biar dau, ogui, eta ura baño beste gauzaric artu baga, eta zaspí urtian egon biarco dau penitencijan. Besteri golperen bat emoten deutzanac, eguingo dau zaspí urteco penitencia. Araguizco pecatu eguiten dabenac libriagaz, iru urteco penitencia eguingo dau: escondubagaz bada, zaspí urtian. Emacume libriac eguiten badau araguizco pecatu guizon escondubagaz, ifinico jaco amar urteco penitencia. Besteri gauza chiquiren bat ostuten deutzanac, biurtu beiquijo quendu deutzana, eta eguingo dau urte beretico penitencia; barriz ostuten badeutza gauza nagusirie, bost urteco penitencia ifinico jaca. Modu onetan edoceimbere pecatu gaitic ifini oi cirian penitencia luce, garratz, eta astunac. Gura evan Elexiac, euracaz bacarrie pagadu eijuen Jaunari bere semiac eutzen zorra.

Argaldu cirian Elexiaren semiac, asi zan epelduten euren caridadia, otzitu zan euren devocinoiaren berotasuna, eta abijau cirian achaquija billa penitencia oneec,

edo quendu, edo guichituteo. Astun, garratz, eta icaragarri eguiten jaquezan penitencija oneec, eta venturaz ascoc, eta ascoc naijago even euren pecatubetan egon onelaco penitencijac eguin baño. Cer deritzube eguiten dabela Elexa erruquiorrac ain lastan dituzan semiac galdu eztaquijozan? Idiguiten dau bere esposo maitiac beragan ifini cituzan ondasuntegui, edo tesorubac, ifinten dituz gustijac zabalic euren aurrian, Indulgencijac autortu, edo concedidubagaz, eta dirautze: Pagadu ecin dozuzan ezquero ceure argaltasun, epeltasun, eta ostazunagaitic penitencijacaz, Jaunari deutzazuzan zorrac, ara emen cegaz pagadu aimbeste neque baga. Artu eguizu Jesu Christo, eta Santuben merecimentubetatic zor orrec paguetaco biar dozun gustija. Egun, aste, il, eta urte lucietaco nequia irago biar bacenduban zure pecatu asco, eta andijai egoquijuen penia iragoteco; Indulgencija bete, edo plenarijac irabaci jagaz, parcatuco jatzu gustija. Eguin badozu zaspi, zorci, edo amar urteco penitencija mereci evan pecatuben bat, irabaci eguizu zaspi, zorci, edo amar urteco Indulgencija, eta orra parcatu ric pena gustija. Onetaraco etzatzu escatuten gauza nequetsu, astun, eta garratzic. Confesetia, eta comulguetia, estacione bat errecetia, Altarac visitetia, limosnaren bat emotia, baruben bat eguitia, edo beste onelaco gauzaren bat eguitia, da escatuten jatzun gustija.

Alambere, Elexa Ama bigun, eta erruquior onen aleguin gustijac eztira asco, Christinau asco ondasun miragarriac artutera eruateco. Milla modutan egunian egunian baco hac bere echian, bere biarrian, bere arazuban, bere cereguinian irabaci leiquez Indulgencijac; baña gustiz dira guichi jaquiteco, ce Indulgencija irabaci leitequian, eta jaquin arren, irabasteco arduraric ifinten da-

beenac. Datoz jaijegunian Elexara Meza enzutera, orduban guichienez uste leiteque, errezaduco dabeela estacinoia, edo visitaduco ditubezala Altarac Indulgencijac irabasteco; baña orduban bere, luce eguiten jaque mecia sartu artian; eta au amaitu orduco, arrastaca urteten dabee Elexatic campora. Ichumendi andija benetan! sortasun parebaguia! Ez Elexa santubac eguin leique gueijago, zue pagadu deijozuzan Jaungoicuari deutzazuzan zorrac, ez zue eguin cinaique guichijago eurac paguetaco. Aztun eguiten jacozan zure argaltasunari anchinaco penitencijac? Bildur cinian egun ain lucietan neque, negar, eta penitencijapian egoten? Erruquituric gure Ama maitecor, eta biguna aldatuten dituz penitencija oneec beste modu erraz baten, eztaquizun ain gach eguin ceure zorrac paguetia. Eta alambere, eztozu arduraric artuco Indulgencia irabaci, eta euracaz, daucazun zor gustija paguetaco? Christinaubac, etzaitze zorrac izan, ez naguijac, ez ardura bagaac. Zabal zabalic dagoz Jesu Christoc, eta Santubac irabacirico merecimentuben ondasunac. Artu daigun euretatic gure pobreza, eta argaltasunac biar dabena gueure pecatubacgaitic mereci dogun penia parcatu daquigun; modu onetan laburtu daquigun Purgatorijoco su icaragarrizcuen artian irago biarco gneunquian demporia, aimbat lasterren juan gaitezcan ceruco glorijan Jaungoicua arpeguiz arpegui icustera. Amen.

### XXIII. VERBALDIYA.

*Oleacinoe, eta Ordeaco Sacramentuben ganian.*

**E**lexa Ama Santubaren bostgarren Sacramentuba da Oleacinoia, edo asquenengo uneinoia; eta da, Jesu Chris-

toe Elexan ifinirico Sacramentu bat, quenceco penitenci-jagaz quendu etzirian pecatubac, garbituteco pecatuben ondaquin, edo erreliquijac, emoteco guexuai demoninuen contra pelietaco indarrac, eta osasuna gorputzari conveni bajaca. Deitzo asquenengo uncinoia, edo Extremauncinoia, dalaco guenengo, edo asquenengo Christinaubac artu oi dabeena. Sarri orijo bedeincatubagaz untadu, edo ungietan dira; lenengo bateo, edo bautismuan: bigarren-go: Confirmacinoian; irugarren-go: Sacerdote ordenduten dirianian; eta laugarren-go: guexoric, edo il aguinian dagozarian; eta oncetatic au asquenengua dana leguez, orregaitic emon jacan asquenengo uncinoe, edo Extremauncinoien izena. Emoten bere jaca izen au, vicitziaren asquenian emoten dalaco. Deituten bere jaca guexuen uncinoia, eta ilten dagozaren Sacramentuba. Sacramentu onen emoile, ipinle, edo autore da Jesu Christo gure Jauna, beste Sacramentu gustijeena dana leguez. Emon euzcuzan beste Sacramentubac euracaz gu sendatuteco gueure arerijuen asmuben contra vicitziac dirauban artian; eta izanic gogorraguac, eta senduaguac gure arerijoneen aleguinac gu galceco vicitzien asquenian, ez guenduzan ichi nai izan sendagarri baga; orregaitic ifini evan Sacramentu au, berac emon eguigun demoninuen contra pelietaco indarra, eta beragandic jaon guenguizan gracia.

Sacramentu au emongo dabena izan biar da Sacerdotia, eta alan ecin eztanac emon leique. Edoocimbere Sacerdotec emon al baleique bere, aguinduric dago Arimazain, edo Cura Jaunac bacarric emon daijela, eta bestec emongo badau, izan biar da euren bai, edo licenci-jagaz; eta alan norbaiti emongo bajaca oleacinoia, Arimazain, edo Cura Jaunari esan biar jaca, ezpalitz estura, edo premia andiren baten; bada orduban ecin esan al baleijo,

edo aguri ezpalitz, edocin Sacerdotec emon leique. Oleacinoia ecin emon leijo guexoric daguanari baño, edo guexuagaitic ilteco pelleburuban daguanari; baño ez beste modutan vicitzia galceco pelleburuban daguanari. Darue norbait urcamendira vicitzia quencera, ecin oni oleacinoeco Sacramentuba emon leijo; bada iltera badua bere, eztago guexoric: Baña ezta icharon biar guexua asquen asquenera eldutia. Aleguin gustija eguin biar da, euren sensun osuan dagozan artian artu daijen, icharoni baga asquen asquenera eldu deitezán, eta araco concertu, eta subil bat eguinic gueratu deitezán; modu onetan jaquinic cer artuten dabeen, obeto prestadu deitezán; bada cembat eta obeto prestadu, cembat eta devocinoe, humiltasun, eta ezauera andijaguagaz artu, aibat eta gracia ugarijagua emongo deutze Sacramentu onec, eta aibat eta obeto artuco ditubez bere mirarizco eguitade, edo efectuac. Etzaque emon biar oleacinoia errazoién usura eldu ez tirian umiai, ezta inos sensunic euqui eztabenai bere; baño nosbait euqui badabe, edo demporaren baten euren senian vici izan badira pecatu eguin al leijen moduban, emongo jaque Sacramentu au.

Miragarrijac dira Sacramentu onec bera biar dana lequez artuten dabanari, emoten deutzazan eguitade, edo efectuac. Lenengo: emoten deutza bigarren gracia, au da, gueituten deutza lenago eucana. Bigarrenengo: parcatuten deutzaz pecatu venialac, eta pecatu mortalari dagoquijozan, edo beragaitic mereci izan dituzan penaac. Irugarrenengo: quenduten deutzaz lenagoco vici donga, eta pecatuben arrastu, ondoquin, edo erliquijac. Laugarrenengo: emoten deutza indarra demoninuen tentacinoien contra irrimpe pelietaco. Bostgarrenengo: emoten deutza paciencia, daucan gach, edo dacarquijozan min, ala, eta



nequiac baquian, eta vijotz onagaz iragoteco. Seigarren-  
go: emoten deutza gorputzari osasuna conveni bajaca  
arimien oneraco, eta Jaungoicuaren honraraco. Baña Sa-  
cramentu onec emongo badituz efectu oneec, edo eguin-  
go badeutzaz mesede andi onecc bera arcen dabinari, au  
gracijan egon biar da; bada pecatu, mortalian badago,  
on gusti onecc artu biarrian, beste pecatu mortal bat  
eguingo dau, eta alan artu baño leenago ifini biar da  
gracijan, eta onetaraco onduen onduen izango da leena-  
go confesetia.

Jaquin naico dozu, cer dirian Sacramentu onec quen-  
duten dituzan lenagoco vici deunga, eta pecatuben ar-  
rastu, ondaquin, edo erliquijac. Ara bada: Edoceimbere  
pecatue dacar beragaz arimara obra onac eguiteco na-  
guitasun, eta atzeracuncia, arimaco epeltasun, edo ozta-  
suna, gacheraco echutasun, edo inclinacinoia, ecandu,  
edo costumbre citala, demoninuaren contra pelietaco in-  
dar faltia, penitencija eguiteco naguitasuna, pecatubac-  
gaitic mereci dogun castiguben bildur icaragarrija, eta  
beste gach gustiz asco, eta andijac. Ceimbat eta pecatu  
gueijago eguin dogun, aimbat eta andijaguac dira gure  
arimaco gach onecc, ceinzue pecatuba quendu arren, be-  
ti gueratuten dirian ariman. Gorputzeco guexuan dauca-  
gu arimaco guexo onen irudi benetaco bat. Jausten da  
guizon bat gach, edo enfermedade andi baten, eta ifinten  
dau gachac indar baga, podere baga, zauriz beteric, eta  
gustija ain erquin, ain caden, ain argal, ce eztauca pau-  
su bat emoteco bere podereric. Osatuten da guexua, quen-  
cen da gacha, baña eztira quencen gach condo onecc.  
Cembat eta andijagua izan dan guexua, cembat eta go-  
gorragua, eta luciagua, aimbat eta cadenago, erquinago,  
eta argalago gueratuten da gorputza. Alainche bada ja-

zo oi da arimiagaz bere. Pecatuben gach, edo enfermedadiagaz dago argal, erquin, jausi, caden, indar baga, eta Jaungoicuaren bidetic ibilteco podere baga. Quencen jaca pecatubaren gach, edo enfermedadia penitencijaco osasunguei, edo mediciniagaz, baña etzacaz orregaitic quencen gach conduac, edo pecatu, eta leenagoco vici donguien condo, edo erliquijac.

Arrastu, edo ondoquin onexccaz eguiten deutza demoninuac guizonari guerrarie vicijena, bere vicitziac dirautzan arte gustijan, bada eurac dira bere guestaquerija, edo malicijac daucazan armaric senduenac gu goitu, edo vencietaco. Baña nos eguiten dituzan aleguinic andijenac, nos botaten dituzan bere indar gustijac, nos arcen dituzan bere asmu char gustijac gu galceco, da araco ezagutu daguijanian urrian daguala gure vicitziaren asquena, eta laster il biar gariala. Orra, neure Christinaubac, cer dirian pecatuben, eta leenagoco vici oquerraren arrastu, edo erliquijac, ceinzuc quenduten dituzan Extremaunci-noe, edo Oleacinoeco Sacramentubac. Beronec quencen deutza guexuari oneraco daucan oztasun, epeltasun, edo naguitasuna, pecaturaco echutasun, edo inclinacinoia, eta euren ecandu, edo costumbria; poztuten dau bere atzacabia, ereguiten dau bere jausitasuna, isioten deutza bere fedia, sendatuten deutza esperancia Jaungoicuagan, emoten deutza paciencija daucan enfermedadeco neque, min, ala, eta gachac paciencijagaz iragoteco Jaungoicuagaitic, quenduten deutza erijotziari jacon bildurra, eta emoten deutza uste, edo confianza osobat ondo urtengodabellajucijuan, eta elduco dala Jaunaren erruquijagaitic ceruco atseguinetara. Modu onetan quenduric Sacramentu onec pecatuben condor, eta erliquijac, quenduten deutzaz demoninuari gure contra pelietaco daucazan arma; eta

emonic guri ondoquin oneen orde, esan dirian onoidade, edo virtutiac, sendatuten gaituz irrimpe pelietaco demoni-nuen tentacinoien contra.

Oleacinoia ezta Sacramentu biar biarrecua, edo pre-minazcua, salvadu leitequialaco bera baga; baña ichico baleu batec mespresa, edo desprecijoz, deritzalaco ezta-carrijola onic bera artuten dabenari, edo ezteutzala ecer valijo guexuari, pecatu mortala eguingo leuque. Barriz, ichico baleu, edo artu guraco ezpaleu, Medicubac esan arren artu biar dabela, deritzalaco eztaguala ain charric, oraindio demporia euquico dabela arceco, edo ezta la gach, edo enfermedade atatic ilgo, pelleburu andijan ifi-nico leuque bere salvacinoia; bada izanic ain andijac demoninuaren asmubac, ain bildurgarrijac ordu atan guizona galceco eguiten dituzan aleguinac, ce Sacramentu onec emonico gracijagaz, eta indarragaz bere, ozta ozta da duin bere contra pelietaco, eta bere asmu charrac goituteco; cer eguingo dau gracia, eta indar au baga? Celan ain argal, ain caden egonic peleaduco dau leoe icaragarri onen contra? Orregaitic, bere salvacinoia benetan gura dabenac, ardura andi bat euqui biar dau demporaz arceco, aimbat on, eta gracia arimiari ecarten deutzazan Sacramentu au. Bardin; Medicu, eta Cirajaubac pecatu mortalen beian esan biar deutze guexuari bere pelleburuba, eta artu daijala Sacramentu au demporaz, eta euren sensun osuan dagozan artian; jazo eztedin euren erruz, edo artu baga iltia, edo sensunic eztaunquecla, eta gustiz concertu, eta arri bat leguez dagozarian, arceia.

*Ordiao Sacramentuba.*

Elexaco seigarren Sacramentuba da ordia. Dei egui-

ten jaco ordia, edo ordenia, bera ifini evalaco Salvagui-  
liac, bere Elexan gustija artez, eta ordiagaz egon cedin.  
Erreinu, Provincia, uri, erri, edo exercitu baten gauzaac  
ondo, eta artez ibilico badira, oficijo asco biar dira, ba-  
tzuc goragocnac, beste batzuc beragocnac. Batzuc dira  
erregue, beste batzuc erregueren urrengo, oneec corregi-  
dore, areec alcate; bada orde au ezpalego, gustija ibilico  
litzateque nastadu, eta modu baga erreinu, Provincija,  
eta urijetan. Auxe berau eguin evan Jesu Christoc bere  
erreinuban, cein dan Elexia, gustija artez, eta ondo ibili  
cedin. Batzuc ifini cituzan gorago, eta emon eutzen eu-  
rai escubide gucijago; bestiac beerago, eta escubide gu-  
chiagogaz. Batzui emon eutzen escubidia Elexa onetaco  
ministruac ifini, bere gorputz, eta odola consagradu, eta  
pecatubac parcatuteco; eta oneec dira Obispuac; beste  
batzui, bacarric gorputz eta odola consagradu, eta peca-  
tubac absolvietaco; oneec dira Abade, edo Sacerdotiac:  
beste batzui, bere gorputza Christinaubai emon, edo er-  
repartidu, eta Evangelijua Mezan cantetaco; oneec dira  
diaconubac, edo Evangelijoz ordenduric dagozanac. Bes-  
te batzui Epistolia cantetaco; oneec dira Epistolaz orden-  
duric dagozanac; eta alan beste ordendubai, bacochari  
bere oficijuari dagoquijozan gauzac eguiteco.

Emenche nai neuque, neure enzula maitiac, vizturic  
ceuben fedia aldaizun onduen beguiratu daizuben, ce es-  
cubide, edo potestade pare baguia emoten jaquen Abade,  
edo Sacerdotiai; ezanera onegaz aldaizun humiltasun, be-  
guiraine, edo errespetoric andijenagaz honradu daguizu-  
bezan. Bi dira, Jaungoicnac emon eutzeezan escubidiac;  
bata consagretaco, eta bestia pecatubac parcatuteco; eta  
bijac luurtian, eta ceruban dirian andijeenac. Lenengua-  
gaz dacarde euren escubetara Jaungoico ceru, luurren

eguilia. Esaten dituz Sacerdotiac consagracinoeco verbac, eta ain modutan obedietan deutze Trinitade gustijac verba onei, ce berbertatic ifinten da bere escubetan ogui anz pian araco Jaungoico ceru zabalac artu, edo cabidu ecin dabeena. Bigarrenagaz, esanic pecatariric andijenari; nie absolvietan zaitut, edo parcatuten deutzudaz ceure peatubac, ateraten dau demoninuaren mempe, edo poderijotic, eta eguiten dau Jaungoicuaren seme; quenduten deutza eucan peatubaren ezaintasun icaragarri gustija, eta ifinten dau milla egusqui baño ederrago. Ce diñade, ce anditasun, ce escubide miragarrijagoric au baño? Mundu onetaco andi, Erregue, eta Aguintari gustijen diñade, honra, eta anditasuna, cer da onen parian? Ezta bere guericia bere. Cer dinot? Ceruco Ainguerubac eurac ez dira inos eldu diñade, eta anditasun onetara. Ezteutze oraindino autortu, edo concedidu escubideric, ez Jaungoicua cerutic luurrera ecarteco, ez peatubac parcatuteco. Beguira bada, celaco lotzia euqui biar deutzezuben, eta celan honradu biar dituzubezan Jaungoico ordeco onecc.

Cembat eta andijagua dan Abade, edo Sacerdotien diñade, eta oficijua, aibat eta bildur andijagua euqui biar da carga ain pisutzuba ganian artuteco, aibat eta obeto beguiratu biar da, Jaungoicuae dei eguiten badeutza, ala ez; ete daucazan ala ez, oficijo ain eregui au ondo beteteco biar dirian prestaera, edo disposicinoiac. Contu gurasuac ceuben, eta ceuben semien condenagarri izan etzaitezen. Ona da, santuba da, Jaungoicuari, eta Elexiari opetzi, edo ofrecietia ceuben semiac altarraco. Ondoda, eurac ardura andi bategaz aztia Jaunaren bildur santuban, abadetasun, edo Sacerdoeijora echuntasun, edo inclinacinoia artu daijen; baña beguira celaco gogo, edo

intencinoiagaz au eguiten dozuben. Au eguiten badozube ceuben semiagan dacutzubezalaco oitura, edo costumbre onac, eta orregaitic deritzubelaco, Jaungoicuac altarara dei eguiten deutzala, eta alan bera abade eguitia izango dala, bera obia izateco, arimeen provechuraco, eta Jaungoicuen onraraco, ondo eguingo dozube. Baña, nai badozube abade eguin dedin, euqui daguijan cer jan, edo cegaz vici; ceuben echiac aberastuteco, lecu, edo diñade ereguijetara igon daguijan, edo Capellaniya, eta beneficio aberatsa, edo errenta andicua daucalaco, bildur izan cinaitequez ezteutzala oni Jaungoicuac dei eguiten Abadetasunera; bide oquerretic daruazubela ceuben semia. Contu bada, Christinaubac, izan ezaitezen ceuben, eta ceuben semien condenagarriac.

*Erasoguinza.*

Icusi dozube, Christinaubac, icasbide, edo dotrina onetan, ce andijac dirian, Oleacinoiac guexuari eguiten deutzazan mesediac, eta ce ugarijac emoten deutzazan onac. Au ondo ezagutuco baguendu, bera artuteco bildur izan biarrian, gueu aurreratuco guinatequez escatutera; naijen guraco gueunquian gaucia izango litzateque, aibat lasterren gueure senian gagozan artian emon deigubela. Ez litzatequez biarco aimbeste inguru, aimbeste asmu, esan deigubenen oleacinoia artu biar dogula, eta au esan deigubenan tristetu, necatu, eta atzacabe andi bat artu biarrian, poz gustizeco bat artuco gueunque; bada jaquingo gueunque gueure arima, eta gorputzeco gach gustijen erremedijua daucagula Sacramentu onetan. Ezpabere: contu eguizu zagozala gach andi bategaz, erioztzia beguijen aurrian dozula, gorputzeco ala, min, eta

zauriz beteric, eta arimaco larri, atzacabe, eta bildurrez inguiraturic; bada gusti gusti oneen erremedijua daucazu oleacinoian, ain modutan, ce ecin euqui cinaique bat baccarric, cein quendu, edo guichienez bigundu ecin leiquianic. Ceure pecatu andi, eta ascoren gomutiac zaucaz icarra? Sacramentu onec parcatuten deutzuz. Larrituten zaituz icusijac demoninuac zu galceco eguiten dituzan aleguinac? Sacramentu onec quenduten deutzaz berari indarrac, eta emoten deutzuz zuri bere tentacinoiac goitu, edo vencietaco. Zaucaz bildurturic erijotzia ain urrian icusijac, eta laster juan biarrac Jaungoicuaren aurrera, ceure vicico contu ciatz, eta estuba emotera? Sacramentu onec emongo deutzuz uste, edo confianza oso oso bat, ceinec gustiz quenduten ezpadetzu bere bildur au, edolabere guichituco deutzun. Estututen zaitube daucazuzan gach, min larri, ala, eta aldi-guestuac? Sacramentu onec emongo deutzuz indarrac paciencijagaz eruatcco ceure pecatuben ordian, eta onegaz iragoco dituzuz poz andi bategaz. Nai dozu osatu? Sacramentu onec emongo deutzuz gorputzeco osasuna conveni bada. Articulu fedecuada, Oleacinoiac eguiten deutzazala guexuari mesede miragarri oneec, bada alainche dirauscu Trentoco batzar, edo Concilijuac. (1)

Izanic ain ugarijac Sacramentu onec emoten dituzan gracijac, eta ain ciur, edo ciertubac; nundic ete dator Christinaubac beroni deutzeeen bildurra, eta bera artuteco dauquen atzeracuncia? Nire eretsijan, demoninuaren asmutic. Gure salvacinoiaren arerijo onec beti beti eguiten dituz aleguin andijac gu infernuco subetara eruatcco; baña inos baño indar andijaguac eguiten dituz, araco ezagututen dabenian, eztaguala urrin gure erijotzia, jaquinic

(1) Ses. 14 cap. 3.

orduban goituten badogu, betico goitu, edo vencietau dogula. Daqui, Oleacinoiac quenduten deutzazala bere indarrac, guexua berac nai leuquian gogortasun gustijagaz tentetaco; eta guexuari emoten deutzazala, beragaz irrimiago pelietaco; eta orregaitic arceen badau Sacramentu au, etzacola ain erraz izango guexua goitu edo vencieta. Cer eguiten dau infernucico asmulari onec? Ifinten dau guexuagan Sacramentu oneganaco bildur andi bat, edo guichienez atzeracunza andi bat artuteico, modu onetan aurquituric sendagarri au baga, errazago izan daquijon bera galceia, edo guichienez, sensun baga daguanian artu daijan, ain ugarijac izan ezteitezan emoten deutzazan gracia, eta laguntasun, edo auxilijuac.

Sinistu eguidazube Christinaubac, eztauca beste sustairic, Oleacinoiari jacan bildurac, eta bera arceico atzerancunciac, demoninuaren tentacinoe, eta asmuba baño; eta alan elduten bazare erijotzaco pelleburura, eguizube aleguina al dozuben lasterren, eta ceuben sensunac arguric daucazubezan artian emon daquizuben. Besteric onelaco esturan aurquituten bada, eta zuben ardurara badago, edo badaucazube beragan escubideric, ezaijozube bildur baga, eta lotza baga, daucan pelleburuba, eta artu daguijala Sacramentu au. Bildurtuten badau barri onec, bildur andijagua emon biar deutzaz Sacramentu au baga iltiac; eta lenenguan bildurtuten bada, Sacramentubac berac quenducico deutzaz bildur au, emongo deutzaz bildur onen orde benetaco poz andi bat. Berac emongo deutzazan gracia, eta indarracaz, aspiratucico dituz demoninuaren asmubac, eta iragocico da cerucico atzeguinerara. Amen.



## XXIV. VERBALDIJA.

*Esconzaco Sacramentubaren ganlan.*

**Z**aspigarren Elexaco Sacramentuba da Esconcia, edo Matrimoninua; cein dan Jesu Christoc bere Elexan ifinirico Sacramentu bat, ceinec guizon, eta emacumia alcarregaz batuten dituzan, ez euren vicijan bata bestiagandie alderatu, edo apartetaco; eta esconduten dirianian, emoten deutze gracia baquian viciteco, umiac eguiteco, eta onec ceruraco aciteco. Mundubaren asijeratic aurquituzan esconcia guizon, eta emacumien artian. Jaungoicua berac escondu cituzan gure Ienengo guraso, Adan, eta Eva. Berac gueroco demporetan aguindu eutzen leguezarrian Judegubai celan, nogaz, eta celaco cirimonijacaz escondu biar cirian. Gentilac eurac edocein dempora, eta edocein lecutan dauquez esconzac, bada munduba amaitu, edo acabaduco ezpada, edo guizon baga gueratuco ezpada, guizonac jaijo, eta aci biar dira, eta onetaraco moduric oneena da guizon, eta emacumia alcarregaz escondutia. Baña esconza gusti onec etzirian Sacramentu izan, eta orainche eguiten ditubezanac bere, eztira Sacramentu, ezteutze esconduten dirianai gracijarie emoten. Eztago Sacramentu benetaco dan esconzarie Elexa Santuban baño; eztau beste esconzac Christinauben artian eguiten danac baño, gracijarie emoten. Jesu Christoc eregui cyan esconcia Sacramentu izatera, eta emon al lejuen esconduten cirianai, ondo, eta Christinau bati dagoquijon moduban vici izateco gracia, ifini cituban bertan beste Sacramentubetan leguez bere vicitza, pasinoe, eta erijotziaren merecimentubac, biar dan moduban escon-

duten cirianac artu eguijezan gracia ugarijac.

Esconcia benetacua izateco biar dira lau gauza. Lenengo: eztau euqui biar escondutia galazoten daben gauzaric, edo impedimenturic, celacuac dirian urte, edo eda-de faltia, aidetasuna, ordenduric egotia ordia nagus jazcaz, eta beste Elexiac ifinijac. Bigarrena: esconduteco vorondate osua, edo libria. Irugarrena: vorondate au campotic iracutzi, edo adi erasotia, arcen dabela guizonac emacumia emastetzat, eta emacumiac guizona senarzat, eta bata, eta bestia, senar eta emastetzat emoten diriala. Laugarrena: escondutia testigu bi guichienez, eta Arimazain, edo Cura Jaunaren aurrian. Arimazain, edo Curia izan leiteque, nai guizonarena, nai emacumiarena. Ain dira biarrac lau gauza oneec esconzaraco, ce euretatic bat bacarric falta bada, eztira esconduric gueratuco.

Iru dira esconza, edo matrimoniuaren onac. Umiac, leijaltasun, eta Sacramentuba. Lenengo: umiac, bada onetaracoxe ifini euan Jesu Christoc Matrimoninoco Sacramentuba bere Elexan; bestelan ecin sortu, ez jaijo leitequez guizonac biar dan moduban; eta alan senar emastiac alcarregaz batu, edo nastetan badira, ecin galazo leije umia sortutia, edo sortu ezquero ecin ecer eguin leije umia galduteco; bada onelaco gauzaric eguiten badabe peccatu mortal icaragarrija eguingo dabee. Baña ezta emen gueratuten on au; eztira contentadu biar semiac eguinagaz; arduratic andijena ifini biar dabe, Jaungoicuac emoten deutzezan umiac aibat onduen aciteco, modu onetan Elexa santuba seme onacaz zabalduteco, eta ceruba Santuz beteteco; bestelan, esconciaren on, eta euren zorion izan biarran dauquezan semiac, euren caltegarri, eta gacheraco izango dira.

Bigarren esconza, edo Matrimoniuaren ona da fedia,

edo alcarri escondubac jaon biar deutzen leijaltasuna; eta alan, ez senarra nastadu leiteque beste emacumegaz, ez emastia beste guizonegaz. Senar emastiac escondu cirianian, batat bestiarri emon eutzeezan gorputzac seinac eguiteco: senarrac emon eutzan bere gorputza emastiarri, eta emastiac senarrari, eta alan senarrac eztau beria gorputza, ezpada emastiarena, eta emastiac eztau beria gorputza, ezpada senarrarena, dino S. Paulo Apostolubac (1) Eta alan senarrac emoten badeutza emastiarri baño besteri, beragaz nastetaco, pecatu mortal bi eguingo ditu, bata garbitasun, edo castidadiaren contra, bestia emastiarri zor deutzan leijaltasunaren contra; eta bardin emastiac senarrari baño besteri emoten badeutza bere gorputza. Esconciaren irugarren ona da Sacramentuba, au da, ain irrima, ain sendo batu, eta lotuten dituz Sacramentu onec senar emastiac, ce ecin inundic bere urratu, ez soltadu leiteque locarri au, vicitziac dirautzen artian, edo bata, edo bestia il artian. Eztago mundu onetan locarri au urratu al leiquian indarri, ez Aita Santubac, ez Obispuac, ez Erreguiac, ez Aguintari, edo Emperadoriac, ezta escondubac eurac bere. Alperric bijac guraco dabe esconciac iraun eztaijan; alperric bata bestiagandic alderatu, edo apartaduco dira; alperric senar, edo emastia, nai bijac bestegaz nastaduco dira; alperric etorrico dira gach, eta calteric andijenac. Orregaitic bein ondo esconduricucac, bestegaz esconduten badira euren laguna vici dan artian, eztau bigarren esconciac balijo.

Esconza, edo Matrimoninuac dacarzan eguinza, edo efectuac dira: Lenengo: santututen daben gracia emotia; baña gracia au ezta lenengua, edo pecatutic gracia Jara iragoten dabena, ezpada bigarrena, edo leenagotic

(1) 1 Corint. cap. 7 v. 4.

ariman eguana gueituten dabena; eta orregaitic, Sacramentu au biar dana leguez artuco dabena, graciajan egon biar dau, bestelan berac emoten daben gracia artu biarian, beste pecatu mortal bat eguingo dau. Bigarren: emoten deutze escubidia bata bestien gorputzian, semiac eguiteco; baña ez abere, edo animalijac leguez edoceimbera loiquerija edo ciquinquerijatan ibilteco. Irugarren: araguijaren su, eta berotasuna amatetia, biar daben baño gueijagora irago eztedin. Laugarren: emoten deutze indarra escondubai vici modu, edo estadu onetaco carga astun, neque, lan, eta esturac onian, eta paciencijagaz eruateco. Bostgarren: ifinten dau senar emastien vijotzetan bata bestiaganaco amodijo vici, eta benetaco bat, alcar amadu deitezan Jesu Christo, eta bere Elexia maitetuten diriana leguez. Amodijo onec eguiten dau batac bestien utsune, edo faltac aserre baga, eta paciencijan eruan daguizala, eta modu onetan baque andi baten vici deitezala. Seigarren: emoten deutze gracia, Jaungoicuac emonico seme alabac, Jaungoicuaren bildur santuban aciteco.

Gracia, eta laguntasun, edo auxilijo andi onec ez-tituz emoten edocein modutaco esconciac, ezpada Jaungoicuac, eta bere Elexiacaguinduten dabena leguezcua; alan pecatu mortalian esconduten danac, ez beique icharon Sacramentu onec emon oi dituzan mesede ceruco onec. Orregaitic pecatu mortalian daguanac onduen eguingo dabena da, aldaijan onduen confesetia, garbi garbiric sarzeco vici modu, edo estadu barrijan. Onezaz ostian: semiac escondu biar dira gurasuen vorondate, eta baijagaz; bada eurai zor deutzen obediencijac, eta emon biar deutzen honriac aguinduten deutze, ez escondutia euraque jaquin baga, eta euraque nai eztabeela, edo euren licen-

cija бага. Trentoco Batzar, edo Concilijoac dino: Elexa Santubac beti gorrotoz beguiratu deutze, semien esconza gurasuen vorondate бага eguinai (1). Baña gurasuac bere eztira valijo biar semien ganian dauquen escubidiacaz, conveni jaquen esconcia galazoteco; ecin eguin leijue indarric euren seme, edo alabai, eurac nai ez leuquien battegaz esconduteco. Onezaz ostian: beguira begui esconduten danac, emon badeutza besteri esconzaco verbaric, bada au alan bada, eta esconduten bada aren licencija бага, pecatu mortala eguingo dau. Ecin escondu leiteque deijuniac leenago bota бага, Obispo Jaunac emoten ezpadau escubidia eurac бага esconduteco. Gauza gusti oneec бага esconduten dana esconduric gueratuco da, baña pecatu mortal eguingo dau.

Itundute, edo conseju bat emon nai deutzet onelaco esconzaren bat eguiten dabennai. Ain dira andijac, ain astunac esconduben biar, edo obligacinoiac, ce gustiz da gach, edo (obeto esaterren) ecin bete leitequez ondo, esconzaco Sacramentubac emongo ezpaleu onetaraco biar dan gracija, eta indarra. Pecatu mortalian escondu bacinian, ez eutzun Sacamentubac gracija, eta indar au emon, eta alan ecin bete cinaiquez ceure ganian artu dituzuzan obligacinoiac; gurata gura ez jausi biar zara pisu andi onen aspijan. Cer eguingo dozu bada, gach ain andi au erremedijetaco? Confesadu zaitez aimbat lasterren, eta erregutu eguijozu Jaunari, erruquitu deila zugaz, eta emon deizula orduban ceure erruz emon ez jatzun gracija, eta laguntasuna. Venturaz Jaun onec erruquituric zugaz, emongo deutzu Confesinoe onen bitartez, esconza onaren bitartez artu biar cenduban, eta artu etzenduban gracija. Ez eiquezube luzatu au eguitia, jazo ezta-

(1) Trid. Ser. 24 cap. 1 de Refo Mar.

quizuben, demoninuac eritia pecatuban zagozan artian, azerracunza, gorroto, eta alcar ecin icusijen acijac, zein-zue bein jaijoten badira senar emastien artian, gustiz da gachago sustraitic ateratia.

Jaquin bere biar dabe escongueijac, cer dan Matrimoninoco Sacramentuba, eta celaco obligacinoiac dirian euren ganian artuten ditubezanac; bada ezpadaquijez, celan bete, edo cumplidu leijez? Euqui biar dabe gogo, edo intencinoia escondu bati dagoquijozan obligacinoiac aimbat onduen jaoteco. Celan vorondate au euqui leije, jaquin baga, ez cerdan Matrimoninoco Sacramentuba, ez cetaraco dan, ez cerzue dirian escondu batec eguin biar dituzan gauzac? Guero onecc beteten ezpadira ezta achaquija izango, eztau pecatutic libraduco esatiac, enequijan ori eguin biar nebanic; bada oficijo bat arcen dabenac, jaquin biar dau oficijo ari dagoquijon gustija. Jaquin bere biar dau doctrina Christinauba; bada izanic gurasuen biar, edo obligacinoeric leenena umiai iracastia, ecin bete leije obligacinoe biarren biarren au, eurac ondo ezpadaquije. Esconzaco obligacinoiac, eta doctrinia jaquin baga esconduten dirianac, ichuban esconduten dira, ichuban vicico dira, eta bildur izan leitequez, ichuban ilgo diriala.

Esconza, edo Matrimoninoco Sacramentuba eguiten da, araco guizon, eta emacumia senar emastetzat alcar emoten dirianian, eta bata bestia atacotzat arcen dirianian Arimazain, edo Cura Jaun, eta testiguben aurrian. Eta alan prementetia, edo Elexaco bendicinoiac eztira esconcia, bada orduraco eguinic dago. Au dinot ascoc, eta ascoc esconduten dirianian orduban prementadu baga, jaramonic eguiten eztabeelaco confesetaco pecatuban egonarren, eta prestatia ichiten oi dabeelaco prementetara dua-

zaneco. Jaquin beije bada, escubac emoten baditubez pecatu mortalian dagozala, nai dala Elexan, nai dala echian, nai dala beste lecutan, orduban prementadu, edo Elexaco bedeincacinoiac artu ez arren, pecatu mortal barri bat eguingo dabeela. Onduen onduena da, esconduco dirianian confesadu, eta comulguetia, mereci daijen esconzaon, eta zorioneco bat eguitia, gracia, eta Jaungoicuaren laguntasun ugarijaguac artubagaz.

Esconza, edo Matrimoninua benetacua izateco ezta biar prementetia, bada bedeincacinoe oneec baga da Sacramentu eguijazcua. Alambere gustiz dongaro eguiten dabe bedeincacinoe oneec arceco jaramonic eguiten ezta beenac, inosbere artu baga dagozala; baita bere urte osuetan artu baga dagozanac. Jaquin beguije oneec, bedeincacinoe oneec, eta ceremonija oneec gustiz santubac diriala: eztira guizonen asmubac, Elexa Ama maitiac Espiritu Santubac arguituric ifini dituz, eta nai dau esconbarri gustijac artu daijezan, euren esconcién ganian jausi dedin Jaungoicuaren bedeincacinoia. Onetan jarraitu gura deutza Elexiac Jaunari berari, ceinec bedeincatu cituzan Adan, eta Eva escondu, eta bertatic. Bedeincacinoe oneetan escatuten deutza Elexa gustijac Jaunari, arren bedeincatu daguizala esconbarri areec, euqui daguijen vicitza au iragoteco biar dabeena, baquian vici deitezan, semiac ceruraco eguin daijezan, urte asco vici deitezan, eta guero curac, eta euqui daijezan semiac cerura eldu deitezan. Jaungoicuac obeto enzun daguizan bere esposa maitiaren erregu oneec esaten da esconbarrijen mecia, eta opa, edo ezquincen deutza araco bere Semiaren Espiritu Santubaren obraz, eta virtutez sorturico gorputza, araco mundu, eta ceru gustijac garbituteco duin izan zan odola, eta barristetan dau Calvarijoco mendijan Jesu

Christoc berac, bere Aitari gure pecatuben ordian isqui-  
ni cutzan sacrificijua berbera. Mecia esaten dan artian os-  
tera barristetan ditu bere escarijac. Au gustijau eguiten  
dau gure ama onac, euqui daguijen escon-barrijac arcen  
daben carga pisutzuba cruateco indarra. Alambere, Chris-  
tinan escondu asco dagoz inos prementadu eztirianac, eta  
beste asco urte asco luzatuten dabeenac.

Guizon ichubac, emacume sensun bagac: Ain valijo  
guichicuac dirjala uste dozube Elexiaren bedeincacinoe  
oneec, modu orretan euren jaramonic ez eguiteco, eta  
ain guichitan euquiteco? Deritzube eztiriala ezetaraco  
gauza, Elexa santu gustijaren Meza atan Aita beticuari  
opa jacan bere semiaren gorputz, eta odola, eta eguiten  
dirian beste ceremonijac? Noc onelaco burueraric euqui  
lcique, buru galdu erobat, edo herege bat ez izanic? Bil-  
dur izatecua da escondu ascoc dauquezan semiac oquer-  
rac badira, egun onic ezpadacuze, beti errijetan, eta ba-  
que baga vici badira, eta beste neque, eta gach andiz in-  
guiraturic vici badira, Jaungoicuaren castiguba dala, be-  
re esposa maite Elexiaren bedeincacinoiac artu ezitube-  
zalaco. Dacuzcuna da, prementadu, eta bedeincacinoe  
onecaz bere, ozta ozta bete al leitequezala biar dan mo-  
duban esconzaco biar, edo obligacinoiac. Cer izango da  
bada eurac baga? Orregaitic esconduten dirianac artu be-  
gtijez bedeincacinoe oneec, eta eurac artu baga dagozan  
escondubac, ez beije gueijago luzatu prementetia, be-  
deincacinoe onen bitartez jatzi deitezan euren ganera, eu-  
retan Jaunari escatuten jacazan arima, eta gorputzeraco  
zorionac.

*Erasoguinza.*

Jaquin beguije escondu nai dabeenac, eztala esconcia



guizonac aurquiturico tratuben bat; Jaungoicuaac berac aurquitu, ifini, eta bedeinatu euan; berac escondu cituzan gure lenengo gurasuac; eta alan ordutixec izan zan santuba: Santuba izan zan anchinaco leguian: Jaungoicuaac berac euqui euan arduria aguinduteco, celan eguin biar zan, nor nogaz esconduco zan, eta celacuac cirian senar, eta emastiaren biar, eta cereguinac; aimbat bedeinacacinoe, eta zorion izquincen eutzezala berac ifinirico esconzaco leguiac gorde eijecenai. Baña legue barrijan igon euan al leijan diñade, eta lecuric altubenera; bada eregui euan Jesu Christoc Sacramentu izatera; aberastu euan bere vicitza, pasinoe, erijotza, eta odolen merecimentubacaz, eta eguin euan beragaz gracia, santidade, eta onoidade, edo virtutien iturri ugari bat. Orregaitic dei eguiten deutza S. Paulo Apostolubac: Sacramentu andija, bada dirautze Efesotarrari: Sacramentu andija da esconcia: nic dinot Jesu Christo, eta Elexiagan. (1) Ara cegaitic. Esconcia da Jesu Christo, eta Elexiaren batute, edo uninoiaren irudi bene benetaco bat. Emacume esconduten danac ichiten dituz bere gurasuac, batuten da bere senaragaz, eta bijac eguiten dira aragui bat. Auxe berau eguin euan Jesu Christoc bere Elexiagaz; bera artu euan bere esposa maitetzat, eta orregaitic, urtenic bere Aitagandic bat eguin zan beragaz, eta alan senarra emastien buru dana leguez, Jesu Christo da Elexien buru. Senarrac amadu biar dau emastia, Christoc Elexia maite dabena leguez. Emastiac obediu biar deutza senarrari, Elexiac Christori leguez. Orra celan esconzaco Sacramentu andija dan Jesu Christo, eta Elexiaren uninoe, edo batutien irudi bete betia. Esan daiquegu: Jesu Christo, eta Elexiaren artian daguala estu estu, eta ez inos alcargan-

(1) Ephes. c. 5 v. 32.

die alderatu, edo aparteteco batuten dituzan esconcia. Salvaguilia da Elexiaren esposo, Elexia barriz Jesu Christoren esposa, eta onetaraco diña izan cedin, garbitu evan, apaindu evan, edertu evan, eta aberastu evan, bere precijo bagaco odolagaz.

Beguiran beije oran esconduten dirianac, celaco devocinoe, celaco humiltasun, eta celaco garbitasunagaz, eldu biar dirian mirarizco Sacramentu au artutera. Benetan, Christinaubac, ezagutuco balitz biar dana leguez, Sacramentu au eztala chiquijago beste seirac baño, eztaucala indar guichijago gu santututeco bestiac baño, eztabela escatuten prestatasun, edo preparacinoe guichijago bestiac baño, deritzat, ez litzatequezala aibat Christinau elduco ain prestaera, ain ardura guichigaz, ain bildur santu guichigaz. Ezagutuco leuque, Sacramentu onec iraun biar dabela euren, edo euren lagunen vici-tziac dirauban artian, ecin inundic beraganic alderatu leitequezala, eta bein utz eguiten bada auquera, edo elec-cinoian, eztaguala atzera biurtuteric. Orregaitic escondunai dabenac, lenengo eguin biar daben gaucia da, erregutu Jaunari al daijan humiltasun, devocinoe, eta oracinoeric isijuenagaz, emon deijola bere escutic berari conveni jacon lagun bat, ceinec lagun deijon, ceruba irabasten, nogaz vici dedin baquian, Jaunaren bildur santuban, eta aci al daijezan jaijo daquijuezan semiac, Christinaubai dagoquijuen santidadian. Jaungoicua da bacarric emaste ona emoten dabena. Echiac, eta ondasunac datoz gurasuac gandic, baña emaste cinzua Jaungoicuagandic dator, dino Espiritu Santubac. (1)

Au eguingo balebe esconduten dirian gustijac, elitza-tequez venturaz aurquituco aibat esconza nequetsu, eli-

(1) Prov. cap. 19 vers. 14.

tzatequez icusico esconduben artian icusten dirian vicitza, errijeta, aserre, alcar ecin icusi, eta auciz betiac. Senarrac ezarten deutza erruba emastiari, emastiac senarrari, eta nai leuquee bata bestiagaz escondu ezpalira, erremedioric eztaguanian. Baña ez beijue batac bestiari erruric ezarri. Sartu cirian vici modu, edo estadu onetan ichumustuban, Jaunari escatu baga biar even lezco laguna; ez even beguiratu Sacramentu onen anditasun, eta santi-dadia; etzirian prestadu bera biar zana leguez arceco, eta orra cegaitic dauquen vicitza ain garratza. Eurena da erru gustija. Beguira bada, esconduten zarionoc, celan zarcen zarien esconzan; ifini zaiteze Jaunaren escubetan, erregutu eijozube vijotz oso osotic emon deizubela bere vorondateco lagun bat, eta zagoze seguru, escari au eguiten badozube biar dan moduban, zuben esconcia zorionezcua izango dala mundu onetan, eta berac eruango zaitubezala ceubec, eta ceuben semiac ceruco atzeguinctara. Amen.

### XXV. VERBALDIJA.

*Celaco gogo, edo intencinoia eruan biar dan esconzara.*

**E**ztan Christinau batec ecetan bere ardura andijagoric ifini biar, vici bide, edo estaduba autu, edo escogietian baño, onetanche doialaco bere betico condenacinoe, edo salvacinoia. Arcen badau dagoquijona, edo conveni jacona, zorionecua izango da mundu onetan, eta bestian; baña utz eguiten badau, bildur izan leiteque, eztabela gauza onic izango mundu onetan, ez bestian. Cembat escondu ete dagoz orain betico garretan erre, eta quisquilduten, ceinzuc izan balira Fraile, edo Monja, egongo ci-

rian ceruco gozatasunetan? Cembat Fraile, Monja, eta Abade ete dagoz infernuco ondarretan, ceinzue escondu balira, aurquituco cirian ceruban Jaungoicua arpeguiz arpegui icusten? Beguira bada, ce ardura andija ifini biar dan, vicimodu, edo estaduba arceian. Enaz oran zabalduco vicibide gustijetatic, bacarric esango dot esconduten dirianen ganian; bada izanic estadu au gueijenac artu oi dabeena, eta ez gustijac biar litzatequiana leguez; deritz, gustiz dala biarra esatera noian icasbide, edo doctrinia. Enaz gueratuco beguira, edo examinetan, conveni jaque i ala ez Matrimoninua esconduten dirian gustijai; autortu, edo concedidu nai dot gustijai dagoquijuela, edo conveni jaqueela escondutia; baña au ezta asco ondo escondute-co: beguiratu bere biar dau esconduten danae, ce gogo, edo intencinoe daroian esconzara, celan sareen dan esconzan, eta nogaz esconduten dan; bada onetan utz eguiten bada, bardin bardin da, cein da vicimodu, edo estaduben auquera, edo eleccinoian utz eguitia.

Iru dira, esconzara eruan al leitequezan gogo, edo intencinoe artezac, edo iru gauzagaitic norbait escondu leiteque. Lenengo: euquiterren noc lagundu deijon mundu onetan, edo nor izan daquijon bidelagun, vici onee dirauban artian, nogaz errazago eruan al daizan mundu onetaco neque, eta lanac, eta alcarregaz baque onian vicijagaz, alcar viztu deitezan Jaungoicua amadu, eta alabetara. Gogo, edo intencinoe au ona da, eta Jaunaren vorondatecua. Onetaracoxe eguin evan berac lenengo esconza munduban icusi zana. Ezta ondo, esan evan Paradisuban, (1) guizona bacarric egotia, emon deijogun bere irudico lagun bat; nun aguiri dan Jaungoicuae escondu cituzala gure lenengo guraso Adan, eta Eva, alcarri

---

(1) Genes. 2 v. 18.

lagundu eijuen. Bigarrenago: escondu leiteque aurquitu-  
teco esconzan, bere araguijaren argaltasunarenzat erre-  
medijua. Ezagututen dau batec gogor, eta crubelac diria-  
la araguijaren tentacinoiac; deritza ozta ozta goituco di-  
tuzala, esconduten ezpada; eta bildurturic, beragan da-  
cuzan pelleburubagaz, esconduten da naijago dabelaco  
escondu, pecatuban jausi baño. Ona da gogo, edo inten-  
cinoe au bere; bada da S. Paulo Apostolubac emonico  
itundute, edo consejuba. Garbitasuna zaindu ecin dabee-  
nac, escondu bediz, obe dalaco escondutia, erretia ba-  
ño. (1) Irugarrenago: escondu leiteque semiac euquiteco,  
ceinzuc ondo aciric izan deitezan Elexiaren seme onac,  
gueitu deiten Elexia mundu onetan, eta ceruba santuz be-  
te dedin. Auxe da S. Rafael Ainguerubac esan eutzana  
Tobias gastiar. (2) Artuco dozu emastetzat Sara, Rague-  
len alabia, ez ceure araguijaren gusto citalez asceteco go-  
guagaz, ezpada semiac euquiteco, euretan artuteco Abra-  
hanen bedecincacinoia. Iru gogo onexec, edo euretatic bat  
eruan biar dau esconzara, vicimodu au arcera doian gui-  
zon, edo emacumiac, nai badau artez sartu Matrimoni-  
nuan.

Eta cembat ete dira gogo, edo intencinoe onecaz es-  
conduten dirianac? Gustiz guichi, neure Christinaubac,  
gustiz guichi. Ezpabere, itandu eguijezube escondutera  
duazan gastiai: Cetaraco esconduten dirian? edo ce gogo  
daroién esconzara? Gueijenac eztabe jaquingo cer eran-  
zun. Eztaquije, ez Sacramentu onen santutasuna, ez ar-  
cen duazan carguiaren pisuba, ez vicimodu, edo estadu  
onetaco biar, edo obligacinoe andijac; ez Jaungoicvac  
esconzara dei eguiten deutzen, ala ez; verba baten, ichu-  
mustuban, eta beste asco esconduten dirialaco. Baña ba-

(1) Cor. 1 cap. 7 v. 9. (2) Tob. cap. 6 v. 22.

dagoz esconzara gogo, edo intencinoia daroienac, cer izan oi da gueijenena? Eguija esan gura badabe, edo ezpadira lotsa azaldu, edo espliquetan euren vijotzac, bitara dagoz laburturic euren gogo, edo intencinoiac. Batzue esconduten dira, escongueija aberatsa dalaco, eta beste batzue euren araguijen gurariz aseterren. Gauza bi onexegaitic eguiten oi dira esconzaric gustiz asco, gueijenac ez esaterren. Lenenguan gurasuac euqui oi dabe eruric gueijena. Aberatsa da? ondasun eta hacienda zabalén jauve da? Dote ona dauca? Asco da; ezta gueijago biar. Dote onegaz urtengo dogu gucure estura, eta preminetatic; euquico dogu cegaz vici moduba emon beste semiai; eta gustijoc ondo gueratuco gara. Hacienda onera dua alabia, ondo bicico da, eta gustijoenzat da ona esconza au. Contu oneec atera ezquero, ezta beguiratuten beste gauzaric, ez celacua dan escongueija, ez ecandu citalic badauca, ez Christinau ona dan, ala ez, biargin, eta arduratsuba ala ez, alcarganaeo badira ala ez; baquian vicico dirian ala ez: Verba baten, etzaco beguiratuten ecctambere, ez Jaungoicuari, ez esconduco dannen arimiari.

Eta cembat gach eztatoz esconza onelacuetatic? Urteten dau guizonac alper, ordi, jocalari, edo beste ecandu citalez betiac; eta orra nun uste zanian, zabal, ugarri, eta zorion artian gustijac vicico ciriala, eztaunquen cer jan, cer janci, ez cegaz aci euren umiac; gustija darua jocuac, ardauc, eta beste ecandu citalac. Beste aldetic, urteten dau emastiac alperrac, naguijac, ardura guichicuac, eta governu baguiac, eta onezaz ostian arroquerija, edo sobervijaz betiac, min lucecuac, aguiracari, eta irritubac; eta orra nun, araeo bere dotia gaitic uste zana; gustijac ondo ifinteco izango zala, gustijac erre-

dijetaco; gustijen atzacaba, eta nai baguia dan. Emastiac dino: Nie dote ederra ecarri neban, euqui baneu senar sinzo, biarguin, eta arduratsu bat, eninzan egongo orain daucadan neque, pobreza, eta uztazunian. Senarrac barriz dino: Ezta ain laburra nire haciendia; asco, eta asco vici dira gustiz zabal, eta ondo guichijagogaz; nire emastia balitz beste ascoren gobernucua, ezpaleu aimbeste biar, edo aimbeste gastaduco ezpaleu, eninzateque egongo ain estura andijan. Cer nai dozube izan dedin eche au, ezpada aserria, aguiraquia, errietia, diadarra, eta maldicinoia? Ce alcarganaco amodijo euqui leije escondu bi oneec? Ce baque aurquitu leiteque oncen bijoen artian? Onelacoxiac, edo venturaz deungaguac urten oi dabe esconzac, eurac eguiteco ondasunac baño beguiratuten eztirianian. Eztinot, Christinaubac, etzaquela beguiratu biar ondasunai esconcetan. Ondo, eta gustiz ondo da beguiratutia, ce hacienda, eta vicimodu, edo irabaci daucan guizonac, ce dote dacarren emacumiac, euqui daijen cegaz vici, cegaz jaso Matrimoninoco cargac, cegaz aci euren umiac. Dinodana da, ez jaqueela beguiratu biar ondasunai bacarric, jaramonic eguin бага, jaquiteco celacua dan escongucija, ona, baquetsuba, bestiagaz ondo vicico bada. Au jaquin ezquero, dator ondo ondasunacgaiti beguiratutia.

Aimbeste gach badacarz, ondasunacgaitic bacarric escondutiac, ce icaragarrijac eztira izango araguijaren gurari citalez aseterren escondutiac dacarzanac? Jaquin nai badozubez, enzuzube S. Rafael Ainguerubac Tobias santubari cirautzana. (1) Badaquizu, esan eutzan, norzuben ganian daucan demoninuac escubidia? Araco euren gurari loiz aseterren zaldi, manduac leguez esconduten

(1) Tob. 6 v. 17.

dirianen ganian. Auxegaitic il cituzan Asmodeo eitzön demoninuac, Sarac Tobias baño leenago enqui cituzan zaspi senarrac. Ederra zan Sara, edertasun onec ichutu cituzan. Ez even eruan esconzara beste gogoric, bere edertasunagaz euren araguijen gurarijac asetia baño: orregaitic il cituzan zaspirac, bacotza escondu zan gabian. Cembat onelaco esconza eguin oi ete dira Christinauben ar.ian? Eztacuzcu, orduban eguin zan castigoric: baño ce bildur izatecua dan, oneen arimetan jazoten dala, areen gorputzetan icusi zana; gorputz vicijan darabilela arima il, eta atsitu bat; eta eztabeela euquico atseguin, ez zorionic mundu onetan, ez bestian. Baderitzube laarregui dinodala, beguiratu eizube cer jazo oi dan onelacuacaz, eta ezagutuco dozube, eztaguala onetan larreguiric. Dacuzt, ecin gauza oneec azaldu, edo esplicadu leitequezala lecu oni dagoquijon garbitasun gustijagaz, eta orregaitic poz pozic isilic ichico neuque: baño dacuzt beste aldetic, asco jausten diriala demoninuaren laquijo onetan; eta alan gustiz dala biar curac arguitara ateratia, gustijac icusi daguijczan. Au eguingo dot aldaidan garbitasun gustijagaz.

Nai leuque onelaco batec escondu, eta joten dau beguiz berari d ritzan nescatila bat. Eztau onetan beguiratuco celacua dan, biarguina, baquetzuba, Christinau ona, eta ondo viciteco biar dabena lescua, bada daroian gogoraco onelacoric biar ez izanic, eztau onetara beguiratuten. Artuten dituz aldaizan modubac bere adisquide izateco. Bein eguin ezquero, beti dabil nundic nora bera icusico daben, celan beragaz verba eguin leiquian, eta celan beragaz luzaro egon leitequian. Lenenguan euqui leique lotsa puscarembat, bere gogua bestiari esateco; baño celan doian acijagaz adisquidetasuna, dua guichitu-



bagaz lotsia, eta bildurra. Dirautza bada beragaz escondu nai leuquiala. Ondo deritzo bestiari, eta emoten deutze alcarri verbia, Jaungoicuari erregutu baga, gurasuai esan baga, eta beste biar leitequian prestaera, edo disposicinoe baga. Emetie aurrera beti dabilz alcarregaz. Erromerijarie bada batera duaz, batera dabilz, eta batera datoz: fiesta edo jolacie bada, an dira batera. Alcarregaz ibili, alcarregaz danza, alcarregaz verba. Ecin bata bestia baga egon dira. Egunerie egunera arcen dau indar andijagua euren vijotzian daguan infernuco su ciquinac, egunerie egunera guichituten da alcarganaco lotza, eta bildurra. Noe esan leiquez oneen arteco pecatu gustijac? Ce pensamentu loijac? Ce verba ciquinac? Ce loiquerija lotzagarrijac? Eta deritzube, dempora lucian egongo diriala osoric? Noe esango dau, amuco, edo lino sicuba egon leitequiala subaren onduan erre, eta autz biurtu baga? Elduten dira asquenera, eta eguiten dabe alcarregaz, escondubac baño ecin eguin leijena.

Errazago eldu deitezcan onetara, eta pecatu onetan irauñ daijen, demoninuac ifini oi deutze ascori laquijo galgarri bat. Sinistu erasoten deutze, bein esconzaco verbia emon ezquero, eta esconduteco vorondatia badauque, alcarrenac diriala, eta nai dabecen gustija leijela esconduric balegoz leguez. Dirautze alcarri: gu Jaungoicuaren aurrian esconduric gagoz, eta onegaz dabilz alcarregaz zaldi manduac leguez, sarturic aoraguino loiquerijarie lotzagarrijenetan. Jaquin beguije abere sensun baga onec, jaquin beguije esconguei gustijac, ezteutzela esconzaco verbiac emoten bestien gorputzen ganian escubiderie, eta eureen artian euqui daijezan pensamentu, edo gurari, verba loi, eta beste edoceimbere loiquerija, ain diriala pecatu mortal, cein da leenago. Modu onetan escondu aur-

rian vici dirianac badinue bere, eztaunquezala pecatutzat  
ciquinquerija oneec, ecin sinistu leijue; bada eguija esan  
nai badabe, euren vijotzian sentietan ditubeez euren con-  
ciencijaco aarraren aguincada erubelac, eta guichienez  
pecatu ete dirianen bildurra; baña ichutu, eta gorturic  
araguijaren gurarijacaz, eztabe itandu gura, eztabe ja-  
quin nai, aurrera eruaterren euren citalquerijac. Oneexec  
izan oi dira Matrimoninoco Sacramentura onelaco escon-  
gueijac eruan oi ditubezan prestaera, edo disposicioiac.  
Ce zorion icharon leiteque onelaco esconcetatic? Obeto  
sinistuco neuque, eztabeela egun, ez gauza onic euquico.  
Icusi daigun, cer jazo oi dan, eta ezagutuco da, eguija  
badinot, ala ez.

Elduten da aimbat nai izan dabeen eguna, eta escon-  
duten dira. Dempora guichi barru dacuzez bata bestien  
utsune, edo faltac, ceinzubec etzitubezan leenago ezagu-  
tu, amodijo zoruac ichuturic eucazalaco. Aguertuten da  
bataren arroquerija, edo sobervija, eta bestiaren genijo  
erria. Dacuz senatrac, eztabela urten emastiac, berac uste  
evan lezcuac; eucala biarguin, arduratsu, otzan, edo  
mansotzat; baña dala nagui, ganora baga, eta ichija, eta  
gustijen ganian aserre, eta irrituba. Deritza emastiari, se-  
narrac engañadu evala, bada esconduteco eguanian milla  
bidar esan eutzala ondo, eta baquian vicico ziriala; beti  
beti asco guraco eutzala; baña orain seguru daucanian,  
ez bacarric eztabela jaoten orduco verbia, ezpada dala  
beragaz gogorra, eta orrezaz ostian eztabela ecer eguin  
gura, echera biar dana ecarteco; alper andi bat dala, ar-  
dura baguia; uxala inos ezagutu, eta icusi ecpaleu; beste  
bategaz escondu balitz, falta ez jacona leguez, beste vici  
moduric euquico evala. Onegaz amateetan da alcarri lee-  
nago cutzeen amodijo erua. Sarcen da bere ordez gorro-

toric andijena, eta ecin alcar icusi dabee. Eztericho batarri ondo bestiac eguiten daben gauzari. Biar, premina, pobreza, edo ez euquijac estututen badituz, gustija da batac bestiari erruba ezartia. Beti jaocuz Confesunarijuan esaten: Ay Jauna; Jaungoicuac emon euztan senar bat, ain alperra, ain ardura guichicua, ce ezteuzt ecetambere lagunduten; eta alan nic eguin al daidan gustija, etzat elduten neuc, eta neure umiac biar doguneraco; orregaitic eztaquit cer eguin. Senarrac barriz: Daucat, Jaungoicuac emonico emaste bat, ain irrituba, ain aserria, ain min lucecua, ce ecin beragaz vici leiteque. Verbachu bat badinot bertatic aserratuten jaca; echetic campora puscachubat banago, sugue bat dirudi; ecin inundic isildu leiteque, ecin beragaz baqueric euqui dogu, ez neuc, ez neure semiac. Auxe izan oi da onelaco esconduben betico cantia. Baña, batac, eta bestiac dinue guzurra. Ez, ez, ezeutzun Jaungoicuac emon senar ori, ez emaste ori; ceuc artu cenduban berari itandu baga, berari erregutu baga. Cer nai cenduban etorri eiquezun zure bide bagaco esconzatic? Eztozu euquico gacha, nequia, eta lana baño. Badaquizu cegaitic? Errazua bigaitic. Ara lenengua.

Sacramentu gustijac emoten dabe gracia berezco, edo particular bat, ondo bete, edo cumpletaco bere bitartez artuten dirian biar, edo obligacinoiac. Matrimoninoco Sacramentubac emoten dau gracia berezco, edo particular bat, ceinee emoten deutzen esconduten dirianai indarra, cruateco Sacramentu onec ifinten deutzezan carga, edo obligacinoiac. Ain dira astunac, ain pisutsubac oneec, ce esconzaco Sacramentubac emongo ezpaleu eurac jasoteco biar dan gracia, eta indarra, nequez aurquituco litzateque, eurac eruan aldaizanic. Baña Matrimoninoco Sacramentubac indar, eta gracia emoteco, Jaungoicua,

ren adisquide izan biar dira, esconduten dirianac; bada pecatu mortalian badagoz, ez bacarric ezteutze emongo gracia, ezpada eguingo dabe beste pecatu mortal bat. Orain bada, celan cengozan escondu cinianian? Etzengozan beguijetaraño sarturic ceure escongueijagaz loiquerijaric lotzagarrijetan? Etzengozan alde gustijetatic erre, eta quisquilduric infernuco amodijo ciquinen su vicijan? Celan bada nai ceunque, emon eizun esconzaco Sacramentubac bere gracia, pecatuz inguiraturic eldu bacinian bera arceca? Jauna, confesadu ninzan: eranzungo dozu venturaz: Jauna, confesadu ninzan. Ondo: eta confesadu cinian biar cenduban moduban? Ichi cenduzan ceure gurari cital gustijac? Euqui cenduban bene benetaco damuba, eta gogarte, edo propositu sendua? Ezta erraz neure Christinaubac, ezta erraz, norbait gusto citaletan sarturic daguanian, euren damu benetacua artutia, eta gustiz da gachago euquitia, eurac izteco gogo, edo proposituba dempora atan. Obeto sinistu leiteque, damu, eta propositu baga confesadu ciniala, eta orregaitic esconzaco Sacramentubac, bere gracia, eta indarrac emon biarrian, pecatu mortal barri bat ezarri cendubala leenguen ganian. Ce mirari, bada, ain vici donguia iragotia, baqueric ez euquitia, alcar ecin icustia, eta chacur catubac leguez beti egotia, Sacramentubaren gracia baga escondu bacinian? Bada esan leiteque, etzenduzala Jaungoieucac batu, demoninuac baño.

Bigarren errazoe, cegaitic onelacuac baqueric eztauen da, gustiz gach izatia escondu baño leenago, biar ezeben amodijua, euqui evenac, euquitia biar dabena escondu ezquero. Cegaitic dagoz aimbeste esconza amodijo baga? Dagozalaco aimbeste amodijo esconza baga. Onelaco ascori jazoten jaque, janarijagaz jazo oi dana. Gui-

zon batec dauca gose andi bat, ifinten deutze gustiz zale dan jateco bat; dauca gose andijagaz jaten dau ase ase artian ain zale dan jateco au; baña cer jazoten jaca? Palaguetan dau, eta andie aurrera ecin icusi bere dau leen ain zale zan gaucia. Badaquizube cer esan gura dodan.

### *Erasoguinza.*

Ain dira andijac, esconciac dacarzan biar, edo obligacinoiac, ce artu arren bere Sacramentu au biar dana leguez, gustiz da gach, eurac ondo bete, edo cumpletia. Orregaitic cinuan S. Paulo Apostolubac gauza ona da esconcia, eta ondo eguiten dau esconduten danac; baña etzaco onelacuari faltaco lana, eta nequia. (1) Cer izango da bada araco esconzara bide oquerretic sarcen dirianacaz? Cer icharon leiquijee peccatu mortalez beteric elduten dirianac Sacramentu au artutera? Infernu bat mundu onetan, eta beste bat bestian. Onelaco gauzaric jazo eztaquizuben, beguira cer eguiten dozuben escondu baño leenago. Eci eguizube ceuben araguija, eta aleguina eguizube garbiric, eta osoric elduteco Sacramentu onetara; bada bestelan gach da biar dan garbitasuna jaotia. Jaquin eguizube, esconduben artian icusten badira aimbat aserre, aimbat errijeta, eta aimbat escandalu, eztaquela gueijenac beste sustrairic, ezpada ez artutia Sacramentu au biar dan intencinoiagaz. Eta venturaz artu bacenduban ceuben loiquerija artian cengozala, bildur izan cinaitquez, confesadu bacinian bere etzendubala euqui benetaco peccatuben damuric, eta orregaitic etzendubala artu berac emoten daben gracija. Barristadu eguizu bada confesinoe a, eta humiltasunic andijenagaz, ceure vijotzeco

(1) 1 Cor. cap. 7 v. 28.

damubagaz, erregutu eijozu Jaunari, arren emon deizula, orduban ceure erruz artu etzenduban gracia, eta esconzaco carga astuna eruateco indarra; venturaz erruquituric Jaunac emongo deutzu gracia au, eta beragaz beteco dira orduban equi cenduzan utzune, edo faltac, vici zaitez an baquian emastiagaz, edo senarragaz, aci daizuzan semiac Jaungoicuaren bildur santuban, eta viciric gustijoc Jaunac agvinduten deutzuben moduban, elduco zare arcera ceuben obra onen sarija ceruban. Amen.

### XXVI. VERBALDIYA.

*Escondubac alcarganaco dauquezan biar, edo obligacinoien ganian.*

**E**ztago munduban, obeto dirudijan gauzaric senar emaste alcarregaz baquian vici, eta batac bestia lastan dabecnac baño. Au icustian, daucala bere poz gustija, dino Jaquinsubac, eta dala Jaungoico, eta guizonen gogocua. (1) Aleguin gustija eguin biar dabec escondubac baque au, inosbere urratubaga jaoteco, eta amodijo au inosbere amatadu baga isioric equiteco. Au eguingo da, baetzac bcte, edo cumplidubagaz dagoquijozan biar, edo obligacinoiac; senarrac beriac, eta emastiac beriac. Oncexec azaldu, edo esplicadueo dodaz gaureo verbaldi edo Platican, eta esango dot, norc pecatu eguiten dab en euren contra. Lenengo esango ditudaz senarrarenac, eta guero emastiarenac. Bijenac ifinten deuzebez S. Pedro, eta S. Paulo Apostolubac. S. Pedroc dirautze senarrai: (2) Guizonac, vici zaitece ceuben emastiacaz baquian, euraegandic alderatu baga. Jaquin biar dozube onechu,

(1) Eccl. 25 v. 2. (2) 1 Petr. cap. 3 v. 1 et seq.

edo vasochu argalac diriala, eta alan honradu eguizubez. S. Paulo Apostolubac dirautze: (1) Guizonac, amadu eguizubez ceuben emastiac, Jesu Christoc bere Elexia maitetuten dabena leguez. Nai dozube jaquin, noraino eldu zan Salvaguiaren bere Elexiaganaco amodijua? Ara bada. Emon zan erijotzaric gogor, eta crubelenera, bera santututeren; garbitu evan bere odolagaz, izan cedin doatsuba, orban, chimur, eta loitasun chiquijenic baguia, ezpada gustija ederra, gustija santuba, eta gustija arguija. Modu onetanche bada maitetu biar ditubez senarrac bere euren emastiac; bada dira euren gorputz. Bere emastia lastan dabena, bere buruba dau lastan. Ezteutza inoc bere araguijari gorrotoric, ezpada emoten deutza janari, eta beste biar dabena gustija; auxe berau eguin biar dau senarrac emastiagaz, bera dalaco bere gorputzen gorputz, bere araguijaren aragui, eta bere azurren azur. Orregaitic ichico dituz guizonac gurasuac, batuco da emastiagaz, eta izango dira bi aragui baten. Orregaitic senar bacotzac amadu beique bere emastia, bere aragui leguez. Ara emen celaco amodijo vicijagaz lastan izan biar dabena senarrac emastia.

Modu ascotan pecatu eguin leique senarrac, Apostolu andi bi oneec emonico icasbide, edo doctriniaren contra. Lenengo: eguingo dau pecatu mortal, deshonetan hadau bere emastia verbaz, edo obraz. Verbaz, dei eguiten deutzala, ordija, lapurra, urdia, charrija, sorguina, edo onelaco deicune deshongarrija, au eguiten badau aserre, eta atzacabe emoteco gogo, eta ustiagaz. Eguitez, edo obraz; emoten deutzazala ucabilcada, osticada, maquilacada, edo azotiac, eche, eta auzotegui gustija errebolbidu, eta escandalicetan dabela. Bardin, eguingo dau

(1) Ephs. 5 v. 25.

pecatu, bere emastia echetic campora botaten badau. Bigarrenengo: eguingo dau pecatu, bere emastiari ichi nai ezpadeutza. Jaungoicuaren leguia jaoten, galazoten deutzala jaijegunian meza enzutia, Elexiac aguinduten dabenian Confesetia, comulguetia, baru eguitia, eta amarren primicijac paguetia. Baita bere, eguingo dau pecatu, ichiten ezpadeutza noxian bein confesadu, eta comulguetan; edo mecia enzuten astegunian, bere cereguinetara faltatzaca, ez beste gauzagaitic; ezpada goguae emoten ezteutzalaco. Irugarrenengo: bere emaste, eta umiai janari, eta beste biar dabeena emoten ezteutzanac, edo bere naguitasun, eta alperquerijagaitic biarric eguin nai eztabelaco; edo irabasten dabena taberna, joco, jan, edan, eta beste guestaquerijetaraco nai dabelaco, ecer emon gura бага emastiari, cegaz jan, eta janci bera, eta bere semiac. Bardin; eguiten dabe pecatu, eche, solo, mendi, eta beste haciendac dauquezanac, artuten ezpadabe arduraric, curac onian equi, eta curac emoten daben errentia, eta laboria batzeco; eztauquela orregaitic, cer janci eurac, euren emastiac, eta umiac. Baita bere; eguiten dabe pecatu, araco guizon cequen, eta mizquin euren emaste, eta umiac biarren biarren ditubezan gauzetaraco lauzuri emon gura eztabeenac. Dauquecz ondasun ugarijac, baña ain dauquecz itzatziric vijotzari, ce ecin inundic bere atera leijue ecer. Uste dabe edoceimbere gauzatan, nai janian, nai edanian, nai bere seme, edo emastien biarren dirian gauzetan, laarregui gastetan dala, eta naijago leuquee echeco gustijac gosiac ilic, erdi billoxie, eta alsiz janciric ieusi, euren polsia guichituric baño.

Irugarrenengo: eguiten dau pecatu, bere emastiagaz vici nai eztabenac, ez beste gauza gaitic, ezpada berac nai leuquian lezco genijua eztaucalaco, edo estuba dalaco,



edo beragaz aserratu oi dalaco, edo naijago dabelaco baccarie, eta bera baga vici. Bardin; eguiten dau pecatu, dempora lucian echetic campora dabilenac, biar, edo premina, edo beste cer eguinic baga, eta bacarric ibilguria dalaco, emastiac nai eztabela. Baita bere; eguiten dau pecatu, bere emastiagaz oe bat, eta mai bat eztaucanac, onetan adi erasoten dabela, eztaguala gustiz ondo beragaz. Laugarrengo: lagun guesto, eta emacume izen charreucacaz dabilenac; buruera, eta sospecha charrac arceco bidia emoten deutzala bere emastiari; jaquinic nabague andija emoten deutzala onegaz. Bostgarrengo: fundamentu bagaco celuac daucazanac beragaitic, burubaco bildurra daucala, eta ichiten ezteutzala echetic urteten; eta ozta ozta Elexara juaten bere; eta vicitza donguia emoten deutzala, edonagaz verbetan icusi dabelaco, eta beti daguala bere celataca. Azquenez: eguiten dau pecatu mortal senarrac, icusiric, biar dan baño gueijago gasetetan dabela emastiac, jan, edan, janci, eta beste eraquerijetan; galazoten ezpadeutza: baita bere jaquinic eheco governuben jaramonic eguiten eztabela, ardura artu erasoten ezpadeutza, ichiten deutzala, burubac emon deijon gustija eguiten. Jaquin begui senarrac, bera dala eheco buru, eta naguci, eta berari dagoquijola lenengo ehecucuai biar dabeena emotia, eta ecin ichi leiquiala dongarogalcan, eurenzat biar dana; eta emastiac ezpadarua onzat, obe da egun batzobetaco aserre, edo moztasuna irago, echian biar dana charto galdu baño.

Icusiric senarren biar, edo obligacinoiac, icusi daguiguzan emastiarenac. S. Paulo Apostolubac dirautze onei. (1) Jaquin eguizube, emastiac, senarra dala emastiafen buru, edo nagusi, Jesu Christo dana leguez Ele-

(1) Eph. 5 v. 23.

xiaren buru, edo nagusi; eta alan, egon biar zare senarren aguindura, Elexia Jesu Christoren aguindura daguana leguez. S. Pedro Apostolubac dirautze: (1) Emastiac, obediu eijezube senarra; badago euren artian, Jaungoicuarren verba, dei, eta sermoiai jaramonic eguiten ezteutzanic, irabaci, eta ondu deitezan zuben vici, eta oitura, edo costumbre santubacaz. Onetaraco etzaitez necatu ulia laarregui apainduten, etzaitez urrez, eta soñeco valijosuacaz janci. Apaindu zaiteze ceuben barruban, edertu eguizube ceuben arimia, baque, otzantasun, biguntasun, eta beste onoidade, edo virtutiacaz. Auxe da Jaungoicuac nai daben edertasuna. Alainche eguin oijeben anchinaco emacume santubac: beti egozan euren senarren aguindura. Sarac, noren zaren alabac, auxe berau eguin evan; beti obediu eutzan Abrahami, eta honradu oijeban dei eguiten eutzala Jauna. Badaquizube emastiac, cer esan nai deutzuben icasbide onetan S. Pedro Apostolubac? Ara bada. Contu eguizube dirautzubela: Emastiac, nai dozubez irabaci ceuben senarren bijotzac? gura dozubee amadu zaijezan, honradu zaijezan, asco estimadu zaijezan, eta zubezac baquian vici, eta pozic euqui zaijezan? Bada ez eguizube uste, onegaz urteteco moduba dala, ulia quiscurtu, eta urrezco sereniz apaindutia, ez soñeco eder zoragarritz jancitia. Onec eztitubez zuben senarrac poztuten, eztabe euren zubeceanaco amodijo benetacua isioten, ezta berotuten bere. Izan zaitece humilac, obedizaile, edo obedientiac, otzan, bigun, edo mansuac, isilac, baquetsuac, echecho gaucen arduratsubac, biarguinac, lotzorrac, echezaliac; virtute onexecaz irabacico dituzubez ceuben senarren gogo, eta vorondatiac: eguingo dozube euracaz, nai dozuben gustiya, vicico zare euracaz baque onian,

(1) 1 Pet. ubi sup.

eta izango jatzube arina matrimoninoco bustarrija.

Modu ascotan pecatu eguin leique emastiac, bere senarrari zor deutzan obediencia onen contra. Lenengo: eguiten dau pecatu, obediu nai ezteutzanian senarrari, biar dan gauzaren bat aguinduten deutzanian, semien aciquera, eheco governu, ondasun, edo hacienda, edo beste gauza nagusi, edo graveren baten ganian. Bigarren: biar dan baño gueijago gastetan dabenian, jan, edan, janci, edo bestiac baño guichijago. ez izaterren; eheco errentac, edo dauquen irabaciac emon al leijena baño gueijago gastetan badau, onetaraco zor barriac eguiten dituzala, leenac paguetaco arduraric artu baga. Jauna, esango dau batec, icusi dau senarrac nire jancia, baño ezteutz inos ecer esan. Eta cergaitic? batzubetan, bere isilic eguiten dozulaco. Ezteutzazu diruric escatuten, baño zalcen dozu garija, artua, eta echeraco biar dirian beste gauza asco, berac jaquin baga; eta berac ecer eztaquijana leguez, ezteutzu ecer esaten. Beste batzubetan, ezteutzu galazoten, ez onzat daruazalaco biar eztirian burubagaco gastu orrec; czpada dazaubalaco zure sobervija, buruerechija, eta zure aserria; eta cerbait esango baleu, eche gustija goicuz bera erabilico ceunquiana: eta orregaitic naijago dau isilic egon, errijetia izan dedin baño. Irugarren: bere senarra guichitan euqui, edo desprecietan dabennac, arroturic dote andija ecarri evalaco, edo dauquen hacienda beria dalaco, edo senarra bera baño odol, eche, edo guraso chiquijagocua dalaco. Pecatu mortal eguiten dau, bere senarrari burla, eta barre eguiten deutzan emastiac, zarra dalaco, beguibacotza, errena, edo besobacotza dalaco, arpeguijan emoten deutzazala utzune, edo tacha oneec, edo besteren batzuc, eta eurac esanagaz lotzatuten dabela.

Laugarrenago: senarrac aguindu arren echian egon deila, eche, eta ehecuen ardurria euqui daijala, obedi gura ezteutzanac; naijago dabela ibili erromerijarie erromerija, fiestarie fiesta, echeric eche, eta Elexarie Elexa. Senarrac aguinduten badau echian egoteco, echian egon; aguinduten badau, astegunian meza enzutera ez juateco, ez juan; aguinduten badau meza enzun, eta bertatic eche- ra etorteco, bertatic etorri. Ez beije uste emastiac, devocinoe ona, eta Jaungoicuaren gogo, eta vorondatecua da- la gox gustija Elexan, eta mezac enzuten emotia, eche- cereguinac asturic. Ez ez, ezta au Jaungoicuac nai dabe- na, au demoninuaren asmuba da, echia modu baga, noc beguiratu baga egon dedin. Echecoanra batenzat asco da meza bat enzun, eta altarac visitetia, al badai, eta eche- ra, barriquetan ibili baga. Bostgarrenago: eguiten dau pe- catu mortal emaste bere naguitasun, eta alperquerijagaitic eheco guilzac, euren beian daguan gustija, eta eche- ardura gustijac, otseguin, edo crijaduben escubetan ifin- ten dituzanac; jaquinic, au estaruala onzat senarrac. Ja- quin beguije ehecoandrac eztiriala otzein, edo crijadu gustijac biar leuquien lezco leijalac, eta gus.iz guichi aurquituco ditubezala, eurac lezco arduria ifinico da- beenac; eta orregaitic, eztala echia inos ondo ibilico gus- tija badabil otseinen escubetan. Seigarrenago: eguiten dau pecatu, bere senarragaz temosa, porfiada, barrichu, eta beriagaz urteten zalia bada; beti beti beragaz errijetan daguala, orregaitic aserratuten dabela, eta birao, mada- ricacinoe, eta añenino urtica ifinten dabela. Baita bere, eguiten dau pecatu, bere senarrari verba astun, eta gar- ratzac esaten deutzazanac, dei eguiten deutzala, ordija, lapurra, charrija, alperra; eta gueijago, ezcubac ezarten badeutzaz, edo atzamarca eguiten badeutza.

Zaspigarrengo: eguiten dau pecatu bide bagaco ce-  
luac daucazanac, eta uste dabenac senarrac galcen deu-  
tzala zor deutzan leijaltasuna. Onetara elduten dan emas-  
tia, gustiz da bildurgarrija. Uste dau bere senarra pausu  
deunguetan dabilela. Eta cegaitic? emacumeren bategaz  
verbaz dacuzalaco, echeren baten sarcen icusten dabela-  
co. Onetara eldu ezquero emastia, eztago baqueric echian,  
eta deunguen dana, edonori esan oi deutzaz bere buruta-  
sun gustijac, modu onetan quencen deutzala honria, ez  
bacarric senarrari, baita bere araco emacume nogaz ver-  
baz, edo noren echian sarcen icusi daben euren senarra.  
Bein senar emastien bijotzian sarcen bada gach au, infer-  
nubaren irudi vici vicija izango da euren echia. Orregai-  
tic, nai badabe baquian vici ez beijue zarreraric emon eu-  
ren vijotzian infernucac aci onì; baña ez beijue bere emon  
alcarri sospechagarriric. Azquenez eguiten dau pecatu  
emastiac, senarragaz euqui daben verbaren bat gaitic,  
aserre, errijeta, edo beste edoceimbere gauzaren bat gai-  
tic, igues eguiten badau bere echetic, eta badua guraso,  
senide, edo beste batzucgana. Gurasuac eta beste  
aide echian artu, eta dauquenac bere, pecatu eguingo da-  
be, bide bagaco erruquijagaz euren echian badauque, eta  
aleguina eguiten ezpadabe bere senarragana biurtu dedin.  
Baita bere, eguiten dau pecatu bere senarrari beste eche,  
edo erri batera aldatuten danian, jarraitu nai ezteutza-  
nac. Esateraco; deritza senarrari, beste erribaten obeto  
irabacico dabela bere officijuan, edo baque obian vicico  
dala, baña emastiac eztau beragaz juañ nai, edo bere gu-  
rasuacgandic ez alderatu, edo apartetarren, edo erri ari  
ondo ezteritzolaco, edo beste onelaco burueraren bat  
gaitic.

*Erasoguinja.*

Icusi dozubez, escondubac, ceuben biar, edo obliga-

cinoiac. Icusi dozu senarra celan amadu, eta gozatu biar dozun ceure emastia. Icusi dozu emastia, celan obediu biar deutzazun ceure senarrari. Badacuzcuz aibat esconza, aibat senar emaste baque baga, beti errijetan, beti aserreric, ezta beste gauzagaitic, ezpada jaon gura eztabelaco bacotzac Apostolu andi bijac emonico icasbide, edo doctrinia. Emastiac gura leuque senarrac amadu daijan, Apostolubac aguinduten daben moduban; baña ezteutza obediu nai senarrari, Apostolubac aguinduten deutzana leguez. Senarrac nai leuque, emastia bere aguindura egon dedin, Apostolubac dinuana leguez; baña ezta berac emastia amadu nai, Apostolu beronec aguinduten deutzana leguez. Emastiac gomuta dau, senarrac zor deutzan amodijua, eta dauca asturic, senarrari berac zor deutzan obediencia. Senarrac barriz goguan dauca emastiac biar deutzan obediencia, eta astuten dau, berac emastiar biar deutzan amodijua. Orra nundic datoza senar emastien arteco aserre, errijeta, aguiraca, eta alcar ecin icusi gustijac.

Eztabere: icusi daigun, nundic datoza aserre onec, eta aguirico da dinodana: Senarrac beti botaten deutzan eheco errijeta, eta aguiraca gustijen erruba emastiar. Jauna, dino, dauca emaste bat ain temosia, ain min luccua, ain arrabijosia, ce neure arimia galdu erasoten deutz. Eztaqui cer eguin berragaz urteterren. Nic, esan, nai ez esan, bardin bardin da, ezteuzt eceren jaramonic eguiten. Nic cerbait esan orduco, bertatic abijetan da diadarrez, aora datorquijon gustija esaten deutz, eta ain modutan arrabijau erasoten deutz, ce batzabetan eztaquit cer eguingo neusquijon. Auxegaitic gagoz beti errijetan. Baña esan eguidazu: badeutzazu zuc emastiar biar deutzazun amodijua? Cerbait aguindu biar deutzazunian,

izaten oi da biguntasun, ontasun, eta lagun maite dan bati, esan oi jacana leguez, ala crijada bati aguinduco ceuz quijon gogortasun, iluntasun, eta latztasunagaz? Itar bequijo zure emastiari; berac esango dau, ain zariala gogorra, ain garratza, ce eguinalac eguin arren, ecin inundic bere arteric artu leiquezula. Gauzaric chiquijenagaitic, utzune, edo faltaric apurrenagaitic, diadarrez, aguiraca, eta biraoca abijetan zariala, eta aldaizan modubac artuta bere, ecin zugaz baqueric euqui al leiquiala. Orra nun aguiri dan eche ascotaco aserre, eta baqueeza datorrela, bacotzac nai dabelaco, bestiac dagoquijona eguin daijan, berac eguin baga berari dagoquijona.

Senarra, gura dozu zure emastiac obediu deizun Elexiac Jesu Christori leguez? Bada amadu eguizu emastia, Jesu Christoc Elexia leguez; dirautzu S. Juan Chrisostomoc. (1) Euqui eguizu beragaz, Jesu Christoc Elexiagaz daucan arduria, emon eguijozu biar daben, eta zuc aldaizun gustija. Utzune, edo faltaren bat badacutzu beragan, isilic irago al deina bada, ichi eguizu bertan beera; emendadu biar bada, eguizu biguntasun, amodijo, eta malso-tasun, edo mansedumbre gustijagaz. Esan eguidazu, emongo baleu guizon batec estropezu bat, eta orregaitic jaguico balitz oñaren contra, joco baleu, aguiraca abijauco balitz bere contra, eta birao, añenino, eta maldicinoc urtica ifinico balitz, etzeunque esango zoratu jacala guizon ari? Auxe berau eguiten dozu bada, araco aguiraca, diadarrez, eta birao urtica abijetan zarianian, ceure emastiac euqui daben arduraez, edo descuidoren bat gaiti. Zure emaste da, zure gorputzaren parte, zure araguijaren aragui, eta azurraren azur. Cegaitic bada, abijaduco zara ceure alde orren contra, aguiraca, diadarrez, eta ventu-

(1) Chris. hom. 25 in 4 ad Efes.

raz joten? Au ezta euquitia emastiari, Jesu Christoc Elexiari deutzan amodijua. Ez eguizu inos astu Arimazain, edo Cura Jaunac esan eutzuna prementadu ezquero, ceuré emastia emon eutzunian. Laguna emoten deutzut, ez mempeco, edo esclavia. Amadu eguizu, Jesu Christoc Elexia lastan dabena leguez; au eguiten badozu, euquico dozu emaste obedizaile bat.

Emastiac, nai dozube senarrac lastan izan zaijezan, Jesu Christoc Elexia ametan dabena leguez? Obediu eijezube senarraí, eta egon zaitece euren agnindura, Elexiac Jesu Christori obedieta deutzana leguez. Ceuben humiltasun, ceuben obediencia, isiltasun, eta biguntasunagaz irabacico deutzazu senarrari vijotza, eta bein au eguin ezquero, nai dozun gustija eguingo dozu beragaz. Ez eguizube uste, aguiraca, diadar, negar, arrabija, eta muquerijacaz ecarrico dozula guizona, ceuc nai dozun, eta biar dan bidera. Ecin onecaz euqui cinaique baqueric senarragaz. Ara, artu eguizube senar emaste bijoen artian ari zatibat punta bijetatic, batac beragana tira eguiten deutzanian, bestiac beragana tiratuten badeutza urratu, edo etengo da arija; baña senarrac tira eguiten deutzanian, zuc ichi, edo nasaituten badozu, arija, gustiz mee, eta argala bada bere, ezta etengo. Auxe berau jazoco da zubeacaz bere, eta ez batac bestiari erruba ezarri. Artu begui senarrac berari emoten jaeen icasbide, edo doctrinia, eta emastiac beretzat emonic daguana. Au eguiten badabe, vicico dira mundu onetan gustizco baque gozuan, eta elduco dira, betico iraungo deben glorijara ceruban. Amen.

**LENENGO LIBURUBAREN AZQUENA.**



VERVALDIONEETAN DAGOZAN GAUCEEN AURQUITEGUIJA

Sartaurreia.

- I. Verbal.** Cer dan Christinauba, cer esan nai daben  
icen onec, eta curutce Santubaren ganian. 1.  
*Erasoguinza, edo exortacinoia:* Ce arma segu-  
ruba dan curutzia demoninuaren tentacino-  
ien contra, eta cegaitic zainduten eztituzan  
Christinau asco 9.
- II. Verbal.** Christinaubac doctrinia jaquiteco dauquen  
obligacinoien ganian, eta cembat gauza ja-  
quin biar dituzan errazoen usura elduten  
danian, 12.  
*Erasoguinza:* Doctrina Christinauba eztaqui-  
nac ecin esan leique Christinauba dala. 20.  
*Doctrina Christinaubaren lenengo zatija.*
- III. Verbal.** Cer dan Credua, eta azalduten dira bere  
lenengo Articuloço verba onec: *Sinistuten*  
*dot Aita Jaungoicuagan,* 23.  
*Erasoguinza:* Celan humildu biar dan guizona  
Jaungoico ain andijaren aurrian. 31.
- IV. Verbal.** Azaldu, edo esplikuetan dira lenengo ar-  
ticuloço verba onec: *Gustiz alsu edo pode-*  
*roso, çerubaren, eta luurraren eguliagan.* 33.  
*Erasoguinza;* Jaungoicuae munduba eguin eva-  
nian guizonaganaco iracutzi evan amodijua,  
eta guizonaren Jaunaganaco esquer donguia. 37.
- V. Verbal.** Adi erasoten dira Credoco bigarren, eta  
irugarren articuloço verba onec: *Eta bere*  
*seme bacar Jesu Christo gure Jaunagan,*  
*cein sortu zan Espiritu Santubagandic.* 45.  
*Erasoguinza:* Ce neurribaguia izan zan Jaungoi-

cuac guizon eguinagaz iracutzi euzcun on-  
guria. 51.

*VI. Verbal.* Azalduten dira irugarren articuluco ver-  
ba oneec: *Jaijo zan Marija Virginiagandic,*  
eta ifinten da laburrian Jesusen vicitzia bere  
Pasinoeraño. 54.

*Erasoguinza:* Ce nequetsuba izan zan Jesu Chris-  
toren vicitza gustija. 61.

*VII. Verbal.* Azalduten dira Credoco laugarren Arti-  
culuco verba oneec: *Irago evan Poncio Pila-  
tosen mempe, edo poderijuaren beian, izan  
zan crucificaduba, il, eta obipetu, edo se-  
pultaduba.* 64.

*Erasoguinza:* Jesu Christoc curutzian ilagaz gui-  
zonari iracutzi eutzan amodijua, eta guizo-  
naren Salvaguiliaganaco esquer donguia. 73.

*VIII. Verbal.* Espliquetan dira bostgarren Articuluco  
verba oneec: *Jatzi zan infernubetara: iru-  
garren egunian viztu, edo erresucitadu zan  
ilen artetic.* 75.

*Erasoguinza:* Nai badogu benetan urten peca-  
tutic, jarraitu biar deutzagu Jesu Christoren  
erresurrecinoiari. 83.

*IX. Verbal.* Adi erasoten dira Credoco sei, eta zaspig-  
garren Articulubetaco verba oneec: *Igon zan  
Cerubetara: Dago jarriric Aita gustiz alsu-  
baren escumatatic. Andic etorrico da vicijac,  
eta ilac juzguetara.* 85.

*Erasoguinza:* Celaco poza emon biar deuzcun  
Jesu Christo gure bitartecotzat ceruban eu-  
quitiac: eta celaco bildurra asquenengo jui-  
cijuac. 94.

- X. Verbal.** Aituten emoten dira Credoco zorci, eta bederatzigarren articulubetaco verba oneec: *Sinistuten dot Espiritu Santu Jaunagan, Elexa santu Catholicuba, Santuben comuni- noia.* 97.
- Erasoguinza:* Celan Christinau gustijoc amadu biar garian, eta cembat arimaco ondasun irabaci guinaizan Santuben comunoiagaz. 105.
- XI. Verbal.** Espliquetan dira Credoco asquenengo iru. Articulu oneec: *Pecatuben parcacinoia, araguijaren viztutia, eta betico vicitzia.* 107.
- Erasoguinza:* Ce guichi eguiten dabeen Christinaubac arimaco gachac osatuteco. 115.
- Doctrina Christinaubaren bigarren zatija.*
- XII. Verbal.** Cer dan Sacramentuba, eta cer Sacramentubac emoten dabeen gracia. 118.
- Erasoguinza:* Jesu Christoc Sacramentubacaz gustiz erraz, eta bigun ifini evan ceruraco bidia, eta cergaitic garratz eguiten jacon guizonari. 125.
- XIII. Verbal.** Bautismoco Sacramentubaren gania. 128.
- Erasoguinza:* Ce honra andira eregui guenduzan Jaunac bateoen bitartez. 136.
- XIV. Verbal.** Confirmacinoeco Sacramentubaren gania, eta ceinzuc dirian, eta cer esan nai dabeen Bateo, eta Confirmacinoeco ceremoniac. 138.
- Erasoguinza:* Celan jaon biar daben Christinaubac ceremonija oneen artian emonico verbia. 146.
- XV. Verbal.** Azalduten da Alataraco Sacramentuba. 149.
- Erasoguinza:* Ce mesede miragarriac eguiten deuzcuzan Jaunac Altaraco Sacramentuban. 156.

- XVI. Verbal.** Celan prestadu biar garian comulguetaco. 160.  
*Erasoguinsa:* Ain probechu guichi ateraten badabe Christinaubac comuninoetic, da ondo prestetan eztirialaco. 170.
- XVII. Verbal.** Penitencijaco Sacramentubaren garian, eta celan eguin biar dan conciençijaco examinia. 171.  
*Erasoguinsa:* Confesinoe donga asco eguin oi dira examina faltaz. 180.
- XVIII. Verbal.** Ondo confesetaco biar dan damubaren garian. 182.  
*Erasoguinsa:* Asco confesetan dira dongaro damu faltaz. 190.
- XIX. Verbal.** Ondo confesetaco biar dan propositubaren garian. 193.  
*Erasoguinsa:* Ascori falta oi jaque benetaco proposituba. 201.
- XX. Verbal.** Celacua izan biar dan peccatuben confesinoia. 203.  
*Erasoguinsa:* Achaquijazco confesinoia guejjetan ez oi da ona izan. 210.
- XXI. Verbal.** Cer dan penitencija cumpletia. 213.  
*Erasoguinsa:* Penitencija beteteco billatuten dirian achaquijen garian. 221.
- XXII. Verbal.** Cer dirian Indulgencijac. 223.  
*Erasoguinsa:* Ce erraz dan Indulgencijac irabastia: ce guichi eguiten dan eurac irabasteco. 230.
- XXIII. Verbal.** Oleacinoe, eta Ordiaco Sacramentuben garian. 238.  
*Erasoguinsa:* Demoninuaren tentacinoia da

Oleacinoiati jacan bildurra, eta bera arce  
alteracinoia atzeracuncia.

241.

**XXIV. Verbal.** Esconzaco Sacramentubaren ganian. 244.

*Erasoguinza:* Esconguei ascoc ce guichi begui-  
ratuten deutzen Sacramentu onen Santuta-  
sunari.

251.

**XXV. Verbal.** Ce intencinoe eruanbiardan esconzara. 254.

*Erasoguinza:* Pecatuban esconcen dirianenza-  
co erremedijua.

264.

**XXVI. Verbal.** Esconduben alcarganaco obligaci-  
noiien ganian.

265.

*Erasoguinza:* Celan baquian vicico dirian se-  
nar emastiac.

272.

**UTZUNE ARTEZTUBAC.**

<u>Orrija.</u>	<u>Errengoloia.</u>	<u>Utsunia.</u>	<u>Arteztaba.</u>
1.	2.	isatia	izatia
5.	10.	anaiizen	anaiijen
23.	9.	Juaunac	Jaunac
68.	25.	eteirian	etzirian
91.	6.	pecacuban	pecatubarr
95.	14.	Apostolubeter	Apostolubetar
96.	20.	deutzanac	deutzazanac
101.	24.	iturija	iturrija
118.	12.	gaituzur	gaituzar
ibid.	19.	daucuzcun	dacuzcun
120.	17.	daucu	deuzcu
125.	29.	erijorciagaz	erijotziagaz
126.	16.	omongo	emongo
152.	4.	auzpian	anzpian
166.	31.	oguijaceru, co	oguija, ceruco
168.	26.	daucazuzun	daucazuzan
227.	3.	zorra	zor
230.	22.	cegaitece	cegaitice
231.	26.	pacatu	pecatu
253.	15.	leuque	leuquee
255.	8.	deritz	derizt

Oleacinoiati jacan bildurra, eta bera arccc  
alteracinoia atzeracuncia.

241.

**XXIV. Verbal.** Esconzaco Sacramentubaren ganian. 244.

*Erasoguinza:* Esconguei ascoc ce guichi beguiratuten deutzen Sacramentu onen Santutasunari.

251.

**XXV. Verbal.** Ce intencinoe eruanbiardan esconzara. 254.

*Erasoguinza:* Pecatuban esconcen dirianenza-co erremedijua.

264.

**XXVI. Verbal.** Esconduben alcarganaco obligacinoien ganian.

265.

*Erasoguinza:* Celan baquian vicico dirian senar emastiac.

272.

**UTZUNE ARTEZTUBAC.**

<u>Orrija.</u>	<u>Errengoloia.</u>	<u>Utsunia.</u>	<u>Arteztuba.</u>
1.	2.	isatia	izatia
5.	10.	anaiizen	anaiijen
23.	9.	Juaunac	Jaunac
68.	25.	eteirian	etzirian
91.	6.	pecacuban	pecatubarr
95.	14.	Apostolubeter	Apostolubetar
96.	20.	deutzanac	deutzazanac
101.	24.	iturija	iturrija
118.	12.	gaituzur	gaituzar
ibid.	19.	daucuzcun	dacuzcun
120.	17.	daucu	deuzcu
125.	29.	erijorciagaz	erijotziagaz
126.	16.	omongo	emongo
152.	4.	auzpian	anzpian
166.	31.	oguijaceru, co	oguija, ceruco
168.	26.	daucazuzun	daucazuzan
227.	3.	zorra	zor
230.	22.	cegaitece	cegaitice
231.	26.	pacatu	pecatu
253.	15.	leuque	leuquee
255.	8.	deritz	derizt

## URTECO DOMEQUETACO

Evangelijuac eusqueraz: Verbaldijetaco sarzarijecaz.

## ADIERASOGUINZA, EDO ADVERTENCIJA.

*Gura badau Arimazain, edo Cura Jaunac asi Verbaldi, edo Platiquia Domecaco Evangelijuagaz, esan begui lenengo Evangelijo ostian daguan testua; eta guero eusqueraz Evangelijua: baña nai ezpadau esan Evangelijua, asi begui Verbaldi, edo Platiquia esacai, edo testotic, eta bere urrengo daguan sarzarijeratic. Emen Verbaldijac duaz errezcan liburuban datzazan moduban, orregaitic ezta ifinten orri edo ojaric.*

## DOMIN. I. ADVENTUS.

**M**unduba amaitu, edo acabadu baño lenago icusico dira bere asquenaren ezaugarri, edo señaliac: baña ce itzalsu, ce icaragarriac? Evangelijua enzunagaz ezagutuco dogu. Ezaugarri, edo señaic andijac icusico dira, diño Jesu Christoe, egusqui, ilargui, eta izarretan; premi-na estu artian egongo dira gentiac, ichaso, eta ibaijac emongo ditubezan horroe bildurgarriacaz. Sicatu, eta igarturic egongo dira guizonac bildurren poderez, eta mundubari datorquijozan gachen ustiagaz; bada ceruben sendotasuna bera loca ibilico da: ordubanche icusico da-ve guizonaren semia (Jesu Christo bera) datorrela odei baten escubide, eta anditasun gustizeo itzalsuATEGAZ. Gauza onece jazoten icusi daiquezubezarian, eregui ci-quezubez ceuben burubae, au da, poztu zaitece, urrian dalaco zuben gachen asquena. Ara: irudi bat: Araco da-

## II.

cutzubenian, picu, eta beste zugatz, edo arbolac abijetan diriala frutu emoten, igarten dozube, urrian dala udia. Alainche, bada, gauza oneec icusi daiquezubezarian, jaquin eiquezube, urrian dala Jaungoicuaren erreinuba. Ceru lurra iragoco dira, baña ez nire esana; au da, lenago galduco dira ceruba, eta lurra, nire esana guzurta-du dedin baño.

*His autem fieri incipientibus, levate capita vestra quoniam ap propinquat redemptio vestra. Luc. cap. 21 vers. 28.*

Contraco gauza bi dagozala, esan leiteque gaurco Evangelijuan; batetic, bildurtu nai gaitu Jesus lastanac juicijuaren ezaugarri icaragarriacaz: bestetic, dirauzcu poztu gaitezala eurac icusijagaz; baña alan badirudi bere, eztago olacoric. Bildurgarri izango badira, bacarric izango dira pecatari ichubenzat; baña Christinau benetaco, curutziaren bidetic ibili dirianenzat, gustiz izango dira gozo, eta atzeguinzu, ez bacarric ezaugarri, edo señaliac; baita juicijoco eguna bera bere. Alan izan daquizuben, enzuzube, cer esan nai daben Christinaubac, eta cein dan bere ezaugarrija. *I. Verbaldijs*

## DOMIN. II. ADVENTUS.

Gaurco Evangelijuan dacuzcu, ce arduria eucan S. Juan Bautistac, bere icaslac jaquin eijezen Jesu Christoren misterijuac; eta alan presondegui, edo carcelan eguala bialdu cituzan enzun eijen, Jesus onac eguin eutzen sermoia. Enzunic catece artian Christoren eguitade, edo obrac, bialdu eutzazan bere icasla bi, itandutera: Zu zara etorrico zariana, ala besterembati ichon biardeutzagu? Eranzun eutzen Jesusec: Esan eijozube Juani enzun, eta icusi dozubena; ichubac dacuze, errenac dabilz,



### III.

sarnatijac garbituten dira, gorrac danzube, ilac viztuten dira, pobriai barri onac emoten jaquez, eta bedeincatuba da nigan escandalicetan eztana. Oneec juan ezquero, asi zan Jesu Christo esaten bere enzulai: Cer icustera urten cenduben ermura? Axiaac batetic bestera darabilen canaberaren bat? Baña cer icustera urte cenduben? Sofieco bigunez apainduricoren bat? Onelacuac Erregueen Jauregui, edo Palacijuetan vici oi dira. Baña cer icusten juan cinian? Igarlaren bat? Bene benetan dirautzubet; Juan Igarla baño bere gueijago da. Bera da norgaitic dagan esanic: Orra nun neuc bialduten dodan neure Aingueruba, guertu, edo prestetara bidiaac zure aurretic.

*Tu es, qui venturus es, an alium expectamus?*

Math. cap. 11 vers. 3.

Gaurco Evangelijuan dacuzgu, celaco arduria euqui evan S. Juan Bautistac, bere contura eucazanac jaquin eijen, nor zan Jesu Christo, eta bere misterijuac; eta alan bialdu cituzan beragana, bere aotic enzun eijezan. Emenche icasico dabe guraso, eta beste nagusijac, celan aleguina eguin biar dabeen, doctrina Christinauba jaquin daijen euren escupian dagozanac, eta baita Christinaugustijac bere, celan jaquin biar dabeen. Auxe da adi erasotera noiana. II. *Verbaldija.*

### DOMIN. III. ADVENTUS.

Ain zan miragarrija S. Juan Bantistiaren vicimoduba, ain andija bere penitencija, ain aguirija bere santutasuna, ain erriac bere verbac, eta predicacinoia; ce ascoc uste izan even, bera zala munduco Salvazailia, eta alan bialdu eutzezan Abade, edo Sacerdote, eta Levitac itandutera: Nor zara zu? Autortu, edo confesadu evan,

#### IV.

eta ez euan ueātu! Enaz ni Christo. Esan eutzeen. Cer bada? Zara zu Elias? Eranzun eutzeen: Ez. Esan eutzeen: Zara zu Igarla edo Profeta? Esan eutzeen: Ez. Esan eutzeen: Cer zara bada, esan deijeguben bialdu gaitubezanai? Cer dinozu ceure burubagaitic? Esan eutzeen: Ni naz ermuban diadar eguiten daben boza: Guertu ifini eguizubez Jaunaren bidia; Isaijas Igarla, edo Profetia dinuana leguez. Phariseo artecuac cirian bialdubac: Eta itandu eutzeen: Bada ezpazara Christo, ez Elias, ez Igarla, celan bauticetan dozu? Esan eutzeen S. Juanec: nie bateatuten dot uragaz; zuben erdijan egon da barriz, zube eztaquizubena. Nire atzetic dator, baña ni baño lenagotje eguina da. Enaz ni, bere zapatetaco ugala ascateco bere diña. Au jazo zan Bethanijan Jordaneco ibai albuan, nun bateatuten euan Juanec.

*Qui missi fuerant, erant ex Phariseis.* Joan. cap. 1 vers 24.

Ce gogortasuna! ce sorquerija Phariseuena! Adi eraso gura deutzee S. Juanec, nor dan Jaungoicua, eta bere seme bacar Jesu Christo; eta eztabe eurac enzun bere nai; eta gueratuten dira euren ichumendijan. Ez gaitezan onelacuac izan, neure Christinaubac; enzun, icasi, eta sinistu daiguzan Jaungoicuaren, eta bere seme maite Jesu Christoren Misterijuac. Onec ezagutuco doguz, jaquinie Credua. Onetaraco esango deutzubet, cer dan Credua, eta azalduco deutzubet bere lenengo sinistamen, edo articuluba. *III. Verbaldija.*

**DOMIN. IV. ADVENTUS.**

Ce barri gozuac dagozan gaurco Evangelijuan guizonenzat! Ce mirari arrigarrijac duazan aguertutera! Ogueta amat urie leguez cirian, jatzi zala Cerutic lurre-ra Jaungoicuaren semia; baña escutuban leguez egon zan

dempora gusti onetan. Eldu zanian, argui andi au gustijen beguijetara urteteco demporia; Tiberijo Erromaco Aguintari, edo Emperadore zala, Poncio Pilatos Judeaco nagusi, Herodes Galileaco erregue, bere anaije Phelipe Itureaco, eta Lisania Abilinaco; Anas, barriz, eta Caifas Abade edo Sacerdotien buru; aguindu eutzan Jaunac Juan Zachariacen semiari, eta etorri zan Jordan ondoco errijetara, prediquetan evala penitencijaco bautismua pecatuben parcacinoeraco, Isaijasec esanic eucana leguez: Ermuban diadar eguiten daben boza: Prestadu eguizubez Jaunaren bidia; arteztu eguizubez gure Jaungoicuaren bide cigorrac: ereguico dira ibarrac, beeratucoco dira mendi, eta murubac, arteztucoco dira oquerruniac, lautucoco dira aldatzac, eta aragui gustijac icusico dau Jaungoicuaren Salvaguilia.

*Omnis vallis implebitur, et omnis mons, et collis humiliabitur.* Luc. cap. 3 vers. 5.

Gaurco Evangelijuan danzugu, celaco estropezubacaz egozan zarraturic, Salvaguiliac mundura etorteco ecarri biar cituban bidia. Guizonaren arroquerija, edo sobervijaren mendijac batetic, naguitasunaren trocac besetic, emetic araguijaren ciquinquerijaren lupatzac, andic bijotz gogorren aldatzac, eta beste pecatuben oquerune ilunac, euquen ichuturic bide au. Baña Jaungoicuaren al, edo poderijuenzat eztago gauza gachic; bada munduba ecerberecetatic eguin evana leguez, alainche eguiten dau mundu onetan, nai daben gustija. Auxe da gure Jaungoicua gustiz alsu, edo poderoso izatia, cein adierasoco deutzubedan Verbaldi onetan. *IV. Verbaldija.*

#### DOMIN. INFRAOC. NATIV.

Andijac edo izan biar cirian, Jesusgaitic gustijac cituezan mirarijac, bada dirauzeu Evangelijuac, bere Ai-

## VI.

ta-ordeco Jose, eta bere Ama Marija arrituric egozala, eurac enzunagaz. Bedeincatu cituzan Simeonec. Biurturic guero Ama Virginiagana, esan eutzan: Umechu au ascoren gacheraco, eta beste ascoren oneraco dator mundura. Asco izango dira bere contra ibilico dirianac; eta espata gogorrac erdibituco deutzu ceure arimia, aguertu deitezan ascoren vijotzeco goguac. Vici zan orduban Ana Igarlia Phanuelen alabia, Asertarra, urteetan aurrera joian, bada eucazan larogueti urte. Zaspi urte egon zan esconduric, zan alarguna. Beti eguan templu, edo Elezan, alde eguin baga Jauna servietan egunez, eta gabez, baru, eta oracinoe artian. Jesus, Marija, eta Jose an egozala, etorriric ordu atan, bedeincatuten evan Jaungoicua, eta gauza andijac esaten eutzezan umechubagaitic Israelgo erredencinoia icharoten evenai. Bete evenian leguien aguinduba, biurtu cirian euren uri Nazarethera. Umechuba, barriz, aci, eta sendatubagaz joian jaquiturijaz heteric, eta Jaungoicuaren gracia eguan beragan.

*Puer autem crescebat.* Luc. cap. 2 vers. 40.

Fediac iracatzico ezpaleuzcu Evangelijuac gaur dirauzcuna, nequez izango litzatequegu sinistutia. Acijagaz joian umechuba dino. Nor, edo cer dala, esan guinaique, seinchu jaijo barri, argal, indarbaga, ibilteco poderebaga, eta mantachu batzubetan baturico au? Noc esan leique? Noc sinistu leique, fediac iracatzico ezpaleu? Da Jaungoicuaren seme benetacua: da araco Jaungoico berbera, nori labor datorquijozan ceru zabalac. Astun, eta gach eguiten jaca gure astuntasunari, eta gure errazoiari au sinistutia; baña guc Christinau fededunoc ciur, edo ciertutzat equi biar dogu, umechu au Jaungoicuaren seme eguijazcua dala; eta guizon sortu bazan etzan izan beste guizonac leguez, ezpada Espiritu Santubaren eguin-

VII.

zaz, edo obraz, eta gracijaz. Orra gaurco Verbaldigueija.  
*V. Verbaldija.*

DOMIN. ALIQU. ANTE EPIF.

Erbestian, edo Isituco erreinuban egozan Jesus, Marija, eta Jose, aguertu jaconian Santu oni Jaunaren Aingueruba amesetan eguala, eta esan eutzan: Gora, artu eguizuz umia, eta bere Ama, eta zuaz Israelgo errira, edo lurrera, bada il dira seinchubari vicitzia quendu nai eutzeenac. Jagui zan Jose, artu cituban seinia, eta bere Ama, eta etorri zan Israelgo lurrera: baña enzunic Arquelao sartu zala Judeaco erregue bere Aita Herodesen ordeztu, bildur izan zan ara juaten, eta adierasoric Ainguerubac, juan zan Galileara, eta vici izan zan Nazarethgo urijan, bete cedin Igarla, edo Profetac esanic eutzeena: Nazarenu dei eguingo eutzeela.

*Accipe puerum, et matrem ejus. Math. cap. 2 vers. 20.*

Eztaucagu gauza ciurragoric, Marija gustiz Santuba Jaungoicuaren Ama benetaco dana baño: alainche esan eutzan gaurco Evangelijuan Ainguerubac S. Joseri, eta auxe berau dinogu Credoco irugarren articuluban. Jaijo zan Marija Virginiagandic. Auxe da gaurco Verbaldijan esango deutzubedana, nun contaduco deutzubedan Jesu Christoren vicitzia bere pasinoeraño laburrian baño ezpada bere. *VI. Verbaldija.*

DOMIN. INFR. EPIF.

Ce iraun lucecuac izan cirian Jesu Christoren nequiac? Esan leiteque, ez evala atzeguinic etqui, abeleche zatar baten jaijo zanetic, eta curutze baten il zaneraino. Ozta ozta jaijoten da, eta orra nun zorcigarren egunian emoten daben bere zanetaco odola, bere araguijan artuten daben epaitic. Andic egun guichi barru, dua Isitura iguesi, bere vicitzia jaoterren, nun egon biar dan erbestetu,

## VIII

edo desterraduric urte osuetan. Biurtuten da bere errira; baña orra nun daucan beste neque bat. Amabi urteco zan juan zanian Jerusalenera bere gurasuacaz, urtian urtian Pazcuaz oiebena leguez. Biurtu cirian oneec echeraco, baña Jesus gueratu zan Jerusalenen, gurasuac ezagutu baga, usteric gente artian juango zala. Egun bateco bidia ibili ezquero, icusi even etzala aguri, eta abijadu cirian bere billa senide, eta adisquide artian. Ecin aurquitu izan evenian, biurtu cirian Jerusalenera, nun ibili cirian bere ondoren iru egunian. Iragoric iru egunac, juan cirian Templura, nun aurquitu even Iracaslari, edo Doctorien erdijan jarriric, eurai adi, eta itauniac eguiten. Arrituric egozan, adi erasoten evan jaquiturija, eta zurtasunagaz. Esan eutzan bere amac: Ene semia cegaitic escutadu zaijaguzu modu orretan? Zure aita, eta ni atzacabe andijagaz ibili gara zure billa. Eranzun eutzan Jesusec: Cegaitic ibili zare nire billa? Etzenquijen, neure Aitaren gauzetan aurquitu biar nazana? Au esanic, juan zan euracagana, eta euracaz biurtu zan Nazarethera, nun eguan euren aguindura.

*Et erat subditus illis.* Luc. cap. 2 vers. 51.

O Jaungoico gustiz alsu, edo poderoso baten humiltasun parebaguia! Araco mundu gustija utzetic eguin evana, dago guizon, eta emacume baten aguindura, beste edoceimbere seme humilena baño bere menago, edo obedienciago. Baña ez miraritu, ez arritu. Andija da benetan Jaungoico batec onetan iracusten daben beeratutia; baña cer dauca cer icusi oneec, bere buruba Anas, Caifas, Herodes, Pilatos, eta beste guizon madaricatuben vorondatera ifnijagaz, ezagututen emon evanagaz? Auxe bai da la humiltasun sinisezgarrija. Auxe da beti enqui biar guenduquiana beguijen aurrian. Alan izan dedin azalduco

## IX.

deutzubet Credoco laugarren sinistamen, edo articuluba,  
VII. Verbaldija.

## DOMIN. II. EPIPH.

Gaurco Evangelijuan daucagu Jesu Christoc guizonen beguijetan eguin evan lenengo mirarija. Estegubac egozan Galileaco Canan. Bertan eguan Jesusen ama. Dei eguin eutzen Jesusi bere icaslacaz batera. Amaitu jaquen ardaua. Esan eutzan Ama Virginiac bere semiari: Eztaucque ardaoric. Eranzun eutzan Jesusec: Emacumia, cer juacu niri, ez zuri? Ezta oraindio eldu nire orduba. Esan eutzen Ama Virginiac maija servietan ebilzanai: Eguizube nire semiac esan daiquezuben gustija. Egozan sei edarra, Judegubac oitura euquen garbitasuneraco. Esan eutzen Jesusec servizailiai: bete eguizubez edarrac urez. Bete citubezan goigoiraino. Esan eutzen Jesusec: atera eguizube, eta eruan eijozube maizainari. Eruan eutzeen. Ez evan ondo sartu auan ardao biurturico ura, jaquin baga nundic etorri zan, bequijen bere servietan egozanac, dei eguin eutzan guizon esconbarrijari, eta esan eutzan: Edocein guizonec ardaoric oneena atera oi dau lenengotic, eta guero edanic dagozarian charrena, edo ain on eztana; baña zuc oquerretara eguin dozu, bada azqueneraco gorde dozu ardaoric oneena. Auxe izan zan Jesu Christoc eguin evan lenengo mirarija; iracutzi evan bere glorija, eta sinistu even beragan bere icaslarijac.

*Hoc fecit initium signorum Jesus, et manifestavit gloriam suam.* Joan cap. 2 vers. 11.

Gaurco Evangelijuan daucagu Jesu Christoc eguini-  
co lenengo mirarija, ceinegaz asi zan, mundubari aguer-  
tuten, Jaungoico benetacua zana. Eguija au sinistu guen-  
guijan, eguin cituzan aibat mirari. Baña gustijetatic an-  
di, eta ezaunena, ceinegaz sinistu eraso eutzan mundu

gustijari Jaungoico benetaco zala, bere viztute, edo erresurrecinoia izan zan; bada beste mirarijac eguin leijez beste guizon, Jaungoico eztirianac bere, Jaunagandic ar-turico escubidiagaz; baña bere buruba berez, edo bere al, edo poderijoz viztutia, Jaungoicuac bacar bacarric al leijan gaucia da. Eguija au zubeçan sendatu dedin, azalduco deutzubet credoco bostgarren sinistamen, edo articuluba. *VIII. Verbaldijsa.*

### DOMIN. III. EPIPH.

Mirari andi bi daucaguz gaurco Evangelijuan; bata leguendun, edo sarnati batena; bestia Euntari, edo Centurionen otseinena, Jesu Christo mendiric jatzi zanian, ifni jacan bera adoretan sarnati bat cirautzala: Jauna gura badozu, garbitu ninaiquezu: Eranzun eutzan Jesusec: Nai dot: garbitu zadiz. Esanagaz batera ucutu eutzan bere escubagaz. Berbertatic gueratu zan garbi garbi. Esan eutzan Jesusec: Ez eiquijozu inori esan. Zuaz, eta iracutzi zaitez Abade, edo Sacerdotiari, eta opa eguizu, Moisesec aguindurico doia, edo ofrendia. Sartu zanian Cafarnaunen, eldu zan beragana Euntari, Centurijo, edo eun soldadu bere aguindura eucazan bat, cirautzala erreguz: Jauna otsein bat daucat oian perlesijagaz, eta mingustiz andijacaz. Eranzun eutzan Jesusec: Neu juango naz, eta osatuco dot. Ez ori Jauna, eranzun eutzan Euntarijac; enaz diña berori nire echian sartu dedin; berorren esana bacarric asco izango da, nire mutila osatuteco. Ni besteren aguindura nago; alambere soldadu batzuc neure mempian daucadazalaco, dirautzat oni, zuaz, eta bertatic dua; bestiari; erdu, eta dator; neure otseinari, eguizu au, eta eguiten dau. Enzunic au Jesusec miraritan, eta esan eutzen beragaz etozanai: Benetan dirautzubet; eztot aimbeste fede aurquitu Israelen. Dirautzubet:



## XI.

asco etorrico dira egusqui urtaijera, eta sarzaijeratic, eta jarrico dira cerubetaco erreinuban Abraham, Isaac, eta Jacobegaz batera; erreinuco semiac barriz jausico dira ilumbian, nun euquico dabeen negarra, eta aguin carrascadia. Esan eutzan Euntarijari: Sinistu dozuna leguez jazo daquizula; eta ordutixec osatu zan mutila.

*Multi ab Oriente, et Occidente venient, et recumbent cum Abraham, Isaac, et Jacob. in regno cælorum.*

Math. cap. 8 vers. 11.

Celaco poza emon biar ezteuzcu gentilacgandic gatozanoi, Jesu Christoc gaureo Evangelijuan dinuanac. Etorrico dira egusquijen urtaijera, eta sarzaijetatic, eta jarrico dira cerubetaco erreinuban? Bai, Christinaubac, gugaitic cinuan au Salvaguile maitiac. Bera mundura etorri artian beriac ezpaguinian, berac eguin guenduzan; berac idigui euzcuzan ceruco atiac, eta gu erreinu atan jarri al guinaitezan, bera ara igon zan, guri lecuba prestetara. Eguija auxe adi eraso nai neuzquezube, azalduten deutzubedala Credoco seigarren sinistamen, edo articuluba, eta guero oni jagocan zaspigarrena. IX. *Verbaldija.*

### DOMIN. IV. EPIPH.

Estura, eta larri andijan dacuzcuz gaurco Evangelijuan Jesusen Icaslac. Sartu zan Salvaguilia oncichu baten euracaz batera; eta orra nun ereguiten dan ecach ain esquerguia, ce chalupia eguan olatubac ondatu aguinian, bera barriz lo etzan. Eldu cirian beragana icaslac, eta iratzartu even cirautzela: Salva gaizuz Jauna, bestelan galdubac gara. Eranzun eutzen Jesusec: ceri zaijacaze bildur, fede guichicoc? Au esanagaz jagui zan, aguinu eutzen axe, eta ichasuari, eta gueratu zan gozatasun, eta baque andi baten. Arrituric gueratu cirian guizon areec

## XII.

cinuela: Nor ete da onaco axe, eta ichasua, bere aguin-  
dura daucazanau?

*Ecce motus magnus factus est in mari, ita ut navicula  
operiretur fluctibus.* Math. cap. 8 vers. 24.

Elexien irudi benetacua zan gaurco Evangelijuan  
ichaso aserriaren erdijan eguan chalupia, dinue Iracasla,  
edo Doctore Santubac. Ain modutan darabile batzubetan  
Gentil, Mauru, herege, eta bere beste arerijuac, ce esan  
leiteque ondatu, eta galcera doiala. Baña eztaigun bil-  
durric euqui, S. Pedroren onci onetan gagozanco; bada  
gueugaz daucagu bere jaolia. Alperric botaco ditubez in-  
fernucio atiac euren indar gustijac bere contra, eztabe  
ecer al izango. Jaungoicua bera da, bera zainduten da-  
bena, Espiritu Santuba, cer eguin biar daben iracasten  
deutzana, eta orregaitic beti gueratuco dira banatu, eta  
birrinduric bere arerijo gustijac. Au ezagutu daizuben,  
azalduco deutzuber, cer sinistu biar dozuben Credoco  
zorci, eta bederatzigarren sinistamen, edo articuluban.  
*X. Verbaldija..*

### DOMIN. V. EPIPH.

Cerubetaco erreinubac, au da, Elexa Santubac, bere  
soluan aci ona erin evan guizon bat dirudi, esan eutzen  
Jesu Christoc beragaz egozanai. Lotara juan cirian solo  
jaoliac, etorri zan arerijua, eta erin evan zoragarija gari-  
gian. Aci zanian gustija, ezagutu zan zoragarija bere.  
Juan cirian otseinac echeco Jaunagana, eta esan eutzeen:  
Etzenduban zuc aci ona erin ceure soluan? Nundic nora  
dauca bada zoragarija? Eranzun eutzeen: Guizon areri-  
juac au eguin dau. Gura dozu bada, esan eutzeen servi-  
zailiac, guazan, eta batu daigun zoragarija? Eranzun  
eutzen: Ez, beragaz naste atera eztaiquezuben garija be-  
re, Ichizobe bijac aciten galbatzeia eldu artian; orduban

### XIII.

esango deutzet galepaileai: batu eguizube lenengo zoragarija, eta eguizubez azaoac euracaz, surtan erreteco, eta gorde eguidazube garija neure altegui, edo troxetan.

*Sinite utraque crescere usque ad messem.* Math. cap. 13  
vers. 30.

Eztaucagu cer ibili Jesu Christoc cer esan nai euzcunen billa gaurco Evangelijoco irudi, edo parabolan; bada berac guero zabaldu evan. Neu naz gari erilia, dino, solo nun eriten dan, munduba da; aci ona dira on, eta artez, edo justubac; lollo edo zoragarija dira dongac; au eriten dabena da demoninua; galebatia mundubaren azque-na; galebaguilac Ainguerubac; lollo edo zoragarija surtara botatia, gvestuac infernura jaustia; garija altegui, edo troxan gordetia, onac cerura igotia, eta ez istia lenago zoragarija ateraten, da pecatarijai penitencija eguiteco demporia emotia. Eguija gusti oneec icusico dituguz Credoco iru azquenengo sinistamen, edo articulubetan, ceinzuc azaldutera noian. XI. *Verbaldija.*

### DOMIN. VI. EPIPH.

Irudi, edo Parabola bi daucaguz gaurco Evangelijuan, eta bijetan aitu eraso nai deuzcu Salvaguiliac, Evangelijo, eta fediac mundu gustitic euquico evan zabaleria. Lenenguan dino: Ceruco erreinubac dirudi bostatza, cein izanic aci gustijetatic chiquijena, guero eguiten da hortubedar gustijetatic andijena; ain modutan ce, eguiten da zugatz, edo arbola, eta bertan dauque chorijac euren vicizia. Bigarrenian dino: Elexiac dirudi azcarri, chanchadura, edo lebaduria; cein nastadu evan emacume batec iru anega urunegaz, gusti gustija chanchartu, edo jagui artian. Gauza gusti oneec esaten eutzezan Jesusec irudipian, eta ez eutzen ecer adi erasoten irudi, edo parabola baga; bete cedin Igarliac esan evana: Idiguico dot neure

#### XIV.

aua paraboletan, eta esango ditudaz mundubaren asijeratic escutuban dagozan gauzac.

*Donec fermentatum est totum. Math. cap. 13 vers. 33.*

Evangelijoco irudi bi oneetan adi eraso nai deutze Jesu Christoc Judegubai, guichi bacirian bere orduban bere jarrai ebilzenac, pusca onecaz eguingo zala mundu gustitic zabalduco zan Elexia. Ara ce chiquija dan bos-tatz, edo mostaza acija, bada aci chiquichu onetatic ur-teten dau ortubedarric andijenac. Ara ce pusquia dan oriari ezarten jacan chanchaduria; bada berac chanchar-tuten dau ora gustija: alainche nire Apostolu guichichu oneecgandic urtengo dau mundu gustija artuco daben Elexiac. Eta celan deritzube zabaldu eveela Apostolubac Elexa au? Zaspi Sacramentuben bitartez. Euracaz egui-ten citubezan Elexien semiac; euracaz aci, sendatu, eta andi eguiten citubezan; euracaz jaten, eta edaten emoten eutzen. Orra ce gauza preminatsuba dan Sacramentubac jaquitia; eta alan nua azaldutera, cembat dirian, eta cein-zuc euren eguinza, edo efectuac. XII. *Verbaldija.*

#### DOMIN. SEPTUAG.

Echeco jaun arduratsu baten irudijan adi eraso nai deutze Jesu Christoc bere icaslai, gaurco Evangelijuan, berac bere Elexiagaz daucan arduriaren anditasuna. Ce-ruco erreinubac dirudi echeco jaun bat, dirautze. Onec urten evan goxian goxetic, biarguin billa, bere mastira-co. Componduric batzucaz alogueren ganian, bialdu ci-tuzan mastira. Urten evan ostera bederatzijetatic amarre-tarunz, eta topadu cituzan beste batzuc plazan alperric egozala; eta esan eutzen: Zuace zubez bere nire masti-ra, eta emongo deutzubet ondo dana. Juan cirian onec bere mastira. Bardin eguin evan amabijetarunz, baita iruretarunz bere. Urten evan azquenez ilunzerunz, eta

## XV.

aurquitu cituzan gueldiric egozan batzuc, eta esan eutzen: Cer eguiten dozube alperric egun gustijan? Eranzun eutzen. Ez dauzcu inoc deiric eguin biarreraco. Eranzun eutzen: Zuace zube bere nire mastira. Gava eldu zanian esan eutzan echeco jaunac bere otseinagusi, edo mayordomubari: Deijezube biarguinai, eta emon eijezu diru bana bacotzari, asiric asquenengo etorri dirianetic, eta lenenguetaño. Eldu cirian iluncian etorrijac, eta artu evan diru bat bacotzac. Etorri cirian goxetic biarrian abijau cirianac; sinisturic egozan bestiac baño aloguer gueijago artuco eveela, baño etzaquen bestiai baño gueijago emon. Au icusiric asi cirian echeco jauna gaitic dongaro esaten. Azquenengo etorri dirianoc, cinuen, ozta ozta eguin dabe ordubeteco biarra, eta guri goxetic arratzera biarrian egon ezquero, ezteuzcu arei baño gueijago emon. Enzunic ugazabac murmurija au, esan eutzan euren arteco bati: Adisquidia, ezteutzut oquer, bidega, edo injurijaric eguiten. Ez guinian baitu, edo ajustadu, diru bat emongo neutzula egun gustico biarragaitic? Orche daucazu, artu eguizu, eta zuaz ordu onian. Azquenengo etorri dan oni, zuri beste emon nai badeutzat, cer juatzu zuri? Bada cer? eztot euquico neure gaciagaz nai dodana eguiteco escubideric? Zure beguija donguia bada, da venturaz ni ona nazalaco? Alainche izango dira azquenenac aurrerengo, eta lenenguac azquenengo. Asco dira deitubac, eta guichi autu, edo escogidubac.

*Ite et vos in vineam meam. Math. cap. 20 vers. 7.*

Itanduten badeutzagu S. Gregorijo andijari, cer iracatzi gura deuzcua Jesu Christoc gaurco Evangelijoco irudijan; Esango deuzcu; nai dabela, ezagutu daigun,

## XVI.

guizonac beragana eruatego cuqui daben arduria. (1) Dempora gustijetan egon da deica: lenengo Aitalenen edo Patriarquen bitartez; guero Igarla, edo Profeten aotic; baita bere beste servizaile ascoren predicacinoe, eta viciza onagaz. Amaccataco orduba legue barrico demporia da, dino Santu onec. Orduban bialdu cituban Apostolubac mundu gustitie gente gustijac bere echerà, ceindan Elexia, ecartera baptismuen bitartez. Ara cer dirautzen: Zuace predicadu eijezube gente gustijai, iracatzi eijezube eguin biar dabeena, eta bateatu eguizubez, Aitiaren, Semiaren, eta Espiritu Santubaren izenian. (2) Orara nun dacuzgun Bautismua dala Elexan sarceco atia. Eguija auxe jaquin daguizuben azalduco deutzubet Bautismoco Sacramentuba. XIII. *Verbaldija.*

### DOMIN. SEXAG.

Parabola bategaz dirauzcu Jesu Christoc gaureo Evangelijuan, celacuac izango cirian Elexiaren semiac. Urten evan, dino, erinzailiac bere acija eritera. Aci zatibat jausi zan bide albuan, eta zapalduric gueratu zan, edo chorijac jan even. Beste zatibat jausi zan arrartian, eta eme orduco igartu zan, ecetasun edo humedaderic ez eucalaco. Beste bat jausi zan aranza artian; aciric onec eguin even sasitza andi bat, eta ito even garanba. Beste bat jausi zan lur onian, eta emon evan eun bidar gueijago. Au esanic diadar eguiten evan: Belarri zurrac daucazanae enzun begui. Itandu eutzeen guero bere Icaslac: cer esan gura evan irudi, edo parabola arec? Eranzun eutzen berac: Zubei autortu, edo concedidu jatzube, Jaungoicuaeren erreinuco escutape, edo misterijua ezagututia, baina ez bestiai irudipian ezipada, ieusi arren, ieusi eztaijen, eta enzun arren, aitu eztaijen. Ara emen azaldueric irudi,

(1) Greg. Mag. Hom. 19 in Evang. (2) Mathi cap. 28 vers. 19.

## XVII.

edo parabolía. Acija da predicacinoia. Bide onduan jausi zana gaitic aituten dira, araco enzuten dabeenac, baña guero dator demoninua, eta quencen dau euren bijotzetatic, sinisturic salvadu ezteitezán. Arri ganian jausi zana dira, araco pozic enzuten dabeenac; baña ecin erroric, edo sustrairic bota dabe, eta orregaitic tentacinoiac ezutu daguizanian, bertatic aldendu, edo apartetan dira. Aranza artian jausten dana dira, aci au artuten dabeenac, baña mundu onetaco ardura, ondasun, gurari, eta gozatasun artian itoric gueratu zan garauba, eta ez evan fruturic emon. Lur onian jausi zana dira, araco bijotz ondo landu, eta aro onecuan arcen dabeenac, eta frutubac ugari emoten ditubezanac.

*Hi radices non habent; qui ad tempus credunt, et in tempore tentationis recedunt.* Luc. cap. 8 vers. 13.

Gaurco Evangelijuan dacuzcu, eztauquela Elexara datozean gustijac biar leuquien santutasunic. Cegaitic? Eztaucalaco eureen fediac, sendo, eta irme egoteco biar daben erro edo sustrairic. Christinau ascoren fedia da jausi, argal, eta epel, edo obeto otza; eta orregaitic tentacinoia datorrenian, ecin sendo egon diriana leguez, eztabe fruturic emoten. Ezagutuco balebe onec, ce aleguinac eguin cituzan Jesus lastanac, Confirmacinoeco Sacramentuba ifinijagaz, euren fedia errotu, eta sendatuteco euren bijotzetan, gomuta balebe, ce izquini even Bautismo, eta Confirmacinoian, lotzaturic gueratuco litzatequez, jaquinic, celaco epeltasun galgarrijan vici dirian. Fede au viztu daguizuben, esango dot cer dan Confirmacinoia, eta cer esan gura dabeen Bautismo, eta Confirmacinoeco cemonijac. XIV. *Verbaldija.*

### DOMIN. QUINQ.

Jaquinic Elexa Ama santubac, cembat on datorqui-

## XVIII.

juezan bere semiai, Jesu Christoren pasinoiaren gomuta, edo memorijatic, beti eguiten dau aleguina, bera barristetaco, gaurco Evangelijuan dacuzcuna leguez. Artu cituzan Jesus onac amabi Apostolubac, eta esan eutzen: Ara, Jerusalenera guaz, eta bete edo cumpliduco da Igarla, edo Profetac guizonaren semiagaitic, au da nigaitic, esanic dauquen gustija. Ifinico dabe gentilen escubetan, burla eguingo deutze, azotaduco dabe, chistu, eta gorroz beteco dabe, eta azotadu ezquero ilgo dabe, eta irugarren egunian viztuco da. Eurac ez even esan jaquen gauzaric aitu. Eldu cirian Jericoco urijen urrera, eta eguan bide albuan ichu esquian ebilen bat. Ulertu edo sentidu evanian gente andija iragoten, itandu evan, cer zan? Eta esan eutzen: Jesus Nazarenuia joiala andic. Au enzunic, abijau zan diadarrez: Jesus Daviden semia, erruqui nizaz. Iragoten cirianac aguiraca eguiten eutzen, diadarric ez eguijan; baña berac indar andijaguagaz ereguiten evan diadarra; Daviden semia erruqui nizaz. Gueraturic Jesus, aguindu evan ecarri eijela beragana. Aurrian eucanian itandu eutzan: Cer nai dozu eguin deizudan? Eranzun eutzan: Jauna icusi eraso deidala. Esan eutzan Jesusec; Iкуси eguizu: ceure fediac osatu zaituz. Bertatic icusi evan, eta beragaz joian Jaungoicua alabadubagaz. Au icusiric gente gustijac bedeincatuten evan Jauna.

*Fillus hominis tradetur Gentibus, et flagellabitur, et conspuetur, et postquam flagellaberint, occident eum.*

Luc. cap. 18 vers. 33.

Elexa Santubac gaurco Fvangelijuan nai leuquiana, gura neuque neuc bere; au da: Nai dabena, eta neuquiana da, beti beti gomuta daizubela Jesu Christoren Pasi-noe, eta erijotzia; bada orregaitic aibat bidar bere ga-



## XIX.

nian verba eguiten oi da Evangelijuan, gaurcuan leguez. Baña beste modu bat dago, obeto barristetaco gogo, edo memoria au: eta badaquizube cein dan? Da Altaraco Sacramentuba: nai comulgadu zaitezala, nai meza enzun dagueizula, nai bera adoretan zagozala, gustija da Calvarijuan jazo zana berbera, barriro eguitia, eta icustia. Au beti gomuta daizuben, gaurco Verbaldija izango da Sacramentu miragarri au azaldutia. *XV. Verbaldija.*

### DOMIN. I. QUADR.

Jaungoicuaren seme benetacua daguala basamortu baten, dirauzcu gaurco Evangelijuac. Baña cetara juan ete da ermu ain itzalsura? Berrogoei eguneco baru gogor bat eguitera. Alainche gorde evan, eta iragoric berrogoei egunac, gose andi bat eucan. Ezaguturic gose au Diabrubac, eldu zan beragana, eta esan eutzan: Jaungoicuaren semia bázara, ogui biurtu eguizuz arri oneec. Eranzun eutzan Jesusec: Ezta guizona oguijagaz bacarric vici, baita bere Jaunaren aotic urtenico verbiagaz. Orduban eruan evan Diabrubac uri santura, ifini evan templuco gallurrian, eta esan eutzan: Jaungoicuaren semia bazara, bota zaitez emetic beera, bada esanic dago: bere Ainguerubai aguindu deutze, zaindu zaijezala, eta euren escubetan eruan zaijezala, gachic eztequizun arrijen contra. Esanic dago, eranzun eutzan Jesusec: Ez eiquezu tentadu ceure Jaun Jaungoicua. Ostera eruan evan mendi gustiz eregui batera, iracutzi eutzazan munduco erreinu gustijac euren anditasun gustijagaz, eta esan eutzan: Auxe gustijau emongo deutzut, echunic adoradu banaguizu. Eranzun eutzan Jesusec: Quen orric satanas ordu gues-tuan; Esanic dago: Ceure Jaun Jaungoicua adoraduco dozu, eta bera bacarric serviduco dozu. Onegaz igues

eguin euan Satanasee, eta etorriric Ainguerubac, ifini eutzen jaten.

*Acceserunt Angeli, et ministrabant ei. Mat. cap. 4 vers. 11*

Ce janari gozo, eta cerucua izango zan, Ainguerubac euren erreguiari emongo euzena. Euguizango dozu venturaz nosbait, axe jateco gurarija. Bada, neure Christinaubac, nai dogun gustijan ase guinaitequez, ceruban, eta lurrian dan janariric gozuenagaz. Altara orretanche daucazube gozo gustija beragan daucan janarija. Sarrijan dogu ogui ori, esango dozube; baña eztoгу inos sentidu olaco gozatatunic. Baña cetatic dator ori? Ay, neure Christinaubac, ezpajatzu ain gozo eguiten ceruco janari ori, ezta, eztagualaco bertan gozatasun bigun, eta estitsu gustija, ezpada etzarialaco elduten, biar ceunquian prestaera, edo disposicinoiagaz. Ara bada celan eldu biar zarian mai orretara. *XVI. Verbaldija.*

### DOMIN- II. QUADR.

Ce arrigarrillac dirian gaurco Evangelijuan danzuguzan mirarillac! Bertan ifinten jacu, inos lurrian icusi dan cerubaren iruduric betiena. Au iracusteco Jesu Christoc, eruan cituzan beragaz mendi chito eregui batera bere iru icasla Pedro, Jacobe, eta onen anaije Juan, eta artuevan beste irudi bat, edo transfiguradu zan euren aurrian. Ifinizan bere arpeguija egusquija baño arguijago, eta bere soñecuac eurra baño zurijago. Aguertu cirian Moyses, eta Elias Jesusegaz verbaz. Icusiric S. Pedroc aimbeste argui, aimbeste edertasun, aimbeste glorija, esan euzan Jesusi: Yauna, emenche egon biar gueunque. Nai badozu, eguin daiguzan iru chabola, bat zurechat, bat Moysesentzat, eta beste bat Eliasentzat. Au Pedroc cinuala, orra nun odei zuri, eder, miragarri batec artu cituzan bere guerizpian; eta enzun zan odeitic boz batec cinuala: Auxe da

## XXI.

neure seme maitia, nogan daucadan neure poz, eta atze-  
 guin gustija; bera enzuizube: Au enzunic iru Apostolu-  
 bac, jausi cirian auzpaz lurrian, bildurren bildurrez ica-  
 ra. Eldu zan Jesus euracgana, eta esan eutzen: Gora, ez  
 bildurric euqui. Jagui cirian; baña ez even besteric icusi  
 Jesus bacarric baño. Mendiric beera juazala, esan eutzen  
 Jesusec; ez eiquijozube inori esan icusi dozubenic, gui-  
 zonaren semia ilen arteric viztu artian.

*Duxit illos in montem excelsum.* Math. cap. 17 vers. 1.

Erraz jacan Salvaguiliari, ibar celai baten iracustia  
 bere icaslai, mendi chito altu baten ganganian icusi even  
 glorijaren irudija, aibat aldatz garratz irago etaso ba-  
 ga; baña ez evan gura izan, ezagutu guenguijan, ecin  
 eldu guinaitequezala Jaunaren glorija icustera, peniten-  
 cijaco aldatz nequetzuba irago baga. Bai peccatarija, al-  
 perric ibilico zara beste bide billa, eztozu aurquituco be-  
 rau baño, cerura daroianic. Auxe da artu biar dozuna,  
 betico zorioneco izan nai bazara. Jaquin daguizun celan  
 ibilico zarian bide onetic, enzuzu cer dan Penitencijaco  
 Sacramentuba, eta cer biar dan ondo elduteco. XVII. Ver.

### DOMIN. III. QUADR.

Gente gustijac dagoz arrituric gaureo Evangelijuan  
 Jesu Christoc eguinico mirarijagaz. Eguan Salvaguilia  
 Demonino mutubat guizon batgandic botaten, eta urten  
 craso eutzanian, abijau zan verbaz mutuba, eta arrituric  
 gueratu cirian gustijac. Alambere batzuc, edo batzuc abi-  
 jau cirian esaten: Belcebut Demoninuen lenen, edo prin-  
 cipien indarrez botaten dituz onec diabrubic. Beste ba-  
 tzuc gura even ceruban eguijala miraribat. Icusiric Jesus  
 onac oneen goguac, esan eutzen: Desbatu, banacatu, edo  
 desuniduric daguan erreinuba banatuco da, eta echiac  
 echien ganian jausico dira. Satanas Satanasen contra ba-

Bel-  
 cebut  
 Demon-  
 inuen  
 lenen  
 dicitur  
 per  
 sinta  
 ven

## XXII.

dabil, celan irauñ leique bere erreinubac? bada dinozube  
 nic Belcebuten izenian botaten ditudazala demoninuac.  
 Nic Belcebuten indarrez botaten baditudaz diabrubac;  
 norenian au eguiten dabe zuben semiac? Eurac zuben  
 juez izango dira. Barriz; Jaungoicuaren escubidez bota-  
 ren baditudaz, etorri da benetan zuben artera Jaungoi-  
 cuaren erreinuba. Araco armaz jancirico indarsubac. be-  
 re atartia jaon daijan artian, baque onian dago daucan  
 gustija; baña elduric bera baño senduago bat goitu ba-  
 dagui, quencen deutzaz bere armac, ceinzubetan eucan  
 bere uste gustija; baita ondasunac bere. Nigaz eztaguana  
 nire arerijo da, eta nigaz batuten eztabenac, banatuten  
 dau. Espiritu loija, guizonagandic urten daijanian dabil  
 liorretatic, atzeguinic aurquitu al baga, eta dino: biurtu  
 nadin, ichi neban echera. Dator, aurquituten dau ichus-  
 quiz garbitu, eta apainduric; arcen dituz zaspí demonino  
 bera baño dongaguac, eta ifinten dau bertan bere vici  
 lecuba, eta gueratuten da guizona leen baño. charrago.  
 Au cinuala, jagui zan gente artetic emacume bat, eta esan  
 eutzan diadar ereguijagaz: Bedeinca, zu erabili cenduzan  
 sabela, eta artu cenduban ugatza. Eranzun eutzan Jesu-  
 sec: Doatzubago dira Jaungoicuaren verbia enzun, eta  
 jaoten dabeenac.

*Cum ejecisset Demonium, locutus est mutus, et admiratæ  
 sunt turbæ. Luc. cap. 11 vers. 14.*

Mirari andija izan zan benetan, eta gustijac arritu ci-  
 tuzana demoninua gorputzetic botatia, gaurco Evange-  
 lijuan dacuzcuna leguez Jesusec eguin evala; baña gui-  
 zon aren gorputzian eguin evan mirari au, egunian egu-  
 nian eguiten dau arimetan; bada pecatubac parcatuba-  
 gaz, botaten dau euretatic diabrubac. Baña ezteuzcu me-  
 sede au eguingo, gueuc ifinten ezpadogu, ondo confese-

### XXIII.

taco biar dana. Gustijen artian biarren dana da damuba.  
Orra gaurco Verbaldigueija. XVIII. Verbaldija.

#### DOMIN. IV. QUADR.

Ain izan zan andija Jesu Christoc eguinico Ebange-  
Ijuac dirauzcun mirarija, ce arrituric icusi evenac erre-  
guetzat autu, edo escogidu nai izan even. Juan zan Salva-  
guilia Galileaco Tiberiadesua deitzon ichaz oster, aim-  
bat guizon lagun cituzala, ecucezalaco guexuacaz eguiten  
cituzan mirarijac. Igon zan Jesus mendira, eta bertan  
eguan jarriric bere icaslacaz. Urrian zan Pascua Judegu-  
ben jaijeguna. Iracori cituzan bere beguijac, eta icusiric  
gentadi gustiz andi berari jarraitu eutzana, esan eutzan  
Feliperi: Nun erosi guinaique oguija, onei jaten emoteco?  
Au cirautzan tentagarri; bequijan berac cer eguingo evan.  
Erantzun eutzan Felipec: berreun errialen oguija ezta asco  
atalchu bat bacotzari emoteco. Esan eutzan Andres Si-  
monen anaijac: Emenche daucaz mutilchu batec bost ga-  
ragar ogui, eta arrainchu bi; baña au cer da aimbeste-  
renzat? Esan eutzen Jesusec: eguizube jarri deitezala gui-  
zonac. Bedar andija eguan lecu atan. Jarri cirian bost mi-  
la guizon leguez. Artu cituzan Jesusec oguijac escubetan,  
eta emonic ezquerrac, banacatu, edo errepertidu eutzeen  
jarriric egozanai; eta bardin arrainchubac. Jan even gus-  
tijac naroro, edo naico beste. Asse cirianian, esan eu-  
tzen Jesusec icaslai: batu eguizubez emparadurico oton-  
duac galdu ezteitezana. Baturic, bete citubezan euracaz  
amabi zaran. Icusi evenian guizon areec mirari onen an-  
ditanun arrigarrija, asi cirian esaten: auxe da benetan,  
mundura etorteco daguan Igarlia. Ezaguturic Jesusec  
etorrigo ciriala bera erregue eguitera, iguez eguin evan  
bacarric barriro mendira.

## XXIV.

*Hic est vere Propheta, qui venturus est in mundum.*

Joan cap. 6 vers. 14.

Ce argalac dirian guizonaren gogarte, edo propositu-  
bac! Icusiric Jesu Christoc eguin evala Evangelijuac di-  
rauzcun mirari arrigarrija, ao batez dinue gustijac, bera  
dala Mesias eguijazcua, eta elduten dira euren erregue-  
tzat aututeco goguac artutera. Baña ce guichi iraun evan  
propositu onec. Dempora guichi barru danzuguz onexec  
berberoc, beragaitic murmuretan, dinualaco, cerutic ja-  
tzija dala. Emetic icusten da, ez evela euqui erreguetzat  
aututeco benetaco gurariric; bestelan etzan ain laster otzi-  
tuc. Cembat onelaco gogarte ete dacuzcuz confesinoietan?  
Dinue Jesu Christo nai dabeela euren arimaco erre-  
guetzat; baña bere iraumpide guichijan aguri da, etzala  
benetacua izan orduco esana. Au jazo eztedin zuben con-  
fesinoietan: enzuzube celacua izan biar dan proposituba.

*XIX. Verbaldija.*

### DOMIN. PASSION.

Gaurco Evangelijuan bai aguri dala, ce icaragarrija  
dan Judeguben vijotzeco gogortasuna! Jesu Christoc  
eruan nai leuquez euren pecatuba ezagutu, eta confeseta-  
ra; baña len baño ilunago gueratuten dira euren ichumen-  
dijan. Esan eutzen Jesusec Judegubai, dino Evangelijuac:  
Nor zuben arteco azartuco, pecatu daucadala salatuten?  
Eguija badirautzubet, cegaitic sinistuten ezteuztazube?  
Jaungoicuarena danac, enzuten dituz bere esanac; baña  
zubez etzarialaco eztituzubez enzuten. Eranzun eutzeen  
Judegubac: Eztinogu errazoigaz, Samaritarra zariala,  
eta demoninua daucazula? Esan eutzen Jesusec: Eztaucat  
nic demoninoeric. Nic neure Aita honretan dot; barriz ni  
deshonretan nozube zubez. Enabil ni neure honrien billa;  
ezta faltaco noc billatu, eta juzgadu. Bene benetan di-

XXV.

rantzubet, nire esana jaon daijana ezta inos ilgo. Eranzun eutzen Judegubac: Orainche bai daquigula demoninua daucazuna. Abraham il zan, Igarlac il arian, eta zuec dinozu zure esana zaindu daijana eztala ilgo? Zara venturaz gure aita Abraham il zana baño andijago? Profetac bere il cirian. Nun ifinten dozu ceure buruba? Eranzun eutzen Jesusec: Nic doatzutuco banen neure buruba, utza izango litzate nire gloriya. Araco nire Aita norgaitic dinozuben, zuben Jaungoico dala, da ni honretan nabena. Zuec au eztazazube, eta nic esango banen eztazaudala, zuec lezeo guzurti izango nitzateque; baño dazaut, eta zainduten dot bere aguinduba. Zuben Aita Abrahamen gurari pozezeo gustiya nire egunac icustia izan zan; icusi cituzan eta atzeguin bete bat artu euan. Eranzun eutzeen Judegubac: Berrogueta amar urte eztaucuzuz oraindio, eta Abraham icusi dozu? Eranzun eutzen Jesusec: Eguiya guztijagaz dirantzubet: Abraham baño lenagocua naz. Au enzunic, artu citubezan arrijac berari jaurtigituco; Jesus barriz escutadu zan, eta urten euan Templutic.

*Vos inhonorastis me.* Joan cap. 8 vers. 49.

Ce gauza gacha dan, guizon arro bati ezagutu, eta confesadu erasotia bere peccatubac? Gaurco Evangelijuan dacuzcu eguiya au. Celaco aleguinac eguin eztituz Jesu Christoc; Judegubac confesadu daijezan euren peccatubac? Baña eura, arroquerijaz beteric, naijago dabe deshonoradu, eta guzurtadu Jaungoicuaaren semia, peccatari dirian confesadu baño. Once jarraituten deutze euren peccatubac confesinoian salatu nai eztitubezanac, Jaungoicua ezpelecuzaz leguez. Gach andi au eguin eztaizuben esango deutubet celacua izan biar dan Penitencijaco Sacramentuban eguin biar dag confesinoia. XX. *Verbalduja.*

DOMIN. PALM.

Eldu jacu, Christinaubac, aste santuba, ceini dei eguiten deutzan S. Juan Chrisostomoc arimaco ferijac, bertan artu guinaizalaco gueure pecatuben zorrac paguetaco biar dituguzan ondasunac. Onetaracoxe datorquigu Salvagui- lia Evangelijuac dirauzcuna leguez. Eldu zanian Jesus Jerusalenen urrera, Bethfage Oliveteco mendijen alboco errira, esan eutzen bere icasla biri: Zuace aurretie daucazuben baserrira, nun aurquituco dozuben asteme bat loturic, eta beragaz bere astacumia. Ascatu eta ecarri eguidazubez. Norbaitec ecer esan badaizube, eranzun eizozube, oncen biar da Jauna, eta bertatic ichico deutzubez. Au gustijau eguin zan, bete cedin Igarliac esan evana: Esan eguijuzube Sionen alabiari: Orra nun datorquizon ceure Erregue otzan, edo mansoric, jarriric asteme, eta bere umien ganian. Juan cirian icasla bijac, eguia even Jesusen esana, eta ecarri citubezan asteme, eta bere umia: estaldu citubezan euren soñecuacaz, eta ifini even Jesus euren ganian jarriric. Ascoc, eta ascoc zabalduen citubezan euren erropac bidian, Jesus gañetic irago cedin. Beste ascoc evaguiric arboladarrac, beteten citubezan curacaz bidiae, eta aurretie eta atzetic etozanac, diadarrez cinuen: Bedeinca Jaunaren izenian datorren Daviden semia.

*Ecce Rex tuus venit tibi.* Math. cap. 21 vers. 5.

Celaco poz, celaco olguraz bete biar ezgaituz gaurco Evangelijoco esanae: Ara or nun datorren zure Erregue zuretzat? Bai, Christinauba, zuretzat dator, zure oncraco dator zure Erregue Jesu Christo; cerico ondasunez beteric dator, euracaz pagadu deijozuzan Jaunari deutzazuzan pecatubaren zorrac. Penitencijaco Sacramentuban daucaz ifiniric, bertan artu guinaiquez. Etzaitex nagui izan, eldu zaitez ondasuntegui, edo iesoru onetara;



## XXVII.

eguizu ciatz confesorien aguinduba, bete eguizu berae  
 emonico penitencija, eta onexegaz pagaduco dozuz ceure  
 zorrac. Celan penitencija au bete, edo cumplidu biar do-  
 zun, izango da nire gaurco Verbaldija. XXI *Verbaldija.*

## DOMIN. RESURRECT.

Auxe da Jaunac eguinoico eguna, poztu gaitezan, eta  
 atzeguin artu daigun; dirauzcu Elexa Santubac; dacuz-  
 culaco ilen arteric vizturic gure Erredenzailia. Barri go-  
 zo auxe emoten deuzcu gaurco Evangelijuac. Marija Ma-  
 gdalena, Maria Jacobe, eta Salomec erosi citubezan nsain  
 gozoco unjentubac, Jesusen gorputza ganzutu, edo ungie-  
 taco ustiagaz. Astiaren lenengo egunian urten even go-  
 xian goxetic, eta eldu cirian obipe, edo sepulturara eguz-  
 quijac urten ezquero. Cirautzen batac bestiari; noc quen-  
 duco deuzcu obipe, edo sepulturaco atetic arrija? Eldu  
 cirian, eta icusi even, quenduric eguala, bada zan gustiz  
 andija. Sartu cirian, eta icusi even, escumatatic jarriric  
 eguala zuriz jancirico gaste bat: arrituric gueratu cirian  
 bera icusijagaz, ceinec csan eutzen: Ez bildurtu: Jesus  
 Nazarenuen billa zabilzaz; viztu zan, eztago emen; ara  
 lecuba nun ifini even. Zuace, eta esan eijozube bere icas-  
 la eta Pedrori: zuben aurretic juango da Galileara, ain-  
 che icusico dozube, csan eutzubena leguez.

*Surrexit, non est hic.* Marc. cap. 16 vers. 6.

Orra, Christinaubac, celan viztu, edo erresucitadu  
 zan Jesu Christo. Baña ara cer dirauzcun S. Paulo Apos-  
 tolubac: nai bagara viztu Jesu Christogaz, beria lezcua  
 izan biar dala gure viztutia: berac obipe, edo sepultura-  
 tic garbi garbiric urten evana leguez, alainche guc bere  
 urten biar dogu pecatubetatic, bestelan ecin gueure buru  
 Jesu Christogaz aurquitu guinaitequez betico viztute, edo  
 erresurrecinoian. Echaca erraz gure argaltasunari, one-

*Erredenzailia*

*betico  
vitztute*

## XXVIII.

Iaco garbitasunera elduta, pecatuben zor gustijac pagaduric. Ezagaturic gure ama maite Elexiac gueuc ecin au guinaijala, idiguiten deuceuz Jesu Christoc beragan ifinituzan bere neurribagaco merecimentuben ondasuntegui, edo tesorubac, euracaz eguin daigun, guerez ecin dogun paguba. Eta badaquizube au celan guinaijan? Indulgencijac irabacijagaz. Onetaraco azalduco deutzubet, cer dirian Indulgencijac, eta celan irabasten dirian. *XXII. Verb.*

### DOMIN. IN ALBIS.

Celaco poz, celaco atzeguin, celaco olguraz beteric gueratuco etzirian Jesusen icaslen bijotzac, araco beingo beinguan, eta uste uste baga icusi eijenian euren erdijan euren Maesuba? Enzun daigun Evangelijuac dirauzcuna. Berandu zan, eta zarraturic egozan atiac, Jesusen icaslac Judeguben bildurrez baturic egozan echian. Etorri zan Jesus, eta ifiniric gustijen erdijan esan eutzen: Baquia zubecaz. Au esanic, iracutzi eutzezan bere escubac, eta saijatza, edo albu. Poztu cirian icaslac icusi evenian Jauna. Esan eutzen ostera; Baquia zubecaz. Ni neure Aitac bialdu nindubana leguez, alainche nic bere bialduten zaitubedaz zube. Au esanic putz eguin euan euren gannian, eta esan eutzen: Eutzije Espiritu Santuba: Norzuben pecatubac parcatu daiquezubezan, parcatuco jaquez, eta norzubenac gueratu daiquezubezan gueratubac izango dira. Thomas amabijetatic bat, Didimo eitzana, ez eguan euracaz Jesus etorri zanian. Esan eutzeen guero bestiac: Icusi dogu Jauna. Eranzun eutzen berac: Icusi ezpadaguidaz ulciac eguinico zaurijac, eta sartu ezpadaguidaz neure atzac ulce zuluetan, eta neure escuba bere alboco zaurijan, eztot sinistuco. Andic zorci egunera egozan icaslac echian, eta euracaz Thomas. Sartu zan Jesus atiac zarraturic egozala; esan eutzen: Baquia zubecaz; Guero

## XXIX.

esan eutzan Thomasi: ecarsu ona ceure atza, eta icusi eguizuz nire escubac: sartu eguizu zure escuba nire bular albuari, eta etzaitequez sinisezcorra izan, ezpada leijala. Eranzun eutzan Thomasec: Neure Jauna, eta neure Jaungoicua. Jesusec barriz esan eutzan; Thomas; icusi nozulaco sinistu dozu: Doatsubac icusi бага sinistu dabeenac. Beste mirari, liburu onetan esribidu eztirian asco eguin cituzan Jesusec bere Icaslen aurrian. Onec barriz ifini dira emen, sinistu daguizuben, Jesu Christo dala Jaungoicuaren seme, eta sinisturic, betico vicitzia euqui daguizuben bere izenian.

*Accipite Spiritum Sanctum, quorum remisseritis peccata remittentur eis.* Joan. cap. 20 vers. 23.

Ce escubide andijagoric emon leijo guizon bati Jesu Christoc bere Icaslai, eta euretan Elexiari emon eutzana baño? Zubez parcatu daiquezubezan pecatubac, parcaturic dagoz, dirautze gaurco Evangelijuan. Etzacan onelaco al, edo poderijoric inori autortu, edo concedidu, Jesus ona mundura etorri artian. Bere Elexa lastanac escubide au euqui leijan, ifini euan bertan Ordeaco Sacramentuba, emoteco bere bitartez, ordura artian Aingueruc bere artu ez euan escubidia. Etzan emen gueratu bere gunganaco onguria: Equijan pecatubac parcatu arren, gueratu oi ciriala bere condo, edo erliquijac; eta onec quenecceco ifini euan beste Sacramentu bat, cein dan Oleacinoecua. Orra ce Aita ona, ce Jaun arduratsuba daucagun. Ezagutu daguizubezan mesede parcbaga bi onec, azaldu nai deutzubedaz Sacramentu bijoc. *XXIII. Verb.*

### DOMIN. II. RESUR.

Arzain on baten irudijan iracasten deuzcu Salvaguiac gaurco Evangelijuan, celaco amodijo arduratsubagaz zainduten gaituzan gueure arerijuacgandic. Neu naz,

idino, Arzain ona. Arzain onac bere vicitzia galcen dau bere ardiacgaitic: baña aloguereco ardiac beriac ezituzanac, icusi arren otsua datorrela, igues eguiten dau; otsuac barriz daruaz ardiac, eta banatuten dau ardidija, edo errebañuba. Aloguerecuac igues eguiten dau, aloguerecuac dalaco, eta ardiac beriac ezituzalaco. Neu naz arzain ona, dazaudaz neure ardiac, eta nazaube neuriac. Nire Aitac nazaubana leguez, dazaut neure Aita, eta neure vicitzia galcen dot neure ardiacgaitic: beste ardiac batzue daucadaz, arditegui, edo corta onetacuac ezituzanac: areec bere ecarri biar neuquez: eurae enzungo dabe nire deija, eta eguingo da arditegui bat arzain baten beian.

*Ego sum Pastor bonus.* Joan cap. 10 vers. 11.

Ce zoriona Christinaubena! Daucagu arzain ain arduratzuba, ce gu sortu, eta jaijo baño lenagotic abijauzan, mundura gu ondo etorteco neurrijac artuten; bada ifini euan Sacramentu bat, gure gurasuac esconduten cistianian santutu eguizan, eta alan bedeincacinoeco semiacizan guendizan. Sacramentu auxe da gaurco Verbaldijan azaldu, edo esplicadu nai neuzqueubena. *XXIV. Verb.*

DOMIN III. RESUR.

Jaquin eguijen Jesusen Icaslac, celaco nequiac irago biarco citubezan, dirautze euren Maesubac gaurco Evangelijuan: Emetic puscatera enozube icusico; eta osterac: Emetic puscatera icusico nozube, bada nua neure Aitagana. Esan eueen euren artian Icaslac: Cer esan nai ete deuzcu: emetic puscatera enozube icusico; eta emetic puscatera icusico nozube, eta Aitagana nua? Cer da dinuan au: emetic puscatera? Igarti euan cer itandu gura eutzeen; eta esan eutzeen: Or zagoze alcarri itaune, cer esan nai dodan: Emetic puscatera enozube icusico; eta osterac emetic puscatera icusico nozube. Ara bada: Bene-

## XXXI.

tan dirautzabet: Zubec negar eguingo dozube, eta munduba pocic egongo da: baña zuben negarra barre biur-tuco da. Emacumiac seina eguiten daguan artian, min andijac daucaz; baña eguin ezquero, poz andi bat dauca, eta eztau gomuta iragorico esturia, mundubac guizon bat gueijago daucalaco atzeguinagaz. Alainche zubec bere; orain neque andijac daucazubez, baña barrero icusico zaitubedaz, poztuco da zuben bijotza, eta ezteutzube inoc quenduco ceuben poza.

*Mundus gaudebit, vos autem contristabimini, sed tristitia vestra convertetur in gaudium.* Joan cap. 16 vers. 20.

Ce sarri jazo oi dan munduban, Jesu Chrstoc gaurco Evangelijuan dinuana? Cembatec uste dabe, beti betico, edo guichienez dempora luceco iraungo dabeela euren poz, eta olgurac? Baña laster aguri oi da engañadu diriala; bada pozen urrian aguri oi da nequia. Eguija au icusten oi da esconctan. Ce estegu gozuac? ce olgura pozezuac? Ce uste andijac? Eta egun guichi barru gustija da nequia, lana, errietia, eta atsacabia. Eta cetatic etorri leiteque gach au? Neuc esango deutzubet. Sarri eta sarri ez oi dira eruaten Sacramentu onetara biar dirian gogo, edo intencinoiac, ezpada, edo aragui, edo ondasun, edo beste biar ezlitzatequezanac; eta orregaitic aurquituten dira aimbat gach. Enzuzube bada celaco gogo, edo intencinoe euqui biar dabeen escondutera duazanac.

*XXV. Verbaldijsa.*

DOMIN. IV. RESUR.

Jaquinic Jesus onac, ce astun, nequetsu, eta mimbera eguingo jaquen bere leaslai, bera бага gueratu biarra; lenagotic asi zan atsacabe au gozatuten, cirautzela; Bialdu nindubanagana nua, eta ezteuzt zubetatic batec bere itanduten; nora zuaz? Eta orra, au esan deutzube-

## XXXII.

dalaco, mingostu jatzube ceuben vijotz gustija. Baña ara,  
 nie eguija dirautzobet. Zubei conveni jatzube, ni juatia;  
 bada ni ezpanua, ezta zubezana etorrico Espiritu Santu-  
 ba; banua barriz, neuc bialduco deutzubet. Etorri deitia-  
 nian, berac salatu, edo argüiduco dau munduba pecatu,  
 arteztasun, edo justicija, eta juicijuaren ganian: pecatu-  
 baren ganian, nigan sinistu eztabeelaco; justicijaren ga-  
 nian, Aitagana noialaco, eta enozube gucijago icusico:  
 juicijuaren ganian, barriz, mundu onetaco lenen, edo  
 principia juzgaduba izan dalaco. Beste gauza asco neuca-  
 zan zubei cer esan, baña etzagoze eurac enzuteo. Espi-  
 ritu eguijatsuba etorri deitianian, berac iracatzico deutzu-  
 be eguija gustija, bada eztau beretic, edo bere burutic  
 ecer esango, ezpada enzun daiquirana adi erasoco dau,  
 eta datorquizunac esango dituz. Berac arguitan ifinico  
 nau, bada niganic artuco dau, eta esango deutzube zebei.  
*Princeps huijus mundi jam iudicatus est.* Joan cap. 16 v. 11

Azaldu ezquero asquenengo Verbaldi bijetan, cer dan  
 Matrimoninua, eta celaco intencinoiagaz eldu biar dan  
 bera arcera, dator orain, bere biar, edo obligacinoiac  
 azaldutia. Jesu Christo mundura etorri baño leenago, ain  
 cirian astunac, ce Moysesec autortu cutzen Judegubai  
 euquezan emastiac ichiric beste batzuc arceia; baña goi-  
 turic Jesusec demoninua, berac gaurco Fvangelijuan di-  
 nuana leguez, eta ifiniric Elexan Matrimoninoco Sacra-  
 mentuba, arindu evan carga pisutzu au. Biar, edo obliga-  
 cinoe oneexec azaldu gura deutzubedaz. *XXVI. Verb.*

DOMIN. V. RESUR.

Celaco pozez bete biar ez gaituz, Jesu Christoc gaur-  
 co Evangelijuan dirauzcunac? Cerbait escatu badeijozube  
 nire icenian Aitari, berac emongo deutzube. Eztozube  
 oraindio ecer escatu nire icenian; escatu eguizube, eta ar-

mundu  
 onetaco  
 lenenda  
 rija  
 gan  
 dalaco.

### XXXIII.

tuco dozube, betia izan dedin zuben poza. Au irudipe, eta ilunabarrian esan deutzubet. Etorrico da demporia, nos irudi baga, eta arguitan emongo deutzubedazan nire Aitaren barrijac. Orduban escatuco dozube, nire izenian. Cer dinot? ezta izango nic erregutu biarric; Aitac berac lastan zaitubez, zubez maite izan nozubelaco, eta sinistu cendubelaco nic Aitagandic urten nebala. Urten neban Aitagandic, eta etorri ninzan mundura. Ostera isten dot munduba, eta nua Aitagana. Esan eutzen icaslac: Oran bada ondo argui, eta irudi baga verba eguiten dozu, eta eztaucazu inoc itandu biarric. Onetanche bai sinistuten dogula Jaungoicuagandic etorrija zariala.

*Petite et accipietis.* Joan cap. 16 vers. 24.

Eztauca guizonac Jaungoicuaren leguia ez gordetaco achaquijaric. Eguija da argala dala bere araguija, peacuban sortu, eta jaijua dala, eta ozta ozta daucala, bere araguija eciteco indarric, eta ecin ecer dabela berez; baña gaurco Evangelijuan dauca onen erremedijua: escatu beguijo Jaunari bere leguia gordetaco gracija, emongo jaco, eta beragaz chito erraz eguingo jaco, bera baga ain gach, eta astun eguiten jacana. Baña legue au jaoteco, lenago jaquin biar dozube, eta alan esango deutzubet, cer dan; eta jaquin daguizuben celacua dan bide au, ifnico deutzubet fedeco arguija virtute au azaldubagaz. *XXVII.V.*

#### DOMIN. INFRAOCT. ASCENS.

Ce isquini, edo promesa miragarrijac, Jesu Christoc gaurco Evangelijuan bere Elexiari eguiten deutzazanacl Etorri deitequianian nic bialdurico Espiritu Santu eguijazco, Aitagandic datorrena, dirautze bere icaslai, berac esango dau, edo emongo dau testimoninua nigaitic; baita zubez bere emongo dozube, bada lenengotic zagoze nigaz. Au dirautzubet escandalizadu etzaitequecen. Botaco

### XXXIV.

zaitubez euren Batzar, edo Sinagoguetatic, eta elduco da demporia nos usteco dabeen ilten zaitubezanac, Jaungoicuaren vorondatia eguiten dabeela; au eguingo dabe, ez-tazaubelaco ez nire Aita, ez ni. Au dirautzobet gomuta daiquezuben, araco euren aldi ja eldu deitequenian, neuc esan neutzubela.

*Hæc locutus sum vobis, ut non scandalicemini.* Joan cap. 16 vers. 1.

Gaurco Evangelijuan viztu nai dituz Jesu Christoc bere icaslac, uste edo esperanza oso bat Jaungoicuagan euquitera, araco munduban etorrico jaquezan gachic andijen en erdijan. Onetaraco dirautze: nai izan deutzubedaz lenagotic adi eraso, araco euracaz inguir uric aurquitu zaitequezanian, galdu eztaiquezuben Jaungoicuaganaco uste, edo esperancia. Uste, edo esperanza auxe berau isio nai neucque zubecan, eta alan nua azaldu, edo esplique-tara. *XXVIII. Verbaldija.*

### DOMIN. PENTEC.

Ce verba gozo! ce estitsubac gaurco Evangelijocuae! Ce opetzi, edo promesa zoragarriac, Jesu Christoc eguiten deuzcuzanac! Ni ametan nabenac, dino, jaongo dau nire esana; maitetuco dau nire Aitac; beragana etorrico gara, eta beragan gueratuco gara. Ni maite enabenac, eztau nire esanic eguingo. Enzun dozubezan verba ezti-ra niriac, ezpada araco bialdu ninduban Aitarenac. Au gustijau esan deutzubet, zubecaz egon nazan artian. Araco Espiritu Santu pozguile, Aitac nire izenian bialduco deutzunac, iracatzico deutzube gustija, eta ulertu edo aitu erasoco deutzube, nic esan daiquezubedan gustija. Baquia isten deutzubet; neure baquia emoten deutzubet, ez mundubac emon oi daben moducua. Ez beiteque Iarritu, ez bildurtu zuben vijotza. Badaquizube cer esan neutzu-



ben: Banta, baña biurtuco naz zubegana. Lastan banin-  
duzube, poztuco cinatequez benetan Aitagana noialaco,  
bada Aita ni baño andijago da. Orain bada, gauza oneec  
dirautzubedaz, jazo deitezan baño leenago, araco jazo  
deitequezanian, sinistu daiquezubezan. Onesquero ezteu-  
tzubet verba asco esango. Etorri da mundu onetaco lenen,  
edo principia, (diabruba) baña eztauca nigan ecer. Baña  
jaquin daguijan mundubac ametan dodala Aita, eta gor-  
detan dodala bere aguinduba; au alan eguiten dot.

*Si quis diligit me sermonem meum servabit, et Pater meus  
diliget eum, et ad eum veniemus, et mansionem apud eum  
faciemus.* Joan cap. 14 vers. 23.

Nor poztuco ezta Jesu Christoc gaurco Evangelijuan  
dirauzcunagaz? Bera ametan dabena, bere Aitac maite  
izango dabela, bijac beragana etorrico diriala, eta bera-  
gan vicico diriala? Eta cer escatuten deuzcu onetaraco?  
Ez beste gauzaric ezpada bera amadu daigula. Orra ce  
gauza errazagaz cuqui guinaijan, lurrian ez ceruban aur-  
quitu al leitequian zorionic miragarrijena. Au galdu ez-  
taizuben, azalduco deutzubet, cer dan Caridadia, alan  
Jaungoicueganaco, cein da proximuaganaco. XXIX. Verb.

#### DOMIN TRINITAT.

Poztu gaitezan batetic, eta arritu gaitezan bestetic,  
enzunic gaurco Evangelijuan, ce neurriezgarrija dan gu-  
re anaije nagusi Jesu Christori emon jacan escubidia. Al  
edo poderijo gustija emon jat, dino, ceruban eta lurrian.  
Zuaze, bada, neure icaslac, eta bateatu eguizubez gente  
gustijac, Aitiaren, Semiaren, eta Espiritu Santubaren  
izenian, iracasten deutzezubela, gorde daijela zubci aguin-  
du deutzubedan gustija. Ni barriz zubecaz egongo naz be-  
ti beti mundubaren azquenera artian.

## XXXVI.

*Docentes eos servare omnia, quaecumque mandavi vobis.*  
 Math. cap. 28 vers. 20.

Bateatuten ditianai Jesu Christoc gaurco Evangelijuan aguinduten deutzena da, jaon daijezala bere mandamentubac. Onectatic lenen, edo principalen, eta andijena da, Jaungoicua ametia gauza guztijen gañian; bera da lenengo mandamentuba. Auxe zubei azaldutia izango da gaurco Verbaldija. XXX. *Verbaldija.*

### DOMIN. II. PENTEC.

Guizon aberats baten irudijan ifinten deuzcu Jesu Christoc gaurco Evangelijuan Jaungoicuaren guizonagaco amodijuaren anditasuna, eta guizonaren bere onguiliaganaco esquer donguiaren gogortasuna. Guizon batec eguin evan afari andi bat, dino, eta convidadu cituzan asco. Eldu zanian apal orduba, bialdu evan bere otseina esatera convidadubai; etozala, bada gustija eguala guertu, edo prest. Gustijac abijau cirian achaquijac emoten. Lenenguac eranzun evan: Baserri bat erosi dot, eta bera icustera daucat cer juan; onzat ernan deidala. Bigarrenac eranzun evan: Bustaridi bi erosi ditudaz, eta euren probara daucat cer juan: parcatu eguidazu. Beste batec eranzun eutzan: emastia artu dot, eta ecin juan neindeque. Biurtu zan otseina, eta esan eutzan ugazabari jazo zan gustija. Aserraturic ugazaba esan eutzan erijadubari. Zuaz laster urico calle, plaza, bide, eta arrabal gustijetatic, eta ecardazuz aguiri dirian pobre, erquin, argal, itsu, eta erren gustijac. Esan eutzan servizailiac: eguin da zure aguinduba; alambere lecuba emparadu da. Esan eutzan echocojaunac: Urten eguizu bide, eta estrata orreetatic, eta sartu eraso eijezube aguiri dirian gustijai. Benetan dirautzubet: Eztabeela lengo guizonectatic batec bere probaduco nire afarija.

### XXXVII.

*Cæperunt omnes simul excusari.* Luc. cap. 14 vers. 18.

Cembat Christinauri jazo oi ete jaque gaurco Evangelijoco convidadubacaz jazo zana? Dei eguiten deutze Jaungoicuac, doatsu izatera; baña eurac eztabe gura. Dirautze bera ezagutu, eta adoradu daijela euren Jaungoico, eta onguile anditzat, betico zorioncco izateco; baña itsuturic eurac mundu onetaco ondasun, andiquerija, eta gurari citalacaz, eztitubez enzun gura Jaunaren deijac. Eguija da, euren mijnac dinuala, eztaquela beste Jaungoicoric ceruco Jauna baño; baña gustiz dagoz urrin euren espanac euren vijotzetic; eta alan eztabe betetan, edo cumplietan Jaungoicuaren legueco lenengo aguinduba. Jaquin daguizuben bada celan gorde biar dozuben, nua bera azaldu, edo espliquetara. XXXI. *Verbaldija.*

#### DOMIN. III. PENTEC.

Celaco poz, atzeguin, eta uste gozoz bete biar eztau pecatariric andijenen vijotza gaurco Evangelijuac? Bera enzunagaz bacarric ezagutuco dozube, pecatariric esquerguienac eztabela bildurric euqui biar, ceruco Aita maitiaren egapera elduteco. Pecatari, eta pechubatugin, edo Publicanuac lagunduten cirian Jesu Christogaz, dirauzcu, bere sermoiac enzuterren. Escriba, eta Phariseuac murmuretan even, cinuela: Onec adisquidetzat daucaz dongac, eta euracaz jaten dau. Irudi, edo parabola batzueaz cranzuten deutze berac murmuracinoe onei: Zuben arteco batec daucaz eun ardi, dirautze: Onetatic bat galduten bajaca, eztituz larogueta emeretzijac ermuban, edo lecu seguruban isten, eta dua, galdu jacan bacarren bi-lla? Eta aurquitu daguijanian, ifinten dau bere lepuan, dator echera, batuten dituz adisquidiac, eta dirautze: esan eguidazube ordu onian izan deila, ceure ardi galduba aguertu dalaco. Dirautzabet; auxe berau jazoten da ceru-

### XXXVIII.

ban, nun poz andijagua emoten daben peccatari baten biurrera, edo conversinoiac, larogueta emeretzi artez, edo justu penitencija biarric eztauquenac baño. Ara beste irudi, edo parabola bat. Emacume batec daucaz amar errial: galduten jaca oneetatic bat; eztau bertatic isioten arguija, garbituten dau ichusquijagaz eche gustija, eta aratuten dituz echebaster gustijac diruba aurquitu artian? Araco topadu daijanian, dei eguiten deutze bere adisquide, eta auzuai, eta dirautze: poztu zaitece nigaz batera, aurquitu dodalaco galdu jatan erriala. Onelacoxe poza arcen dabe Ainguerubac ceruban, peccatari batec penitencija daguijanian.

*Imponit in humeros ejus gaudens. Luc. cap. 15 vers. 5.*

Ce amodijo erriagoric, ce ardura andijagoric aurquitu leiteque, Jesus onac, guri gaurco Evangelijuan iracusten deuzcuna baño? Peccatariric andijena izan arren, ez bacarric artuten dau bere adisquidetasunian beragana biurtu nai dabenian, ezpada berac urteten dau peccatarijen billa, eta aurquitu daguijanian, arturic bere lepuan, darua bere echera; eta gustijac ezagutu daijen celaco poza arcen daben, aguinduten deutze cerutarra, fiesta andi bat eguin daijela. Baña O guizonaren itsumendia! Asturic Aita maitetsu oni zor deutzazan mesediac, azartuten da berari irain, edo injurijaric andijena eguiten, zapaldubagaz bere izen santuba guzurrezco juramentuba eguinagaz. Lotza izan zaitecen, onelaco lotzabaquerijaric eguiten, azaldu nai deutzubet Jaungoicuaren legueco bigarren aguinduba. XXXII. *Verbaldija.*

#### DOMIN. IV. PENTEC.

Mirari baten anditasunagaz daucagu gaurco Evangelijuan arrituric S. Pedro Apostoluba. Genesaretgo ichasonduan eguan Jesus, gentadi andi batec inguiratu eva-

jai-aldi  
andi bat,  
edo fiet-  
ta andi  
bat.

### XXXIX.

nian. Icusi euan chalupa bi egozala urercian, edo luurra-  
ren urrian. Pescalarijac barriz urten even chalupetatic;  
eta egozan sariac garbituten. Bata zan Simonena, nun  
sartu zan Jesus, eta agundu eutzan eruan eguijala pusca-  
bat barrurago. Jarri zan, eta asi zan prediquetan: Amai-  
tu, edo acabadu evanian sermoia, esan eutzan Simoni:  
Eruazuz chalupoc barrurago, eta ezarri eguizuz sariac.  
Eranzun eutzan Simonec: Maesuba, gau gustija pescan  
emon dogu, baña eztogu ecer artu; alambere zure ize-  
nian botaco dot saria. Alainche eguin euan. Ez euan on-  
do ezarri, orra nun aibeste izan cirian jausi cirian ar-  
rainac, ce euren pisubagaz urratu aguinian eguan saria.  
Siñu eguin eutzen beste chalupacuai etozala lagundutera.  
Eldu cirian, eta ain modutan bete cirian arrainez chalu-  
pa bijac, ce egozan ondatu aguinian. Ain modutan gue-  
ratu zan arritu, eta bildurrez icara Simon mirari onen  
anditasunagaz, ce echunic Jesusen oñetara, cirautzan:  
Jauna urten begui emetic, bada ni pecatari andi bat naz.  
Bardin jazo jaquen Santijago, eta Juan Simonen lagunai.  
Esan eutzan Jesusec Pedrori: Ez bildurric euqui: Emetic  
aurrera guizonac pesquetan ibilico zara. Ecarri citube-  
zan lurreranz chalupac, eta ichiric gustija bertan, jarrai-  
tu eutzen Jaunari.

*Tota nocte laborantes nihil cœpimus, sed in nomine tuo la-  
xabo rete.* Luc. cap. 5 vers. 5.

Icasbide andi bat daucagu, neure Christinaubac, gaur-  
co Evangelijuan; bertan dacuzgu Apostolubac Jesus ba-  
ga egon cirian artian, alperric galdu evela gau gustija  
sariac botaten, eta ez evela arrainchu bat bere artu; ba-  
ña bere izenian, eta bera euracaz eguala, ezarri citube-  
zarian, beinguan bete citubezala chalupa bijac. Emetic  
ezagutuco dozube, cegaitic ascoc eta ascoc, gau ta egun,

## XXXX.

jai ta aste biarrian egon arren, beti dabilzan arfastaca biarren dabena falta jaquela. Da bada jaijegunac biarrian iragoten ditubezalaco; bada ezta au Jaunaren izenian lanari equitia. Ara bada cer aguinduten deuzcun onen ganian Jaungoicuaren legueco irugarren mandamentubac.

XXXIII. *Verbaldija.*

### DOMIN. V. PENTEC.

Jesu Christo gure Jaunac bere icaslai gueijen, eta sarrijen aguinduten eutzen gancia zan, alcar ametia. Auxe berau da gaurco Evangelijuan dirautzena. Ezpazare Escriba, eta Phariseuac baño artzago, etzare ceruco erreinuban sartuco. Enzun dozube anchinacuai esan jaquena. Ez eiquezu inor il; bada inor il daiquiana juicijora eruana izango da. Nic barriz dirautzuket: Bere urco, edo proximuaren contra aserratu deitequiana, juicijora eruana izango da. Proximuari burlazar edo siñuca daguana, batzarren aurrera juan biarco da. Gangarra, erua, nai erdi zorua, dei eguin deijona, infernuco subaren diña izango da. Bazagoz altaran Jaunari doeren bat isquni, edo ofrecietan, eta gomuta badaquizu, zure urco edo proximuac daucala cerbait zure contra, ichi eguizu bertan zure opetzi, edo sacrificijua, zuaz, baquiac eguizuz bera-gaz, eta ordubanche biurtu cinaitequez ceure doia isquni, edo ofrecietara..

*Qui dixerit fratri suo fatue, reus erit gehenne ignis.*

Math. cap. 5 vers. 22.

Gaurco Evangelijuan iracasten deuzcu Jesus onac, celaco lotza, eta honria euqui biar deutzen Christinaubac alcarri, eta ce castigu bildurgarrija etorrico dan alan eguin eztaijen ganian. Bere urco, edo proximuari gangarra dei eguin deiquijona, infernuco subaren errugarri da, dino. Bada gura beban onelaco honra, eta lotzia ba-

## XXXI.

tac bestiari euqui eijon; celacua naico dau semiac euqui deijuen gurasuai? Eta cembat, eta andijaguac izango ez-tira, aguindu au jaoten estaben semien ganian jausico dirian gachac? Euretatic igues daizuben, enzuzube cer aguinduten deutzen semiai Jaungoicuaren legueco laugarren mandamentubac. XXXIV. *Verbaldija.*

### DOMIN. VI. PENTEC.

Celaco arduria eztauca Jaunac bere jarrai dabilzana-  
caz? Biar bada, mirariric arrigarrijenac eguingo dituz,  
euren preminaric estubenetatic aterateco. Gaurco Evan-  
gelijuan dacuzcu eguija au. Gentadi andi bat eguan Jesu-  
segaz, eta ez euquen cer jan. Dei eguinic bere icaslai, di-  
rautze: Erruqui andi bat emoten deuzt gente gusti onec:  
iru egun dira nigaz dabilzala; eztaucque cer jan; eta bial-  
du badaguidaz, ecer artu baga, larrituco dira bidian, ba-  
da euretario batzue urrinetic etorri dira. Eranzun eutzen  
bere icasla, edo discipulubac: Nundic nora oneec gus-  
tijoc oguiz ase leiquez ermu onetan? Itandu eutzen Jesu-  
sec: Cembat ogui daucazubez? Eranzun eutzen: Zaspi.  
Esan eutzen Jesusec: Eguizube jarri deitezala guizonac  
lurrian. Artu cituban oguijac bere escubetan, esquerrac  
emon ezquero, zatitu cituzan, eta emon eutzezan icaslai,  
ifini cijuezan guizonai: euquezan arrainchu puscachu ba-  
tzue bere: bardin eguin evan euracaz. Jan even gustijac  
ase artian, eta bete citubezan zaspi otzara emparadu ci-  
rian otondo edo ogui zatijacaz: Lau milla leguez cirian  
jan evenac, eta bialdu cituzan echera.

*Misereor super turbam, quia non habent, quod mandu-  
cent.* Math. cap. 8 vers. 2.

Gaurco Evangelijuan daucagu Jesu Christo, beragaz  
dabilzanen Aita benetaco bat eguinic. Berac beteten di-  
tuz ondo baño obeto, aita batec bere semiacganaco dau-

## XXXII.

quezan cereguinac. Iracasten deutze Jaungoicuaren le-  
guia; castiguetan dituz aguiraca eguinagaz mereci dabe-  
nian; dua euren aurretic ejemplu onagaz; eta emoten deu-  
tze janarija. Onexec lauroc dira gurasuac euren uniai  
deutzezan zorrac, eta nic gaur azaldu nai neuquezanac.  
*XXXV. Verbaldijs.*

### DOMIN. VII. PENTEC.

Contu Igarla, edo Profeta falsuacaz, dirautze Jesu  
Christoc bere icaslai gaurco Evangelijuan. Ardiz janciric  
datoz zubegana, baña euren barruban otso amorratubac  
dira. Euren frutubetatic, au da, euren eguinza, edo obre-  
tatic ezagutuco dozubez. Batu leique inoc sasitic matsic,  
edo aranzatic picuric? Alainche bada, arbola onac fruta  
onac emongo dituz, charrac barriz dongac. Ecin arbola  
onac fruta charric emon leique, ezta donguiac bere onic.  
Fruta ona emon eztaiquian arbolia evagui, eta surtara  
botia izango da. Beraz, euren frutubetatic ezagutuco do-  
zubez. Eztira ceruban sartuco niri Jauna Jauna dei egui-  
ten deuzten gustijac. Nire Aitaren vorondatia eguin dai-  
quiana sartuco da bacarric ceruco erreinuban.

*Attendite a falsis Prophetis. Math. cap. 7 vers. 15.*

Contu inoc engañadu etzaicen guzurrezco icasbide,  
edo doctrinaren bategaz, dirautze Jesu Christoc bere icas-  
lai gaurco Evangelijuan. Auxe berau dirauzcu guri bere;  
baña ardura andijago bat ifini biar dogu bacochar guere  
buruba engañadu eztaigun. Cembati jazoten ez ete jaca  
bere buruba engañetia. Uste dabe ascoc eta ascoc ezteu-  
tzala urco, edo proximuari gorrotoric, ezteutzala embi-  
dijaric, eztala bere gachacaz poztuten, eta alan eztabela  
ausi bostgarren aguiduba. Eta cegaitic? Mijmagaz di-  
nualaco, maite dabela; baña sarri eta sarri ezta au ez-  
pada campotic bildotz, eta barrutic otso izatia. Ara bada



### XXXIII.

cer eguin biar dozuben aguindu au gordetaco. XXXVI. V.  
DOMIN. VIII. PENTEC.

Otseguin, edo crijadu baten irudijan iracasten deuzcu Jesu Christoc ceruba irabasteco moduba. Vici zan, dino, guizon aberats bat. Eucan onec otseguin nagusi, edo mayordomu bat. Enzun evan ugazaba onec, bere otzeinac galdu eutzazala bere ondasunac. Dei eguinic esan eutzan: Ce chacharquerija danzut zugaitic? Emon eguidazu ceurre ardurara cuqui dozuzan ondasunen contu. Eztozu emetic aurrera nire echian orainguinoco lanic euquico. Enzunic au otseguinac, abijau zan bere artian esaten: Cer eguin neique nic, neure ugazabac mayordomutzia quencen deuztan ezquero? Achurren ecin dot, esquian ibilten lotsa naz. Baquit cer eguin, euquiteco noc artu bere echian, araco ugazabac neure lanetic bota naguijanian. Dei eguin eutzen bere nagusijaren zordunai bana banaca, eta dirautza batari: Cembat zor deutzazu nire ugazabari? Eranzun eutzan: Eun arroba orijo. Aurra, aurra esan eutzan: eutzi papera, eta ifini eguizu ceure liburuban berrogueta amar. Dei eguin eutzan beste zordun bati: Cembat zor deutzazu nire ugazabari? Eranzun eutzan: Eun anega gari. Aurra laster, ifini eguizu liburuban laroguei. Enzun evanian echecojaunac bere crijadu nagusijac eguin evana, alabadu evan artu evan asmuba: bada mundutarac zurrago dira euren gaucetan Jaungoicuarren semiac baño. Eguizube auxe berau zubez bere, irabaci eguizubez adisquidiac lurreco ondasunacaz, araco il zaitecenian artu zaijezan ceruco echeetan.

*Jam non poteris villicare.* Luc. cap. 16 vers. 2.

Gaureo Evangelijuan daucagu otsein bere ugazabac echetic botarico bat, euqui бага cegaz janarija irabaci; eta cer eguin evan? Etzan birao, eta maldicinoc urtica

### XXXIV.

abijadu, isil isilic eta asti onagaz ifni zan beguiratuten, ce modu artu leijan vicitzia iragoteco. Au eguin biarrian, asi balitz bere ugazabari madaricacinoe gogor, eta icaragarriac botaten, jaquingo evan venturaz ugazabac, cer esan evan beragaitic, eta quenduco eutzan bere zordunai guichijago ifni eraso eutzena. Onixe jarraituco beleutze biraoeariac, ez litzatequez aimbeste aserre, auci, eta goroto icusico. Onetaraxe eruan nai neuquez neure enzulac, azaldubagaz, cer dan madaricacino, edo biraua.

*XXXVII. Verbaldija.*

### DOMIM. IX. PENTEC.

Negarretan urturic daucagu gaurco Evangelijuan cerubetaco pozgarrija. Eldu zan Salvaguilia Jerusalenen ondora, eta icusigaz urija, asi zan negarrez esaten: Ay eta ezagutuco bacendu egun onetan opa jatzun baquia! baña gauza oneec escutaduric dagoz zure beguijetatic. Etorrico dira egunac, ceinzubetan inguiratuco zaitubezan lurren, edo lugabanez ceure arerijuac. Eztutu, larritu, eta preminaric andi, eta gogorrenen artian ifnico zaitube. Gustijori irulico zaitube, eta lurrera botaco zaitube ceu, eta ceugan aurquitu deitequezan semiac, eta eztabe arriric arri ganian ichico. Cegaitic? Ezagutu nai izan eztozulaco Jaunac eguin deutzun icustaldi, edo visitia. Sartu zan Elexa, edo templuban; eta asi zan andie campora botaten, saldu erosijetan evilzanan, cirautzela: Esanic dago: Nire echia oracinoeco echia da; zube barriz lapur cobao eguin dozube. Eta urrengo egun gustijetan egon zan iracasten templuban.

*Videns civitatem fleuit super illam. Luc. cap. 19 ver. 41.*

Cegaitic deritzube negar eguiten dabela Jesu Christoe, Jerusalem icusiric? Ez beste gauzagaitic, czpada bere gogortasun, eta gortasunagaitic, ceinegaz cz eutzen

### XXXV.

jaramonic eguiten Jaunaren deijai. Jerusalemen gogortasun, eta gortasun onetan daucagu ordi baten irudi benetaco bat; bada elduten da Jerusalem leguez Jaunaren diadarric andijenen, ez bacarric jaramonic ez eguitera, baita ez enzutera bere. Orregaitic da ain pelleburutsuba ordiquerija. Auxe adi eraso nai neuque gaurco verbaldijan. *XXXVIII. Verbaldija.*

### DOMIN. X. PENTEC.

Gaurco Evangelijuan iracusten deuzcu Jesu Christoc, ce donguia dan arroquerija, edo sobervija, eta ce on, eta Jaunaren gogocua humiltasuna. Egozan Jesusegaz buru eritzi batzuc, sinisturic eurae santu batzuc ciriala, eta bestiac pecatari leguez guichitan euquezala. Irudi auxe Jesusec esan eutzen arro onei. Juan cirian guizon bi Elexa, edo templura oracinoe eguitera; bata Phariseua, bestia pechuarzaile, edo publicanua. Phariseuac sutunic eguala cianuan: Ezquer andijac deutzudaz Jauna, enazalaco beste guizon lapur, oquer, ciquin, eta bestien emastegaz dabilzanac lezeua, onaco publicanu au leguez. Birritan baru eguiten dot astian; amarrenac ciatz paguetan dodaz. Publicanuac barriz urrinian ifiniric, eta macurric etzitzan beguijac ceruranz eriguiten bete, eta joten evan irrimere bere bularra ucabilagaz esaten evala: Valija zaquidaz Jauna niri pecatarijoni. Benetan dirautzobet: Publicanua santuturic biurtu zan bere echera; baña ez Phariseua; cegaitice bere buruba arrotuten dabena, beeraturic gueratuco da; eta humildu deina ereguija izango da.

*Dixit Jesus ad quosdam, qui in se confidebant. Luc. cap. 18 vers. 9.*

Eztago inor pecatuban jausteco ain pelleburu andijan, cein da uste, edo confianza larregui daucana. Onelacuac eztau arduraric arcen mugaldi, edo ocasinotatic

## XXXVI.

igues eguiteco, eta alan guichijago uste dabenian, aurquituten da pecatubaren sarian, Phariseuari jazo jacana leguez. Uste euan Jaungoicua bedeincatuten eguala, eta orra nun aurquitu zan arroquerijaren laquijuan. Edocein pecatutan au icusten da; baña ez inun ain ondo, cein da araguizcuan. Ezta sinistu gura, aimbeste pelleburu da-guanic bertan jausteco, ezta arcen euretatic igues eguiteco arduraric; eta orregaitic aimbeste jausten dira pecatu lotzagarri onetan. Orra cer adi eraso nai neuzquezuben seigarren aguinduba azaldubagaz, eta gaur, pensamentuzco pecatubac. XXXIX. *Verbaldija.*

### DOMIN. XI. PENTEC.

Jesussec eguinico mirari arrigarri bat daucagu gaurco Evangelijuan. Urten euan Salvaguiliac Tiroco lur, muga, edo jurisdiccinoetic, eta iragoric Sidonetic, eldu zan Galileaco itsasondora, Decapoleosco erri artera. Eldu zanian, ecarri eutzen guizon gor, eta mutu bat, erregututen eutzela ifini eguijola escuba bere ganian. Atera euan gente artetic, gueratu zan beragaz bacarric, eta sartu eutzazan bere atzac belarrietatic; botaric chistuba ucutu eutzan atzagaz mlinian, eta cerura adi cispuru eguin ezquero, esan eutzan: idigui zadiz. Esanagaz batera idigui cirian gorraren belarriac, ascatu zan bere miina, eta asi zan artez verbaz. Aguindu eutzen ez eiquijuela inori ecer esan. Baña ceimbat eta gueijago aguindu isilic egoteco, aibat eta gueijago zabalduten even curac mirarija, eta esaten even: Gustija eguin dau chito ederto; gorrai enzun craso deutze, eta mutubai verba eguin.

*Surdos fecit audire, et mutos loqui.* Marc. cap. 7. ver. 37.

Andija izan zan benetan Jesussec gaurco Evangelijuan miina ascatabagaz mutubari eguin eutzan mesedia; baña andijagua izango litzateque nire eritzijan ascori eguingo

### XXXVII.

leizquijona, muturic ifinico balituz: ez litzaquez enzungo aimbat loiquerija, urdequerija, ciquinquerija, eta lotzagarriquerija. Lur gustija dago atsituric verbaldi, edo conversacinoe itsusi, eta ezainenacaz: emetic iragoten da eguiqueraric loijenetara, eta Christinau artian esan, eta enzun bere ecin leitequezan pecatu icaragarrijetara. Bildur izan zaquijuezan pecatu onei, azalduco dot cer eragotziten daben Jaungoicuaren legueco seigarren aguindubac esate, eta eguitetan. *XL. Verbaldija.*

### DOMIN. XII. PENTEC.

Doatsubac zubez daceutzubena dacuzen beguijac; dirautze Jesusec gaurco Evangelijuan icaslai. Benetan dinot: Erregue, eta Igarla ascoc icusi nai izan dabe, zubez daceutzubena, eta ez even icusi; enzun zubez dantzuzubena, baña ez even enzun. Onetan eguala, jagui zan leguejaquin bat, eta tentetarren itandu eutzan: Maesuba, cer eguin biar dot, betico vicitzia euquiteco? Eranzun eutzan Jesusec: Cer dino leguiac? celan iracurten dozu? Eranzun eutzan: Amadu eiquezu ceure Jaun Jaungoicua ceure vijotz osotic, ceure arima gustijagaz, eta ceure aleguin gustijagaz; ceure urco edo proximia barriz ceure buruba leguez. Esan eutzan Jesusec: Onco dinozu. Eiquezu ori-xe, eta vicico zara. Leguejaquinac, uste ez eguijan Jesusec tentazar evilela, ezpada jaquin naijagaz, itandu eutzan: Nor da nire urco, edo proximia? Esan eutzan Jesusec: Guizon bat joian Jerusalendic Jericora. Jausi zan lapur batzuben eschubetan, zeinzuc quenduric eucan gustija, ichi even zauriz beteric, eta erdi ilic. Irago zan andic Abade, edo Sacerdote bat; baña icusi arren, aurrera irago zan jaramon baga. Bardin eguin evan andic irago zan Levita batec. Andic eldu zan Samaritar bat; icusi evan guizona, urreratu zan beragana, eta erruqui andi bat artu

### XXXVIII.

evan, guizon gaisua alan icusirie: lotu eutzazan zaurijac, ezarri evan euren gañera orijua, eta ardaua, eta ifinirie bere astuan, eruan evan ostatura, nun euqui evan bera-gaz ardura andi bat. Bijaramonian atera cituzan diru bi, emon eutzazan ostarijari, eta esan eutzan: Euquizu onen arduria, eta au baño gueijago gastadu badaiquezu, neuc ostera natorrenian pagaduco deutzut. Iru oneen artian nor dala deritzu lapurrac zauritucuenen proximua? Eran-zun eutzan; bere erruqui izan zana. Esan eutzan Jesusec: Auxe eiquezu, eta vicico zara.

*Incidit in latrones.* Luc. cap. 10 vers. 30.

Lapurren escubetan jausirico guizon bat daucaga gaurco Evangelijuan. Onecc bidera urtenic, quendu eut-zen guizon ari eucan gustija; baña ezta au lapurretan eguiteco modu bacarra. Aimbeste dira, inoena quenceco dagozanac, ce ecin inoc adi eraso leiquez gustijac, eta alan esango deutzubedaz lenen edo principalen, eta ezau-nenac; ceinzuc galazoten dituzan zaspigarren aguindu-bac. *XLI. Verbaldija.*

### DOMIN. XIII. PENTEC.

Amar leguendun, edo sarnatijen garbitasun miragarri bat daucagu gaurco Evangelijuan. Joian Jesus ona Sama-rija, eta Galilearen artetic. Baserri batera sartutera joia-nian, urten eutzen bidera amar leguendun, edo leprosoe, eta asi jacazan urrinetic diadarrez: Jesus Maesuba, erru-qui guzaz. Icusi cituzaneco esan eutzen: Zuace, eta ira-cutzi zaitece Abade, edo Sacerdotiari. Juazala garbi gar-birie gueratu cirian. Euretatic bata ain garbi icusi zanian, biurtu zan atzera, Jaungoicuaren alabanzac cantaduba-gaz, eta etsunic auzpaz Jesusen aurrian, esquer andijac emoten eutzazan. Samaritarra zan au. Au icusi evanian Jesusec esan evan: eztira amar izan garbitubac? Nun di-

## II.

ra bada beste bederatzijac? Ezta aurquitu Samaritar erbesteco au baño, Jaungoicua bedecincatu daijanic. Esan eutzan garbitubari: Jagui zaitez, eta zuaz, bada ceure fediac osatu zaitu.

*Mundati sunt.* Luc. cap. 17 vers. 14.

Amar leguendun, edo sarnati daucaguz gaurco Evangelijuan garbituric gorputzian. Baña cembat eta gueijago ete dira euren arimaco garbitu biarra dauquenac? Cembat ete dira pecatubaren leguen, edo lepraz euren arimac atsituric dauquezanac? Baña gustijen artian gueijen zabaldu dic daguana da cequenquerija edo avaricija: eta alan dinue Isayas eta Jeremiasec, chiquitic andiraño gustijac dira cequen, edo codiciosuac. (1) Eguija au ezta ece-tan obeto ezagututen saldu erosi, eta artu emonetan baño. Orregaitic azaldu nai deutzubedaz tratuban dagozan irabaci bidebaga, edo oquerrac. *XLII. Verbaldtja.*

DOMIN. XIV. PENTEC.

Ecín inoc ugazaba bi batera servidu leiquez, dirautze Jesusec bere icaslai. Edo bata amadu biar dau, eta bestiari gorroto izan biar deutza; edo bata sufridu, nai aguantaduco dau, eta bestia guichitan euquico dau. Ecín Jaungoico, eta diruba servidu cinaiquez. Orregaitic dirautzobet: ez eguizube ardura larreguiric euqui ceuben vicitziagaz, cer jan, eta jancico dozuben. Ezta arimia janarija baño leenago? Eta gorputza soñecua baño gueijago? Beguira ceruco egastijai; eztabe iguitandu, edo galabatan; eztabe alegui, edo troxetan batuten; eta zuben Aita beticuac jaten emoten deutze. Etzaucaz berac eurar baño gueijagotan? Noc zuben artian aleguin gustija eguin arren, luzatu leique ucondo bete bere gorputza? Cegaitic ardura larregui emon biar deutzu jastecuac? Be-

(1) Isai. 56 11. Jerem. 8 10.

guira celan aciten dirian larra-lirijuac; eztira necatuten, eztabe iruten; alambere dirautzobet: Salomon bere anditasun gustijan etzan ain ederric janci; cein da onetarico bat. Orain bada: gaur jaijo, eta bijar labaco surtara botaco dan bedarra ain ederric janciten badau Jaungoicueac; ceimbat eta obeto jancico etzaituce zubece fede guichicoc? Etzaite bada larritu, cer jan, edan, eta jancico dozunagaitic. Oneen billa ibili oi dira gentilac. Ondo daqui zuben aitac, oneen biarra daucazubena. Billatu eguizubez lenengo Jaungoicuaren erreinuba, eta bere arteztasun, edo justicija; eta au gustijau emongo jatzube.

*Nonne anima plus est quam esca.* Math. cap. 6 vers. 25.

Gaurco Evangelijuan dirauzcu Jesusec gueijago dala, arimia janarija baño; esango baleuzcu leguez, gueijagotan euqui biar dogula arimia gorputza, eta gorputzeco gauza gustijac baño. Gustijac dinue auxe berau miinagaz, baña Christinau gustiz ascoc ucatuten dabe eguinza edo obra-  
caz, eta guzurtetan dabe euracaz euren espanac dinuena. Auxe da benetan araco guzur arimia ilten dabena. One-laco erijotziagaz il eztaizun ceure arimia, enzuzu cer dirauzcu zorcigarren aguindubac. *XLIII. Verbaldira.*

#### DOMIN XV. PENTEC.

Ama alargun baten negarracgaitic vizturico guizon gaste bat daucagu gaurco Evangelijuan. Joian Jesus Nahin deitzen urira. Beragaz juazan bere icaslac, baita bere gentadi andija. Eldu zanian urico atetara, eroien ilic Ama alargun baten seme bacarra. Urico asco juazan beragaz. Icusi evanian Jesusec alarguna, bere erruqui andi bat artu evan, eta esan eutzan: ez negarric eguin. Eldu zan iloc, edo andac eruezanacgana, (oneec barriz guel-diric gueratu cirian) eta esan evan: Guizon gastia, zuri dirautzut; Gora. Jarri zan ilic eguana, eta asi zan ver-



baz. Gustijac gueratu cirian bildurrez icara, arritu, eta concorturic, eta cinuen, Jaungoicua bedeincatubagaz: Igarla andija etorri jacu, eta Jaungoicuae icusi edo visitadu dau bere pueblua.

*Acceptit omnes timor, et magnificabant Deum. Luc. cap. 7 vers. 16.*

Ain izan zan arrigarrija Naingo alargunaren seme bacarra viztubagaz, Jesu Christoc eguin evan mirarija, ce, dino Evangelijuac, bera icusiric Jesusegaz etozanac, eta urico auzotegui gustijac, ezagutu evela Mesias eguijazcotzat. Etzan guichijagotzat mirarijen anditasuna. Alam-bere, ez once, ez beste gustiz andi ascoc sinistu eraso al izan eutzeen murmulari batzui, eta Salvaguiliaren eguinza, edo obraric miragarijenac gaitic egozan dongaro esaten. Orra celacua dan murmularijen itsumendija. Igues eguin daguizuben pecatu galgarri onetatic, azalduco deutzubet, ce donguia dan inoren contra dongaro esatia.

*XLIV. Verbaldija.*

#### DOMIN. XVI. PENTEC.

Gaurco Evangelijuan daucaguz lecinoe andijac arroquerija, edo sobervija, eta humiltasunaren ganian. Sartu zan Jesus zapatu baten Phariseo batenian bascaldutera. Pharisetac ebilzan berari adi; eta orra nun ifinten jaca bere aurrian urmindun, edo hidropicu bat. Itandu eutzen Jesusec leguejaquin, eta Phariseuai: Osatu leiteque zapatuban? Ez eutzen eurac ecer eranzun: eta berac escuz ucutubagaz bacarric osatu, eta bialdu evan. Esan eutzen guero Phariseuai: Jausten bajaca zuben arteco bati asto, edo idi bat pozu, edo troca baten, ezta bertatic ateraten zapatu izen arren? Ez even aurquitu cer eranzun. Icusi evan, celan jatera convidaduric egozanac ebilzan aurrengo jar lecuben billa, eta esan eutzen: Estegube-

tara dei eguin deiquezubenian, etzaitequez maipuruban jarri; bada venturaz zu baño honragarri, edo andijago bat etorri leiteque, eta esan zuri bijoi dei eguin deutzuben echeco jaunac: Adisquidia jatzi zaitez beerago, eta eguijozu lecu oni. Orduban beerago jatzi biarco cinatequez, edo venturaz barreneraño; eta lotzaturic gueratuco cinatequez gustijen aurrian. Eguizu bestera. Araco jatera zaruacenan, jarri zaitez barrenenian, esan deizun dei eguin eutzunac: Adisquidia igoizu gorago; onegaz gueratu zara onraduric jarriric dagozan gustijen aurrian: cegaitice arrotu deitian gustija humil gueratuco da, eta humildu deitequiana ereguija izango da.

*Recumbe in novissimo loco.* Luc. cap. 14 vers. 10.

Gaurco Evangelijuan iracasten deuzcu Jesu Christoc, celan eldu biar garian Meza enzutera. Jesu Christoc ari-mai eguiten deutzen combit bat da Mecia, nun daucan bere janari, eta edarija. Zuazanian bada Mezara, eizaitetz jarri maipuruban: au da, ez eguizu uste, beste an dagozanac baño obia, santubagua, devotuagua, edo garbi-jagua zariala; bada antuste, edo sobervija onegaz bazuaz, asquenengo gueratuco zara Jaunaren aurrian. Ifini zaitez asquenengo lecuban: au da, sinistu eguizu, an dagozan gustijetatic charrena, donguena, eta pecatarijena zariala, eta eztozula an egotia bere mereci; esan deizua Jesu Christoc igoizu gorago. Icusico dozu, celan Salvaguiliac berac beteco zaituzan humiltasun onen sari gustizco devocinoez, eta artuco dituzuzan Mezan dagozan arimara-co ondasunic ugarijenac, eta beteco dozun biar dan leguez Elexien lenengo aguinduba. *XLV. Verbaldira.*

DOMIN. XVII. PENTEC.

Gaurco Evangelijuan daucaguz banaturic Jesusen arerijo embidijaz betericuen asmubac. Eldu cirian Phari-

### LIII.

seuac beragana; eta itandu eutzan euren arteco legueja-  
 quin batec tentagarri: Maesuba, cein da Jaungoicuaren  
 legueco lenengo aguinduba? Eranzun eutzan Jesusec:  
 Amadu eiquezu ceure Jaun Jaungoicua ceure arima osua-  
 gaz, ceure sensun gustijagaz, eta ceure vijotz gustitic.  
 Auxe da aguinduric lenen, edo principalen, eta andijena.  
 Bigarrena barriz onen irudicua: Maitetu eiquezu ceure  
 urco, edo proxima ceure buruba leguez. Aguindu bi  
 oneetanche dagoz zarraturic legue, eta Profeta gustijac.  
 Batera egozala Phariseuac, itandu eutzen Jesusec: Cer  
 deritzube Christo gaitic? Noren seme da? Eranzun eu-  
 tzen; Davidena: Celan bada Davidec, dirautze, dei eguiten  
 deutza Jauna, dinuanian: Esan eutzan Jaunac nire Jau-  
 nari: Jarri zaitez nire escumatatic, zure arerijuac zure  
 oin aspico aulquitzat ifini daguidazan artian? Bada, bere  
 seme bada, celan Jaunaren icenagaz dei eguin leiyo? Ecin  
 eranzun al izan eutzen: eta andic aurrera etzirian azartu,  
 edo atrevidu ecer itanduten.

*Dixit Dominus Domino meo; sede a dextris meis. Math.*  
 cap. 22 vers. 44.

Gaurco Evangelijuan daucagu Jesu Christoren andi-  
 tasun pare baguia, cein anchinatic eucan esanic David  
 erreguiac: Esan eutzan Jaunac nire Jaunari, jarri zaitez  
 nire escumatatic. Ce poz, ce atzeguin, ce olgura mira-  
 garri artuco ez gueunque, icusi albaguinaique gueure  
 anaije nagusi, gueure buru au Aita beticuaren escumata-  
 tic, guizon, Aingueru eta izatia dauquen gañera eregui-  
 ric? Bada, neure enzula maitiac, egunian egunian poz au  
 euqui guinaique: Idigui daiguzan gueure arimaco begui-  
 jac, viztu daigun gueure fedia, eta edocein mezatan eu-  
 qui guinaique zorion benetaco au. Alan izan dedin azal-

duco deutzubet Meeciaren anditasun neurri baguia. XLVI.  
*Verbaldija.*

## DOMIN. XVIII. PEETEC.

Sartu zan Jesu Christo oncichu baten, eta juan zan ichasoz bere urira, dino Evangelijuac. Eldu zanian, ifini eutzen bere aurrian oe baten perlesijaz cadendurico bat. Icusiric Jesusec euren fedia, esan eutzan guexuari: Sinistu eguizu, semia, parcatuten jatzuz ceure pecatubac. Au enzunic Escriba batzuc, asi cirian esaten euren barrubant: Onec bai dinozala blasfemijac. Ezagutu eutzen Jesusec euren barruba, eta esan eutzen: Cetaco darabilzuz ain gogo charrac ceuben vijotzetan? Cer dauca gueijago esatiac, parcatuten jatzuz ceure pecatubac, cein da esatiac, jagui eta ibili zaitez? Ara bada: Jaquin daizuben guizonaren semiac daucala pecatubac parcatuteco escubidia, esan eutzan guexuari: Gora; artu eguizu lepuan ceure qia, eta zuaz echera. Alainche eguin evan. Gustijac gueratu cirian bildurrez icara, mirari au icusijagaz, eta be-deincatuten even Jaungoicua, aimbeste escubide emon eutzelaco guizonai.

*Remittuntur tibi peccata tua.* Math. cap. 9 vers. 2.

Ce Medicu Jaungoicozcua Jesu Christo! Verbachu bategaz daquiz osatuten gachic andijenac, alan gorputzequac, cein da arimacuac. Baña ezta emen gueratuten bere guganaco onguria; bada emon deutze guizonai bere beste onembeste arimetan eguiteco escubidia. Esanic Sacerdotiac arimaco osasuna benetan escatuten deutzan bati: nic ascaturic zaitut ceure pecatubetatic, gueratuten da osaturic. Alambere, izanic ain erraz arimaco guexuac osatutia, ce atzera, ce nagui guizonac osasunguei, cdo medicina au arcera juateco! Icusiric Elexa Santubac bere seme ascoren atzeracunza ain galgarri au, aguinduten

deutze, urtian bein guichienez eldu deitezala Penitencijaco Sacramentu au artutera. Agundu auxe azaldu tera nua, eta viztu zaitezen aibat sarrijen confesetara, esango deutzubet, celaco mesede ugarijac dacarquijozan ari-miari oitura onec. *XLVII. Verbaldija.*

DOMIN. XIX. PENTEC.

Parabola, edo irudi bategaz iracusten deuzcu Jesus onac gaurco Evangelijuan, guizonac billatuten ditubezan achaguijac, bere deijai jaramonic ez eguiteco. Ceruco erreinubac dirudi, dino, erregue bere semien esconzan estegubac eguin cituban bat. Orduba eldu zanian, bialdu cituban servizailiac, convidadubai otseguitera; baña ez even etorri nai izan. Bialdu cituzan beste batzuc, cirautzela: Zuace convidadubacgana, eta ezaijezube, prest dago maija, ilic cecen, eta egastijac, eta gustija guertu, edo prest: zatoze estegubetara; baña eurac guichitan euqui even, edo despreciadu even, eta juan cirian, bata bere baserrira, bestia bere cereguinetara; emparadubac barriz artu citubezan otseguinac, eta mespresa, edo desprecijo, eta lotzabaquerijaz bete ezquero, il citubezan. Enzun evanian erreguec charquerija au, gustiz aserratu zan, eta bialduric soldadubac galdu cituban guizon areec; baita bere erre evan euren urija. Au eguinic, esan eutzen bere otseguinai: Estegubac prest dagoz: lenengo deitubac etzirian diña; zuaze bada bidetara, eta topadu aldaiquezubezan gustijac ecarzubez estegubetara. Urten even crijadubac, eta ecarri citubezan on da char, aurquitu citubezan gustijac, echia guizonez bete artian. Sartu zan erregue maijan egozanac icustera, aurquitu evan, ez eguala euretatic bat esteguico jastecuagaz, eta esan eutzan: Adisquidia, celan emen sartu zara esteguico soñeco baga? Orduban esan eutzen alguacilai: Loturic escu, eta oñetatic,

bota eguizube au ifumbera. An bai izango dala negarra, eta aguincarrascadia. Asco dira deitubac, baña guichi autu, edo escogidubac.

*Venite ad nuptias*, Math. cap. 22 vers. 4.

Itandu nai badeutzegu Elexaco Guraso, eta Iracaslai, cer adi eraso nai daben gaurco Evangelijoco irudi edo paraboliac? Esango deuzcube, dala Altaraco maijaren irudija. Beti dago Jauna esaten Christinaubai; duazala estegu areetara, bada beti daguala prest maija, ceruban, eta lurrian aurquitu al leitequezan janari, eta edariric gozue- nez beteric; baña Christinau ascoc milla achaquija billa- tuten ditubez, ez juateco. Icusiric Elexa Santubac bere seme oneen itsumendija, aguinduten deutze duazala edo- labere Pascuaz comulguetara. Aguindu auxe azalduco deutzubet gaurco Verbaldijan, eta jaquin daguizuben, ce- gauza ona dan aibat sarrijen comulguetia, esango deu- tzubet cembat arimaco ondasun dagozan oitura onetan.

*XLVIII. Verbaldija.*

#### DOMIN. XX. PENTEC.

Erreguechu baten semia eguan guexoric Cafarnaunen, dino gaurco Evangelijuac. Enzunic onec Jesus irago zala Judeatic Galileara, eldu zan beragana, eta erregutu eut- ztan; arren joiala bere echera, eta osatu egujala bere se- me il aguinian eguana. Eranzun eutzan Jesusec: Mirari- jac icusi ezpadaiquezubez eztozube sinistuten. Esan eut- ztan erreguechubac: Jauna betor laster, semia il baño le- nago. Eranzun eutzan Jesusec: zuaz, vici da zure semia. Sinistu evan guizonac. Echera joiala, urten eutzen bidera otseinac, eta esan eutzen osasunagaz eguala semia. Itan- du eutzen: ce ordutan asi zan osatuten; eranzun eutzeen; atzo zaspiretan ichi eutzan bero, edo calenturiac. Ezagu- tu evan Erreguechubac ordu atanche esan eutzala Jesu-

## LVII.

sec, vici da zure semia, eta sinistu evan bere eche gustijagaz.

*Nisi signa, et prodigia videritis non creditis.* Joan cap. 4 vers. 48.

Cembat Christinauri esan ete leiquijo Jesus onac gaurco Evangelijoco erreguechubari cirautzana? Mirari andijac biar dira zubei cerbait sinistu erasoteco? Ceimbat gauza daucaz aguinduric, ceinzuc Christinau ascoc eztitubezan atacotzat sinistu gura? Eta sinistuten baditubez, celaco achauquijac billatuten ez ditubez ez gordeteco? Cembati jazoten jaque au barubagaz, eta amarren primicijac paguetjagaz? celaco achauquijac billatuten ez ditubez, batzuc baruric ez eguiteco; eta beste batzuc amarren primicijac ez paguetaco, edo guichienez cerbait guichijago emoteco? Ezagutu daizuben celan bete, edo cumplidu biar dozubezan Elexaco aguindu bi oneec, nua azaldu, edo espliquetara. *XLIX. Verbaldira.*

### DOMIN. XXI. PENTEC.

Ceruco erreinuba, dirautze Jesusec bere icaslai, da erregue bere otseinai contu artu nai deutzen bat lezcua. Asi zan bada contu arcen, eta ifini jacan aurrian, amar milla talentu zor eutzazan bat. Ez euquiric cegaz pagadu, aguindu evan erreguec saldu eijela bera, bere umiac, bere emastia, eta eucan gustija, euren valijuagaz pagadu cedin eucan zorra. Au enzunic echun zan bere onetara, eta erregututen eutzan arren ichan eijola pusca bat, eta gustija pagaduco eutzala. Erruquituric ugazaba parcatu eutzan zor gustija, eta ichi eutzan libre juaten. Andic urten evanian, topadu evan eun errial zor eutzazan lagun bat, eta estututen evan pagadu eijozan. Echunic zorduna bere aurrian erregututen eutzan, arren icharon eijola pusca bat, eta gustija pagaduco eutzala; baña ez

## LVIII.

evan nái izan, eta ifini evan carcelan gustija pagadu artian. Icusiric au beste otseguin lagunac, gustiz necatu ciran, eta esan eutzen ugazabari jazo zana. Dei eguin eutzan ugazabac otsein gogor oni, eta esan eutzan: Crijadu guestua, eneutzun nic parcatu ceuztan zor gustija, erre-gutu ceuztalaco? Etzenduban bada zuc ceure lagunen erruqui izan biar, ni zugaz izan nazana leguez? Aserraturic erregue ifini evan borreguben escubetan zor gustija pagadu artian. Auxe berau eguingo dau zubecaz bere Aita cerucuac, parcatuten ezpadeutzezube zeuben anai-jiai viotz osotic.

*Nonne omne debitum dimisi tibi, quoniam rogasti me?*  
Math. cap. 18 vers. 32.

Gaurco Evangelijuan dacuzcu, ce alsu, edo poderosua dan oracinoia Jaunaren aurrian; bada amar milla talentu zor cituzan otzeinen irudijan ezagutu biar dogu, Jaunari gueure pecatubacgaitic deutzagun zor esquer-guia; eta erregue zor parcazailien irudijan daucagu gueure erregue cerucua: otzeinen erregubac dira gurienen irudija. Viztu zaitecen bada Jaungoicuari ceuben erregu, eta oracinoiae eguitera, esango deutzubet celan eguin biar dituzubezan ceuben escarijac, eta azalduco dodaz Aita guriaren lenengo iru escabidiac. *L. Verbaldija.*

DOMIN. XXII. PENTEC.

Ce zoraquerija, ce ichumendi burubaguia Phariseuena! utsuneren baten artu gura leuquee Jaungoicuaren semia. Batuten dira onetaraco, eta bialduten deutzez euren icasla bi Herodesenacaz batera itandutera: Maesuba daquigu guizon ciur, eta eguijatsuba zariana; Jaungoicuaren bidia artez iracasten dozuna, ezteutzazula inori bildurric, ezta beguiraunerice bere. Esan eguiguzu bada, cerderitzun: pagadu leijo pechuric Aguintari, edo Empera-



## LIX.

doriari, ala ez? Ezaguturic Jesusce euren guestaquerija, esan eutzen: Cer darabilzube ni tentetan donguestali, edo hipocritoc? Ecardazube pechupaguco diruba. Ecarri eutzen, eta esan euzen: Norena da irudi, edo imagina au? Era noren izena dago emen ifiniric? Eranzun eutzen: Emperadoriena. Eranzun eutzen Jesusce: bada emon eguijuzube Emperadoriena dana Emperadoriari, eta Jaungoicuarena dana Jaungoicuari.

*Gujus est imago hec, et superscriptio?* Math. cap. 22  
vers. 20.

Jesus onac gaurco Evangelijuan eguin-egan itaunia, eguin biar guesquijo Christinanboe bacochoe bere burubari. Noren irudija daucat nic neure ariman? Gurata gurac ez esan biarco gueunque: Jaungoicuarena, bada berac bere anz, edo irudira eguina da; eta orregaitic guizona bete betian emon biar jaca Jaunari. Au eguiteco iru gauza biar ditu; parcatu gach eguin deutzenai, onetanche dagualaco Aita cerucuairen irudico izatia, Salvaguiliac berac dinuana leguez (1): ez jausi tentacinoian, eta libre egon arimaco gachetatic. Iru escavide onexec eguin biar deutzaguz Jaungoicuaren irudija guegan jaoteco. Orra cer azaldu nai deutzubedan. *LI. Verbaldija.*

## DOMIN. XXIII. PENTEC.

Gaurco Evangelijuan ezagututen da, cembat valijo dabeen batac bestiagaitic eguinico erregubac. Jesu Christo prediquetan eguala eldu zan beragana andiqui bat, eta adorado ezquero esan eutzan: Jauna orainche il da nire alabia; betor, ucutu beijo escubagaz, eta onexegaz vicicoda. Jagui zan Jesus; joian beragaz, baita bere icaslac bere. Eldu zan bere atzetic emacume bederatzi urtian odolerijua euqui evan bat, eta ucutu eutzan erropa barrenian,

(1) Math. c. 5 v. 43.

bere barruban cinuala; bere soñeco ercian uctutu baneijo osatuco ninzateque. Beguiratu euan Jesusec atzeranz, eta icusi euanian esan eutzan: Euquizu uste sendua, alabia, ceure fediac osatuco zaitu: berbertatic osatu zan. Eidu zanian Jesus andiquijaren echera, aurquitu cituzan musicubac, eta gentien erlaro andi bat, eta esan eutzen: quen ortic, ezta il nescachia, ezpada lotan dago. Eurac barriz burla eta barre eguiten eutzen. Gentia quendu zanian sartu zan barrura, artu euan escutic nescatilia, eta viztu zan beste baga. Mirari onen enzutia zabaldu zan erri areetatic.

*Domine filia mea modo defuncta est, sed veni impone manum tuam super eam, et vivet.* Math. cap. 9 vers. 18.

Aita baten erregubacgaitic dacuzcu gaurco Evangelijuan viztuten dabela Jesusec onen alabia. Ain alsu edo poderosuac izan bacirian Aita aren erregubac bere alabiaren oneraco, ceimbat eta alsubago izango eztira Jaun onegaz bere Ama benetacuac gugaitic eguin daiquezanac? Cer ucatu leijo Jesusec bere Amari? Eta celaco uste edo esperancia euqui biar eztogu guc Virginia onegan, izanic bera gure Ama ain on, ain bigun, ain erruquior, eta aibeste gura deuzcuna? Uste edo esperanza onegaz nai neuque eregui, eta sendatu zuben vijotza. Onetaraco azalduco deutzubet Ave Marija. *LII. Verbaldija.*

DOMIN. XXIV. PENTEC.

Ce icaragarrija dan Jesu Christoc bere icaslai gaurco Evangelijuan dirautzena! Araco icusi daiquezubenian lecu santuban banatute, birrindute, eta arraseta gorroto-garri, Daniel Igarliac esanicua, iracurri daijanac aitu dagnijala. Orduban Judean dagozanac igues beiquije mendijetara: tellatuban dagozanac ez beitequez jatsi echera cerbait artutera, eta soluan dogozanac ez beitequez ibili


erropa billa. Zorigogorreacuac seindun dirianac, eta seïn azten dagozanac. Erregutu eguizube, ezteila negu, edo zapatuban izan zuben igues eguin biarra. Munduben asijeratic, eta bere asqueneraño ezta icusi, ez icusico bere orduco estura, premina, eta larriric; eta Jaungoicuac laburtuco ezpalituz egun areec, ez litzateque inor viciric gueratuco; baña Jaunac guichituco dituz autu, edo escogidubacgaitic. Orduban norbaitec esan badaiquezube, emen, an, edo beste lecutan dago Christo, ez eiquijozube sinistu; bada jaguico dira guzurrezco Christo, eta Igarlac, eta ain arrigarrizco mirarijac eguingo ditubez, ce, al balitz (ecin dana leguez) santubac euraç utzune andijetan jausico litzatequez. Orra lenagotic esanic. Esan ba-deizube (Christogaitic) ermuban dago, ez eiquezube urten. Badirautzube escutuban dago, ez eguizube sinistu. Oñastuba egusqui urteijeratic urtenic sarzaijerarano zabalдутен дана leguez, alainche izango da, guizonaren semien etorreria. Gorputza daguan lecuban batuco dira arranuac. Egun nequetsu areec irago ezquero, bertatic egusqui ja ilunduco da, ilarguijac eztau arguiric emongo, izarrac jausico dira cerutic, ceruben sendatasuna icara ibilico da, eta ordubanche aguertuco da guizonaren semiaren ezaugarri, edo señaia. Negarretan urturicegongo dira lurreco echadi, edo familia gustijac, eta icusico dabe datorrela guizonaren semia odei artian al, edo poderijo, eta anditasun miragarri bategaz. Bialduco dituz bere Ainguerubac, zeinzuc trompeta ots, eta diadar andijacaz batuco ditubez bere autu, edo escogidubac, munduco lau aldetatic, ceru guen edo altubenetic, euren barreneraño. Icası eguizube arbola baten irudi, edo paraboliagaz: Araco bere adar, eta orrijac jaijo, edo urten barri dagozanian, igarten dozube, urrian daguala udia: alain-


## LXII.

che bada, gauza oneec icusi daiquezubezarian, jaquin eguizube berbertan dala. Benetan dirautzobet guizaldi au irago baño lenago gauza oneec jazoco dira. Nire esanac faltadu baño lenago, ceru lurrac ucatuco dabe.

*Mittet Angelos suos cum tuba, et voce magna, et con-*  
*gregabunt electos ejus. Math. cap. 24 vers. 35.*

Ce dempora larri, estu, eta preminatsubac gaurco Evangelijuac dirauzcuzanac! Celan aurquituco gara araco Ainguerubac trompeta, eta diadar andijagaz esan ezque-ro: Jagui zaitece ilac, eta zatoce juicijora, vicirie aur-quitu gaitezarian Jesu Christori veguira? Orduban bai naico dogula guere Aingueru guardacuac jaon gaguizan, lagundu deigun Jueecn aurrera, eta sentencija on bat aie-ra deigun! Bada, neure Christinauba, gura badozu ceu-re aldetic euqui ceure Aingueruba, euqui eguijozu mun-du onetan vici zarian artian devocinoe benetaco bat, eta eguizu berac aguindu, edo esan daiquezun gustija. One-taraxe vitzu nai cenduquedaz gustijoc gaurco Verbaldi-  
*jan. LIII. Verbaldija.*







# URTECO DOMECA

GUSTIJETARACO

VERBALDI ICASBIDECUAC,  
CEINZUBETAN AZALDUTEN DAN  
ERROMACO CATECISMUA.

Euretan aurquituco dabe Arima-zain euscaldunac, euren  
Elextar, edo Feligresai predicadu biar deutzen  
icasbidia: Baita bere Cristinau euscaldunac, cer  
jaquin, eta eguin biar dabeen.

COMPONDUBA

*Aita Fr. Pedro Astarloa S. Franciscubaren seme, Lectore  
Jubiladu, Burgosco Provincijaco Aita, eta Cantabrijaco  
Definidoriac.*

## BIGARREN LIBURUBA.

BILBON:

D. Pedro Apraiz-en moldateguian.  
1818.

*Biar dirian escubidiacaz.*

Salcen da lenengo liburubagaz, Bilboco San Franciscu-  
co atarte, edo Porterijan.

ESTADO DOMINICANO  
(REPUBLICA)

VERBA LIBERABUNT  
CONFERENTIA ACADEMICA  
BARONICO CULTURUM

En el presente se ha acordado que el  
Comité de la Academia de la Lengua  
de la Universidad de Santo Domingo  
de las Antillas, en sesión de fecha  
15 de mayo de 1950.

COMUNICACION

Se ha acordado que el presente  
Decreto, en virtud de lo dispuesto  
en el artículo 10 de la Ley  
N. 16,000, de 1950.

DECLARACION LIBRE

LIBRO:

Dr. Pedro Aponte Rodríguez  
1950

En sesión celebrada en

Salón de la Academia de la Lengua,  
de Santo Domingo, el día 15 de mayo de 1950.





*JAUN CHITO ARGUITU, EDO ILUSTRE  
DON ERANCISCO LONGA, ETA ANCHIA,  
Erregueren Martitzdi (1), edo Egercitungetaco Mariscal,  
San Fernandoren Ordia Errial, eta gudatarreco  
Zaldun, Vitorija, eta San Marcialeco batalletaco, baita  
bere zaspigarren Soldadi, edo Egercituco Labaru,  
Lauburu, edo curutzez apaindu, Bilboco urico armen  
aguintarijari &a. &a.*

**D**empora gustijetan izan da enzute andicua Cantaritarren izena alan itsas-ibilte, eta jaquiturijan, cein da guerran. Etzan oraíndio zabaldu mundutic Carthago,

(1) Ieusi bedi nire anaije Don Pablo Astarloac izen onegaitic dinuana Apol. fol. 264

#### IV.

eta Erromaren izenic, equijezanian Cantauritarrac itsas-  
 bidia, eta ebilzarian Inlaterra, Irlanda, eta beste lecu  
 ascotatic dijatu, edo guizonez beteten lecu lenago ezagu-  
 tu bagae, eta ereguiten icasola, edo universidadiac nun  
 iracatzi jaquiturija. Ez beique inoc uste au buru bagaco  
 andisca, edo ponderacinoien bat dala, ez Vizcaitarrac  
 asmadurico ipuinen bat; itandu bequijue Ingles, eta Ir-  
 landatarrai; norzuc, edo nunguac izan cirian euren asa-  
 ba ara lenengo juan cirianac? eta eranzungo dabe ao ba-  
 tez euren arteco jaquitunac Canta-uritarrac izan ciriala  
 uribitarte arectara lenengo irago cirianac. Itanduten ba-  
 jacue berberoi: Norzuc eregui even Cambrigecco iracaste-  
 gui, edo Universidadia? Esango dabe; Canta-uritarrac,  
 irureun, eta larogueta amar urtez, Jesu Christo jaijo ba-  
 ño lenago. Auxe beran dinue euren izenac; bada ezagun  
 da euzcaldunac, eta anchinatic ifinijac diriala.

Baña nos gueijago zabaldu zan Canta-uritarren izena,  
 eta obeto ezagutu zan ce guerrari errutsu cirian, izan zan  
 araco Erroma, eta Carthagoren arteco aserriac abijadu  
 cirianian. Ondo equijan Anibal Carthagotarrac celacua  
 zan Canta-uritarra, eta alan aleguin gustijac eguin citu-  
 zan bere aldera echun cedin Erromatarren contra. Bera-  
 ganatu evanian, beronegan ifini evan bere uste gustija,  
 dino Silio Italicoc (1). Orregaitic gura oijeban gustijen  
 aurretic juan cedin, dino beronec (2). Dino bere: Aniba-  
 lec Erromatarrai Canasen irabaci eutzen goitute edo vic-  
 torijan, Vizcaitarrai zor izan eutzela arerijuac birrindu,  
 eta aspiraturic gueraturtia. Beronec dirauzcu: araco Cayo  
 Flaminioc bere martitz, edo soldadu iguesi juazanac ba-  
 tu gura cituzanian Trasimeneco errijeta galgarri ostian,  
 adi erasoteco bere irmetasun, eta bildureza esan eutzela:

(1) Sil. Italib. 3 de bello Pun. v. 375 (2) Idem Ibid. v. 414.

eznau inoc larrituco, ezteuzt inoc atzerantz erasoco, ezta Canta-uritarrac bere. Orra ce guerari andi, eta irmetzat euquezan Cartago, eta Erromatarrac gure anchinaco asaba euscaldunac.

Noc bada arguitan ifini leiquez gure anchinaco gurauen eguitandi, edo hazaña gustijac? Ez inoc: eta alan jaquinic utsac urtengo leuquiela nire indarte gustijac ciatz azaldu gura banituz, bacarric gueratuco naz cerbait, Octaviano Augustoc gure jaijo-lur oni emon eutzan guda, edo guerran eguin citubezanetan. Bere anditasunaren lotzagarritzat eucan Aguintari, edo Emperadore arec, Canta-urico lur pusquia bere mempera ez egotia, eta bera bere jauntzat ez ezagututia, izanic beste aguirizan lur gustico jauve, eta guichitan eucan Erromatarrac berreun urtian Españan eguin even gustija, bere escupian ezpeucan gure jaijotz-lur au: dino Paulo Orosioc (1) Gurari onegaz abijetan da baster onen jauve eguiteco modubac arecn. Idiguiten ditu Janoren atiac, batuten ditu gentadi andijac, eguiten dituz euracaz iru Martitz-di, edo Exercitu esquerga, eta besteri emon gura baga euren mende, edo aguincia, bera dator Españara euracaz, eta gueraturen da Seguisaman. Aibat millada guizon beucazan bere, ain indarsu, sendo, eta guerraritzat eucazan Canta-uritarrac, ce aguindu evan oncidi, edo armada andi bat ifini ceila gure cai, itsasalde, edo costan. Au eguinic, ciurzat eucan Augustoren arroquerijac, bertatic eguingo zala Canta-uritarrena, bardin izango zalaco icustia Vizcatarrac Exercitu, eta Oncidi ain andijac, cein da ollotu, eta macalic bere onetara echunic parca escatutia. Baña oquerretara jazo zan; dino Valeyó Paterculoc (2) Etzirian ondo ifini arerijo bi oneec arpe-

(1) Paul. Oro. lib. 6. c. 21. (2) Valeyó Pat. lib. 2.

## VI.

guiz arpegui, orra nun icusirie Erromatarrac gurien sendotasun, vizcortasun, bildurreztasun, eta pelietaco euen poza, gueratuten dirian bildurrez icara, eta abijetan dirian testamentu-guinen, erijotzia beguijen aurrian balecuse leguez. Elcen dira escubetara, pelietan dabe gustijac sendo, eta irrimo. Ain modutan equin eutzen. Cantauritarrac Erromatarrac, ce dimue Lucio Floro, eta Paulo Orosioc (1) gustiz ugari izuri zala euren odola, euren Martitzasco gueratu ciriala ilic, eta Octaviano sarri aurquitu zala galdu aguinian bere exercitu gustijacaz.

Erromatarrac gueratu cirian gudatoqui, edo batalla campuen jaube; bada ezaguturic Cantauritarrac ascoz, eta ascoz gueijago ciriala arerijuac euren baño, arma obiac euquezala euren baño, obeto equijela Soldadijac presretan; baita bere euquela euren ez euquen zaldidija, basteru, edo erretiretan dira mendi, muru, baso, acharte, eta basamortubera, eta abijetan dabe, Erromatarrac inos equi even guerraric gogor, crubel, eta luciena. Batzubetan ezarten dira beingo beinguan euren ganian, eta il, birrindu, eta zapalduten ditubez: beste batzubetan urteten deutze guichijago uste dabenian bidetara, eta catiguetan ditubez. Orain daruez engañuz lagunac escutaduric dagozan larra, baso, oquelubera, eta zatituten ditubez: Guero duaz iguesi leguez euren aurreti, eta darabilez jarrai mendiric mendi, murutic muru, achartetie acharte, eta amiletatic amileta gustiz necatu, aricatu, arnasa baga, eta itoric gueratu artian. Emengo meacan ilten ditubez berrogei, ango esturan laroguci, bide cigor baten eun, beste angui baten berreun. Modu onetan eroien Cantauritarrac guichitubagaz Erromatarren martitzdija. Icusiric Augustoc Vizcaibarruban sarcen zansoldadue ozta vi

(1) Luc. Floro l. 4. sup. 10. Paul. Oros. ubi. sup.

## VII.

eiric urteten evala, aguindu evan sartu zeila ejercitu gusti-  
 ja beinguan alde gustijetatic, modu onetan amaituteco  
 guerra ain gogaitgarri au; baña cer jazo jacon? Tito Li-  
 vioc dinuana: (1) Izanic Vizcaltarrac Erromacuac baño  
 arin, ibilcor, eta vizcorrago, jaquinic ondo acharte, bidē-  
 cigor, aldatz, eta girabirac, nos, nun, eta celan nai escu-  
 tetan jaquezan, eta alan uste evenian Erromatarrac, alde  
 gustijetatic estutu, eta inguiraturic euquezala arerijuac, ez  
 even aurquituten ach, subil, larra, sasi, edo orbela baño.  
 Bost urte iraun evan, Augustoc bertaticua izango zala  
 uste izan evan guerra onec. Ain izan zan galgarri mun-  
 dubaren ecizallenzat, aimbat martitz galdu citubezan, ain  
 pelleburu asco, eta bildurgarijetan aurquitu cirian, ce dino  
 Veleyo Paterculoc (2) ecin igarri zatequiala norc nor goi-  
 tu evan, Erromac Canta-urija, ala Canta-urijac Erroma.  
 Ain naibaga gogorrez bete evan Octaviano Aguintarija  
 ecin mempetutiac Vizcaltarrac, ain atsacabe andija emon  
 eutzan bere gentadi, edo ejercituba zatitu, birrindu, eta  
 guichituric icusijac, ain modutan gogait eraso eutzan  
 aimbeste irautiac bertaticotzat eucan guerriac, ce ichiric  
 onen arduria Cayo Antistiori juan zan Tarragonara igue-  
 si leguez; dino Dionec (3) Ain macal eldu zan, ain motz,  
 ain muquer, ce emonic gach andi batec ifini evan ilagui-  
 nian. Nai leuquian amaitu guerra gogor, galgarri, eta lu-  
 ce au, baña ecin aurquitu al evan beste moduric, ezpada  
 baquiac eguin Canta-uritarracaz, eta ichi vici ceitezala  
 euren erliginoe, euren oitura, edo constnmbre, euren le-  
 gue, eta euren eusqueran. Alainche eguin biar izan evan  
 naita naiez, eta zarraturic Janoren atiac, eguin zan araco  
 baque zorionssu, ceinetan jaijo zan Jesu Christo gure  
 Jauna.

(1) Tit. Liv lib. 22 cap. 18. (2) Velej. Pat. ub. sup. (3) Dion. lib. 53.

## VIII

Orra celan jaon even gure anchinaco asabac euren jaijotz lurra Erromaren indar esquerga gustijen contra. Bardin eguin even oneen ondorengo gustijac bere: beti izan dira ezagun guerrari errutsu, eta irmetzat, eta mundu gustijac icusi dau, ce lastan izan dabeen euren lur, erliginoe, legue, eta eusqueria. Eztaigun uste euracaz amaitu zala sendotasun, eta amodijo au. Gueure egunetan icusi dogu gaurco Vizcaitarrac anchinaco Canta-uritarren seme diriala, alan guerrari indarssu izatian, ceinda, euren erri, Christinautza, legue, eta escubide, edo libertadien maitetasunian.

Bai, Don Francisco Longa Jauna, argui arguitan ifini dau mundu gustijen beguijetan, berorren zanetan iraquiten daben odola anchinaco Canta-uritarrena dala. Bost urte iraun euan Octaviano Augustoc gure erri onetan eguin euan guerriac; eta bost urte iruan dau Napoleonec eguin deuzcunac; eta orduban areec Erromaco Aguintarijaren contra sendo egon ciriana leguez, alainche berori ifini da murru irme bat leguez Napoleonen aleguinen contra. Batuten dituz al daizan martitzac, eta iracatziric onei, ce guerra modu eguin biar jaquen Francesai, abijetan da eurai equiten anchina gure gurasuac Erromatarrai leguez. Ezaguturic etziriala berorregaz eucazanac apur pusca bat baño arerijuen albuac, ezta euracaz arpeguiz arpegui ifinten, eztituz berorrenac ateraten ibar zabal, landa celai, eta aran andijetara; escutetan da mendu, muru, acharte, eta oijanetan; ainche dago celataca Francesic aguiribada, eta icnsiric etziriala igaroten dirianac berorrenac baño gustiz gueijago, echuten da beingo beinguan euren gañian, birrinduten ditu, banatuten ditu, eta quencen deutze daroiena. Jaquinic cembat convenidan guerran arerijuen asmu eta goguac ezagututia, ifintea

## IX.

da bide ondoco oquelu escutubetan celata, eta leusiric Francesen bialdu, mandatari, edo correoren bat irago biar dala, urteten deutzaz uste uste baga bidera, ilten dituz jaoliac, edo escoltia, arcen ditu catigu postarijac, quencen dentzez dacarrezan paperac, eta bialduric nagusi, eta aguintarijai, dacuzez arguitan Francesen gogo, eta asmubac.

Eta cembat arerijo il, zatitu, eta catigatu eztitu modu onetan? Eun da iru izan cirian Friasco zubijan birrindu citubanac: irurogueta bat Descargan: eun da larogueti Cabezonon: berreun da berrogueta amar Portugalete, eta Somorrostron: laureun irurogueta amazapi Pancorbo, eta Bribiesca artian: zaspireun Sedanon: bosteun berrogueta iru Asperiletan: irureun eta amaeca Pozan::: Baña nora nua? Celan nic aituten emon neiquez Francesacaz euqui dituzan errijeta gustijac, il deutzazan guizonac, quendu deutzazan ondasunac, eta eguin deutzazan caltiac? Celan, onetaraco erabili dituzan bidia, galdu dituzan gauac, aratu dituzan mendi, baso, larra, sasitza, aldatz, meaca, eta bide cigorrac? Arraijo vici bat eguinic dabil batetic bestera; ain laster Vizcaian, ain laster Guipuzcuan, ain laster Araban, ain laster Gastelan, ain laster Montañan, ain laster Tobalina, Losa, Cabuerniga, eta beste lecu ascotan; jaquin al baga arerijac nun dan, edo nundic nora dabilen. Alambere, ecin esan baga ichi neique Urduñoco acheco celatacadia.

Jaquin evan berorrec andic irago biar ciriala berrogueta amairu burdi Francesen ondasunez beteric: nai leuzquijuezan quendu, baña ez jacan erraz, ez eucazalaco berorregaz eun da amar zaldizco, eta irurogueti oñezco baño; burdijac jaoten etozanac barriz cirian bosteun eta berrogueta amar. Cer eguiten dau bada berorren

zurtaſunac berorren goguagaz urteteco? Batuten dituz al bait isilen mendigurenien, eta bidien parian arri, eta ach pilo andijac, eta dago celataca nos iragoten dirian Francesac burdijacaz. Elcen dira oneec ach, eta arri pilo parera, eta abijetan dira berorrenac ach, eta arri urtica. Arri esquergac, eta ach icaragarrijac datoz mendija beera bilimbolaca. Eztaquije Francesac, ez cer jazoten jaquen, ez nundic datozan arri, eta achac, ez noc jaurtigiten dituzan, ez mendijac ſuſtraitic urten ete dabeen ala ez, ez luicararen bat izan ete dan ala ez. Eztaquije cer eguin, nora juan, edo ce modu artu, eta dagoz gueldi gueldi ſubil bat eguinic. Ach andi batec iruliten dituz burdi bat edo bi, eta ilten dituz euren idijac: arri bildurgarri batec daruaz beragaz mendija beera zorci edo bederatzi zaldi euren zaldizcuacaz. Emen datzaz zaldi batzuec eſtiac darijuezala, an idi batzuec zapalduric. Batetic icuſten dira guizonen gorputz il buru, oin, beſo, eta iſtar bagac; beſtetic guizon, zaldi, eta idi trimendu, eta zapaldubac, dirianen ancic bere baga. Guſtija da negarra, garrasija, uluba, ciſpuruba, aijarija, incirija, eta diadarra. Nai leuquee igues eguin Francesac, baña eztaque nundic, bada alde guſtijetatic dirautza eſetsijaz arri, eta ach urtiquriari, ain zarratu, ce viciric urten even puſcac ez even euqui beſte igues eguiteco moduric, euren burubac aldatz beera amilca, eta girabiraca botatia baño. Laureun eta laroguei Frances gueratu cirian ilic, eta ichi citubezan berorren eſcubetan zaſpi milla pare zapata, boſt milla martitz-ſoñeco, eta lau cucha urre-galoe, eta guerrari apaingarriz beteric. Celatacada oneecaz, bertatico aguertute, erijotza, catigatute, eta eroiena quendute oneecaz ain eucazan olloturic areri-



juac, ce etzirian azartuten inora juaten, ez bidian ibilten gendadi gustiz andijac ezpacirian, anchinaco Canta-uritarac Octavianoren Soldadubac bildurturic euquezana leguez.

Nai leuquien Francesac quendu beguijen aurretic aimbeste gachi eguin, eta ain atseguin guichigaz eucazan arerijua, eta cer eguiten dabe onetaraco? Erromatarrac dempora baten Vizcaitarracaz eguin ebeena. Batuten ditubez al daijezan guerrarijac, eta aguinduten deutze sartu deitezala gustijac batera Longa Urigantia (1) dabilen lecura, eta jarraitu deijuela, ilic, edo viciric artu artian. Ain egozan seguru ecin inundic bere igues eguin leiquiala, ce eldu zan euren arroquerija aguindutera predicadu eijela Arimazain Jaunac Elexaco Pulpitubetan; ija dago banaturic Longa Urigantia; ecin bururic jazo leique: bacar bacarric gueratu da, eta juanda iguesi, inoc eztaquijan lecura. Eta cetan gueratu cirian pamparrequerija onec? Augustoren aleguinac Cantauritarren contra gueratu cirianian. Sarcen dira Longa daguala uste dabeen lecubetara al daijen isilen, duaz alde gustijetatic zarratu, eta estutubagaz, eta uste dabenian, gustijen erdijan dauqueela, etabe aurquituten ach, larra, sasi, aranza, arri edo orbel pilo bat baño. Modu onetanche darabilz burlazar beste gauzaric atera baga, ezpada nequia, lana, izerdija, eta gogaituria.

Usteco dau venturaz norbaitec Don Francisco Longaren celataca, eta basterric baster ibilte au, bere olloquerija, eta bildurra zala; baña jaquin begui au sinisturic daguanac, onetanche adi craso evala bere zuhurtasun, eta jaquiturija. Ecuzan bateric, ce guichi cirian beragaz

(1) Iñen onegaz dei eguiten euzen Francesac mespre-az. Ica. hedi nre anafja D. Paulo Asurloac sinuanc isen onan garuan. Apol. de la lang. basc. fol. 217. 218.

## XII.

eucazanac, bestetic bere martitz, edo soldadubac sartu-  
 barri leguez sorric, eta urdurituric egozana, eta onezaz os-  
 tian guda edo guerra-lanen apurric jaquin baga: nai  
 evan bada modu onetan ibilijagaz batu equijozan guei-  
 jago, quendu equijuen, edo guichijenez guichitu urdu-  
 ritasun, eta sortasuna eta icasi eguijen celan equin biar jaquen  
 arerijuai. Onetan ez evan beste gauzaric eguin, araco guer-  
 rari andi Fabiori jarraitu baño. Ain izan zan galgarrija  
 Erromatarrenzat Canasco guda, edo batallia, ain gue-  
 ratu cirian bildurrez icara enzun evenian, Flaminio,  
 aibat lenen, edo principalen, eta neurriezgarri martitz,  
 edo soldadu gueratu ciriala ilic, ce uste izan even, ecusela  
 Anibal Erromaco ateetatic barrura sarcen. Ezturalarri  
 onetan ez even aurquitu beste moduric euren urico bar-  
 rutijac jaoteco, Fabio andija nagusi-bacar, edo Dicta-  
 dore autu, edo escogietia baño. Eta cer eguin evan gui-  
 zon zuhur onec? Etzan juan artez Carthagotarracaz  
 pelietara; etzan asi eurai esetsiten, etzan ifini lecu celai, eta  
 aran zabaletan; ebilen lecu segurubetatic batetic beste-  
 ra, luzatuten evala aleguin gustijagaz escubetara etortia,  
 gueitu ceitian modu onetan bere gentia, galdu eguijen  
 arerijuai eutzen bildurra, guichitu ceitezan Carthagotar-  
 rac, eta eldu ceitezan gogaitutera. Nai lecuquen Ani-  
 bal eta beriac Erromatarrac peleadu eguijen. Onetara  
 ecarteco esaten eutzen Fabiori; guizona bazan, eta ci-  
 nuen lezco guerrarija, urreratu ceila eurac gana, ifini  
 ceila ibar lau eta celaijetan, eta neurtu eguizala bere in-  
 darrac Carthagotarrenacaz: au eguiten ezpeban ezagun  
 zala ollo bat zana: baño ezaguturic Fabioe ez eguala  
 arerijuai equiteco, ez eutzen jaramonic eguiten, ez ba-  
 carric eurai, ezta Erromatarren esamesai bere: baño el-  
 du zanian biar eyan gentia euquitera, eta oitu cituza-

### XIII.

nian bere martitzac Carthagotarren bildurric ez enquite-  
 ra, gustijai adi eraso eutzen ce osasunssuba izan zan luzatute  
 au, bada beronegaz bota evan Anibal Italiya gustitic.  
 Auxe berau eguin evan Don Francisco Longac bere.  
 Gustiz cirian guichi lenengotic eucazan martitz, edo  
 soldadubac, eta ez enquen onec arerijo aimbat guerratan  
 ibili bati arpegui emoteco biar zan bildurreztasu-  
 nic; baña luzatute, eta ibilte onecaz ain modutan  
 gueitu evan bere guizadija, ce eldu zan enquiteza zor-  
 ci milla oñezco, milla zaldizco, eta amari cañoc euren  
 tresna gustijacaz; eta au guchi balitz leguez, zabaldu cituzan  
 bere ardurac ichasora bere, eta ifini evan oncidi, edo  
 escruadachu bat arerijuen contra; arrieta chiquijacaz pi-  
 tu cituzan francesac icusi eta eracaz sendo pelietara,  
 eta iracatzi eutzen celan guerra eguin biar zan. Artia-  
 tan, Francesac esan eta burla, eguin arren: Urigante do-  
 llor, prestubez, bildurrez iguesi ebilen bat zala, ez eut-  
 zen jaramonic eguiten, eta abioc Anibal eta Carthagotar-  
 ren burla eta esanai jaramonic eguiten ez eutze na le-  
 guez. Baña araco gueitu jaconian bere gentia, eta guer-  
 tu eguanian, aurrez aurre arpegui emon eutzen Francesai,  
 icusi zana leguez Bil'ho, Vitorija, Tolosa, Yanci, Irun,  
 Vera, Ascain, eta beste lecu ascotan, arerijuac España  
 gustitic urten artian.

Orra ce argui argui iracutzi daben D. Francisco Longa  
 Jauna, anchinaco Canta-uritarren seme dana, ez bacarric  
 bijotz andi, bular sendo, beso indarsu, eta bildurrez-  
 garrijan, baita bere berorren Christinautza, eta jaijotz-  
 lurraganaco amodijuan; bada eztaur atzeguinic equi  
 egunez, ez gauez, ain lastan dituzan bi oneen arerijua  
 Españatic campora icusi artian. Ezaguturic gure Erre-  
 gue Jaun Don Fernando zaspigarrenac berorrec irago

dituzan lan, eta nequiac, eguin dituzan eguitandi, edo hazañac, eta bere Anditasunagaco iracutzi daben amodijo erre, eta cinzua, apaindu dau Vitorija eta San Marcialeco batalletaco, baita bere Zaspigarren ejercituco Labaru, Lauburu edo curutziacaz; eguin dau San Fernandoren ordia errial, eta gudatarreco Zaldun, eta eregui dau bere Exercitubeteco Mariscal izatera. Guc bere berorren erritarroc ezaguturic daucaguz berrorec, eta berorren guerra lagunac eguin deuzcubezan mesediac, Onceñ artian eztaucagu chiquinenezat Erliginoe christinau, gueure asaben fede, eta siniste catholicuban gurratutia, botaric gure artetic doe ceruco au quendu, edo guichijenez ilundu gura euscubeenac. Erliginoe onetaco misterijo, aguindu, eta Sacramentubac gure erritarrac jaquin daijezanen gurarijac artu eraso deuzt curac aldaidan arguijen azalduteco lana. Liburu onetanche dauca eusqueraz, berorrec aimbat lan, neque, izerdi, gaubela, ibilera, eta aimbat erijotzaco pelleburuz zaindu daben leguia. Berorri opa deutzat. Ciur nago gogon, eta vorondate osuagaz artuco deuztala, izanic erritar, eta auzo baten isquinija, egonic escribiduric berorren gurasuangandic icasi, eta verbaz asi zanian euqui euan euzqueran, eta izanic bere gueija umechutatic icasi, vici gustijan sinistu, eta berorren ondasun, zorion, eta onrari andijenenzat euqui dabena.

Berorren eguinza, edo obretan adi eraso dau, ce maite izan daben liburu onetaco icasbide, edo doctrina Christinauba; bada ez bacarric zaindu dau berorren espata errutsubagaz galdu gura izan evenen arerijuacgandic, baita artu bere dau arguitara aterateco ardura, eta moduba. Escribiduric neucan, baña Frayle pobre bat izanic eneucan cegaz moldez ifini. Ez euan ondo

## XV..

enzun moldian ifini edo imprimietan ezpazan, zala ce-  
 gaz ez egualaco, nun prestasun, eta preztutasunic an-  
 dijenagaz abijadu zan arguitara aterateco neurrijac ar-  
 cen; eta eztau atzeguinic euqui moldepian icusi artian.  
 Berorigaitic izan ezpalitz, bildur izateco zan, ilunian  
 gueratuco zala liburu onetan ifini dodan lan gustija.  
 Baduaca euzqueriac bere itzcunian ifinirico icasbide edo  
 doctrina au: Badauque Arimázain euzcaldunac nundic  
 predicadu emen dagozan verbaldijac, badauque gure  
 erritarrac nun iracurri emen daguan icasbide, edo doc-  
 trinia; berorri zor deutze. Jangoicuac bere bedeincaci-  
 noe ugariz bete daguijala eguinza on onen sari, eta be-  
 tico doatsu eguin daguijala. Alainche icharoten dau, eta  
 auxe dago beti erregututen Jaunari.

Escu munaecaz  
 Berorren servizaile ontartu, eta Capellau  
 gustiz gogotsu.

*Fr. Pedro Astarloa.*

Handwritten text, likely bleed-through from the reverse side of the page. The text is mirrored and difficult to decipher but appears to contain several lines of script.

Handwritten text, possibly a signature or a specific heading, located below the main body of text.

Handwritten text at the bottom of the page, possibly a date or a reference.

# ICASBIDE EDO DOCTRINA

CHRISTINAUBAREN IRUGARREN ZATIJA.

*cein dan*

CER EGUINGO DABEN.

## XXVII. VERBALDIJA.

*Jaungoicuaren legueco amar mandamentuben ganian, eta cer dan Fedia.*

**E**ldu zan Leguejaquin bat Jesu-Christo gure Jaunagana, eta itanduten eutzan: Maesuba, cein da legueco aguinduric andijena? Eranzun eutzan Salvaguiliac. Lenengo aguindu, eta andijena da: amaduco dozu ceure Jaun eta Jaungoicua ceure vijotz gustitic, ceure arima gustijagaz, eta ceure indar gustijacaz. Bigarrena barriz, onexen irudicua: amaduco dozu ceure urco, edo proxima ceure buruba leguez. Aguindu bi onetanche dago legue, eta Igarla, edo Profetetan aurquitu al leitequian gustija, eta alan onexec bijotz zainduric jaoten dogu, aguindu al leitequegun gustija. Aguindu bi onec gorde eguizan guizonac, ihni cituzan obeto azalduric Jaunac amar aguindu, edo mandamentubetan, eta inos astu ez eguizan, ihni eutzazan sillaru, edo imprimiduric bere vijotzian, modu onetan jaquin leijan, cer zan ona, eta cer zan donguia. Baña alambere astu cituzan guizon ichubac aguindu onec; borradu cirian bere vijotzetic. Icusiric Jaunac, celaco ichumendijan jausi zan guizona, atera nai izan evan iluntasun onetatic: onetaraco aguindu eutzan Moisesi landu eguizala arri bi, eta igon eijala euraçaz Sinaico mendira, eta egulnic au

Moisesece, escribidu euan Jaunac berac bere atz gustiz alsu, edo poderosuagaz legue gustija. Au bere etzan asco izan guizon ichubac ez astuteco legue au. Barristetaco amar mandamentu oneen gomutia, eta betico sillaturic gueratu ceitezan guizonen vijotzetan, Jaungoicua bera jatzi zan cerutic luurrera guizon eguinic. Iracatzi eutzeezan guizonai, eta obeto jaquin eijen cer aguinduten zan euretan, azalduric ichi cituzan bere Evangelijuan, modu onetan beti cuqui eijezan Christinaubac veguijen aurrian.

Amar mandamentu onetatic lenengo irurac beguiratuten deutze Jaungoicuaren honriari, euretan esan, eta aguinduten jaculaco, celan honradu biar dogun gueure Jaun eta Jaungoicua. Beste bostac dira proximuaren on, edo provechuraco, bada euretan aguinduten jacu, cer eguin biar deutzegun proximuai, eta eragotziten jacu gach eguitia eurai. Etzacu aguinduten amar mandamentu onetan ecin guinaijan gauzaric, ez astunic, ez garratzic: mandamentu gustijac dira errazac arinae, baita bere gustiz gozuac. Jesu-Christoc berac dirauzcu: arina da nire bustarrija, eta biguna nire cargua. Ain dira biarrecuac mandamentu oneec, ce ecin cerura eldu leiteque, eurac jaquin baga; ain modutan dagoz baturic euretan christinau, eta guizon gustijen obligacinoiac, ce eurac jaquinic, daqui jaquin biar daben gustija, euretan dagualaco zarraturic legue gustija. Baña izanic oneec jaoteco ain gauza biarrac Fede, ezperanza, eta caridadia, lenago nai deutzubedaz azaldu, edo explicadu iru onoidade, edo virtute Theologal oneec.

*Fedia.*

Da fedia, Jangoicuac gure arimara bialduten daben



doe, onoidade, edo virtute naturalezaz gainetico bat, ceinec gauazan sinistutera, Jaungoicuac Elexiari aguertu, eta Elexiac guri iracasten deuzcuzan eguijac. Laburrago: Fedia da icusi ezroguna sinistutia. Etzenduban icusi, Jesu-Christo jaijoten, ez mundu onetan viciten, ez ilten, ez viztuten, ez cerura igoten, eta alambere sinistuten dituzuz misterijo gusti oneec, Jaungoicuac Elexiari aguertu, eta Elexiac zuri iracatzi deutzuzalaco. Ain sendo, ain irme sinistu biar doguz eguija oneec, ce mundaco guizon gustijac cerbait esango baleuscube, edo usteco baguendu bere, Elexiac iracasten dabenen contraco gauzaren bat dacuzcula gueure beguijacaz, lenago sinistu biar dogu Fediac dirauzcuna, guizon gustijac esan, eta beguijac dacuzena baño; bada guizonac, eta beguijac engañadu leitequez, edo eurac ceu engañadu cinaije, baño Jaungoicuac ecin engañadu cinaiquez. Ara cergaitic. Norbaitec engañetan bagaituz edo guzurren bat esaten badeuzcu da, edo bera betteren batec engañadu dabelaco, edo berari cerbait beguitandu jacolaco, edo berac gaucia celan dan jaquinic, guzurra esan nai izan deuzculaco. Ecin onelaco gauzaric jazo leiteque Jaungoicuagan. Da jaquiturija neurribaga berbera, eztago beretzat gauza escuturic, dacuzaz gure vijotzeco basterric barracuenac, eta alan ecin inoc guzurra eguijatzat sinistu eraso leijo. Jaquiturija auxegaitic ecin gaucia dan baño beste modutan beguitandu leiquidijo. Da eguija berbera, orregaitic ecin esan leique daquijan baño beste modutan.

Eta nori aguertu deutzaz Jaunac fedeco eguijac? Elexa santubari, Patriarca, Profeta, Apostolu, eta Batzar, edo Concilijuen bitartez. Elexiac bere ecin guzurric esan leigu; ecin engañadu guinaiquez; bada iracas-

tea deuzcun gustijan, arreztu, edo gobernetan dan Es-  
piritu Santubac, Jesu-Christoc bere esposi mite omi  
opa, edo prometidu eutzana leguez. Itanduco deuzta-  
zube venturaz: Celan jaquin guinaique, Elexiac cer-  
bait dinnala? Araco Erromaco Aita Santubac aguindu-  
ten dabenian, cerbait sinistu biar dala fedeco articulut-  
zat, eta Obispo Jaun, eta euren aguinduz, Arimazain  
edo Curac dirautzubenian, alan iracasten dabela Ele-  
xa Catholicu Apostolicu, eta Erromacuac, eta arei diraut-  
ze Jaungoicuac: Zubec zanzubenac, neu nanzube; eta  
zubec guichitan zaucazanac, edo desprecietan zaituza-  
nac, neu nauca guichitan, edo desprecietan nau. Et-  
zaitequez beste errazoe billa ibili, cerbait fedeco articulut-  
zat euquiteco. Elexiac esan dau? Asco da: ezta gueija-  
go biar ciur ciurtzat ichu ichuban sinistuteco. Jaquitu-  
nic arguitubenac, guizonic andijenac, badirautzu-  
be, Elexa Santubac iracasten deutzubenen contra,  
ezeizubez ezun, bota eguizubez ordu gaistuan, gu-  
zurtijac dira, ichubac dira, Demoniuaren bitarteco,  
edo ministruac dira, venenez heteric dagoz euren mi-  
nac. Cer dinot? Jatzico balitz Aingueru bat cerutic, eta  
esango balcutzu ecer, Elexiac iracasten daben icasbide  
edo doctriniaren contra, madaricatu izan deila: gaur-  
ra dino, bada leenago ueatuco dabe ceru luurrac, Jaun-  
goico, eta Elexiaren esanac baño.

Dinogu: Fedia dala, Jaungoicuac gure ariman ifi-  
nirico doe, onoidade, edo virtute naturaleciaz gañeti-  
co bat; au da, ecin gueuc gueure indarrez ecarri, edo  
artu guinaique; Jaungoicuac bacarric emon leique; ez-  
tago luurrin, ez ceruban guizon, ez ainguerubetan,  
virtute Jaungoicozco au emon al leijan indarric. Jaun-  
goicuac emoten dau virtute au bautismuan gracijagaz

batera, baita bere esperanza, eta caridadiagaz. Bautismuan emoten da gracia, eta au ecin aurquitu leitequiana leguez iru virtute Theologal, edo Jaungoicozco oneec baga, cmonic gracia bautismuan, emoten dira iru virtute oneec bere. Baña gracia baga aurquitu leiteque ariman fedia, bada ez edoecin pecatu mortalagaz galeen da, ezpada bacarric bere contraco dirian pecatubacaz. Baña orduban ezta izango fede vicija, eztaucalaco gracijaren vicitzaric, eta izango da ila, ariman dagualaco pecatubagaz batera, cein dan arimaco erijotzia. Ain da preminazcua, edo biarra fedia, ce bora baga, ecin inor salvadu leiteque. Alperric eguingo dituz guizon batec limosnaric andijenac; alperric ceruba irabasterren iragoco dituz neque, eta lanic gogorrenac, alperric eguingo dituz obraric onenac, ezteutze ecer balioco, federic ezpadauca. Orregaitic, ez Gentilac, ez Mauru, eta Turcubac, ez Judegubac salvadu leitequez, euren iehumendijan dagozan artian, federic eztaucalaco. Eguija da Judegu, eta Heregiac sinistuten ditubezala Credoco articuluben batzuc, baña eztaucalaco orregaitic biar dan leezeo federic, au da, eztabe sinistuten fede naturalezaz ganeticuagaz, ezpada berez guizonac euqui leiquianagaz, eta au ezta asco, fedeco articulubac biar dan moduban sinistuteco.

Modu ascotacua izan leiteque fedia. Lenengo oitarra, oituracua, edo habituala, eta eguinzacua, edo actuala. Habituala da, lenengotic esan doguna berbera. Fede au aurquitu leiteque ariman, ordu berian ecer sinistuten ezpada bere. Esateraco: Bateatuten dabe umechubat. Onec ezta orduban ecer sinistuten, alambere, bere ariman dago fede oituraco, edo habituala. Lotan zagoz, eztozu ecer sinistuten ordu berian; orregaitic bere,

daucazu ceure ariman fedeco virtutia. Eguinza, edo actuala da, cerbait sinistutia bera, esango banen leguez: Sinistuten dot, Jesu-Christoc igon evala cerubetara. Fedeonoc eztau irauten sinistuten dan artian baño, bada bertatic iragoten da. Bigarreno: izan leiteque fedia banacacua, eta gustijenzacua, edo arguijago esaterren: modubitan sinistu guiniaquez fedeco articulubac: Lenengo: banaca, bacotza berez, edo particularmente. Esateraco: Dinot: Sinistuten dot, Jesu-Christo daguala bene benetan Altaraco Sacramentuban. Fede au da berezco, edo particulara Altaraco Sacramentubaren ganian. Modu onetan sinistu biar dituguz, Creduan dagozan, articulu gustijac; baño gustijen ganian, Araguinza, edo Encarnacinoecua, Trinidadecua, Erredencinoecua eta Jaungoicua dala Sarizaile, sari emoile, edo Errumuneradoria. Bigarren moduban sinistuten doguz articulu gustijac batera, bat bere izentadu baga. Esango banen leguez: sinistuten dot Creduan dagan gustija. Modu onetan sinistu biar dogu, Jaungoicucac Elexiari aguertu, eta Elexiac guri iracasten deuzcun gustija. Ezta erraz au gustijau jaquitia, eta gustijac banaca sinistutia, eta alan zubenzat asco da Creduan dagozanac ondo jaquin, eta duda, eta bildur baga sinistutia.

Christinau gustijac dauque biar, edo obligacinoe estuba, fedeco eguinza, edo actuac eguiteco. Lenengo: errazoeco arguitara, edo errazoien usura eldu deitezanian. Onetaraco gurasiac, edo umien arduria dauquenac eguin biar dabe aleguina demporaz iracazteco curai, baita bere azaldu, edo expliquetaco orduban jaquin biar ditubezan misterijuac; baita bere fedeco actuac erasoteco. Bigarreno: Fedien contraco tentacinoien batec estatuten dabenian, eta bera goitu edo

vencietaco, bere contraco actuac. eguin biar badira. Esateraco: tentetan zaituz Demoninuac, eztaguala Infernuc pecatuban ilten dirianenzat; bada biar bada au goituteco, esan biar dozu: Sinistuten dot daguala infernuba charto ilten dirianenzat. Irugarrengo: erijotzaco orduban, bada izanic orduco Demoninuaren tentacinoiac inos baño gogor, eta crubelaguac, ordubanche gueur bere sendatu biar gara inos baño gueijago fedeco armacaz, irrimelietaco: Laugarrengo: Sacramentuben bat arcera guazanian; bada ecin biar dan moduban artu guinaique, Sacramentu dana sinistu baga, ezta artu bere nai gueunquian gracija, eta beste onac, sinistuten ezpadogu emoten dituzala. Bostgarrengo: sarri gueure vicijan. Eztago. izentaduric nozie nora eguin biar dituzan Christinaubac, bacarric dago. condenaduric esatia: Asco dala, bein bacarric eguitia vici gustijan. Baita bere dago. condenaduric esatia: eztala ciurciur, edo ciertuba, bost urteric, bost urtera eguin biar daben, ala ez. Orregaitic onen onecna da, aibat sarrijen eguitia. Ezaguruteco nos pecatu eguiten dan fedien contra, lenago. jaquin biar da cer aguinduten jacan Christinaubari fedieren gannian. Bost gauza dira Cristinaubati fediac aguinduten deutzazanac, edo eguin biar dituzanac. Lenengua da: jaquitia fedeco misterijuac, au da jaquitia icasbide, edo doctrina christinauba. Bigarrena: sinistutia gueure vijotzian misterijo gustijac, edo eguijaciurtzat euquitia gueure barruban fediac iracasten daben gustija. Irugarrena: esatia campotic, edo mijnagaz, eguijazcotzat daucagula fediac iracasten daben gustija. Langarrena: ez guzurzat euquitia misterijo fedecuac. Bostgarrena: ez ucatutia campotic mijnagaz, edo beste modutan Elexiac, edo fediac iracas-

ten daben eguijaric. Emetixec ezagutuco dozu, noc pecatu eguiten daben fedeco aguinduben contra Lenengo eguiten dau pecatu fedeco Misterijuac eztaquizanac. Bigarren, fedeco eguinza, edo actuac, biar danian eguiten ezituzanac. Irugarren: campotic, edo mijnagaz, biar danian confesetan ezituzanac. Esateraco dator Herege, edo beste Elexa, eta fedien arerijo bat ceinee eztaben sinistuten, Jesu-Christo hostijan daguanic; Itanduten deutzu ascoren aurrian sinistuten dozun Jesu-Christoren gorputz benetacua hostijan daguan, eta zuc, edo lotza zarialaco, edo burla eguin eztaizun, etzara azartu, edo atrevietan, misterijo au confesetan; pecatu mortala eguingo dozu ceure barruban sinistuten badozu bere.

Irugarren: ez bijotzian, edo barrutic ez campotic, edo auagaz, fedeco misterijuac, sinistu nai dituzanac. Modu ascotan au jazo leiteque. Guizon edo Christinau batec bateatu ezquero, ichi leique Jesu-Christoren fede gustija, eta ucatu onelaco legueric daguanic, edo esan, guzurra dala Elexiac dinuan gustija. Oni dei eguiten jaka fede-ucallia, edo fede gustija ucatuten dabena, edo apostatia. Beste batzuc, Bautismua artu ezquero sinistu, eta confesetan haditubez bere, fedeco articuluben batzuc ezitubez sinistu, ez confesadu nai beste batzuc; onei dei eguiten jaque heregiac. Lauugarren: eguiten dau pecatu mortal, bere vijotzian sinistu arren fediac iracasten daben gustija, campotic, edo mijnagaz bacaric, articulu, edo misterijuen bat ucatuten dabena. Esateraco: Elduten jatzu herege bat, eta dirautzu: Esaizu orche, eztaguala infernuc, eta ezpabere orche bertan ilgo zaitut. Zue zeure barruban sinistuten dozu sendo sendo infernuba daguana, baña erijotzien bildurrez dinozu minagaz ba-

carric: Eztago infernuri; pecatu mortala eguin cenduban, bada ezta asco fede benétacua izateco, vijotzian bacarric euquitia, auagaz bere confesadu biar da.

Bostgarrengo: eguiten dau pecatu bere vijotzian, edo barruban fedeco articuluben bat sinistuten eztabenac, campotic esan arren sinistuten dabela. Deritzu, ecin inundic bere doncella, edo virgína batec umeric sortu, eta eguin leiquiala; eta orregaitic eztozu sinistu nai Maria guztiz santubagandic sortu, eta jaijo zala Jesu-Christo, bere Amaren osotasuna, edo virginidadia galdu baga; baña dacutzulaco gustijac sinistuten dabeela misterijo garbi, eta gozo au, etzara azartu, edo atrevietan aora ateraten ceure sinisquera ori, eta nosbait orren ganian verba eguiten bada, heregetzat euqui etzaijezan, dinozu; sinistuten dozula, Jesu-Christo jaijo ezquero, bere Ama doncella, edo Virgína garbi gueratu zala: Pecatu mortal eguin cenduban, badabiar dan moduco fedia izango bada, ezta asco mijnecua bacarric izatia; izan bere biar da barru edo vijotzecu. Seigarrengo: dudan daguanac, fediac iracasten daben articuluben bat, eguija ete dan, ala ez; edo deritzanac, ezala gustiz ciur ciur, edo ciertu ciertuba. Inico deutzubet larregui jazo oi dan esaguei edo egemplu bat. Guizon loi, atsitu, eta arima galduco batec, eruan nai ceunquez bere gurari citaletaco lagunzat, eta icusiric eztozula nai infernuben bildur zarialaco, dirautzu: Eztago infernuri, orrecc eztira Abade, Fraile eta Predicadorien asmubac baño. Au zuri sinistu erasoteco, ifinten deutzuz errazoe oquer batzuc. Zuc ecin cranzun deutzegu errazoe onei, eta abijetan zara esaten, eta pensetan: Eguija ete da, onec dirautzana; emetic sarcen zara duderan infernuri ete daguan, eta azquenez dinozu: Ezta gauza ciur ciur, edo ciertu ciertuba infernuri

daguana. Dada au, neure Christinaubac, pecatu mortala da. Onetaraco ezta biar duda onec dempora lucian irautia; bada bein uste izan ezquero ezuala ciertuba fediac dinuana, eta dudan gueratu ezquero alan dan ala ez, eguin zan pecatu, guero damuturic atzera biurtuten bada bere.

*Erasoguinza.*

Enzun dozube, neure Christinaubac, celacua izan biar dan zuben fedia, ce sendo, eta irme sinistu biar dozubezan berac iracasten deutzubezan eguija, eta misterijuac: baña au ezta asco fedia biar dan moducua izateco; ezta au bacarric fede vicija; bada eguitade, edo obra onacaz lagunduten ezpada fede ila da, eta au ezta asco, bera daucana zori oneco eguiteco. Era oraindio bere esan guinaique oba litzatequiala, federic ez euquitia, fediaz obra onic ez eguitia baño; bada jaquinic Jaunaren vorondatia bera jaoten eztabenac, pena, eta neque andijagua enquico dau, federic ez euquija gaitic eztaquijanac baño. Arrituteco gaucia fededun Christinau asco gan icusten dana. Dinue: sinistuten dabeela infernu bat daguana, nun dagozan beti betico iraungo dabeen inoc esan, eta uste bere ecin leiquezan su, neque, min, ala, eta tormenturic icaragarrijenac; ara duazala pecatu eguiten dabeen gustijac, benetaco penitencija eguiten ezpada be; eta alambere dacuzcuz Christinauric gueijenac peccatubetan sarturic, euracgaitic penitencija eguiteco, arduraric artu baga; beti atzera confesetaco. Noc usteco dau, onec sinistuten dabeela infernuric daguanic? Noc esango dau, ciur, edo ciertutzat dauqueela, ez beguic icusi, ez belarric enzun, ez gogora eldu al leitequiala, Jaungoicua bere leguia gordetan dabenezat daucan beti betico glorija, atzeguin, poz, eta zoriona, icusiric ce guichi



eguin nai daben au dinuenac, ara elduteo? Ez inoc, neure enzula maitiac, ez inoc. Cegaitice ezagutu, eta sinistuco balira eguija oneec, ez litzatequez icusico aimbeste juaten infernucoc videtic, ez ain guichi cerucotic.

Ez eguizube bada esan, benetaco fedia daucazubela; ez eguizube esan Christinau zariela, sinistuten dozubelaco fediac iracasten dabena; fede modu au demoninuac eurar bere badauque, bada sinistuten ditubez misterijo oneec; eta sinisquera onec daucaz bildurrez icara. Nai badozu, fediaran doe miragarriac eruan zaguizan cerucoc aitaren echera, etzaitetz contentadu jaquinagaz berac dinuana; eguin bere eguizu berac aguinduten deutzuna; bada eztira santutuco leguia daquijenac, ezpada leguiac dinuana eguiten dabeenac. Azquenengo egunian ascoc, eta ascoc esango deutze Jesu-Christori: Jauna berorren esana sinistu guenduban, fedia euqui guenduban, Christinau izan guinian; baña esango deutze Jaunac, etzaitudaz ezagututen, etzara niriac; zuace madaricatuboc betico infernura. Zorigogorreco sentencija au enzun eztaizuben, viztu zaitetze fede vici bat euquitera, vici zaitetece, fediac aguinduten daben moduban, esan aldeijozun Jaunari: berorrec aguindu euztan gustija eguin dot, artu da guizun eguitade, edo obra onen sarija. Amen.

**XXVIII. VERBALDIJA.**

*Icharomen, edo Esperanciaren ganiän.*

**B**igarren onoidade, edo virtute Theologala da, icharomen, edo esperanza; eta da Jaungoicuac gure ariman liniten daben doc, onoidade, edo virtute naturalezaz gañetico bat, ceinec garuazan icharotera, edo icharon era-

soten deuzcun Jaungoicuagan, emongo deuzcula gloriya bere erruqui, edo misericordijagaitic, eta bere gracia, eta laguntasunagaz eguin daiqueguzan obra onacgaitic. Dinogu: ichoromen, edo esperancia dala doe naturaleciatz gañetico bat, eztagualaco naturalezan, edo gueugan virtute au, eta biar dan moduco esperancia euquico badogu, Jaungoicuac emon biar deuzculaco; orregaitic euquico badogu benetaco esperancia, Jaungoicuagandic etorri biar jacu; bada gueutez ez gara duin esperanza au euquiteco. Iru gauza beguiratu biar dituguz icharomen, edo esperanzan biar dan moducua izango bada; cer icharoten dogun, noganic icharoren dogun, eta celan icharoten dogun.

Lenengo: beguiratu biar dogu, cer icharoten dogun, edo cer esperetan dogun. Icharon biar doguna da, ceruban Jaungoicua arpeguiz arpegui icustia. Auxe da gure icharomen, eta esperanza gustija; baña onetara elduteco biar dituguzuna leguez obra onac, oneec bere sartuten dira esperanza onetan, eta alan esperetan dogu Jaungoicuagandic, cerura elduteco biar dogun gustija, celacuac dirian, bere gracia, eta laguntasuna, Sacramentubac, pecatuban bagagoz, euren parcacinoia, eurac parcatu ezquero atzera ez biurtuteco gracia, tentacinoiac, eta ecandu deungac goitu, edo vencietao indarra, eta verba baten cerura elduteco biar dogun gracia. Baña ez gara gueratu biar onetan, bada gueuc bere gueute alde tic eguin biar dogu aleguina betico vicitzara elceco; eta bitarteco onecaz valijetaco; bada bestelan ezta ichoromen, edo esperanza benetacua izango. Icharon bere guinaiquez Jaungoicuagandic, gorputzeco onac, celacuac dirian, vicitzia, osasuna, janari, edari, eta jastecua, ondasunac, eta vicitza au iragoteco biar dituguzan beste

gauza gustijac; baña izan biar da, Jaunaren onra, eta gueure arimien oneraco izango badira; bestelan ecin icharon guinaiquez Jaungoicuagandic. Sarri icharoten dogu emongo deuzcula Jaunac osasuna, vicitzia, ondasunac, edo beste onelaco gauzaren bat, usteric gueure arimien oneraco izango jacuzala; baña ezteuzeuz Jaunac autortu, edo concedietan, daquijalaco emongo baleuzeuz gueure condenagarri izango litzatequezala; eta orduban gue beragandic icharoten doguna ucatutia da bere erruqui, edo misericordiaric andijena.

Bigarren icharomen, edo esperanzan beguiratu biar doguna da nogan icharon, edo esperetan dogun. Jaungoicuagan bacarric ifini biar dogu gueure uste gustija; bada ecin bestec emon leiqueguz gueure arimaco onac, ecin inoc parcatu leiqueguz gueure pecatubac berac baño, ecin bestec ifini leique gracia gure ariman, berac baño, ecin inoc ceruba emon leiquegu, berac baño. Gorputzeco onac beragandic datorquiguz, bada guizonen batec mesederen bat eguiten badeuzcu, lenengo mesede onen iturri, edo sustraija Jaungoicua da, eta guizona ezta bere bitarteco bat baño, eta alan edocimbere on, edo mesede arcen dogunian, beti beti ezagutu biar dogu, Jaungoicuagandic datorrela. Ifini bere guinaique gueure ustia, Ama Virgina, eta Santubetan, eta escatu eurai pecatuban pareacinoia, ondo confesetaco gracia, demoninua-gaz irrimpe pelietaco indarra, gorputzeco osasuna, vicitcia iragoteco biar doguna; baña ezrogu sinistu biar eurac emongo deuzcubezala gueure escarijac, ezpada eurac gure bitarteco eguinic, erregutuco deutzela Jaungoicuari, eta Santubac Jaunaren adisquide ain maitiac izanic, emongo deuzcula euren erreguz, icharon, eta escatuten doguna. Bardin munduco gaucetan bere. Guizon batec

beste bati mesederen bat eguiten badeutza, aberatz bateg pobre bati limosna emoten badeutza, da Jaungoicuac bere vijotza ucutu, edo jo deutzalaco, eta alan sinistu, eta confesada biar dogu, daucaguzan, eta euqui aldaiguzan on gustijen emolia, dala Jaungoicua, datozala mundic datozan; eta orregaitic beragan bacarric ifini biar dogu gueure uste gustija.

Esperanzan beguiratu biar dogun irugarren gauria da, celan esperetan dogun. Gure esperancia ciur ciur, edo ciertu ciertuba izan biar da; bildur бага, dudatzaca uste biar dogu ezteuzcula Jaungoicuac ucatuco gloria, eta ara elduteco biar dogun bere gracia, eta laguntasuna. Berac dauca esanic, etzacula ucatuco biar dogun gauzaric; jo daiguzala atiac, eta idiguico jacuzala, escatu daigula, eta emongo jacula; eta ain da leijala emonico baija jaoten, ce lenago utz eguingo dabee ceru luurrac, bere esanac baño. Baña esperanciaren ciurtazun, edo seguridadia ezta ain andija, cein da fediarena; cegaitice fedialde gustijetatic da ciur, edo ciertuba, dagualaco sendatu, edo fundadurie Jaungoicuaren esanian bacar bacarric; eta orregaitic fediac dinuana alainche da, alainche izango da, eta ecin beste gauzaric izan leiteque. Esperancien ciurtasuna, ezta onelacua; bada eztago Jaungoicuaren isquini, edo promesan bacarric, biar bere dalaco, gueuc gueure aldetic eguitia aleguina artuco badogu icharoten doguna; eta ciur, edo seguru egon arren eztabela faladuco Jaunaren aldetic, ecin ciurtasun au euqui guinaique, eztaquigulaco gueure aldetic ucatuco badogu. Orregaitic gure esperanza au beti dago nastaduric ciureztasunez, eta bildurrez. Alde batetic, jaquinic, ce leijala dan Jauna bere esanetan, ce neurri baguia bere ontasuna, eta ce asquen baguia bere etruqui, edo misericordija, esperanza oso

oso bat euqui biar dogu beragan: baña ezaguturic beste-  
tic gure araguijaren argaltasuna, gure ecandu citalen indar-  
ra, demoninuaren asmubac, eta mundu onetaco pellebu-  
rubac, ecin jaquin guinaique eranzun guraco badentze-  
gu Jaungoicuaren deijai, eta onexec euqui biar gaitu bil-  
durrez icara. Uste oso, eta bildur onen artian ibili biar  
gara izango bada biar dan moducua gure icharomen,  
edo esperancia, jausi ez gaitezcan desesperacinoian, edo  
esperanza larreguijan.

Onexec bijoc dira esperancien contraco pecatubac.  
Lenengua: desesperacinoia, eta da, uste izatia ecin sal-  
vadu leitequiala, edo naita nai ez condenadu biar da-  
la, edo eztaguala beretzat erremedijoric, ain dirialaco  
andi, eta icaragarrijac bere pecatubac, ce ecin euretatic  
urten leijala, ezteutzalaco Jaungoicuac emon guraco eu-  
retatic urteteco biar dabon gracia; edo gracia onegaz  
bere ecin urten izango dabelaco. Eta baderitza, ain di-  
riala andijac bere pecatubac, ce eztaucala Jaungoicuac  
eurac parcatuteco biar dan erruqui, edo misericordija-  
ric, au heregija izango da. Pecatu onetan jausi oi dira,  
araco peccatori ichutu Jaungoicuaren bildur baga edo-  
cein trampa, edocean engañu, eta edocean guzurragaz  
aldaijezan ondasunac irabasten ditubezanac; araguijen  
gusto citalez mando zaldi leguez aseten dabilzanac; al-  
daijen gustijan ordituten dirianac, eta beste edocean be-  
re pecatu ura leguez edaten ditubezanac. Esarten di-  
tubeez pecatubac pecatuben ganian, igoten deutzee one-  
ce bururaño, macurtuten ditubez euren pisubac luurre-  
raño, bildurtuten dituz euren ezaintasunac, dagoz indar  
baga ain icaragarrizco carga jazoteco, eztaucque podere-  
ric, datzazan lupatzatic jaguiteco. Tristetuten jaque vi-  
jotza, ilunduten jaque errazoia, echuten dira jazo ecin

daben carga esquerguiagaz, eta jausten dira desesperacinoian. Contu bada, Christinaubac, ceuben gurari citalac lenengotic, eta ezagutu orduco eci, eta quendutiagaz, bada ichiten badeutzezube indarra arcen, desesperacinoera eruango zaitube. Gozo dira lenenguan, bigun sarcen dira vijotzian, eta beti abijetan oi dira nosbait ichi, eta Jaunagana biurtuteco esperanciagaz, baña asquenian desesperacinoera eruan oi dabe.

Esperanciaren contraco bigarren pecatuba da, esperanza larreguija, edo presuneinoia. Modu ascotan eguin leiteque pecatu au. Lenengo: eguiten dau pecatu uste dabenac bere aleguin, eta indarracaz bacarric, eta Jaungoicuaren gracia, eta laguntasun baga, eldu leitequiala ceruco glorijara, edo sinistuten dabenac eztala biar graciajaric, obra onac eguiteco. Bigarrenengo: deritzanac, ain dala andija Jaungoicuaren misericordija, ain ugarijac Jesu-Christoc gureztat irabacirico merecimentubac, ce euracgaitic bacarric salvaduco dala obra onic eguin baga, eta pecatubac parcatuteco asco dala Jesu-Christoren erijotza, eta pasinoia o penitencija eta damu biarric baga: Onecc bijoc heregijac dira. Irugarrenengo: uste dabeenac, eztiriala ilgo confesadu baga Ama Virgina, Santa Barbara, edo beste Santuben bati deutzen devocinoia gaitic, egunian egunian Aita gure, eta Ave Marijen batzuc errecotan deutzezalaco; uste zoro onegaz nai daben moduban, eta pecatubetan sarturic vici diriala. Laugarrenengo: pecatubaren pelleburu, eta mugaldi, edo ocasinioiac ichi nai eztituzanac sinisturic eurretan ifini arren eztala pecatuban jausico. Ez leuque batec pensamentu loi, oracada ciquin, eta verba atsitubetan jausi gura; baña ez leuque ichi nai erromerija, jolaz, danza, eta verbaldi, edo conversacinoe arin eta alegria; eztau alderatu, edo aparta-

du gura lastan daben mutil, guizon, nescatilla, edo emacumiagandic, deritzalaco, eztala orregaitic pecatuban jausico. Ez leuque bestiac orditu gura; baña eztau ichi nai tabernia, ez beste lagun norzucaz orditu oi dan. Ez leuque onec maldicinoc, birao, ez añeniñoric ezarri gura, baña eztau ichi gura jocua nun botaten dituzan us-teric ara juan arren eztituzala botaco.

Bostgarrengo: eguiten dabe pecatu euren ecandu, eta oitura citaletatic urten nai eztabeenac, sinisturic guero eguingo dabeela euren pecatuben penitencija. Onelacuac luzatu oi dabe confesetia, eta penitencija eguitia eguneric egunera, ileric ilera, eta urteric urtera. Onelacuai itanduten bajacue, cegaitic aimbat lasterren urteten eztabeen euren pecatubetatic? aguirico da, euren bide bagaco esperanza laarregui, edo presuncinoia. Oraindio gastia naz, eranzun oi dabee, demporiari emon biar jaca beria; ezta orain chochaquerijetan ibilteco demporia. Araco urtiac aurrera duazanian, araguijaren suba amatadu deinian, eta ecandu citalac eci deitezanian izango da demporaric onena penitencija eguiteco. Artiataz enaz ilgo, osasun ona daucat, gorputz sendua, eta indar andicua, eta eztau Jaungoicuac guraco, penitencija eguin baga, eta confesadu baga il naitian: andija da bere misericordija, eta eztau gura, inor galdu deitian. Oraindio bere gueijago estutu gura badituzuz eranzungo dabe gauza andi bat esango balebe leguez; cetaco eguin dau Jaungoicuac ceruba, lastoz beteteco ala? Cembat onelaco esperanza zorro ete dagoz infernubetan! Seigarrengo: eguiten dau pecatu bein pecatu eguin ezquero, aurrera pecatu eguinagaz doianac, dinuala: bein pecatuban naguan ezquero bardin da pecatu bat confesetia cein da asco; etzaco Jaungoicuaren erruquijari gueijago costetan pecatu asco par-

carutia, cein dabat. *Et* eiquezube esan, dino Espiritu Santu-  
 tubac; andija da Jaungoicuaren misericordija, berac  
 enquico dau nire pecatuben erruquija, eta uste onegaz  
 etzaitetz egon ceure pecatubetan, bada (1) ain laster etor-  
 ri oi da bere aserria, cein da bere erruquija. Saspigarren-  
 go: eguiten dau pecatu: Nai leuquianac Jaungoicuac mi-  
 rari, edo milagruen bat eguin daguijan premina, edo nece-  
 sidade baga, eta berac ecer eguin baga. Esateraco: Dago  
 guexoric, eta esanic medicubac osasunguei, edo medicina  
 onegaz, edo bestiagaz osataco dala eztaunai eguin me-  
 dicubac dirautzana, nai leuquiala, Jaungoicuac mirari,  
 edo milagro bategaz osatu daguijan. Bardin da nai ba-  
 leu batec Jaungoicuac emon deijon janari, jasteco, edo  
 beste biar daben gustija beretzat, eta bere seme, eta ala-  
 benzat berac arduraric artu baga, biarric eguin baga, eta  
 alpetric daguala. Ara, Christinaubac, eguizu ceuben aldetic  
 aleguina osasuna gaitic, eta beste biar dozuna irabasteco,  
 eta onegaz batera erregu eguijozube Jaunari emon deizube-  
 la osasuna, eta beste vicitzia iragoteco biar dozubena, eta  
 ordubanche izango da biar dan esperancia. Baña onetara-  
 co esperetan dozuna bide onecua izan biar da; bestelan,  
 Jaunagandic icharotia pecatu izango da. Esateraco: dau-  
 cazu auci oquer bat, ceinetan eztaucazu errazoeric, eta  
 badaucazu bere ezteutzazu jarraituten, ceuriagaz urten,  
 eta bestiari gastadu erasoterren baño; bada icharotia or-  
 duban Jaungoicuagandic auci au irabastia, izango litza-  
 teque gauza deunga bat icharotia Jaungoicuagandic, eta  
 au cein eguin leiteque pecatu baga.

Esperanzaco eguintza, edo actuac eguin biar dira fe-  
 decuac eguin biar dirianian. Lenengo: Christinauba er-  
 razoien usura eldu deinian. Bigarren: desesperacioe,



edo esperanza lanreguico tentacinoiac estututen dabengan.  
Irugarrengo: Penitencijaco Sacramentuba artu biar da-  
nian, bada izanic Sacramentu au gure pecatubac par-  
catuteo, ecin onec euren parcacinoia escatu leiyo Jau-  
nari, ezpadauca parcatuco deutzanen icharomen, edo  
esperanzaric. Laugarrengo: erijotzaco orduban, bada  
izanic ceruba lenen icharoten dogun gaucia, eztogu inos  
obeto sendatu biar bertara elduteo esperancia, bertan  
sarceco ain urrian gagozarian baño. Bosgarrengo: ora-  
cinoe eguin biar dogunian, edo cerbait Jaunari escatu  
biar deutzagunian; bada eztau inoc ecer escatuten, icharo-  
ten ezpadau emongo jacala. Seigarrengo: sarri gueure vi-  
cijan, fedeco actuac gaitic esan dana leguez.

*Erasoguiza.*

Ain dago zabaldueric mundu gustitic esperancia, ce  
eztozu aurquituco christinauric cerura elduteo uste, edo  
esperanzaric eztaucanic. Betor pecatariric ichu, eta gal-  
dubena, eta pecatubac ura leguez edaten dituzana. Be-  
bil lapurreta, ordiquerija, loiquerija, eta gogora eldu al  
leitequezan pecatu gustijetan sarturic daguana, eta bere  
arimia eta Jaungoicua gomuta baguia: itandu bequijo  
daucan ala ez, ceruban Jaungoicua arpeguiz arpegui-  
icusteco esperanzaric? Bertatic eranzungo dau baijez. Ba-  
ña au badinue bere, deritzat, oneetatic gueijeenac eztau-  
quela benetaco esperanzaric, bada baleuque ez litzate-  
quez ain nagui, ain otz egongo cerura elduteo biar  
dan biarra eguiteo; paciencija andi bategaz irago, edo  
eruango lituquez mundu onetaco nequiac, eta ez leuque  
ain ardura andija euquico munduco ondasunac batute-  
co. Eguija au ezagutuco dogu jaquinagaz, cer eguiten da-  
ben benetaco esperanciac, bera daucanagan, edo cela-  
cuac dirian bere eguiza, edo efectuac.

Lenengo: emoten dau icharoten dan glorijara elduteco biar dan gustija eguiteco gogua. Au iracasten deuzcu Santiago Apostolubac nequezale baten irudijagaz. Ce pozic daruazan onec, solo baten eguiten dituzan biarrac? neguco otzac, udaco beruac, goxetic jagui, egun gustijan macurturic, laijia, achurra, edo beste gauzaren bat escuban dabela, izerdija darijola egotia? Cec eruan erasoten deutzaz, lan, eta biar ain nequetzu oneec poz andi bategaz? Labore, gari, arto, edo beste biar dabena arceco ustiac, jaquinic biarric eguin baga, eztabela solo atan ecer artuco. Auxe berau eguiten dau benetaco esperancia daucanac: poz pocic iragoten dituz cerura elduteco biar dirian nequiac, jaquinic ez bacarric biar dala Jaungoicuaren misericordija, baita bere gueure obra onac; eta eguiten ezpadituz ecin esan leique benetaco esperancia daucala. Esan eguidazu: balego nequezale bat alperrie bere echian solua achurtu baga, erin biga; eta esango baleu esperetan dabela Jaungoicuagan, gari, edo artua ugari arceia sinistuco ceuzquiyo, benetan daucala esperanza au? Ezetz deritzat. Bada auxe berau da cerura elceco Christinau ascoc dauquen esperancia. Eztabe ecer eguin gura, eztabe obra onen acija erin nai, eztabe necatu nai, estabe euren araguija eci gura; alperquerija, gurari cital, eta goguac emoten deutzezan buruera gustijetan sarturic egon nai dabe; eta alambere dinue, icharoten dabeela glorijaco frutu gozua arceia. Noc au sinistuco deutze?

Esperanciac eguiten daberen bigarren gaucia da, sendatu vijotza mundu oneraco gachac paciencijagaz erauteco. Neque, eta lan andijen artetic irago biar dau cerura eldu nai dabena, dino San Paulo Apostolubac (1)

(1) A. 1. 14. v. 13.

Eztago beste bideric ara elduteco. Ain da gauza biarra bide latz, eta garratz au iragotia, ce ezta inor beste bideric ibili, ezta Jesu-Christo bera bere. Orain bada, cecilan esan cinaique icharoten dozula cerura eldutia, ibiligura ezpazara vide onetatic? Contu eguizu, uri eder, zoragarri bat daguala mendi gus iz eregui, edo altu baten ganian, noraco eztaguan bide bat bacarric baño. Esango bacendu eztozula irago gura bide atatic, sasi, aranza, eta abarrez beteric dagualaco, eta onezaz ostian, aldatz andijac daucazalaco; eta alambere icharoten dozula uri eder atan vici izatia, noc sinistuco leuquezu? Ez inoc: edonoc esango leuque, zure esperanza ori ez tala benetacua. Ara bada, uri eder ori da ceruba; bide garratz, eta aranzaz bete ori, da mundu onetaco gach, neque, lan, atzacabe, eta naibaguiac. Gura badozu bada uri orretara eldu, nai badozu bertan vici izan, paciencijagaz irago biar dituzuz; bestelan ecin esan cinaique, daucazula benetaco esperancia ara elduteco.

Irugarren benetaco esperanciac eguiten dabena da, quendu mundu onetaco ondasun, anditasun, eta beste gauza gustijen ardura laarreguija. Norbaitec cerbait alcanzadu nai dabeniän quencen dituz bera euquitera elceco galazoten deutzezan estropezu gustijac, eta ezta eurretan, edo euren arduran gueraruten; izanic bada ardura larregui au estropezu andi bat cerura elceco, balego benetaco esperancia, ez litzateque aimbeste ardura, aimbeste aleguin, aimbeste gutari euquico mundu onetaco gauzac gaitic. Ce ondo iracutzi even santubac benetaco esperancia euquena? Ez egunez, ez gabez egozan gueldi; oracinoia bateti, baruba bestetic, emetic mortificacinoia, andic pobrecia, gustija garbitasuna, gustija humiltasuna, eta gustija aleguijen biarra eguitia; eta

alambere beti bildur santuz josiric. Eta gac naguitasun,  
alperquerija, eta munduco gaucetan emonic demporia,  
deritzagu artez artez guazala cerura. Christinaubac, eu-  
qui daigun esperanza oso osua Jaungoicuagan, jaquinic,  
andijac badira bere gure pecatubac, andiyagua dala bere  
erruqui, edo misericordija, baña lagundu daigun espe-  
ranza au gueure obra onacaz, irago daiguzan pacienci-  
ja andi bategaz datorquiguzan nequiac, eta artuco dogu  
sari ceruba. Amen.

### XXIX. VERBALDIJA.

*Caridadiaren ganian, eta celan amadu biar doguzan arre-  
rijo, eta gach eguin deuzcubezanac.*

**O**noidade, edo virtute gustijetatic andijena da caridadia,  
diño San Paulo Apostolubac. (1) Bera бага eztago bene-  
faco virtuteric, eta bera daucanac virtute gustijac daucaz.  
Ecin obeto adi eraso leiteque caridadiaren mirarizco an-  
ditasuna, San Juan Evangelistiac dirauzcunagaz baño. (2)  
Jaungoicua caridadia da; bera daucana Jaungoicuagan  
dago, eta Jaungoicua dago beragan. Virtute auxe da orain  
azaldu, edo explicadu gura neuzquezubena. Da carida-  
dia Jaungoicua ametia gauza gustijen ganian, eta gueu-  
re proxima gueure buruba leguez. Virtute, edo onoi-  
dade onen lenengo parte, edo zatija adi erasoco da Jaun-  
goicuaren legueco lenengo agundu, edo mandamentuba  
azaldu, edo explicadu daiquegunian; eta orain esango  
dogu, cer agunduten deuzcun bigarren parte, edo za-  
tijac. Da bada caridade au gueure proxima ametia  
gueure buruba leguez. Proximuen izenian aituten dira

(1) Corint. 13. v. 13. (2) 1. Jovan, cap. 4. v. 16.

betico zori oneco izan leitequezan gustijac, nai dala christinauba, nai dala Gentil, Mauru, Turcu, edo Judeguba; izan deila aidia nai campocua, andija nai chiquija, ona nai donguia, adisquidia nai arerijua. Baita bere dira ceruban dagozan Santu, eta Ainguerubac, eta alan amadu biar doguz, eta postu biar gara Jaungoicuaac emon deutzen zorion parebaguiagaitic. Amadu bere biar dituguz Purgatorijoco arimac, eta erregutu Jaunari eruan daizala aibat lasterren ceruco atzeguinetara; condena-dubacaz bacarric ecin euqui guinaique caridaderic.

Onexec gustijoc maitetu, edo amadu biar dituguz gueure burubac leguez, au da, amadu biar doguz, nai gueunquiana leguez eurac gueu amadu gaijezan, gura izan biar deutzegu gueuretzat gura gueunquian on gustija, eta ezteutzegu nai izan biar gueuretzat nai ezguenduquian gachic: edo eguin biar deutzegu, eurac gueuri eguin deiguben nai gueunquian on gustija, eta ezteutzegube eguin biar eurac gueuri eguin deiguben nai ezguenduquian gachic. Amodijo au izan biar da barrucua, edo vijotzecua, eta campoticua; bada ezta asco campoticua bacarric, edo vijotzecua bacarric izatia. Lenengo: izan biar da barruticua, eta alan ez bacarric ezteutzagu gachic nai izan biar proximuari, ezteutzagu gorrotoric euqui, ez poztu datorquijozan gachacaz, edo necatu Jaungoicuaac emoten deutzazan onacaz, ezpada amadu biar dogu bijotz oso osuagaz, poztu biar gara, Jaungoicuaac emoten deutzan zorionagaz, tristetu jazoten jaczan gachacaz, eta gustijen ganetic nai izan biar dogu, emon deijola Jaungoicuaac glorija ceruban. Bigarrengo: izan biar da campoticua: au da emon biar dituguz gueure vijotzian deutzagun amodijuaren ezaugarri, edo señaliac; eta alan gure biar bada lagundu biar deutzagu, go-

se bada emon biar deutzagu janarija, egarri bada edarija, billoxie badago jastecua, eta beinguan esaterren eguin biar dogu euracaz, eurac gueugaz eguin daijen nai gueunquian gustija.

Ecín alderatu, edo apartadu guinaiquez amodijo onetatic gueure arerijuac, edo gach eguin deuzcubenac, bada dira gueure proximuac, eta daucagu obligocinoe estuba pecatu mortalen beian, ez bacarric ez gorrotoric euquiteco, ez gachen bat nai izateco, bai ta bere ameta-co, eta mesediac eguiteco. Jesu-Christoc berac bere aotic emon euzcun (1) aguindu au. Berac dirauzcu: neuc dirautzubet, amadu eguizubez ceuben arerijuac, mesediac eguijzubez gorroto deutzubenai; eta erregutu eguijzube Jaunari zuben jarrai dabilzan, edo perseguietan zaitubezanac-gaitic. Onetan eztago dudarric, alperric esango dau nai dabena guizonen antuste, edo sobervijac, eta bacocharen beraganaco ondo guriac. Amodijo onec, edo arerijuac-ganaco caridadiac cer aguiduten deuzcun ezagututeco, deritzat moduric onen onena dala noc pecatu eguiten daben onetan adi erasotia. Eguiten dau bada pecatu mortal. Lenengo: nai leuquianac gachen bat etorri daquijon bere arerijuari gorputzian, ariman, edo ondasunetan. Bigarrengo: jazoten jazozan calte, gach, edo nequiacaz poztuten danac. Irugarrengo: Jaungoicuaac emoten deutzazan ondasun, osasun, eta zorionac gaitic necatu, eta tristetuten danac. Laugarrengo: eguin deutzan gach, edo caltia venguetaco gogo, edo gurarija daucanac, ocasinioie billa dabilela mundic nora beste aibeste gach, edo calte eguin al leijon, bere barruban dinuala: Ertzat beste mundura juango pagadu бага eguin deutzan prestubezquerija. Neuc iracatzi-

(1) Math. cap. 5. v. 44.

co deutzat etzacola eguin biar ni lezco bati alango chacharqueriari. Bostgarrengo: oficijo batecuac, zapatari, dendari, josquila, errementari, arotz, arguin, eta beste edocimbere oficijocuac eguiten dabe pecatu bata bestia icusi ecin badabe, ecin onian eruan al dabeela, bestiac aimbeste salceia, aimbeste biarguei euquitia, aimbeste irabastia, eta nai leuquela jausi deitezan dauquen izen on, edo famatic, istic areec ezpalegoz, edo ain fama, edo izen ona ezpaleuque eurac gueijago irabacico leuquela. Seigarrengo: gach eguin deutzanari gorroto deutzanac, edo ecin icusi dabenac. Saspigarrengo: bere arerijuari parcatu nai ezdeutzanac,

Engañu gustiz andijac jazo oi dira, neure enzula mai-tiac, arerijo, eta gach eguin debenai parcatutiaren ganian. Christinau gustiz asco dira gach, edo calteren bat eguiten deutzenian, esan oi dabeenac: Jaungoicuac bacarric daqui orrec eguin dauztazan caltiac, baña orregaitic ezteutzat gorrotoric, ezteutzat gachic nai, parcatuten deutzat; baña au badino bere, auzotegui gustijac dacuz, eta dino aserraturric daguala beragaz, eta erri gustijan da ezagun eztaguala ondo beragaz. Orregaitic gustiz da biarra jaquitia, nundic ezagutuco dan nos daguan gorrotua vijotzian, eta parcatu echacan benetan gach eguin dabenari, eta onetaraco ifinico ditudaz gorroto onen ezau-garri, edo señaliac. Lenengo: daucazu aserre, edo aucijen bat leen adisquide cirianen bategaz; eguin deutzu calte, edo eguiquera chacharren bat, eta ordutic aurrera ez bacarric urratuten dozu adisquidetasuna, ezpada ezteutzazu inundie bere verba eguin nai: badacutzu zuc daruazun bidetic datorrela, oquertuten dozu bidia berari agur edo verbaric ez eguiterren. Au eguin ecin badozu bestera birectan dozu arpeguija bera ez icusterren, edo

berari agurric ez eguiterren, eta eguiten badeutzazu bere, da modu motz, eta astunagaz. Onec gustijoc adi erasoten dabe eztaguala ondo zure barruba leen adisquide cenduban orregaz. Bigarrenge: gurata gura ez aurquitu biar zara beragaz batera, baña ifinten deutzazu becoscua, edo arpegui iluna, eguiten deutzazu mespresa, edo menosprecijua, ifinten deutzazuzala begui oquerrac, eta ceure beguiraune, buru erabilte, escucada, eta beste gorputzeco eguitadiacaz ezagututen jatzula ceure vijotzeco arancia aren contra.

Irugarrenge: dauca zure arerijo, edo gach eguin deutzun orrec entieru, erijotza, esconza, edo beste onelaco gauzaren bat, cegaitic juan oi dirian zure ideac atzeguin, edo norabuenia, damu-aldia, edo pesamia emotera, eta aserratu zarialaco, aucija asi dalaco, edo gachen bat eguin deutzulaco etzuaz zu bestiacaz, eta combidetan bazaitube bere etzuaz milla atzaquija bide bagaco ifinten dituzuzala ez juateco. Laugarrenge: daucazu esconzaren bat, edo ceure echadi, edo familijaco barri onen bat, cein adi eraso, edo parte emoten oi dan gach eguin deutzunen educuai, eta gustijai esanic ezteutzazu berari ecer esaten: convidetan dituzuz bestiac, baña ez bera. Bostgarrenge: zagoz verbaz beste batzucaz, azten dira, gach eguin deutzun, edo ceure oficijocua dannen contra cerbait esaten, eta zuc isilic bazagoz bere adi erasoten dozu ceure vijotzeco poza; arpegui, begui irribarre, eta gorputz gustijagaz, ezagututen emoten dozula ceuc barruban artuten dozun atzeguina. Baña alabetan badabe, ceure arpeguico iluntasunagaz, motz motzic egonagaz, eta beste modu ascogaz aguertuten dozu alabanza areec emoten deutzuben atzacabe, edo pesadumbria. Eguitade, edo accinoe gusti onectan ezagututen da



vijotzeco gorrotua, eta ezteutzazula parcatu oraindio gach eguin deutzunari; alperric esango dozu parcatuten deutzazula, ezteutzazula gachic gura, ametan dozula vijotz gustitic. Ez bacarric eguiten dozu pecatu mortal bat ceure arerijo ari deutzazun gorrotuagaitic, ezpada eguingo dozu beste bat emoten dozun escandalubagaitic, eta aide, edo senidien artian bada, andijagua izango da pecatuba, edo izango da beste bat, eta cembat eta urcuaguac dirian, aimbat eta andijagua izango da pecatuba.

Ce nagargarri, ce arrigarri, eta icaragarrija dan, neurre Christinaubac, egunian egunian icusten dana. Dacuzcuz aserraturic batzuc bestiaçaz; echadi, edo familijac familijacaz, aidiac aidiacaz, leengusubac lengusubacaz, analijac anaijiacaz, gurasuac semiacaz, eta semiac gurasuacaz. Ecin alcar icusi dabe, eztabe alcarregaz verbaric eguiten, eztira bata bestien echian zarcen, eta guexoric badagoz ozta ozta duaz visitetara, eta orduban bere, ez Jaungoicuaç aguindubagaitic, ezpada munduco esanagaitic. Ecin ichi albadabe alcarregaz verba eguitia, alcarregaz egotia, edo alcar visitetia, duaz, edo dagoz otz otzic, loturic edo indarrez valijuaz, edo balegoz leguez, gustijac ezagututen daben moduban gogo deunguiagaz duazala, edo dagozala. Batac verbachu bat badino, edo descuidochnu bat badauca, auxe da asco aserratuteco bestia, aora datorquijon gustija esateco; aldaijen gustijai esateco eguin, edo esan deutzen gacha, eta venturaz ceçer valiyo eztaben gauciaren ganian auci bat emoteco, edo besteri ateraco ez leiquijon querella bat emoteco. Erci gustijac dacuz familia areec, senide areec, guraso seme areec icusi ecin diriana; gustijac dagoz escandalizaduric euren vide, eta burugabaco auci, eta aserriacaz; gustijac dagoz dongaro esaten, eta euraç bacarric dagoz escrupulu бага,

eta sinisturic, gustiz ondo eguiten dabeela. Esan eijezu, cegaitic baquiac eguiten eztitubezan, cegaitic bata bestiari verbaric eguiten ezteutzen, cegaitic bata bestien echera juaten eztirian leen leguez, eta alcarregaz onian eztagozan? icusico dozu celaco achaquijac ifinico ditubeezan. Baña achaquija gusti onecc burubagac dira, icusico doguna leguez.

Lenengo: batzuc esan oi dabe, ezteutzat nic gorrotoric, ezteutzat gachic gura, edo desietan; neuri etorri daquidala nai deutzadan gach gustija; uxala Jaungoicuac ondasun andijac emongo baleutzaz, eta zorioneco eguingo baleu. Baña celan au esan cinaique ceure motztasun, ceure verba ucatute, ceure esacune, eta ceure gauza gustijetan badinozu, ecin icusi dozula, bere gauza gustijac aserratuten zaitubezala? Baña alan balitz bere, arerijua biar dan moduban ametaco, ezta asco vijotzian, edo barruban ondo gura izatia, emon bere biar dira campotic vijotzeco amodijo onen ezaugarri, edo señaliac; bañazuc onelaco ezaugarri, edo señaliac emon biarrian oquerrecuac emoten dozuz, eta alan eztozu beteten caridadiaren aguinduba. Bigarreno: beste batzuc eranzun oi dabe: Ecin nic orregaz tratadu neique; ain da erria, ain citala, ain buruerechija ce ecin inundic beragaz euqui leique baqueric; eta alan beragaz batuten banaz, edo adisquide eguiten banaz bertatic osteraserratuco gara. Esan eguidazu: Aserre au euqui baño leenago, auci au asi baño leenago, gach au zuri eguin baño leenago, etzinian orregaz adisquide izan? Etzinian alcarregaz ibilten? Etzinian bata bestien echera juaten? Ez ceuntzan modu onagaz, arpegui onagaz verba eguiten? Bada celan esan cinaique daucan genijuagaitic ecin beragaz tratadu cinaiquiala, leenago aibat demporan beragaz adisquide izan

bazara, eta aserratu ezpazara? Eguin deutzun gachac ezteutza aldatu leen eucan genijua, eta alan leen emoten baceuntzazan ceuntzan amodijuaren ezaugarri, edo señaliac, ezteutzu orain valijo achaquiya orrec. Guraso bat, nagusi bat, ugazaba bat, egon leiteque egunen batzubetan, verbaric eguin бага, arpegui astunagaz, dongaro eguin daben seme, otzein, edo bere arduracuac bere charqueriya ezagutu daguijan, ondu dedin, eta ostera biurtu eztedin, eta eztinot onelacuac, baita bere adisquide batec bestiari, guizon batec bestiari, au eguin leiquijo, baña orduban ezta gorrotua izango ezpada ondo guria.

Irugarrengo: beste achaquiya bat izan oi da. Nic parcatuten deutzat eguin deutzan gach gustiya, baña ecin nic neure honra, eta haciendia galcen ichi neique; honria galdu deutz biurtu beguit, eta orra ni gueldi: biurtu beguit neure diru, ondasun, edo haciendia, eta orra amaitu, edo acabaduric aucijac. Gauza bi, edo achaquiya bi daucauz onetan; bata honriena, bestia ondasunena. Deritzat, Christinaubac, eztaguala zoraqueriya andijagoric esan dan verba, edo eguin dan chacharqueriya bat gaitic aucitan ibiltia baño. Eztago querellia baño beste moduric esan deutzun verba, edo eguin deutzun prestubezquerijaz quendu deutzun honria osotute-co? Au nai ezpadozu, eta auci, edo querelliari jarraitu nai badeutzazu ezaugarri, edo señaie ciur, edo ciertuba da venguetaco goguan erreric daucazula ceure buruba. Eta derichazu auci orregaz biurtuco jatzula galdurico honria? Lenago esango neuque gueijago galduco dezula. Ara celan. Emoten dozu auci edo querellia, bestiac lapurra, ordija, edo (esan daigun artez) putia esan deutzulaco, eranzuten dau bestiac, eta bere verbia jaoterren,

ateraten dituz arguitara zugaitic daquizan utsune, edo falta gustijac. An urteten dabee arguitara isilian egoteco obe cirian gauza ascoc; leen bein bacarrie dei eguin beutzuben lapurra, edo ordija, paperian datz amar, oguei, edo eun bidar; leen iru, edo lauc enzun beeben izen ori, orain danzube erri, eta probincija osuac. Era cetan gueratu oi dira auci modu onecc? Gueijen gueijenetan lenenguan eguin biar zanian; adisquiden bitartez compondutian; eta gueratuten zara polsia murrituric, ceure honrija obetu baga, eta ceure arima zauritubagaz. Lenengo lenenguan eguin balitz guero eguin zana, gach gusti onecc aurreratuco cirian.

Beste atzaquiya izan oi da ondasunena. Aucija ifintia bere gaucia artuteco, edo beria dana biurtu daquijon ezra pecatu; baña gueijenetan izan oi da pecatu ascocem sustraija. Orregaitic baderitzu ceuria dala bestiac daucana, edo bestiac escatuten deutzuna, eta nai badozu erabagui dedin, contu ceure vijotzagaz, begnira isio eztein bestiaganaco aserracunza, edo gorrotuan. Ceuria dana cobradu, edo ceuretu al badaizu aimbeste gastadu eraso baga bestiari, alainche eguin biar dozu, eta gastadu erasoten badeutzazu biar leuquian baño gueijago, pecatu mortala eguingo dozu, eta osotu biarco deutzazu gueijago gastadu eraso deutzazuna. Ardura andi bat euqui biar dozu gorrotoric ez euquiteco. Dacuzcuna da ez oi dala icusi aserre bagaco auciric. Egon bediz errazoe andijac bateric, eta bestetic, egon bediz guizonic jaquitunenac dudan, nori datorquijon; onegaz gustijonegaz bere, icusico da, celaco celtasunagaz beguiratuten dirian aucija dauquenac. Leen adisquide andijac bacirian bere abijetan dira otzitzen, eta guero ar-rijo leguez beguiratuten dira. Orregaitic gustiz da gach, aucija dau-

quenac ez arerijo izatia. Orregaitic onduen litzateque auciric ez euquitia, eta biar biarrecua bada, eta ecin ichi albaleiteque, contu andi bat euqui bere aucico laguna, edo arerijua ametaco vijotz gustitic, eta indar gustija eguitiagaz aserre, gorroto, edo ecin icusiric sartu eztedin inundic bere.

*Erasoguinza.*

Nai badozube ezagutu, neure enzula maitiac, ce bide, eta burubagac dirian, arerijuari zor jacazan amodijuaren ezangarri, edo señaliac ez emoteco ifinten oi dirian achaquijac, eztaucagu beguiratu baño egunian egunian jazo oi dana. Dagoz adisquide bi alcarri gustiz asco gura deutzenac, batera dabilz, ecin bata bestiabaga egon dira. Dirautza batac bestiari verbaren bat, eguiten dau bestiac nai cleuquian gauzaren bat, eta orregaitic zarcen da euren artian aserracunza gustiz andi bat. Ecin alcar icusi dabe, ezteutze alcarri verbaric eguiten, eztira alcar visitetan. Dagoz bata bestien contra chacur amorratu batzuc leguez. Sartu bediz euren artian adisquide, Sacerdote, edo guizon andiren batzuc baquiac eguitera, eztitubez enzun guraco, eta emongo ditubez oi dirian achaquijac. Eztago Jaungoicuaren legueric, eztago alcar maitetu, edo ametaco obligacinoeric, eztago beste Christinaubac euqui biar dabeen caridaderic: beti dagoz sendo euren alcar ecin icusijan, alcarri ez verba eguitian, alcarregaz ez batutian. Elduten dira oneec bijoc bata bestien biar izatera ondasun andijen batzuc irabasteco, edo bijai ondo datorquijuen oficijo, diñade, edo honraren bat alcanzetaco, euren eche, edo familijac aurreraturteco, edo bijai emoten deutzen auciren bati jarraituteco: bertatic batuten dira; eguiten dira adisquide. Eztago leengo achaquijaric, eztago genijo dongaric, eztago

bestiagaz adisquide ecin izanic. Gustijac goituten dira, gustijac laututen dira. Emetic dacuzcu, Jaungoicuaren aguindubac ecin al izan dabena, al izan dabela mundu onetaco irabaci, ondasun, eta anditasunac.

Ce gauza arguijagorie egunian egunian jazo oi dan aldanza, edo mudanza au baño, ezagututeo guizon, eta familia osuac ifini oi ditubezan achaquijac, alcarregaz ez verba eguiteo, alcarri agurra bere ucatuteo, eztiriala demoninuaren asmubac baño, gustijen arimac galceco? Dudatzaca, neure Christinaubac, begueunca gueure arimia mundu onetaco ondasun, irabaci, eta anditasunen bestian, eguingo gueunque bere salvacinoiagaitic, ondasun ecin iraun leijen onecgaitic eguiten doguna. Beguiratu daigun ce anditasun arrigarrira ereguiten gaituzan gueure arerijuac ametiac, gach eguin deuzcubenai mesediac eguitiac, eta dongaro nai deuzcubenac gaitic erre gututiac. Jesu Christoc berac dirauzcu, (1) amadu eguizubez ceuben arerijuac, ondo eguijozube gach eguin deutzubenai, izan zaitezen ceruban dagan Aitaren seme benetaco, eta ceruco ondasunen herederu. Ce honra andijagoric? Ce diñade ereguijagoric? Ce ondasun ugarijagoric? Neure enzula maitiac, sensunic badaucagu, Christinau bagara, errazoe obiagaz goitu biar dituguz ceruco ondasunacgaitic gueure antuste, edo sobervijac ifinten deuzcuzan achaquijac arerijuai ez parcatuteo, munducucacgaitic goitu edo vencietan doguzan baño. Mundu onetaco honria utsa da, ondasunac simaurra, anditasunac autsa. Erregueric andijena gaur bada, bijar ezta. Eguin daigun, bada, ecer eztirian gauza onecgaitic eguingo gueunquiana, ceruco erreinu betico iraungo dabengaitic, ezagutu gaizangueure Aita cerucucac bere semetzat. Amen.

(1) Math. cap. 5. 44.

**XXX. VERBALDIJA.**

*Jaungoicuaren legueco lenengo aguindu, edo mandamentu-  
baren ganian.*

Jaungoicuaren legueco lenengo mandamentubac aguinduten deuzcu Jaungoicua ametia gauza gustijen gañetic. Amadu eiquezu ceure Jaun, eta Jaungoicua, ceure vijotz gustitic, ceure arima gustitic, ceure sensun gustijacaz, eta ceure indar gustijacaz. Jaquin naico dozube cer dan Jaungoicua maitetu, edo ametia gauza gustijen gañetic, edo gauza gustijac baño gueijago. Da bada naijago izatia galceia ondasunac, osasuna, aidiac, gurasuac, eta vicitzia bera bere pecatu eguin baño leenago. Etzacu mandamentu onetan aguinduten eztaiguzala amadu guraso, seme, alaba, anaije, senide, lagun, eta adisquidiac. Etzacu aguinduten ichi daguiguzala ondasun, diru, hacienda, eta echiac. Etzacu galazoren, seme, alaba, guraso, eta beste ehecuen ardura euquitia, bada dacuzcuz, asco, eta asco izan dirjala santu andi, batzuc ondasun ugarijen erdijan, beste batzuc seme, alaba eta ehecuen arduren artian; onec munduco arazu, eta cereguinen erdijan, areec guerraco juan etorri, lanza, espata, zauri, eta erijotza artian. Onec gustijoc amadu dabee Jaungoicua gauza gustijac baño guijago. Aguinduten jacuna da eztaigula pecatu eguin, edo eztaigula ausi Jaungoicuaren legueco aguindu, edo mandamenturic, ez guraso, seme, aide edo adisquidiacgaitic, ez ondasun, eta dirubac baturerren, ez pobrezien bildurragaitic, ez osasun, edo vicitzia galceco pelleburutic urtererren; eta prest egon biar garijala mundu onetaco neque, pena, gachic andijenac

iragoteco, eta vicitzia bera galceco pecatu eguin baño leenago. Ezagutu daguizuben celan dan pecatu, beste bat Jaungoicua baño gueijago ametia, ifinico deutzubet esanguei bat. Seme batec gura deutza gustiz asco bere amari. Aguinduten deutza onec, ostu daguijala polsa bat diru, orra nun daguan seme au Jaungoico, eta amaganaco amodijo biren erdijan; Jaungoicuari deutzan amodijuagaitic eguin nai ezpadau ama ain maite dabena aguinduten deutzana, Jaungoicua ametan dau ama baño gueijago; baña amari deutzan amodijuagaitic ostuten badau diru polsia, ama ametan dau Jaungoicua baño gueijago, eta eguiten dau pecatu.

Orra cetan daguan Jaungoicua gauza gustijen ganian ametia, edo vijotz gustijagaz, arima gustijagaz, eta indar gustijagaz, eta alan eztago amodijo vicijago bategaz maitetu, edo ametian. Jazo leiteque guizon batec, amodijo samur, erriago, edo isijuago bategaz ametia bere emaste, guraso, edo semiac, eta atzacabe andijagua arceia, onen erijotza, edo gachetan, pecatu eguiten dabenganian baño: ecin orregaitic esan leiteque, Jaungoicua baño gueijago ametan dituzala, edo ezabela Jaungoicua maite gauza gusti onen ganian, eta pecatu eguiten dabela onetan, prest badago onec gustijoc galceco, pecatu eguin baño leenago. Exemplan au arguijago ifinico deutzubet. Christinau on, eta Jaungoicuaren bildur santuban vici dan bati, quencen deutzeez bere ondasunac lapur batzuc, eta ichiten dabe gustiz aberastic, naruru gorrijan, eta cer jan, cer janci, nun vici eztaucala. Onec artuten dau gustizco atzacabe, edo sentimentu bat, eta ain andija, ce nosbait pecatu mortalian jausi bada, eztau beste aimbeste naibague artu, eztau aimbeste negar eguin, ezta aimbeste tristetu. Esan leique, guizon



onec gueijago ametan dituzala ondasunac Jaungoicua baño; neque, tristeza gueijago iracutzi dabelaco, eurac galdu dituzanian Jauna galdu evanian baño; baña sentimentu andijagua iracutzi arren, eurac galceian, ezta au gueijago ametia eurac Jaungoicua baño. Ezpabere; esan beijue lapurrac guizon oni, guzurrezco juramentu, blasfemija, loiquerija, edo beste pecatuben bat eguin daijala, eta quendu jacozan ondasun gustijac biurtuco jaczala: ezta guraco, eta eranzungo dau: Naijago dot pobre, eta bilox biloxic egon neure vici gustijan, Jaungoicua pecatubagaz aserratu baño. Orra celan guizon onec ametan daben Jaungoicua, bere ondasun gustijac baño gueijago. Emetic ezagutuco dozu, lenengo mandamentu au jaoteco, eztala biar Jaungoicua ametia amodijo vici, erriago, eta samurrago bategaz, guraso, seme, eta anaijac baño.

Modu ascotan pecatu eguin leiteque aguindu onen contra. Lenengo: eguiten dau pecatu, guzurrezco Jaungoicuen taiju, idolo, edo irudijac Jaungoico benetacotzat daucazanac, eta adoretan dituzanac. Jaunari esquerrac, eztago onelaco peccaturic Christinauben artian. Bigarren-go: Jaungoico, edo bere Santubai dagoquijon onen bat ucatuten deutzanac, edo ezdagoquijon gachen bat euracgaitic dinuanac: esango balen leguez, gogorreguija da Jaungoicua, bada mereci baño gach, eta neque gueijago bialduten deutzaz. Ezta arteza, bada eztituz emoten, edo errepartietan mesede, eta castigaba bacotzac mereci dabena leguez. Erneguetan dot Jesu Christo, eta Maria Santisimiagaz. Esaquera onecc, eta onelacuac, blasfemijac dira, eta pecatu gustiz icaragarrijac: ez oi dira enzuten Christinauben aotic. Gueijagotan enzuten oi dira beste blasfemija modu batzuc; Christoren buruba,

Virginiaren sabela, San Pedroren calvia, Jaungoicuae berac bere ecin galazo leiquet, au, edo bestia eguiten: ez Ama Virginiac, ez Jaungoicuae libraduco zaitu nire atzamarretatic. Esacune onec, eta beste onelaco asco blasfemijac dira, eta pecatu mortal, ceuben ez jaquin, edo ez aditutiac escusetan ezpazaitube. Orregaitic onelaco itzcunia daucanac, aleguina eguin biar dau bera quen-ceco. Beste esacune bat gustiz sarri enzun oi da. Dinodana, ain da ciertuba, ain eguija cein da Evangelijua bera, edo cein da Jaungoicua ceruban dagan. Badaquit au andiscas, edo ponderacinoez esan oi dana, eta pecatu mortal eztana; baña alambere deungaro esana dago; bada ezta inundic bere bardindu biar Jaungoicuaeren eguijagaz, edo berac dinuanen ciurtasunagaz guizonac dinuana.

Bigarreno, eguiten dau pecatu, Jaungoicua biar eztan moduban adoretan dabenac, edo cerbait bergandic escatu, eta icharoten dabenac. Esateraco: Meza ateraten dabenac zaspicandelagaz, modu onetan aguertu dedin gancia ostu deutzana, edo gach eguin deutzana. Goxian goxian Pater-noster bat, eta Ave Marija bat errecetan deutzanac Santa Barbarari, segurutzat euquiric eztala egun atan ilgo Sacramentu бага au eguiten dabena. Santuben erliquijac beragaz darabilzanac, ciertutzat daucala eurac aldian euqui ezquero eztala confesinoe бага ilgo nai daben moduban vici arren. Ama Virginiaren irudi, edo estampa, escapularijo, edo oracinoen bat aldian darabilenac, ciertutzat daucala pellebururic andijenian sartu arren, nai dala guerran, nai dala ichasuan, nai dala surtan, echaacala gachic eguingo. Gauza gusti onec berez onac, eta santubac dira. Ondo da Mezac ateratia, Santa Barbarari errecetia, Santuben

erliquijac, Ama Virginiaren irudi, eta escapularijua al-  
dian erabilta, baita euren bitartez Jaungoicuae mese-  
diac eguingo deuzcuzala ustia euquitia. Baña devocinoe  
au gaitic nai dan moduban vici izatia Jaungoicuaren  
bildur baga, eta edoceimbere pellerutan sarceia, bide ba-  
gaco devocinoia da. Bardin; eguiten dau pecatu, nai da-  
benac Jaungoicuae emon deijen osasuna, eta biar da-  
bena berac bere aldetic ecer eguin baga. Dago bat  
guexoric, eta eztau osasunguei, edo medicinaric artu nai,  
sinisturic Jaungoicuae osatuco dabela. Gasteran dau best-  
tiac beretzat, eta bere umientzat biar leuquiana, eta esa-  
ten bajaco, cegaitic modu orretan gasteran daben? eran-  
zuten dau Jaungoicuae emongo dau. Eztau bestiac biar-  
ric eguin gura, eztau arduraric artu nai bere semiac oli-  
cijo, edo vici moduben bat icasi, edo artu daguijen, esa-  
nagaz, Jaungoicuae compounduco dituz, berac emongo  
deutze biar dabeena. Au ezta beste gauzaric guraso eta  
semiac lapur, tramposo, eta engañalari izateco bidian  
ifintia baño. Ondo da Jaungoicuagan ifintia gogo osua,  
emongo denzcula biar doguna, baña au izan biar da  
gueure aldetic aleguina eguin ezquero.

Irugarrengo: eguiten dau pecatu, gauza isil, eta es-  
cutubac bide bagaco moduban jaquingura dituzanae. Gal-  
duten da cerbait; ostuten dabee gauzaren bat, eztaquije  
nun dan senarra, semia, nebia, edo senidia; bertatic di-  
nue, guazan astubagaña, sorguinagana, edo familiarijac  
daucazanagana, arexec esango deuzcu artez artez; ezta-  
go, berac igarten eztaben gauzaric. Cé zoraquerija an-  
dijagoric au baño! Cé ichumendi gogorragoric! Nundic  
nai ceunque jaquin daguijan astubac, sorguinac, edo fa-  
miliarijac daucazanac nun daguan zue galdu dozuna, noc  
ostu deutzun, edo nun dan zure senar, seme, anaije edo

senidia? Berez ecin igarri leique ain escutuban, ain isilian, edo ain urrin daguan gaucia. Beraz besteren batec esan biar deutzala, eta ecin bestec Jaungoicuac, edo demoninuac baño. Eta sinistu cinaique Jaungoicuac esango deutzala nun dan galdu dozuna, ostu deutzubena, edo zure senar, edo semia? Uste cinaique Aingueruben bat etorten jacala cerutic, eta esaten deutzala ain isilic daguana? Ezerz deritzat; bada edonoc dacuz euren vici moduban, eztala au merci leiquian lescu Santuba. Beraz ecin bestec esan leiyo demoninuac baño, eta beti igarten badau, esan oi dana leguez, demoninuaren bi-tartez jaquin biar dau. Orregaitic eurai onelaco gauza isilic, eta ecin inoc jaquin leijanec itanduten badeutzazube pecatu mortala eguingo dozube, ceuben ez jaquinac, edo fede onac atzaquijetan, edo escusetan ezipazaitube. Baquizube cer dirian astubac, eta igarzailletzat salcen dirian orreec? Guizon lapur, galdu, eta asmularijac: zuben lepotic jan, eta edan nai dabe, ecer necatu baga, biarric eguin baga. Zuaz euracgana cerbait itandutera, eran-zuten deutzube urrengo burubac emon deijuena, guzurra, eta abarra, onegaz quenduten deutzube biarren dozubena. Betetan ditubez euren echiac biar daben gusti-jagaz, eta dagoz zubei burlaz, eta barrez zabal zabalic. Onelaco guizon, eta emacumiai elitzatequijue ichi biar errijetan egoten. Onen lagun bene benetacuac dira zau-rinac. Ecin oneec icusi leiye diruric, cirarric, urteric, ez beste gauzaric luurpian, eta alan dira guizon alper, gu-zurti, eta embusteru batzuc: ez ecer sinistu eurai.

Laugarrenge: eguiten dabe pecatu guexoric dago-zanian bide bagaco medicina, edo gaucen batzucaz osatu nai dabeenac. Itericija, edo laruba dauca? Ea bada, evagui oin, edo zapatien neurric inchaur azala, ese-

gui zugateco laratzuban, eta celan doian sicutubagaz in-  
chaur azala, alainche juango da osatubagaz guexua. Eten  
da mutilhuben bat? Bada erdibitu bedi arbolachu gaste  
bat, ifini bediz alde bijetatic guizon bi, baña contu, ba-  
tari dei eguin biarco jaco, Domingo, bestiari Francisco,  
eta onec bijoc emongo deutze batac bestiari iru bidar  
umechuba arbola erdibituben erditic; au gustijau eguin-  
go da San Juan vispera gaberdijan, eta onegaz osatuco  
da umia, edo mutilhuba. Dauca beste batec; beso, es-  
cu, solbarda, oin, edo caderaco mina? Bijua astubaga-  
na, esan deijozan aguin arteco murmurija moduco ora-  
cinoe batzuc, eguin deijozan curutze batzuc, eta bota  
deijon bere aoco arnasia; onexegaz quenduco jacoze be-  
re min, eta ala gustijac. Guexo luce bat dauca? Erquin-  
du, cadendu, eta gustiz argalic dago? Ea, gazquinac  
daucaz, emon bequijoz conjuru sendo, eta fuerte bat-  
zuc. Cembat onelaco zoraquerija, eta sinisquerija ero,  
eta burubagaco ete dagoz? Neure enzula maitiac, onec  
gustijoc demoninuaren asmubac dira; eta ceuben ez ja-  
quinac, edo sinciltasun, edo simplicidadiac escusetan  
ezpazaitube, pecatu mortalac. Badaquit Jaungoicnac be-  
dar, arbola, eta beste gauza ascotan ichi deuzcuzana guen-  
re gachen osasunguei, edo medicinac; baña au izan oi-  
da, edo arturic aotic, edo ifinijagaz min dan lecuban.  
Baña, cer dauca cer icusi, laratzuban daguan inchaur  
azalac, zure itericija, edo larubagaz? Ce indar gueijago  
euqui leique, oin, edo zapatien neurricua izanac, guei-  
jago, guichijago, andijago, edo bedarrago izatiac baño?  
Bardin dinot, beste artu oi dirian ganora, eta buru ba-  
gaco osaguei, edo medicinacgaitic. Ondo da norbait  
guexoric dagnanian; Jaunari osasuna escatutia, berari  
erregututia, Elexiac onetaraco ifiniric daucazan oraci-

noiac errecetia, Evangelijo santubac euren gauian esatia, Abade, edo Sacerdotiac guexuen ganian escubac ifintia. Au gustijau onzat, eta gauza provechu andicotzat dauca ezaguturic Elexiac. Baña cer dira orraco conjuru fuer-tiac, ez bigunac? Asmu zoruac.

Bostgarrengo: eguiten dabe pecatu aguindu, edo mandamentu onen contra, sorguinac, hechicerubac, familiarijac dauquezanac, eta demoninuagaz pautua dauquenac; eurai bestelan ecin jaquin leitequian gauzaren bat itanduten deutzenac; euren bitartez guero jazoco dan, edo etorteco daguan gauzaren bat jaquin nai dabeenac; euracaz valijoten dirianac joco, saldu-crosi, edo tratuban irabasteco, fortuna on bat euquiteco; euren gach, min, ala, edo guexuetan osasuna escatuten deutzenac: bardin da, idi, bei, ardi, edo egastijac gueitu, aci, edo osatutia escatuten bajaque; bada onelaco osasuna emoten badabe, isilie daguana, oraindio jazo eztana, edo urrin daguan gaurcia igarten badabe, ezta demoni-nuaren bitartez baño. Emenche esan gura deutzubet gauza bat, pecatutzat euqui eztaizuben pecatu eztana. Ascoc uste dabe pecatu dala esatia, sinistutia, edo uste izatia, dagozala sorguinac; au, edo bestia eguin dabeela; oni, edo bestiari gach eguin deutzela; au ezta pecatu: daquigu zorguinac aurquitu leitequezala, edo guizon, eta emacume galdu, eta ichu ascoc demoninuagaz pautua eguini, sorguin eguin diriala. Gauza bat da sorguinac dogozana sinistutia, eta beste bat sorguinai sinistutia. Lenengua ezta pecatu, bigarrena bai; bada sorguin, hechicera, eta magicuagan sinistutia da euracgana juatia, eta escatutia osasuna, ondasunac, edo beste nai dan gauzaren bat. Beste pecatu bat eguin oi da gustiz sarri, eta da icusten danian atzo argal, caden, edo erquinen bat

sinistutia sorguina dala. Baita bere, araco umeren bat guexoric daguanian, sinistutia, urlijac, edo urlicijac emongo eutzazala gasquinac, beragaz aserratu zalaco, limosnia ucatu eutzalaco, edo berac ogui, arto, edo beste gauzaren bat umiari emon eutzalaco.

Eneunque amaituco esan nai banitu, ascoc eta ascoc dauquezan sinisquera buru baco, eta fundamentu bagacuac. Batzuc uste dabe ichusqui, edo guinarria ate ostian ifini ezquero, ecin an sorguinic sartu leitequiala. Beste batzuc gatza maijan jausten bada, cañubita, edo cuchilua auaz gora gueratuten bada, edo oguija biar dan moduban, edo azal aspiguagaz gora ifinten bada, gachen bat datorrela echera. Elexaco campaiac zoli ots eguiten badau, erri atan laster norbait ilgo dala. Martitzen, eta Varicuba, zori deungaco egunac diriala, egun onectan eguiten dan gauza andi, edo nagusic ecin ondo urten leiquiala. Guexua daguan echian catubac miauca, edo chacurrac zauncaca badagoz, laster il biar dabela; umiai asconarren erpia, eta onelaco beste gauzaren batzuc ifintia, veguizcoz eguin eztaijuen. Oneec eta onelaco sinisquera eruac, demoninuaren asmubac dira. Baña ez eiquezube nastau ona charragaz. Ezta pecatu beguiratutia, ilargui barri, ala zarra dan cerbait eriteco, landarac ifinteco, egurra, edo zurac ebaguiteco, arbolac estituteco, bada gauza gusti oneetan daquigu, eztaguana berezco, edo naturalezco eztan gauzaric. Bardin, ifini leijue, eta gustiz da gauza ona, ifintia umiai erliquijac, curutzia, evangelijuac, edo santuben irudi, edo imaginac feddiagaz, euren bitartez jaongo dituzala Jaungoicuac gachetatic; bada au ezta beste gauzaric ezpada erregututia Jaunari santu, curutze, edo Evangelijuen bitartez gorde daquizala umechu areec.

arbolac  
mentit

Ce aguindu erraza! ce gozua! ce biguna! gueure Jaungoico maitiac ifinten deuzcuna lenengo mandamentu onetan! Eguin deuzcuz neurtu ecin leitequezan mesediac. Eguin guenduzan eceberezetatic, atera guenduzan bere pasinoe, eta erijotziagaz demonino, eta pecatupetic, eta au gustijau guichi balitz leguez, orainche bere da gure aita arduratsuba; berac emoten deuzcu vicitzia, janarija, jancija, arnasia, eta beste biar dogun gustija. Eta cer escatuten deuzcu mesede parebaga gusti oneen sari? Amadu daigula. Ezteuzcuz escatuten gueure ondasunac, ez dirubac, ez haciendac, ez osasuna, ez vicitzia, ez neque, gach, ibelera andijac; amodijua bacar bacarric naidau. Aguindu au beteteco, edo cumplietaco, eztaucazu cer ichi ceure echia, eztaucazuz ce astu ceure guraso, seme, alaba, senar, edo emastia, eztaucazuz ce bota ceure diru, ondasun, eta haciendac, eztaucazu cer ichi ceure officijua: ceure echian, ceure seme, alaba, eta beste echequen ardura artian, ceure biar, arazu, eta cereguinac ichi baga, ondo, eta ondo emon cinaijo Jaunari escatuten deutzun, eguin deutzuzan mesedien sari au. Onetaraco nai dabena da izan zaitezala seme, edo alaba humila, senar, eta emaste leijala, aita arduratsuba, nequezale biarguina, ugazaba ona, crijadu obedizailia, edo obedientia: verba baten, eguin daguizula ceure vici modu, edo estadubari dagoquijona. Onetaraco etzaituz isten bacarric, emoten deutzu bere gracia, lagunduten deutzu. Eta alambere ezteutzazu biurtuco aita maite oni escatuten deutzun sari apur pusca au, eguin deutzuzan mesedien orde? Astun eguiten jatzu escari au?

Cer eguingo ceunque bada? Cer esango ceunque?  
Cer usteco ceunque, escatuco baleutzu eguin daizula be-



ragaitic, berac zugaitic eguin daben beste? Ichi daguizu-  
zala ceruco ondasun, eta atzeguin gustijac, eta jatziric  
luurrera vici zaitezala pobrezaric andijenian, neque,  
izerdi, gose, egarri artian, vici zaitezala atzeguin baga,  
eche baga, eta guizon batec irago al leiquezan atzaca-  
beric andijenien erdijan, eta azquenez iragoric pasinoeric  
crubelena, eta emonic ceure zanetaco odol gustija, galdu  
daguizula vicitzia urcamendi baten erijotzaric lotzagari-  
jenagaz? Baña, ez Christinaubac ez, ezteutzu onelaco  
aguindu astun, eta garratzic ifinten. Berac bere ganian  
artu gura izan euan aguindu pisutsu, eta esqueraga au,  
zuri emoterren aguindu bigun, arin, gozo, eta atzeguin-  
suba. Nundic nora bada eguin cinaitequezu ain latz,  
ain aldatz gora, ain pisutsu amodijo, eta gozatasunez  
beterico aguindu au? Ceure ecandu citaletatic, ceure gu-  
rari oquerretatic, ceure ichumendi ilunetic; onexec zau-  
caz loturic, onexec zoraturic, eta onexec sensuna galduric,  
Ichi eguizubez bada nos, edo nos, urten eguizube euren  
aspitic, urratu eguizubez euren cateiac, idigui eguizubez  
ceuben arimaco beguijac, eta icusico dozube ce gozua  
dan Jaungoicuaren legueco lenengo mandamentu au; ce  
biguna aguindu au. Elduten bazare au ezagututera, nai-  
jagoco dozube amodijo au mundu onetaco ondasun, di-  
ru, erreinu, eta zorionic andijen gustijac baño, eta gui-  
chitan euquico dozube bera irabasterren iragotia guizoni  
burura etorri al leiquijozan ala, eta tormenturic icaragar-  
rijen gustijac, bada jaquingo dozube bera bacarric dala  
ceruraco bidia. Amen.

## XXXI. VERBALDIJA.

*Jaungoicuari zor deutzagun adoracinoiaren ganian, eta celacua dan Santubai emon biar deutzegubena euren irudi, edo imagina eta erliquijetan.*

**L**enengo Jaungoicuaren legueco mandamentubac ez bacarric aguinduten deuzcu, Jaungoicua ametia gauza gustijen ganian, baita bere bera bacarric ezagutu, eta adoretia Jaungoicotzat. Esan gura dau, eztogula inor bere inor bere besteric ezagutu biar ez ceruban, ez lurrian Jaungoicotzat, ez adoradu atacotzat, bera bacar bacarric baño. Modu bitacua da adoracinoe au, bata da barru, edo vijotzecua, bestia campotieua, edo gorputzecua. Barruco, edo arimaco adoracinoia da bera ezagututia gueure Jaun, gueure onguile, eta eguilatzat, eta gueu bere escubacaz eguinico criaturatzat. Da beragan bacarric sinistutia, beragan bacarric icharon, edo espertia, eta bera bacarric adoretia gueure Jaungoico benetacotzat, eta confesetia gu, eta beste izatia dauquen gustijac bere mempeco gariala, eta eztaguala gustijen artian beragandic izatia artu eztabenic. Izan, biar da campotieua, edo gorputzecua, au da, adi eraso biar dogu gorputzagaz bere, bera daucaela gueure Jaungoicotzat. Au eguingo dogu, Altaraco Sacramentuben aurrian b launico ifinijagaz, Mezã enzunagaz, Sacramentubac artubagaz, Elexan devocinoe, eta humiltasun andi baregaz egonagaz, eta verba baten esaterren, gueure Erliginoe catholicubac iracatzi, eta eguiten aguinduten deuzcuzan gauzacaz. Izango bada biar dan leezcua adoracinoe au, izan biar da barrucua, eta campocua, edo arimacua, eta

gorputzecua; bada campocua, edo gorputzecua bacarric arimacua baga, ezta benetaco adoracinoia, ezpada guzorra, eta hipocresija. Barrucua bacarric eztau adi erasoten gure erreliginoia, ez gaituz batuten, edo gorputz bat eguiten beste Christinaubacaz, ez Elexa icusgarri bat.

Lenengo mandamentu onetan aginduten jacu, eztaigula Jauna bera baño besteric adoradu Jaungoicotzat; baño echacu orregaitic galazoten, Santu, eta Ainguerubac adoretia. Onetaraco jaquin biar dogu, iru adoracinoe modu dagozala. Bata al daigun andijena. Au eguingo dogu sinistubagaz vijotzian, eta confesadubagaz mijnian, adoretan doguna dala gauza gustijen asijeria, berac bacarric eguin cituzala ceru luurra, dala neurri baga, eta cabu baga, jaquinsu, alsu, edo poderoso, artez, edo justu, eta santuba: izatia dauquen gustijac bere biar diriala, eta berac eztaucala inoren biarric. Adoracinoe onegaz adoraduco dogu Jaungoicua bacarric. Bigarrena da, ceinegaz adoretan dogun Ama Virginia; au da, Jaungoicua baño chiquijaguagaz, baño beste santu gustijac baño andijaguagaz. Au eguingo dogu confesadu, eta sinistubagaz ezta Jaungoico ezpada criatura utsa, eta alan eztoigula adoreran Jaungoicotzat; baño Jaungoicuaren ama benetacua dala beste santu, eta Aingueru gustijac baño andijago, adoragarrijago, eta emoten deutzagula beste gustijai baño andijagua. Irugarrena da beste Santubai emoten deutzeguna Jaungoicuaren adisquidiac dirialaco, eta Jaungoicuae eurretan ifini daben gracija, eta santidadiagaitic, eta alan eurac honradu, eta adoradubagaz Jaungoicua bera adoretan dogu eurretan; sinistuten dogula, beragandic datorquijuela eurretan dagnan anditasun, eta gracija. Ecin campotic bereztu, edo distinguidu leitequez gueijeneran iru adoracinoe

onec; eta alan barrutic, edo gueure intencinoiagaz eguin biar dogu bereztu, edo distincinoe au. Ara celan. Ininten gara belaunico Altaraco Sacramentubaren aurrian; ifinten gara Ama Virginiaren aurrian, baita bere Santuben baten aurrian. Veguiratuten badeutzagu campotico adoracinoe, edo belaunico oni, bardin bardina da gustijetan, eta ecin gorputzeco belaunico onetatic ezagutu leiteque Jaungoico, Ama Virginia, edo beste santuben bat adoretan dogun. Baña gueure vorondatia dalaco Sacramentuben aurrian belaunico jarten garianian Jaungoicua adoretia, Ama Virginiarenian Ama Virginia, eta santubac santuben aurrian, bereztu, edo distinguietan dira iru adoracinoe onec, eta emoten deutzagu bacochari dagoquijona.

Echacu lenengo mandamentuban eragotziten, Jesu Christo, Marija gustiz santu, eta beste santuben irudi, edo imaginac adoretia, nai dala pinturia, nai dala taiju, edo bultuba, nai dala paperezcua; edo obeto esaterren pintura, edo taiju oneetan adoretia santubac eurac, noren irudi dirian. Onetan cerbait luzatuco naz, zubei aldaidan argui, edo claruben ifinteco celan adoradu biar dituzubezan irudi, edo imagina onec. Iru gauzataraco nai dau Elexiac euqui daiguzan, Jesu Christo, Ama Virginia, Aingueru, eta Santuben irudi, imagina, edo estampac. Lenengo: izan deitezan liburu orde iracurten eztaquijenenzat, eta pinturan icusi daijen, iracurri ecin dabeena. Esateraco: Icusten dau batec Jesu Chtisto curutzian josijaren irudija. eta bera icusijagaz ezagututen dau, ce lotzagarri, ce nequetsu, ce mimeria izan zan irago evan erijotzia; eta modu onetan iracurten dau Jesu Christo crucificadubaren irudijan, iracurten daquijagac liburuban icasten dabena. Bigarrenengo: euren bitartec

barristetaco, Jesu Christo, bere Ama, eta santuben vicitza, mirari, eta exemplubac. Dacuzcu Jesu Christoren irudija calvarijora doiala curutzia lepuan dabela, bertatic datorquigu buru, edo memorijara celaco nequiac, celaco lanac iragoco cituzan bide garratz, eta latz atan; celaco izerdijac emongo cituzan, eta celaco zautijac eguingo eutzazan pisu ain esquerga arec. Dacuzcu Ama Virginiaren irudija, bertatic gomuta dogu Jaungoicuatem ama benetaco dana, eta celaco mesediac artu guinaiquezan bere erregubacgaitic. Icusia gaz San Franciscubena datorquigu gogora bere humiltasuna. Icusiric Marija Magdaleniena gomutetan jacu bere penitencija; eta alainche beste santuben irudijac icusijagaz: Irugarrengo: irudi onecaz nai dau isio gugan Santubaeganaco amodijo, devocinoe, eta erreverencija. Beguiratuten deutzagu Jesu Christo columna bati loturicuen irudi, edo pinturiari, eta bertatic gurata gura ez leguez, sentietan dogu gueure vijotzian artu cituzan azote, eta zaurijen erruquija.

Orra cembat on datorquiguzan Santuben irudi, edo imagnetatic. Orregaitic nai leuque Nicea, eta Trentoco Batzar edo Concilijuac euqui daijezan Christinaubac, ez bacarric Elexa, eta Altaretan, baita euren eche, sala, eta guela, edo aposentubetan bere santuben irudi, edo estampac. Emetic jaquingo dogu cer adoretan dogun irudi orreetan. Elexa, altara, edo echian daucazuzan irudi, pintura, taiju, edo bulto erreec eztira euren ez zur, ol, arri, urre, cirar, miesa, paper, edo pintura zati bat baño; eta orregaitic eztabe merci beste edoceimbere zur, ol, edo urrec baño adoracinoe, edo erreverencija gueijago; bada eztago eurretan ez Jaungoicotasunic, ez santi daderic, ez gracijaric, ez eurac lagundu leiquegube ece-tan, ez erregutu leijue Jaunari gugaitic. Ara obeto aira

daguizuben. Dago altara baten Ama Virgina Errosarijocuarien irudi, taiju, edo bulto bat. Cer da ori? Zur zati bat. Ori ezta Jaungoicuaren Ama bera. Ez evan zur orrec sortu bere erraijetan Jesu Christo; etzan zur orregandic jaijo Salvaguilia, ez eutzan zur orrec ugatza emon Jaungoicuaren semiari, ez evan zur orrec igon cerubetara; eta ez eutzan emon Santo Domingori errosarijua; eta alan ez esan, ez uste guinaique, zur zati ori dala Jaungoicuaren ama, eta Ama Virgina errosarijocua berbera. Cer da bada zurezco taiju, edo bulto ori? Da ceruban dagan Jaungoicuaren Ama benetacuaren irudi bat, eta dago altaran guri gomuta erasoteco ceruban daguana. Orregaitic irudi orren aurrian belaunico ifinten garianian, bera adoretan dogunian, berari mun eguiten deutzagunian, errosarijua, edo beste oracinoen bat dirantzagunian, edo cerbait escatuten deutzagunian, gauza gusti oneec irago biar dituguz ceruban dagan Jaungoicuaren Ama benetacuagana, eta ez gueratu zur orretan. Alambere irudi, edo imagina oneec, ez izan arren arri, ol, zur, edo paper zati bat baño, zor jaque veguirane, eta errespeto andi bat, eurac adi eraso, eta dirudijengaitic, eta euqui biar dira on dirudijan moduban, edo decencijagaz, bada eurai emoten jaquen erreverencija dirudijenai emoten jaque.

Izen ascoren beian daucaguz, eta adoretan dituguz Jesu Christo, Ama Virginia, eta Santubac. Daucaguz Christo Lezoco, Christo Burgosco, Ama Virgina Errosarijoco, Carmengo, Begoñaco, Aranzazuco, Arrateco, Antiguaco, San Antonio Urquiolaco, eta beste asco. Baña oneec gustijoc eztira Christo asco, Ama Virgina asco, edo Santu asco bat hacarric baño. Esateraco. Ama Virgina Aranzazucua, berbera da cein Begoñacua, edo

Arratecua. Au da: Jaungoicuaren Ama benetaco ceruban dagnana da, Aranzazu, Begoña, eta Arrateco irudi orreetan adoretan dana, eta alan eztauca santidade, gracia gueijago batac, cein bestiac, eztauca mirarijac eguiteco escubide gueijago, edo ezta milagrosuago bata bestia baño. San Antonio Urquiolaco berbera da, cein beste altara baten dagan San Antonio, eztauca arec onec baño escubide gueijago, mirari, edo milagruac eguiteco. Eguiten badira mirari, edo milagroren batzue, ez-tituz eguiten, Begoña, Aranzazu, Arrate, edo Urquiolan dagan irudi, taiju, edo bultuac, ezta eurac adi erasoten ditubezan santubac bere; Jaungoicua da bacarric mirari, edo milagruac eguiten diruzana bitarteco diriala, edo erregututen deutzela araco Santu, noren irudi dirian imagina, taiju, edo bultu altara orreetan dagozanoc. Jaquin guraco dozu, cegaitic Jaungoicuac mesede, eta mirari gueijago eguiten dituzan Elexa baten bestian baño, Santu baten aurrian escatuten jaconian bestienian escatuten jaconian baño? Au eguiten dau Jaungoicuac irudi onen aurrian, Elexa onetan, edo bestian escatuten dogunian, devocinoe andijaguagaz, fede vicijaguagaz, eta esperanza senduaguagaz oracinoe eguiten dogulaco, eta Jaungoicuac devocinoe andijago, eta fede vicijago onen sari, emoten deuzcu santu aren bitartez escatuten deutzaguna.

Au obeto ezagutu daizuben ifinico deutzubet egunian egunian jazo oi dan gauza bat. Enzunic San Antonio Urquiolacuac eguiten diruzala mirarijac, artuten dozu beragaz devocinoe andi bat. Jausten jatzu guexoric idi, bei, edo zaldi bat. Escatuten deutzazu San Antoniori ceure echian, edo Elexan dagan bere irudijaren aurrian ceure abere orren osasuna, baña ez deutzu emo-

ten. Erfegututen deutzazu San Antonio Urquiolacuari, eta osatuten jatzu. Cegaitic deritzube, au jazo oi dala? Ara bada. Ezta au San Antonio Urquiolacoc escubide andijagua daucalaco ceure echian, edo ceure errico Ele-xan daguanac baño, ezpada ari escatu ceuntzarian fede vicijaguagaz, eta uste osuaguagaz ceure oracinoe, eta escarija eguin ceuntzalaco bestien bitartez baño. Auxegaitic enzun euan San Antonio ceruban daguanac, berari bere irudijen bitartez eguin ceuntzan escabidia; erregutu eutzan Jaunari, edo opa eutzan, edo ofrecidu eutzan Jaunari zure oracinoia, eta Jaunac artu, eta enzunic zure escabidia San Antonioren merecimentubacgaitic emon eutzun Santu aren bitartez escatu cendubana. Orra cer dan Ama Virgina Aranzazuco, Begoñaco, Arrateco, Antiguaco, edo San Antonio Urquiolaco, nai beste Santuben bat-mirarigulle; edo milagroso izatia.

Ez bacarric adoretan dituguz ceruco santubac euren irudi, edo imaginetan, baita euren erliquijetan bere. Santuben erliquijac, celacuac dirian euren gorputz, azur, odol, eta autsac veneragarriac dira, eta orregaitic honradu, eta adoradu biar ditugu, dirauzeu Trentoco batzar edo Concilliuac. (1) Lenengo: Santubac vici izan cirian artian Espiritu Santubaren vici lecu, edo temple vici izan cirialaco. Alainche dirauzeu San Paulo Apostolubac. (2) Bigarrengo: Santubac mundu onetan egozan artian gorputz orren bitartez eguitade, edo obra onasco eguin citubzalaco; baita bete euretatic ascoc mirari gustiz andijac. Irugarringo: gorputz, azur, odol, eta autz orreec nosbait ceruco glorijan anquituco dirialaco; bada gusti-gustijoe viztu, edo errezucitaduco dituz Jannac, bapere faltatzaca, ezta ulochi bat bere; eta

(1) *Tridica: des. 25. (2) 7. Corint. cap. v. 19.*



batu, edo uniduric leen euqui even arimiagaz, igongo dabe cerubetara betico zorioneco izatera. Laugarrengo: Jaungoicuac nai dabelaco ceruban dagozan bere adisquidiac honradu daguiguzan. Au jaquin daigun, sarri, eta sarri eguin dituz mirari andijac santuben erliquijen bitartez. Ez bacarric adoradu guinaiquez Santuben gorputzac, edo euren azur, odol, eta autsac, baita bere euren gauzac, celacuac dirian euren soñecuac, eurac erabilico gauzac, euren martirijoco instrumentubac. Esateraco; Ama Virginiaren erroparen bat, berac euqui evan plater, edo catiluben bat; San Pedro loturic euqui citubezan cateiac, edo euren malla, edo zatiren bat; San Paulori buruba evagui eutzan espatia. Baña erliquija onece adoretan doguzanian eztogu adoradu biar erliquija bera, ezpada araco santu, norena dan erliquija au. Esateraco: Ama Virginiaren erropan adoradu biar dogu Ama Virginia bera; San Pedroren cateian San Pedro bera, eta bardin beste Santuben erliquijetan. Bardin da erliquijen aurrian oracinoe eguiten dogunian, ezteutzagu escarija eguin biar erliquijari berari, bada eztauca belarriric enzuteco, ez beguiric icusteco, ez beste sensunic ecer eguin, edo sentietaco; eta alan euren aurrian eguiten dogun escabidia arteztu, edo dirigidu biar dogu santubagana, noren erliquija dan. Erliquijac beti gorde, eta euqui biar dira modu onian, eta erreverencijagaz.

Sarri, eta sarri ofrecidu, eta atera oi dituzubez Mezac Santubai ceuben premia, eta esturetan, eta escatuten deutzazube osasuna, vicitzia, eta beste nai ceunquian gauzaren bat. Dago emacumeren bat seinu eguiten, ofrecietan deutzua, edo ateretan deutzua Ama Virginiari meza bat. Dauca bestiac guexoric idiya, beiya, edo beste abereren bat; ateraten deutzua meza bat San Anto-

niori. Au ezta gauza charra, ona, eta santuba da, jaquin ezquero celan meza au ofrecidu, eta atera biar dan. Jaungoicuari bacar bacarric, eta ez besteri, ez Santuri, ez Aingueruri, ez Ama Virginiari ofrecidu leijo Mezia; bada sacrificijo onen bitartez emoten dan adoracinoia, da emon al leitequian andijena; eztago, eta ecin aurquitu bere leiteque, beragaz emoten dana baño adoracinoe andijagoric, eta au ecin besteri emon leijo Jaungoicuari baño. Orregaitic Abadiac, edo Sacerdotiac Meza esaten dabenian eztau esaten, opa deutzut, edo ofrecietan deutzut sacrificijo au zuri Jaungoicuaren Ama, zuri San Pedro, edo zuri San Paulo, ezpada zuri guere Jaun eta Jaungoicua. Eguija da Elexa Ama Santubac ifiniric daucazala Santuben Mezac euren egunetan esateco; baño Meza oneec ez jaquez opa, edo ofrecietan Santu arei, ezpada Jaungoicuari, santu aren gomuta, eta memoriian ezquerrac emoten jacazala, oneec bere gracia, eta laguntasunagaz demonino; mundu, eta araguijagandic irabaci citubezan goitute, edo victorijacgaitic; eta euren bitartecotasuna gaitic emon deigun Meza areetan escatuten doguna. Orregaitic Mezan esaten dirian escari, edo oracinoe gustijac arteztu, edo dirigietan jacaz Jaunari, eta Santu arecc noren honra, eta gomutian esaten dirian, arcen dira bitartecotzat. Orra cer esan gura daben Santubai mezia ofrecietiac, edo ateratiac, eta cer aitu biar dozuben.

Beste mezac ateretaco modu bat daucazube, eta conveni da jaquin daguizuben celan aitu biar dozuben. Zagoz guexoric, eta ateraten deutzazube purgatorijoco arimai meza bat osasuna artu, edo alcãnzetaco. Meza au ecin izan leiteque purgatorijoco arimen honra, ez gomutian beste Santuben mezac leguez, ezpada eurac ira-

goten ditubezan pena, eta nequetatic atera dagnizan Jaungoicuac, beragaz paguetan diriala bere justicijari deutzeezan zorrac. Izanic bada au alan esan nai deutzubet, celan purgatorijoco arimacgaitic ateraten dozuben meciagaitic artuco dozuben gura ceunquien osasuna. Ara bada celan dan, eta celan atera biar dozuben: Meza opa, edo ofrecietan deutzazube Jaungoicuari Purgatorijoco arimac deutzen zorra sacrificio onen bitartez paguetaco, eta onetan eguiten dozube obra erruquisco, edo misericordijazco bat. Au gustiz da Jaungoico onaren gogo, edo vorondatecua, eta erregututen deutzazube Jaunari emon deizubela eguitade, edo obra onen sari escatuten deutzazuben osasuna. Eguizu contu, guexo orretatic Jaungoicuac atera zaizan, emoten deutzazula limosna bat pobre bati, alainche da bada mecia ateratia purgatorijoco arimai, osasuna alcancetaco.

Esan doguna leguez, Mecia Jaungoicuari bacarric opa, edo ofrecidu al leijola, dalaco emon al leitequian adoracinoeric andijena; auxe betan esan biar dogu Elexa, eta altaracgaitic bere. Ecin besteri eregui, eta santutu, edo consagradu leijoz Jaungoicuari bacarric baño. Dinogu Ama Virgina Soledadeco, Errosarijoco, edo Concecinoecoaren altaria; San Juan, San Pedro, edo San Miguelen Elexia, bata bestiagandic bereztu, edo distinguietaco, ete ez berari eregui, edo consagradu jacolaco, eta santu onei dei eguiten jaque Altara ataco, Elexa ataco, edo urlija erri, edo urico Patroia; eta Patroiac esan nai dau bitartecua, adi erasoteco, El xaren bat eguiten danian, edo altaren bat ereguiten jaconian, berra artuten dala bitartecotzat Jaungoicuaganaco.

*Erasoguinza.*

Icusi dozube, neure enzula maitiac, celan adoradu

biar dogun gueure Jaun eta Jaungoicua, Jesu Christo  
 gure Jauna, Ama Virginia, eta beste Santu, eta Ain-  
 guerubac, celan euren irudi, edo imaginac, eta cetaraco  
 nai daben Elexa Ama Santubac euqui daiguzan Altara,  
 Elexa, eta gueure echeetan. Nai leuque, eurac icusija-  
 gaz gomuta daigun euren santidadia, bera jaquinagaz  
 eguin daigun aleguina eurai jarraituteco, eta eurac eruan  
 even ceruraco bidetic ibilteco. Onetaracoxe dira hermi-  
 tetan dagozan santubac. Baña beti euqui biar bagueun-  
 quez bere gueure beguijen aurrian eurac emonico ejem-  
 plu miragarrijac, gueijago, eta gueijago barristadu biar  
 doguz euren egun, eta jaijetan; bada onetaraco ifini ci-  
 tuzan Elexa Ama Santubac santuben egunac. Baña no-  
 raiño eldu da Christinauben ichumendija! Egun onetan  
 beguiratu biarrian ce vici modu euqui even Santubac,  
 viztu biarrian eurai jarraituteco gogua, eta jaquin biar-  
 rian cer eguin even Jaungoicuagaitic, eta celaco bidetic  
 ibili cirian cerura elduteco; euren egunac irago oi dira ari-  
 mia galceco pellebururicandijenetan. Orduban jan edanac,  
 orduban ordiquerijac, orduban danza zoruac, orduban  
 erromerijac, orduban loiquerija atsitu, soñu ero, ibilte  
 zoro, eta escubide, edo libertade inos arcen ezitirianac:  
 verba baten: Santuben egunetan arimia galceco dirian  
 demoninuaren asmu gustijac. Eta alambere aimbestera  
 elduten da Christinauben ichumendija, ce zoraquerija,  
 loiquerija, eta erriliginoiaren contraco ezaintasun onecaz  
 uste dabe honretan ditubezala santubac, eta adi crasoten  
 dabeela eurai deutzeen devocinoia. Au, Christinaubac,  
 ezta Santubai devocinoe euquitia, au ezta Santubac hon-  
 retia, au ezta Santubai jai eguitia. Modu onetan izango  
 bada zuben devocinoia, onelacuac izango badira santu-  
 ben jaijac, uxala ezpalego hermita, Elexa, ez altararic,

pecatu guichiago eguingo litzatequez, ez litzatequez aim-  
beste arima galduco. Ez ez, Christinaubac, ezta au San-  
tubai fiesta eguitia ezpada demoninuari. Nai badozubez  
ceuben Elexa, ceuben hermita, eta ceuben devocinoeco  
Santubac honradu, eurac adoradu, euren jai, eta egu-  
nac gorde, beguira ce vici modu enqui even, celaco bi-  
detic ibili cirian, escatu Jaunari eurai jarraituteco indar-  
ra, eta gracia; ifini onetaraco eurac ceuben bitarteco,  
eguin egun aretan limosna, eta beste al daizubezan obra  
onac: auxe da benetaco fiesta, auxe Santubac nai daben  
devocinoia, eta auxe eurac ceuben patroetzat euquitia.  
Modu onetan gordetan badituzubez euren egunac, mun-  
du onetan, eta bestian euquico dozube benetaco fiesta.  
Amen.

### *XXXII. VERBALDIJA.*

*Jaungoicuaren legueco bigarren aguinduben ganian.*

**J**aungoicuaren legueco bigarren mandamentubac aguin-  
duten deuzcuna da, Jaungoicuaren izen santuba ez ut-  
sian arceia, edo bardin dana, juramentu uts, edo fal-  
soric ez eguitia. Juramentuba da esaten dan gauciaren  
eguijen ganian, Jaungoicua testigutzat ecartia. Modu as-  
cotan juramentu eguiten da: curutziari, justicijaco cigor,  
chuzo, edo beste ezaugarri edo señaleri mun eguinagaz;  
Evangelijo, curutze, edo justicijaco cigorrian escuba ifi-  
nijagaz, esanagaz, juramentu eguiten deutzat Jaungoico,  
Trinidad, Jesu Christori. Da bere juramentu testigutzat  
ecartia araco criatura norzuan arguijago, edo clarubago  
aguiri dan Jaunaren ontasan, eta anditasuna: esango  
balitz leguez: Ama Virginiagaitic, ceuco Santubacgai-  
tic, Jesu Christoren pasinoe, zaspi sacramentu, edo ce-

rubagaitic. Baña au esaten bada araco gauzacgaitic, cein-  
 zubetan eztan ezagututen, edo eztan ain argui aguri  
 Jaungoicuaren gubanaco ontasuna; ezta juramentu izan-  
 go: esango balitz leguez escuban daucadan oguijagaitic,  
 auxe emenche daucadana leguez. Ezta juramentu esatia,  
 emenche naguana leguez, Christinau nazana leguez, edo  
 como soi Christiano, guizon prestu nazanez, neure con-  
 ciencijan, bada itzcune oneetan ezta Jaungoicua testigut-  
 zat ecarten. Beste esacune modubat gustiz sarri cuqui oi  
 da auan. Ondo daqui Jaungoicuac eguija dinodana, edo  
 guzurric eztinodana. Jaungoicuaren aurrian nago, eta  
 daqui cer dinodan, onec dudazcuac dira. Esan gura ba-  
 dozu, ecin Jaungoicuaren jaquiturijagandic ecer escuta-  
 du leitequiala, ezta juramentu izango. Baña, esan gura  
 badozu Jaungoicua dacarzula, dinozun eguijaren testi-  
 gu, juramentu izango da.

Iru gauza aurquitu biar dira juramentuban ona, eta  
 biar dan lezcua izateco. Eguija, arteztasun, edo justicija,  
 eta premina, biar, edo necesidadia. Lenengo: eguija; au  
 da; ciur egon biar zara dinozuna, dinozun modu-  
 ban dala. Artuten deutzube juramentu, Domeca goxian  
 Pedro Elexan egon bazan, ala ez: bada juramentu egui-  
 teco an egon zala, ciur ciur egon biar zara an eguala  
 itanduten deutzuben demporan; bada dudan bazagoz,  
 beguan ala ez, pecatu mortal eguingo dozu. Orregaitic  
 juramentu areen danian, bacotzac esan biar dau gaucia  
 daquijan moduban, ciur daquijana ciur, dudan daqui-  
 jana dudan, icusija icusija leguez, eta enzuna enzuna  
 leguez, ecerbere guichitu, gueitu, eta aldatu бага, bere  
 gogo, memoriija, edo ustian daucana leguez, bada auxe  
 da juramentu eguijagaz eguitia. Esan gura dot: juramen-  
 tubaren eguija dago jaramentu eguiten dabenac bere me-

morija, edo ustian daucan moduban gaucia esatian, ez berez dana leguez. Esateraco; itanduten deutzube, beguan ala ez Juan urlija egunetan jazo zan errijetan; zuc uste dozu ez eguala an, baña benetan an aurquitu zan. Zuc juramentu eguiten dozu etzala an aurquitu. Juramentu au eguijagaz da, bada zuc dinozuna deritzun moduban da. Bestera. Eritzun zuri Juan errijetan icusi cendubala, baña benetan ez eguan an, arcen deutzube juramentu an beeguan; eta zuc gachen bat etorri eztaquijon, juramentu eguiten dozu ez eguala; guzurrezcua da juramentu au, eta pecatu mortal; bada eguija bazan bere, an ez eguana, etzan au zure iritzija, eta ezta zuc dinozuna zuri deritzunagaz bardin.

Ain da gauza biarra eguija juramentuba ona, eta pecatu бага izateco, ce ecin inundic bera бага eguin leiteque, gauzaric chiquijen chiquijenen ganian bada bere; eta alan chanchetan, burlaz, edo jolacian bada bere, pecatu mortala izango da guzurragaz eguinico juramentuba. Eta alan ezta achauija ona guzurragaz juramentu eguiteco, etzacala inori calteric etorri, bada pecatu mortala izateco asco da guzurragaz izatia. Jauna cer eguingo neban? Neure adisquide andi baten contracua zan escatuten euzten juramentuba; mesede andijac deutzaz eguinic, berac escatu eustan, arren enenguijala zalatu; eta nequijan beste alderic, nic guzurragaz juramentu eguiten ezpaneban calte gustiz icaragarriyac etorrico jacazala, eta bera, eta bere echia betico galduco zala; bada sarruco even presondegui, edo carcela baten, edo betico presidijo batera botaco even; salduco eutzeen eucan gustija, eta bere emaste, eta umiac gueratuco cirian calien erdijan. Au icusijac erruquitu ninduban, eta nequijana leguez etzacula inori calteric etorten nire juramentutic, orrexegai-

tic uste izan neban, enebala pecaturic eguiten guzurrezco juramentu agaz; edo obeto esaterren uste neban obra misericordijazco bat eguiten nebala guizon, eta bere familija coitadubagaz. Bai nai ez, neure Christinaubac. Bacenqui zuc guzurrezco juramentu bat ez eguinagaitic, mundu gustija galdu, erre, eta amaitu, edo acabaduco litzaquiala bere, ecin orregaitic juramentu ori eguin cinaique. Bacenqui zuc guzurragaz eguinico juramentu bat egaz cerura juango litzatequezala munduban dagozan, eta jaijoco dirian guizon gustijac, eta urtenic infernutic an dagozan guizon, eta demonino gustijac cerura betico atseguihetara iragoco litzatequezala, ccin orregaitic eguin cinaique, eta pecatu mortal icaragarri bat eguingo ceunque; bada lenago da Jaungoicuaren honria, eta bere izen santubari zor jacan itzal, eta erreverencia, mundu, ceru, mundutar, eta cerutar gustijen zoriona baño. Badaquizube cer dan gazurragaz juramentu eguitia? Da, Jaungoicua guzurtitzat euquitia, edo esatia Jaungoicua guzurtija dala; cegaitice norbait guzurren baten festigutzat dacargunian guzurtitzat daucagu, bada bestelan ez gueunque ecarrico bere festigutzat. Ce lotzabagaquerija andijagoric eguin leijo Jaungoico eguija bera danari?

Juramentubac ona izateco bigarren euqui biar daben gaucia da, arteztasun, edo justicija, au da juramentubagaz cerbait aguinduten bada, edo esaten bada cerbait eguingo dala, modu onetan aguindurico gaucia ona izan biar da. Onen ganian cer jaquin biar dan, guero esango dogu. Irugarrengo: juramentubac euqui biar daben da, premina, edo necesidadia: baña au бага eguinico juramentuba bacarric izango da pecatu veniala, beste bijacaz, au da, eguijagaz, eta justicijagaz bada. Alam bere ardura andi bat euqui biar dozube juramentu egui-



teco ecandu, edo costumbreric ez arceco, eta artu badozube quenceco. Espiritu Santubac dirauzcu: (1) Ez eguizube euqui juramentu pitian pitian eguiteco oituraric, bada gustiz dira andijac ecandu onetatic datozañ peatubac. Sarri juramentu eguiten dabena, ezta peatu baga egongo. Juramentu asco eguiten dabena guizona pecatuz beteco da, eta ezta bere echian gacha faltaco. Eguija au icusi, eta enzun oi dogu araco saldu-erosi, edo tratuban dabilzan ascogan. Beti dagoz juramentu urtica. Baneuca ceruba, esan oi dabee, opa deuztañun beste, edo gueijago ori costa jatana leguez. Eztaidala alderic eguin ori baño gueijago opa ezpadeuzte. Eneunque cerura juan gura irabaciric gucratuten bajat. Onelaco juramentubac ezarteco oitura, edo costumbria danquenac gueijenetan eguijagaz ezarri arren, ezta erraz noxian bein guzurragaz ez botatia, eta bein abijetan badira guzurragaz ezarten, eta badacuze sinistuten deutzela, eta irabaci ona ateraten dabeela, bildur baga ezarten oi ditubez; bada erraz da irabaci andi batec ichututia arimaco beguijac, eta ez icustia peatu onen anditasuna.

Izan ezquero juramentuba iru gauza oneccaz, ez baccaric ezta peatu, baña dago biar, edo obligacinoe estuba eguiteco justicijaco nagusi, edo aguintarijac escatuten dabeenian; eta alan ccin escutadu cinaitequez, ecin igues eguin cinaique artu eztaizuben, eta onelaco gauzaric eguiten badozu, noribait badatorquiño calte andiren bat zuc juramentu ez eguinagaitic, ascoc dinue osotu, edo errestituidu biarco deutzazuzala, zuc juramentu eguin ez guragaitic datorquiñozan caltiac. Errazoe andijaguagaz osotu, edo biurru biarco dituzuz zure guzurrezco juramentutic datozañac. Peatu mortal icaragarri bat eguin

(1) Eccl. 23 v. 9 et seq.

go dau, besteri guzurrezco juramentu erasoten deutzanac, edo erregututen deutzanac bere aldera, edo favore eguin daijala juramentu guzurrezco, edo falsa. Guztiz dago zabalduric oitura bat. Prestadu deutzazu noribait diru, edo gauzaren bat, zor deutzu cerbait, saldu deutzazu baitura cerbait: elduten da emona biurtu, edo paguetaco demporia; escatuten deutzazu prestaduba, zorra, edo saldu deutzazunen valijua; ucatuten deutzu. Ea bada bertatic juramentu eguin daijala, biurtu badeutzu, ala ez; pagadu badeutzu, ala ez. Esan eguidazu, badaquizu guzurragaz juramentu eguingo daben, ala ez? Bada badaquizu, edo baderitzu guzurrezco juramentu eguingo dabela, ecin craso cinaijo. Eztinot au nic, ezpada San Agustinec: Euqui eizube dirautzudana ceuben ariman irrimc escribiduric, dino Santu andi onec: Inori juramentu erasoten deutzanac, jaquinic guzurragaz eguingo dabela, pecatu andijagua eguingo dau guizona ilgo baleu baño (1) Contu bada, Christinaubac, arima bi galdu eztaizubezan diru, edo ondasun pusca batgaitic; bata zeuria guzurrezco juramentu erasoten deutzazulaco, eta bestia guzurrezco juramentu eguiten dabenena.

Lau modutacua da juramentuba, baijeztuba, edo baijezcua, cematuguina, edo amenazazcua, biraozcua, eta aguinduzcua. Lenengua da; jazo, edo irago dan gauzaren baten ganian, alan dala, edo eztala juramentu eguitia. Esateraco: Juramentu eguiten deutzat Jaungoicuari, eztodala ecer ostu. Auxe da orainguino azaldu, edo explicadu dogun juramentuba. Bigarrena da norbait gach, edo gachen bategaz cematu, edo amenacetia juramentubagaz. Eguiten dau mutil batec guestaquerijen bat, eta dirautza bere aitac Jesu Christoren curutziari mun eguiten

(1) August. Serm. 11 de Sanct.

deutzala : auxegaitic ezteubat parcatuco galantac emon  
baga. Irugarrena da birauagaz eguiten dana. Esateraco:  
enaila emetic jagui dinodana eguija ezpada. Juramentu  
au izan leiteque iragorico gauzaren baten ganian, eta or-  
duban izan biar da leenago esan dirian gauzacaz: izan  
leiteque etorteco daguan gauzaren baten ganian, eta or-  
duban izan biar da guero esango dogun leezcua. Esate-  
raco: Enaila bijar gabera viciric eldu, orduco paguetan ez-  
padeutzut deutzudan zorra. Laugarrena da, aguinduz-  
cua, eta da izquini, prometidu, edo verbia emotia jura-  
mentubagaz cerbait eguingo dala. Iru juramentu onecc  
baten sartuten dira, edo obeto esaterren, cematutiagaz  
eguiten dan juramentuba beti da aguinduzcua; birauz-  
cua izan leiteque, edo irago dan gauciaren ganian, eta  
orduban da baijezcua berbera, eta izan biar da bera le-  
ezcua; edo izan leiteque etorteco daguanen gauzaren ba-  
ten ganian, eta azaldiric cer dan aguinduzcua, dago  
ezanic cer dan, eta celacua izan biar dan.

Juramentu eguiten danian, cerbait aguindubagaz,  
nai dala cematuten danian, nai dala biranagaz verbia  
emoten danian, iru eguija, edo uste euqui leiquez. Bata  
da juramentu eguiteco benetaco gogo, edo intencinoia-  
gaz eguitia; bestia aguinduz, cematutez, edo biraoz egui-  
nico juramentuba bete, edo cumplietaco vorondatia eu-  
quitia; eta irugarrena aguindu, edo esana eguitia. Ara  
esangueti bat. Zara guizon aberatz bat, zuaz ceure bidian,  
baña diru бага. Urteten deutzube lapurrac, eta icusirie  
eztaucazula ecer, juramentu erasoten deutzube iru egun  
barru bialduco deutzubezala sei milla errial, cematuten  
zaitubezala erijotziagaz juramentu au eguiten ezpadeut-  
zezu. Zuc erijotzien bildurrez eguiten dozu. Iru modutan  
eguin cinaique juramentu au; lenengo benetaco juramen-

tu eguiteco gogo edo intencinoe baga, edo aoz, edo verbaz bacarric: modu onetaco juramentuba pecatu mortala da. Bigarrengo: euqui arren juramentu eguiteco intencinoia, etzara lotu gura, eta alan eztaucazu sei milla errialac pagadu, edo emoteco gogo, edo vorondateric. Juramentu modu au bere pecatu mortala da. Irugarren-go: eguiten dozu juramentuba benetan, edo eguiteco intencinoiagaz, baita bere daucazu sei milla errialac iru egun barru eruateco gogua, baña eztozu jaramonic eguiten, edo irugarren eguna eldu arren ezteutzezuz eruan, edo bialduten. Juramentu au eguin cendubanian etzenduban pecatu eguin, baña eguingo dozu betetan ezpadozu juramentubagaz emonico verbia. Beraz lapurarei pecatu mortalen bian bialdu, edo emon biarco deutzadaz sei milla errialac: esango deutzazu. Ez Christinaubac. Onelaco gauzaric jazoten bajatzu, zuaz ceure confesoriagana, esan eguijozu cer jazo jatzun, eta escatu eguijozu ascatu zaizala juramentuben bitartez artu cenduban biar, edo obligacinoetic.

Ichi daiguzan guichitan jazo oi dirian juramentu oneec, eta beguiratu daiguzan egunian egunian eguin oi dirianac. Cerbait inori aguinduten deutzazunian, edo verbaren bat emoten deutzazunian, bardin da castigoben bategaz cematu, edo amenazeran dozunian; bardin, birao eguiten dozunian, euqui biar dozu gogo, edo intencinoia aguindu, cematu, edo birao eguin dozun gaucia eguiteco, nai dala andija, nai chiquija, nai dala ona, nai donguia; bada ezpadaucazu gogoric, edo vorondateric, pecatu mortala eguingo dozu. Eguiten dozu juramentu pobrechu bati lauzuti emongo deutzazula; bada ezpadaucazu emoteco gogo, edo intencinoeric, pecatu mortala eguiten dozu, gauza chiquija bada bere. Ducutzu ceure

semia guestaquerijan dabilela, eta dirautzazu, milla demoninoc eruan naijela afariric emoten beubat: an esan cendubanian baceuncan afariric ez emoteco gogo, edo intencinoeric, etzenduban pecatu mortalezco juramenturic eguin; baña baceuncan afariya emoteco, edo ez quen-ceco usteric, pecatu mortala eguin cenduban. Escatuten deutzu batec esan daizula guzurchu chiqui bat, bildur dalaco aguiraquen bat eguin ezteijuen, eta zuc gauza au estaldu daizun gurarijagaz, esaten deutzu eguin deijozula juramentu, guzur au esango dozula, eta zuc eguiten deutzazu juramentu. Bada juramentu au eguin ceuntzania baceuncan gogo, edo intencinoia guzurra esateco, pecatu veniala bacarric eguin cenduban, baña ezpaceuncan guzurra esateco usteric, pecatu mortala eguin cenduban. Zure juramentuba bada pecatu mortalen bat eguingo dozula, pecatu mortal eguingo dozu nai euqui daizula juramentubagaz aguinda dozuna eguiteco gogua, nai euqui eztaizula. Budaucazu, eguiten dozu pecatu mortal, bada eztauca juramentu orrec biar leuquian arteztasun, edo justiciya. Ezpadaucazu, eguiten dozu pecatu mortal zure juramentu ori guzurrezco, edo falsua dalaco. Exemplan bategaz au arguituco dot. Esaten deutzuz lagun batec verba astun batzuc, emoten deutzazu querella bat, ezagututen dau arec deungaro eguin dabena, eta bialduten deutzu adisquide baten bitartez parca escatu, eta baquiac eguitera, eta zuc dinozu: eztaidala Jaungoicua ceruba emon, orri parcatuten badeutzat: pecatu mortala eguin cenduban: ez parcatuteco intencinoiagaz bazan, ez eucalaco biar zan arteztasun, edo justiciya, eta baceuncan, etzalaco eguijagaz.

Jaquinic ce gogo, edo intencinoe, eta uste euqui biar dan aguinduzco juramentuban, icusi daigun celan bete,

edo cumplidu biar dan, eta ce pecatu dan ez cumplie-  
 tia. Aguindu, edo prometidu dozuna, nagusi, edo gra-  
 via bada, pecatu mortal izango da, ez jaotia. Eguiten  
 dozu juramentu, oguei errial emongo deutzazuzala pobre  
 bati, emoten ezpadeutzazuz pecatu mortal eguingo do-  
 zu. Aguindurico gauria chiquija bada, pecatu venial  
 izango da, ez emotia. Juramentuba bada pecatu eguingo  
 dozula, eztozu euquico juramentu au cer zaindu; nai izan  
 deila mortala, nai izan deila veniala. Eguiten dozu ju-  
 ramentu eztozula meza enzungo jaijegunen baten, ezto-  
 zu gorde biar juramentu au, eztozu pecatu barriric eguin-  
 go meza enzunagaz, eta eguingo dozu pecatu ez enzu-  
 nagaz. Eguiten dozu juramentu guzur chiqui bat esan-  
 go dozula, eztozu pecatu eguingo ez ezanagaitic. Bardin  
 da eguiten badozu juramentu eztozula eguingo gauza  
 onen bat. Eguiten dozu juramentu eztozula meza en-  
 zungo astegunian, eztozula errosarijoric errezaduco, li-  
 mosnariic emongo; eztaucazu onelaco juramenturic jao-  
 teco biar, edo obligacinoeric. Jazo bere leiteque juramen-  
 tu ona, edo modu onian eguina ez betetia edo cumplie-  
 tia, eta orregaitic ez pecatu eguitia, eta au izango da  
 araco juramentubagaz emonico verbia, edo obeto esa-  
 terren ain modutan aldatu, edo mudetan danian, ce edo-  
 noc ezagutu leique, ez evala euqui goguan gauza au egui-  
 tia oran daguan moduban. Esateraco: Eguiten dau zure  
 semec oquerquerija bat cegaitic mereci daben zue casti-  
 guetia. Eguiten dozu juramentu castigu au emongo deut-  
 zazula. Ezagututen dau semiac bere gach eguitia, humil-  
 duten jatzu, parca escatuten deutzu, emoten deutzu ver-  
 ba sendua ezabela ostera alaco gauzaric eguingo; bada,  
 parcatu cinaijo, eta eztozu peccaturic eguingo, badzqui-  
 zu jaongo dabela emon deutzun baija, edo verbia. Baña;

leenago bere emon badau onelaco verbia gorde baga, eta baderitzu aurrera eruango dabela bere ecandu citala, bete biarco dozu ceure juramentuba, eta ecin parcatu cinaijo.

*Erasoguinza.*

Arritu, gogortu, eta mututuric gueratutecua da icustia ain zabalduric juramentuba. Alde gustijetatic echian, eta campuan, soluan, eta basuan, plaza, eta calian, jocuan, eta tabernan, ezta enzuten juramentuba baño. Ugazaba, eta crijadubac, guraso, eta semiac, senar, eta emastiac. Cer dinot? Oraindio luurrian ozta ozta aguiñi dirian umechubac eztaquiye verbaric eguiten juramenturic ezarri baga. Baña celaco juramentubac? Celaco birauac? Ecin sinistu leiteque Christinauben artian ain icaragarriric ezarten danic, egunian egunian, eta orduric ordura enzungo ezpalira. Batac dino milla demoninoc infernura eruan naijela, au alan ezpada; bestiac enaila viciric jagui dinodana alan ezpada. Beste batec esaten dau: enaijala Jaungoicuae salvadu dinodana alan ezpada. Ain dira bildurgarrijac enzuten dirian biraoczco juramentubac, ce eguijagaz izan arren bere gustijac dagoz icaraturic, escandalizaduric, eta arrituric. Baña ezta au deunguen dana. Bein ecandu cital au artu ezquero ezta beguiratuten, esaten dana eguija dan, ala ez, alan dan, ala ez, eguiten dan juramentuba bete, edo cumplictacogogo, edo intencinoric daguan, ala ez. Eta cer aurre-ratuten dabe oneec euren birao gustijacaz? Ecerberez: bada ain modutan dago zabalduric birauac ezartia, ce ezteutze inoc sinistuten. Ain dauquez guzurtitzat birao eguiten dabenian, cein da eztabenian; eta esan oi dabe; Ez jaramon orri, bada gustiz da biraocarija, biraoric andijena botaten dabenian ordubanche dino guzurric an-

gachbidela  
peccatubid  
turic

dijena. Alan neure Christinaubac, ezta mirari Jaungoicua ain aserraturic egotia; aimbat gach, aimbat lan, aimbeste neque, aimbeste guerra gure ganera bialdutia, bere izen santuba oin aspijan zapalduric darabilenen ganera. Ezpada quencen Christinauben artetic ecandu galgarri au, oraindio bere dacuzcuzan, eta icusi dituguzan baño castigu andijaguac icusico dira. Quendu begui fedia dauquen Christinauben artetic ecandu madaricatu au. Ezpedi artu auan izen venegarri au itzal, eta bildur santu bategaz baño, eldu gaitezcan guero Ainguerubacaz batera alabetara ceru, luur, eta infernucoc gustijac adoretan dabeen izena. Amen.

### XXXIII. VERBALDIJA.

*Jaungoicuaren legueco irugarren aguindubaren ganian.*

**J**aungoicuaren legueco irugarren mandamentubac aguinduten deuzcuna da, Jaijac santututia, edo gordetia. Gauza bi aguinduten jacuz onetan: bata ez biarric eguitia, bestia Meza enzutia. Orain bacarric verba eguingo dogu lenenguen ganian; bestia azaldu, edo explicaduco dogu Elexaco aguindu, edo mandamentubac adi eraso daiguzanian. Aguinduten jacu bada, ez biarric eguitia Domeca, eta Jaijetan, ez gustijetan, ezpada Elexiac ez biarric eguiteco aguinduten dabenetan; bada Jai-arinetan edocein biar eguin leiteque. Ezagututeco cer dan emen galazoten jacuna, jaquin biar dogu biar modu bi dagozala. Batzuc dira ceinzubetan arimiac, edo bere sensunac eguiten daben lanic andijena, eta daucan alde, edo parteric gueijena. Onelacuac dira iracurri, escribidu, contubac atera, cantadu, eta beste onelacuac. Onec eguin



leitequez Jaijegunetan. Beste batzuc dira ceinzubetan neque, eta lanic andijena daroian gorputzac. Onelacuac dira, arguin, arotz, necazale, errementari, eta beste ofi- cijocuac eguin oi ditubezan lan, eta biarrac. Onexec dira bada, Jaijegun, eta Domequetan galazoten jacuzan biarrac, eta alan eguiten dau pecatu mortal, arguin, arotz, jostun, errementari, achulari, necazale, urreguin, icatzguin, edo beste edoceimbere onelaco bere oficio, edo lanian biar eguiten dabenac. Onezaz ostian, dago eragotziric Jaijegunetan saldu-erosi, edo tratubetan ibil- tia, eta zaldi, mando, edo burdijacaz batetic bestera ibiltia; eta alan eguiten dabee pecatu euren dendac jai- jegunian zabalic dauquezanac, euretan zalzen dabeela, bardin cein da astegunian, edo gueijago. Eguiten da- bee pecatu zaldi, mando, edo burdijacaz daroienac si- maur, edo caria solora, arrija obrara, egurra edo otia echera, icatza olara, edo lorren bat, edo viageren bat euracaz, edo eurac cargaduric abijetan dabeenac.

Dago bere eragotziric Jaijegunian auciren baten jura- mentu, edo pruebac arceia, sentencija emotia, eta egui- ten dabee pecatu testigubai juramentu arcen deutzeeen Juez, eta Escribaubac, sentencija emoten dabeenac, eta onen ganian euren oficiojoco gauzaren bat eguiten dabeen Escribau, Procuradore, Notarijo, eta Juez Letradubac. Ez bacarric eguiten dabe pecatu modu onetan biarra eguiten dabeenac, baita bere besteri biarra erasoten deut- zenac, eta alan eguiten dabe pecatu gurasuac aguindu- ten badeutze semiai onelaco biarric eguiten: bardin eu- ren aguindura dagozan semiai galazoten ezpadeutze one- laco biarric eguin nai dabeenian. Eguiten dabe pecatu dendari, zapatari, edo beste lan, edo oficiojucu bateco ugazabac aguinduten badeutzee euren crijadubai, Jaije-

gunian biarra eguiten eurac eguin ez arren bere, eta bardin eguingo dabee galazoten ezpadeutze eurac eguin nai dabeenian.

Lau gauzagaitic eguin leiteque biarra jaijgunian pecatu eguin бага, edo ezta pecatu mortal biarra eguitia jaijgunian. Lenengo: biarran eguiten dan demporia guichija izanagaitic. Bigarrengo: Jaungoicuaren onra, eta Elexiaren oneraco eguiten dan biarra izanagaitic. Iru-garrengo: caridadiagaitic; eta laugarrengo: premina, edo necesidadiagaitic. Lau gauza onexec azaldu, edo explicadubagaz, aguirico da artez, ala oquerrac dirian jaijgunian biarra eguiteco ifini oi dirian achauquiac. Lenengo: ezta pecatu mortal dempora pusca baten biarra eguitia Jaijgunian. Eztago gauza jaquinic, edo ciurric, cembat dempora edo ordu emon biar dirian biarran pecatu mortal izateco. Batzuc dinue ordu beteric aurrera iragoten bada pecatu mortal dala: beste batzuc ordu biric aurrera iragoten ezpada eztala pecatu mortal, edo baccaric dala venial. Auxe da gueijenac dinuena. Jauna jaijgun baten adobazain bat ezarri neunzan erropiari; esango dau emacume batec. Eta ezaizu baceuncan ori eguiteco premina, edo necesidaderic? Ez Jauna. Eta cembat dempora emongo cenduban orretan? Apur apur bat. Ezaizu cembat. Eztaquit bada, Jauna: izan zatequian orduterdi, edo iru gueijen bere. Emon cenduban arratzalde gustija adobazain orregaz? Gusti gustija ez, baña izan zatequian venturaz gueijena. Onelacuac gueijenetan pecatu mortal eguin oi dabee. Abijetan dira adobazain bat ezarten uzteric bertatic amaitu, edo acaba-duco dabeela, aguertuten da beste zulo bat; angaitic ecin ichi neijo; zarratuten dau au bere: dacuzee guero beste urratu bat, augaitic bada ecin ichi neijo, eta mo-

da onetan iragoten jaquee arratzalderic gueijena, edo venturaz gustija, nundic, eta nos eztaquijela. Izan bere leiteque pecatu mortal izatia, edo pecatu mortal eguitia biarran dempora guichi emon arren, eta da escandalu-  
ben bat emoten danian. Esateraco: necazale bat ifinico balitz biarran soluan, gustijac dacuzela, arguin, edo arotz bat calien erdijan, ezpalebe ordu beteco biarra baño bere eguingo, pecatu mortala eguingo leuquec emoten dabeen escandalubagaitic.

*gachbiden  
bat*

Bigarrengo: eguin leiteque biarra piedadiagaitic, au da, Jaungoicuaren onraraco dirian gaucetan, eta alan ezta pecatu campaiac jotia, altarac compondutia, Elexia apaindutia, candeleru, lora, edo santu, eta beste jai andietaraco biar dirian gauzac batutia, eta euren lecubetan ifintia; bardin da Elexia egun aretaraco garbitutia. Beste biar modu batzuc dagoz ceinzuc Jaungoicuen honraro, eta Elexien oneraco izan arren ecin eurretan biarric eguin leitequian jaijegunian. Cirarguinac eguiten daben caliza, candeleru, edo lamparia, Jaunaren honra, eta Elexien oneraco da; arguinac eguiten dituzan ormac Elexa barrija eguiteco, edo zaarra componduteco; jostunac eguiten ditubezan casulla, eta albac; arotzac eguiten daben erretabluba Jaungoicuaren honra, eta Elexia apainduteco dira, baña alambere ecin oneec eguiten ditubezanac eguin leiquec biarric, bada eztira egun berecuac, ezpada dempora lucecuac. Irugarrengo: eguin leiteque biarra Jaijegunian caridadiagaitic, eta alan eguin leitequez gorputzari dagoquijozan, edo gorputzeco obra erruquizco, edo misericordijazcuac, neque andijac irago biar badira bere, eurac eguiteco. Euqui leiteque guexuen arduria, eta eguin onetaraco biar dan gustija. Janci leitequez billoxic dagozanac, nai dala erropa barrijac

eguinagaz, nai dala zaarrac compondubagaz: luurpetu, edo enterradu leitequez ilac, atera leiteque premina, estura, larritasun, edo troca, eta lupatzen dagan proxima; baita bere atera, edo lagundu ateraten bere idi, bei, aari, zaldi, nai mandua. Verba baten eguin leiteque jaijegunian proximuaganaco caridadiac aguinduten daben gustija, dan nequetzubena, eta luciena izan arren.

Laugarrengo: eguin leiteque biarra jaijegunian biar, edo premina benetacua daganian. Onetan bai aurquitu, edo obeto esaterren billatu, eta asman oi diriala achauquijac! Orregaitic luzatuco naz, azaldu, edo expliquetan nos dagan biar, edo premina benetacua, eta nos eztaguan. Gauza batzuc dira egunian egunian biar dirianac, edo ceinzuc eguitia ecin luzatu leitequian, celacuac dirian, edatia, jatia, zaurijac curetia, guexuai osasunguei, edo medicinac emotia, eta beste onelaco asco. Onetaraco biar dan gustija eguin leiteque Jaijegunian, eta alan compondu, edo guisadu leiteque jatecua, ecarri edatecua, eguin oiac, garbitu echia, egunian egunian eguin oi dan moduban, baña ez araco demporatic demporara, edo urteric urtera neque andijagaz eguin oi dana leguez. Medicu, eta osaguile, edo Cirujaubac eguin leije euren oficiuari dagoquijona, curadu, sangradu, ayudac emon, eta prestadu onetaraco biar dan gustija. Boticarijuac compondu leije edateco, emplastu, edo beste osasunguei, edo medicina bertatic biar dirianac, eta ecin luzatu leitequezanac, baña ez araco dempora luzaroco eguin, eta gordetan dirianac. Epaille, edo carnicerubac araguija, tabernerubac ardaua, oguiguinac oguija, abacerubac orijo, sardina, eta bacallaua, emon, edo saldu leije. Baña epailiac errijan preminaric ezpadago, ecin il leijez abere, edo ganadubac, ez oguiguinac uruna eral-

gui, ez labia isio, ez oguija eguin, ez erre leiye; bada gauza gusti oneec, epia emoten dabe, eta eguin leitequez egun bateric besteraco.

Premina, edo necesidade modu bi jazo leitequez, bata inundic eperic emoten eztabena, eta bertatic erremedijetan ezpada, calte andijac ecarrico dituzana. Su arcen dau echiac, sabaijac, basuac, edo icastoguijac; dator urol andi bat, daucazuz ibai basterrian ol, zur, gari, lasto, edo beste gauzaren batzuc; aimbat lasterren aleguina eguiten ezpada suba amatetaco, edo erreca onduan dagozan gauzac andic quenceco, gustiz andijac izan leitequez jazoco dirian caltiac: orduban berbertatic asi leiteque suba amatetan, edo pelleburuban dagozan gauzac andic quencen jaijeguna izan arren, eta au ez bacarric eguin leique euren jaubiac, baita beste edocein lagundunai deutzanec. Beste premina, edo necesidade batzuc ez tira ain epe guichicuac, celacuac dirian, gal-evatia, gal jotia, matza batzeia, edo vindiminia. Oneec eguiteco araco bildurra daganian galduco ete dirian eguraldi chaarragaitic, onduen onduen da egotia Arima-zain, edo Cnra Jaunagaz, eta artutia bere itundute, edo conseju, eta licenciya; eta ez erabagui ceuben burutic Jaijegunetan biarra eguiteco gal-evaten, gal-joten, edo vindiminia, edo beste edoceimbere biarretan. Beste batzuc estauque premina, edo esturarie asteco, baña bein asi ezquero ecin ichi leiquez calte andi baga. Onelacuac dira icastobija, carobija, arragoa, eta onelacuac. Jauna, esango dau onetarico batec: Jaijegun baten, bi, edo irutan biarra eguin dot, baña ecin neiquian besteric; icastobija, edo carobija neucan subagaz, eta ichi banen icatz gustija erreco jatan, eta etzatan caria ondo egosico. Eta nos asi cenduban carobija, icastobija, edo arragoe orren suba? Edo

nos su emon ceuntzan? Barijacu, edo Sapatuban. Bacenquijan orduban su emon ezquero Domecan biar eguin biarco cendubana? Ori bai Jauna. Cegaitic bada ichi etzenduban asteleraño, edo ce calte etorquizun orduraño ichitetic? Ce calte etorquizun zuri, edo ugazabari luzatubagaz? Ez etorren calteric, baña aibat lasterren eguin, edo amaitu gura neuquian neure lana. Ezaizu eguija: Domequia aprobechetarren, eta euquiterren orduban biarra eguiteco achaquija, su emon ceuntzan Baricu, edo Sapatuban. Au pecatu mortala da.

Noc esan leiquez edoceimbere oficijotan billatu oi dirian achaquijac Jaijegunetan biarra eguiteco? Bacarric esango ditudaz ezaunenac. Zapatari, eta jostun, edo dendari asco abijetan dira biarrian zapatuban, edo jai vesperan, eta dagoz eurac, eta euren crijadubac biarrian Domeca, edo Jaijegin sentira artian. Esaten bajaque onei: Eztaquizu gaberdijan asten dana Jaijeguna? Eranzuten dabe. Bai Jauna. Celan bada egon zara biarrian egun sentiraño? Cer eguingo neban eranzuten dabee, egun ataraco agnindu nituzan zapatac, edo soñecua, eta acabetarren egon ninzan biarrian. Bada cetaraco agnindu ceuntzazan egun ataraco? Etzenquijan ecin orduraco eguin cinaiquezana? Bai Jauna: baña beceruba zan, eta eguin ezpaneutza, edo agnindu ezpaneutza, beste bategana juango zah, eta nic galduco neban beceruba. Beraz zuc naijago dozu galdu Jaungoicua, beceruba baño, ceure arimia, ceure irabacija baño. Onec orduterdi, edo bi baño gueijago eguiten badabe biarrian, edo agninduten badeutze euren otzein, edo crijadubai, pecatu mortala eguingo dabe. Eta cer eguin leije onacuen crijadubac, eta semiac? Noxian hein, edo beranduric berandurra baño agninduten ezpadeutze onelaco biarric, eta ba-

daquije euras biarra ez eguinagaitic errijeta, eta aserria izango dana eztabe peaturic eguingo: baña sarri bada, eta nai badau ugazabac aurrera juan bere teman, ichi biar dabe onelaco ugazaba, eta ezpadauque besteric noragana juan, villatu daijen artian biarra eguin leije jaijgunetan. Seme alabac barriz esan beijue euren Confessoriarri cer jazoten jaquen, eta oneec esango deutze cer eguin biar dabeen,

Beguiratuten badogu erri ascotan dendacaz jazoten dana, icusico dogu ecin ezagutu leitequiala jaijeguna, ala asteguna dan. Denda gustijac dagoz idiguiric, gustijac gentez beteric, eta gustijetan euren saldu erosi, eta tratubetan. Enzun daiguzan denderuben achaquijac, eta igarrico dogu pecatu mortal eguiten dabeen, ala ez. Jauna, dinue, erri onetan oitura, edo costumbria dago jaijegunian dendac zabalic euquitia. Ezta oitura, edo costumbria, ezpada usadijo ghestua. Obispo, Arima-zain, eta Predicadoriac beti dagoz bere contra. Obispo, eta Batzar, edo Concilijuac dauquez descomunoiac ifiniric au eguiten dabeneen contra; orregaitic ecin esan leiteque oitura, edo costumbre dana, ezpada irabaci gurarijac asmadurico ecandu citala, eta usadijo donguia. Jauna, beste gustijac bere dendac zabalic dauquez, eta nic zalcen ezpadot, bestiac salduco dabe. Ezaidazu, bestiac infernura duazalaco, zuc bere jarraitu nai deutzezu? Bestiac guzuzra dinuelaco, engañetan dabeelaco, dongaro neurtu, edo pisetan dabeelaco, zuc bere eguin cinaique beste onembeste? Edo derichu bestiac pecatu eguiten dabeelaco, eztozula zuc eguiten? Bestiac salcen badabe dendia idiguiric dauquelaco zuc salduco ceunquiana, eguiten bere dabe zuc eguingo ceunquian peatuba, eta obe da diruba galdu, edo ez irabaci, arimia, eta Jaungoicua

galdu baño. Jauna, jaijegunian baño eztatoz baserricuac calera, eta orduban zalcen ezpajaque, obra charra eguiten jaque. O baserricuacganaco onguria! Noc ori erasoten deutzu? Baserricuai deutzezun amodijuac, ala irabaci guriac? Eguija esan nai badozu, ezteutzu zuri ardura andiric emoten baserricuari eguiten jacan caltiac, ezpada ecin saldubac. Eta cegaitic eztatoz astegunian biar dabeena erostera? Daquijelaco jaijegunian bardin, cein astegunian dagozala dendac zabalic, eta salduco jaquela biar dabeena. Balcuse jaijegunian eztala ecer salcen, zarraturic dagozala denda gustijac, eurac artuco leuque moduba erosteco astegunian biar dabeena. Baña esan ezta guizuben laarregui estututen dodala: emon daigun ecin baserricuac jatzi leitequezala astegunian calera, edo Elexondora, eta orregaitic oneec crosi leiquela biar dabeena jaijegunian, eta zubez saldu eurai pecatu eguin baga; esaidazu, nori salduten oi deutzazu jaijegunian? Baserricuai bacarric? Dacuzcuna da gustijenzat daguala zabalic dendia erbestecuenzat, nai erricuenzat, bacerricuenzat, nai cale, edo Elexondocuenzat. Edonori salcen jaca, ez bacarric janari, edari, edo beste eguneco biar dana, baita bere oijal, ari, miesa, seda, eta beste edoceimbere gauza. Emetic icusten da aguri aguirijan utsac ditjala denderuben achaquijac, dendac zabalic euguiteco Jaijegunetan.

Jauna, sarri Jaijegun arratzaldetan biarra eguin dot: esango dau emacume batec, josten egonaz, baña enau inoc icusi. Pecatu mortala izateco ezta biar inoc icustia. Isilic ostuten dabena, isilic, eta inoc icusi baga bere araguijagaz loiquerijac eguiten dituzanac, ecin esan leique eztabela pecatu eguin inoc icusi eztabelaco. Bardin da bada, Jaijegunian biar eguitia inoc icusi baga. Jauna,



senarrac, semiac, edo crijadubac bijaramonian biar euan erropia adobetan egon nintzan. Astegunian egon deitezala jaijeguneco soñecuagaz, besteric ezpadauque, zuc bestia adobetan dozun artian, bada au gueijen gueijen bere egun erdi bat izango da. Ay Jauna, astegunian eztaucagu astiric adobetan ibilteco; soluac, basuac, echeco arazubac, eta beste ardurac daruagubez astegunac, eta ezteuzcube beste gauzataraco astiric isten, eta orregaitic jaijegunian eguiten ezpadogu joste pusquia, gueu, eta gueure echecuac alsu eguinic ibili biar gara. Onegaz uste dabe eranzuten deutzela esan al leiquijuen gustijari; baña artu gura balebe astegunian lancian cerbait adobetaco moduba, ondo, eta ondo compoundu leizez euren, eta echecuen soñecuac. Beste gauzaric da crijadu, crijadetan euren ugazabac astiric, edo demporaric emon gura ezpadcutze erropia adobetaco, bada onec beste moduric ezpadauque, josi, adobadu, edo compoundu leizez euren erropac jaijegunetan. Onelaco preminan aurquitu ezteitezcan, ugazabac ichi biar deutze arratzalde bat, edo beste, egun bat, edo beste euren jastecua compoundu, edo adobetaco, aurquitu ezteitezcan jaijegunian josten eguiteco preminan: baña nagusijac eurac euren vorondatera dauquezalaco egunac, nai ezpadabe ezira egongo jaijegunian biarra eguiteco necesidadian.

*Erasoguinsa.*

Beguiratuco balebe Christinaubac biar leuquiena leguez, cetaraco ifini cituzan Jaunac jai, eta domecac, ez litzateque aurquituco euretan biarric eguingo leuquiatic. Egun gustijac dira Jaunarenac, eta nai izan balen agundu leiquigun gustijac goidetia: baña ain da andija bere guganaco amodijua, ee asteco zaspian oneratic bat barric gorde euan beretzar, eta beste seirac ichi euzcuzan

gueuretzat. Eta alambere ain izango gara cequenac, aimbat mesede eguin deuzcuzan Jaun onegaz, ce ezteutzagu emongo egunchu au bere? Ucatuco deutzagu escari puscachu au? Noc sinistu leique, aimbestera eldu leitequiala Christinaubaren bere Jaunaganaco gogortasun, eta esquer deunguia egunian egunian icusico ezpalitz? Ichumendi bildurgarrija benetan! Baña oraindio bere gueijago, eta gueijago arrituco gaitu Christinauben fede guichijac, beguiratuten badogu cetaraeo nai daben Jaunac jai eta domecac santututia. Ezta Jaunac beretzat biar egun au. Cer gueitu, edo aci guinai guc bere honra, bere glorija, eta anditasuna? Ecerbere ez, ezta apur puscachu bat bere. Ain zan andi, ain honradu, ain glorijaz betia mundu au eguin baño lenago, cein da mundu, ceru, Aingueru, eta guizonac eguin ezquero. Nai badau bada jaijac jaotia, da gueure oneraco. Ara celan.

Guc gorputza, eta arimia daucaguz? Gorputza laurzati bat, simaur pusca bat baño ezta; gaur bada, bijar ezta; gaur oñen ganian venturaz arroric, eche, edo jau-regui ederretan, erropa ederrez apaïnduric, bijar obija, edo sepultura baten lurrez estalduric, arrac janic, eta ustelduric. Arimia barriz beti beticua da, Jaungoicuaren alabia, ceruco herederu, eta Aingueruben lagun. Bijoen arduria euqui daigun gura dau Jaungoicuac; gorputzarenzat biarra daigun, emoten deuzcuz asteco sei egun, eta bat bacarric arimiagaitic biarra eguin daigun. Eta alambere egun bacar au bere quenduco deutzagu arimiarren ardurari, eta emongo deutzagu gorputzari? Aste gustija, goxac, arratzaldiac, egunac, eta gabac iragoco dira gorputzagaitic, edo biarrian, edo lanian, edo arduran, edo lotan. Elduten da jaijeguna, ceinetan euqui biar dogun arimien arduria, eguin biar dogun aleguina

beretzat irabasteco ceruco ondasunac; eta orduban bere eztoqui ecer eguin guraco gueure arimiagaitic? Ardurata gustija eruango deutzu gorputzac? Eztira asco asteco sei egun oso? Itanduten bajatza cein dan lenago, gorputza, ala arimia? Bertatic eranzuten dozu: lenago dala arimia gorputza baño. Noc sinistuco deutzu alan uste dozula, icusiric cer eguiten dozun gorputzagaitic, eta cer arimiagaitic? Christinaubac, idigui daiguzan nosbait fedeco beguijac, icusi daigun cembat gueijago valijo dabben gure arimiac gorputzac baño, eta ezauera onegaz santutu daiguzan guichienez Domeca, eta jaijac. Astu daiguzan orduban gorputzeco biarrac, aurreratu, eta gueitu daiguzan arimaco ondasunac; bada oneec ez barric izango dira arimien oneraco, haita bere gorputzen neraco; bada elduten bada arimia zorioneco izatera ce tuban, araxe juango da gorputza bere. Amen.

**XXXIV. VERBALDIJA.**

*Jaungoicuaren legueco laugarren Mandamentuben ganian, nun azalduten dan, oer zor deutzen semiac gurasuai.*

**J**aungoicuaren legueco laugarren mandamentubac agiinduten dabena da, gurasuac honretia. Iru gauza dira mandamentu onetan semiac agiinduten jaquezanac: euren gurasuai obedietia, lagundu, edo socortu emotia, eta erreverencija euquitia. Auxe da benetaco honretia: Lenengo zorra da obediencija; au da, seme, alabac egon biar dira euren gurasuen agiindura, humiltasun andi bat gaz, laster, eta bertatic eguiten dabeela eurac agiinduten deutzena, erremuscada, eta muquerquerija baga, eta ez eguin gura ibili baga; bada agiinduten dabena

bada arima, gorputz, eche, edo ehecuen oneraco, izan-  
 nic gauza nagusi, edo gravian, pecatu mortal eguingo  
 dau seme, edo alabiac, obedietan ezpadeutze. Eguiten  
 dau pecatu mortal mandamentu onen contra semiac: Le-  
 nengo: bere gurasuen ehetic igues eguiten badau, edo  
 esaten oi dana leguez, charritan badabil, bere gurasuen  
 aguinduba ez eguiterren. Bigarrengo: obediu nai ezteut-  
 zanae gurasuari, aguinduten deutzanian ez juateco ta-  
 berna, joco, erromerija, edo jolazera; ezteila batu urlija  
 lagun ecandu citalac dabecazanagaz, ichi daijala urlija  
 nescatila, edo mutilegaz daucan adisquidetasuna. Iru-  
 garrengo: aguindu arren gurasuac juan deila Meza na-  
 gusi, Doctrina, Sermoc, edo beste Elexaco gauzetara,  
 inos juan nai eztabenac: bialdu arren confesadu, eta co-  
 mulguetara ilabeteric ilabetera, edo conveni dan dem-  
 poran jaramonic eguiten ezteutzanae, modu onetan ur-  
 teric urtera luzatuten dabela confesinoe, eta comunioia.  
 Eguiten dabe pecatu mortal seme, alabac aguindu arren  
 gurasuac demporaz batu deitezala echera, berandu ar-  
 tian ehetic campora dabilzanae, edo dagozanae. Pecatu  
 onetan jaucci oi dira seme alaba acijac, ceinzuc icusiric  
 zarturic dagozala euren gurasuac, eta ecin castigadu lei-  
 jezala, euren esan, euren itundute, edo conseju, eta ven-  
 turaz euren negarrai jaramon бага, eguiten dabecen go-  
 guac emoten deutzeen guztija.

Laugarrengo: eguiten dabe pecatu mortal, araco se-  
 me euren gurasuac emoten deutzezan oficijuac icasteco  
 arduraric artuten eztabeenac. Bialduten ditubez gurasuac  
 euren semiac, batzuc estudiatarara, beste batzuc escribiel-  
 tan, eta conteran icastera, onec arguinza, edo arortzija-  
 ra, areec errementari, zapatari, edo dendaritzara, eta  
 beste oficiju, edo lanen bat icastera: seme alabac barriz

gastetan dabee euren gurasuen izerdija, eta arrastaca irabaci aldaijena, eta estudijau, contubac, edo officijua icasi biarran, iragoten dabe dempora gustija alperquerija, ibilera, joco, jan, edan, eta venturaz deungagoco gues-taquerijetan, eta uste dabeenian gurasuac dauquela seme jaquitun bat, eurai lagunduteco izango dan bat, edo guichienez oguija irabasteco duin izango dan bat, aurquituten dira seme alper, nagui, jocolari, ordi, eta ecer eztaquijan bategaz. Eta cembat gachi ez ete datoz gastien alperquerija, eta artuten daben officijua icasi biarran, ecandu citaletan sarturic ibiltetic? Eztaquije ecer, eztaque oguija irabasteco moduric, esconduten dira, ecin irabaci dabe eurenzat, eta semienzat biar dabeena, eta urteten dabe gustijac lapurrac, ordijac, tramposo, eta engañalarijac. Bostgarrengo: eguiten dabe pecatu mortal euren gurasuai ostuten deitzenac, gaur garija, bijar artua, orain diruba, guero aragui, urdai, edo beste gaudi, ez bacarric lapurquerija dalaco, baita bere modu onetan osturico gauzac, ez oi dirialaco izaten modu onian, eta santuban gastetaco, ezpada ardao, joco, erromerija, merijenda, edo venturaz charraguetaraco, eta gurasuac nai ez leuquieneraraco. Seigarrengo: eguiten dabe pecatu mortal seme alabac euren gurasuen vorondate бага, eurai ecer esan бага, eta venturaz jaquinic eurac deungaro eruango dabeela, esconzaco verbia emoten dabeenac. Contu onegaz mutil, nescatilac ichutu etzaizan ceuben araguijac. Onelaco esconzac ecin zorionie ecarri leiquezube, bada guichienez beti ecarri oi ditubez aserre, atzacabe, eta alcar ecin icusijac, beste deungagoric eztañan.

Gauza bitan ezteutze obediu biar semiac gurasuai: bata da, pecatu eguitian, bada lenago da pecatuba ga-

lazoten daven Jaungoicuari obedieta, aguinduten daben gurasuari baño. Dirautza gurasuac bere umiari, zuaz urlija solora, eta ostu eguizu artua, garija, arbija, bedarra, edo frutia; eztabe umiac eguin biar onelaco gurasuen aguinduba, eta eguiten badabe pecatu mortal eguingo dabee. Aguinduten deutza gurasuac bere umiari, guzurren bat esan daijala; ezteijola parcatu echiari gachen bat eguin deutzanari; ezteila beragaz inos adisquide izan; vengadu daijala arec eguinico caltia, ezteutza onetan obediu biar semiac gurasuari. Aguinduten deutza gurasuac alabiari doiala urlija ehetara; edo ugazabagana servietara, bildur da alabia, ara badua, eztagarbi vicico, bere arima, eta osotasuna galceco pelleburuban egongo dala, ezteutza obediu biar bere gurasuari; bada eztauca onec escubideric, Jaungoicuaren contraco gauzaric aguinduteco, ezta semiac bere arimia galceco pelleburuban ifinteco. Beste gauza, ceinetan eztaunque cer obediu seme alabac gurasuai, da vici modu, edo estaduben auquera, edo eleccinoian; bada onetan bacocho da bere vorondatien jauve. Baderitza semiari, edo alabiari, ezteutzala Jaungoicuac deituten esconzara, bere gurasuac aguinduten badeutza bere escondu deila, eztauca berari obediu biarric. Gurasuac nai leuquee euren seme, edo alabia, escondu deila urlija mutilegaz, edo urlija nescatilagaz, dote ona daucalaco, ondasun andijen, edo hacienda zabalen jauve dalaco. Daqui semiac, daqui alabiac, etzacala conveni, baque onian viciteco gurasuac nai leuquien orreegaz esconducia, bada eztaunque cer obediu euren gurasuai. Alambere beti izango da ondo, semiac estaduba autu, escogidu, edo artu nai dabeenian gurasuai esatia, eta baija, eta bendicnoja escatutia.

Bigarren semiac gurasuai deutzen zorra da euren laguntasuna, edo socorruba, au da, emon biar deutze, al daijela, janariya, jastecua, eta beste biar dabeen gustiya, ez bacarric asquengengo premia, edo necesidadian dagozarian, ez bacarric esturan dagozarian, baita bere edo cein biar, edo necesidadetan aurquituten dirianian. Laguntasun au aituten da, ez gorputzeco biar, edo necesidadeetan bacarric, baita arimacuctan bere; eta alan eguiten dau pecatu mortal semiac: Lenengo: bere guraso pobriai emoten ezpadentze janari, soñeco, vici lecu, eche, edo estaliya. Bigarrego: eurac guexoric dagozarian, icusi, edo visitetan eztituzanac, osasunera biurtuteco aleguina eguiten ezteutzanac, osasunguei, edo medicina, eta medicubac aguinduten dabena emon gura ezteutzenac, edo beste biar dabeen gauzaric ucatuten deutzenac. Irugarrego: jaquinic euren gurasuac erijotzaco pelleburuban dagozala, arduraric artuten eztabenac, eurai esateco, edo besteren baten bitartez adi erasoteco dauquen pelleburuba, eta aleguina eguiten eztabenac Sacramento santubac demporaz artu daijezan. Laugarrego: eguiten dabe pecatu mortal araco seme, ceinzui ichi eutzezan gurasuac euren ondasun, edo haciendac, onem beste emoteco pensu, edo obligacinoiagaz, ciatz paguetan ezpadabe; eta emoten badeutze bere, beti da aserre, gogo deunga, arpegui ilun, eta garraztasunagaz; egunerie egunera, ileric ilera, eta venturaz urteric urtera luzatuten dabeela zor au paguetia; atzacabez betetan ditubezala euren gurasuac, ceinzuc euren estura, eta premia artian dauquen cer ibili biarren dabeenen billa, lotzariric andijenagaz. Jauna, eranzun oi dabee onelaco seme crubel, eta esquer dongacuac, neuc bere carga pisutzu, eta andijac daucadaz ganian; semiac daucadaz, euracgaitic

beguiratu biar dot, ecin calien erdijan ichi neiquez, ecin billoxie egon leitequez, eta ez jat gustiraco elcen. Enzuzube seme fede guichienac, cer dirautzuben Jaungoicua berac: Gurasuac honretan dituzanen ganian Jaunaren bendicinõia jatzico da; gueitu, eta acijagaz juango dira bere ondasunac; atzeguin andi bat artuco dau bere semeetan, eta betico iraungo dau bere ganera etorrico dan Jaunaren bedeincacinoe ugarijac. (1)

Ezta gurasuen erijotziagaz amaitu, edo acabetan semiac deutzen zor au, aurrerago iragoten da; bete, edo cumplidu biar ditubez euren testamentubac bere, ateraten ditubezala eurretan aguindurico meza, eta honrac, emoten ditubezala limosnac, eta au aldaijen lasterren; bada eguiten ezpadabe gurasuen testamentubac dinuana, edo kizatuten badabe, laster, edo beinguan al daijela, pecatu mortala eguingo dabe. Baña, gurasua pobre izanic, ezpadau ecer ichi bere, oztabe orregaitic astu biar euren semiac; atera biar deutzez honrac, euren educuai atera oi jaquezan moducua. Ain pobriac badira, ce ez jaquen elduten onetaraco bere, eguin biar dabe aleguina aimbat lasterren purgatorijotic urten deijen. Au eguingo dabe, Jaungoicuari euracgaitic erregutubagaz, mezac enzunagaz, indulgencijac irabacijagaz: Purgatorijuan badagoz zuben gurasuac, venturaz zubeccgaitic dagoz; zubei equi eutzuben amodijo larreguijagaitic.

Semiac gurasuai deutzeen irugarren zorra da erreverencija, edo beguiraune on, eta humila. Modu bitacua izan leiteque beguiraune, edo erreverencija au, barruco, edo vijotzecua, eta campoticua. Barruco, edo vijotzecua da benetan amefia, estimetia, ascotan equitia bijotz osotic. Gorputzecua da, emotia campotic, edo

(1) Eccl. cap. 3. v. 9. 10.



gorputzagaz vijotzeco erreverencia, edo veguiraunien ezaugarri, edo señaliac, alan verbaz, cein da egultez, edo obraz. Bijoc euqui biar deutzez semiac gurasuai. Lenengo: vijotz, edo barrucua, eta alan maitetu, edo amadu biar dau semiac bere gurasua ain modutan, ce ezteutza inori bere, Jaungoicuari ezquero aimbeste amodijo zor, cein da berari; bada eztau inorgandic aimbeste mesede artu, cein da beragandic; bada izatia emonagaz eguin eutzan, bestec eguin ezteutzan, eta eguingo bere ezteutzan mesedia. Euqui biar dau ascotan, eta euqui biar deutza lotza, itzal, eta errespeto gustizco bat. Bigarren: emon biar dituz bere vijotzian deutzan lotza, itzal, eta errespetuaren ezaugarri, edo señaliac, nai dala beragaz verbaz daguanian, nai dala beragaitic cerbait dinuanian, nai dala beragaz daguanian, edo dabilenian, ain modutan, ce edonoc ezagutu biar dau, lotza, itzal, eta errespeto andi bat deutzana. Erreverencia, edo beguiraune au edoccein semec euqui biar deutza bere gurasuari; eldu deila guizonic eldu al leitequian dinaderic eregui, edo altubenera, beragan euquico dau zor au, chiquijac, nai andijac, libriac nai escondubac, Sacerdotiac, nai Obispuac, Erreguec, nai Aita Santubac. Jesu Christo gure Jauna Sacerdotien Sacerdote zan, Erregue gustijen erregue zan, Jaungoicuaren semia zan, Jaungoico benetaco zan, eta alambre beti beti euqui eutzen gustizco veguiraune, edo erreverencia andi bat bere Amari, eta Aita ordeco San Joseperi: beti egon zan euren aguindura.

Aguindu onen contra eguiten dau pecatu mortal; Lenengo: bere gurasuari gorroto deutzanac; bera ecin lieusi dabena; erijotzia, edo gachen bat gura, edo desgietaa deutzanac; euren ondasun, diru, edo hacienden

jauve izatera elduterren, nai leuquienac, aimbat lasterren il deitezan, luce eguiten jaquela euren vicitzia. Bardin; eguiten dau pecatu bere gurasuaren erijotziagaz pozuten danac, edo berac eucazan ondasunac jatorzalaco, edo gurasuari emon biar eutzan pensuba, bere erijotziagaz amaitu, edo acabetan dalaco. Bigarren: eguiten dau pecatu mortal bere gurasua guichitan daucanac, edo desprecietan dabenac, campotic adi erasoten ezpadau bere guichitan euquite, edo desprecijo au. Irugarren: burla, eta barre eguiten deutzanac, verbaz, edo obraz; verbaz, esanagaz ez izenac, edo izen gvestuac, dei eguinagaz begui bacochoa, belarri bacochoa, errena, tra-cua, edo onelaco izen, utzune, edo faltaren bat adi erasoten dabenagaz: obraz, siñuca, edo quinuca eguinagaz, bera leguez errenca, alboca, edo beste modu barregarrijen baten ibilijagaz, bada oneec gustijoc besteren bategan pecatu mortal venturaz ez izan arren, semiagan gucijenetan, beti ez esaterren, izango dira pecatu mortal. Dacuzcuna da, guizonac nosbait onzat badarue bere besteren batec modu onetan dei eguitia, onelaco siñubac eguitia, edo ez izenac esatia; gustiz asco sentidu oi dabeela semien aotic enzutia, eta eurac modu onetan burla eguitia. Ara celaco maldicinoia ezarten deutzeen Espiritu Santubac onelaco gurasuen burlarijai: Velac atetra deiñuezala beguijac, eta arranuac jan daiñuezala ama, eta aitari burla eguiten deutzenai. (1)

Laugarren: eguiten dau pecatu mortal bere gurasuagaz aserratuten danac; berari aguiraca eguiten deutzanac; verba garratz, eta astunac esaten deutzazanac; aserrien aserrez euracganunz estubetan daucana botaten dabenac; luurren contra osticoca eguiten dabenac; begui

(1) Proverb. cap. 30. v. 17.

oquerracaz, edo solbarda ganetic beguiratuten deutzanac; chistu, edo gorrua beraganunz botaten dabenac, edo beste onelaco edoceimbere despreciozco eguitade, edo accinoeric eguiten dabenac. Bada, Jauna, etzacõ gurasuari aguiracarie eguingo, edo etzaca erreprendiduco, dongaro eguiten dabenian? Ez Christinaubac. Ara cer dirautzan San Paulo Apostolubac bere icasla edo discipulu Thimoteori (1) Zarraguari ez eiquijozu aguiracarie eguin, ezpada erregutu eijozu ceure aita bacendu leguez. Timotheo Obispua zan, Christinauben aita zan; eta alambere ez evan gura San Pauloc zarrai aguiraca eijuen, ezpada humiltasun, eta biguntasunic andijenagaz erregutu eijuen, emendadu ceitezala. Cembat, eta guichijago guraco evan seme batec aguiraca eijon bere aitari? Conveni bada, gurasua daucan ecandu donguen bateti ateratia, edo beste eguin daben gachen batgaitic cerbait esatia, au eguin biar da erregubagaz, moduric oncenian, humiltasun, eta biguntasunic andijenagaz, zor deutzan lotza, eta errespetoric galdu baga. Bostgarrengo: eguiten dau pecatu mortal, bere gurasua joten dabenac, nai dala escubagaz, nai dala maquiliagaz, nai dala beste gauzagaz, eta ain andija da pecatu au, ce aguinduten evan Jaungoicuac anehinaco leguian, il cijela bere ama, edo aita jo eijan semia. (2) Seigarrengo: eguiten dau pecatu mortal, bere gurasua cematuten dabenac, nai dala atza, edo ucabila ifinijagaz, nai dala besua ereguijagaz, nai dala arri, maquila, edo beste edoceimbere gauzagaz joteru eguinagaz. Zaspigarrengo: eguiten dau pecatu mortal semiac, euren gurasuac gurasotzat ezagutu nai ezpaditu, edo lotzatuten bada guraso leguez tratetan iizatia emon entzenac. Au eguin oi dabe araco guizon

(1) 1. Thim. cap. 5. v. 11. (2) Exod. cap. 21. v. 15.

arro, eta sobervijo, pobrechu batzuben seme izanic, ondasun andijen jauve izatera, edo lecu ereguijen batzubetara elduten dirianac. Oneec eztabe traturic euqui gura euren gurasuacaz; eztabe nai inoc jaquin daguijan noren seme dirian; ezteutze euren gurasuai ecer emon gura; ezteutze verbaric eguiten, eta beguiratu bere beste batzue balira leguez, edo beste ezagun batzui verba eguingo baliyacue leguez. Onelacuac eztabe bete, edo cumplietan mandamentu onetan semiai aguinduten jaqueena. Jauna, emoten jaque biar dabeen gustija: eranzungo dabee venturaz. Ezta ori asco. Gauza bi dira lagundu edo socorrietia, eta erreverencija, bijac zor deutzaz semiac gurasuari, eta batagaz cumplidu arren eztau bestia jaoten.

Gurasuen izenian aituten dira nagusijaguac bere, nai dala urte, edo edadian, nai dala diñadian, nai dala aguindute, edo gobernuban; eta alan gustijai zor jaque lotzia, beguiraune, eta errespetua. Onelacuac dira, Arima-zain, edo Curac, beste Sacerdotiac, ordenduric dagozanac, Alcate, Fiel, eta beste Justicijaco gustijac; ugazabac, Maesubac, eta beste gure ganian escubidia dauquen gustijac. Onei gustijoi dei eguiten jaque Escritura Sagraduban gurasuen izenagaz, eta gustijai aguinduten jaquee gustiz estu, obediu daquijuela, ain modutan, ce erijotziagaz castiguetan dau Jaungoicuac errico nagucijari obediu nai ezteutzana, eta bardin Sacerdotiari.

*Erasoguinza.*

Jaquin gura badabe semiac ce zorioneco, ce subertetsu, ce doatsu, eta bedeincatu dirian euren gurasuac honretan ditubezanac; eztauque beguiratu baño Escritura Sagradia. Eneunque demporarie euquico esan nai baneutzuz, onelaco semienzat dagozan bedeincacinoe ugarijac. Moisesi Jaungoicuac leguia emon eutzanian, ci-

nuan modu onetan; Honradu eguizuz ceure aita, eta ceure ama, urte lucietan vici zaitezán, eta bedeincatubá izán zaitezán Jaunac emongo deutzun luurrian (1). Espiritu Santubac dirauzcu: ondasun andijac batuten dituzana leguez da, bere aita honretan dabena. Aita honretan dabena atzeguin, eta poz andi bat euquico dau bere semeetan, eta Jaungoicuac enzungo dau bere escabidia. Ceure iscune, edo verba, ceure eguitade gustijetan, eta pacienciya gustijagaz honradu eguizu ceure aita, berac ezarri dcizun bere bendicinoia, eta bedeincacinoe onec iraun daguijan betico, bada aitaren bendicinoiac sendatuten dituz semien echiac, ez bacarric eurenzat, baita euren seme, eta semien semienzat bere. Gurasuari eguinitico ona eztaú Jaungoicuac inos astuco, beragaitic sari andi bat emongo deutzá semiari, eta neque, naibague, estura, edo gach andiren baten badago, ateraco dau andic, eta ifinico dau atzeguin onian, eta izotza egusqui beruagaz urtu, eta deseguiten dana leguez, alainche quenduco dira bere pecatu gustijac. (2) Ce ondasun ugarrijagoric? Ce mesede andijagoric nai ceunquee semiac ceuben gurasuac honretiagaitic Jaungoicuac emen iziquiniten deutzuzunac baño? Eztaquit, Jaun onec opa deutzuzan zorion onecc baño andijagoric nai izan cinaiquezan mundu onetan, ez bestian, ez gorputzarenzat, ez arimiarenzat.

Beguiratu daigun orain beste aldetic, celaco gachacaz cematuten dituzan Jaun onec beronec euren gurasuac honretan eztitubezan semiac. Izen, edo fama charrecua izango da, bere aitari jaramonic eguiten ezteutzana, eta madaricatuba bere ama aserratuten dabena. (3) Bere gurasuac honretan eztituzan semiari, amataduco

(1) Deuter. c. 5. v. 16. (2) Ecl. cap. 3. v. 5. et seq. (3) Ibid. v. 18.

jaca bere candelia, eta ilunian gueratuco da: au da, galduco jacaz ondasunac, ondatuco jacaz haciendac, ilgo jacaz semiac, eta gueratuco da nequetan, eta gach andijen gau ilunian. Ain modutan zainduren euan Jaungoicuac anchinaco leguian semiac gurasuai zor deutzeen honria, ce aguiduten euan, il eguijela bere aita, edo ama joten euan semia, eta bardin zan maldicinoeric botaten beutzen. Nor arituco ezta enzunic ce gogortasunagaz aguiraca eguiten eutzen Jesu Christoc Phariseuai, euren gurasuac honretan etzitubezalaco? Dei eguiten deutze hipocrita, embusteru, guzurti, eta zorigalducuac. Beguira orain, Christinaubac, ce maldicinoe icaragarriac daucazan ezarriric Jaungoicuac bere gurasuac honretan eztitubezan semien ganera. Guizonari berez, edo bere naturalezaz datorquiço gurasuac amadu, eta honretia, eta alan onetaraco ez leuque biar, ez legueric, ez aguiduric; bada dacuzcu abere, edo animalijetan onelaco aguidu, edo legue baga maitetu, edo ametan ditubezala euren gurasuac. Baña gure Jaungoico andijaren ontasunac, ez bacarric ifinten deuzcu legue, eta aguiduba, baña izquinitten bere deuzcu sari gustiz ugarija, guerez eguin nai ezpadogu, edoceimbere abere sensun bagac, bere gurasuacaz eguin oi dabena, daigun guichienez, ifiniric dagozan zori on, eta ondasunacgaitic. Onetaracoxe cematuten gaituz aimbeste castigugaz; opetzijac asco ezpadira gure astuntasun, eta sortasunari cirquinic erasoteco, castiguben bildurrac eruan gaizan, ain biar, edo obligacinoe estuba bete, edo cumplietara. Viztu zaiteze bada, semiac, ceuben gurasuac honretara, euqui daguizuben mundu onetan vici luce, eta zorionecua, honradu zaijezen zeuben semiac, eta eldu zaitecen gustijac scrucio honra, eta atzeguinetara. Amen.

**XXXV. VERBALDIJA.**

*Gurasuac euren umiacganaco danquezan biar, edo obligacinoien ganian.*

**J**aungoicuaren legueco laugarren mandamentubac, ez bacarric aguinduten deutze semiai gurasuac honretia, ez pada aguinduten bere deutze gurasuai, euren semien ardua euquitia. Lau dira mandamentu onetan aguinduten jaquezan gauzac: janari, edo mantenimentuba, castigu, edo correccinoia, icasbide, edo doctrinia, eta exemplu ona. Lenengo: emon biar deutze gurasuac euren umiai, ecin eurac irabaci al daijen artian janari, jasteco, eche, edo vici lecu, eta euren vicitzia iragoteco biar dabeen gustija. Zaindu bere biar ditubez galdu eztaijen vicitza, osasun, edo gorputzeco alde, edo parteren bat; eta alan eguiten dabee pecatu mandamentu onen contra araco guraso euren alperquerija, eta naguiquerija gaitic biarric eguiten eztabeenac, edo arduraric arcen eztabeenac euren umiac biar dabeena dauquen oficijuagaz irabasteco; naijago dabeela ateric ate esquian ibili, eurac biarra eguin, eta umiai eraso baño. Bardin: eguiten dabe pecatu mortal euren oficijuagaz irabasten dabeena, eta enqui aldaijen gustija, taberna, joco, jan, edan, eta beste ecandu citaletan gastetan dabeenac, euren umiac ortocic, billoxie, gossiac ilic dabilzala. Bigarreno: eguiten dabo pecatu mortal araco guraso misquin, eta cequen enren seme alabai ecer emoten ezteutzenac, edo euren polsac ez gastetarren euren umiac, euren jaijatza, edo estadubac escatuten daben moduban, janci deitezan, edo jan daijen nai eztabeenac; naijago dabeela

euren emaste, euren seme alabac alsi bat eguinic, eta munduco barregarri izan deitezana, euren diruba guichituria baño. Irugarrengo: eguiten dabe pecatu mortal gurasuac, galcen bada, be umiac escu, oin, begui, edo beste gorputzeco parteren bat euren erruz, edo osatuteco arduraric ez artuba gaitic, baita bere guexoric dagozarian, emoten ezpadeutzez biar ditubezan, edo medicu, eta osagui-le, edo cirujaubac aguindurico osagui, edo medicinac, edo dei eguin nai ezpadeutze onei ez gastetarren.

Ez bacarric emon biar deutze gurasuac umiai vicia iragoteco biar dabeena euren aguindu, edo ardurara dauquezan artian; ezpada emon bere biar deutze moduben bat, guero euqui daijen cegaz vici, edo ofi-cijoren bat iracatziajagaz, edo ondasunac vide onetic irabacijagaz, edo haciendaren batzuc batubagaz. Aguindu onen contra eguiten dabe pecatu mortal: Lenengo: euren hacienda, tratu, edo oficijuagaz vici dirian ascoc, eta ascoc. Onelacuen artian, batzuc gastetan dabee dauquena baño gucijago, jan, edan, eta eurai eztagoquijuen soñeco, eta beste zoraquerijetan, vanidadia batetic, olgu-ra, eta jolaza bestetic, ez biarric eguitia emetic, bide bagaco gastubac andic. Cerbait emparetan bada errenta, edo irabacijan, bertatic asmetan dabee cetan gastadu: ezta arduraric arcen gueroco aureratateco, ezta arduraric arcen semiac vici moduren bat artu daguijen; eta seme alabac aci deitezarian, ez doteric dago alabenzat, ez semiac danque cer jan, ez cer janci, ez moduric irabasteco. Cembat gaeh eztaoz guraso ascoren sobervija, vanidade, eta burubaco gastu onelacuetatic? Onelaco guraso ascq jausi oi dira contuban; baña noz? echia zorrez beteric dacuzenian, eta erremedijoric eztaguanian. Bigarrengo: eguiten dabee pecatu mortal dendari, zapu-



tari, emmentari, eta beste onelaco oficijoco ascoc, zeinzuc ez bacarric gastetan dabe euren irabaci gustija ardao, joco, eta beste ecandu citaletan, ezpada eztabe ardurarric artu nai, euren umiai iracasteco euren oficijua, edo besteren bat. Irugarrengo: eguiten dabe pecatu mortal, araco guizon alperrac, zeinzuc euquiric echagunza, solo, edo beste haciendaren bat nun biarra eguin leijen, equiteco eurenzat, eta semienzat biar dabeena, salduten ditubezan; naijago dabeela ateric ate esquiati ibili, solo, eta basuetan biarra eguin baño, ardura guichijagogaz vici izaterren, euracaz darabilcela euren seme alabac. Cer izango dira oneec? Cer izango dira oneen semiac? Lapur andi batzuc. Ichico ezpaleutzee gurasuac euren umiai alperric ibilten, emongo baleutze oficijo, edo vici moduren bat, ez litzatequez ain galduric icusico uri, eta clezatiac, ez litzatequez aurquituco aibat lapur, eta guizon galdu bide orreetatic.

Bigarren gurasuac semiai zor deutzena da, castigu, edo correccinoia. Au da, castigadu, edo eci biar ditubez gauza deunguen batzuc esan, edo eguiten ditubezania; eta alan eguiten dabe pecatu mortal gurasuac euren umiai deutzen amodijo laarreguijagaitic, castiguetan ezpaditubez, verba deunguen bat esaten dabeenian, equiera charren bat eguiten dabeenian, eta ichiten deutzenac nai dabeen gustijagaz urtetan, negar eztaijen, edo tristetu ezteitezan. Au, Christinaubac, ezta umiai ascogura izatia, ezpada gorroto equitia, dino Espiritu Santubac. (1) Castigadu eguizu ceure semia umechu danetic, ecandu citaletan gogortuten asi dedin baño leenago. Bafia, cer eranzun oi dabe gurasuac? Oraindio gastia da, ezraqui cer eguiten daben bere; edadiac ecarrico dau.

(1) Edd. cap. 3. v. 1. et seq.

A guraso galdubac, edo obeto esaterren ceuben umien borregu crubelac! Gastia da oraindio zure umia eciteco? Ezta bada gastia iracusteco Adanen pecatubaren seme dana; adi erasoteco bere vijotzeco gorroto, eta aserria; begui oquerracaz beguiratuteco beriagaz urten ecin dabengan, escubetan daucana jaurtiteco, luurren contra osticoca eguiteco; escuba ceure contra ereguiteco, eta beste milla modutan bere sobervija, eta aserria iracusteco. Ichi eguijozu nai daben gustijagaz urteten, ichi eguijozu ecanduchu chiqui orri indarra artuten, icusico dozu dempora guichi barru, celan ecin ecico dozun. Arbolachu bat jaijo barri dan artian, erraz da sustrai eta gusti ateraten, baña bein erruac zabalduten badituz gustiz gach izango dozu sustraijac ateratia. Auxe berau jazoten da zuben semiacaz bere. Ecandu citala euren bijotzeco luurrian jaijo barri danian, erraz da luur bigun, eta samur atatic sustrai ta gusti ateraten, baña ichi eguijozu puscabat laurra gogortu artian, erruac zabaldu artian, eta ecandu ghestua sendatu artian; icusico dozu celan ecin ateraco dozun sustrairic gueratu baga, ceinec gox, edo berandu buruba ateraco daben. Alperric aguiraca eguingo deutzazu, alperric jo eta azotaduco dozu, evaguico dozu venturaz campora urten nai daben ecanduba, baña aince vijotz barruban gueratuco da sustraija, ceinec gox, edo berandu urtengo daben campora araco zure bildur baga daguanian. Orregaitic, gurasuac, zagoze contu andi bategaz beguira ceuben umechu gastien ecandubai, eta buruba atera orduco ebagui eguizuz; ez inos ichi euren temiagaz urteten; eci eguizuz euren oquerrune gustijac, indarric artu eztaijen onegaz acico dituzuz eurac baga.

— Irugarren gurasuac semiai zor deutzena da, doctrina

Christinauba iracastia. Ardura au artu biar dabe euren umiac verbaz asi orduco, ordutixec iracasten deutzela Jesus, eta Marijaren izen santu, eta gozuac esaten. Eztabe icharon biar umiac errazoen usura eldu deitezan doctrina christinauba iracasteco: bada orduban eguin biar ditubez fede, esperanza, eta caridadeco actuac. eta ecin eguin leihez lenagotic ezpadaquijez; eta eguiten ezpa-ditubez gurasuac ez iracatzijagaitic, oneen ganian jausico da euren pecatuba, Iracatzi bere biar deutze aibat lasterren señatuten aldaijen devocinoeric andijenagaz, curutze santuba dalaco Jaungoicuac emon euzcun armaric senduena demoninuen tentacinoetatic jaoteco. Iracatzi bere biar deutzez, Aita guria, Ave Marija, amar mandamentubac, eta beste erracen dirian gauzac, modu onetan aibat lasterren erin dedin euren vijotzeco duurrian Jaunaren ezauera, eta bildur santuben acija, demoninuac pecatu, eta ecandu citalena erin daijan baño leenago. Odol malcoz negar eguitecua da guraso ascoren euren umiai doctrinia iracasteco danqueen arduracza, edo descuidua. Icusten dira sei, zaspi, eta zorci urteco seme alabac doctriniaren apurric jaquin baga. Esaten bajaque oneen gurasuai, cegaitic doctrinia iracasten ezteutzen? Bertatic cranzuten dabe; oraindio gastiatic dira, eztaunque orretaraco edaderic. O guraso madaricatubac! Gastiatc dira zuben umiac doctrinia jaquiteco? Eztira bada gastiatic euren oquerquerija, muquerquerija, eta guestaquerijetaraco. Eztaquije Aita guria, eta Ave Marija, eta daquijez milla soiñu gangar, loi, atsitu, eta lotzagarri. Ez jaque enzungo Jesus, eta Marijaren izen gozoric, eta pitian pitian botaten ditubez demoninua, diabruba, maldicinoe, eta birana. Eztaquije señatuten, eta badaquije verba garratz, eta astunac esaten. Oraindio nmecondo

gasteguijac dira confesetara bialceco, eta eztira, inoen solo, baso, edo ortura ostuten bialceco. Egongo dira venturaz urte osuetan pecatu mortalian jaquin baga, eta venturaz inos enzun baga, cembat gauza biar dirian confesinoe on bat eguiteco. Onelacuen gurasuac pecatu mortalian vici dira.

Mandamentu onetan gurasuai aguinduten jaquen langarren gaucia da, euren umiai ejemplu ona emotia. Au da; ez bacarric verbaz, ez bacarric correccinoe edo castigubagaz, ez bacarric doctrinia iracatzijagaz, baita bere euren ejemplu onagaz arteztu biar ditubez ceruco bidetic, eta alan eguingo dabe gurasuac pecatu mortal, eguiten badabe euren umiac dacuzela, ez bacarric pecatu mortal dan gauzaren bat, baita pecatu craso lejuena bere euren umiai. Emetic ezagutuco dabe gurasuac, pecatu mortal eguiten dabecla. Lenengo: egun gustijan taberna, joco, edo jan edanian egon ezquero euren umien aurrian ordoric ifinten badira. Bigarrenge: euren aurrian, edo eura danzubela esaten baditubez verba loijac, contetan baditubez ipuin ez garbijac; cantetan baditubez soñu arin, gangar, eta estalduric baño ezpada bere loi moduco dirianac. Irugarrenge: eurai, edo eura danzubela birao, maldicinoe, demonino, eta añeninuac botaten ditubezanac, edo Jaungoico, eta Santubacgaitic blasfemetan dabeenac. Laugarrenge: euren aurrian murmuratan dabeenac, euren vijotzeco gorroto, ecin icusi, edo aserracunza noribait deutzena iracusten dabeenac, esaten ditubezala eurai eguin deutzezan gach andijac; bada au ezta beste gauzaric, ezpada esatia, nosbait albadaije vengadu daijela eguin jaquen calte, edo charquerija. Verba baten: eguiten badabe gurasuac, edo esaten badabe euren umiai pecatu craso, edo pecatu mortalian jaus-

teco pellenruban ifini al leizan gauzaric, pecatu mortala eguingo dabe.

Ecín emenche ichi neique gauza bat esan baga; badaquit oba litzaquiala, lecu santu onetan ez esatia, isilie ichi albalciteque, baña jaquinic cembat pecatuben sustrai izan oi dan guraso ascoren ardura, eta beguirauñe guichija, ecín esan baga ichi leiteque. Contu senar emastiac zeubecaz umiac ez eratzotiagaz, edo zeubecaz guela baten, urte bi, edo gucijenez irutic irago ezquero; bada eurac an dagozala paguetan badeutzazube alcarri deutzazuben zorra, edo artuten badozube bacarrían baño ecín cinaiquian escubide, edo licencia, idigui cinaiquez gacheraco euren beguijac. Jauna, oraindio umiac dira, eztaunque malicijaric. Ezta import. Zubez icusi, edo sentidubagaz eguin leije beste aibeste euren artian, eta orduban ez jaquin arren cer eguiten dabeen, artu leije ecandu citala, eta guero elduten dirianian jaquitera cer dan, ecín goituric bein arturico oitura charra, aurrera irauñ leique. Jautia, lotan egoten dira, eta iratzarriric badagoz, eztoqui nos olaco gauzaric eguiten. Zubez us-te arren lotan dagozala, venturaz iratzarriric egozan, eta adi zubez cer eguiten cenduban, eta eurac ezagutu baga erretan infernuco su loijan. Sinistu eguidazube, gach gustiz negargarrjac etorri dira gurasuac euren umien aurrian escubide artubagaitic. Ez eiquezubez eratzo oe baten ceuben semiac alabacaz, chiquijac, eta gastiac izan arren, ezta euren oiac bere bata bestien albuan ifini; andijac dira demoniuaren asmubac, eta edocein edaderacuac daquiz tentetan.

Ez bacarric eguingo dabe pecatu mortal gurasuac ejemplu donguia emonagaz euren seme alabai, baita bere ardura andi bat czpadaunque, besteetan icusi, edo

enzun eztaijen, pecatu eraso al leijuen gauzaric; eta alan beguiratu biar dave pecatu mortalen beian celaco lagunacaz batuten dirian, celaco echeetan sartuten dirian, ce lecutara juan oi dirian, eta celaco adisquidiac dauquezan, eta jaquinic lagun, edo adisquide oneec, ecandu charrecuac diriala, ez ichi euracaz batuten. Badauque bildurric, lecu, edo eche atara juanagaz galdu leitequezala, galazo ara elcen bere. Orregaitic pecatu mortal eguiten dabe gurasuac, ichiten badeutze seme alabai nai daben gustija eguiten: gaur errömerijara, bijar jolasera, orain tabernara, guero jocora; conversacinoe, edo verbeta luciac semiac maite daben nescatiliagaz; egote andijac alabiac lastan daben mutilagaz: batzubetan errondan gau gustijan, lagun buru arinacaz; beste batzubetan gaberdi, edo goxaldian echera, nun izan dan, edo nundic datorren itandu bere baga. Onelaco gurasuai esaten bajaque, cegaitic ichiten deutzeen euren seme alabai nai daben gustija eguiten, gabez ibiltan, lagun charracaz batuten, gustiz diriala pelleburusuac darabilezan bidia, buruco min andi bat emon leijuela? berratic erantzuten dabee: eztago orren arduraric, gustiz dira onac, humildiac, biarguinac, eta Jaungoicuaren bildurrecuac gure semiac. Alabia barriz eztago cer esan bere: ezta bera modu orretacua. Ez ez eztago bildurric euracaz. Gauza orreec edadiac dacarzanac dira. Gastetasunari beria emon biar jaca. Gueu bere alainche guinian. Guero nai eztana jazoten danian, semiac, gurasuac nai ez leuquien esconcia eguiten dabënian, alabien pecatu isilac gustijen beguijetara urtetan dabenian: negarra, cispuruba, zotina, eta atzacabia. Ez neuquian sinistuco onelacoric eguingo euztanic neure semiac, edo alabiac. Noe esango euan au eguingo evala? Noe usteco euan onelacuac urtengo

evala? Noc? Edonoc esango evan ecin beste gauzaric jazo zatequiala zure seme, edo alabiagaz, icusiric no-gaz evilen, nora joian, nun zarren zan. Edoceinec igar-rico evan, icusiric zubecc emoten ceunzen escubidia, edo licencijsa nai even lecutic ibilteco nai egunez, nai ga-bez, ecin onian gueratu ceitequezala. Ceuben burubai ezarri biar deutzezube orain daucazuben naibaguiaren erruba.

*Erasoguinsa.*

Ce zorionecuac izango litzatequezan echadi, edo fa-milija, erri, uri, provincia, erreiñu, baita bere mun-du gustija, gurasuac bete, edo cumpliduco balebe Jaun-goicuaren legueco mandamentu onec aguinduten deut-zena; bada guizon, eta emacume gustijac izango litzate-quez onac; baña bete, edo cumplietan ezpaditubez, gustija dua galduric. Ifini bediz legue, eta castiguric go-gorreenac ghestuen contra: diadar beije Predicadoriac ecandu citalen contra: bebil justicija aleguin gustija egui-ten, arduraric andijena arcen erbestetu, edo desterreta-co erritic pecatu, eta oitura, edo costumbre charrac; al-perric dabilz gustijac, gurasuac ondo azten ezpaditubez euren umiac. Mundu onetaco gach gustijac datoz aci-quera dongatic. Esango dabe venturaz, eztala au mun-duban icusten dirian gachen sustrai bacarra, bada jazo leiteque gurasuac euren umia ondo aci arren, onec ghes-tuac urtetia. Ezteutzut au autortu, edo concediduco, dino San Juan Chrisostomoc. (1) Guizona charra, edo donguia bada ezta onelacua berez, edo naturalezaz, ez-pada bere guraz, edo vorondatez: gurasuac echun, edo inclinadu leije euren umien vorondatia gauza santu, eta onetara, chiquichu, edo gastechu dirianetic ardura andi

(1) Chrisost. cont. vituperat. vit. moost. serm. 3.

bat euquijagaz euren acirqueran. Dacuzcuna da, leoe, catamotz, artz, otso, eta abere, edo animaliaric uzu, edo ferocenas otzandu, edo amansetan diriala, eta euquiric guizonac euren ganian ardura andi bat, oitu, edo acostumbretan ditubezala mila ablidade, eta arrigarriaco gauzetara. Celan bada, gurasuac ecingo dabe eguin euren ume sensundunacaz, abere sensumbagacaz eguiten dana? Onctatic aguri da, ezpadira guizonac etzinac gauza on, eta santubetara, ezpadeutze jarraituten onoidade, edo virtutien biditari, dala chiquichu cirian artian arduraric euqui ez evelaco gurasuac euretara oitu, edo acostumbretaco, eta urtetan badabe galdu, guesto, eta oqueriac dala, araco ecandu cital onec buruba lenengo ateraten evenian, gurasuac evagui ez eutzezalaco aziera on, aguiraco, edo castigu, ejemplu on, eta beste al leijen modu ascogaz.

Baña cer dinot? Guraso ascoc, eta ascoc ez bacarric eztaunque arduraric, euren umiac onera etzinteco, edo acostumbretaco, ezpada emoten deutze umiai gastechu dirianetic, donga izateco aurrerapidia. Ozta ozta idiguiten dirubeez euren begui, belarri, edo beste sensunac, nun dacuzen, danzuben, edo sentietan dabeen gustija eztan euren arimac ilteco venenoric gogorrena baño. Eche batzubetan eztauze espada vanidade, arroquerija, edo sobervija, gorputzac soñeco ederracaz apaindutia, eta au ez bacarric bestectan, baita bere euren burubetan, eta onegaz ordutixec zaletuten dira apainduric ibiltera, eta buru eritzi izatera. Beste eche batzubetan eztanzube seinchu dirianetic, ezpada euren echadi, edo familjaren anditasuna, celacuac izan dirian euren aasaba, eta anchinacuac, eztaguala erri areetan, euren odolari eldu al leiquijonic; gustija da antuste, edo arroquerija, beste echa-



di, edo familijen oben edo tachac ateratia, euras guichitan euquitia; eta alan ordutixee aseten dira arroquerija, edo sobervijaz, eta gueratuten dira ain pusturic, ce uste dabe beste gustijac eztabeela mereci euras verba eguitia, ezta beguiratutia bere. Beste ume batzuc ezfanzube echan, ezpada demoninua, diabruba, arraijua, biraua, maldicinoia, murmuracinoia, aguiraquia, eta arrabija. Beste batzubetan, eztauze euren gurasuetan devocinoiaren ispiric, ezta errosarijo bat erregetan, ezta Christinauben usainic bere icusten; enzuten da meza bat jaijegunian arrastaca, eta beste dempora gustija darua tratubac, edo saldu erosijac, janac, edanac, jocuac, eta alperquerijac. Celacuac, nai dozube izan deitezan ume oneec? Ara neuc esango deutzubet.

Sarri icusi izango dozube echadi, edo familia batecuac diriala devotuac, edo Jaungoicuaren gauzataracuac, bestecuac limosnarijac, bestecuac ordijac, bestecuac lapurrac, eta bestecuac tramposuac., eta alan esan oi dozube, aguia dauca eche orrec. Badaquizube cer dan aga au? Guraso anchinacuen batzuc izan cirian olacoxiac; icusi citubezan euren umiac, artu even oitura au, jarraitu eutzen berari; icusi even onen umiac bere oitura au, jarraitu eutzeen berari, eta modu onetan dator oitura on, edo donguia, anchinaco aasabetatic. Auxe da benetan, echeetan daguan aguia. Ceuben soluetan jazo oi dana, jazoten da semetan bere: eriten dozubena artuco dozube; eriten badozube exemplu, eta doctrina charra, artuco dozube pecatubaren arancia, baña eriten badozube exemplu ona, artuco dozube frutu gozua, eta betico atzeguina. Amen.

**XXXVI. VERBALDIJA.**

*Jaungoicuaren legueco bostgarren mandamentuben ganian.*

**J**aungoicuaren legueco bostgarren aguinduba da, ez inor iltia. Ez bacarric aguindaten jacu verba oncetan, ez inor iltia; baita bere ez inori gachic eguitia, ez obraz, ez berbaz, ez gurariz, edo deseoz. Lenengo: aguinduten jacu ez inori gachic eguitia obraz; eta alan eguiten dau pecatu, ez bacarric norbait ilten dabenac, baita bere bere vorondatez, edo guraz eparen bat eguiten deutzanac, arricada, maquilacada, ucabilcada, edo osticadaren bat emoten deutzanac, edo beste gachi andiren bat eguiten deutzanac; eta ez bacarric eguingo dau pecatu mortal, baita bere osotu, edo errestituidu biarco dituz eguin daben gachi oneratic datoza calte gustijac. Esateraco: ilten dozu guizon escondu bat, ceinec bere biar, edo irabacijagaz emoten eutzen bere emaste, eta semial biar eben gustija; bada biurtu biarco deutzazu, il dozun guizon onen echadi, edo familijari erijotza oneratic datorquijozan calte gustijac. Eguiten deutzazu ceure eruz epai bat biarguin bati, edo zauri andi bat, eta onec ecin biarric eguin dau egunen batzuketan, bada biurtu biarco detzazuz, ez bacarric epaija osatuteco eguin dituzan gastubac; ezpada biarric eguin eztaben egun aretan irabacico evana. Eguiten dau pecatu mortal ama, edo inudiac, ardura andi bat ifinten ezpadau beragaz eratzoten daben umia losorruan ez ito, edo galecco, edo au eguiten badabe, ardura ez ifinijagaitic. Eguiten dabe pecatu mortal gurasuac, euren umiac modu baga, eta gogortasun larreguijagaz castiguetan ditubezarian,

araco aserraturic euren umiacaz, eztaquijela arrabijen arrabijaz cer eguiten dabeen bere, edo nun joten ditubezanian, nai buruban, nai auan, nai beguijan, nai belarrijan, eta edocein gauzagaz, ucabil, ostico, maquila, burdina, edo urrengo escubac emoten deutzen gauciagaz, ain modutan ce epai, zauri, eta anditubac eguini, egun osuetan oian egon biar dabeen. Castigadu beguije gurasuac euren umia, eci beguije, baña ez araco aserrien aserrez cer eguiten dabeen bere eztaquijenian, ezpada atzeguin onian, ez euren arrabijua aseterren ezpada semia onduterren.

Eguiten dabe pecatu mortal, araco nescatila seindun gueraturic seina galduten dabeenac, edo galceco aleguinac eguiten ditubezanac, euren honria ez galecrren, nai dala sangradubagaz, nai dala edatecuen bat artubagaz, nai dala carga pisutsubac eruanagaz, nai edoceimbere beste modutan. Ez bacarric eguingo dau pecatu au eguidaijan nescatiliac, baita bere onetara lagunduten deutzanac, edatecua aguinduten deutzan medicubac, sangrija emoten deutzan barberubac, edatecua compondu ten daben boticarijuac, eta beste edoceimbere modutan seingalceian alde, edo parteric daucanac. Jauna, au jazo jacana eche on bateco alabia da, eta errijan jaquiten bada galduric gueratuco da; ecin escondu leiteque seinaren aitagaz, bestec au jaquinic ezta emasterzat artuco, eta alan bera honra бага gueratuco da; guraso, echeco, eta senidetahun gustijac atsacabe, eta naibague andi bat artuco dabe. Bai nai ez. Nescatila ori balitz erregue baten alabia, eta balequi bere sabelian daucan umia ez galcerren erreinu gustija erre, eta quisquilduco litzatequiala, edo bera galdubagaz, baque, zorion, eta ondasun gustiz andijac etorrico litzatequezala erreinu gesticuenzat,

ecin olaco gauzaric eguin leique, eta beti eguingo leu-  
que pecatu mortal icaragarrizco bat.

Eguiten dabe pecatu mortal. Medicu, eta Barberu er-  
rijetan ifinten dirianac ecerbere jaquin бага, ecerbere es-  
tudijadu бага. Eztaquije gacha ezagututen; eta ezagutu  
arren eztaquije celan osatu; aguinduten dabe ichumus-  
tuban sangrija bateric, purguia besteti, jaquin бага on,  
ala gach eguingo deutzan. Ez bacarric eguiten dabec pe-  
catu mortal onelaco Medicu, eta Cirujaubac, baita estu-  
dijetan estabeenac bere, astuten ichiten dabecla lenago  
equijen gustija. Euren oficijuan icasi, edo estudijaduten  
eztabeen Medicu, eta Barberu, edo Cirujaubac beti da-  
goz pecatu mortalian. Eguiten dau pecatu mortal laar-  
regui jaten dabenac, edo ezaguturic laarregui janac osa-  
suna galcen deutzala, jaten dabenac. Bardin, ezaguturic  
janari onec, edo edarijac gach eguiten deutzala, ichi  
gura ezteutzanac. Eguiten dau pecatu caria, icatza, lu-  
urra, autza, edo beste onelaco gauzaren bat jaten da-  
benac, jaquinic eurac jaterren daguala erquindu, argal-  
du, eta ceetaraco bere indar, eta podere бага. Verba  
baten: jaquinic janarijen batec gach eguiten deutzala,  
edatecuen batec guexoric ifinten dabela, functiac galdu-  
ten dabela, Jarregui janac, edo edanac gach eguiten  
deutzala, onelaco gauzaric eguiten badau, pecatu mor-  
tal eguingo dau. Pecatu mortal eguiten dau laarregui  
edanagaitic, edo bere vorondatez ordituten danac. Onen  
ganian beste verbaldi baten luciago esango dogu.

Mandamentu onetan bigarrengo aguinduten jacuna  
da, ez inori gachic eguitia verbaz. Modu ascotan gach  
eguin leiquijo proximuari mijnagaz, baña orain bacarric  
esango dot norzuc pecatu eguiten dabeen verba astun,  
edo lotzabagac esanagaz. Lenengo bada: eguiten dau

pecatu mortal, bere proximuari dei eguiten deutzanac aserre, eta garratztasunagaz lapurra, sorguina, ordija, dongaro jaijua, edo beste onelaco izen dongaren bat, jaquinic atzacabe andi bat artuten dabela au enzunagaz. Onetan jaquin biar da nori esaten jacon, bada batzui esatia pecatu mortal ez izanarren, izan leiteque beste batzui dei eguitia. Guizon galdu, tabernaric taberna dabilen lotzia galduric daucan bati, ordija dei eguitia, pecatu mortal ez izan arren, izango da auxe beratu Sacerdote, guizon honradu, edo Caballero bati esatia. Charri, edo urdia dei eguitia edoccin modutan vici dan anra, edo emacume bati ezta pecatu mortal, baña beste onembeste esatia emacume honradu, echandera, edo Señora bati, pecatu mortal izango da. Esaten dan gaucia bada bere eguija, pecatu mortal izango da badaquizu ori zuc esanagaz atzacabe andi bat artaco dabela, lotzaturic gueratuco dala, eta bardin da dirautzazun oben, utzune, edo tachia danzuben gustijac badaquije bere. Esateraco: dei eguiten deutzazu zuc beste bati sasicume, dongaro jaijo, edo beste onelaco lotzatuten daben izen guestoren bategaz, pecatu mortal eguingo dozu eguija izan arren, eta danzuben gustijac alacua dana badaquije bere. Eta zuc esanico gaucia inoc ezpequijan, eta gustijac beuquen beste modutacotzat, biurtu, edo errestituidu biarco deutzazu quendu deutzazun honra, edo famia.

Bigarrenco: eguiten dabe pecatu mortal, edo obeto esaterren, beti dagoz pecatu mortalian araco guizon (baña gueijago emacumiac) arrabijoso, irritu, eta erre inogaz baqueric eztauquenac, eta auzotegui gustija goicuz beera darabileenac; orain aserratuten dira bategaz, guero beste bategaz; verbachu chiqui bat enzutia, beguirauac

bat eguitia da asco, edo venturaz curai gognac emotia, edo beguitandutia cerbait eguin deutzela, verbaric gogor, garratz, eta lotzabaguenac, eta aora datorquijuen gustija esateco. Eztau inoc curacaz verbaric eguin gura, gustijac dabilz curacgandic iguesi; eztauque adisquideric. Onelacuac ecin absolvidu leitequez euren ecandu citala eci daijen baño leenago. Irugarrengo: eguiten dabe pecatu mortal araco senar emaste euren eche, eta echadi, edo familia gustija darda ganian darabilenac leoe amurratu batzuc balira leguez, gustija da aguiraquia, gustija diadarra; gauzaric chiquijenagaitie ifinten dirā aotic vit-sa, beguijetatic suba, eta alde gustijetatic garra darijuela. Ezta enzuten ezpada verbaric garratz, astun, eta lotzabaguenac, senarrac emastien contra, eta emastiac senarren contra, gurasuac, eta umiac alcarren contra. Echia infernubaren irudi bene benetaco bat da; auzo gustijac dagoz bertara adi, gustijac escandalizaduric, eta gustijai dongaro deritzuela; egunian egunian enzun, eta icusten da aserre, errijeta, diadar, eta aguiraquia. Bada Jauna, ez jaquec aguiraca eguingo seme, alaba, eta orzein, edo crijadubai dongaro eguiten dabeenian? Bai, Christinaubac; baño eztago beste moduric aguiraca eguiteco, edo erreprendietaco diadar, verba astun, eta lotzabagacaz baño? Ecin aguiraca eguin leijue, ecin erreprendidu, edo castigadu leitequez, auzotegui gustija adi ifini, eta escandalizadu бага? Cembat obago izango litzateque, ceuben seme, eta alabachubac dongaro eguiten badabe, eta verbaac asco ezpadira, lau azotechu emotia ceuben baque onian, eta isil isilic, edo afari, eta jatecoric ez emotia? Onexec bai obeto onduco dituzala, zure diadar, eta verba astunac baño.

Ascoc eta ascoc ifini oi dabe atzaquijatzac esatia: ain

daucat genijo vicija, ain lasterra, eta erria, ce berbertatic iragoten naz; verbachu bat enzun orduco, eztaquit nun naguan bere, bertatic gustijau iragoric, eta isioric gueraturen naz, ain modutan ce eztaquit cer dinodan bere. Badaquizube, Christinaubac, cer dan achaquija au? Da ceuben pecatuben erruba Jaungoicuari ezartia; bada da esatia, ain laster aserratuten banaz, da Jaungoicuac emon euztalaco daucadan genijo charra, ce beste oba bat emon baleust eninzan ni onelacua izango. Baña achaquija au utsa da, guzurra da, heregija da. Espiritu Santubac dirauzcu: Jaungoicuac arteza eguin evan guizona, baña guizona bera da oquerrunetan sarcen dana. (1) Ceuce ceure ecandu citalai emon ceuntzen indarra, araco lenengo ezagutu cenduzanian eci etzenduzalaco. Ezpabere esan eguidazu: cer eguin dozu ceure genijo orren vicitasun, eta suba amatetaco? Ecerbere. Araco icusi cendubanian ceure vijotza isioten zala aserrian eguin eut-zuben gachen bategaz, artu dozu al daizun moduba sucha ori indarric artu baño leenago amatetaco? Alderatu, edo apartadu zara aserratuteco pelleburutic? Araco jaquin, edo asmadu dozunian norbait daguala verbaz zure contra, eguin dozu andic iguez ez jaquiterren cer dinuan? Norbaitec errazoe, edo verba astunchubago, edo garratzagoren bat esan deutzunian, egon zara isilic ez beste aibeste eranzuterren? Eguin dozu aleguina, edo indarra paciencijatan iragoteco, aurrerabideric artu ezta-guijan abijetara doian aserriac?

Ay neure Christinaubac, dacuzcuna da, onelaco gauzaric eguin biarrian, oquerretara eguiten dala. Jaquiten badozu norbaitec ecer esan dabela zure contra, bertan beera ichi biarrian, jaquin nai dozu esan daben gusti gus-

(1) Eccl. cap. 7. v. 30.

tija verbaric chiquijen chiquijenairocua, baita bere alba-  
cinai ce gogo, edo intencinoe euqui daben. Cerbait en-  
zuten badozn, eta baderitza cerbait dinuela zure contra,  
aldendu biarran ez enzuterren, zurrago ifinten dozu be-  
larrija cer dinuen enzuterren. Verba astun, edo garratzen  
bat esaten badeutzube, astu biarran beti zagoz barris-  
tetan, adisquide, eta lagun gustijai esaten deützezu, eta  
nai zeunque euretán isio ceuc ceure bijotzian daucazun  
suba. Eta nundic etorri oi dira aserreric andijenac? Ecer-  
bercetatic gueijenetan. Esaten deützu venturaz ceure  
adisquideric andijenac verbachu bat intencinoe donga  
baga, zuc bertan beera ichi bacendu, anche gueratuco  
zan; baña ez puscabat eciterren ceure genijua eranzuten  
deützazu beste bat; bestiac dirautzu gogorchubago bat;  
zuc dirautzazu astunago bat; aurrerago, eta gogorrago;  
asquenian aserria, diadarra, eta verbaric lotzagalducue-  
nac. Berotuten da mijna, eta ezta beguiratuten esaten  
dana guzurra ala eguija dan; honria quencen bada ala ez;  
inoc bequijan, ala ez. Irrituten zara, aserratuten zara,  
carramatuten zara, eta leen adisquide cinianac zagoz  
aserraturic, eta arerijo. Lenenguan jaramonic eguin ez-  
paccantza enzunico verbiari, erraz cendubana leguez,  
etzenduban aimbeste aserre euquico, cein da guero; et-  
zinian adisquide cinianen arerijo izango. Orregaitic ceu-  
re genijo erre, eta vicijaren achaquiija utsa da; bada or-  
telacua badaucazu, ceure erruz daucazu, ceuc eci nai  
eztozulaco, amatetaco aleguinic eguin nai eztozulaco,  
mugaldi, edo ocasinioietatic igues eguin nai eztozulaco.

Jauna, bera asi jatan dongaro esaten, eranzun oi da-  
be beste ascoc: niri ecer esan ezpaleutz ni isilic egongo  
nintzan. Cegaitic esan biar eutzazan aimbeste picardija,  
aimbeste lotzabaquerija, eta aimbeste chacharquerija? Be-



raz, bestiac dongaro eguin evalaco, zuc bere eguin biar dozu; bestiac pecatu eguin evalaco, zuc bere eguin biar dozu; eta bestia infernura doialaco, zuc bere jarraitu biar deutzazu. Eta cer aurreratu dozu orregaz? Cer erremedijau dozu? Ecerberrez: dongago ifini dozu, irritu zara, aserratu zara, eta lenenguan bein bacarric esan beutzuben enzun nai etzendubana, guero lau, bost bidar, edo gueijagotan enzun biar izan dozu. Lenenguan jaramonic eguin ezpacendu, isilic egon bacina, eta errazoe charra esan eutzunagandic alderatu, edo apartadu bacina, baque obian egongo cinian, etzenduban euquico aimbeste aserre, eta ez even arguitara urtengo milla gauza isilian euquiteco oba cirianac: etzenduban enzungo venturaz uste etzendubana, edo ceritzuna inoc ezëquijala. Eta Jaunari milla esquer onetan gueratuten danian. Cembat auci galgarri, cembat querella icusten eztira onelacoxe verbachu bat baño beste sustrai, edo asij rariç eztauquenac? Sarcen da Escribauba batetic, Letraduba bestetic, emetic Procuradoria, andic Alguacila; eguiten dira procesuac, ateraten deutzaz batac bestiari jaquin al daijezan utzune, edo falta gustijac; eguiten dira gastu andijac, eta azquenez ezagututen danian, paciencija pusca bategaz erremedijau zatequezala gach, eta gastu gusti oneec, eztago erremedijoric. Orra cer dacarren verbachu axiac daroian bati jaramon eguitiac, eta bertan beçra ez istiac.

Baña oraindio bere andijagua da beste batzuben ichumëndija. Ascoc eta ascoc, ez bacarric eztabe artuten eguin daben pecatuben damuric, ez bacarric eztira lotzatuten aora etorri jaquen lotzabaquerija gustija proximuari esan deutzelaco, ezpada alabadu oi dira au eguin dabeclaco, gauzaric miragarrijena izan balitz leguez; eta

charren dana, urte lucieten iraun oi dau euren buruben alabanza onec. A celacuac enzun dituzan, esan oi dabe Christinauben izena baño eztaquien onecc; celacuac esan deutzadazan; enzun biar baditu, enzun ditu. Celan berotu deutzadazan belarrijac. Vela bat baño balzago ifini dot. Ezteutzat ecer parcatu. Benetan, Christinaubac, alabanza andi bat emoten deutzazu ceure burubari. Pecatu mortal icaragarri bat eguin dozu, verba astun, eta garratzac esanagaz ceure proximuari; eta Christinau batec alabaduco dau bere buruba pecatu mortal eguin dabelaco? Benetaco Christinauba bacina, lotsatu, eta muturric gueratuco cinatequez, icusiric cembat pecatu eguin cenduzan, ceure proximuari utsune, edo tacha orrec atera ceuntzazanian. Onelacuac, ez bacarric pecatu eguin even aserria enqui evenian, baita bere euren burubac alabetan ditubezanian; eta onelaco goguan dirauben artian, edo onelaco moduban euren burubac alabetaco gogo, edo ustia dauquen artian ecin absolvidu leitequez; bada onelacuac ez bacarric eztauque damuric pecatu eguin dabeelaco, ez bacarric eztauque gogarte, edo proposituric ez ostera eguitoco, ezpada barriren barri quencen deutze honria proximuari, eta dagoz murmuretan, edo deungaro esaten beragaitic.

*Erasoguinza.*

Estauca guizon batec gauza oberic, ez charragoric mijna baño: bera ondo badarabil bedeincatuten dau Jaungoicua, confesetan dituz pecatubac, eguiten dituz sacramentubac, prediquetan dau Jaungoicuaren leguia, iracasten dau doctrina Christinauba, iracusten dau cecuraco bidia, poztuten dituz necatubac, edo tristiac, zainduten dau Elexia, eta ain dira andijac beste mijnac dacarzan onac, ce eztago gustijac adi eraso leiquianic.

Baña, noc esan leiquez mijn batec dacarzan gachac? Gustiz da pellebusua mijna, dino Santiago Apostolubac: beragaz pecatu eguiten eztabena, eta bera eciten dabena guizon santuba da; bada oni erraz izango jaca bere gorputz gustija bere ecitia. Ce gauza chiquija dan zaldi bati ifinten jacan freuba? Bada beragaz cruaten da nora nai zaldijaren gorputza. Eztacutzubeez, ce andijac dirian oncijac? eche andi bat dira; eta asco uri bat leezcuac; eta izanic ain andijac, nogaz, edo cegaz artestuten dira norabait eruan gura dirianian? Ozta ozta aguri dan gauza bategaz: lema chiqui bategaz. Auxe berau jazoten da gure mijnagaz bere, dino Apostolu onec. Gorputzeco alde, edo parte chiqui bat da, eta alambere bera da gure gorputz gustija gach, edo onera daroiana. Mijn char batee subac eguiten dabena eguin oi dau. Beguira ce calte ecin esan leitequezanac eguiten dituzan subac. Su apur batec erretan dituz basoric zabalenac, mendiric andijenac, erri, eta uri osuac: mijna barriz suba da, gach gustijen teguija: dago veneno ilguile, edo mortalez beteric. Da gueldiric ecin egon dan gacha, eta infernucogar vijian dago gorituric. Orregaitic eztago bera otzandu leijan guizonic. Abereric crubelenac, choriric uzubenac eciten dira, baña ez mijn citala. (1)

Nor bildurtaco ezta Apostolu andi onec dinuana enzunic? Noc aleguinic andijenac eguingo eztituz bere mijna ondo ondo gordetaco? Baña icusten dana da, ezta ecetan ardura guichiago ifinten, mijna eciten baño. Gustija da verbetia, edoecin gauza esatia, ez ecer parcatutia, ez ecer isilic euquitia. Celan nai dozube bada auciric izan eztedin, aserre, errijeta, gorrotoric aurquitu eztedin, ceure mijna gueldiric cuqui nai ezpadozu, eta gus-

(1) Jacob. c. 3. v. 2. et seq.

ñijen iturrija zabalic badaucazu? Sinistu nai ezpadenztazu niri gachic gueijenac datozala mijn citaletic, sinistra eguijozu Espiritu Santubari. (1) Mijn donguiac aserratu-ten ditu baquian egozanac, arerijo eguiten ditu adisquide cirianac, erre dituz urijac, iruli dituz echeric senduenac. Mijn charra daucanac eztau baqueric euquico, eztau adisquideric izango, eta madaricatuba izango da Jaungoico, eta guizonacgandic. Asco il dituz espatic, baña gustiz dira gueijago euren mijn ghestuac il dituzanac. Berac emoten daben erijotzia da gustiz zori gogorrecua, eta infernuba bera baño bere charrago da. Beguira bada jausi etzaitez gach onetan; eci eguizu ceure mijna. Etzaitez lasterra izan edocein gauza esaten, beguira bein, eta birritan cer dinozun, guero damutu eztaquizun, erremedijoric eztaguanian. Baña inos baño contu andijago bat eugui biar dozu, araco aserratu aguinian zagozanian, gachen bat eguiten deutzubenian, verba gogorren bat dirautzubenian, eta zugaitic dongaro esaten dagozanian. Ezta suba amatetaco moduba orduban orrecaz verbaz abijetia, ezpada alderatu, edo apartetia, ez tana leguez modu ona suba amatetaco egur gueijago ezartia, ezpada lenago daguan eguira quenceia. Au eguiten badozu, ecico dozu ceure mijna, vicico zara baquian mundu onetan, euquico dozuz adisquidiac, artuco dozu Jaunaren bendicinoia, eta iragoco zara vicitza baquetsutic, beti iraungo daben baquera. Amen.

(1) Ecl. cap. 28. v. 22 et seq.

*XXXVII. VERBALDIJA.*

*Birao, madaricacinoe, edo maldicinoiaren ganian.*

**B**ostgarren Jaungoicuaren legueco aguinduban galazoten jacuzan gaucetatic bat da biraua. Au berez pecatu mortala da; bada dirauzcu San Paulo Apostolubac, biraotijac eztiriala ceruban sartuco. (1) Zagoze adi esatera noian doctrinara, bada ain dago zabalduric ecandudonga au, ce deritz Christinau gustiz asco condenetan diriala birauagaitic. Ecin esan leiquez birao modu gustijac, eta alan bacarric azaldu, edo explicaduco dodaz ezaunenac, jaquin daizuben nos dirian pecatu mortal, eta nos venial. Lenengo: eguiten jaque birao sensun bagaco gauzai. Dago bat biarran canubita bategaz, eguiten jaca epai bat, eta dino: diabrubac eruan biar leuque onelaco cuchilua, edo diabrubaren canubita. Au ezta pecatu veniala baño. Bigarrengo moduba da, noribait demonino, edo diabruba dei eguitia: esango balitz leguez: ator ona demoninori, ua ortic diabrubori. Onelaco birauac berez pecatu venial dira, baño esaten bajaca guraso, Sacerdote, Obispo, edo itzal, nai errespeto andija zor jaconen bati, mortala izango da: baita bere gurasuac umiari, ugazabac otzeinari lancian lancian ezarten badeutza, emoten deutzan ejemplu charra gaitic. Irugarren moduba da, utsian eta beste baga esatia: demonino demoninua, diabruba, arraijua, edo beste onelaco izenen bat. Laugarrengo: gaucia oquer datorrenian, gaucia eguin evanari izentadu baga, eta nor dan jaquin baga gauza charren bat esatia. Urteten deutzu motzac axcoriac, eta

(1) 1. Cor. cap. v. 44.

dinozu: escu bijac evagui biar leuzquijoz au eguin evanari. Bostgarrena da, atzetic esatia: demoninuaren genijua, diabrubaren mijna, arraijuen castia, isilduco alaz nos, edo nos. Birao gusti onec pecatu venial dira euren ez, escandalu, edo beste gauzaren bat gaitic mortal ezpadira.

Asquenengo moduba da: noribait gachen bat etorri daquijola escatutia, esango balitz leguez: milla demoninoc eruan daijela, tripa min gogorrac garbitu daijala, arren bada beso bijac igartu daquijozala; lupu gogorrac jo daijala, corroncija gogorrac eruan aijala, ez aila viciric etorri, eta beste onelaco aibat modu. Escatuten dan gacha andija bada, eta jazo daquijon gogo, edo deseoric badago, pecatu mortala izango da. Jauna, esan oi dabe gueijenac, maldicinoc asco beta dodaz, baña ezтира inos vijotzetic izan, eztot etorri daquijuen intencinocoric euqui. Baña au ecin beti sinistu leiquezube. Gura dozube jaquin zuben birao orreec intencinoiagaz izan dirian ala ez? Ara bada: biraua eguin deutzazun ori bada lastan dozun senar, emaste, seme, alaba, edo adisquide, nogaz baquian zagozan aserre baga, arrabija baga, deslai, uste baga leguez, eta descuido moduban; ezau garri, edo señalia da etzendubala euqui gogo, edo vorondate dongaric. Baña birao ori eguin badeutzazu ceure arerijo bati, nogaz zagozan gustiz aserraturic, eta ezarri ceuntzarian irrituric bacengozan eguin entzuzan caltiac gaitic; edo bacengozan noribait esan, edo contetan, ezaugarri, edo señalia da intencinoiagaz ezarri cendubala, eta pecatu mortala dala. Esateraco: ostuten deutzube diru zatiren bat, edo falta andija eguiten deutzun gauzaren bat, eta irritu, eta aserraturic gustijori, dinozu: arren bada beso bijac igartu daquijozala, neure diruba,

edo aibeste falta eguiten deutzan gaucia quendu deutzanari. Emoten deutzube auci bat, eta zuri eritzi arren eztaucala emoten deutzunac errazoien guerizaric bere, irabasten deutzu, eta ifinten zaitu, esan oi dana leguez calien erdijan ondasun baga, diru baga, eta cer jan eztauczula. Irrituric gustijori abijetan zara birao urtica: arren bada ni ifini nabena leguez icusi deila; eztaquijola lucidu lapurzarrari niri quendu deustanac; ateric ate icusi daidala. Onelaco maldicinoiac bijotzetie izan oi dira, eta pecatu mortal.

Baderitzu eztriala onelacuac ezarten oi dituzuzan birauac, esan eguidazu: Nos ezarten oi dituzuz? Ez oi dira izaten araco gach eguiten deutzubenian; gachac estuten zaituzanian, bera gomuta dozunian, edo noribait esaten deutzazunian? Bada icusiric cer jazo oi dan ordu-ban, gurata gura ez confesadu biar dozu gogo, edo intencinoiagaz izan diriala. Beguiratu daigun cer jazoten dan noribait ezarten deutzazuzanian. Abijetan zara ceure adisquide bati contetan bestiac eguin deutzuzan calte, eta gachac; andizcatu, edo ponderetan dituzuz al daizun gustija; cembat eta ponderadubago, aibat eta minago atsacabia; cembat eta minago atsacabia, aibat eta erriago zure arrabija; cembat eta erriago arrabija, aibat eta gogorrigo biraua; eta cembat eta gogorrigo biraua, aibat gogozcuago, eta orregaitic pecatu mortal. Ez Jauna olacoric, esango dozu; Ain dira andijac eguin deutzazan caltiac, ain gogorrac ecarri deutzazan gachac, ce daquijen gustijac dagoz arrituric, gustijac deuzte erruqui, gustijac dirauzte errazola daucadala; baña alambere ezteutzat gachic nai. Eguija da araco gomuta dodazanian, edo euren ganian verbaz naganian, neure bijotza erdibituten jatana sentimentu, eta atsacabien po-

derez, eta ordu berian aurrian beneuca, eztaquidana cer eguingo neuzquijon, eta ordubanche birao, eta maldicinoiac botaten deutzadazana; baña ez oi dira gogotic izaten, bertatic iragoten jat, eta astu ezquero ezteutzat jaramonic eguiten, eta damututen bere jat.

Ay, neure Christinaubac, noc au sinistuco deutzu? Arrabija andija ceuntzan, irritu, eta aserraturic cengozan eguin entzuzan gach, eta caltien anditasunagaz, eztaquizu cer eguingo ceuntzan aurrian euqui bacendu; modu onetan cengozala birao, eta maldicinoc icaragarrijae bota ceuntzazan; eta etziriala vijotzetic izan dinozu? Noc nai dozu au sinistu daguizun? Ez inoc. Edo noc esango dan vorondate gustijagaz, bijotz osuagaz, eta gogo, edo intencinoc betiagaz ezarri ceuntzazala. Bertatic irago jatzun. Ara Christinaubac, pecatu mortal eguiteco dempora apur pusca bat da asco; bada vorondatic beingo beinguan nai izatia da asco; berbertatic baija, edo consentimentuba baño ezta biar. Berbertatic damutu jatzun. Ondo da damututia, baña beindunic bein gacha eguin zan. Emon eguijozu su polvoraz beteric barrica bati ceure arrabijuagaz, jaurtigu eguijozu guizon bati balazo bat ceure aserriagaz; esan cinaique etzeutzazula zuc su emon barriquiari, edo eztozula il guizona arrabijuagaz izan dalaco, bertatic irago jatzulaco, edo laster damutu jatzulaco? Zeuc ezagutuco dozu au zoraquerija dala. Bardin da bada birauagaitic isinten dozun achaquija. Orregaitic, ceure arerijo, edo gach eguin deutzunen contraco maldicinoiac, pecatu mortal dira.

Beste batzuc esan oi dabe: birao asco egotzi ditudaz, baña ezta daucadan ecandu, edo costumbria baño. Ecandu charra daucazu? Aibat eta dongago, bada oitura, edo ecanduzco pecatuba andijagua da bestelacua

*Berbertatic  
baiduri-  
ja baño  
on da binc.*



baño. Au dacuzcu beste pecatubetan. Andijagua da ecanduz eguino peccatu loija ecandu baguia baño; bardin lapurretia, guzurrezco juramentu eguitia, eta beste edo ceimbere peccatu. Ecandu donguiac ezteutza quencen vorondatiari bere escubide, gogo, edo consentimentuba, eta alan ondo eta ondo izan leiteque ecanduz eguiten dana vorondatiac nai izatia. Eta esan eguidazu, ccr eguin dozu ecandu cital ori goitu, edo vencietao? Ce indar eguin dozu? Ce modu artu dozu ceugandic quenceco? Ecerbercz. Ecerbercz. Dacuzcuna da, cz bacarric ceubenez, ezta Confesoriac aguinduric bere eguin nai dozula ecer, ecandu cital au quenceco. Icusiric Confesoriac ecandu au aurrera doiala, emoten deutzuz bera quenceco penitencia oncen deritzazanac. Confesadu zaitezala ilabeteric ilabetera, birao eguiten dozun bacochian luurrari mun eguin deijozula, dan lecuban dala. Belanico ifiniric Ave Marija bat errezadu daizula, eztaizula egun atan afaldu, edo beste onelaco batzuc. Bete, edo cumpletan dozuz penitencia onec? Aibat achaquiya billatu oi dozuz ez eguiteco; bertan beera ichi dozuz, eta ecandu gvestua quendubagaz juan biarran acijaz dua: orregairic ecandu ori badaucazu ceure erruz daucazu, ceuc nai dozulaco, bera quenceco ecer eguin gura eztozulaco, eta achaquiya orrec ezteutzu ecer balijo.

21. Baña emon daigun zure birao orrec gogo, edo intencinoe donga baga izan diriala; alambere jazo leiteque peccatu mortal izatia; eta da araco exemplu charra, edo escandaluba emoten danian, edo beste gauzaren bat gaitic; eta alan semiac gurasuari, gurasuac semiari, senarrac emastari, eta emastiac senarrari botaten deutzazanac gucienetan peccatu mortal dira, aserre, eta arrabijaz badira. Seme alabac gurasuai botaten deutzazanac pecc-

*gachbidia*

tu mortal dira, ucatuten deutzelaco zor deutzen lotza, eta beguiraune, edo erresetua. Gurasuac umiai, edo seme alabai egozten deutzezanac, pecatu mortal dira, ezteutzelaco emoten zor deutzen aciquera, eta exemplu ona. Senarrac emastiari, eta emastiac senarrari eguiten deutzezanac pecatu mortal dira, ucatuten deutzelaco alcarri zor deutzen amodijua, eta austen dabeelaco alcarregaz jaon biar daben baquia. Ezta erraz biranac botateco ecanduba daguan echian, ez pecatu mortalian egotia. Baderitzube larregui eztuten dodala dinodanian pecatu mortal diriala eche artecuen bata bestien contraco maldicinoiac, zabilzaz edocein lecutatic, nai dala uri, eta errietatic, nai dala baso, eta soluetatic, nai dala mendi, eta bideetatic, eta ezagutuco dozube errazoeric daucandan ala ez. Arritu, mututu, eta odol malcoz negar eguitrecua da icusten dana. Alde gustijetatic ezta enzuten, ezpada birao, edo maldicinoe icaragarrija. Umechu ozta verbaz dauijenac, eta luurria aguiri eztirianac, beti dauque auan birao, eta maldicinoia; eurenagaz ecin urten dabeenian, lagunacaz aserratuten dirianian, edo jocuac dongaro urten daijuenian, nai eurac gura ez lequien gauzaren bat jazoten jaquenian, ce verba astunac! Ce birao gogorrac! ce maldicinoe icaragarrija! Baña celaco arrabijagaz? Celaco subagaz? Esan leiteque infernucosubagaz erreric dauquela euren barruba, eta ango garrez gorituric euren mijna. Eta nundic dator icaragarrizco gach au? Euren echeacuac, euren gurasuac emon deutzeen exemplu charretic.

Ezpabere beguira cer jazo oi dan echadi, edo familia ascotan. Ezta enzuten ezpada diadarra, aguiraquia, errietia, asserria, demoninua, diabruba, birao, eta maldaricacinoia. Eztirudi euren echiac, eztinot Christinau-

ben vici lecuba, ezta guizoneena bere; obeto esan leique  
infernuba berbera dala. Danzuben gustijac dagoz bertara  
adi, arritu eta concorturic. Auzotegui gustiya dago es-  
candalizaduric. Cer nai dozube bada icasi daijen onela-  
co escolan? Celan birao, eta maldicinoecarijac izango  
eztira eguneco ordu gustijetan badanzube infernuco lec-  
cinoe au? Edonun dira aguri noren semiac dirian. Eta  
alambere nosbait confesetara datozean esan oi dabe  
otz otzic: Jauna, birao asco bota ditudaz, baña eztira  
vijotzeric izan. Eta echian, eta campuan emon dozun es-  
candaluba? Seme alabai emon deutezun exemplu donguia?  
Cer eguingo dot Jauna? dinue: seme lotza galduco batzuc  
daucadaz; eztabe nire esanic eguin gura: lancian lancian  
lotzia galcen deuzte, eurac nai daben gustijagaz urten  
biar dabe; ecin inundic bere arteztu dodaz; arrabijau era-  
soten deuzte, neure arimia galdu erasoten deuzte, eta  
birao erasoten deuzte; baña ezta beste gauzagaitic ezpa-  
da bildur pusca bat euqui deiden. Esan eguidazube gu-  
raso madaricatubac, cer aurreratu dozube birao orreecaz?  
Ondu dira euecaz zuben semiac? Dira leen baño humi-  
lago? Eguiten dabe obeto zure esana? Deutzube bildur,  
edo lotza gueijago? Eztaquit azartu, edo atreviduco za-  
tian baijez esaten.

Baña cetan nago? Zuben semiac ain gvestuac badi-  
ra, zuben esanic eguin nai ezpadabe, lotzia galduten ba-  
deutzube, bildurric ezpadeutzube; ceuben birao, eta mal-  
dicioiac gaitic da. Era oraindio bere, dirian baño bere  
gvestuago izango dira birauac ezarteco ecandu cital ori-  
quencen ezpadozube. Eztozube gauza onic izango, ez se-  
meetan, ez alabeetan, ez ondasunetan, ez osasunian, ez  
beste gaucetan. Espiritu Santubac dirauzcu: amaren bi-  
rao, edo maldicioiac eche gustiya iruliten dau sustrai,

*gachbidatu  
rie.*

edo cimentubetaraino. (1) Eztago semienzat veneno gogorragoric, eztago espata zorrotzagoric, eztago arraijo bildurgarrijagoric gurasuen birao, eta maldicinoia baño. Orregaitic eutzen anchinaco leguian ain bildur andija. Ecuzen ce gach bildurgarrijac, ce gach icaragarrijac, ce calte ezquergac etozan beragaitic, ez bacarric euren semien ganera, baita bere semien seme, onen urrengo, eta onecgandic jaijoco cirianacgana. Au ecusen Canaanegan: Ezarri eutzan bere guraso Noec maldicinoia? bada ez bacarric etorri zan bere ganera, ezpada eldu zan beragandic etorri cirian generacinoe gustijetara, eta beti iraun evan euretan. A gurasuac, gurasuac! Ce bildur izateco dan zuben birao, eta maldicinoetatic datozala ceuben semietan, eta venturaz euretatic datozan ostecuetan icusten dirian gach, lan, auci, pobreza, eta lanac. Eztauczuz zubez bota, eta bertatic jazoten; baña ecin ucatu cinaique eguija dala Jaungoicuac berac dinuana: Amaren birauac eche gustija iruliten dabela.

Bildurgarrijac dira benetan birao gusti oneec; baña oraindio bere gustiz dira icaragarrijaguac ascoc, eta ascoc euren burubai ezarten deutzeezanac. Sinizezgarriztat euquico gueunque Christinau batec, bere burubari egotzi al leijozala birao ain itzalsubac, egunian egunian euzungo ezpaguenduz. Dagoz guizon, eta emacume ain estu, ain erre, ain arrabijadubac, ce aserreren bat badauque, nai eztabeen gauzaren bat jazoten bajaque, auciren bat emoten bajaque, bertatic abijetan dira euren burubai birao urtica. Baña ce birao, eta madaricacinoe ain gogor, ain icaragarrijac enzuten ez dira? Enenduque arraijo batec emenche bertan erdibituco? Enenduque luurac iruncico? Eztago demonino bat, ni infernubetara eruateco?

(1) *Ecel. 3 v. 11.*

**Eztago** niretzat erijotzaric bere? Uste leiteque ecin guizon, edo emacumec onelaco gachic gura, edo deseadu leijala, eta alan eztabeela bijotzetic urteten, eta orregaitic intencinoe baga diriala; baña sarri, eta sarri alaco vici-tasunagaz, alaco arrabijagaz esan oi ditubez, ce edonoc sinistu leique bijotz bijotzetic diriala; eta dudatzaca sarri, eta sarri intencinoiagaz izango dira; ecin uste leiteque guizon, edo emacume batec benetan nai leuzquijola bere burubari onelaco zori galduric; baña dacuzcu asco, eta asco ibaira bota diriala, cuchilo bategaz il diriala, urcatu diriala, uste baleiteque bere ecin inoc onelaco gachic bere burubari nai izan leiquijola. Baña ezpadauque bere, inoren aurrian esaten baditubez, beti izango da pecatu mortal, emoten dabeen escandaluba gaitic, bada edonori laztuten jaco uliac onelaco birao, eta maldicinoiac enzunagaz.

*Erasoguinza.*

Ondo, eta biar dan moduban beguiratuco balebe Christinaubac cer eguiten dabeen euren proximuari birao eguiten deitzenian, ez litzatequez enzungo aĩmbeste maldicinoe; bada icusico leuquee batetic eztabeela ecer aurreratuten, eta bestetic euren burubai gach, eta calteric andijena eguiten deitzeela. Batetic: eztozu ecer aurreratuten, bada eztozu birauagaz eguin jatzun caltia osotuco, ezara gach eguin deutzunagaz vengaduco. Quenduten deutzube diru, edo ondasunen bat, ezteutzube zure birauagaitic biurtuco. Emoten deutzube auciren bat, eztozu maldicinoiacaz irabacico; eguiten deutzube epai, edo zauriren bat, ez jatzu maldicinoiacaz osatuco Bacenqui ceure maldicinoiacaz biurtuco deutzubela ostu, edo quendu deutzubena, irabacico dozula aucija, osatuco jatzula zauri, edo epaija, achauquijaren bat euqui cinaique

birao eguiteco; baña jaquinic etzatzula onelaco gauzarie jazoco, ez beste onic etorrico, ceri ezarri cinaijiz birao, eta madaricacinoe orreec? Etzara ostu deutzunagaz, calte, edo gach eguin deutzunagaz venguetan. Zuc esan, eta escatu arren beso bijac jausi daquijozala, ceure diru, ondasun, eta gaucia ostu deutzunari, etzacoz orregaitic jausico. Zuc esan arren milla demoninoc eruan daijela, eztabe orregaitic eruango. Zuc esan arren aucija emon deutzunagaitic, arren bada ateric ate icusi daguidala, eztozu orregaitic esquian ibilten icusico. Eta alan zu etzara orregaz venguetan, ezteutzazu gachic eguiten.

Bestetic, ceure burubari bene benetan gach eguiten deutzazu, eta au ez edocein modutacua, ezpada eguin cinaijanic andijena. Erbestetuten zara cerutic, ilten dozu ceure arimia, galcen dozuz ceru, eta gracijaco ondasunnic andijenac, eguiten zara demoninuaren mempeco, edo esclavo, eta condenetan dozu ceure buruba infernuto presondegui, edo carcelara. Orra cer irabaci dozun ceure birao, edo maldicinoiacaz. Cer dauque ce icusi zuri ceure arerijoric crubel, eta gogorrenac eguin al leiquezuzan gach, eta calte gustijac, zuc ceure burubari eguin deutzazuzanacaz? Eztira onen guericia bere. Ce zoraquerija andijagoric au baño? Gach eguin deutzubelaco, beste andijago bat eguin ceure burubari. Ondasunen batzuc quendu deutzubezalaco, andijaguac bota ichasora: epai bat eguin deutzubelaco, erijotzaric crubelena emon zeure burubari. Ce guizon sensundunec eguin leique onelaco eraquerijaric. Esaidazu; esan deutzuben verbachu garratz bat gaitic sartuco bacendu zeure bularretic espata bat, eta gueratuco bacina ilic: edo ostu deutzubelaco diru zatiren bat, botaco bacenduz ichasuen erdira ceure ondasun gustijac; cer esango litzateque zu-

gaitic? Edo cer esango ceunque ceuc beste bat gaitic beste onembeste eguingo baleu? Etzeunque esango burutic daguala, sensuna galdu dabela, eta zoratu jacala? Bada auxe berberau, eta gneiijago eguiten dozu birao, eta maldicinoiac botaten deutzazuzanian gach, edo calteren bat eguin deutzunari. Modu onetan ceure ganera datoz bestienzat escatu dituzuzan gachac, eta ceure ganian jausi da bestiari ezarri deutzazun birao, eta maldicinoia, eta jausi zara ceure arerijuarenzat idigui dozun trocan.

Orra guizon aserre, eta irrituba, cer atera dozun ceure birao gustijacaz. Eztozu artu quendu deutzubena, ez jatzu osotu eguin deutzuben caltia, echaco gachic etorri ceure arerijo, edo gachquinari, zure ganian jausi da zure beretzat escatu dozun gacha, eta ondatu dozu ceure buruba zori gogorric andijenetan. Idigui eguizuz nosbait ceure arimaco beguijac, ezagututeco eguija gusti onec, eta etzaitez izan ceure burubaren arerijo ain gogor, eta erubela. Quendu eguizu ecandu cital ori, bete zaitez paciencijaz, eta jaquin eguizu, ceure arerijuacgandic venguetaco moduric onena dala ez venguetia, eta Jaungoicuari istia. Zure arerijuac gach eguiten badau, berac pagaduco dau mundu onetan, edo bestian, eta zuri emongo deutzu zure paciencija, eta malsotasunaren sari oso oso, eta betia, cein daucan gorderic ceruban. Amen.

**XXXVIII. VERBALDIJA.**

*Ordiquerijaren ganian.*

**B**ostgarren Jaungoicuaren legueco mandamentubac galazoten deuzcuzan gaucetatic bat da orditutia. Onexen ganian izango da nire gaurco verbaldi, edo platiquia.

Badaquit provechu guichi ateraco dodana, dacuzdalaco ecandu galgarri onetan jausten dirianetatic gustiz guichi obetu, edo emendadu oi diriala. Baña alambere esango dot, edo oraindio jausi eztirianac jausi ezteitezan, edo ichi nai eztabeenac achaquijaric euqui eztaijen. Da bada ordiquerija ardao laarregui, eta sensuna galdu artian edatia. Ascoc eta ascoc uste dabe edan ala edan arren, eta sensuna galdu arren eztala orditutia, ezta pecatu bere estamangutic bota, edo bomitetan ezpada. Baña ez Christinaubac, ezta onelacoric biar pecatu mortal izateco, beia sensuna galdu ezquero larregui edanagaitic pecatu mortal da, eta sarri jazo oi da edanico ardaua botetia pecatu eguin baga, edo estamanguba otzic dagualaco, edo gachen bat daucalaco, edo beste gauzaren bat gaitic. Certan bada ezagutuco dogu orditic gagozana, edo orditugariana? Itanduco deutzazube. Ara bada. Araco bijaramonian gomuta eztozunian, cer eguin cenduban edan ezquero, eta gomuta badozu bere ezta ilunabarrian baño. Bestetan echian baquetzuba izanic eche, eta echecho gustijac goraberatu, edo errebolvietan dituzanian. Maldicioe, birao, juramentu, eta blasfemijac ezarten dituzanian onelaco ecanduric euqui baga. Hechera zatozania nundic zabilzan jaquin baga, emen larrapastadu, an estropezadu, bideric zabalena bedar dituzuzala, emeco ormia jo, ango munian echun, sasi onetan jausi, beste lupatzen etzin jaquin baga goxian, nun loitu dozun ceure soñecua. Onelaco gauzaric jazoten jatzunian orditic cengozan. Eta ifini zara zu modu onetan? Bertatic eranzun oi dabe gueijenac: ez Jauna. Orra demoninua- ren ichumendija.

Obeto ezagutu daizuben noraino elduten dan ordi- jen ichumendija, esan eguidazube: icusi dezube inos et-



diric? Jesus Jauna, eranzungo deutzazube, laarregui, uxa-  
la aimeste icusico ezpagueuduz. Bada gustiz guichi dira  
confesonarijuan aguiari dirianac, eztira icusten banaca bat,  
edo beste baño. Itandu bequijo ordiric andijenari; ar-  
dauac nosbait gachic eguin badeutza, edo orditu bada?  
Bertatic eranzungo dau: ondochu edan, eta alegrechu  
ifini bai, baño orditu inos bere ez. Mundu gustijac da-  
cuzaz ordiric, echequac dagoz lotzaturic, euren ganora  
bagaco verba gangarrac, onen ganian ecin egonac, adi  
erasoten deutze gustijai ardaoz aseric dagozana samarai-  
no, eta orregaitic bere eurac dinue; edan ondochu, eta  
alegrechu bai, baño orditu ez. Onelacuac jaquin daijen  
celaco pecatuba dan orditutia, esango dot norzuc peca-  
tu eguiten dabeen. Lenengo: eguiten dau pecatu conve-  
ni jacan baño ardao gueijago edaten dabenac; eta orre-  
gaitic bere sensuna ilundu, edo galcen dabenac. Gauza  
bi dagoz ordiquerijan, bata da, conveni jacan baño ar-  
dao gueijago edatia, eta alan edango baleu bestetan eda-  
ten oi daben beste orditu baga, eta beste gachic eguin  
baga, eta usteric ardao oran edaten dabena bestetan lez-  
cua dala, eta senduago dalaco berac igarri baga, buru-  
ba cruango baleuzquijo, ez litzateque pecatu izango.  
Bardin da, edocimbere beste gauzagaitic bere erru baga,  
eta laarregui edan baga, buruba, edo sensuna ardauac  
galduco baleuzquijo. Bigarrengo: ordituteco pelleburuban  
ifinten dirianac euren guraz, edo vorondatez, celacuac  
dirian ardandegui, edo tabernara duazanac jaquinic ara-  
duazanian guichi, edo guei ardaauan irago oi diriala,  
eta sarri ordituten diriala. Irugarrengo: ardaua edateco  
mugaldi, edo ocasinoc billa dabilzanac, prest dagozala  
dauquenian al daijen gustija edateco ase ase eguin ar-  
tian. Laugarrengo: joco, erromerija, jolaz, honra, edo

convitera duazanac aldaijen ardao gustija edaterren.

Bostgarrengo: ordijacaz batuten dirianac, onelacua-  
caz lagunduten dirian gustijan, edo gueijenetan orditu oi  
diriala, edo bildur badira euracaz badabilz, eurac lezco  
ordi urtengo dabeela: bildur au beti euqui biar dau ordi-  
jacaz batuten danac. Seigarrengo: norbaiti larregui eda-  
rasoten deutzanac bere porfijacaz, aserratuten dala be-  
re escutic artu nai ezpadau. Bardin eguiten dau pecatu  
inor ordituten dabenac, esan daguijan isilic daucan, eta  
aguerta nai eztaben gauzaren bat; edo eguin daguijan,  
bere sensunian daguala eguingo ez lenquiana. Zaspigar-  
rengo: eguiten dau pecatu ardaua emoten deutzanac, be-  
ragaz ordituco dala daquijanari. Modu onetan eguiten  
oi dabe pecatu tabernarijac, ceinzuc jaquin arren norzuc  
dirian ordituten dirianac, orregaitic bere ezteutzen uca-  
tuten onelacuai escatuten dabeen ardao gustija. Bardin  
eguiten dabe pecatu, ichiten badeutze tabernan egoten  
berandu artian jocuan, eta edaten. Gauza bi gaitic eu-  
qui oi ditubeez tabernarijac onelacuac; bata, ardao guei-  
jago edanagaz sisiari datorquijona gueijago izan dedin:  
bestia, ura ardao orde salduterren; bada edanic dagoza-  
nian ezteztzena leguez igarten ardauac ura daucan ala  
ez, naico beste ur ezarten deutze. Baña, ez bata, ez bes-  
tiagaitic onelaco gauzaric eguin leije. Ez bata gaitic; ba-  
da badinue ecin bestelan pagadu al leijela sisiagaitic emon  
biar dabeena, bertatic eranzuten jaque, jaquin biar eve-  
la sisia errematadu evenian, ecin onacoric eguin leite-  
quiala, eta ezpequijen, euren erru, edo culpa da ez ja-  
quitia, edocein Christinauc jaquin biar dabena. Ez bes-  
tiac: bada ecin saldu leiteque ura ardao orde, eta ardaua-  
ren precijuan. Jaquinic, ardaua escatuten dabenac ordi-  
tuteco dabela, eta ezpadago beste moduric ucatuteco.

nastadu leiyo ardauari ura, orditu eztedin, baña ecin eruan leiyo emon jacan ardauac balijo daben baño gueijago. Escatuten deutzu azumbre bat ardao, zuc ifintendozu azumberdi ardao, eta urez beteten dozu emparaduba, ecin eruan cinaijo azumberdijen diruba baño.

Ay neure Christinaubac, combat gach, cembat lan, eta cembat atzacabetatic igues eguingo ceunquee, taberna, eta ordituteo pelleburubetatic alderatu, edo apartaduco bacinat! Badaquit ascori eta ascori astun, eta gogor eguingo jatzuna tabernia, jocua, eta ceuben lagunacaz daucazun gozaldija, edo diversinoia istia; baña esan eguidazu; bacenqui tabernaco echia jausi aguinian daguala, sartuce cinateque bertan? Bacenqui an salduten dan ardauac venenua daucala, edango ceunque? Edonoc esango dau, zoro batec bere olaco eraqueriaric eguingo ez lenquijala. Nun da bada zure errazoia? Nun da zure fedia? Obija, edo sepultura baten aarrac janic, ustelduric, eta autz biurturic gueratuce dan gorputzagaitic eguingo ceunquiana, eztozu eguingo ceure arinia gaitic, izanic au Jesu Christoren erijotza, eta pasinoia-gaz erosija, bere odolagaz garbituba, ceruco herederat-zat autu edo escogiduba? Ce zoraquerija andijagoric au baño? Ce ichamendi gogorragoric? Baña badanzut ceranzungo deuztasun. Jauna, esango deuztazu. Eguija da, ni tabernara juan oi nazana, baña neure vicijan bere ez naz juan ara ordituteo ustiagaz. Sinistuten deut-zut eguija dinozula; baña ecin ueatu cinaiquet sarni eta sarni jazo jatzula, taberna, edo beste ardao edaten batuzen zarian lecuban jazo jatzula zuc uste izan eztozuna, eta damutu izan jatzula an anquitutia.

Obeto ezagutu daizun ce pelleburuz betia dan olaco lecubetan egotia: contu eguizu topetan zaitudazala taber-

nara zuazala. Itanduco baneutzu, nora zuazan? Bertatie etanzungo ceuzquet: Jauna, gaur jaijeguna da, aste gustijan egonaz biarran, eta alan nua tabernara quartiluchu bat ezarri, verbaldi bat eguin lagun, eta adisquidiacaz, eta gaberaco echera. Orra zure gogua, ona eta errazoezcua. Sarcen zara tabernan, ateraten dozu quartilu bat, ropetan dozu adisquide bat, emoten deutzazu ceure escutic trago bat. Bestiac, zu baño guichijago ez izaterren, ateraten dau beste quartilu bat, emoten deutzazu trago bat bere escuric. Zuc icusiric bestiac eguin dabena eztozu guichijago izan gura, eta ateraten dozu beste bat, eta emoten deutzazu trago bat. Trago bat dua, trago bat dator: quartilu bat dua, quartilu bat dator. Onetan batuten dira beste adisquide batzuc, eta dempora emoterren asten zara jocuan. Berotuten zara joco, eta ardauagaz; ardaua dua, eta ardaua dator; jocua dua, eta jocua dator. Eztaquizu ez cer edaten dozun, ez ce ordu dan. Urteten dozu tabernatic gaberdijan (goxaldian ezpalitz). Artuten dozu echeraco bidia estropezuca, oñac loca, buruba arin, bidiac cabidu ecin zaituzala. Elduten zara echera, eta orra infernuba. Emastiac verbachu bat bada-gui, gustija da diadarra, demoninua, diabrubu, verba astuna, eta aguiraquia. Bijaramonian barriz? Buruba astun, gorputza nagui, eta biarreraco alper. Orra cetan gueratu dan quartiluchu bat edan, eta echera demporaz juateco gogua. Eldu ezpacina tabernara, baque obian egongo cinian echian, eta demporaz jaguico cinian biarrera.

Ucatu cinaique, Christinauba, sarri eta sarri au jazo jatzula? Ezetz deritz. Eta Jaunari milla esquer gueijago ezpada; bada taberna, eta ardao artian jazo oi dira aserre, errijeta, eta auciric gogorrenac. Espiritu Santubac dino (1)

Ardauan daguala aserria, pobrecia, verba astuna, eta gach gustijen sustraija. Asco galdu dituz ardauc, dino Jaquiusubac. Eguija au icusi nai badogu, eztaucagu beguiratu baño egunian egunian jazo oi dana. Baduaz lagun, edo adisquide batzuc trago bat ezartera, eta edaten dabe uste eveen baño puscabat gueijago. Berotuten dira, eta ardaua verbatsuba dana leguez, esaten dau euretatic batec bestiari gogua betetan ezteutzan gauzaren bat. Aserratuten jaca orregaitic, eta esaten deutza beste gogorragochubat: verbaric verbara, errazoeric errazoera, aserratuten dira, eta dirautza batac bestiari mingotztuten daben gauzaren bat. Cembat eta aurrerago, aimbat eta aserriago, cembat eta aserriago, aimbat eta verba astunago, ezarten deutzez alcarri escubac, edo au baga, ecin enzun gura leuquian verbaren bat gaitic emoten da querella bat. Sarcen dira, emetic Escribaubac, andic Letradubac, batetic Procuradoriac, besteric Alguacilac, betoz testigubac, bijuaz enzun dabeenac. Eguiten dira proceso andijac, ateraten dira bacoachac daquizan, eta jaquin al daizan bestiaren falta, edo obenac. Gastetan dabee dauquen gustija, eurac dabilz batetic bestera biarric eguin baga, euren cereguinen jaramonic eguin baga. Escribau, Letrau, eta Procuradoriac darue dauquen gustija, eurac gueratuten dira alcandora utsian, cer jan, cer janci eztaquela, ez eurac, ez euren umiac.

Orra cer jazo oi jaquen ardao edaliai. Orregaitic dirauzeu Espiritu Santubac: nori datorquijoz gachac, nequiac, aserriac, aucijac, pobrecia, ez enquiija, eta neque gustija? Ardao zalai, dino, edo erantzuten dau Jaunac berac. (2) Nun eguiten oi dira buru bagaco tratu, eta hjanza galgarriac? Gueijenac tabernetan, eta ardao ar-

(1) *Eccl. cap. 31 v. 30.* (2) *Prov. xlii sup.*

ian. Eztot ceubec baño beste testiguric nai. Cembat echagunza icusten dituzubez salduric, edo zorrez beteric? Cembat echagun, eta euren familia euren ečetatic campora burubaco fianza onelacuac gaitic? Jaquin nai bado-gu nun, celan, eta ce modutan sartu cirian fianza onetan, icusico dogu gueijenac eguin ciriala tabernetan, eta ardao artian. Orraco guizon galdu, ceinzuc ecin inundic aurquitu al even euren tratu oquerren fijadoreric, com-bidadu even echagun ori trago bat edatera. Emon eut-zeen ondochu edaten, eta araco beroric eguanian erre-gu, palagu, eta verba labanacaz sartu craso eutzen fjanza galgarri orretan, eta orain dacutza bere echalde ba-ga, cer jan, eta janci eztaucala, alsis beteric, ordi billo-xic, eta venturaz ateric ate ogui copau bat jango ba-dau. Ceubec sarri eta sarri icusi izango dozube beste onembeste. Emetic ezagutuco dozube, ce eguija andija dan, Espiritu Santubac dinuana: Nequezale ordija ezta-inos aberatz izango. (1)

Andijac dira benetan ordiquerijac dacarzan calte, eta gachac; baña andijaguac dira pare бага emacumienac dacarzanac, guizonenac baño. Emacume ordija, aserre andija, dino Jaquinsubac, lotzari andija senarrenzat, eta senide gustijenzat; ecin escutadu leiteque bere ezaintasuna; edonun aguirico da ce itsusi dan. (2) Lenago galduco dau echia emacume, edo emaste ordijac, guizon, edo senar ordijac baño. Errazao jaca emastiari senar ordija-gandic echeco gauzac escuteria, senarrari emastiagandic baño. Emaste ordi batec salduco dau echian dan gustija, senarrac eder jaquin orduco; bere erropac, umienac, senarrenac, izara, zamau, urdai, cecin, eta aora eruan biar dabena, ardaua crosterren, eta ordituterren;

(1) Eccl. 19 v. 1. (2) Iud. cap. 26 v. 11.

bada gauza gusti oneec euren ardurara dagozana leguez, inoc jaquin, eta ezagutu baga juango da saldubagaz, eta senarrac uste dabenian eche betia daucala, aurquituco dau uts utsic. Baña ez jaca ain erraz senar ordi bati au eguitia; bada nundic edo andic ezagutuco dau emas-tiac cer falta jacan, eta eguingo dau aleguina bere se-narragandic escutetaco. Auxe da Jaquinsunac dirauz-cuna: Emacume jaquitunac echia ereguiten dau, edo echia aberastuten dau; eta emacume sensun baguiac, ce-lacua dan ordija, echeric aberatzena iruliten dau bere escubacaz. ((1) Baña ezta emen gueratuten emacume ordi baten lotzabaquerija; beste gauzaric ezpadauca cegaz erosi ardaua, bere gorputza emongo dau ardaoz aseter-ren. Cembat bidar icusi izango dozube au jazoten?

Baña gneijen bildurtu biar gaituzana da, ordijac dau- quen pelleburuba infernura jausteco. Ain da gach ordi bat salvetia, ce, dino San Juan Chrisostomoc, ecin lei-quian gancia dala. Ordi bat, dino Santu andi oneec, ecin ecec bere atera leique daucan ecandu citaletic. Ifini be-quijoz beguijen aurrian Jaungoicuac beragaitic eguin di-tuzan mirarijac; irago dituzan neque, pena, zauri, eta erijotzia, eguin deutzazan mesediac, eta bere adisquidien-zat gorderic daucazan gloriya, atzeguin, eta ondasunac, eztau cirquinic bere eguingo. Idigui bediz bere aurrian infernucoc pena icaragarri gustijac, ango su, arrabija, al-car copauca jaate, erre, eta quisquildutia, ango neque, min, eta alen beti betico, eta inos bere amaitu baga irau-tia, eztau jaramonic eguingo. Verba baten, eztago, dino Santu oneec, ordi bat salvadu al leijan gauzaric. (2) Ceu- bec daetzube zaarrago, eta gozuago eguiten jaquela ar-daua; aurrerago, eta zaliago; indar guichiago, eta naija-

(1) Prov. cap. 14 v. 1. (2) Hom. de crap et ebriet.

go. Eta celan gueratu oi dira orditic gueijenac zaarta deitezanian, edo venturaz leenago? Cocoturic, sensun baga, adin baga, podere baga, abere, edo animalija sensunbagac leguez, edo obeto esaterren, subil bat dirudijela. Ez confesetaco dagoz, ez Jaungoicuari parca escatuteco, ezta bera gomuta izateco bere. Euren gogo gustija, euren gurari gustija, eta euren amesa bere, ezta besteric, ezpada nundic nora ardaua edango dabeen. Ez eguizube uste au nire burueraren bat dala. Espiritu Santabac dino, auxe jazoten dala. Ez eguijozu beguiratu ardauari vasuan dagueanian, dino, ez eguizu esan: ay ce colote ederra daucan: gozo, eta bigun iragoco da zute estratitic, baña guenian suguiac leguez jango deutzu zeure barruba, eta ersugue, edo basiliscuac leguez, beteco zaituz benenoz. Egongo zara losorro astunian dagnana leguez: azotadu arren eztozu minic artuco; narraz erabilí arren, eztozu sentiduco, eta amesetan baño ezpada bere, egongo zara esaten: nos iratzartuco naz, eta edango dot ardana. (1) Auxe izan oi da ordijen vici moduba, eta alainche ilten bere oi dira; batzuc bertarico aldi gues-to, edo accidentiagaz, confesadu baga, eta boste Sacramenturic artu haga. Beste batzuc confesetan dira, baña celan? ganora baga, cer eguiten dabeen jaquin baga, erdi cocoturic, eta abasberuan, eta ichumustuban.

*Erasoguinza.*

o Icusi dozube, Christinaubac, cembat, eta ce icatagar-rizco gachac dacarzan ordiquerijac, alan gorputzian, cein da ariman, alan gorputzeco ondasunetan, cein da arimacuetan. Etzaitte bada miraritu, edo admiradu Confesore, eta Predicadoriac beti beti badagoz aleguinac eguiten zubeo jausi etzaitezen ecandu onetan, eta jausi bazare, andic aterateco. Dacuze erri gustijetatic zabaldiric

(1) Prov. c. 23 v. 35.



pecatu au, eche, cale, eta bideran aurquituten ditubeez ordijac; batzuc onen ganian ecin egon diriala; beste batzue verba ero, gangar, eta ganora bagac esaten ditubezala, eta venturaz loi, eta atsitubac; onec eztauquela baqueric inogaz, areec euren emaste, seme, eta echeco gustijac darabilzela uxaturic. Auxegaitie aimbeste bidar prediquetan oi dabe ordijen contra. Cer deutze gueijago bere contra, edo beste pecatuben contra prediquetia? Cer emoten jaque au gaitie? Cer irabasten dabe? Ecerberetz. Eta alambere beti zagocce esaten, onec predicadorioc, Cura onec beti beti ordijen contra, ezpalego leguez beste peccaturic, edo beste gauzatic ceren ganian predicadu. Eztauquenian cer esan, edo acabetan jaquenian sermoia, equin ordijai, eta taberniari; beti danque eguinitic sermoia. Ez Christinaubac, ezra au cegaitie ain sari prediquetan dan ecandu onen contra. Zubei deutzuben amodijo, eta ondu guriac, zuben erruquijac au crasoren deutzee. Nai dozube onen ganian verbaric eztaijen Arima-zain, edo Cura Jaun, eta Predicadoriac? Quendu eguizube ecandu cital au, eta orra eztozube enzungo ordijen contraco sermoeric: baña zubez aurrera ordiquerija, eta ez predicadu bere contra, ori ecin izan leiteque.

Beste gach gustiz andi bat icusten da ordijetan. Ez-tira aguertuten confesetara urtian bein baño. Elcen da aste Santuba: celaco esturac? Celaco izerdijac? Celaco larrijac? Ez-tira confesetara juango lenengo egunetan, ezpada araco gueijago luzatu ecin leiquezan asquenenguetan. Eta orduban celan elduten dira? Urcamondi batera balijuaz leguez. Beguiratuten dabe ce Confesore dagozan, an ete daguan bera eztauzanen bat, modu onetan engañadu al daijan, eta aguinda eztejon ezteila tabernara

juan, eta alan ezta juango igaz, edo leenago confesadu evanagana: modu onetan dabil cer eguin eztaquijala. Orra cegaitic dirian ordijac ain ezagun aste Santuban. Confesoriac aguinduten badeutza ezteila tabernara eldu bere, berac zabalduten dau emon jacan penitencija. A ce gogorra dan urlija Confesore, enauca urrenguan artuba. Ezaizu guizon ichuba, cer nai ceunque eguin deizun Confesoriac, badacuz tabernara juatia bardin bardin dala zurretzat, cein da orditutia? Orditutia bardin dala, cein da ceure eche, eta auzuac escandalicetia? Emon deutze Confesoriari diru polsaren bat, zuri aguindu deizun tabernara ez juateco? Celaco confesinoiac izango dira onelaco ordijenac? Alainche darue aurrera euren ecandu citala; beragaz elduco dira erijotzaco ordura, eta Jaungoicuac jaquin celacua izango dan orduban eguin daijen confesinoia, eguiten badabe. Idigui eguizubez nosbait ceuben beguillac, eta icusi eguizube infernuban beti betico jaus-teco daucazuben pelleburuba, eta ezauera onegaz artu eguizubez Confesoriac emonico penitencijac, goitu daguizuben ecandu ori Jaungoicuaren laguntasun, eta gracijagaz. Amen.

### *XXXIX VERBALDIJA.*

*Jaungoicuaren legueco seigarren aguindu, eta lenengo, pen-samentu loijen ganian.*

**J**aungoicuaren legueco seigarren mandamentuban aguinduten jacuna da, araguijazco peccaturic ez eguitia. Poz pocic ichico neque aguindu au azaldu, edo explicadu baga, daquidalaco eztala erraz lecu santu oni dagoquijon garbitasunagaz arguitan ifintia beronen contra eguiten dirian peccatubac; baña icusiric ain daguala zabal-

duric mundu gustitic pecatu itsusi au, ce arrainac amuban, eta chorijac sarian jausten diriana leguez, arcen dituzala demoninuac guizonac pecatu onetan, ecin isilian ichi neique. Eguingo dot aleguina al daidan garbitasunic andijenagaz bere ganian verba eguiteco.

Mandamentu onetan aguinduten jacuna da, garbi izatia gogo, edo pensamentu, verba, eta eguinza, edo obretan; eta alan iru modutan pecatu eguin leiteque mandamentu onetan. Lenengo: gogo, edo pensamentubagaz. Bigarren go verbaz, eta irugarren go eguitez, edo obraz. Ecin iruroc verbaldi, edo platica baten adi eraso leitequez, eta alan gaur bacarric izango da gogo, edo pensamentu loijen ganian. Eguiten dau bada pecatu gauza loijetan pensetan daguanac bere borondatez, edo berac nai dabela. Pensamentu loija burura etortia ezta pecatu, bada au etorri leiteque gueuc gura baga, eta alan eztago guengan. Pecatuba dago pensamentu loija sentidu, ezagutu, edo advertidu ezquero bertatic botateco aleguinic ez eguitian, edo pensamentu atan egon gura izatian. Esateraco: eguin cenduban nosbait araguijazco pecatu bat, jatorzu gogo, edo pensamentura orduban enqui cenduban limurija, edo ceure araguijan enqui cenduban gozua, edo gustuba; bada pensamentu au sentidu, edo ezagutu eta bertatic eguin bacenduban aleguina ceure gogo, edo pensamentutic quenceco, eztago peccaturic; bada etorri bajatzun pensamentu au, eta zuc eguin arren aleguina, irauñ bebañ demporaren bat, etzan zure vorondatez izan, eta vorondateric eztaguan le cuban eztago peccaturic. Baña etorri, eta sentidu, edo ezaguturic pensamentu ori, gueratuten bazara orduban enqui cenduban gozo, edo gustuari adi, bera icusten, edo lbarristetan bacengo leguez, orduban pecatu mortala

eguingo dozu, ceure ceure vorondatez, edo guraz daucazulaco, eta onixe dei eguiten jaca pensamentu consentiduba.

Ara irudi bat obeto aitu daizuben. Zagoz negu baten sutonduan lagun batzucaz, eta sentietan dozu erropa erre usaina; jaguiten zara beinguan, eta icusten dozu chingarchu bat itzatzu jacola zure erropiari; bada icusijaz batera abijetan bazara erropia irardausi, eta aleguina eguiten badozu chingarra andic quenceco, ecin esan leiteque zure erruz erre dala erropia. Alainche bada gogo, edo pensamentu charra, edo loijsa sentidu, eta bertatic aleguina eguiten badozu quenceco burutic, eztago peccaturic. Contu eguizu ain modutan itzatzu jacala chingarra zure erropiari, ce eguin alac eguin arren, ecin quendu dozula ceure erropatic dempora lucian; orduban bere ecin esan leiteque zure erruba dala. Modu onetan zuc aleguina eguiten badozu pensamentu loijsa quenceco, luzaro iraun arren bere, eztozu peccatu eguingo. Oquerretara: sentiduric erre usaina, eta jaguiric icusten dozu zure erropan daguala, baña icusi arren eztozu arduraric arren chingarra andic quenceco, eta zagoz berari beguira. Orduban zuc icusi cendubanetic aurrera, zure erruz, edo culpaz erreten da. Auxe berari da gogo, edo pensamentu loijagaz jazoten dana, ezagutu ezquero ezpadozu aleguina eguiten quenceco, eta bazagoz berari adi, edo beguira leguez, ordubanche da peccatu mortal; cegaitic lenenguan zure guraz, edo vorondatez etorri ezpajatzun, sentidu cendubanetic aurrera ceure vorondatian dago nai izatia, edo ez izatia, edo bardin dana consentietia; edo ez consentietia.

Jauna, dempora puscabat baño etzan izan, bada guero errezadu neutzan Ama Virginiari, dei eguin neut-

zen Jesus, eta Marijen izenai, eta eguin neban aleguina quenceco. Ezta import. Lenenguan vorondatez, edo ceure gustoz egon bacinian pecatu loijari adi, eguin cenduban pecatu. Onetaraco dempora apur pusca bat da asco. Bolbora barrica bat erre, eta calte andijac eguitemo beingo beingo bat da asco, eta su emoten deutzanari ezteutza valijoco esatiac bertatic suba alderatu, edo apartadu evala; alainche zuri bere ezteutzu balijoco esatiac, laster asi ciniala pensamentu loija quencen. Ondo da guero bere au eguitia, baña beindunic bein eguin zan pecatuba. Jauna, eneban onclaco peccaturic eguitemo gogo, gurari, edo deseoric euqui, eta eztot beste gauzaric euqui pensamentuban gozatutia baño. Etzaitz engañadu, Christinauba. Gogozco pecatu izateco, edo pensamentu loija pecatu izateco, ezta biar gomutan, edo buruban darabilen leezeo loiqueriaric eguitemo gurari, edo deseoric euquitia, asco da onetaraco gomuta, edo pensamentubagaz gozatutia. Esateraco. Eguin zenduban araguijazco pecatu bat, eta andic dempora lucian datorquizu gomuta, edo memoriara orduban euqui cenduban gozo, edo gustua; bada au pecatu izateco, ezta biar zue euquitia ostera pecatu eguitemo gurari, gogo, edo usteric; asco da orduban euqui cenduban gozo, edo araguijaren gustuan pensetan egotia, eta baceunica bere proposituric sendueña ez pecatu atara biurtuteco, alambere pecatu mortal eguingo ceunque orduco gozuan pensamentuba ceure guraz euquitiaz.

Oraindio bere obeto au ezagutu daizuben nai deutzubet argui, edo clarubago ifini irudi bategaz. Zuaz ferija batera, eta ara ona zabilzaz cer dagan iensten: elduten zara denda chitoco eder batera. Alde batetic dagoz Sevilla, orozun, eta arracada diamantezcuac, bestetic es-

padin, bastoe, eta botoe arri balijosoz betiac. Emendie urregorri, eta cirarrezco collara, plater, eta tresnac: andic sedaz, urrez, eta cirarrez ordaturico jastecuac. Zagoz arrituric aimbat gauza ain zoragarriri beguira, eta eurac icusijagaz eurai beguira egonagaz arcen dozu poz, gozo, eta gusto andi bat, eta orregaitic zagoz beguijac andic quendu baga. Itanduco baleutzube cerbait erosi nai badozu; bertatic cranzungo zeunque, ezetz. Era esango baleutzube, cer eguiten dozu bada or? Esango ceunque, beguijai gusto emon. Auxe berau bada jazoten da pensamentu ezainacaz bere. Gorputzeco beguijacaz denda bat icusten dana leguez, alainche adin, edo entendimentubagaz beguiratuten jaque araguijari gozo jacazan loiquerijai, eta nai ezpadau bere erosi, au da, eguin vorondatiac an dacuzana, alambere nai dau gusto artu, an dacuzanagaz, eta auxe da asco pecatu mortala eguiteco. Jaquinic cer dan gurari, edo deseo loiija, eta cer dan gozande gueratuba, edo pecatu loiijan pensamentu, edo gomuta loiijan vorondatez egon, edo gueratutia, icusi daigun norzuc eguiten daben pecatu modu bi oneetan.

Lenengo: eguiten dau pecatu mutil, edo guizon, nescatila, edo emacumeren bategaz pecatu eguin gura leuquianac, baña edo emacumiac nai eztabelaco, edo lotza dalaco bere gurari loiija adi erasoten, edo bildar dalaco euqui leiijan gachen bat itzatzi ezteijon, eztau beteten bere gurarija. Bigarrenengo: icusiric esconduben batzuc, edo norzubenbatzuc esconduten diriala, pensetan dagozanac, eurac alcarregaz eguin leiijenian. Irugarrenengo: mutil, nescatila alcarregaz tratu ezaina euqui ezquero, aurrera ecin eruan aldabeenac, guraso, ugazaba, edo Justicijac, alcarregaz egoten ichiten ezteutzelaco, baña beri dagozanac alcarregan pensetan. Laugarrenengo, alar-

gunac badagoz penseetan, eta gozatuten euren senar, edo emastiacz, euqui oi citubezan escubidetan. Bostgarren: eguiten dabe pecatu escongueijac, escondu ezquero eguingo al ditubezan, edo eguiteco euquico dabeen gauzetan pensetan, eta gozatuten badira. Cembat peccatu eguiten ete dira onelacuen artian! Orregaitic aleguin gustija eguin-biar da alcarregaz bacarrian icusi ezteitezan, alcarregaz verbaldi, edo conversacinoeric euqui ez taijen, eta onduen izango litzateque alcar ez icustia escondu artian. Seigarren: eguiten dau pecatu, norbait loiquerija ezainen bat eguiten icusten dabenac, eta berari bere guraz adi daguanac, edo icusi arren andic alderatu, edo apartetan eztanac, edo guichienez beguijac quencen eztituzanac. Bardin da pintura loi, ciquin, eta atsitubai beguira daguanac, bada onec bere pecatu mortal eguingo dau. Zaspigarren: eguiten dau pecatu libura, edo paper loijac iracurten dituzanac bere guraz, edo gustoz, eurac iracurteco premia, edo necesidaderic euqui бага, dauquena leguez medicu, barberu, edo cirujau, eta besteren batzuc.

Ascoc eta ascoc esan oi dabe, eneuque gura onelaco pensamentu loiric etorri daquidan, baña eztitubeez ichi gura pensamentu ciquin oneen sustraijac. Eztitubeez ichi nai danzac, erromerijac, itzcune, edo verba arinac, cantacro, gangar, eta loijac, urlija, edo urlijagaz dauquen adisquidetasuna. Ezagututen dabe, edo ezagutu biar leuque, pelleburu onetatic datorquijuezala pensamentu orreec, eta alambere nai leuquee euretan ibili, eta ez enqui pensamentu loiric. Ara. Arcen dau adisquidetasuna mutil batec nescatila bategaz; alcarregaz duaz ibiltera, edo pasietara, alcarregaz erromerijara, alcarregaz jolazera, alcarregaz egote luciac. Esaten bajaque onelacuai, cegaitic

alcargandic alderatu, edo apartetan eztirian? Bertatic erantziten oi dabe, adisquide andijac gara, asco gura deutzagu alcarri. Aimbart eta deungago: Amodijo ori ez-tator Jaungoienagandic, ezta caridade benetacua, araguijarena da, infernatic urtena, eta demoninaren putzagaz isijua; uxala onelaco adisquidetasunic ezpaeunca, uxala alcar ain lastan ezpacendu, ez ceunque aimbeste pecatu eguingo. Ez Jauna olacoric. Ezteutzagu oraindio alcarri ucutuchu bat bere eguin, ezteutzagu alcarri verba arinagochu bat bere esan. Baña, araco beragaz zagozarian, eztozu sentietan ceure barruban unetaraño erretan zaituzan siba? Ezta isioten zure vijotzian, gustijori gorituten zaituzan gar bici bat? Eguija da, sarri cuqui dirudazala orrelaco pensamentu loi, eta berotasunac; baña ezritudaz inos consentidu, ez neque etorri daquidazan bere nai. Noc sinistuco deutzu? Ez inoc. Ifini zaitetz sutionduan, eta esazu eztozula berotu gura. Edonoc esango deutzu: celan esan cinaique eztozula nai subac berotu zaizan bere albuan ifinten bazara? Nai badozu sinistu deizudan, quen zaitetz ortic, eta sinistuco deutzut eguija dinozula. Auxe beratu dirautzut nic bere. Erre nai ezpazara araguijaren pensamentu loijetan, ichi adisquidetasun ori, igues subagandic, igues pelleburubetatic; bada bestelan alperfic esango dozu eztozula nai loiquerija orrec gogo, edo pensamentura etorri daquizuzan, ceure erruz etorrico jatzuz, eta pecatu mortal eguingo dozu.

Beste ascoc esan oi dabe: Beti beti jaocuz Arimazain, edo Cura, eta Predicadoriac diadarrez, erromerija, fiesta, danza, eta jolacen contra; baña nic neure vicijan eztot pensamentuchu loi bat euqui. O guizon! O emacume zorioneco, eta bedeincatubac! Zubec ezzare Auurrian wici ceruban baño; bada autortu, edo concedidu deut-



zube Jaungoienac Santuric andijenari eguin ezteutzan mesedia. Dacuzcuz guizon miragarri asco, beti baru, mortificacinoe, penitencija artian, beti negarrez, beti oracinoe, escari, eta erregu artian, mundutic iguesi, basamortubetan sarturic, eta alambere ecin eci ditubez euren araguijaren tentacinoiac: eta zubez nai dozuben moduban viciric, jan edanetan, olgora artian, erromerija, jolaz, eta danzaric galdu baga, eztaucazube pensamentuchubat bere. San Paulo Apostoluba aibat mirari eguin ezquero, aibat guizon Jesu Christoren ezaucerara ecarri ezquero, aibat neque, lan, ibilera, ecach, eta zauri irago ezquero, eta mundu gustija bere santidade miragarri-jagaz arritu ezquero, beti jaquen bildur bere araguijen tentacinoiai, beti iratzarriric aibat lasterren quenceco, eta alambere beti bildurrez heteric cinuan: neure araguijan sentietan dot guerra crubel bat neure arimiaran contra: eta zubez ceuben vici gustijan ecer eguin baga araguija eciteco, alperquerija, naguitasun andijan vici izanic, gustija icusi, gustija enzun, gustija esan, eta goguae emoten deutzun gustija eguin da bere, eztaucazube araguijaren tentacinoe chiquichu bat bere? San Geronimoc dino: Basamortu baten nago abereric uzubenen lagun eguinic; eztaucat neure gorputzian azur, eta azala baño; arri gogor bategaz urratuten dot neure bularra, nire janarija ezta ogui, eta ur pusca bat baño, luur gogorra da nire oia; ezteutzat inundic bere atzeguinic emoten neure araguijari, eta alambere estu estuban narabil bere tentacinoiacaz. Daçarquidaz burura, araco anchina Erroman icusi nituzan emacuniac, eta euren gomutiagaz eguiten deuzt guerra ain vicija, ce beti nauca bildurrez icara. Eta alcarregaz mutil nescatiloc ibili, alcarri ucutu, alcarri beguira, alcarregaz verba, alcarregaz ordu lucie-

tan egon arren, eztozube ecer sentietan? Noc sinistu leiquezube? Da venturaz zuben araguija santu areena baño beste modutacua? Jaijo zare pecatu original baga? Eci dozube areec baño obeto? Daucazube areec baño gracia gueijago, indar gueijago ceuben araguija aspiraturic equireco? Ecin olacoric esan, ezta uste bere cinaique. Beraz guzorra dinozube diranzcuzunian eztozubela ecer sentietan.

Baña deritz eguija dinozubela, eta eztozubeela ecer sentietan. Baña onetanche dago zuben zori gogor gustija; onetanche zuben condenacinoia. Onexec zaruace infernubetara. Cegaitic deritzube eztozubela sentietan pensamentu loiric? Da venturaz eztaucazubezalaco, Santuric andijenac enqui oi ditubezanac? Ez neure Christinaubac. Zuben gomutia, edo memoria, eta gogo, edo entendimentuba, pensamentu atsituz beteric dago, eta venturaz euren subagaz erretan dago zuben araguija, eta eztozube sentietan Santubac sentietan oijebena leguez; eta cergaitic? Irudi bategaz eranzungo deutzubet. Contu eguizube dagozala eche bi; bateco atiac eztagoz inos idiguiric; bada ugazabac beti dauca ardura andi bat zarraturic equireco. Bestecuac beti dagoz idiguiric, ugazabac gura dabelaco idiguiric egon deitezana. Dator lapur bat eche bi onec ostutera. Dua atia ichiric dagan echera, baña ecin sartu da. Joten dau irrima atia idigui deijuen, enzuten dau ugazabac, eta enzun ordaco artuten dau arduraric landijena lapurra barrura sartu eztequijon, eta dauca gustija ostu ezteijon. Elduten da atia idiguiric dagan echera, eta gustija daguana leguez zabalac, zarcen da norra nai, quencen dau dagan gustija, eta eztaqui ugazabac inor sartu danic, eztaqui ostu dabeenic; eta usteric eche betia daucala, gustija gueratuten da utsic.

Auxe berau jazoten da Santubacaz, eta zubeacaz: eura-  
racana, eta zubeacana bardin bardin elduten da ten-  
tacinoc, edo pensamentu loijen lapurra; baña areec zar-  
raturic dauquena leguez euren vijotzeco atia, ecin sartu  
da atia jo, edo otsic eguin baga, eta auxe da tentacinoia  
sentietia. Dator zugana, eta aurquituten dau zure vijot-  
za alde gustijetatic zabalic, eta sarcen da barrura nundic  
nai; nai beguijetatic, nai bellarrijetatic, nai mijnetatic,  
nai beste edoceimbere lecutic, deiric, ez-otsic eguin ba-  
ga: orregaitic eztozu zuc sentietan pensamentuben, edo  
tentacinoe loijaten lapurra, eta zuc sentitzaca, quenduten  
deutzu ceure arimaco ondasun gustija, cein dan gracija,  
eta ichiten zaituz pecatu mortalian. Orra cegaitic sentie-  
tan citubezan Santubac ain laster euren araguijen tenta-  
cinoe, eta pensamentu loijac, eta cegaitic bertatic bildur-  
tuten cirian; eta orra cegaitic peccataric itzusijenac ez-  
titubezan, eta bildurric ezteutzen.

*Erasoguinsa.*

Deritz, neure enzula maitiac, pecatu auxe dala, Chris-  
tinan gueijen infernura daruazana, eta alan ifini al bagui-  
naitequez infernuben erdijan, eta itandu an dagozanai,  
cegaitic dagozan? Condenaduric gueijenac eranzungo leu-  
quee, araguijazco peccatuba gaitic. Ain da labana, ain da  
pelleburuz betia, ce guichiago uste dabemian dago cati-  
gu guizona bere sareetan. Orregaitic pecatu onetatic ignes  
eguiteco eguin biar dau Christinaubac aleguinic andije-  
na. Baña, alambere andija bada edoceimbere araguijazco  
peccatutan jausteco daucagun pelleburuba, gustiz da an-  
dijagua pensamentu, eta gurari loijetan jausteco dauca-  
guna. Verbazco, edo obrazco peccatubetan jausteco, ba-  
dauca guizonac cec atzeratu daguijan. Edonor lotzatuten  
da verba loija esateco, eta alan, ce esango dabecen dan-

zubenac, atzeratu leique esan nai arren. Atzeratu bere leique danzubenac eguin leijuen aguiraquiac, edo emon al leijuen castigubac. Obrazcua barriz eguiteco, cembat gauzac atzeratu leique? Edonor dan lotzagalduco, azartu, edo atrevidubena bada bere, cerbait atzera egongoda, bere barruco gurari citala esan, edo adi crasoteco. Eta elduten bada bere lotzia, eta bildurra galcera, ecin beti cidu leiteque bere gurarija betetera. Baña eztauca onelaco galazo leiquion gauzaric pensamentu, edo gurarizco pecatu eguiteco; bere bacarran inoc icusi baga, inoc jaquin baga, inori adi eraso baga, cuqui leique onelaco gozamen galgarrija.

Orregaitic edoceimberc araguizco peccatutic igues biar badogu bere, ardura andijaguagaz pensamentu, edo gurarizcuetatic; bada bestietan baño errazago da eurretan jaustia, eta gachago eurretatic urtetia. Alainche dirauzcu Trentoco batzar, edo Concilijuac. (1) Ce gauza errazagoric pensamentu loi bati, gurari cital bati, sarzaijcria yorondatiac emotia baño? Dempora apur puscabat da asco onetaraco. Eta ecanduban lasterrago sartu leiteque. Baña gueure vicico dempora gustijetan badaucagu bere pelleburu andi au, gustiz da andijagua erijotzaco orduban. Eztau inos aleguin andijagoric eguiten demqnuuac gu galceco, orduban baño. Venturaz dempora estu atan ez gagoz verba eguiteco, eta alan ez gaituz tentetan loiquerijaric esatera; ez gagoz orduban beste peccaturic eguin guinaijan moduban, baña gure gogua, gure pensamentuba dago loiquerijari sarzaijcria emoteco escubidiagaz. Eta cer izango da orduban, lenagotic czpadago eguinic onelaco pensamentu ciquinac botatera? Celan peccaduco dau orduban, lenago badauca ecandu citala eurretan go-

(1) Conc. Trid. ses. 14 cap. 4.

gua euquiteco? Bada, Christinauba, eguizu aleguiza guerra onetan irrima, eta sendo pelietaco. Ez ez etzaitz euren aspijan jausi; ez eizezu ichi ceure barruban sarren; zarratu eizezuz ceure arimaco atiac. Argala da zurre araguija, senduac zure arerijuac, baña escatuten badeutzazu Jaunari bere laguntasuna, berac sendatuco zaitu bere graciajagaz, goitu, edo venciduco dituzuz ceure arerijaac, eta elduco zara Ainguerubacaz batera canterara goitute, edo victorija. Amen.

### *XL. VERBALDIJA.*

*Celan garbi izan biar garrian verbaz, eta eguite, edo obraz.*

Seigarren mandamentuac aguintuten deuzcun bigarren gaucia da, garbi izan gaitezala verbetan, edo eztaigula esan, ez enzua verba loiric. Eta alan eguiten dabe pecatu mandamentu onen contra. Lenengo: verba loijac esaten dituzanac, gusto, edo gozo loija arcen dabela eurarac esanagaz, inoc enzuten ezpadeutzaz bere. Bardin, eguiten dau pecatu besteren aurrian esaten dituzanac; bada bildur izan biar da pecatu eraso leijola enzuten dituzanari; ezpadauca bere peccatura eruateco gogo, edo intencinoeric, beti izango da pecatu mortal verba loi, eta ciquinac esatia: bada beti dago pelleburu au. Bigarregoa: eguiten dau pecatu mortal noribait verba laban, bigun, eta amodijozcuac esaten deutzazanac, bere gurari citaletara eruateco gogo, edo ustiagaz. *Onesatuac* beti pecatu mortal eguingo dabe, verbac eurarac ain loi, eta ezainac ezpadira bere; bada eurretan aguiari da euren vijotz atsituba. Bardin izango da pecatu, bestiac peccatura lagundu nai ezpadeutza bere, eta ezta enzun bere elaco.

verbac. Irugarrenge: eguiten dabe pecatu mortal, aracogente ascoren aurrian verbaldi, edo conversacinoe loi, eta luciac dauquezanac: Batzen dira neguco gabetan sucaldian, soluan, biarrian, basuan, egur eguiten, edo beste lecuben baten mutil, nescatila, escondu, eta atso, agurac; abijetan da euretatic bat verba arinac esaten, bestiac eranzuten deutza loijago bat, berotuten dira mijnac, eta dagoz gauzaric ezain, eta lotzagarrijenac esaten; venturaz agura buru zurijac aurrerengo diriala; modu onetan idiguiten ditubezala an dagozan gastien beguijac. Infernucos escolac izan oi dira onelaco batzarrac, nungo maesuba dan demoninua bera.

Laugarrenge: eguiten dabe pecatu mortal, cantia loijac cantetan ditubezanac; bada eurac vorondate char, eta gogo, edo intencinoe oquerrie ezpadauque bere, eztaquije noc enzun leiquezan; eta alan pecatu eraso leijue danzubenai. Onelaco cantac pellebusuago dira, aracogente mutil, eta nescatillac baster, eta oquelubetan sarturic euren soñuban danzetan dabenian, barre, eta algararic gozuenan eguiten dabeela, aracogente gauzaric lotzagarrijena esan, edo cantetan danian. Bostgarrenge: eguiten dabe pecatu mortal, jazo dan gauza, edo ipuin loi, eta ezainac cantetan ditubezanac, ain modutan pintadu, edo apainduten dabeela, ain argui, eta claruban ifinten dabeela adi eraso nai dabeen loiquerija, cein da gorputzeco beguijacaz icusico balitz. Ezta verba lotzagarriscoric esango, ezta izen loiric enzungo; baña ain modutan adi erasoco da, edo azalduco da esan gura dan loiquerija, ce edoceinec aituco dau cer esan nai daben. Onelaco ipuinac, onelaco contubac pecatu mortal dira. Ay eta cembat gasteri ecarri etc deutze euren condenacinoia onelaco ipuinac! Seigarrenge: eguiten dabe pecatu mortal, mutil nescat-

tilla, eta guizon, emacume, batac bestiari amodijozco verba lastanae esaten deutzezanac; baita onelaco cartac escribietan ditubeezanac bere. Jauna, gauza orreec esan arren, soinu orreec cantadu arren, ipuin orreec contadu arren, eta carta orreec escribidu arren, eztot neure vicijan deseo loiric euqui, ez inor galceco bere, edo inori pecatu erasoteco intencinoeric euqui. Ichiric orain intencinoe oquerri baceuncan ala ez: Esaidazu: Cer daquizu zue cer eguin daben bestien barruban zure verba, zure canta, zure ipuin, zure carta orreec? Ecin jaquin cinaique: pelleburu auxe da asco, verba gusti oneec pecatu izateco. Eguija au ezagututeco, beguira cer eguin oi daben demoninuac.

Asco daqui gure arimen arerijo onec, eta sarri goitu oi ditu verba, canta, eta ipuin oneen bitartez bere tentacinoiacaz ecin vencidu al izan dituzanac. Asten da malicijaz beteric satanasa guizon, anra, mutil, edo nescatilen bat pecatu loira tentetan; baña Jaungoicuen bildurtija dalaco ecin goitu dau, ecin irago deutzaz bere tentacinoiac vorondatera. Cer eguiten dau bada? Arcen dau moduba aurquitu dedin lagunena batzucaz, eta eguiten dau euretatic batec esan daijala verba arinhu bat. Eranzuten deutzan oni beste batec beste lotzarizco bat, abijetan dira barreca. Aurreratuten da pusca bat gueijago, eta bein onetan abijau ezquero, aurrerago eta loijago, loijago eta gozuago. Au enzun arren, badauca lenenguan bildur pusca bat, eta lotzaren bat bere bai areec lezco verbac esateco; baña icusiric gustijac diriala modu batecuac, dua galdubagaz eucan lotzia, eta dua guichitubagaz bildurra. Ostera biurtuten bada euraegana galcen dau leen gueratu jacan lotza, eta bildur pusquia, eta ez izaterren bestiae baño guichijago, eguiten da eura lezco. Orra ce

modutan galdu oi dituzan demoninuac mijn loijen bi-  
 tarte, berez ecin izan dituzanac. Beto araguizco gura-  
 rijetan samaraino ondaturic dagozan gustijac; esan beije  
 nundic asi cirian pecatu orretan sarcon, eta gueijenac  
 esan biarco dabe verba, canta, eta verbaldi, edo con-  
 versacinoe loijetatic asi zala euren ecandu galgarrija. Jau-  
 na, eranzun oi dabe; orrelaco verbac ez oi dituguz esaten  
 chanchetan baño: ipuinac barriz demporia emoteco; ba-  
 ña eztira inos izaten gogo, edo intencinoe charragaz.  
 Eta ceure barruban sentietan cenduban gozamen, edo  
 gustua? Bestiac eguiten euan algaria araco gauzaric ezai-  
 nena esaten cendubanian? Infernuc subagaz gorituric  
 daucazu ceure vijotza, eta venturaz baita ceure araguja  
 bere, eta chanchetan dala dinozu? Nai chanchetan zua-  
 zala infernura, nai benetan zuazala, bardin bardin erre-  
 co zaituz ango subac.

Ez olacoric; esan oi dabe mijn atsitu oneec; bada guc  
 olaco verbac eztaucaguz pecatutzat. Aibat eta deun-  
 gago. Cegaitic deritzube eztaucazubezala? Gustijoc atsi-  
 tu, eta ustelduric zagozelaco. Sartu zaitez gente atsitu  
 bat daguan lecu baten; lenenguan ecin sufridu dozu an  
 daguan atsa, eta usain astuna; goranzcuac emoten deut-  
 zu, eta barruban daucazun gustija botetaco larrija. Zuaz  
 sari lecu atara, eguin zaitez bat an dagozanacaz, eta ez-  
 tozu usain dongaric bere sentiduco. Auxe berau jazoten  
 jatube zubei bere verba loijacaz. Lenenguan, enzunac  
 bacarric bildurtu, eta lotzatuten cenduzan; baña guero  
 eurac esatera eguin ezquero, eztozu sentietan euren usain  
 gogor, eta atsituba, eztozu sentietan eurac vijotzian egui-  
 ten deutzuben zaurija. Baña celan esan cinaique eztauca-  
 zuzala pecatutzat? Esaidazu: orrelaco verbaldi, edo chan-  
 cha loijetan zagozala eldu bada zubezana Arima-zain,



edo Cura Jaun, Sacerdote, edo beste Caballero, nori lotza, edo itzal deutzazun, etzara bertatic isildu? Eta zeuc, edo besteren batec icusi badau, eta zuben artecoren bat badago olaco verbac esaten, ipuin contetan, edo soñu cantetan, ezteutzazu esaten, isi, urlija dator? Eta onelaco guizon itzal, edo errespeto deutzazunac enzuten badeutzu onelaco loiquerijaric, etzara gorri gorri, era lotzaturic gueratuten? Cegaitic da bada au ezpada verba, eta canta orreec gauza deungatzat daucazuzalaco? Beraz pecatutzat daucazuz, eta guzurra, eta utza zure achaqui-ja ori, eta pecatu mortal eguiten dozu orrelacuac esan, edo cantetan dozuzanian.

Ez bacarric eguiten dau pecatu mortal verba loijac esaten dituzanac, baita enzuten dituzanac bere, guraz, edo nai dabela enzuten badituz; bada dirauzcu San Paulo Apostolubac, verba dongacaz galduten diriala oitura, edo costumbre onac. (1) Jauna, enzun ditudaz verba loijac, baña eneban nic esaten olacoric, eta eneban nai bere esan eijezan. Zeuc esan ez arren, gustoz edo gozoz enzuten egon bacinian, pecatu eguin cenduban. Esaidazu: orrelaco verbaldi, edo conversacinoietan aurquituzarianian alderatu, edo apartadu al cinaitezan? Euquiric aguindu, eta escubidia esaten citubeezanen ganian, aguindu ceuntzen isilic egozala, edo galazo ceuntzen olaco verbaric esaten? Ara bada. Enzun bacenduban verba loija beingo baten zeuc enzun nai бага, eta loiquerijatan consentidu бага, eztozu peccaturic eguin. Bacengozan apartadu ecin cinaitequian moduban, eta esanic zue isilic egozala, edo aguiraca eguinic cinuezalaco, ceuc consentietan ezpadozu loiquerijatan, orduban bere eztago peccaturic. Baña bazagoz onelaco verbaldi, edo conver-

*Loiquerijatan  
tant baki  
nietu бага  
kic*

(1) Corint. cap. 15 v. 33.

sacinoietan ceure guraz, eta alderatu, edo apartadu al zaitezala bertan gueratuten bazara, pecatu mortal eguingo dozu; bada ceure vorondatez zagoz pecatu eguiteco pelleburaban. Bardin eguingo dozu pecatu, jaquinic zure lagunen batzac alcarregaz dagozala, eta ezagururic batuten dirian gustijan, edo gueijenetan verba ciquinac esaten ditubezala, euren artera bazuaz; bada ezta beste gauzaric ezpada pecatu eguiteco pelleburuban zarceia. Badaquiza, ceure aguindura daucazuzanen batzuc, ceure seme, eta alaba, ceure otsein, edo crijaduben batzuc, edo beste zure mempera dagozanen batzuc, onelaco verba ciquinac esaten ditubezala, galazo biar deutzezu, aguiraca eguinagaz, edo conveni jaquen castiguba emonagaz, bestelan pecatu mortala eguingo dozu.

*Eguitade, edo obra loijen ganian.*

Seigarren mandamentubac asquenengo aguinduten deuzcun gaucia da, garbi izatia eguitade, edo obretan. Ce itsusijac, ce ezainac dirian aguindu onen contra eguiten dirian pecatubac! Obe litzateque isil isilic istia Espiritu Santubaren verbategui, edo catedria euracaz loitu baño.: baño beste aldetic dagoz guizon, eta emacume ain sor, ain astun, ain euren arimiaren ardura guichicuc, ce uste dabe eztaguala beste peccaturic guizon emacumiac alcarregaz bete betian eguiten dabeena baño. Orregaitic deritz gustiz dala biar, edo preminazcuz azaldu, edo expliquetia norzuc eguiten dabeen pecatu aguindu onen contra. Jaungoicucac emon deidazala verbaric garbijenac mandamentu au adi erasoteco. Lenengo bada: eguiten dabe pecatu mortal guizon, eta emacume, senar emaste izan baga alcarregaz nastetan dirianac. Pecatu au, eta guero esango dirianac, biar dan moduban confesetaco ezta asco esatia, eguin dot pecatu guizon,

edo emacume bategaz, esan bere biar da celacua dan, esconduba, aidia, voto garbitasun, edo castidadecua daucana; bada onelacuen bategaz eguitia, pecatu mortal bi dira. Bigarreno: eguiten dau pecatu, auxe beran abere, edo animalijaren bategaz eguiten dabenac. Irugarreno, guizonac guizonacaz, edo emacumiac emacumiacaz eguiten badabe. Laugarreno: eguiten dau pecatu mortal, guizon, emacume, eta mutil, nescatilla alcarregaz mosuca, lastanga, oracadacada, eta ucutute, edo tocamentu ciquinetan dabilzanac. Bostgarreno: onelaco loiquerijaric bere gorputzian eguiten besteri ichi, edo permitietan deutzanac. Jauna, tocamentu loijac eguin euztazan mutil, edo guizon batec, mosuca, oraca ibili jatan, baña neuc nai enebala eguin euztazan. Eta lenagotic eguin oihezuzan olaco loiquerijac? Ori bai, baña eneban aste osteria eguingo evanic, bada esan neutzan etzatazala gustetan gauza orreec. Cegaitic bada alderatu, edo apartadu etzinian beragandic? Bada jaquin eguizube, au jaquinic alderatu al zaitezala apartetan ecpazara, pecatu mortala dala.

Seigarreno: eguiten dabe pecatu mortal euren araguijan ucutute, edo tocamentu loijac dauquezanac, modu onetan gozo cital, eta gusto loijac artuten ditubezala. Ce negargarrizeuac dirian pecatu onec dacarzan caltiac! Cembat ete daruaz demoninuac infernubetara! Cembat gaste, mutil, eta nescatilla galduten ez ete dira pecatu au gaitic! Artuten dabe ecandu au gustiz gastetic, eta venturaz oraindio ez equijela cer zan bere, eztauque orduban pecatutzat, confesetan badira eztabe au acusetan, eta alan dua ecandu cital au gogortu, eta sendatubagaz; guero ezagutu daijenian pecatu dala, ain modutan aurrquituten dira aspiraturic, ce eztauque indarric bere con-

tra pelietaco. Modu onetan guizon, eta emacume ascotran euren vici gastijan irauten dau ecandu infernucan onec. Zaspigarrengo: eguiten dabe pecatu bestiai pecatu eguiten iracasten deutzenac, edo dala bestien aurrian curac eguinagaz, edo dala eurai celan eguiten dan esanagaz, edo dala alcarregaz eguinagaz. Contu mutil, eta nescatilla gastiac pecatu bi onecaz; jaquin eguizube bein demoninuac arcen bazaitube sare onetan, gustiz gach izango jatzubela andic urtetia. Aurrerago eta barrurago sartucozara, zarrago, eta senduago izango da. Zorcigarrengo: eguiten dabe pecatu araco mutil, eta nescatilla, edo guizon eta emacume, alcarregaz adisquidetasuna artu ezquero alcar baga ecin egon dirianac; alcarregaz ibiltera, alcarregaz fiesta, eta erromerijara, alcarregaz egote luciac, alcarregaz merijenda, eta jan edanac, eta alcarregaz nai ditubezan escubide, edo licenciya gustijac. Bederatzigarrengo: eguiten dabe pecatu, biar dan moduban jasten eztirianac, edo modia dalaco euren araguijac agurijan darabilcenac, eta asquenez eguiten dau pecatu guizon, edo mutil emacume vilosari beguira daguanac, edo emacume guizonari beguira daguanac.

Izanic ain andijac pecatu onec dacarzan caltiac, eta neurribagac berac infernura daruazanac, gura neuzquezubez emon erremedijuen batzuc onelaco pecatu galgarrijan jausi etzaitzen. Lenengua da: Jaungoicuari escatutia vijotzeco garbitasuna, bada beragandic etorri biar jacu, bestelan ecin inor libradu leiteque pecatu ciquinetatic. Garbiizan gura badozu, escatu eguijozu Jaungoicuari al dazun sarrijen, bitartecotzat ifinten deutzazuzala bere Ama, eta ceure devocinoeco santubac, zaindu zaguizala pecatu atsitu onetatic. Bigarren erremedijua: ez alperric egoitia, eta beti cetan, edo atan cerbait eguitia. Alperric, eta

naguiric egotiac gachasco iracatzi ditu. Irugarrengo: lenengo tentacinoe, edo pensamentu charra sentietan danian aleguin gustija eguitia quenceco; bada onci vijotze-co atia idiguiten bajaque, laster eruango dabe guizona pecatu andijaguetara. Laugarrena: sarri confesadu, eta comulguetia. Sacramentu onec emoten deutza indarra guizonari demoninuen contra pelietaco, eta venturaz nosbait jausten bada pecatuban, confesinoien bitartez jaguico da; baña cer eguingo dau beranduric berandura baño confesetan eztanac, eta comulgadu baga daguanac? Eztauca indarric pelietaco, gosiac ilic, cadenic, eta argalic janari faltaz goituten dau demoninuac, jausten da pecatuban, pecatu onec luzaro egonic ariman, darua beran bere pisubagaz beste pecatubetara, eta modu onetan elduten da guizona pecatu icaragarritzuctan jaustera. Bostgarrengo: jan edanetan ez ibiltia, edo ez laarregui jan, eta edatia; bada onec, eta gucijago ardauac, isio, eta erretan dau araguija pecatu loijan.

Asquenengo erremedijo biarren dana, baita bere guichijen arcen dana da, pecatu onetan jausteco pelleburubetatic igues eguitia. Jaquin guraco dozube, ce pelleburu dirian onec? Nic esango deutzubet; baña daquit, ascoc eta ascoc ezteuztazubela sinistuco pelleburu diriana. Dirra pelleburu, erromerija, danza, eta jolazac, nun dabilzan mutil nescatilla, guizon, emacumiac, alcarregaz nastaduric, emen jo, an neutu, orain oratu, guero arpeguijac urreratu, eta guero verbachu alegre bat esan. Da pelleburu, lagun loijacaz, eta verba ciquinac esan oi ditubenacaz batutia, eta euracaz verbaldi, edo conversacionoian egotia; bada euracaz batuten danian, onelaco gauza ezainic esaten ezpadagoz bere, nundic, edo andic letzaco faltaco bati edo bati, verba arinen bat esateco mo-

duba, eta bat asten bada gustijac jarraituten deutze, egui-  
 nic dagozalaco onelaco verba atsitubac esatera. Garbi  
 izan nai dabenac, ez beiteque onelacuacaz batu onelaco  
 loiquerijariac esaten ezpadagoz bere, bada dago esango  
 ditubezalaco pelleburuba. Da pelleburuba, nescatilla mu-  
 tilac alcarregaz verbaz dempora lucian egotia, jaijegin  
 arratzaldetan jazo oi dana leguez, eta gustiz izango da  
 andijagua badago euren artian mutil lotzabaga, irabijatu,  
 eta min charrecuen bat, edo nescatilla barrechu edocean  
 gauza esan oi dabenen bat; bada onelaco bat bacarric da  
 asco beste gustijac galceco. / Da pelleburuba, emacume,  
 eta guizonen batec alcarregaz adisquidetasun andi, eta  
 estuba arceia gauza deungaraco ez izan arren bere. One-  
 laco adisquidetasuna lenenguan ez oi da izan donguia,  
 baña gustiz da erraz gauza charrian amaitu, edo acabe-  
 tia; Santu asco, emacume on asco galdu dituz onelaco  
 adisquidetasunac. Onelaco pelleburubetatic igues eguiten  
 eztabenac, ecin garbi iraun leique dempora lucian. Igues  
 eguizube bada euretatic galdu gura ezpazare.

*Erasoguiza.*

Eneueque larregui idigui gura ascoren beguijac; ba-  
 ña nor isilic egongo da edonun icusten danagaz? Mundu  
 gustija dauca atsituric infernuco pecatu onec. Edonun  
 daucaz ifiniric demoninuac bere sariac. Cale, eche, gue-  
 la, edo aposentu, sala, eta sucaldetan: mendi, solo, ba-  
 so, eta larretan: denda, plaza, sutegui, eta biar lecube-  
 tan daucaz ifiniric demoninuac bere laquiuac. Nabilen  
 bide onetanche ifini dituz estalduric laquiuac, dino Da-  
 vid erreguiac. (1) Eta alambere eztabe ezagutu nai eguija  
 au guizon ichubac. A celan jazoten dan onecaz gure le-  
 nengo ama Evagaz jazo zana. Dirautza Jaungoicuac, ez

(1) Ps. 141 v. 4.

eisquezu jan Paradisuben erdijan daguan arbolaco sagar-  
 ric, bada jaten badozu bertatic ilgo zara. Dator guero  
 demoninua, eta dirautza: jaizu ez bildurric euqui ori jan  
 arren etzara ilgo. Jaten dau Evac eragotzirico sagarra,  
 eta dacaz beretzat, eta bere seme gustijenzat gueugan  
 dacuzcuzan gachac. Auxe berau jazoten da Christinau  
 ascogaz bere. Dirautza Jaungoicuac Escritura Sagradu-  
 ban: Beguira celan zabilzan, bada alde gustijetatic zagoz  
 laquijoz inguiraturic. Dirautza demoninuac: ez bildurric  
 euqui zabilz mundic nai, eztago olaco laquijoric. Diraut-  
 za Jaungoicuac: etzaitz ibili danzan emacumiacaz, ba-  
 da bestelan ilgo zara. (1) Dirautza demoninuac; ez orre-  
 tan arduraric euqui, bada eztago pellebururic. Etzaitz  
 ibili anra eder, eta apaindubai beguira, bada gustiz asco  
 dira orregaitic galdu dirianac, dino Jaungoicuac. Eztago  
 orretan gauza charric, dino demoninuac. Dirautza Jaun-  
 goicuac, ez eguizu adisquidetasunic euqui emacumiacaz,  
 etzaitz luzaro egon euracaz, bada bestelan ilgo zara. Di-  
 rautza demoninuac etzara orregaitic ilgo. Eta cer egui-  
 ten dau Christinaubac? Eztan jaramonic eguiten Jaunac  
 dirautzanari, eta ezta sinistu bere. Jarraituten deutza de-  
 moninuaren esanari, dabil bildur бага laquijuen erditic,  
 jausten da sarian, eta gueratuten da demoninuaren mem-  
 peco. Cembat modu onetan gueratu ete dira betico gal-  
 duric? Cembat gorputzian gach, eta enfermedade lotza-  
 garritz beteric, eta ondasunac galduric? Cembat arimetan  
 ecandu cital, eta ciquinez beteric, ozta ozta deuren buru-  
 bac cerurunz eregui al ditubezala? Bada, Christinaubac,  
 igues eguizube pecatu onetatic, betico galdu etzaitzen,  
 ichi eguizubez bere pelleburubac; bada bestelan ecin egon  
 cinaitequez pecatu loijetan jausi бага. Sinistu eguizube

(1) Ecol. y r. 3. de seq. *EL PUNTO, EN EL CUAL SE ENCUENTRA EL TEXTO ORIGINAL*

ceuben Confesoriari, baita Predicadoriai bere dirautzubenian pelleburu diriala zubeac atacotzat eztaucazuzanac, eta igues eguizube euretatic, seguru ibili zaitezzen ceruco bidetic. Amen.

### *XLI. VERBALDIJA.*

*Jaungoicuaren legueco zaspigarren mandamentuben ganian.*

**J**aungoicuaren legueco zaspigarren mandamentubac aguinduten deuzcuna da, inori ecer ez ostutia; au da, ezteutzagu inori ecer quendu biar, eztoga inoren gauzaric equi biar jauviac nai ezabela, eta ezta inoren gauzaric nai bere. Lau gauza eragozten jacuz mandamentu onetan. Lenengua: inori cerbait ostu, edo quenceia. Bigarrena: inoren gauzaric equitia. Irugarrena: calteren bat inori eguitia bere gauza, edo ondasunetan. Laugarrena: inor engañetia saldu erosi, edo tratubetan. Edo ceimbere modu onetan eguiten dan caltia nagusi, edo andija bada izango da pecatu mortal, baña chiquija baño ezpada bacarric izango da venial. Ezta erraz izentadu, edo señaletia cembateta eldu biar dan pecatu mortal izateco; gueijenac dinuc, lau errialera elzeia guichi bat gora bera dala grave, edo andija, eta pecatu mortal; baña batenzat calte chiquija dana, izan leiteque andija beste batenzat. Guizon aberatz batenzat, ezta gauza andija errial-cirar bat; baña da andija pobrecha egun atan oguija erosteco biar dabenezat. Quencen dan gancia chiquija izan arren, bera quendubagaz calte andiric badatorquijsa jaubiari, pecatu mortal izango da bera quenceia. Jostorratz bat berez gauza chiquija da, baña alambere jaquinic zuc bera quendu arren ez leuquiala irabacico jauviac egun ataco aloguera, ostuco baceuntza, pecatu mor-



tala eguingo ceunque, andija dalaco eguiten deutzazun caltia.

Au jaquinic. Lenengo: eguiten dau pecatu mortal, bere proximuari gauza nagusi, edo andiric quenduten deutzanac, nai dala diruba, nai dala erropia, gari, arto, oquela, edo beste edocimbere gauza. Modu bitan gaurcia ostu leiteque; edo beingo baten quendubagaz gauza nagusija, eta pecatu mortal izateco ascó dana, edo puscaca puscaca ostubagaz, gaur lauzuri, bijar laumarai, etzi zorcimara; orain oguija, guero sagarra, bein artua, beste bein ardaua. Modu onetan ostuten abijetan danac, beucan orduban gauza andira elduteco gogo, uste, edo vorondatia, orduban eguiten dau pecatu mortal; baña ezpuecan onelaco gogoric, izango da pecatu mortal, araco lapurreta chiqui onccc eldu deitezanian gauza andija izatera. Baña puscaca osturico gaurcia pecatu mortal izateco, cebait gucijago biar da beingo baten ostuten danian baño. Esateraco: beinguan ostuten danian lau errial quencia bada pecatu mortal, sei errialera leguez eldu biar dira puscaca eguinac. Eztago icasbide, edo doctrina au baño ciur, edo ciertubagorie; baña alambere etzaque falta ascori, eta ascori achauisjaric modu ascotan ostuteco. Iensi dalguzan celacuac izan oi dirian.

Crijadu ascoc quendu oi deutzee euren ugazabai gaur lauciri, bijar zorcimara; orain erropia, guero artua, edo garija, batzubetan araguisa, beste batzubetan egurra. Esaten bajaque au ecin leijela, eta alan biurra daijela modu onetan quendu dabeena, eranzun oi dabe; gustiz da guichi emoten deuzten soldatia daueadan neque, edo trabajuraco, nic enequiran almbeste biar eguanic. Esalzu: paguetan jatzu aguldu jatzun soldatia? Bai Jauna; bada ezteetzu gucijago zor ugazabac. Badegitzu guichi dala

soldatia, esan ugazabari gueitu deizula, eta ezpadau nai,  
 villatu beste ugazaba bat. Jauna, nic uste neban prove-  
 chu andijac euquico nituzala, baña eztago bapete ni na-  
 guan echian, eta alan etzat elcen soldatia zapatataraco  
 bere. Probet hubac eztira soldatan zarcen, eta ez jatzuz  
 zor; eta alan eztauca ugazabac eurac emoteco biar, edo  
 obligacinoeric. Cegaitic etzatzu zapatataraco bere elcen  
 soldatia? Amasei errialeco zapatia asco dozula, ogueta  
 laucua nai dozu, eta au bere polit polita, eta laster urra-  
 tucodana. Oguei errialeco pañuelua asco dozula, berro-  
 guei, edo berrogueta amarrecua gura dozu. Berrogueta  
 amar errialeco mantilia asco dozula, irurogueta amar,  
 edo latogueicua nai dozu, eta alan ecin eldu leiteque  
 soldatia zuc nai dozunera; baña eztauca ugazabac zu jan-  
 ci biarric. Zabilz maaxchubago, eta elduco jatzu. Jauna,  
 icusi deuztez ugazabaac soñeco orreec, baña ezteuzte ecer  
 esan. Eta badaquiye ugazabaac nundic daucazun gauza or-  
 rec erosteco? Itanduco baleutzube nundic, edo cegaz  
 erosi dozuzan, eranzungo ceuzquijue eurai ostu deutzar-  
 zubela puscaca, edo lauzuri laumaraica? Lenago sinistu-  
 co neuque, bertatic asmaduco ceunquiala guzur bat, esa-  
 nagaz gurasuac, edo senideren batec emon deutzula. Be-  
 raz utsa da achaquija au, eta alan ecin ecer quendu lei-  
 jue otseinac euren ugazabai.

Achaquija auxe emon oi dabee aloguereco ascoc be-  
 re. Jostunac quencen dabe arija, sedia, oijal atala, mie-  
 sa zatija, edo beste gauzaren batzuc; achularijac sagar,  
 madari, ogul, arto, egur, edo beste gauzaren batzuc.  
 Esaten bajaque, ecin olaco gauzaric eguin leijela, eran-  
 zuten dabe; aloguerac balijo daben baño biar gueijago  
 eguiten dogu: baña ezteutze achaquija onec balijo, bada  
 etzaque zor aloguera baño gueijago. Beste batzuc quen-

cen dabee auzuan acia, sagarra, bedarra, artua, garija, egurra, eta aldaijen gustija. Esaten bajaque, ecin onelaco gauzaric eguin leijela, bertatic eranzuten dabe: berac bere beste orrembeste eguin izango deuzt. Au buru bagaco achauqija da, eta zure ustia bacarric ezta asco inoena quenceco. Modu onetan quencen dabecnac, nai diriala otseinac, nai diriala aloguerecuac, nai auzoteguecuac, pecatu mortal eguiten dabe, eta biurtu biarco dabe modu onetan quendu dabena. Ciur ciur, edo ciertu ciertu bacengoz bere cerbait quendu deutzubena, etzara orregaitic azartu, edo atrevidu biar beste aibeste quendutera; bada gustiz da pelleburutsu au eguitia, eta gachandijac etorri leitequez onetatic. Itundu, edo aconsejadu zadiz ceuben Confesore, edo guizon jaquitun, eta Jaungoicuen bildurtijacaz, eta eurac esango deutzube cer eguin biar dozuben.

Mandamentu onetan galazoten jacun bigarrena da besteren gaudia euquitia. Modu bitan gugana etorri leiteque gueuria ezta. Etorri leiquegu bide char, edo oquerretic. Esateraco: ostuten dau norbaitec besteren gauden bat; bide char, edo oquerretic etorri jaco au ostu dabinari. Onec gaudia artu, edo ostu evanetic pecatu eguin evan, eta ordutixec asi zan jauviari biurtu, edo errestituidu biarra. Etorri leiquegu inoena bide artectic, edo onetic, edo uste izan guinaique onetic datorquigula, eta ez alan izan. Esateraco. Aide batec ichiten zaituz bere ondasunen herederu: zuc uste dozu ondasun areec modu onian irabaci cituzala. Orra celan uste dozun zuc artez etorri jatzuzala. Jaquitun dozu guero etziriala beriac, ezpada besteren batenac, orra celan daucazun zuc inoena bide onetic. Modu onetan inoena daucanac, eztau peccatric eguiten; baña jaquin daijanetic inoena da-

la, euqui biar dau gogo, edo vorondatia jauviari biurtuteco; bada jaquinic eztala beria, edo noena dan, badauea ez biurtuteco uste, edo proposituba, ordutixec eguingo dau pecatu mortal. Ascoc eta ascoc pecatu eguiten dabe modu onetan. Lenengo: eguiten dabe pecatu euren guraso, anaije, senide, edo besteren batzuc gandic heredadu ezquero eche, solo, baso, diru, urre, cirar, edo beste gauzaren batzuc; jaquinic guero, besteren batzubenac, ostubac, dongaro erosijac, edo ostubac ciriala, euren jauviai biurtu nai ezteutzezanac. Onclacuac eztabe icharon biar jauviac escatu deijuezan; bada jaquinic ciur cinr eztiala eurenac, edo noenac dirian, berbertatic biurtu biar deutez. Naijago badabe auci bat emon deijuen, ez baccaric eguingo dabe pecatu inoena dauquelaco, ezpada osotu, edo errestituidu biarco deutez jauviari auctic datorquijozan calte gustijac. Bigarrenengo: eguiten dabe pecatu herederubac, euren guraso, eta herederutzat aurtu, edo escogidu citubezanen zorrac pagaduten ezpaditubez ichiric cegaz pagadu, edo ateraten ezpaditubez eura aguindurico meza, eta oficijuac, edo emoten ezpaditubez limosnac. Irugarrenengo: eguiten dabe pecatu ropetan dabeena eurenzat artuten dabeenac, aleguinic eguinbaga jauquiteco noc galduco etevan, edo nor ete dan jauvia berari biurtuteco. Jaquinic nor dan, bertatic biurtu biar jaca, eta ecin indarric eguin leijo billasarija emon daijan; bada vorondatezcua da emon nai badau, ala ez. Jauveric aguri ezpada, ezeiquezube ceuben burutic erabagui, eta ceubenzat artu; esaijozube confesoriari, berac esango deutzube cer eguin.

Laugarrenengo: eguiten dabe pecatu, otseinai soldatac, eta aloguerecuai aloguerac paguetan ezteutzezanac. Aloguer onec aibat lasterren pagadu biar dira; bada yen-

turaz zure biarra eguin dabeenac eztabe euquico, cer jan, eta egongo dira zuc emon deihozunen beguira ogui copau bat jateco. Pecatu onec diadar eguiten dau Jaungoicuaaren aurrian pagadu nai eztabenen contra. Bardin eguiten dau pecatu zorrac paguetan ezituzanac. Cembat achaquiya ifinten ez oi dira onetan? Icusi daigun onac dirian, ala ez. Jauna, zorrac daucadaz, baña eztira chiquiac baño. Zapatariari zapata batzuc, denderubari oijala, miesia, edo pañuelua, jostunari jaque, edo almillia, eta beste onelaco gauza chiqui, edo chucherija batzuc. Zuc chucherija dei eguiten deutzazu, baña zuc, eta zulesco ascoc dauque dendari, zapatari, edo beste zalzailia estura, eta premia andijan: zuc zor deutzazuna leguez, beste ascoc bere zor deutzee. Pagadu biar dau zapata, jaque, edo chupa gueija, eta zuc, eta zulacuac paguetan ezteutzazubelaco, eztauca cegaz pagadu, edo cegaz erosi. Bardin eguiten dozu denderubagaz bere, eta orra celaco caltiac datorquijozan zuc chucherija ori demporaz ez paguetiarren.

Beste batzuc eranzun oi dabe: Jauna, uxala banauca cegaz pagadu, baque obian egongo nitzateque, baña ecin dot. Cembat ete daruaz achaquiya onec infernubetara? Daucazu tabernaraco, jororaco, ceure seme alabac polito polito janciric erabilteco, jan edanetaraco, eta venturaz ceure haciendia aurreratuteco: eta eztaucazu zorrac paguetaco? Echian mugaldi, edo ocasinoric bada gastetan da venturaz al deitiana baño gueijago bestiac baño guichijago ez izaterren; eguingo dira conuitac, ifinico dira jan edanac ugari, eta costu andicuac: eta eztago zorrac paguetaco? Biar gueijago eguinagaz, echeco gauzac ardura obiagaz beguiratubagaz, egunian egunian, go gastuba guichitubagaz pagadu leitequez zorrac; ba-

na ezta onelacoric eguiten, eta alan guichitubagaz juan biarrian, aci, eta gueitubagaz duaz. Jaquin eguizube bada, zorrac danquezanac al daijen gustija eguin biar da-beela eurac paguetaco, edo biar gueijago eguinagaz, biar biarreco eztirian gastubac quendubagaz, jan, edan, eta jancijan al dedin gustija estutubagaz. Jaquin beguije onelaco zordunac, au eguiten eztabeen artian pecatu mortallian dagozala, eta ecin esan leijela eztauquela cegaz pagadu. Bostgarrengo: eguiten dau pecatu cerbait erosten dabenac besteri osturico gauria bada: bildurra beucan ostuba zala erosi evanian, eguin evan pecatu; baña us-te beeban beria evala salzailiac, eta guero badaqui ostuba zana, edo norena dan, biurtu biarco deutzajauviri, galduco badau bere beragaitic emon evan diru, edo valijua. Cembat pecatu eguiten etc dira onetan? Gustijac nai leuque merque erosi. Dator lapur bat cerbait salcera; onelacuac escu batzubetan onelaco gauza bat ain merque salceiac, eta beste gauza ascoc sospecha, edo bildurra emoten dabe, eta venturaz argui, edo claru adi erosten dabee ostuba dana, eta alambere erosten jaquee, merque dalaco. Onelacuac pecatu mortal eguiten dabe.

Mandamentu onetan galazoten dan irugarren gauria da, gach eguitia proximuari bere ondasun, edo gauce-tan, calte eguiten dabela provechuric ateraten ezipadau bere gach onetatic; eta alan eguiten dau pecatu mortal, inoren eche, baso, lasto, garitza, edo artatzaren bat erretan dabenac, edo evaguiten dabenac; idi, bei, egasti, edo beste abereren bat ilten dabenac, edo beste edocim-bere calte andi eguiten dabenac bere guraz, edo berac nai dabela. Au edonoc daqui, baita bere biurtu, edo osotu biar deutzazana eguiten dituzan calte gustijac. Beste calte modu batzue dagoz guichijago ezagutubac, eta cein-

zubetan eztan arcen pecatu usteric, edo escrupuluric bere. Onexen ganian orain esango dot. Lenengo: eguiten dabee pecatu mortal, oficiojen bateco lan, edo obligacionien bat artuten dabeenac oficio ari dagoquijona jaquin baga; eta alan eguiten dabe pecatu, erri edo urijen bateco medicu, cirujau; edo barberu, escribau sarcen dirianac euren oficioja jaquin baga, ifinten dirialaco uts andiac eguiteco pelleburuban. Onelacuac beti dagoz pecatu mortalian, euren oficioja ondo, edo al dedin onduen icasi daijen artian. Eguingo dabee pecatu onelecuac, leenenguan jaquin arren euren oficioja, astuten badabe euren alperquerija, eta naguitasuna gaitic, edo ez estudiatarren. Bardin izango da edoceimbere beste oficioacuacaz, euren contu, edo ardurara arcen badabe eztaquijen gauza, edo obraren bat. Esateraco. Eztaqui arotz, edo arguin batec, ola, errota, edo beste onelaco gauzaren bat eguiten; bada arcen badau bere contura berac eguitia, pecatu mortal eguingo dau, aguiduten deutzanari badatorquijo calteric, guei, edo materijaletan, nai dala beste gauzatan. Oficio onen ganian dinodana, di-not beste gustijetan bere.

Bigarrengo; eguiten dabe pecatu aloguerecuac, eguiten ezpadabe al daijen biarra, euren naguitasun, alperquerija, edo barriquetiagaitic. Bardin da, au eguiten badabe lanac gueijago iraun daijan, biargueija, edo aloguera nun irabaci euquiterren. Irugarrengo: eguiten dabe pecatu obria, edo lana biar dan moduban eguiten eztabeenac. Modu onetan eguin oi dabe pecatu, zapatari, jostun, eta beste oficio ascoco edocein modutan eta arastaca, edo guei, eta material charragaz, euren lanac eguiten ditubezanac, bardin pagadu erasoten dabeela, cein da ondo eguinaic balegoz. Eguiten dabe pecatu,

eguinza, edo obraren bat abasberuan, destaju, edo onem-  
 bestian arcen dabeenac, biar dana leguez, edo ajustadu  
 ciriana leguez eguiten ezpadabe. Esateraco. Arcen dau  
 arguin, arotz, edo maesu batec eche bat eguitia onem-  
 bestian, eta aimbat lasterren acabadu, edo amaituterren,  
 eguiten dau arrastaca, eta charto; edo gueijago irabas-  
 terren ezteutzaz ezarten biar leuquezan care, arri, zur,  
 edo gueijac; pecatu mortal eguingo dau, eta osotu, edo  
 biurtu biarco deutzaz echien jauviari, orregaitic dator-  
 quijozan caltiac. Irugarrengo: eguiten dabe pecatu euren  
 ardurara ifinirie dagozan gaucen conturic eztauquenac, edo  
 biar dan baño gueijago gastetan dabeenac. Modu onetan  
 eguiten oi dabe pecatu, otsein, edo crijadubac euren er-  
 ruz, edo arduraric ez equijagaitic, ugazaben gauzac gal-  
 cen badira; baita bere biar dan baño coipe, orijo, egur,  
 icatz, edo beste gauza gastetan badabe; edo euren na-  
 guitasun, alperquerija, edo ardura faltaz ecer galcen ba-  
 da; edo besteri emoten badeutzez echeco gauzac ugaza-  
 bac jaquin baga; edo ezaguturic eztabecla onzat eruan-  
 go. Egniten dabee pecatu icasguinac, euren erruz ondo  
 egosten ezpada icatza, edo euren ardura faltaz erretan  
 bada. Eguiten dabee pecatu olaguizonac, euren culpaz  
 biar dan ardura ez innterren, edo ordiric dagozalaco  
 burdina onac urteten ezpadau, edo biar dan baño icatz  
 gueijago erretan bada. Esateraco: bost icatz cargagaz  
 eguin leitequiala quintal burdina, sei gastetan badira.  
 Verba baten, cerbait daucanac bere ardurara, beguiratu  
 biar deutza beria baleu leguez. Laugarrengo: eguiten da-  
 bee pecatu tasadoriac, eurai deritzen beste tasetan ezpa-  
 dabe. Esateraco: salcen deutza guizon batec bestiari, edo  
 erriac olajaunari baso bat icatza eguiteco, dei eguiten  
 deutze guizon on, edo basonearriari esan daijan cembat



icatz legon leitequian guichi bat gora bera, ecin onec esan leique deritzan baño gueijago, edo guichijago daguala, eta alan usteric milla carga dagozala, badino bostreun, edo seireun dagozala, pecatu mortala eguingo dau Esan danetic, ezagutu leije beste edoceimbere oficijococ, cer eguin biat dabeen.

*Erasoguinza.*

Beguiratueo balebe Christinaubac biar dan moduban, cer eguiten dabeen inoena quencen dabeenian, edo ostuten dabeenian, ez litzatequez aimbeste lapur aurquituco bide orreetatic.; ez litzatequez icusico aimbat ostute. Lapurretan quendubagaz, edo osturicuagez ecin inor aberaztu leiteque. Batu beguiz guizon batec erregue gustijac euqui al leiquezan ondasunic ugarijenac, bada modu charrian bada, ain dago pobre ecin da lauzuri ezpaleuca; eztituz beriac, ecin eguin leiquez bere; biurtu biarco deutzaz bere jaubiari, eta au eguiten ezpadau gurata gura ez izango da zorigalducua beti betico. Alperrie eguingo dituz santuric andijenac eguin ditubezan penitencija, barau, gaubela, eta mortificacinoeric andijenac; alperrie juango da basamorturic itzalsubenera, eta iragoco ditu urte lucietaco gau, eta egunac negar, zotin, eta cispuru artian; alperrie eguingo ditu munduban icusi dirian mirariric arrigarrijenac, ezteutze ecerbere valijoco inoena beragan daucan artian, eta bacochari beria biurturic ecerbere бага gueratu artian. Cetaraco bada necatu leiteque guizon bat ecerbere valijo ezteutzen ondasunac arceco? Cetaraco igaro leiquez gau ilunac, egun astunac, bildur andijac, ibilera luciac, beriac ecin izan leitequezan gauzargatic, Baña, o guizonaren ichumendija! Gurago dabe as-  
-eoc eta asoc beti betico pobre izan beste munduban,

dempora apur pusca baten mundu onetan baño. Mundu onetan pobre izatiari deutze bildur, eta ezteutze bildurric betico infernubetan pobre, villox, eta ecerbere бага egotiarri. Mundu onetan diru pusca bat, ondasun zati bat euquitiarren, galdu gura ditubez ceruco ondasun ugari, inosbere galdu, eta guichitu бага iraungo ditubeezannac. Ay neure Christinaubac, nos idiguico dituguz gueure arimaco beguijac? Nos ezagutuco dituguz ceinzuc dirian benetaco ondasunac? Nai badogu benetan aberatz izan, gueure escubetan daucagu, nai izan gueunquian baño aberatzago izatia. Ez beguic icusi, ez belarric enzun, ez guizonen vijotzera eldu da oraíndio, ce ugari, ce andi, ce neurri бага dirian Jaungoicuac guretzat daucazan ondasunac. Oneec irabasteco, oneec gueuriac bene benetan izateco, eztaucagu ce necatu, ce adicatu, inoena quenceco adicatu biar dan beste. Eztaucagu ce bildurric euqui lapurtzat euqui ez gaijezan, ez atacotzat castigadu ez gaijezan. Escubidia daucagu al daigun gustija arceco, ezteuzcu inoc galazoten. Viztu gaitezcan bada ondasun oneen jauve izateco; bada ez jacuz ucatuco, gueuc nai badoguz benetan Amen.

## XLII. VERBALDIJA.

*Saldu erosi, eta beste tratuben ganian.*

**J**aungoicuaren legueco zaspigarren mandamentubac galazoten daben laugarren gauria da proxima engañetia saldu erosi jetan. Aimbeste dira inoena quenceco dagozan modubac, edo tratu oquerrac, ce eztago gustijac adieraso leiquezanic, eta alan bacarric azaldu, edo explicaduco dodaz ezannenac, eta gneijen eguiten oi dirianac,

jaquin daguizuben norzuc eguiten dabeen pecatu. Lenengo: eguiten dabee pecatu salcen dabeena nastetan dabeenac beste gauzaren bategaz. Celacuac dirian tabernari ardauari ura ezarten deutzenac; errotari edo oguiguin urun, edo oguijari caria, zaija, edo beste gauzari ezarten deutzenac: eta nastetan dabeen gancia bada osasunian gach eguin leijana, beste pecatu mortal bat eguingo dabee. Eguiten dabe pecatu icasguinac, edo icatzen jauviac icatzari ezarten badeutze iduri, luur, edo beste gauzaren bat, eta icatza onzat salcen dabeenac; eta beinguan esaterren, edoceimbere naste eguiten dabeenac, eta alaco naste baguien precijuan salcen dabeenac. Beste gauzari izango litzateque cerbait urri dagualaco, beste calteric, edo gachic eguiten eztaben gauzaren bategaz nastaduria, merquiago salcen dala, jaquinic naste au erosten dabeenac; esateraco: dago urri garija, eta merquiago urten daguijan nastetan jaca arte uruna, eta au jaquinic erosten dau norbaitec, merquiago urten deijon jango dabem oguijac. Orduban eztago peccaturic onelaco nastian.

Bigarrengo: eguiten dau pecatu neurri, edo pisuban cerbait guichitu, edo quencen dabenac. Modu onetan eguiten dabee pecatu, ardao, ogui, aragui, edo beste onelaco gauzaren bat salcen dabeenac, pisuban puscabat guichijago emoten badabe. Bardiñ: oijala, sereni, edo cintia, edo beste gauzaren bat salcen dabeenac, ondo neurtuten ezpadabe. Eguiten dabe pecatu icazguinac, edo icatzen jauviac, biar dabem moduban beteten ezpaditubez icatz sorro, edo sacubac. Eguiten dabe pecatu, cana, pisu, neurri chiquijaguac dauquezanac, aguinduric dagozanac baño, edo biar dirianac baño. Verba baten: erosten dabemari biar leuquian baño guichijago emoten deutzanac, dan moduban dala, pecatu mortala eguiten

dau. Irugarrengo: eguiten dau pecatu, gauza chaarra on-  
 zat salcen dabenac erosten dabenac jaquin бага, eta  
 onaren precijuan. Eta alan eguiten dau pecatu, oijal,  
 miesa, galcerdi, cinta, edo beste edoceimbere gauza ma-  
 readu, sitzac jan, edo ustelduba ezagututen eztaquijana-  
 ri salcen deutzanac ona balitz leguez, eta onaren pre-  
 cijo, edo valijuan. Eguiten dabe pecatu, gari cocuac ja-  
 na, arto berotu, eta galduba, aragui ustela, edo erdi us-  
 telduba, onzat salcen dabeenac. Eguiten dabe pecatu,  
 idi, bei, chal, idisco, zaldi, mando, edo beste abere ta-  
 cha, edo faltaren bat daucana, alacoric ezpaleuca leguez  
 salcen dabeenac. Ara Christinaubac: onelaco saldu erosi-  
 ric eguiten danian, azaldu biar dira salcen dan gaudiac  
 daucazan utsune, edo faltac, eta gustiz obeto isilac, edo  
 ecin icusi, edo ezagutu leiquezanac badira, bestelan pro-  
 ximua engañetia da.

Enzun daiguzan orain onelacuen achaquijac: Jauna,  
 esan oi dabe ondo pisau, eta neurtuten eztabeenac, edo  
 pisu eta neurri chiquijaguac dauquezanac: Jauna, au egui-  
 ten ezpadogu ecin ondo urten guinaique tratuban, eta  
 alambere ozta ozta ateraten dogu costa jacuna; gustija  
 dago gora, edo caru. Gueu bere sarri eta sarri engañe-  
 ran gaitube. Neurrijan barriz, eta pisuban utsune, edo  
 falta andijac euqui oi doguz; pusca bat guichijago emon  
 arren badarue emoten deuzcubenen duin, bada-escatuten  
 badogu valijo dabena, laaregui deritzue, eta eztabe ero-  
 sigara, eta alan guichijago emotiagaz, edo puscachu bat  
 quendubagaz darue valijo dabena. Achaquija onecaz  
 ueste dabe ascoc, eta ascoc edoceimbere naste eguin leije-  
 la, eta cerbait quendu leijela pisu, edo neurrijan. Baña  
 au ezta demoniubaren asmupa baño. Esaidazu: cer adi  
 eraso nai dozu dimozquian, ecin bestelan ondo urten si-

naijala? Esan nai dozu aragui, ardao, edo abaceria errematadu dozula, eta onelaco nasteric eguiten ezpadozu, edo cerbait guichijago emoten ezpadozu, irabaci biarriañ galdu eguiten dozula? Onetan sartu baño leenago beguiratu biar cenduban cer eguiten cenduban, eta uts eguin badozu, ezteutzu erruric zure gauria erostera doianac. Jauna, nic erremata eguin ezquero igon dan asco ardao, orijo, bacallao, edo araguijac; orduban baño gueijago babiljo ezpaleu eneuque olaco gauzaric eguingo. Orretan sarcen cinianian jaquin biar cenduban au jazo cinaitequezula. Mercatu balira gauza oneec, eta icusiric zure irabaci andija beeratu nai izan balentzube lenenguan ifini zanetic, cer esango cenduban? Tratuba tratu da eranzungo cenduban, eta alan ecin beeratu leiteque. Bada auxe berau eranzungo deutzube zure gauria erostera dnanac. Daucazun tratu ori ceure vorondatez artu badozu, ichi eguijozu galcen badozu, eta artu eguizu beste vici modu bat. Ceubec dacutzube bada, ce buru baguia dan achaujua au, eta ecin eguin leitequiuala, ez nasteric, ez pisu, edo neurri guichijago emoteric.

Dinozunian ecin ondo urten cinaijala tratuban naste baga, eta ondo neurtu, eta pisadubagaz, esan nai dozu ecin irabaci cinaijala gura ceunquian, edo uste cenduban beste? Auxe izan oi da gueijenetan esan nai dana. Au demoninuaren laquijua da, dino San Paulo Apostolubac, ceinetan jausten dirian aberastu gura dirianac. (1) Ara cer jazo oi dan onetan. Icusi cenduban norbaitec encan tratuban ondo irabasten evala. Artuten dozu zuc bere onelaco saldu erosija, baña eztaquizulaco celan eguin biar dan, edo eztauczulaco bestiac lezco moduric ecin aurreratu dozu berac beste, edo venturaz atzera zuaz

(1) 1. ad Tim. cap. 6 v. 9.

aurreratu biarrian. Orduban irabasteco gurarijagaz asten zara nastiac eguiten, eta pisu, eta neurrija chiquituten. Jauna, bestiac bere alainche eguiten dabee. Bestiac eguitiac ezteutzu zuri escubideric emoten eguiteco. Bestiac charto eguiten badabe, ecin zuc orregaitic eguin einaique. Jauna, neuri bere alainche eguiten oi deuzte, eta orregaitic calte andijac euqui oi ditudaz. Bestiac zu engañadu bazaituz, pecatu eguin dau, eta zuc engañetan badozu pecatu eguingo dozu. Cer eritzi deutzu engañadu zaituzanac? Eztozu esan, lapur, picaro bat dala? eztaqui-zula celaco concienciya daucan, ecin beragaz tratutric euqui leijala, eta beste aora etorri jatzun gustiya? Bada, cer nai dozu esan daijan zugaitic, zuc engañadu dozunac? Zuc bestiagaitic dinozuna, eta alan bestiagaitic dinozuna dinozu ceure burubagaitic.

Icusiric noc eguiten daben pecatu saldu erosijan, icusi daigun noc eguiten daben beste tratubetan. Eguiten dau pecatu, gaurcia salcen dabenac balijo daben baño gueijaguan, epian emoten dabelaco; edo erosten dabennac, valiyo daben baño guichijaguan, diruba escuban emoten dabelaco. Onetaraco jaquin biar da, iru valiyo, edo precijo dauquela gauzac. Bata goren gorena, bestia beeren beerena, eta irugarrena onen bijoen erdicua. Esataraco: Bustar idi batec valiyo dau gucijen gueijen eun da berrogueta amar ducat, auxe da goren gorena; valiyo dau guichijen guichijenez eun da berrogueti, auxe da beerena; eta onen bijoen artian daguana da erdicua. Orain bada bustar idija epian emoten, edo zalcen dozulaco badarua-zuz eun da berrogueta amar ducat baño gueijago, pecatu mortala eguingo dozu. Bardin; diruba escuban emoten dozulaco, erosten badozu eun da berrogueti ducat baño guichijaguan, pecatu mortal eguingo dozu; eta biur-

tu biarco dozu gueijago eruan dozuna, edo guichijago emon dozuna. Eguiten dabe pecatu, gauciac valijo daben baño gustiz gueijago escatuten dabeenac, dauquela gogo, edo gurarija al daijen goren salceco. Esateraco: dauquizu gauciac eztabena valijo oguei baño, eta zuc escatuten dozu berroquei. Cetaraco? Ogueta amarrian zalceco. Ez Jauna orretaraco, ezpada valijo dabenian gueratuteco: beti nai dabee crosten dabeenac al daijen gustija beeratu, eta orregaitic gueijago escatuten dot. Noc au sinistu leijue? Esaizu: araco zure gauzia preminaz biar dabenen batec, valijo daben baño gueijaguan eruan deutzunian, edo eztaquijalaco valijua gueijaguan saldu deutzazunian, biurtu deutzazu larregui eruan dozuna? Eztaquit azartu, edo atrevidueo zarian baijez esaten. Icusten dana da, bacochoac salcen dabela al daijan goreen, mila guzur esaten diriala orretaraco.

Emenche, neure Christinaubac, gauza bat esan nai deutzubet. Beti gagoz enzuten: Jauna, guzur batzuc esan ditudaz saldu erosijan, baño eztira gauza nagusi, edo gravian izan. Ce guzur modu izan da bada? Jauna, esatia: ori baño gueijago opa izan deuzte: orretan emon nai izan baneu, gustija neucan salduric: ori baño gueijago neuri costa jatan, neuc poz pozic orretan erosico neuque. Eta chiquijac diriala dinozube guzur oneec? Zac guzur orreccaz salduten badozu gaucia valijo daben baño gueijaguan, pecatu mortala eguingo dozu. Eta zalcen ezpadozu bere, bildur izan cinaitequez pecatu mortal eguin izango dozula. Ara cegaitic. Mandamentu onetan ez baccarric galazoten jacu inoena quenceia, edo euquitia, baita bere inoena nai izatia. Zac guzur orreec dinozuz eroslarrija, edo erosten dabena engañetaco; eta alan au badinozu berac sinisturic erosi deizun valijo daben baño gueija-

guan, nai dozu bestien gaucia, eta eguiten dozu mandamentu onetan eragozten dana. Jauna, guzur orreec ezpadinoguz ecin ecer saldu guinaique. Ce zoraquerija! Sinistuten deutzu erotzen datorrenac, ala ez? Sinistuten badentzu, eta gora critziric arcen ezpadentzu, eztozu guzurragaz ecer aurreratuten. Erosten badentzu valijo daben baño gorago, engañetan dozu, eta au ecin cinaique. Sinistuten ezpadentzu, guzurtitzat zaucaz, eta auxe da bacarric ceñre guzurracaz aurreratuten dozuna. Auxe jazo oi da; edonoc dañai esacune onec salzailiac guzurragaz esan oi ditubezana, eta ez oi jaque inos sinistuten. Orregaitic escatu eguizube ondo deritzubena, eta ichi eguizube itzcune guzurti ori. Ara, esazu beti eguija, escatu eguizu ondo dana, eta icusico dozu celan gustijac juango dirian zugana.

Eguiten dau pecatu prestetan dabenac diru, gari, arto, edo beste gauzaren bat, ifinten badentza prestetan deutzanari emoten deutzan gañetic cerbait gueijago biurtuteco premia, edo obligacinoia. Esateraco: biar dituz zure auzo, edo adisquide batec eun ducat escu artian, escatuten deutzuz zuri, eta zuc ezteutzazuz emon gura, ezpadentza emoten verbia biurtuco deutzazuzala eun eta iru. Escatuten deutzuz beste batec anega bi, edo iru gari, nai arto, eta emoten deutzazuz, iru anega, eta iru celemin biurtuteco biar edo obligacinoiagaz. Au lucruba, edo usuria da, eta pecatu mortala. Cerbait presteran danian ez bacarric ecin cruau leiteque prestetan dan diru, arto, gari, edo beste gauzaric baño gueijago, baña ecin ifini bere leijo beste obligacinoeric. Esateraco: zure adisquide batec biar dituz premia batetic urteteco eun ducat; escatuten deutzuz, eta dirautzazu: gura badozu eun ducatac prestadu deizudazan, ezteutzazuz biasta



biarco eun ducatac baño; baña saldu biarco deutzazuz ceure arto, edo garijac, beste bati emongo ceuzquijozana leguez; bota biarco deutzazuz olara ceure icatzac, etorri biarco zara aloguerian. Modu onetaco obligacinoiac lucruba, edo usuria dira, eta peccatu mortal. Jauna, bestec emongo leuzquijona emongo deutzat, eta eztau ecer galduco, gari, arto, icatz, edo aloguerian. Ezta import; ecin ecer quendu leijo, ezta bere gauzacaz nai dabena eguiteco escubidia bere. Ain modutan, ain estu au jaon biar da, ce ecin ecerbere escatu leiteque prestetan danatz utzic, eta bacar bacarric baño.

Jauna, nic diru orregaz gucijago irabaci neuquian; mercarari bati, edo tratuban dabilen bati emon banutzaz, euneco sei emongo eutzazan. Irabaci cinaiquiana gaitic ecin ecer eruan cinaique, bada onctara beguiratuco balitz, norc esango dau cer irabaci leitequian? Eta errazua au emon leique bere diruba gueldi gueldi daucañac bere. Beste gauzaric litzateque diru ori tratu on, edo artez baten ifintera bacinuaz, eta bestiari mesede eguiteren, eta bere erreguz ichiten badozu irabacico cendubana, edo prestetia gaitic calteren bat etorrico balijatzu, eta berari esanagaz osotu nai baleutzu; bada orduban emongo baleutzu nai dala irabastera zuazana, nai dala datorquizun caltia, au ezator prestetatic, edo ezta preteetan dozunen sarija. Bada Jauna, ecin ecer eruan af baleiteque prestetiagaitic, eztau inoc prestadu guraco, eta alan gustijac, edo gueijenac darue cerbait prestetiagaitic. Badaquit ori. Baña cegaitic ezta aurquituco prestadu guraco dabenic? Caridaderic eztagualaco, edo otzitu dalaraco; baña ara cer dinuan Jesu Christoc: prestadu eguizube, remoten dozubena baño gucijaguen ichoromen, edo

esperanza бага. (1) Gueijago eruate au lucreriya, edo usuria da, eta dago eragotzi, edo galazoric. Escritura Sagradubac, Evangelijuac, eta beste legue gustijac condenetan dabe. Ori gueijenac eguiten dabee, dinozu. Larregui; uxala inoc eruango ezpaleu prestetan dabena baño gueijago. Ara Christinaubac, berez char, donga, edo pecatu dana ecin ondu leiteque, mundu gustijac eguin arren bere. Esaizu: eguin cinaique lapurretan ascoc eta ascoc eguiten dabeelaco? Edo esanic zuri cegaitic lapurretan zabilzan, deritzu achaquiya ona izango litzatequiala erantzutia beste ascoc bere lapurretan eguiten dabe? Auxe berau erantzuten dozu dinozunian, ascoc daruela cerbait prestetia gaitic.

Bildur izateco da, ascoc eta ascoc bide bagaco irabacijac dauquezala censuetan. Onelaco irabaciric euqui eztaizuben, jaquin biar dozube modu bitacua dala census; bata eche, solo, edo frutuemaile dan gauzaren baten ganian ifinten dana, eta deitza erriala. Censo onetan euneco iru baño gueijago ecin eruan leitequez, dinue Españaço leguiac. Bestia da guizonaren irabaci, edo tratu, nai comercijuan ifinten dana. Oni deitzo personala. Esateraco: emongo balijacoz milla ducat guizon bati tratu, edo mercataritzan eguin daguijan. Censo onetan eruan leiquez euneco sei. Baña milla ducat oneec aseguretan badira hacienda, fijadore, edo beste gauzagaz, ecin eruan leitequez euneco iru baño. Onelaco traturic ez eiquezube eguin ondo daquiñanacaz itundu, edo aconsejadu бага.

Eguiten dabe pecatu; gariya, artua, edo beste biar biarreco gauzac erosiric batuten dirian demporan escute-tan ditubezanac, modu onetan carutu dedin laboria, guero eurac nai dabeen bestian zalceco. Onelacuac mada-

(1) Luc. 6 v. 35.

ricatubac izango dira erri, eta urijetan, dino Espiritu Santubac. (1) Eguiten dabe pecatu mortal, araco guizon gogor, eta crubelac, ceinzuc jaquinic eurac baño bestec eztaucala biar biarreco gaucia, euren vorondatera ifinten daben precijua. Modu bitan jazo leiteque gogorquerija au. Eguin leique au batec bacarric. Esateraco: daqui guizon aberatz batec gordetan badira erri bateco amarrenac, gurata gura ez laboria gustiz urri ibilico dana; bada cer eguiten dau? Erosten dituz al daizan gari, eta arto gustijac, errematetan dituz amarrenac, eta gordetan dituz gustijac, aurquitu eztedin errijan bere arto, eta garijac baño, eta modu onetan ifinten deutza nai daben valijua. Onec pecatu mortal eguiten dau. Beste modu baten au eguin leiteque. Eztaucque gaucia, edo generua sei, edo zorcie baño: onec gustijoc alcar artuten dabe, eta dinue: gueuc baño bestec eztauca onelaco gauzaric, bada eztoqu salduco onembeste baño merquiago.

Esateraco: dauquez sei, zorci, edo amar guizonen artian, bost, sei erri, edo merindade bateco amarren gustijac, eta icusiric murrutubagaz duazala gari, arto, edo eurac dauquezan labore, edo frutac, gustijac alcar arturic compounduten dira eztabeela arto, edo gari anegua onembeste baño guichijaguan salduco: au pecatu mortala da. Bardin da euren artian compounduten badira, urlija demporara artian eztoqu salduco, urrituric laboria gustiz gora igon daguijan. Bildurtu, eta larritu bediz onelacuac, enzunic Jaungoicnac berac eguiten deutzen bitraua Amos Igarla, edo Profetiaren aotic. Zubec zatituten dituzubez pobriac, dino, eta gosiac ilic daucazubez preminaz vici dirianac: dinozubela: nos iragoco da ila, eta salduco dituguz mercerijac? Nos elduco da demporia

gueure ategui, edo troxac idiguiteco? Orduban chiquituco dogu neurri, eta pisuba, eta goratuco dogu valijo, edo precijua. Larrin ondocoguinoena salduco dogu nai dogun bestian. Ara bada; neuc juramentu eguiten deutzubet, eztodala inos astuco zuben gogorquerija au, eta urolac leguez etorrico diriala gach gustijac zuben gamera. (1)

*Erasoguinza.*

Christinaubac, nor bildurtuco ezta Jaungoicuaren aotic cematute, edo amenaza au enzumic? Orregaitic etzaiquez engañadu irabaci guriac. Onelaco saldu crosi, edo tratuben baten sartu baño leenago, ondo ondo itundu, edo aconsejadu zadiz ceuben confesore, edo guizon jaquitunen bategaz, ceubec ceuben burutic erabagui baga Theologu andi batzuc bacina leguez, eta ondo ondo beguiratu, itundu, edo aconsejadu ezquero oraíndio dudan gueratuten bazara al cinaiquian ala ez, obe da bertan beera istia, irabaci pelleburuzco, edo dudazcua ateratia baño. Cer balijoco deutza guizonari mundu gustija irabastia, bere arimia galcen badau? Ay neure enzula maitiac! irabaci andi bat veguijen aurrian ifinten bada, gustiz da erraz ichututia, eta traturic oquerrena on eta arteztzat euquitia. San Paulo Apostolubac cirautzan bere icaslari, edo discipulu Timoteori. (2) Aberastu gura dirianac jausi oi dira tentacinoe andijetan, diabrubaren laquijuan, eta gurari char, oquer, eta galgarrijetan, ceituzc ondatuten ditubezan euren erijotzan. Cequenquerija, misquenquerija, edo ondasun gurari larreguija da gach gustijen sustraija; bere jarrai dabilzan ascoc fedetic utz eguin dabee, edo fedia galdu dabee; eta jausi dira min, ala, eta gach andijetan. Eguin begui bacocharc biarra,

(1) Autos. cap. 8 v. 4 et seq. (2) 1 Tim. 6 v. 9.

jan, janci, eta beste biar dabena irabasteco, ez bacarric beretzat, baita bere seme, eta beste echecho, eta bere ardurara daucazanentzat; eguin begui aleguina ichiteco semiai cegaz vici: au gauza ona da, Jaungoicua ac aguinduba esan entzanean Adani, eta beragan bere seme gustijoi: ceure arpeguico izerdijagaz jango dozu oguija; baña ez bedi au izan ardura larreguijagaz, ez ondasun pilo andijac batuteco gurarijagaz, ez hacienda zabalac ifinteco uste erriagaz; bada zarcen bajatzu vijotzian ondasunen zaletasun laarreguija, ceure arimia bere salduco doza eurac batuterren: saldu erosi, edo traturic oquerren, eta bide baguenac bere onzat euquico dozuz. Eguizube aleguina ceuben vijotzetic quenceco gurari laarregui au, villatu eguizube lenengo Jaungoicuen erreinuba, eta berac emongo deutzube gorputzeraco biar dozuben gustijac berac dauca bere verbia emonic, eta leenago galduco da cera luur, eta eurretan dagan gustija, bere esana baño. Bera da gustijoen Aita; baña celaco Aita? Munduco aita gustijac eztitubez ain lastan euren semeric maitienac, cein da berac gu; biar badituguz ondasunac, berac emongo deuzcuz, eta emoten ezpadeuzcuz izango da conveni ez jacuzalaco. Ezarri daiguzan bada beragana gueure gogo, eta uste gustijac, eta onexegaz bacarric vicico gara mundu onetan poz pozic Jaungoicua emoten deuzcunagaz, eta artuco doguz bestian neurri bagaco ondasunac. Amen.

### *XLIII. VERBALDIJA.*

*Zorcigarren legueco Mandamentuben ganian.*

**I**ru on daucaz guizonac mundu onetan, gorputza, edo gorputzeco osasuna, ondasun, edo vicitza au iragoteco

biar dabena, eta izen on, edo honra, eta famia. Iru on onetan gach eguitia galazoten jacu Jaungoicuaren le-  
guian. Bostgarrenian aguinduten jacu, ez gachic eguitia  
gorputzian, edo osasunian, dirauzcunian ez inor iltia.  
Zaspigarrenian galazoten jacu gach eguitia ondasun, edo  
beste gauzetan, esaten jacunian ez inori ecer ostutia, eta  
zorcigarrenian eragotziten jacu gach eguitia izen on, edo  
honra, eta faman, aguindubagaz ezteijogula inori guzur-  
rezco testimonijoric eregui, eta eztaigula guzurrice esan.  
Mandamentu onetan galazoten jacuz lau gauza. Lenen-  
gua: errazua baga, edo fundamentu baga uste izatia, edo  
sinistutia norbaitec eguin dabela gauza char, edo donga-  
ren bat: bigarren: isilian euquiteco esan deuzcubena  
aguirira ateratia, edo publiquetia: irugarrena guzurra  
esatia; eta laugarrena inorgaitic dongaro esatia, edo mur-  
muretia. Auxe da azaldu, edo explicadu nai neuzquezu-  
bena; baña izanic laarregui Verbaldi, edo platica bate-  
raco, ichico dogu murmuracinoia beste bateraco.

Juicio char, arin, bide baga, edo esan oi dana le-  
guez, juicio temerarijua ezta beste gauzaric, ezpada ciur,  
edo ciertutzat euquitia, norbaitec eguin dabela gauza  
dongaren bat, equi baga fundamentu, edo errazoeric  
alan uste izateco. Esateraco: dacutzuz guizon, eta ema-  
cume bat duazala bide batetic, eta beste fundamentu ba-  
ga daucazu ciur, edo ciertutzat pecatu eguitera duazala.  
Euquitia, norbaitec gauza dongaren bat eguin izango da-  
belaco sospechia, edo dudan gueratutia, eguin izan da-  
ben ala ez, ezta pecatu mortal, ezpada venial. Eguija da  
onelaco sospecha fundamentu baguia nosbait izan leite-  
quiala pecatu mortal bere, eta izango da araco funda-  
mentu baga guizon andi, eta veneragarri bat gaitic sos-  
pechetan danian gauza char, edo pecatu eguin dabela.

edo eguitera doiala. Esateraco: dactzu Arima-zain, edo Cura, Sacerdote, Obispo, edo beste guizon veneragarri izen oneco, eta gustijac onzat dauquena verbaz daguala calian, edo vidian andra edo señora bategaz, eta beste baga eguiten dozu sospecha, gauza charren bat eguin dabeela, edo eguitera duazala. Au pecatu mortala da, onei zor jaquen itzal, edo errespetua gaitic. Izan bere leiteque pecatu mortal besteri esaten bajaca daucan sospechia. Esateraco: falta jatzu, edo ostuten deutzube echeric urre, cirar, diru, edo beste valijo andico gauza-  
ren bat, eta dirautzazu beste bati: urre, cirar, diru zati andi bat ostu deuzte, enago ciertu ciertu noc ostu, edo quendu izango deuztan, baña neure iritzijan urlijac, edo urlicijac izan biar evan lapurreta au eguin euztana. Au pecatu mortal da, bada urlija, edo urliciya orrec galdu ezpadau bere zuri enzun eutzun orrenzat bere izen on, edo honria, eta famia, beti guichituten jaca.

Esan da, juicijo donguia pecatu mortal izateco, izan biar dala fundamentu, sustrai, edo errazoe baga; bada onelacoric badago, ezta pecatu mortal izango. Jaquin guraco dozu, ce errazoe, edo fundamentu biar dan juicijo donguia arina ez izateco, edo nos esango dan, errazoe, edo fundamentuba daguala eguiten dogun juicijua peccatu mortal ez izateco? Ecin onetan gauza cierturic esan neiquezu, ecin erreguela segururic emon neiquezu. Jazo leiteque eguite, edo obra bat, verba bat, edo ibilera bat bategan errazoe, edo fundamentu izatia beragaitic juicijo charra eguiteco, eta auxe berau ez izatia beste bategan. Dactzu mutil choriburu bat, ez ain izen oneco, edo fanacua erri, edo urijan doiala gaberdijan isil isilic, lagun dabela bera leezco nescatila bat; ciurzat euquitia, onec eztuazala gauza onera, ezta juicijo arina izango;

bada euren vici modubac, dan ordubac, ain isilic jua-  
 tiac, eta dauquen enzute, edo fama charrac emoten da-  
 be fundamentu, edo gueija, juicijo donguia eguiteco. Ba-  
 ña icusico bacendu errico Arima-zain, edo Curia, ejem-  
 plu oneco guizona, gustijac Sacerdote onzat dauquena,  
 eta inos cer esanic emon eztabena, doiala emacume chris-  
 tinan on, eta Jaungoicuaren bildurti bategaz gaberdiñan  
 modu onian, eta sinistuco bacendu gauza charrera dua-  
 zala, juicijo arina, edo temerarijua izango litzateque, eta  
 pecatu mortala eguingo ceunque. Onduen onduena da  
 ez ibiltia inoren vicitzac juzguetan; baña nosbait eguiten  
 badozu onelaco juicijo, nai sospecharic, edo badaucazu  
 dudaric, esaijozu argui, edo claru ceure Confesoriari, eta  
 berac erabaguico dau.

Jauna, eguija da juicijo donga asco eguin dodaza-  
 na, baña ezteutzat inoribere esan, eta alan ezitudaz pe-  
 catutzat euqui. Ezta import. Juicijo donguia eguin bacen-  
 duban, gauza nagusi, edo gravian bazan, eta errazua,  
 edo fundamentu бага, pecatu mortal eguin cenduban.  
 Edonoc dauca escubide, edo derechua, gac onzat euqui  
 daigan, ezteuzcun artian emoten errazoe, edo funda-  
 menturic charra dala sinistu, edo uste izateco, eta bes-  
 telan austen dogu caridadia, ceinec aguin diten deuzcun  
 ez deungaroric pensetia gueure proximuac gaitic. Orre-  
 gaitic cirautzen San Paulo Apostolubac Erromatarrai: ez  
 eiquezube batatc bestiagaitic dongaro juzgadu (1) Juicijua  
 burura etortia ezta pecatu, vorondatiac bairic emoten  
 ezpadentza, edo consentietan ezpadan, eta juicijo, uste, edo  
 sospechetan, jarraitu biar jaca, pensamentu loijen ganian  
 emonic daguan icasbide, edo doctrinari; eta alan gau-  
 zaric oneena da, onelaco juicijoric datorrenian aibat

(1) Rom. esp. 14 v. 12,



lasterren botatia. Eguin bere biar da aleguina, icustea dan gaucia alde onera ezarteco; bada alan eguinagaz ezatorcu gachic, ez calteric; baña charrera botateco ecan-duba daucanac, sarri eta sarri uts eguingo dau, eta bantian ezpada bestian pecatu mortal eguin leique. Barriz onera botiagaz, uts eguiten badogu bere ezatorquigu gachic, eta accertetan badogu eztoqu onic galcen.

Ezta mandamentu onen contra, bildur izatia gachen bat jazo leitequiala, eta bildur onegaz ardura arceia etorri ezteiquijon; bada onetan ezta juicijo charric inorgaitic eguiten. Eta alan ezta pecatu, ceure gaucia gordetia, inocostu ezteizun. Ezta pecatu otsein, edo crijadubai contuarceia, jaquiteco leijalac dirian ala ez; ez curai fijetia urre, cirar, diru, ardao, gari, arto, edo beste gauzaren batzuc, edo guilzpian euquitia eurac quendu eztaijezen; ez-tazauzunen bat echera datorrenian, ardura euquitia cerbait ostu ezteizun; bada gauza gusti oneec, eta beste onelacuac eguinagaz, ezta juicijo charric eguiten, ezpada quencen da eguiteco ocasioia, eta au ezta pecatu. Gurasuac barriz, ugazabac, eta besteen arduria dauqueenac, ez bacarric eztabe pecatu eguingo bildur izanagaz galdu ezteitezan euren seme, otsein, eta aguindupecuac, ezpada gustiz da gauza biarra euquitia, eta pecatu mortalen beian alderatu, edo apartadu biar ditubeez pelleburubetatic. Beguiratu biar dabe nora duazan, nundic dabilzan, celaco lagunacaz batuten dirian, eta nogaz dirian adisquide; eta bildur badira, urlija, edo urlicijagaz batuten diriala, edo onegaz, edo bestiagaz diriala adisquide, eta eurac galdu leijejala euren ume, otsein, edo aguindupecuac, galazo biar deutzee curacaz lagundu, edo batutia; bada gauza bat da, bildur izatia seme, edo aguindupecta urlija, edo urlijagaz batuten badira galdu leite-

quezala, eta beste bat, urlija, edo urlicija dongatzat euquitia. Zuc ceure semia onzat daucazu, urlija nescatilla onzat daucazu, eta nai badozu santatzat; baña alambere errazoe andijagaz bildur izan cinaiteque, alcarragaz adisquide badira, eta dempora lucian badagoz, galdu leitequezana, eta gustiz ondo eguingo dozu galazoten badentzazu ceure semiari daucan adisquidetazuna, edo beragaz egoten. Bardin dinot otseinac gaitic. Zuc leijalzat daucazu ceure crijaduba, baña bildur izan cinaitequez juicijo donga бага, ocasinoiac emon leijola eguiteco bestelan eguingo ez leuquian lapurretia, edo ardaua librian ichiten badentzazu orditu leitequiana, eta ceure gauzaac gordiagaz, eztozu beste gauzaric eguiten, ezpada quendu pelleburu, edo ocasinoia.

Ondo beguiratuten badogu cein dan juicijo charren sustraija, icusico dogu bi diriala; bata donga eta chaarra izatia bide bagaco juicijua eguiten dabena: bestia proximuari jacan gorroto, edo embidija. Deritza chaarrari bera leescuac diriala beste gustijac, dino Espiritu Santubac, (1) eta bera bide oquer, eta galdutic dabilena leguez, andiseo dabilzala beste gustijac; eta alan lapurrac gustijac daucaz lapurtzat, ordijac orditzat, loijac loitzat, guzurrijac guzurtizat; eta alan onelacuenzat guerizaric chiquijona, euren beguitanduric arinena, edo irudiric urrinena da asco ciertu ciertu sinistuteco, edo juicijo eguiteco bera dan moducua dala bestia bere, eta bera erraz jausi oi dana leguez, alaanche au bere jausico dala. Eta cer jazo oi da onelacuacaz? Eguin begui edonoc cerbait, esan begui verba gachera, edo onera aitu, edo ezarri leijan bat; bada gucijenian, beti ezpada, ezarrico dabee charrera. Eztabe eguingo uste, edo juicijo onic. Eztago euraçga-

(1) Eccle. cap. 10 v. 3.

nic seguru, guizonic ez anratic, esconduric ez librerie,  
mutilic ez nescatilaric, Fraileric ez Monjaric, Abaderic  
ez guizonic andijenic. Betor santuric andij-na, eguin be-  
guiz mirariric arrigarrijenac, bada eurac gaitic eguingo  
dituz juicijo charrac. Bigarren sustraija izan oi da perso-  
na ari jacon gorroto, ecin icusi, edo embidija. Egunian  
egunian icusten da eguija au. Beucaz guizon batec are-  
rijo bat, eta adisquide bat; asi bedi norbait verbaz gui-  
zon onen ganian adisquide, eta arerijo onen aurrian,  
bada icusico da, arerijuac bertatic sinistuten dabela bere  
contra esaten dan gustija, eta ez ain erraz esaten dan  
ona: adisquidiac bestera, bertatic sinistuten dau beragai-  
tic esaten dan ona, eta ez ain laster dinuen charra. Ain  
da ezagan eguija au, ce norbait gaitic ecer esaten danian,  
bertatic da ezagun nor dan arerijo, eta nor dan adis-  
quide. Auxe beran jazo oi da juicijuan bere; eguin be-  
guije gauza bat arerijo danac, eta adisquidiac, bada gus-  
tiz da erraz adisquidiena onera ezartia, eta dongara are-  
rijuena. Contu bada arerijuac gaitic juzguetan danian.

Mandamentu onetan aguinduten jacun bigarren gau-  
za da, isilic euquitia isilic euquiteco escatuten jacuna, ez  
zabaldutia, edo inori ez esatia. Esateraco: jazoten jaco  
noribait gach andi bat, cein ez leuquian nai inoc jacun  
daguijan. Dator zugana erremedijo billa, edo conseja ar-  
cera cer eguin leiquian; eta onetaraco dirautzu ezteijo-  
zula inori bere esan; bada ecin zuc inori bere esan cinai-  
jo, eta esaten badeutzazu, pecatu mortal eguingo dozu.  
Ain modutan isilic euqui biar dozu, ce contu eguin biar  
dozu ezteutzula esan, edo eztaquizula. Onezaz ostian,  
dagoz oficijoco batzuc, zeinzuc ecin esan leijen pecatu  
mortalen beian daquijen gaucia, isilic egoteco verbaric  
emoten ezpadabe bere. Zalatu edo acusetan dabe gui-

zon bat eguin daben charquerija bat gaitic: dua au Letrau bat gana, eta itanduten deutzan cer eguin leiquian; dirautza onetaraco jazo dan gustija; bada ecin Letradu onec esan leique arec esan deutzan gauzatic. Dauca guizon, edo emacume batec lotzarizco gach bat, nai dan Medicu, Barberu, eta beste daquijanen batec isilian osatu daguijan; bada ecin onec esan leije euqui daben gacha. Gueratuten da seindun nescatilla bat, eta bere izen on, edo honria ez galcerren dua escutuban daguan eche batera. Demporia eldu deinian dei eguiten deutzan Andramaestriari seineguiten lagundu deijon, bada ez Andramaestriac, ez eche atacoc esan leijue inori nescatilla agaz jazo dan gauzatic. Oncec gustijoc beti beti isilian euqui biar dabee daquijen gustija inori bere esan baga, eta esaten badabe pecatu mortala eguingo dabe; bada da gauza nagusi, edo gravian; baña isilic euquiteco esan, edo aguindu zana, chiquija bazan, edo calteric ezpadator, bacarric izango da pecatu venial.

Mandamentu onetan aguinduten jacun irugarren gaucia da, ez guzurric esatia. Iru modutacua da guzurra. Bata da chanchetan, eta barre erasoteco esaten dana. Bestia cerbait erremedijetaco esaten dana. Oncec bijoc pecatu arin, edo venialac baño eztira, inori curac gaitic gach, edo calte andiren bat ezpadatorquijo; baña alambere guzurra beti da guzur, eta orregaitic mundu gustija gaitic bere ecin guzur bat esan leiteque. Gauza chiquitzat daucaguz orain guzur onec, baña eldu deinian araco juicijo estu, ceinetan artuco jacun verbaric alperchubenen contu ciatza, ezagutuco dogu uste guenduban baño andi, eta pisutsubago diriala. Irugarren moduco guzurric dira caltersubac, eta da, araco esaten dan guzurretic norbaiti calteren bat datorquijonian: calte,

edo gach au andija bada, izango da pecatu mortal, bafia chiquija bada bacarric izango da venial. Eguiten dau pecatu mortal, bere proximuari ereguiten deutzanac guzurrezco testimonijoren bat bere honra, izen on, edo fama, nai ondasunen contra. Onelaco falso testimonioric ecin eregui leiteque, bacoachac bere vicitzia jaoteco balitz bere. Zagoz carcela baten erijotzara condenaduric, bada bacenqui zu acusadu zaituzanari falso testimonio bat ereguiric andic libre urtengo ceunquiala bere, ecin olacoric eguin cinaique.

Bigarrengo: eguiten dau pecatu mortal, esconzaco verbia noribait emonic guero ucatuten deutzanac. Bardin eguiten dau pecatu mortal dinuanac, norbaitec emon deutzala esconzaco verbia, izanic au guzurra. Irugarren-go, eguiten dabe pecatu mortal, asco doian gauza baten ganian corbait jaquin nai dabenari, eta onetaraco itanduten dabenian, guzurra esaten deutzenac. Esateraco: dabil esconza bat, eta itanduten deutzube zuri celacua dan escondu nai leuquiana, eta zuc jaquinic eztala ona, edo ecandu citaletacua dala, andiztu, edo ponderetan dozu al daizun gustija: pecatu mortal eguin dozu. Nescatila bat sartu nai da crijada eche baten, itandu deutzu eche ataco nagusijac celacua dan nescatila ori; zuc jaquinic lapur andi bat dala, dirautzazu gustiz dala loijala. Jau-na, nic eguija badinot nescatila arec galduco dau esconza on bat, eta erruqui emon euztan. Bestiac barriz, ez eucan nun sartu buruba, orche evilen batetic bestera, eta euqui eijan cer jan esan nevan guzur ori. Zuc alde batetic baño eztozu beguiratuten gauza ori. Beguiratu eguizu bestetic bere; eta icusico dozu celaco caltiac datorquijozan bestiari zure guzur orretatic, eta zuc ecin bati lagundu cinaijo bestien caltian, erruquijagaz bada bere. One

tan dinodana dinot beste edoceimbere oficio, edo gauzatan bere, bati mesede eguiterren jacon erruquijagaitic, guzurra esaten bada besteren baten calre andijan, pecatu mortal izango da. Gauza bi dira eguija estaldutia, eta guzurra esatia. Conveni leiteque nosbait, baita biar izan bere eguija ez esatia, edo estaldutia, baña ez inos guzurra esatia, bada au beti beti da pecatu, mortala ezpada guichijenez veniala; orregaitic eztau Christinaubac inos esan biar.

*Erasoguinza.*

Baguina benetaco Christinaubac, sinistuco bagueuntza Evangelijuari biar dogun sendotasunagaz, eta bagueuntca beguijen aurrian Jesu Christoc ain sari dirauzcuna, ez guinatequez ain errazac izango juicijo oquer, edo charrac eguiten gueure proximuac gaitic, eta aleguin gustija eguingo gueunque proximuagan dacuzcun gustija onera ezarteco. Cetan dago gure zorion gustija? Jaungoicuac artuco deuzcun contuban ondo urtetian. Orduban ondo urteten badogu, ezteuzcu arduraric emongo mundu onetaco auci, eta beste gauza gustijetan charro urtenac. Emon bediz mundu onetan gure contra sentenciaric gogor, eta crubelenac, banatu gaguijez, zatitu gaguijez, urcamendi baten ifini gaguijez, viciric erre gaguijez; au ezta ecer; bertatic iragoten dana da; artuten badau Jaungoicuaren aotic il da bertatic sentencija ona, lenago dongaro urtetiac ezteutze arduraric emongo. Orregaitic gure aleguin gusti gustija, gure ardura gustija izan biar da Jaungoicuaren juicijo atan ondo urtetia. Eta badaquizube cein dan moduric artecena, erracena, eta segurubena orduban ondo urteteco? Gueure proximuac bigun, eta erruquijagaz juzguetia, au da, eurretan dacuzcun gustija, danzagun gustija onera ezartia. Auxe da bideric artecena.

Ez eizube uste, au nire burueraren bat dala, edo guizon santu, eta jaquinsuben baten esana; Jesu Christo gure Jaunac bere aotic iracasten deuzcu. Ara cer dinuan bere Evangelijuan: ez eizube inor juzgadu, eta etzare juzgadubac izango, ez eizube inor condenadu, eta etzare condenadubac izango. Ceubec ceuben proximuac juzgadu daiquezubezan moduban ceubec bere izango zare juzgadubac. Ceubec bestiac neurtu daiquezubezan neurrijagaz neurtuco zaitubez ceubec bere. Ceubec bigun, erruqui, edo misericordijagaz juzguetan badituzubez ceuben proximuac, alainehe bigun, eta misericordijagaz juzgaduco zaituz Jaun cerucuae bere. Baña zubez gogor, eta erruqui baga juzguetan badituzubez gachera ezarten dozubela earetan dacutzubena, gogortasun bildurgarri bategaz, erruqui, edo misericordija baga juzgaduco zaituze ceruco Aitac bere. (1) Ezta emen gueratuten Jesu Christo gure Jaunaren ontasuna bigun, eta misericordijagaz juzguetan dabenezaco; bada dino pecatuz beteric badago bere, dirianac parcatuco jacazala, bada dino, parcatu eizezube eta parcatuco jatzube. Baña bestera, parcatuten eztabenari etzaco parcatuco.

Orain bada, neure enzula maitia, celan nai dozu juzgadu zaizan Jesu Christoc mundu onetatic urten daizunian? Nai dozu bigun, amodijotsu, eta erruquiz beteric juzgadu zaizan ceure pecatu gustijac parcatubagaz? Bada eguizu auxe berau ceure proximuagaz: juzgadu eguizu bigun, caridadez beteric, eta misericordijagaz. Nai dozu juzgadu zaizan gogor, eta latztasun icaragarri bategaz, erruqui baga, misericordija baga, eta peccaturic parcatu baga? Ce Christinau fededunec gura leique? Bada auxe jazoco jatzu ceure proximu gogor, latz, eta

(1) Math. 7 v. 1.

miseriordia baga juzguetan badozu. Bai Christinaubac, auxe da jazoco jatzuna dongaro juzguetan badozuz bestiac, dino San Paulo Apostolubac. Bestia juzguetan dozunian, dino, ceare baruba condenetan dozu. (1) Beldurrez icara Jesu Christoren sentencija onegaz, ez gaitazan azartu, edo atrevidu bestiac juzguetan, ichi deijogun Jaunari beretzat bacarric gorderic daucan oficijo au, ezteijogun guc quendu. Ezagutu daiguzan gueure pecatubac, eta humilduric ezauera onegaz cuqui daiguzan gueubaño obetzat; orregaz eztoguz juzgaduco, eta cuquico dogu curacaz miseriordia, Jaunac cuqui daguijan guzaz asquenengo egunian. Amen.

#### *XLIV. VERBALDIJA.*

##### *Murmuracinoiaren ganian.*

**Z**orcigarren mandamentuban galazoten jacuzan gaitetic bat da murmuracinoia; cein eztan beste gauzaric ezpada dongaro esatia proximia gaitic, berac eztanzubala, edo bere atzetic esatia bere utsune, edo faltaren bat. Esaten dan gacha andija bada, eta galdu, edo guchituten bajaca honria, eta enzute on, edo famia, izango da pecatu mortal. Baña bada gauza chiquija, eta galcen ezpajaca honria, bacarric izango da veniala. Jaquin biar dozube, batenzat chiquija dana izan leitequiala andija beste batenzat. Esatia mutilchu bat gaitic guzurti bat dala utzune, edo falta chiquija da; baña auxe berau esatia Obispo, Jaun, edo diñade andiren baten daguana gaitic, izan leiteque gauza nagusi, edo gravia. Gustiz dira asco murmuretaco dagozan modubac, baña gustijac

(1) Rom. c. 8 v. 15.



sartu leitequez zorcitan. Murmuretan da bada. Lenengo: eguin eztaben gachen bat ereguijagaz, edo guzurragaz. Bigarrengo: eguija izan arren cerbait gueitubagaz. Irugarrengo: isilic eguana zabaldubagaz. Laugarrengo: eguin daben onen bat dongarora ezarrijagaz. Bostgarrengo: eguinico obra onen bat ucatubagaz. Seigarrengo: eguitade, edo obra onian gachen bat billatubagaz. Zaspigarrengo: alabetan dabeenian isilic egonagaz; eta zorcigarrengo: epeltasunagaz alabadubagaz. Edocein modu onetatic murmuretan dabenac eguingo dau pecatu mortal, eguiten deutzan caltia andiia bada, eta venial chiquiia bada, eta biurtu biarco deutzaz etorri jacazan caltiac. Esan dabena eguija bada, biurtu biarco deutzaz esanagaz ez eguala beragan, ez equijala cer cinuan, edo beste al daijan moduric onenian. Guzurra esan beban esan biar dau, guzurra esan evala. Ain da estuba onetaraco daucan obligacinoia, ce biurtu biarco deutzaz galdu daben honria berac beria galdu biarco badau bere; edo hacienda, eta ondasuna beria galdu biarco badau bere, eta ifinten badau bere falso testimonio, edo deungaro esanagaz erijotzaco pelleburuban, atera biarco dau andic bera beria galceco pelleburuban ifinico bada bere; bada lenago da errubaga, edo inocentia, errudun edo gachquina baño.

Ez Jauna olacoric, esan oi dabe, eztot inos guzurric eregui, nosbait ecer esan badot enzuna edo icusija izanda. Ezta import: ceuc bacar bacarric bacenquijan bere, ecin besteri esan cinaijon, eta zuri enzun eutzubenac ezpequijen, pecatu mortal eguin cenduban zabaldubagaz; bada edonoc dauca escubide, edo derechua inoc quendu ezteijon daucan izen on, edo fama, eta honria, eta alan biurtu biarco deutzazu quendu deutzazuna. Beste mur-

muracinoe modu bat dago gustiz charra, baño sarri eguin oi dana. Dagoz lau, edo bost norbait gaitic dongaro esaten; eta urteten dau beste batec: ori baño eztaquizube? Ori ezta ecer. Esango baneu nic daquidan gustija::: Baña gagozan isilic, orretaraco da obia, eztaigun murmuradu. Itanduten deutze bestiac cer dan, eta berac eztauesan gara. Gueijen gueijen bere dinuana da, etzaitudaz escandalizadu nai; eztaigun murmuradu. Ce caridadia! Ce escrupolosua! Ezteutzazu azur osoric isten, eta eztozula murmuradu gara dinozu? Esaizu daquizun gustija verba erdi orretan ichi baga; bada venturaz calte guichijago eguingo deutzazu gustija arguitan ifinijagaz, isilian ichijagaz baño. Zuc daquizun gustija ezta venturaz elduco bestiac dinuenera, eta zuc zure esan ez nai orregaz sinistu crasoten deutzezu, gustiz diriala aadijac zuc esan nai eztituzun orreec. Onelacuac pecatu mortal eguiten dabe. Beste batzubetan jazo oi da egotia lau, edo bost norbait alabetan; elduten da beste bat, eta asten da irribarreca, burubari eraguiten, lastima baleuca leguez engañaduric dagozalaco, eta dirautze; ori alabetan zagoze? Eztaucazube cer eguin charra; batenquiije celacua dan, etzeunquee orretan demporia galduco. Batzubetan emenche ichiten dabe, eta gueijen bere eztabe erdiz erdizeo verbaren bat baño esaten. Verba onecaz galdu eraso beutzen alabetan egozanai bestiagaitic euquen uste ona, eta sinistuten bade dabe esan au gaitic, charra dala, pecatu mortala eguin evan. Beste batzubetan aurrera dua itzqueta, edo conversacinoia, eta zabalduten dau euren aurrian bestiagaitic daquijan gach gustija, eta galcen dabee leen beragaitic euquen uste on, edo estimacinoia; orduban pecatu mortal eguiten dau.

Dagoz guizon, eta emacume ain min dongacuac ce

eztago eurenzat, ez guizon, ez obra artecic. Gustijac gaitic dauque cer esan, eztago seguru euren mijn infernucotic, esconduric, ez libreric, Abaderic, ez Fraileric, doncellaric, ez Monjaric, Obisporic, ez Aita Santuric, andiric, ez chiquiric. Eguiten dirian obraric oneenac gaitic dauque cer esan. Badacuze norbait astegun gustijetan meza enzuten, dinue, oba leuquiala echeco arduria euqui. Errecetan badau, simple bat dala. Limosna emoten badau, arroquerija, edo sobervijaz, eta icusi daijen emoten dabela. Taberna, joco, eta beste ocasinoc charretatic alderatu, edo aparteran bada, cequen bat dala, ez gasterarren eguiten dabela; jolaz, erromerija, danza, eta beste zoraquerijetara ezpadua, chochaquerijetan dabilela; isilic badago motz, eta motela dala; verba eguiten badau barretzuba dala; eta icusico balebe norbait mirariric andijenac eguiten, esango leuquee sorguina dala, familia-rijac, edo demoninuac daucazala. Onec Phariseuac lezeuac dira. Guizon galdu onec egonic eura pecatuz beteric, Jesu Christo gure Jaunac eguiten cituzan eguintza, edo obraric andi, santu, eta miragarrijetan aurquituten even cer esan. Bildur izan leitequez onela-cuac, Phariseuai jarraituten deutzena leguez murmuracinoian, jarraituco deutzecla euren amai, edo erijotza zori galducuan. Bildur izatecua da mijn luce, eta char onec beti dagozala pecatu mortalian.

Murmuracinoia sarri eta sarri asi oi da alabanciagaz. Urlija, esaten da, ce guizon ona dan. Eztozu ori tabernan, jocuan, ez edanic icusico: guizon cinzua, prestuba, eta biarguina; eztago bera lezcoric adisquide bati mesede bat eguiteco: ezteutzu orrec egunic ichico meza enzunbaga, ezta luzaro egongo confesadu, eta comulgadu barga. Eneugue nailbera baño adisquide oberic. Bañara: O

Baña madaricataba! Baña infernucua! Onetanche ezagututen da cetaraco dan alabanza ori. Ezta bestetaraco, ezpada sinistu deijuen bere contra esatera doijan gustija eguija dala. Eguinic alabanza au uste dabe seguru dagozala, eta alan abijetan dira bere contra murmuretan. Ainche ateraten dabee daquijen, eta eztaquijen gustija. Ecer icusi badeutze honraco gaucia izan, eta bestec jaquin ez arren ainche urteten dau arguitara; ecer enzun badeabe, ainche zabalduten dabe. Eztau onelaco batec ichico beragaitic eguiten daben sospecha chiquijen bere. Ecin aurquitu badau beste moduric murmuretaco, artuco deutza escuba Jaungoicuari, eta sartuco da guizonaren vijotzeco basterric escutubenian, eta billatu naico dau ainche bere esan, eta eguite, edo obretan eztauzan charquerija, euquiteco cegaitic deungaro esan, edo murmuradu; eta esango dau, eguin, eta esaten daben gustija ona dala, baña intencinoe oquerragaz eguiten dabela gustija.

Baña ez oi da emen gueratuten alabanzacaz asi zan murmuracinoia. Obeto eta obeto sinistu daijen eguija dala esan dabena, esaten oi da asquenian: ezteuzt niri inos gachic eguin, eztaucat nic ecer beragaz, izan bedi nigaitic nai daben lezcua, ez juat niri orretan ecer; baña ecin nic ichi neique eguija esan baga. Eztaquit cetaraco dirian aimbeste confesinoe, aimbeste comuninoe, aimbeste errezu; oba leuque bere echecho arduria euqui, daucazan tratu modubac ichi, eta puscabat humilago izan, nai daben gustijagaz urteteco empeñubac artu baga. Santuba, Santuba: neu bere santu izango naz, gura dodan gustija eguiten ichiten badeuste. Eztot nic olaco santidaderic gura. Orra cetan gueratu dan lenengoco alabanza gustija. Badaquizube cer deriztan eguiten dozubela modu oneta-

eo murmuracinoiagaz? Palanca bategaz eguin oi dana. Zulo bat luurrian eguin nai badozube arcen dozube palanca bat, eta ereguiten dozube gora. Baña cetaraco? Ez an goijan ichiteco, ezpada luurrian zarceco; eta cembat eta barrurago sartu nai dozuben, aibat eta gorago ereguiten dozube, modu onetan indar andijaguagaz sarceco. Auxe berau eguiten dozube bada alabanciagaz asirico murmuracinoiagaz. Lenengo eregui gora alabanciagaz al daizuben gustiya, eta guero sartu murmuracinoiagaz luurrian, eta cembat eta indar andijaguagaz murmuradu nai dozuben, aibat eta gorago ereguiten dozube alabanciagaz.

Ez Jauna olaco gauza andiric. Eguija da sarri eta sarri murmuradu doguna; baña ez oi da izan simpleza bat baño. Baña ecin au beti sinistu leiquezube; bada bein abijau ezquero norbaitgaitic dongaro esaten, ezta erraz bacoachac daquijan gustiya esan baga egotia, nai dala chiquija, nai dala andija. Batac dino lenenguan gauza chiquichu bat, bestiac eranzuten dau bestechu bat. Onec aurreratuten dau puscachu bat, arec beste puscachu bat; aurrerago eta gucijago, eta bein mijna berotu ezquero ezta beguiratuten, ez cer esaten dan, ez nogaitic esaten dan, ez gauza andija, ala chiquija dan. Simpleza bat dala dinozu zuben murmuracinoia. Cer da bada esaten oi dozubena? Urlija nescatila urlicija mutilegaz dabilela, seindun dala; onec seina eguin dabela, arec galdu dabela. An bota zan umia onena dala. Araco guizona lapurra dala, eta beste emacumia galdu bat dala. Onexec izan oi dira zuben murmuracinoiac. Bada onec ezpadira gauza andi, pisutzu, edo graviac, nos izango da murmuracinoe andi, edo honracuen ganian? Esaldazu. Jaquin dozunian norbaitec zugaitic esan dabela orrelaco

gauzaren bat, celan artu dozu barri au? Celaco atzacabia artu etzenduban? Celan aserratu cinian? Sinisturic cen- gozan ceure honra gustija galdu eutzula. Diadar eguiten cenduban ez eucala conciencijaric, eta biurtuten ezpeut- zun miji citalagaz quendu eutzun honra, eta enzute on edo famia, ecin salvadu leitequiala. Beraz zuc pisu bi daucazuz. Batian pisetan dozu ceuc bestia gaitic dino- zuna, eta orduban arin, eta chiquija deritzu; bestian pi- setan dozu bestec zugaitic dinuana, eta orduban andija da, izanic bijac pisu bardinecuac. Pisadu eguizuz bijac pisu baten, eta icusico dozu eztala andijagua bestiac zu- gaitic dinuana, zuc bestiagaitic dinozuna baño.

Beste batec esango dau: Proximuagaitic murmuradu, edo esan dodana gauza nagusi, edo gravia izan da, baño zabalduric eguan, gustijac equijen. Eta badaquizu zuri enzun eutzuben orreec bequijen ala ez? Ori ez Jauna. Bada ezpequijen orra nun pecatu mortal eguin dozun. Bardin da gustijac jaquin arren, isilic, eta asturic leguez beguan, eta zuc esanagaz barristadu bazan. Baita bere badinozu berari deutzazun gorroto, eta ecin icusija gai- tic, edo zure murmuracinoe orregaitic gach, edo calte an- diren bat badatorquiyo. Baña onelaco gauzaric ezpalego bere, zuc ecin escubideric euqui cinaique inoren contra dongaro esateco, bestiac bere murmuretan dabeelaco. Ba- lego guizon bat placien erdijan gustijac arrica dirautzela, zuc bere arrica eguin cinaijo gustijac arrica esetsiten deut- zelaco? Bada auxe berau da zuc ifinten dozun achaquija. Gustijac daquijen gancia da, dinozu: eta noe zabaldu dau? Zu leezeo mija luce batec. Zuc dinozun gach ori et- zan eguingo gustijen aurrian, bic, edo irue, eta ventu- raz batec bacarric icusico evan. A, edo areec isilic egon balira ez evan jaquingo eurac baño bestec. Areec esan

eutzcen beste bati, bestiac bestiai, eta onec eguin dabe-  
ena, eguin dozu zuc bere, eta orra celan lagundu dozun  
zabalduten. Charren dana da, enzuten dabeenac, edo  
gueijenac puscachu bat gueituten deutzela, eta modu one-  
tan gauza guichi bat baño eztana eldu oi da honraco  
gaucia izatera.

Nire esanetic ezta olaco gachic etorrigo, esango do-  
zu, bada bati bacarric baño ezteutzat esan, eta gustiz es-  
tu aguindu neutzan ez eguijola inori esan. Ce zoraque-  
rija! Ecin ceuc isilic euqui dozu, eta nai dozu bestiac isi-  
lic euqui daguijan? Zugaz jazo dana, aregaz bere jazoco  
da. Zuri esan eutzunac aguindu eutzun ez inori esateco,  
eta alambere esan deutzazu bestiari. Beste onembeste ja-  
zoco da bestiagaz bere; esango deutzaz beste bati, bestiac  
bestiari, eta guichijago uste danian urtengo dau gustijen  
aurrera, eta jazoco da euri jagaz jazoten dana. Isil isilic  
arcen dau telliac euri tanguia, isil isilic emoten deutzaz  
onec urrenguari, eta alainche dua puntan daguan tella-  
raño; eta orra nati guichijago uste danian jausten dan ca-  
lien erdijan, ots andijagaz gustijac danzabela, eta dacu-  
zela. Alainche zuc isilian jaquin cenduban proximuaren  
gach, edo dongaro eguina; isilian esan ceuntzan ceure  
adisquidiari; bada arec isilian esango deutzaz beste bati,  
eta guichijago uste dozunian, urtengo dau gustijen aurre-  
ra, eta gustijac jaquingo dabe. Asquenengo achaqui-  
izan oi da: eneucan nic intencinoe dongaric, eneutzan  
gachic gura. Bada cegaitic dongaro esaten cenduban?  
Zan venturaz asco gura ceuntzalaco? Edo asco ametan  
dozulaco? Eztaquit naico ceunquian bestec onelaco amo-  
dijo, edo on-guraric euqui deizun. Baña nai vorondate  
ona euqui deijozula, nai charra, murmuracioia gauza na-  
gusi, edo gravian bada, pecatu mortala eguingo dozu.

Pecatu mortal eguiten dau honien contraco murmuracinoia enzuten dabenac, bere guraz, edo vorondatez badago enzuten, eta eztau pecatu chiquijagua eguingo danzubanac dinuanac baño. Murmuretan dabenac mijnian dauca demoninua, enzuten dabenac barriz be-larrijan. Ger eguin leique bada murmuracinoian aurquituten danac? Edo bere aurrian abijetan bada murmura-cinoia? Guraso, ugazaba, edo nagusijagua bada, aguin-du biar dau isilic dagozala, edo eztaijala inoc murmuradu, eta galazoten ezpadau pecatu mortala eguingo dau; bada dauca obligacinoe estuba bere escupe, edo aguin-dura dagozan gustijen pecatubac galazoteco. Nagusi edo aguintari ezpada, eguin biar dau aleguina bestera eruate-co al daijan moduric onenian conversacinoia. Au bere ecin badau, alderatu, edo apartadu biar da andic. Au be-re ecin badau, adi eraso biar dau bere arpegui ilun, eta astunagaz, edo beste al daijan moduban, eztaala bere go-gocua bestiac dauquen murmuracinoia. Espiritu Santu-bac dino: (1) Ifarrac quendu eta deseguiten dituz odei eta curijac; eta arpegui astunac isilduten dau murmure-tan daganen mijna. Badaquizu barriz norzucbait diriala murmuralarijac, edo batuten dirianian dauqueela proxi-muaren contra dongaro esateco ecanduba, etzaitez lagun-du euracaz, igues eguizu onelaco mija galdubacgandic. Espiritu Santubac dirautzu: (2) Etzaitequez batu mur-muretan oi dabenacaz, bada beingo beinguan jausico da euren ganera ondamendija, eta noc daqui celacua izan-go dan dongaro esan, eta enzuten dabeenen amaija?

*Erasoguinza.*

Enzun dozube, neure enzula maitiac, cer dan mur-muracinoia, eta bertan esan jatzunetic ezagutu cinaique

(1) P. 107. ca. 15 v. 23. (2) Ibid. ca. 24 v. 22.



eztaguala munduban bera baño zabalduago daguan pe-  
caturic; eztago sarrijago eguiten danic, ezta beragandic  
guichijago libretan danic bere. Aurquituco dira Christi-  
nau asco beste aguindu, edo mandamentubac jaoten di-  
tubeezanac, eta ez bacarric iguez eguiten dabenac beste  
pecatu gustijetatic, baita bere eurretan jausteco pelleburu-  
betatic. Asco eta asco dagoz aleguin gustijagaz igues egui-  
ten dabeenac araguijazco peccatutic; pensamentu loichu  
bat sentietia da asco gustijac bildurtuteco, eta ardura an-  
di bategaz aleguin gustija eguiteco barrura sartu eztaqui-  
jon. Ascoc eta ascoc eztabe inos guzurrezco juramentu-  
ric eguin izango. Ascoc eta ascoc eztabe inoenic quendu  
izango. Ascoc eta ascoc ezteutze gach eguin deutzenai  
gorrotoric euqui izango. Baña gustiz guichi izango dira  
murmuradu eztabeenac. Espiritu Santubac dirauzcu: (1)  
Nor ete da mijnagaz pecatu eguin eztabena? Eta San-  
tiago Apostolubac dirauzcu: eztago mijna eci leiquian  
guizonic. Eciten dira abereric uzubenac, leoe, catamotz,  
arz, otso, eta arranuac; baña ez inosbere mijna. Bada au  
badino edoceimbera mijn gaitic, cer izango da araco  
mijn guesto suguien venenos betericuagaz, cein beti da-  
guan prest edocein gaitic dongaro esateco? Nor bildur  
izango ezta pecatu onetan jausten?

Alambere dacuzcuna da ezcala ecetambere ardura  
guichijago ifinten edoceimbera modutan murmurectian  
baño. Izan bedi murmuracinoeric gogorrena, atera bediz  
arguitara gauzaric escutubeenac, izan bedi esaten dana al  
dedin lotzagarrjena, ez bequijo ichi proximuari azur oso-  
ric; bada ezta faltaco nundic edo andic achauquijen bat  
uste izateco ezcala gauza nagusi, edo gravia esaten da-  
na. Emetic dator ain bildur бага murmurectia, eta edo-

(1) Eccle. c. 19 v. 17.

nun, edonorgaitic, eta edocein modutan murmuretia. Beguiratuten badogu nun murmuretan dan, icusico dogu eztaguala au bagaco lecuric. Mendi, baso, solo, eche, cale, plaza, Elexa, bide, eta beste lecu gustijac dagoz betteric. Beguiratuten badogu norgaitic dongaro esaten dan, ezagutuco dogu eztaguala seguru mijn citalacgandic andiric, ez chiquiric, ilic, ez viciric, ezta ceruban dagozan santubac bere. Cembat ete dagoz orain ceruban Jaungoicua arpeguiz arpegui icusten, seguru demoninuac euren contra al daizan aleguin gustijetatic, eta alambere euren contra mijn ghestuac zorrostuten dirian? Beguiratuten badogu cegaitic dongara esaten dan, aurquituco dogu, Jesu Christoren eguitade edo obraric arrigarrijenac eztagozala libre murmuralarijen mijnetatic.

O mijn citalaren azarquera, edo atrevimentuba, cerubac, luurrac, ichasuac, osasunac, vicitziac, erijotziac, mundu gustijac, eta demoninuac eurac ezagututen dabee Salvaguilia euren Jaun, eta Jaungoicotzat; baña mijn murmularijac dinue, dala guizon ghesto, galdu, guzurti, eta engañalari bat. Eta alambere eztau Christinau bateg aleguinic eguingo ecandu cital au quenceco? Cer aurreratuten dozube, guizon ichubac, ceuben proximuagaitic dongaro esanagaz? Cegaitic jatzu ain gozo murmuretia? Deritz, au eztala, ezpada demoninuaren tentacinoia zube galceco. Iguez eguizube bada ecandu cital onetatic. Jaquin eguizube, ceuben burubai calteric andijena eguiten deutzezubela ceuben proximuagaitic dongaro dinozunian. Ez eguizube bada inorgaitic dongaro esan; bada pecatu au quencen badozube, erraz izango jatzube beste gustijac goitutia, eta vicico zare garbiric, alan elduzeco Jaungoicua icustera. Amen.

## ELEXACO BOST MANDAMENTUBAC.

## XLV. VERBALDIJA.

*Domeca, eta Jaijetan Meza osua enzutia.*

**E**lexa Ama Santubac aguinduten deuzcun lenengo mandamentuba da, Domeca, eta Jai gustijetan Meza osua enzutia. Christinau gustijac sensuna arguitu, edo erazoi en usura elduten dirianetic enzun biar dabe Mecia Domeca, eta Jaijetan. Onetaraco euren gurasuac ardura andi bat euqui biar dabe curacaz, aguindu au bete, edo cumplidu daijen, eta gueratuten badira ardura onen faltaz meza enzun baga, curac pecatu eguingo dabe. Aguindu au beteteco asco ezta edoccin modutan Mezan egotia, eta alan euzun biar da osua, atencinoe, eta devocinoiagaz. Lenengo: enzun biar da osua; ezta asco erdija, edo laurena enzutia. Eztago izentadu, edo señaladuric nostic, eta noraino enzun biar dan osua izateco; baña gueijenetan esan oi da Epistolatic, eta amaitu, edo acabadu artian; edo lenengotic, eta Sacerdotiac hostija, eta ardao consagradubac artu artian enzuten dabenac eztabela pecatu mortalic eguiten, venial bacarric baño uts eguiten badau bere guraz Evangelijoraño, edo Sacerdotien comuninoetic aurrera. Bardin izango da, beste onen beste ichiten badau Meza artian, edo erdijan; baña uts eguiten badau consagracinoia bacarric, nai Sacerdotien comuninoe, edo gorputz, eta odola arceia, eztau Meza enzungo, onec bijoc dirialaco Meciarene alde, edo partetic lenen, edo principalenac.

Meza enzuteco bigarren biar dana da atencinoe, eta

devocinoia. Modu bitacua da devocinoe au, campoticua, edo gorputzecua, eta barrucua, edo arimacua, eta bijoc biar dira Mecia ondo enzuteo. Biar da lenengo gorputzeco, edo campocua, au da, euqui biar dau gorputza modu onian, adi erasoten dabela sinistu, eta ezagututen dabena Jaungoico gustiz alsu, edo poderoso baten aurrian daguala, eta bere beguijaz balecuzaz leguez ceruban, eta luurrian aurquitu al leitequezan misterioric andi, arrigarri, eta miragarrijenac. Celacua izan biar dan Mezaco demporan euqui biar dan gorputzeco egoera, edo posturia iracasten deuzcu Elexa Ama Santubac Misalian, nun dinuan: Meza enzuten dabeenac egon biar dabe dirauban dempora gustijan belaunico; ezpada Evangelijo bijac esaten dirian artian; bada orduban egongo dira sutunic; baña lenengo Evangelijua amaitu deinian, biurtu badiz belaunico ifintera. Au alan aguinduric, eztaquit nundic urten ete leiquian Christinau ascotan icusten dan oituriac. Iinten dira sutunic Evangelijoraco, eta eztira gucijago belaunico ifinten Santuseraino. Daucanac nun jarri jarten da, eta dago zabal zabalie misterioric icaragarrijenac eguiten dirian artian. Eztaucanac nun jarri dago sutunic, galaazoten deutzela atzecuai sacerdotia icustia. Ezta au mezan egotia, Jaungoicuae Elexiaren bitartez aguinduten deuzcun moduban.

Eztaucque gorputzeco devocinoia bancubetan echunic dagozanac, euren beso, eta oñac luzaturic, plaza, edo taberna baten balegoz leguez ozta ozta belaunico ifinten diriala hostija, eta calicia ereguiten dirianian. Eztabe gorputzeco devocinoeric jaoten euren siñu, eta egon modubagaz adi erasoten dabeenac, luce eguiten jaqueela mecia, luce ezpada bere; eta estu dagozala mecia amaitu, edo acabadu artian, echeo arazu, taberna, joco, jo-

lazera aimbat lasterren juateco. Eztaque biar dan devocinoe, eta erreverencija barriquetan, eta barreca dagozanac, eta onec dempora lucian irauten badau eztabe mezaric enzuten. Eztabe meza enzuten batera bestera veguira dabilzanac, ozta ozta daquijela cetan doian mecia.

Eztabe meza enzuten, egonic lecuba Elexan, euren vorondatez gueratuten dirianac corupe, edo ate onduan, icusi, eta jaquiterren noc zartu, eta urteten daben, edo cer iragoten dan campuan. Eztabe meza enzuten, euren guraz, edo erruz gueratuten dirianac, mecia esaten daben Sacerdotia icusi ecin leijan lecuban, edo Elexatic campora. Baña euren erru бага, Elexia chiquija dalaco, edo gente andija dagualaco gueratu biar badira altara, edo Sacerdotia icusi ecin leijen lecuban, nai Elexatic campora, enzungo dabee Meza beste danzubenacaz bat eguinic badagoz biar dan atencinoe, eta devocinoiagaz. Beguira cer dinodan, *ceuben erru бага gueratuten bazare Elexatic campora*; bada jaquinic au jazoco jatzula enzunai ezpadozu lenago mecia, al daizula, ceure erruz izango da, eta alan lenago enzun biar cenduban.

Bigarren atencinoia, eta devocinoia da barru, edo vijotzecua. Au da, euqui biar dau bere gogo, sensun, edo memoriya Jaungoicuaren gaucetan. Jaquin guracodozu celaco gaucetan, edo cetan euquico dozun gogo, edo entendimentuba. Iru modutan au izan leiteque. Lenengo: Sacerdotiac dinozan yerba, eta ceremonijal jarraitubagaz, eta eurac adi erasoten ditubezan misterijuaratubagaz. Esateraco: sarcen da, edo dua Sacerdotia mezatara, ifinten dozu zuc bere intencinoe, edo uste osua al daizun onduen enzuteco. Siñatuten da Sacerdotia, siñatuten zara zu bere. Eguiten dau confesinoia, dinozu zuc bere Ni peccatarija, Jaunari ceure peccatuben parca es-

catuten deutzazula, Dino credua, dinozu zuc bere; sinistuten dozula bertan dinozun gustija. Modu onetan jarraituten badcutzazu Sacerdotiari, enzungo dozu Mecia biar dan moduban. Onetaraco dagoz liburuchu batzuc, eta euraçaz valija leiteque iracurten daquijana. Bigarren moduba da pensetia Jesu Christoren vicitza, pasinoe, eta erijotzan; bada mecia ezta beste gauzaric ezpada euraç barristetia; eta onetaraco ifini euan Jesu Christoc bere Elexan. Au eguin leiteque, edo jarraitubagaz Jesu Christoc erabili eituban pausubai, jaijo zanetic, eta cerubetara igon euan artian, edo pausuben baten ondo pensadubagaz, esateraco: bere azotetan, curutzia calvariora ersatian, erijotzan, edo beste devocinoeric andijena emoten deutzanen baten. Irugarren moduba da, erreçetia errosarijua, estacinoia, edo beste devocinoeren bat. Modu onetan mecia enzuten dabenac, eztau alderatu, edo apartadu biar bere gogua mezatic, eta adi egon biar da cetan doian.

Emetic ezagatuco dozube eztabela enzuten; bere vorondatez, edo berac nai dabela beste gauzatan pensetan daguanac; esateraco: bere eheco cereguinetan daucan premina, edo necesidadian, saldu erosi, edo tratuban, joco, jolaz, edo beste edoceimbere gauzatan; pensamentu onetan badago mezaco parte, edo alde andijan bere guraz, pecatu mortala eguingo dau. Baña pensamentu onecc badatorquijoz berac nai eztabela, eta eguiten badau aleguina quenceco, eta al daijan devocinoiagaz egotecco, eztau orregaitic galduco mecia. Eztau meza enzuten, Elexara doianac jaquiterren urlija, edo urlicija an daguan; edo jaquinic meza atara juan oi dana, bera an icusi, eta berari beguira egoterren, edo ecin egon leitequialaco beragaz beste lecutan, ainche egoterren, edo verba

eguitarren doianac. Eztabe meza enzuten umiacaz duazanac, euqui arren nori ichi, edo noc jaon. Onec mezari gueijenian, gustijan ezpada, egon oi dira umiari adi, orain mosuca, guero siñuca, ain laster barreca, eta ain laster lastanga. Batzubetan dago umia negarrez, beste batzubetan diadarrez; ija nai dau alzuan, edo lepuan egon, ija nai dau batetic bestera ibili; ona etorri, ara juan, eta eurac umiari beguira adurra darijuela; ez eurac enzuten dabe meza, ez bestiai ichiten deutze enzuten. Gustiz dagach, edo ecin leitequiana, obeto esaterren, umiagaz daganac meza enzutia, eta alan ichi echian, edo emon beste bati, eta ezpadauca nori, obe da ez juatia mezara, ce ez Elexa gustija errebolvietia euren negar, diadar, eta ibileracaz.

Ez bacarric eguiten dau pecatu mecia enzuten eztabenac, baita bere galceco pelleburuban ifinten danac. Modu bitan ifinten oi da mecia galceco pelleburuban. Batzuc Jaijegunetaraco ichi oi ditubeez euren ibilera, eta beste errijetan dauquezan cereguinac. Eztabe icharon gura errijan meza enzun artian, eta urteten dabe bestian enzuteco ustiagaz, edo venturaz enzungo eztabenen bildurragaz, edo mezari euquico daben dudiagaz; eztira demporaz elduten, eta galcen dabe mecia. Datoz confesetara, eta esan oi dabe: Jauna, Jaijegun batzubetan egon naz meza enzun baga, baña ezta nire erruba izan; bada beste erri batera euqui neban cer juan; uste neban an euquico nevala, baña irago zan ni eldu orduco. Onec gueijenoc pecatu mortal eguiten dabe; bada eguija esan gura badabe, beuquen elduco etzirianen bildurra. Obalitzateque jaijeguna Jaungoicuari emon, eta juan, edo ibili biarra preminazera bada, enzun meza prten baño leenago. Beste batzuc dabilz arrastaca euren arazu, edo

cereguinetan mezaraco demporara artian, eta escu artian dauquen cereguina ez ichiterren, edo acabetarren aurrera darue, dinuela euren barruban: oraindio demporia dago ezta oraindio mecia sartaco. Duaz guero mezara arrastaca arnasa baga, baña eztira demporaz elduten, irago zan mecia. Modu onetan sarri eta sarri gueratu oi dira meza enzun baga. Celaco achauquijac guero confesetara duazanian? Enequijan ce ordu zan, uste neban goxago zala. Achauquija onec utsac dira. Esaidazu: baceuncan ceure barruban mecia sartutera joianen bildurric? Etzenduban ceure vijotzian esaten galduco ete dot mecia? Ete da juateco orduba? Ecin ucatu cinaique auxe gueijenetan jazo jatzula. Orregaitic jaquin beguije onelacuac pecatu mortal eguiten dabeela.

Iru gauza gaitic gueratu leiteque meza enzun baga. Ecin enzunagaitic, caridadiagaitic, eta oficijuagaitic. Lenengo: ecin enzunagaitic: eta alan eztabe pecatu eguiten ez enzunagaz guexoric oian dagozanac, edo echetic urten ecin dabeenac gachi andi baten jausteco pelleburu baga, celacuac dirian guexo ostian erdi osaturic dagozanac, zaarrac, edo atso agura urte asco dauquenac, gustiz nequez baño ibili ecin badira, eta gustiz Elexatic urrin badauquez echiac. Norbait gueratu biar bada echia jaoten, onec eztau pecatu eguingo meza enzuten ezpadau; baña meza bat baño gueijago dagozan lecubetan bialdu biar da norbait goxeco, edo lenengo mezara, bera demporaz biurturic bestiac juan deitezan beste mezara. Au alan eguin al deila, guraso, eta ugazabac arduraric arcen ezpadaue, eta orregaitic seme, alaba, edo crijaduben bat gueratuten bada meza enzun baga, eurac eguingo dabe pecatu mortal. Ichi leiteque mecia honra, izen on, edo fama, nai haciendia, nai ondasun andijen bat galceco pe-



Uburuban ifini biar badau bera enzuteco. Bigarrengo: egon leiteque meza enzun baga caridadia gaitic, eta alan eztau pecatu eguiten ez enzunagaz guexo bati lagunduten daguanac, bildur bada bacarric gueratuten bada gachen bat etorrice jacala, eta ezpadago besteric nor ichi lagunduten. Eztau pecatu eguiten mecia isten dabenac aserre andi bat galazoterren, su andi bat amatetarren, edo beste gach andiren bat proximuari etorri daquijon eragotziterren.

Irugarrengo: egon leiteque meza enzun baga oficijua gaitic, eta da araco norbaiten oficijuari dagoquijona ez eguiterren, edo mecia enzuterren isten bada, calte andi bat datorrenian, eta alan egon leiteque meza enzun baga arzain bat, ezpadauca nori ichi bere ardurara daucan talda, edo errebañuba; eta bildur bada ostuco deutzezala ardi, ari, idi, edo bejjac; edo otsuac jango dituzala bacarric ichiten badituz. Eztau pecatu eguiten gurasuac mecia galcen badau, bere seme, edo alabiaren pecatuba galazoterren, beste modutan eragotzi ecin badau. Bardin dinot guraso, eta inude seiña asten dagozanacgaitic. Onec badaquije lenagotic Elexara doian gustijan bere umia negarrez egon oi dala, edo ezabela gueldiric, edo isilic egon gura, ezpadauca nori ichi, obe da bera bere echian gueratu dedin; bada Elexara badarua, ez berac enzungo dau meza, ez bestiai ichico deutze enzuten. Meza ecin enzun dabenac eguin beique oracinoe bere eche, edo daguan lecubetan, dino San Agustinec (1), eta eguin begui aleguina Jaijeguna santututeco al daijan moduban, errosarijua, eta devocinoien batzuc errezadubagaz, edo obra onen batzuc eguinagaz. Lenagotic dacutzunian onelaco preminaren baten aurquitu cinaitequezala, eguin biar

(1) Serm. 251 de temp.

dozuna da itandu ceure Confesore, Arima-zain, edo Curiari, nai guizon jaquinsu, eta Jaungoicuen bildurti bati cer eguin cinaiquian, ceurez, edo ceure burutic erabagui baga; bada icusten dana da gueijago beguiratuten jalcala irabacijari, ondasunen aurreratutiari, eta gorputzaren ondo egonari Jaungoicuaren leguiari baño; eta orregaitic gustiz da erraz, norberac bere buruba engañetia.

Azquenez, biar dogun leczco Christinaubac bagara, ez gara gueratu, edo contentadu biar meza bat enzunagaz Jaijegunetan. Jaquin biar dogu Jaungoicuac, eta Elexiac ifini badituz Jaijegunac, eztala beste gauzataraco ezpada Jauna alabetaco, eta gueure arimia santututeco. Baña ce negargarrizcua dan Christinaubetan dacuzcuna! Pecaturic gueijen, eta andijenac eguiten dira Jaijetan. Astegustijan egongo zare ceuben solo, baso, edo mendijan, machur, ascora, escubara, edo laijia escuban dozubela, eta eztozube pecaturic gomuta izango. Eztozube beste gauzazaric goguan euquico, ceuben lana, ceuben biarra, eta ceuben aurrerapidia baño. Dator Jaijeguna, eta esan leiteque infernu gustija libre dabilela. Enzuten da meza bat arrastaca, eta bera bere al deitian arinena, eta onegaz amaituten da Jaijeguneco cereguin gustija. Emparetan dan demporia emoten da astegunian eguin ez oi dirian pecatubetan: orduban tabernia, orduban ordiquerija, orduban dancia, eta jolasa, orduban errietia, orduban aserria, orduban verba loi, eta ezainac, eta orduban astegunian eguin ez oi dirian pecatu gustijac. Obeto dei eguin leijue demoninuaren egunac Jaunarenac baño. Modu onetan jaongo badira Jaijac, quendu bediz gustiz, zuaze biarrera, eta ceuben arazubetara; eztozube aimbeste pecatu eguingo. Onelaco Jai gordetiai bere maldicinoia ezarten deutze Jaungoicuac. Cetaco ditudaz onelaco Jai,

eta Domecac? Dino Isaiasen aotic. Gorroto deutzet, ecin icusi ditudaz. Astunac dira niretzat. Antoxu emoten deuzte, eta modu orretan iragoten badozubez, neure espata zorrotzac zatitu, birrindu, eta ilgo zaitubez. (1) Christinaubac, bildur izan gaitezan gure Jaungoicua aserraturten.

*Erasoguinsa.*

Aserraturic badaucagu Jaungoicua gueure pecatubacaz, badaucagu cegaz bigundu. Altaraco sacrificiujagaz eguin guinaiquez baquiac beragaz, eta ecarri gugana ceruco bendicinoeric ugarijenac. Ezta mecia, neure enzula maitiac, guizon santuben batec ifinirico devocinoeren bat, ez Aingueruben batec cerutic ecarririco escabide, edo oracinoeren bat; da Jesu Christo gure Jaunac berac bere Elexa maitiari emonico, esan, eta pensadu bere ecin leitequian ondasun miragarri bat. Da, Jesu Christo gure Jaunac asquenengo afarijan eguin cituzan mirari arri-garri gustijac eguitia. Da, calvarijoco mendijan curutzian Aita beticuari mundu gustijen osasuneraco sacrificadu jacazan gorputz berbera, odol berbera, eta erijotzia berbera opa, edo ofrecietia. Ez, ez, ezta emen eguiten dan sacrificiua, an eguin zana baño chiquijagua; ezta au a baño valijo chiquijagocua. Auxe berbera da. Beguira orain celan aurquitu biar zarian ceruban, eta laurrian eguin leitequian misterijoric andijenian. Esaidazu: celan egongocinian aurquitu bacina Apostolubacaz batera afalteguijan, araco arturic Jesu Christoc bere escubetan oguija cinuanian: artu eguizube, auxe da nire gorputza? celaco negar, celaco cispuru, celaco devocinoe, eta mirariz beteric egongocinian aurquitu bacina calvarijoco mendijan, araco Jaungoicuaren semia curutze baten ulce gogoracaz

(1) Isa. cap. 53. 11 et seq.

josiric, bere Aitari gure pecatubacgaitic ofrecietan zanian? Araco bere zanetaco odol gustija emoten evanian, eta negarrez eta diadar andijacaz gugaitic erregututen eutzanian? Celan gueratuco cinian icusi bacendu ceure beguijacaz asquenengo arnasia emoten?

Bada neure Christinaubac, eztaucagu cer juan Jerusalemgo apaltegui, edo cenaculura, ez calvarijoco mendira mirari oneec icusteco: orche orche altara orretanche icusi guinaiquez mirari arrigarri gusti oneec. Meza bacochian eguiten dira gustijac. Ez apaltegui, ez Calvarijuan eguin zan emen eguiten eztan mirariric; bat bat da an eguin zana, eta emen eguiten dana. Idigui eguizubez fedeco beguijac, eta icusico dituzubez Salvaguiliac gugaitic eguin cituzan mirariric andijenac. Beguiratu dozube nosbait biar dan moduban meciaren anditasun au? Ifinizare nosbait ondo ondo, eta al daizuben adin, edo atencinoc gustijagaz beguiratuten cer dan mezan sacrificuetan dana? Noc sacrificuetan daben? Nori sacrificuetan jacan? Eta cegaitic sacrificuetan dan? Ezetz deritz: bada celan egongo cinateque bestelan ain devocinoc guichigaz, ceaben cereguinetan dozubela gogua? Verbetan, eta albora beguira? Ay neure Christinaubac, bagueunca biar dogun fede vicija, gueure Elexac icusico gueunquez ceru biurturic, bada estago ceruban, or eztaguan gauzaric: orche dago Trinitade gustija, Aitia, Semia, eta Espiritu Santuba. Orche dago Jesu Christoren gorputz benetacua, orche mundu gustija garbitu, eta santutu evan odola. Altara orren inguruban dagoz aimbat milla millinoc Aingueru, auspaz luurreraño macurturic, adoretan dabela humiltasunic andijenagaz gugaitic opa, edo ofrecietan dan sacrificijo ori. Eta alambere, ce otzic, ce devocinoc baga gagozan aimbat milla Aingueruben erdi-

jan, luurrian, eta ceruban aurquitu leitequian misterijoric andijena eguiten dan artian! Neure Christinaubac, irartzartu gaitazan nos edo nos gueure lo sorrotic; idigui daiguzan arimaco beguijac, biztu daigun fedia, eta eldu gaitazan mezatara ceruban bertan sartuco baguina leguez; gagozan Jaungoico bat gueure beguijacaz baguen-cuz leguez; bat eguin gaitazan an dagozan Ainguerubacaz, eta cantadu deijoguzan eurac cantetan deutzezan alabanzac, guero cantadu deijoguzan ceruban Amen.

### *XLVI. VERBALDIJA.*

*Cer dan Mecia, eta ce miragarrijac bere eguinza, edo efectuac.*

**A**in da Jaungoicozcua mecia, ain miragarrija, ain esanezgarrija, ce Aingueru baten mijnagaz verba eguingo baneu bere, eninzateque elduco bere anditasunic chiquijen chiquijena bere adi erasotera. Alambere jaquinic ce on andijac dacarzan jaquitiac cer dan mecia, esango dot cerbait al dodan moduban azaldu, edo explicadubagaz. Lenengo: cer dan mecia. Bigarrengo: celacuac dirian bere eguitade, edo efectuac. Da mecia sacrificio bat, ceinetan opa, edo ofrecietan jacan Jaungoicuari Jesu Christoren gorputz, eta odol benetacua ogui, eta ardauaren anz, edo irudipian. Au obeto ezagututeco jaquin biar dozube mundubaren asijeratic abijadu ciriala guizonac opa, edo ofrecietan Jaunari sacrificijuac, au da, fruta, abere, edo animalija, egasti, edo beste gauzaren batzuc, adi erasoteco bera ezagututen eveela euren Jaun, eta Jaungoicotzat, eta confesetaco ciriala bere mempeco, edo aguindupeco. Opa, edo ofrecidu bere oi citube-

zan sacrificio onec Janna bigundu, eta gozatuteco, equijenian aserraturic eguala euracaz euren pecatubacgaitic. Beste batzubetan eguin oi citubezan sacrificio onec, berari mesederen bat escatuten eutzenian. Gogo, eta vorondate onagaz artu oi cituzan Jaunac; eta obeto eguin ceitezan, berac iracatzi eutzan Moisesi celan eguin biar cirian, norzuc ofreciduco citubezan, ce lecutan, cer gauza, eta beinguan gustija esateco, Jaungoicua berac agundu euan sacrificiuetan eguin biar zan gusti gustija.

Alambere, sacrificio onec utsac cirian, eta orregaitic ez euquen ez peaturic parcatuteco indarric, ez euren opazaille, edo ofrecietan citubezanac garbituteco escubideric, ez Jaungoicuaren aserracunza amatetaco poderic, eta alan beti egozan zarraturic ceruco atiac. Parcatuco bacirian bada gure pecatubac, eguingo bacirian Jaungoico, eta guizonen arteco baquiac, idiguico bacirian ceruco atiac, biar zan sacrificio gusti onec baño andijagobat; baño, ez eguan onetaraco duin izan zatequianic, ez ceruban, ez luurrian Jaungoicua bera bacar bacarric baño. Orregaitic bialdu euan Aita beticua bere seme bacarra eguinic gure sacrificio, berac goitu, edo vencidu eguijan demoninua, erbestetu, edo desterradu eguijan pecatuba, garbitu eguizan gure arimac, eguizan baquiac Jaungoico, eta gure artian, eta idigui eguizan ceruco atiac. Eguin euan Jesus lastanac bere Aitaren vorondatia, eta ilic curutzeco altaran ofrecidu euan bere buruba sacrificio miragarri, modu onetan eguiteco guizonai beste sacrificio gustijac ecin leijuezan mesede pare bagac. Baño izanic Jesu Christo Sacerdote, edo Aita Santu beti beticua, biar bere zan, beti beti iraungo euan sacrificio bat. Ecin betico sacrificio au Jesu Christoren erijotzia bera izan zatequian, bestelan egunian egunian il biarco litza-

teque, dino San Paulo Apostolubac, eta ecin bein bacarric baño galdu leijan vicitzia. (1) Cer eguiten dau bada beti beti iraun daijan curutzian eguin zan sacrificijua? Bere arerijuen escubetan ifinico zan gabian, zarratuten dau bere gorputz, eta bere odola ogui, eta ardauen anzpian, emoten deutze Apostolu, eta euren ondoren etorrico cirian Sacerdotiai, beste onembeste eguiteco escubidia, modu onetan barristaduric, berac curutzeco altaran opa, edo ofrecidu evan sacrificijua, beti beti iraun daijan bere Elexa maitian.

Orra neure enzula maitiac cer dan mecia. Da Jesu Christo gure Jaunac bere Aita beticuari gure pecatuben ordian ofrecidu eutzan sacrificijua berbera opa izatia. Da orduban Salvagniliac erijotzara emon evan bere gorputza berbera, eta gorputz atatic urten evan odola berbera Aita betico, edo Eternuari ofrecietia: eta alan mecia, eta curutzian eguin zan sacrificijua eztira bi, bat bacarric baño. Mecia ezta calvarijoco mendijan eguin zan sacrificijua baño, eta orduban berac berez eguin evana berbera, eguiten dau orain gure altaretan, Abade, edo Sacerdotien bitartez. Meciaran aurquile, ipinzaile, edo autore da Jesu Christo bera; bada berac esan evan lenengo munduban esan zan mecia, berac ichi eutzan bere Elexiari, eta berac iracutzi eutzen Apostolubai celan meza esango even. Sacrificijo onen izquinzaile, edo Ministro lenen, edo principalena da Jesu Christo bera. Dago altaran gure bitarteco eguinic, eta erreguca bere Aitari gugaitic. Berac opa, edo ofrecietan deutza bere gorputz, eta odola, curutzian isquini eutzana leguez; eta alan meza esaten dabena eldu deinian consagretara, dinuanian: au da nire gorputza, au da nire odola, eztituz verba onec esan-

(1) Hebre. cap. 9 v. 25.

ten bere izenian, ezpada Jesu Christorenian. Onen urrengo da meza esaten daben Abade, edo Sacerdotia; bada eurai bacarric autortu, edo concedidu eutzen Jesu Christoc ogni, eta ardaua bere gorputz, eta odol biurtuteco escubide, edo potestadia. Azquenez, meciaren opaile, sacrificadore, edo ofrecietan dabeenac dira, meza enzuten dagozan gustijac; eta alan meza esaten daben Sacerdotiac eztituz oracinoiac esaten bere izenian bacarric, ezpada enzuten dagozanenian. Ezteutza Jaunari esaten, opa deutzut Jauna, ceure seme Jesu Christoren gorputz, eta odola; ezpada opa deutzugu, eta alan beste oracinoe gustijac. Orregaitic meza enzuten dabeen gustijac meza esaten dabe moduben baten, eta gustijac dira Sacerdote.

Jaungoicuari bacarric ofrecidu leiyo mecia, ez besteri, ezta Ama Virginiari bere, eta mecia ateraten danian nai berari, nai San Miguel, nai San Jose, nai beste Santuben bati, edo bere Altara, edo aurrian esaten danian, etzaco santu ari sacrificio au ofrecietan, ezpada Jaungoicuari santu aren honra, gomuta, edo erreverencijan, eta bere birartez, eta erregubacgaitic emon deigun Jaunac mezan escatuten doguna. Orregaitic, ezta inosbere esaten mezan opa deutzut zuri Pedro, edo zuri Paulo Jesu Christoren gorputz, eta odol au; ezpada opa deutzugu zuri Jauna, San Pedro, edo San Pauloren gomuta, edo memorijan. Mecia esan, nai ataraten daben, baita bere enzuten dabenac, ofrecidu leiyo Jaunari edoceimbere guizon, edo emacume gaitic, nai dala charra, edo donguia, nai dala ona, eta santuba, izan deila Christinauba, Judeguba, edo Gentila. Opa leiyo Jaunari onac gaitic obac izan deitezan, edo onian aurreratu deitezan: giestuac gaitic ondu deitezan: Judegu, Gentil, eta Heregiac gaitic Elexara etorri deitezan; bada Jesu Christoc gustijac



gaitic il zana leguez, gura dau gustijac gaitic Altaraco sacrificio au izquini daquijon. Ofrecidu bere leiquijo Purgatorijoco arimac gaitic, aimbat lasterren urten daguijen ango neque, eta ala, edo tormentubetatic, eta eldu deitezan ceruco atzeguinetara. Ofrecidu bere leiteque ceruco Santubac gaitic, ez pecatuben batetic urten daijen, ez nequeren bat quendu daquijuen; bada eztaque pecatu, eta nequeric, ez euren gloria aci, edo gueitu daquijuen, bada au ecin leiteque; ezpada Jaunari ezquerrac emoteco, mundu onetan bere gracijagaz irabaci citubezan victorijac gaitic, eta orain dauquen gloria gaitic. Demonino, eta condenadubac gaitic bacar bacarric ecin ofrecidu leiteque, eztagualaco erremedijoric oneenzat.

Lau dira miragarrizco sacrificio onen eguitade, edo efectuac. Lenengo: beragaz emoten deutzagu Jaungoicuari zor deutzagun honra, eta alabancia, baita bere ezquerrac eguin deuzcuzan mesediac gaitic. Bigarrenengo: beragaz bigundu, eta gozatuten dogu Jaungoicua, gugaz aserraturic daguanian gueure pecatubac gaitic, eta alcanzetan dogu euren parcacinoia. Irugarrenengo: paguetan deutzaguz pecatu oneccaz eguin dituguzan zorrac. Lau garrenengo: bere bitartez mereci guinaique artutia Jaungoicuagandic mesede ugarijac, alan arimacuac, cein da gorputzecuac. Lenengo: emoten deutzaguz Jaunari honra, alabanza, eta esquerrac; baña celacuac? Batu bediz munduben asijeratic, eta eternidade gustijan guizonac lurrian, Santu, eta Ainguerubac ceruban emon deutezan honra, alabanza, eta esquer gustijac, Martirijac euren ala, neque, min, eta erijotziagaz, Confesore, eta Virginac euren gaubela, baru, penitencija, garbitasunagaz, eta Apostolubac euren ibilera, predicacinoe, eta mirarijacaz; ezarri bediz oneen ganera bere Ama gustiz santu-

bac emon eutzazanac, bere arrigarrizco santidade, eta mirarizco eguitade, garbitasun, amatasun, eta eutzan amodijo erriagaz emon deutzazanac, eta orain ceruban emoten deutzazanac; bada dirianoc eztira elduten, meza bategaz emoten jaquezanera; cegaitice andijagua da oneec gustijoc baño curutzian ilagaz emon eutzana bere semiac. Izanic auxe berau mezan emoten jacona, andijaguac izan biar dau, beste emon al leiquiozanac baño. Bigarren: meciagaz bigundu, edo gozatuten dogu Jaungoicua gugaz aserraturic daguanian, bere contra eguidituguzan pecatubacgaitic, castigadu ez gaizan curacgaitic. Trentoco Batzar, edo Concilijuac dirauzcu: elduten bagara sacrificiyo onetara vijotz on, fede artez, biar dan bildur, eta itzalagaz, bertan aurquituco dogu gracia, eta erruqui, edo misericordija; bada bigunduric beragaz gure Jaungoicua, emongo deuzcu penitencijaco doia, eta parcatuco deuzcuz gure pecatu gustijac, icaragarrijenac badira bere.

Irugarren: meciagaz pagadu guinaijoc Jaunari, deutzaguzan zor gustijac. Sarri esan dogu, pecatu baco-chian artuten dogula gueure ganian zor bat, cein pagadu biarco deutzagun Jaungoicuari, edo mundu onetan obra onacaz, edo bestian purgatorijoco pena, eta su bildur-garrijen artian. Zor oneec pagadu guinaijoc Jaunari mezaco sacrificijuagaz; bada, emen gure pecatuben ordian ofrecietan deutzaguna, izanic curutzian opa izan jacan gorputz, eta odola berbera, orduban asco izan ciriana leguez mundu onetaco pecatubac quenceco, eta euren zorrac paguetaco, orain bere dira duin guc pecatubac gaitic daucaguzan zorrac paguetaco. Laugarren: meciaren bitartez alcanzadu guinaiquez mesede andijac, alan arimaraco, cein da gorputzeraco. Lenengo: arimaraco,

celacuac dirian Jaungoicuaren gracia, eta laguntasuna pecatutic urteteco, euren ecandu citalac quenceco, demoninuaren tentacinoien contra irrima pelietaco, araguijaren gurarijac eciteco, eta pecatuben pelleburubetatic igues eguiteco. Barriz graciajan bagagoz, alcanzadu guinaique Jaungoicuaren adisquidetasunian irme egoteco sendotasuna, santidadian aurrera juateco indarra, onoidade, edo virtute gueijago, eta gueijago irabasteco arduria. Bigarrego: alcanzadu bere guinaiquez gorputzeco onac; celacuac dirian, vicitzia, osasuna, janarija, jastecua, eta vicitzia iragoteco biar dogun gustija. Alcanzadu bere guinaique, quendu dagnizala Jaungoicuac gurgandic, gueure pecatubac gaitic bialduten deuzcuzan castigubac, celacuac dirian, guerrac, gosiac, gach, edo pestiac, ecachac, urolac, labore faltia.

Mesede gusti onec escatu guinaijoz Jaunari, ez barric gueuretzat, baita bere gueure proximuenzat. Au eguin leiteque modu bitan. Mecia ateriagaz nai dogun gauza, edo mesedia alcanzetaco, edo mecia enzunagaz gogo, edo intencioe onegaz, ofrecietan deutzagula Jaunari enzuten dogun mecia, eta escatuten deutzagula, aurtortu, edo concedidu deigula escatuten deutzaguna gueuretzat, edo bestienzat. Onetaraco jaquin biar dogu, mezaco sacrificijuan dagozala frutu bi, bata da berezco, edo especiala, bestia gustijena, gustijenzacua, edo generala. Fruta berezco, edo especialac valijo deuzto mecia atera dabenari, edo norgaitic mecia esan daben Abade, edo Sacerdotiac; baita bere alcanzetaco araco mesede, cein alcanzatarren esaten dan mecia. Esateraco: dago bat gueuxoric, ateraten dau berac, edo bere guraso, seme, nai adisquide batec meza bat osatu dedin; guexo arezentzat eta berezco frutuba. Dabil gach, edo enfermedad de anfi

bat abere, edo animalijetan, ateraten dau errijac meza bat gach au quendu dedin; onetaracoxe da frutu au. Frutu gustijenzacua, edo generala da Elexa gustijena, edo bere seme gustijai valijo deutzena; baña onec ezteutze gustijai bardin valijo, bada mecia enzuten dabenari gueijago valijo deutza eztabenari baño; eta gueijago beste batec beragaitic enzuten dabenian, enzuten eztanian baño. Frutu au ezta guichituten meza enzulac gueitu arren; nai batec bacarric enzun daijala, nai millac enzun daijela, bardin bacoachac artuco dau bere frutuba.

*Erasoguinza.*

Emenche nai neuque euqui Apostolu baten mijna, edo obeto Aingueru batena adi erasoteco, ez bacarric zubei, baita mundu gustico Christinaubai bere, meciarren anditasun pare baga, neurri baga, eta cabu baguia, gustijac viztu deitezan al daijen sarrijen enzutera. Gustijenzat dagoz idiguiric ceruco ondasun ugari gustijac. Altara orretatic urteten dau iturri ugari batec gente gustijen oneraco. Erdu bada gustijoc arcera nai ceunquezan baño bere ondasun gueijago. Guizon artez, edo justu, santu, eta Jaungoicaren bildurtijac, nai dozube aci, edo gueitu ceuben santidadia? Sacrificijo onetan daucazube neurri, eta cabu bagaco santidadia berbera; idiguiric daucaz zubenzat bere Jaungoicotasunaren ondasun gustijac. Eldu zaitez altara orretara, eta artu eguizube nai dozuben on gustija, ezteutzu inoc galazoco al daizun gustija arcen. Daucazube ceruco janarijen gosia? Mezaco sacrificijuan daucazube Jaungoico baten araguija, bera-gaz ase cinaique ceuben gutari gustija. Daucazube ceruco edarijen egarrija? Sacrificijo orretan ezarten da, araco mundu gustico pecatubac itoteco asco izan zan odola. Ortisec urteten dau ibai andi bat leguez, nai dabena

gustijac amatadu daijen euren egarrija. Erdube erdube diadar eguiten deutzube mezan sacrificuetan daguan artian: ara emen nun nagan zuben bitarteco eguic zubei santidadia gueijago, eta gueijago gueituteo gurari vijan erreric. Ase zaiteze ceruco ondasunez; artu, artu, naico beste; bada eztira orregaitic urrituco: icusico dozube celan poztuco dan euracaz zuben vijotza, eta vicico dan zuben arimia.

Pecatori tristia, zagoz gustijori necaturic, eta desesperaduric leguez ceure pecatuben icaragarritzco anditasunagaz? Erdu sacrificio onctara, erdu mezara, emenche aurquituco dozu ceure erremedijua. Nai dozu euren paracinoia? Erdu mezara, orche aurquituco dozu araco Jaungoicuaren bildotz munduco pecatubac quonduten dituzana. Andijac dira, icaragarrijac dira zure pecatubac? Andijagua da altaran zugaitic ofrecietan dan sacrificijua. Larritu, eta bildurturic zaucaz ceure pecatuben ezaintasun ichusijac? Mezan daucazu araco testamentu barrico odol Jaungoicozcua, cein izan zan duin mundu gustico pecatuben loiquerijac garbituteo. Zaucaz estuturic, eta preminaz beteric Jaunari deutzazun zor andijac, euqui baga cegaz pagadu? Erdu mezara, orche daucazuz ceure auquerara, eta vorondatera Jesu Christoren merccimentu gustijac: artu eguizu nai dozun gustija, eta pagadu eguijozu Aita beticuari deutzazun zor gustija. Deritzu eztozula euquico indarric pecaturaco daucazun echuntasun, eta ecanduba goituteo? Mezaco sacrificijuan emongo jatzu sendatasuna demoninuaren, eta araguijaren aleguin gustijac aspiratuteo, bada beronec quendu eutzezan gure arerijo onei euren indar gustijac, eta ifini cituzan loturic. Baña, cer aurquituco eztogu mezan? Gueixo bagara, orche daucagu osasuna; triste bagagoz, or-

che daucagu poz, eta atzeguina; pobre bagagoz, orche daucagu ondasuna; ichuric bagagoz, orche daucagu arguija, eta beinguan esaterren: mezaco sacrificio miragarrian aurquituco dogu gueure gach, eta premia gustijen erremedijua; bada ecin ucatu leiquegu Jaungoicuac, bere bitartez escatu deijogun gauzatic.

Anchinaco legueco sacrificiujac utsac cirian; bada etzirian altaraco onen guericia baño, eta alambere mesede gustiz andijac eguiten eutzezan Jaunac, eurac opa, edo ofrecietan eutzezanai. Aserraturic eguan Israeltarracaz, eta Aaronec eguin evan sacrificiujagaz gueratu zan amataduric bere aserria. Aserraturic eguan David erreguegaz, jaquin nai izan evalaco cembat guizon eucazan bere aguintura, eta opa izan jacan sacrificiujagaz gueratu zan gozaturic. Bezte sarri ascotan dacuzcu Escritura Sagraduban, mesede andijac eguin eutzezala Jaunac sacrificio areec gaitic, eta enzun cituzala euren bitartez eguiten eutzezan escarijac. Bada ain gogo onagaz arcen bacituzan sacrificio areec, mezaco sacrificiujaren irudi, eta guericia cirialaco, celaco vorondatiagaz artuco ezta eguijazco sacrificio au? Celan enzungo eztituz onen bitartez eguiten jacazan escabidiac? Etzacaz emen opa orduban leguez ari, eta cecenen araguijac, ez chal, eta aquerren odola, ezpada araco bere seme maitiaren gorputz Espiritu Santubaren obraz eta virtutez sortuba: araco odol, ceru lurrac santututeco duin izan zana. Andija bada sacrificio au, ezta chiquijagua bera ofrecietan dabena. Sacerdote meza esaten dabena ofrecietan badau bere, Sacerdote lenen Aita beticuari opa dantzana, da Jesu Christo bera, eta alan bera da gure hostija, bera Sacerdotia, eta bera altaria. Berac ifinten dituz bere Aitaren aurrian gue mezan eguiten dituguzan erregubac, berac gure bitarteco egui-

nie erregututen deutzá, arren autortu, edo concedidu dagueigula escatuten doguna.

Celan bada enzungo ezituz alaco Aita batec onelaco seme batec eguiten deutzazan erregubac? Celan gorric egongo da ain maite daben semiaren deijetara? Urrin gungandic onelaco bildurric. Enzun cituzan Abelen odolac bere anaie Cainen contra eguiten cituzan diadarrac. Celan bada enzungo ezituz bere semien odolac gure oneraco eguiten dituzan diadarrac, izanic onenac senduaguac, eta zolijaguac arenac baño? Beti enzun cituzan bere seme onec mundu onetan eguin eutzazan erregubac; enzun euan araco curutzian gugaitic sacrificuetan eguanian diadar andijacaz, eta negarrez eguin eutzazanac, eta eztan enzun guraco, orain altaran sacrificuetan daguanian? Ecin Christinauc sinistu leique onelacoric. Christinaubac, Christinaubac; idigui daiguzan nos edo nos gueure arimaco beguijac, viztu daigun gueure fedta, eta ezagutu daigun meciaren anditasun pare baguia; ezauera onegaz eguin daigun aleguina al daiguzan meza gustijac enzuteco; baña ez edocein modutan, ezpada gueure beguijacaz baguencuz leguez Jesu Christo gure Jauna bere gorputz, eta odola ofrecietan gugaitic. Modu onetan itzal, bildur santuz, eta devocinoez beteric bat eguinic andagozan Ainguerubacaz bedeincatuco dogu Jauna lurrarian, eta guero inos amaitu eztirian soñubac cantaduco doguz ceruban. Amen.

**XLVII. VERBALDIJA.**

*Flexaco bigarren mandamentubaren ganian, cein dan, urtian bein confesetia, erijotzaco pelleburuban ifinten bada, edo comulgadu biar bada; nun adi erasoten dirian sarri confesetiae dacarzan onac.*

**F**lexa Ama Santubac aguinduten deuzeun bigarren

mandamentuba da, urtian bein edolabere confesetia, edo lenago erijotzaco pelleburuban aurquituten bagara; baita bere comulgadu biar bagara. Lenengo: Christinan gustijac confesadu biar dira urtian bein guichienez. Obligacione au asten da errazoe, edo sensuna arguituten jaquetic, edo errazoi en usura elduten dirianetic. Orregaitic gurasuac ardura andi bat euqui biar dabe euren seme alabai iracasteco umechu dirianetic, eta errazoera eldu baño leenago, celan confesaduco dirian, eta eruateco euren Arima-zain, edo Cura Jaunac gana icusi daguijen confesadu biarric badauque; bada uste arren gurasuac eztaquela pecatu mortala eguiteco biar dan argui, eta malicijaric, jazo leiteque pecatu mortalian egotia umia, eta confesinoien biarra euquitia. Emetic ezagutico dabe gurasuac celaco pecatu dan euquitia bederatzi, amar, edo urte gueijagoco seme alabac inos confesadu baga, eta venturaz jaquin baga celan confesaduco dirian.

Jaungoicua dauca aguinduric pecatu mortalian dagan Christinauba confesetia, bada bestelan etzaco parcatuco, bere peatuba; baña ez euan izentadu Jesu Christoc nosic nora confesadu biar zan, au ichi euan bere Elexiaren ardura, eta vorondatera; eta gure ama arduratsu onec, bere semiac egon etzeitezan dempora lucian, edo venturaz euren vici gustijan confesadu baga, aguindu euan urtian bein guichienez confesadu ceitezala. Urte au aituten da Pascha batetic bestera, edo Parroqui jagaz cumpletan danetic cumpletan danera; bada auxe da Elexa gustijetan jaoten dan oitura, edo costumbria; eta Trentoco Batzar, edo Concilijuac nai dabena da, irauñ daijala beti oitura onec. (1) Dempora atan confesetan ezta mac pecatu mortal eguingo dau, eta confesadu biarco da

(1) Tridentina, Ses. 14, cap. 5.



al daijen lasterren. Daquijanac, edo deritzanac ecingo dabela bete, edo cumplidu Elexiaren aguindu au izentadu, edo señaladuric daguan demporan, confesadu biar da lenago. Esateraco: dauca batec cer juan ichasotic, eta deritza ecin confesadu al izango dala Pascuac ifago, edo gueijagora artian; bada confesadu biar da oncijan sartu baño leenago. Eztau aguindu au bete, edo cumplietan dongaro confesetan danac, eta ez bacarric eztau beteten, ezpada eguiten dituz pecatu mortal bi, bata charto confesetan dalaco, eta bestia Elexiaren aguindu au jaoten eztabelaco. Au eguiten dabenac, aimbat lasterren biurta biar dau confesetara, eta eztau asco acto contricinogeo bat eguitia, bada onegaz eztau beteco Elexiaren mandamentu au. Bein ondo confesadu ezquero urte barruban, pecatu mortalian jausten bada, gustiz ondo litzateque bertatic confesetia, baña eztau pecatu barric eguingo confesadu ez arren: eguin biar dabena da, artu benetaco damuba Jaungoicua aserratu dabelaco, eta euqui gogo, edo vorondatia confesetaco Elexa Ama Santubac aguiduten dabenian.

Elexiac mandamentu onetan aguiduten deuzcun bigarren gaucia da, confesetia erijotzaco pelleburuban gagozarian, eta alan confesadu biar dira soldadubac batalla baten sarreca duazarian, pecatu mortalian badagoz, eta al badaije ichasuan dagozanac, ecachen batec oncija ondatu, edo galdu aguinian darabilenian; emacumiac seinguinza oquer, eta estuban dagozarian, eta gach, edo enfermedade pelleburuzcuan dagozanac. Medicubac aguindu ezquero guexo bati confesadu deila, ezta luzatu biar. Sarri eta sarri icusi oi da ichiric bijaramoneraco, edo arratzalderaco, confesinoe, eta beste Sacramentu barga iltia. Beste batzubetan Medicubac esan arren charric

daguala, etzacala sinistuten, eta guero arrastaca artu biar izatia Sacramentubac guertu, edo prestadu baga, edo cein modutan. Beste batzubetan usteric oraindio demporia daguala ichiten da gueroco, galcen dira, edo illanduten dira sensunac, eta uste arren bestiac euren sensun, edo adinian dagozala, arcen dira Sacramentubac, eta eguiten dira testamentubac jaquin baga cer eguiten dan, ascori eta ascori jazo jacana leguez; bada guero osatu ezquero, ez even gomuta onelaco gauzaric eguin beben ala ez. Baleuque Christinaubac euren arimeen arduria, ezagutu ezquero gach pelleburuzcua dauquela, edo pelleburuzcua izan leitequien bildurra daucala, ez leuque Medicuben esanenic biarco aimbat lasterren compoduteco euren arimaco gauzac, eta prest egoteco Jaungoicua dei eguiten deutzenian eranzun, eta berari contu emotora juateco. Ezta inor au eguina gaitic ilgo lenago.

Mandamentu onetan irugarrengo aginduten jacunda, comulgadu nai badogu, edo biar bagara, lenago confesetia peccatu mortalian bagagoz; eta alan acto contricinoco bat eguitia asco bada bere peccatubac parcatuteco, eta Jaungoicuaren gracia, eta adisquidetasumian ifinteco, ezta asco comulguetaco, Elexiac alainche aginduric daucalaco. Trentoco Batzar, edo Concilijuac dirauzcu. (1) Peccatu mortalian daguanic ecin comulgada leiteque, lenago confesadu baga. Baderitza bere, bere peccatuben damu benetacua daucala, eta acto contricinocua eguin dabela, confesadu biar dau. Au escatuten dau Altaraco Sacramentuben santidadiac, au San Paulo Apostolubac dinuanian: Sacramentu au artutera duazanian, beguiratu beique bacoachac celan elduten dan; eta au Ele-

xan beti iraun daben oitura, edo costumbriac. (1) Confesinoe au pecatu gustijena izan biar da, eta alan norbaiten isten badau pecatuben bat confesetaco bere erru barga astu jacolaco, confesinoe ona eguingo dau, eta parcatuco jaco asturic gueratu jacan pecatuba; orregaitio bere gomutatu, edo acordetan bajaca comulgadu baño leenago confesadu biarco dau asturico pecatuba bere,

Eztau Elexa Ama santubac aguinduten bein bacarric baño urtian confesetan; baño gura leuque aibat sarrijen confesadu deitezan bere semiac. Baguina benetaco Christinaubac, eta baguenca gueure arimiaren biar dogun arduria, ez bacarric ez gueunque biarco Elexiaren aguinduba urtian bein confesetaco, ezpada al daigun sarrijen elduco guinatequez Salvaguilien iturri onetara, gueure arimia garbitutera, eta bertan emoten jacuzan ceruco ondasunac artutera. Baguenqui beste aldetic, celaco gach icaragarrijac datorquiguzan confesadu barga luzaro egotetic, ez gueunque besteric biarco bildur izateco urte bertian confesadu barga egoten. Viztu zaitezcan aibat sarrijen confesetara, nua zubei beguijen aurrian ifintera, ce calte, eta gach dacarzan arimiarenzat beranduric berandura baño ez confesetiac, eta cembat on datozen sarri confesetatic. Lenengo: luzaro daguana confesadu barga, dago condenacinoeco pelleburuban: ara cegaitic; onelacuac ecin dempora lucian iraun leique pecatuban jausi barga. Lenengo pecatubac darua bigarreneza bere pisubagaz, onecc bijoc irugarreneza, eta modu onetan sartuten da peaturaco ecanduban, eta cembat eta luzaruago iraun daijen pecatu onecc, aibat eta gogor, eta senduago eguften da euren oitura, eta cembat eta senduago ecanduba, aibat eta gachago bera quenceia. Edonogan

(1) 1. Corint. cap. 11 or. 28.

da gach quencia bein arturico ecanduba, baña gustiz  
 gueijago beranduric berandura baño confesetan eztana-  
 gan, edo obeto esaterren, eztago onelacuenzat erremedi-  
 joric. Ara cegaitic. Eztago onelacuac osatuteco beste osa-  
 guci, edo medicinaric, sarri confesetia baño: alperric  
 eguingo dira beste aleguin gustijac, eztabe ecer valijoco  
 beranduric berandura confesetan bada. Eta orra nundic  
 datorren egunian egunian dacuzcun gauzatic galgarrije-  
 na. Gustija dago ordi, lapur, biraocari, araguzco peca-  
 tubetan sarturic dagozanez beteric. Cegaitic deritzube  
 dagozala onecc gustijoc euren ecandu citaletatic urten  
 бага? Eztaucazube beguiratu baño nosic nora confesetan  
 dirian, eta ezagutuco dozube. Urteric urtera baño eztira  
 elduten confesetara, eta orduban bere arrastaca, eta ecin  
 luzatu leijelaco. Orra nundic datorren aimbat demporan  
 irautiac oneen ecandubac. Baña sarri confesetan dana be-  
 randu elduco da ecandu citala euquitera; cegaitice peca-  
 tu baten, edo beste baten jausten bada, bertatic quen-  
 duten dabena leguez, eztau bere ecanduric arcen, eta ar-  
 tuten badau sarri confesadubagaz quenduco jaca; bada  
 alde batetic Jaungoicuac emongo deutza confesetian dau-  
 can humiltasunen sari indarra goituteco, eta bestetic  
 Confesoriac medicu leguez emongo deutzaz biar dituzan  
 osaguci, edo medicinac.

Bigarrengo: beranduric berandura baño confesetan  
 eztanari, gustiz astun, eta garratz eguiten jaca confese-  
 tia, eta cembat eta berandubago, aimbat eta astunago.  
 Onei jazoten jaque alperrai jazo oi jaquena. Nai dau eta  
 eztau nai alperrac, dino Espiritu Santubac. (i) Alde ba-  
 tetic icusiric pecatuban daucan egoera, edo estadu ne-  
 gargarrija, sentiduric bere vijozian emoten deutzazan

(i) Prov. c. 13 v. 4.

aguincadac, eta ezaguturic infernuban jausteco daucan pelleburuba, nai leuque confesadu; baña bestetic, daucan naguitasuna gaitic, concienciya examinetaco artu biar dab en arduria gaitic, usteric etzacola erraz izango ondo eguitia, eztau nai. Ara celan engañetan oi dituzan demoinuac. Dator Jai andi bat, eta arcen dau egun batzuc lenago confesetaco gogua. Elduten da eguna, eta etzaca faltaco achaquijen bat beste Jairen bateraco luzatuteco. Elduten da beste eguna bere, baña cereguinic chiquijena izango da asco osteria isteco. Modu onetan dua lizatubagaz. Elduten da aste santuba, eta orduban dira larrijac, orduban esturac, eta orduban nequiac. Ce astun eguiten dan concienciya aratu, edo examinetia. Confesetan da, baña eztaquijana leguez examina ain lucian ichi dab en peaturic, onelaco confesinoiac atzeguin emon biarrian bildur andijaguan ifinten dau. Baña sarri confesetan danac eztauca onelaco esturacic, bada jausten bada pecatu mortalen baten, bertatic gomuta dau nun, celan, eta negaz eguin euan. Sarri orrastuten bazara erraz izango jatzu orrastutia. Baña urte bete osuan bazagoz orrastu baga, gustiz gach izango jatzu ulia soltefia, eta eztozu orrastuco min andi baga. Auxe beran jazoten jaca sarri, eta beranduric berandura confesetan danari.

Beranduric berandura confesetiac dacarren irugarren gacha da, poz eta atzeguin benetaco baga iragoten dan vicitzia. Euqui beguiz guizon batec nai dituzan jan, edan, eta olgura gustijac; izan bedi diru ugari, eta ondasun zabalenen jaube; ez beguie ucatu bere gurarijai nai leuquien gauzaric; bada ezteutze emongo poz benetacoric zorion gustijonen erdijan egongo jaca aguinca bere conciencijaco aarra. Enzungo dituz ots crubel, eta gogorrac, ceinzuc mingoztaco ditubezan daucazan olgura, eta za-

rion campotico gustijac. Eztot ceubec baño eguija onen  
 beste testiguric gura. Celan aurquitu oi zara araco con-  
 fesetia luzatu arren, pecatuban aurquitu zarianian? Ce-  
 laco iluntasun, eta mingotzatasuna etzeuncan ceure vijot-  
 zian? Ez eutzuzan garratztuten ceure olgara, eta ceure  
 jan edanic gozuenac? Etzenduban uste, ceure ganian ce-  
 uncala pisu icaragarri bat, ceinec macurtuten cenduzan  
 luurreraño? Araco gomuta cendubanian pecatuban cen-  
 gozala, etzenduban esaten; niri emoten badeuzt aldi  
 guesto batec, eta Jesus bere esateco dempora baga ilten  
 banaz, cer izango da nigaz? Etzencuzan ceure aurrian  
 infernuba idiguiric? Celaco atzacabez, celaco larriz, ce-  
 laco bildurrez beteten etzinduzan gomuta onec? Ez eut-  
 zuzan lastuten ceure uliac? Ez jatzun bildurrez icara ifin-  
 ten ceure gorputz gustija? Ecin au ucatu cinaique, eguija  
 esan nai badozu. Barriz araco confesadu zarianian, ale-  
 gain gustijacaz guertu, edo disponidu ezquero, eta ondo  
 ceure eretzijan, celaco poz, eta atzeguina euqui eztozu  
 ceure vijotzian? Etzenduban uste pisu esquerga bat bota  
 cendubala ceure ganetic? Edo urraturic catee astun bat-  
 zac, urten cendubala carcela ilun batetic, eta argui barri  
 bat cencuzala? Edo urten cendubala infernatic, eta idi-  
 gui jatzuzala ceruco atiac? Euqui dozu inos orduban lez-  
 co pozic? Ecin au ucatu cinaique. Eta alambere luzatu  
 nai dozu confesetia? Nai dozu egon pecatupian? Zora-  
 querija andija benetan! Ichumendi sinisezgarrija!

Confesinoia luzatutiac dacarren laugarren gacha da,  
 eguin deizan obra on gustijac pecatuban daguan artian,  
 bapere ez valijotia. Ecarzuz federa Apostolubac baño gui-  
 zon gueijago, irago eguizuz Martiri gustijac irago ditube-  
 zan baño su, espata, cañubita, presondegui, zauri, eta  
 berun urtu gueijago. Eguizuz Santuric andijenac eguin

ditubezan baru, gaubela, penitencija, mortificacinoe, limosna, eta beste obra on gustijac; bada pecatu mortalian zagozala eguin badituzuz, ezteutzube ecer balijoco, eta ain utsic aurquituco zara juicijuan cein da bapere eguin ezpacendu. Bostgarren gacha da infernu baten bertatic jausteco daucan pelleburuba. Bertatico aldi guesto batec emongo baleusquijo, edo jausico balitz lecu eregui batec tie, edo cerbait jausico balitz bere ganian Jesus esateco bere lecuric emon baga, cer izango litzateque beranduric berandura confesetan danagaz? Eztaquit, celan fedia daucan Christinauba egon leitequian infernuban jausteco pelleburu onetan; eta alambere dacuzcu beranduric berandura confesetan dirianac dagozala sei, zorci, amar ilabete osuan pelleburu onetan; aaijago dabeela infernuco su icaragarrijetan jausi aguinian vici, confesinqe on bategaz euren arimia garbitu baño.

Azquenez confesinoia luzatutiac dacarzan gach gustijen artian gueijen bildurtu biar dabena da, onelacuac eldu oi dirian gogortasunac. Esan dogu gustiz dala gach, edo ecin leitequiana dala onelacuac dempora lucian irautia pecatuban jausi baga, eta pecatu onec bere pisubagaz daroiala beste pecatubetara, eta modu onetan ondatuten dala peccatarija bere pecatuben aspijan. Bein eldu ezquerro guizona negargarrizco egoera, edo estadu onetara, ezto go bera andic aterateco moduric. Eztau sentietan bere vijotzian pecatubaren aguincada, edo erremordimenturic, eztau enzuten Jaungoicuaren diadar, ez deiric, eztauca infernubaren bildurric, eztauca cerura juateco gurariric, eztauca beste gogoric, beste pensamenturic, ez beste usteric, ezpada nundic nora aseco dituzan daucan ecanducitalen gurari, edo gustuac. Cembat onelaco icusten ez ete dira beranduric berandura baño confesetan ezirianen

artian? Urte gustijan dagoz Jaungoicua gomuta бага, ari-  
 miaren jaramonic eguin бага, eta demoninuaren mem-  
 peco, edo esclavo; elduten da aste santuba, eta datez  
 confesetara cate bategaz loturic leguez. Baña ce astun? Ce  
 otz? Ce gogor? Ce arrizco? Eztago eurac bigunduteco  
 moduric; surbil bat eguinic dagoz confesorien oñetan.  
 Confesetan dira celan edo alan, edo eztira confesetan  
 biar lenquien moduban. Onegaz aurrera darue euren  
 ecanduba, eta beti dua gueitu, aci, eta sendatubagaz, eta  
 eurac gogortubagaz. Vici modu onegaz elduten dira eri-  
 jotzaco ordura. Deritzube erraz izango jacola beranduric  
 berandura baño confesadu ez danari, ordu atan ondo  
 confesetia? Edonoc daqui gustiz dala gach, beingo bein-  
 guan sarri eguiten dan pecatubaren damu artutia; gustiz  
 dala gach zale dan gaucia istia; gustiz dala gach ordu-  
 raño gogorturic egon dan vijotza bigundutia, eta eztala  
 erraz confesetaco oituraric eztaucana estura areen artian  
 ondo confesetia. Bildur izateco da, eztala obia izango or-  
 duco confesinoia, lenagocua izan dirian baño. Orra ce-  
 tara dacarren beranduric berandura confesetiac. Baña  
 sarri confesetan danac eztauca onelaco ecanduric; bada  
 ezteztana leguez isten pecatubari dempora lucian ego-  
 ten, eztauca beraren oituraric, eta eguinic daguana le-  
 guez confesetara, gustiz jaca orraz asquenengo orduban  
 bere confesetia.

*Erasoguinza.*

Orra ce arrigarri, eta icaragarrijac dirian beranduric  
 berandura confesetiac dacarzan gachac, eta ce miragar-  
 rijac sarri confesetiaren onac. Eta alambere ce atzerancun-  
 cia? Ce naguitasuna confesetaco? Sinistu eguidazube, neu-  
 xre Christinaubac, auxe da demoninuac ifini al leizun la-  
 nguitoric pelleburusuena, auxe tentacinoeric gogorrena.



Daqui gure arimen arerijo onec Sacramentu onec ateraten dituzala guizonac bere aguindupetic, eta iragoten dituzala Jaungoicuaren seme izatera. Dacuz Sacramentu onetan dauquezala guizonac armaric segurubenac bere tentacinoien contra pelietaco, eta ecin ecer dabela Salvaguilien iturri onetan garbitutera sarri datozenen contra, eta orregaitic Sacramentu oni deutzarabijaric andijena. Albalegui mundutic erbestetu, edo desterraduco leuque, eta gustiz dira andijac onetaraco eguin dituzan indarrac. Baña icusiric ecin onegaz urten dabela, cer deritzu eguiten dabela bere malicijac? Ifinten dau guizonacan confesetara juateco atzeracunza, eta naguitasun andi bat, modu onetan beranduric berandura baño ez juanagaz luzaruago egon deitezan bere aspijan, eta gachago izan daquijuen bere laquijuac urratutia, edo venturaz inos urten eztaijen. Sinistu eguidazube, neure enzula maitiac, araco nosbait datorquizunian confesetara juateco gogua, Jaungoicuaren deija da. Bera jaotzu diadarrez: urratu eguizuz demoninuac ifini deutzuzan catee orrec, eta erdu neugana. Cetaco nai dozu izan ugazaba ain gogor orren mempeco, edo esclavo, neure seme maite izan zaitequezala? Erdu bada, erdu nigana confesinoe on baten bi tartetz. Baña bertatic demoninuac ifinten deutzuz achaquija bat, beteten zaituz naguiz, ifinten deutzuz bere guzurac beguizen aurrian, eta zuc gorturic ceure belarrijac Jaunaren deijetara, eguiten dozu demoninuac dirautzuna, adi erasoten dozula naijago dozula ceure arerijuen mempe gogor, eta crubelian gueratu, ceruco erre gueren seme izan baño. Etzaitetze, Christinaubac, zoruac izan. Erantzun eijezube Jaunaren deijai, eta urraturic demoninuac ifini nai deutzubezan atzeracunza, nagui, eta achaquijen cateiac, urten eguizube bere aguindu astuna.

tic. Bein urten ezquero bere bustarritic, eta elduric Jaunaren seme izatera, eldu zaiteze aimbat sarrijen sacramentu onetara, bertan artutera semetasun onetan irauteco indarrac, iragoteco beti betico zorioneco izatera ceruban. Amen.

### *XLVIII. VERBALDIJA.*

*Elexaco irugarren mandamentubaren ganian, cein dan Pascuetan comulguetia, eta ce gauza ona dan sarri comulguetia.*

**E**lexaco irugarren mandamentuban aguinduten jacunda, Pascua Erresurrecinocuetan comulguetia. Aguindu au bete, edo cumphietaco comulgadu biar da Erramuco Domecatic, eta urrengo amabost egunen barruban, Obispo Jaunac luzatuten ezpadabe dempora au. Amabost egun oneetatic edoceimberetan cumplidu leiteque Parroquiagaz. Daquijanac lenagotic ecingo dabela comulgadu amabost egun onetan, egon bedi bere Arima-zain, edo Cura Jaunagaz, eta comulgadu bedi leenago. Amabost egun oneen barruban comulguetan eztanac, bere erruz, edo culpaz bada, pecatu mortal eguingo dau, eta comulgadu biarco da aimbat lasterren. Norbait ecin comulgadu bada egun oneetan, al daijan lasterren bete, edo cumplidu biar dau Elexiaren aguindu au. Eztau jaoten Elexiaren aguindu au pecatu mortalian comulguetan danna, eta ez bacarric eztau gordetan, baña eguiten dituz pecatu mortal bi; bata dongaro comulguetan dalaco, bestia Elexien aguinduba austen dabelaco. Onelacua bere aimbat lasterren ondo comulgadu biar da. Bacocha comulgadu biar da bere Elexa nagusi, edo Parroquijan, eta ecin bada escatu beijo bere Arima-zain, edo

Curiari licenciya, eta equiric edonun artu leique Pascua-  
co comunioia. Baña badago bere erritic campora, eta  
ecin biurtu al bada bertara amabost egunen barruban,  
dagan errijan comulgadu biar da. Vici lecuric eztau-  
quenac, edo erriric erri dabilzanac comulgadu biar dira  
egun areetan dagozan errico Elexa nagusi, edo Parro-  
quijan.

Christinaubac obediu biar deutza Elexiaren aguindu  
oni daucanetic sensuna ezagututeco, ce miragarri, ce  
neurri baga, eta cabu baguia dan hostijan arcen dan Jau-  
naren anditasuna, eta daquijanian celaco guertuera, edo  
prestatasunagaz, celaco garbitasunagaz, eta celaco amo-  
dijuagaz eldu biar dan Jaungoicozco Aingueruben jana-  
rija artutera. Jaquitia nos dagozan mutil, edo nescatillac  
guertu, edo prest eztagoquijue gurasuai, ezpada Arima-  
zain, edo Cura Jaunai. Gurasuac eguin biar dabeena da,  
iracatzi euren umiai cer dagan Altaraco Sacramentu-  
ban, ce miragarrija dan an dagan Jauna, ce mesede an-  
dija dan Jaungoicua bera bularren barruban artutia; ce-  
laco garbitasun, humiltasun, eta itzal, edo devocinoia-  
gaz eldu biar dan bera artutera; ce icaragarrizco pecatuba  
dan pecatu mortalian comulguetia. Modu onetan iracatzi  
biar deutze umechubai gaste dirianetic guertu, edo pres-  
tadubagaz duazan Sacramentu au artu biar dabeeneco;  
eta demporia eldu deinian eruan Cura Jaunagana, berac  
erabagui daijan comulgaduco dirian ala ez. Onezaz os-  
tian comulgadu biar da Christinauba erijotzaco ordu,  
edo pelleburuban, eta au Jesu Christoren aguinduz. Be-  
rac dirauzcu: jaten ezpadozube nire gorputza, eta edaten  
ezpadozube nire odola, eztozube equico vicitzatic con-  
becan. Inos estututen badan guizona aguindu onec, ez  
inos obeto, ez inos biarrago mundu onetatic ibestera ira-

go biar danian baño, orduban dalaco inos baño gogor-  
 ragna demoninuac eguiten daben guerra, eta andijaguac  
 bialduten dituzan tentacinoiac; eta alân biarren dau eu-  
 ren contra sendatuteco, eta cruateco janari au sarcera  
 doian bidian: eta dei eguiten jaca orduban artuten da-  
 nian bide-ornija, bideraco jatcua, edo viaticua. Orre-  
 gaitic, ordu atan comulgadu nai eztabenac, pecatu mor-  
 tala eguingo dau, eta pelleburi andijan ifinico dau bere  
 salvacinoia.

Ezteuzcu agünduten Elexiac bein bacarric baño ur-  
 tian comulguetia; baña ezta au nai ez leuquialaco bere  
 semiac aĩmbat sarrijen eldu deitezan altaraco maira Jaun-  
 goicua bera artutera; ezpada icusiric euren atzeracuncia  
 Aingueruben janari au artutera juateco urte bete baño  
 gueijago luzatu eztaijen, esango baleu leguez; guichienez  
 urte beteric urte betera comulgadu deitezala. Elexia jaijo  
 barri zanian ez eguan onelaco agüнду biarric; bada eza-  
 guturic bere semiac Sacramentu onetan arcen cirian neur-  
 ri bagaco ondasunac, egunian egunian comulguetan ci-  
 rian. Baña otzituten abijadu ozquero Christinauben cari-  
 dadia, abijadu bere cirian mai Jaungoicozco onetatic at-  
 zeratuten. Icusiric Elexiac bere semien oztasuna, agüнду  
 eutzen comulgadu ceitezala iru bidar urtian; Gabonetan,  
 Erresurrecinoe, eta Maijatz Pascuetan. Larrregui eritzi  
 eutzen ascori eta ascori iru bidar urtian comulgadu biar-  
 ra. Icusiric gure Ama erriquir onec bere seme ascoc eta  
 ascoc naijago euecla pecatu mortal eguin iru bidar urtian  
 comulgadu baño, aĩmbeste galdu etzeitezan agüнду  
 euan urtian bein guichienez comulgadu ceitezala. One-  
 tan eguin dau Elexiac bere semiacaz ama amodijoz be-  
 terico batec bere seme lastan guexo dan bat gaz eguin oi-  
 dabera. Dauca ama onec seme erquin, caden, eta indar

baga bat, daqui ondo jango baleu osatu, eta sendatueo litzatequiala; baña ain dago jangarsu, edo desganaduric, ce ecin inundic bere jan eraso deutza. Cet eguiten dau orduban? Arcen dau bere escubetan janari gozo gozo bat, dua bere semiagana, eta dirautza: bacenqui ce gozua dan janari au, poz pocic artuco ceunque; artu egizu copachu bat guichienez, onexec osatuco zaituz, eta quenduco deutzuz ceure gach gustijac. Au dirautza, ez nai eleuquialaco gueijago jan daijan, czpada ija copau aregaz gueijago jateco gogua artu al daijan.

Auxe da Elexiac bere Christinaubacaz eguiten dabena. Nai leuque, dino Trentoco Batzar, edo Concilijuac, meza gustijetan comulgadu deitezan. Erregatu, eta escatuten deutze Jaungoicuaren erruqui, edo misericordijaren erraijetan, arren aimbat sarrijen comulgadu deitezala; dirautze, janari orrec quenduco deutzezala euren arimaco gach gustijac, berac emongo deutzela arimaco osasuna, sendatasuna, eta indarrac demoninuaren contra pelietaco, eta eruango dituzala ceruco erreinura. (1) Icusiric bere aleguin gustijac eztiriala asco sarri comulgadu erasoteco, aguinduten deutze urtian bein edolabere eldu deitezala, icusteco, al badaguiz modu onetan eruan sarrijago jatera ceruco ogui gozoz beterico au. Alambere Christinau ascorenzat eztira duin euren amaren erregu, escari, eta aleguin gustijac, curai ogui osasunsu, gozoz, ondasunez, eta zorionez beterico au jan erasoteco. Nundic, edo cetatic etorri al leiteque atzeracunza, oztasun, eta naguitasun au? Fede utzune, edo faltatic. Eztabe beguiratuten, ez cer dan hostijan artuten dana, ez celaco ondasunac dagozan bertan biar dan moduban elduten danenzat, ez celaco zorion pare bagara igoten dan bera

(1) *Trid. Ses. 13 cap. 18 et. Ses. 22 cap. 6.*

artubagaz, ez ce mirarizco gauzac eguiten dirian bere jaten dabenagan. Orregaitic dagoz ain atzera comulguetaco. Seguru nago, baleuque Christinaubac biar dan fedia, sinistuco balebe cer jazoten dan Sacramentu ori sarri artuten dabenagaz, luce eguingo litzaquijue, ez tinot urte bete, baita aste bete bere comulgadu baga egotia. Eguija au ezagutuco dozube irudi onegaz.

Contu eguizu dirantzula Erregue Españacoc, zuazala jatera beragaz nai dozun gustijan: beragaz mai baten jango dozuzala goguac emon al daizuzan baño bere janari gozuaguac; zuazala ardura baga, bada ezteutzula inoc galazoco ez bere Jauregui, edo palacijuan sartuten, ez bere maira elduten. Ez bacarric jango dozula beragaz, baita jaten dozun gustijan aberaztucoc zaituzala ondasun andijacaz, eta cembat eta sarrijago zuazan, aimbat eta poz andijagua emongo deutzazula, aimbat eta bere adisquide andijago izango zariala, aimbat eta gueijago guracoc deutzula, eta aimbat eta ondasun gueijago emongo deutzuzala. Baña onetaraco juan zaitezala al dozuzan erroparic ederrenacaz; bada cembat eta apaindubago zuazan, aimbat eta ondasun andijaguacaz aberaztucoc zaituzala. Cer eguingo ceunque orduban? Luzatucoc ceunque eguneric egunera, asteric aстера, ileric ilera, eta urteric urtera Erreguegaz jaten juatia? Ibilicoc cinatequez achaquiija billa ez juaterren, edo al daizun gustija luzatuteren? Ifinico cinatequez Erregueren albuan erropa zatar, urratu, eta atsitubacaz? Jarricoc cinatequez arpegui loi jagaz, eta escu bustina, eta cacatzaz betiacaz? Edo ezarricoc ceunquez Erreguec berac jan biar daben platerera escu loiqueriz atsitubac? Ezetz deritz: lenago sinistuco neunque, egun bat bacarric bere luce eguingo litzatequezula Erreguec eguin nai deutzun honria artututeren. Egunian

egunian juango cinatequezala mai atara Erreguec emoten deutzuzan ondasunacaz aberaztuterren. Ichico ceunquezala beste cereguin gustijac mai atara ez uts eguin, edo faltetarren. Garbituco cinatequez gustijori al daizun onduen, eta villatuco ceunquez erroparic ederrenac, prestaduric baño ezpada bere, aimbat apaindu, eta ederren erregueren aurrera juaterren.

Orain bada, neure enzula maitia, auxe berau dirautzu, ez Españaco Erreguec, ez beste erreinu batecuac, ez luur gustijen jauve danen batec, ezpada ceru, luur, eta izatia daucan gustija daucanac. Erdu erdu, dirautzu Jaungoicuac berac, erdu neure Jauregui, edo Palacijora, cein dan Elexia, jarri zaitetz neugaz batera altaraco mairjan, eta jan eguizu, ez idi, bei, eta arijen aragui, eta odola, ez egasti gozuenac; ez Aingueru, Querubin, edo Serafinen bat, ez neure Ama maite miragarrija, ezpada neu nazan Jaungoico gustija, Aita, Seme, eta Espiritu Santuba. Erdu aimbat sarrijen, bada ceimbat eta sarrijago jan naguizun, aimbat eta arimaco ondasun, gracia, santidade, onoidade, edo virtute gueijagogaz aberaztuco zaitut; cembat eta sarrijago zatozan, aimbat eta lastanago, eta maitiago izango zaitut; aimbat eta nire adisquidiago izango zara. Baña beguira celan zatozan; loiric bazagoz garbitu zaitetz leenago penitencijaco iturrijan, ez eguizu ceure ariman ichi loiquerijaric chiquijenic; bada cembat eta garbijago eldu zaitetzan nire maira, aimbat eta ugarijaguac izango dira emongo deutzudazan ceruco ondasunac. Apaindu eguizu ceure arimia al daizuzan virtutien erroparic ederrenacaz, eta ezpadaucazuz, escatu eguidazuz humiltasun, eta lute osuagaz, eta neuc emongo deutzudaz.

Eta orregaitic bere eztogu eguingo Jaungoico batec

opa deuzcuzan ondasun, eta zorionagaitic, guen lezeo guizon autz pusca bat baño eztanac isquini leiqueguzan bertatico ondasun apur pusca bat gaitic eguingo gucunquiana? Erregueric alsu, edo poderosuenac emon al leiqueguzan anditasun, ondasun, eta subertiac, cer dauque cer icusi Jaungoicuac Sacramentu orretan bera artuten dabenezat daucazan zorionacaz? Eztira areec onen guezia bere. Mundu onetaco erregueric andijenac emon al leiqueguzan diru, aberaztasun, eta honra gustija, al deitezan andijenac izan da bere, ecin irago leitequez gueure erijotzara baño, eta dirauben artian eztira buruco min puscachu bat quenceco duin. Baña Jesus onac altaraco majan emoten deuzcuzan ondasun, eta honriac, beti beti iraungo dabe. Ezteuzcuz quenduco gueuc nai ezpado-gu, ez erijotziac, ez demoninuac, ez infernubac, ez beste arerijoc. Gueugaz eruango dituguz beste mundura bere, Barriz mundu onetan vici garian artian, Sacramentu orretan artuten dogun janarija gorputz, eta arimaco gach gustijen erremedijua da. Jesus onac dirauzcu: ni jaten nabena neugan dago, eta neu nago beragan. (1) Ce gach! Ce neque! Ce lan! Ce guexo! etorri leiquijo Jesu Christogan dagianari, edo Jesu Christo beragan daucanari? Jagui bedi bere contra mundu gustija, bota beguizez demoninuac euren indar gustijac, artu beguiz infernubac al daizan asmuric charrenac, cer eguingo dabe Jesu Christo beragan daucanen contra? Ecerbere ez: arerijo gusti gustijac gueratuco dira deseguinic queia leguez Jaun onen aurrian. Mesede gusti oneec, eta gustiz andijaguac opa deutzaz Jesu Christoc comulguetan danari: eta alambere ce naguitasuna! Ce atzeracuncia comulguetara juatecol! Ce astuntasuna Jaungoico andijagaz mai baten jarriric,

(1) Joan cap. 6 v. 57.



luurrian, eta ceruban dirian ondasunic andijenac arceco!  
Christinaubac, Jaungoico baten dei gusti oneec, opet-  
zi, edo promesa oneec, aleguin oneec, eztira asco izango  
bera arceco gurariya guban viztuteco, bere maira gu crua-  
teco, ceruco ondasunac arcera elduteco? Ay neure enzu-  
lia, comuninoe bacocho gaitic emongo baleutzubez eun  
dobloe, euquico ceunque orain daucazun naguija al-  
tarara elduteco? Egongo cinatequez urte osuan eun do-  
bloe oneec artu baga? Villatuco ceunquez orain ifinten-  
dozuzan achauquijac, urteric urtera luzatuteco? Obeto si-  
nistuco neuque aste bat bere luce eguingo litzatequezula  
eun dobloiac arcera juateco, eta guraco ceunquiala astian  
sarri comulgadu, aimbat sarrijagotan arcerren emon nai  
deutzuben diruba. Ez legoque orain dagan naguitasu-  
nic, ez oraingo atzeracunzaric, ez orain villatuten dan  
achauquijaric. Nun da bada zure fedia? Nun da zure Chris-  
tinautzia? Gueijagotan daucazuz eun dobloe, ceruban da-  
gozan ondasun gustijac baño? Diru apur pusca bat gai-  
tic eguiten dozu Jaungoico berbera gaitic eguin nai ez-  
tozuna? Ez eguizu esan fedia daucazula. Ez eguizu esan  
Christinau zariala. Ez eguizu esan sinistuten dozula Sa-  
cramentu orretan, hostija orretan artuten dala bene be-  
netan, eta eguija gustijagaz Jaungoicua berbera, eta be-  
ragaz batéra beguic icusi, belarric enzun, eta guizonen  
gogora eldu al leitequezan baño bere ondasun, doe, gra-  
cija gueljago; bada bestelan eguingo ceunque euren jauve  
eguiten dozun. Etzinatequez elduco ain otz, ain devo-  
cinoe baga, ain guertuera, prestaera, edo preparacinoe  
guichigaz, eta venturaz arima loijagaz, modu onctan  
irunciten dozula ceure condenacinoia, ceure vicitzia ar-  
tu biarrian.

Beguita bada Christinauba, celan elduten zarian altarara. Beguita celaco garbitasuna daruazun Jesu Christoren gorputza artutera zuazanian. Bildurrez icara guratu biar zara, San Paulo Apostolubac dinuanagaz, eta bildur onegaz eguin aleguina pecatu baga, eta al daizun garbitasun gustijagaz elceco. Jesu Christoren gorputz, eta odola artuten dabenac pecatu mortalian daguala, bere condenacinoia irunciten dau, dino Apostolubac. Cegairic? Jaunaren gorputz, eta odolaren errugarri eguiten dalaco. (1) Au da, dino San Juan Chrisostomoc, ain pecatu andija eguiten dabela, cein da curutzian josi evenac. (2) Cembat bidar aserratu oi zara Judasen contra Jesu Christo saldu evalaco, eta Judegubena contra Jesus ona curutze baten josi eveclaco? Bada ceure contra biurtu biar dozu aserre gusti au, pecatu mortalian zagozala ceure bularreco simaurza atzituban botaten badozu Salvaguiliaren gorputz, eta odola. Ay neure Christinauba, lupatza, edo cacatza loi atatic diadar eguingo dau odol arec zure contra, Abelenac Cainen contra eguin evan bano bere gogorrago; eta enzun bacituban Jaunac Abelehen diadarrac, celan enzungo eztituz bere semiarenac zure contra eguiten dituzanac? Eta ain gogor vengadu beban aren erijotzia; celan vengadueo eztau bere seme maitiari eguiten deutzazun lotzabagaquerija? Enzungo dituz, eta zure ganera eterrico da castigoric icaragarrijena.

Bildur izan cinaitequez esan eztaijan Jesus maitiac zugaitic, Judasgaitic esan evana. Ay ce zori gogorredua dan, ni neure arerijo gogorrenen artian ifini nabena; oba deaquian jaije ecpalitz guizon madaricatu au; bada nire gorputz, guizonen on, eta osasuneraco curutze baten josi

(1) paal. ad. Cor. .c. 11.v. 27 et 29. (2) Chrisost. Hom. 6 de nona cont. Ecl. Dei.

zana, josten dau bere condenacinoeraco calvarijoco curutzia baño lotzagarrijago baten; araco nire odol mundubaren salvacinoeraco ain ugari luurrera bota zana, botaten dau lecuric loi, eta ezainenian bere condenacinoeraco. Odol au izango da zure condenagarrija, beragaz escribiduco da zure condenacinoeco sentencija; bada nai izan dozu ceure ganian artu Judegubac artu even baño ichumendi andijaguagaz; ceure bularrian pecatubagaz batera ifini dozunian, esan dozu areec baño gogortasun andijaguagaz: odol au izan deila nire contra: betor betor nire ganera. Eztacutzu zure zori galdu au ichuric zagozalaco, enzuten eztozuz Jesu Christoren odolac zure contra emoten dituzan diadarrac gorric zagozalaco; baño idigui al bacinaiz ceure arimaco beguijac, araco pecatuban comulguetara zuazanian, icusico ceunque daguala ceru luurren egulia gustija irrituric zure contra susco beguijacaz zu erre, eta quisquilduteco, bere escuban dabela justicijaco espata zorrotza zu erdibituteco, bere gorputz, eta odolari eguitera zuazan lotzabagaquerija gaitic. Enzungo ceunque dirautzula: nora zuaz madaricatubori? Orraco ceure bijotzeco pecatu artian ifini nai dozu nire gorputza? Orraco carcaba ustel, atsitu, eta loi orretarra bota nai dozu nire odola? Zatoz oia aspijan zapaldu-tera Jaungoicuaren semia? Etzaitetz aurrera irago; zuaz ortic, quendu nire beguijetatic erre etzaguidazan arraijuen bategaz, edo erdibitu etzaguidazan neure espata zorrotzagaz.

Christinaubac, ez eguizube uste au ponderacinoerera bat dala, edo eztabela mereci onelaco castigu icaragarri-ric pecatu mortalian comulguetiac. Sinistu eguidazube: eztago lecu atzitubagoric Jaunarenzat, pecatu mortalian daguanen bularra baño, carcabaric ustelenac, secretatic

Isijenac, lecuric ezainenac gustiz dira garbi bere parian; bada onei ezteutze Jaunac gorrotoric, pecatubari bacar bacarric deutza gorroto; auxe da bere arerijua. Onexegaz batera eztau egon gura, eta orregaitic ecin eguin leiquijo lotzabagaquerija andijagoric bere albuac ifratia baño. Beguira bada cer eguiten dozun pecatuban comulguetan zarianian, eta gustijori bildurrez icaraturic, garbiru zaittez Jaungoicua artu baño leenago. Modu onetan elcen bazara altarara, artuco dozuz ceruco ondasun miragarri-jac, eguingo zara Jaungoico esan bere ecin leitequian moduban, artuco dozu indarra demonino, eta beste arerijo gustijen contra pelietaco, eta ibilico zara mundu onetan ceruco bidetic, bertara eldu artian. Amen.

### *XLIX. VERBALDIJA.*

*Ellexaco lau, eta bostgarren aguindu, edo mandamentuben ganian.*

**E**llexaco laugarren mandamentuba da, baru eguitia berac aguinduten dabengan. Baruba da jatordu bat baño ez eguitia, eta araguiric ez jatia. Baruba abijetan da gabeco amabijetan, eta dirau urrengo gabeco amabijetaraino. Jatorduba eguin biar da bascarija eguin oi dan orduban; baña preminazco cer eguinen bat daguanian, aurreratu, edo atzeratu leiteque. Dauca norbaitec preminazco ibilera, edo viageren bat; bada gabez ez ibilterren eguin leique jatorduba amiarretarunz, eta bardin atzeratu leiteque, ibilera, edo viagia ez galduterren. Baru egunian ecin araguiric jan leiteque, Aita Santubac autortu, edo concedietan ezpadau licenciija. Araguija esaten danian aitu biar da coipia, saldia, beragaz eguinico salcia, edo beste edo

ceimbere gauza, eta alan ecin jan leiteque araguija eragotziric daguanian. Garizuman ecin jan leite arrautza, ez esne gauzaric bere, eta jan nai dabenac artu biarco dau buldia. Aita Santubac emoten dabenian licenciya araguija jateco, eguin biar da berac aguinduten daben gustiya, nai dala limosnaren bat emotia, nai dala Aita guria, eta Ave Marija errecetia, nai dala beste edo ceimbere gauza. Orduban araguija jaten dabenac baru eguin biar dau onelaco licenciari ezpaleuca leguez, eta ecin nastadu leique jatordu baten araguija, eta arraina; baña bai bitan, eta alan jan leique eguberdijan araguija, eta arratzian arraina, eta bestera. Onelaco licenciari daguanian itandu eiquiozube ceuben Arima-zain, edo Cura, Confesore, edo daquijanen bati, cer eguin biar dozuben.

Jatordu bat baño ecin eguin al balcique bere baru egunian, eguin leiteque colacinoe. Eztago izentaduric cembat jan leitequian colacinoian iru, lau, ez bost onza, eta alan artu biar da guizon concienciya oneco, eta Jaungoicuaren bildurtijac artu oi dabeena. Gabon egunian gabez eguiten bada colacinoe, artu leiteque cerbait gucijiago; baña ez beste egunetan, ez Eguben santuz, ez Idulencijaz, ez Sapatu santuz, ez Maijatz Pascua visperan. Colacinoian ecin artu leite ez araguiric, ez aragui gauzaric, ez arrautzaric, ez ezneric, ez oneecaz eguinico gauzaric. Christinau gustijac ogueta bat urtera eldu ezquero eguin biar dabe baru Elexiac aguinduten daben egunetan; baña ogueta bat urtera eldu ez arren, ecin orregaitic jan leije araguiric eragotzirico egunetan, ez nastau aragui, eta arraina jatordu baten, ez jan arrautza, esne, ez euracaz compondurico gauzaric garizuman bulda baga. Eztago gauza ciur, edo cierturic mosguino baru eguin biar dan, iruroguei urteraño ala aurrerago, eta alan eme-

ric aurrera urtetan sarturic dagozanac, edo atso, eta agurac, itandu, edo aconsejadu bediz euren Confesoriacaz, euren burutic erabagui baga, eta baruba austen azartu baga. Baru danac cerbait arcen badau gomuta baga, edo araguiric jaten badau, eztau pecaturic eguingo; baña jaon biarco dau emparauban. Artu leiteque cerbait goxian, edo arratzaldian, gustitan iragoten ezpada onza, edo onzaterditic aurrera.

Iru gauza gaitic ichi leiteque baruba, edo ezta pecatu baru ez eguitia; gorputzeco guexo, edo argaltasunagaitic, biar, edo larra gaitic, eta caridadia gaitic. Lenengo: guexo, edo argaltasunagaitic: alan eztauque baru eguine nic guexoric dagozanac, guexo ostian cañen, eta erquinic dagozanac, eta barubac gach eguiten deutzenac, baderitzo medicubari ecin baru eguin leijela; eta alan curai itandu biar jaque baru eguingo badabe ala ez; eta medicu, eta barberu, edo cirujauba dudan badagoz, esan Arima-zain, edo Confesoriari, eta bere licenciagaz ichi leije baruba. Araguija jan biar dabenac baru eguin al badai, eguin biar dau; bada aguindu gustija ecin jaon al daijanac zaindu biar dau al daijan zati, edo partia. Bardin, baruric ecin dabenac ecin orregaitic araguiric jan leique. Seindan dirian, edo seina asten dagozan emacumiac eztauque baru eguiteco biar, edo obligacinoeric. Ateric ate dabilzan pobriac ecin eguin al badaije egun gustija iragoteco asco dan jatordu bat, eztauque baru eguin biarric, eta bardin euren pobrecia gaitic eztauquenac janari segururic, ez jateco orduric. Baita bere bidian ibili biar dabenac, ecin aurquitu al badau cer jan, ezpada puscachu bat lecu baten, beste puscachu bat beste baten, jan leique lecu oneetan aurquitu al daijana, ecin aurquitu al badau janari bat eguiteco duin.

Bigarringo: ichi leiteque biarra gaitic. Modu bitacua da biarra. Bata da ecin eguin leitequiana gorputzaren neque andi baga. Onelacuac dira baru eguiteco obligacioneric eztauquenac; celacuac dirian achulari, olaguizon, arguin, zapatari, arotz, errementari, eta beste edoceimbera biar gogorreco nequezaliac. Onece, ez bacarric eztauque cer baru eguin biarra eguiten dabeen egunian; baña ezta eguiten eztabenian bere. Esateraco: dator garisuman Anunciacinoeco jaija, ceinetan ezta biarric eguiten; bada egun atan bere eztauque baru eguiteco obligacioneric. Baña oficijo onetacuac izan arren, ezpadabe eurar biarric eguiten, edo ezpadabe euren crijadubai aguin du baño beste gauzaric eguiten, baru eguin biar dabe. Beste oficijo, edo lan batzuc dagoz, ceinzuc eguiteco ezta aimbeste necatuten. Onelacuac dira Escribau, Procuradore, Letrau, josquile, dendari, eta estribietan dabenac; onece baru eguin biar dabe. Crijadubae ezpadabe eguiten ehecereguinac baño; baña onece badauque neque andico biarric egun atan, ichi leije baruba. Jaquin beguije ugazabac ecin aguin du leijuela euren otsein, edo crijadubai baru egunian beste egun batera luzatu al leitequian biar nequetsuric. Esateraco; ecin aguin du leijo otseinari egun gustijetan egon deila lexiba, edo bogada josten baru egun oso baten, baru ecin daguijan moduban, beste egun bateraco luzatu al daijala; baña balitz garizuman, ceinetan ecin egon leitequian lexibia eguin baga, orduban aguin du leijo.

Bide, edo ibilera preminazco, edo biar biarredua eguiten dabenac, ausi leique asco necatu, edo adicatu biar bada. Eztago gauza cierturic cembat bide ibili biar dan onetaraco; bada beguiratu biar da celacua dan bidian dabilena, celacua dan bidia, eta eguraldija; bada jazo leite-

que legua bi asco izatia guizon argal, eta guexoti batec baruba galceco, eta ez asco izatia itu guizon sendo batenzat; eta negu gogor, eta euri andi bategaz asco dana, ez izatia eguraldi onagaz, eta gueijago necatutia bide garratz, aldatz baten, lau, eta celai baten baño. Onetan esan leitequiana da, Aita Santu Alexandro zaspigarrenac condenadu evala esatia: zaldiz dabilenac egun baten bacarric bada bere, nai dala bere guraz, nai dala preminaz, eztaucala baru eguiteco biar, edo obligacinoeric. Eta alan zaldiz dabilenac egun bat, edo bestian, preminaz bada bere, neque andi baga, baru eguin biar dau; baña egun ascotan ibili biar baleu, eta bide lacia eguin biar baleu egun bacoehian necatuten dala, jazo leiteque baru eguiteco obligacinoeric ez euquitia; bardin jazo leiteque ibili biar baleu eur, each, eta euri andijacaz. Bide, edo ibileria vorondatezcua bada, asco necatu arren, ecin galdu leiteque baruba; eta alan cazan dabilzanac egun gustijan, erromerijara duazanac, jolacian dabilzanac, eta euren gogoco guraarijetan izerditu, birrindu, eta gustiz necatuten dirianac, ecin orregaitic baruba galdu leije; bada onec euren escuban euqueen ibilera onec ichitia, eta necatu badira euren vorondatez izan da, eta ez dauquee modu onetan necatu biarric.

Irugarrenko: obra on erruquizco, edo caridadezcoren bat eguitagaitic; ez obra onac quencen deutzalaco baru eguin biarra, edo baru eguiteco obligacinoia, ezpada obra au eguinagaz ezin baru eguin leitequialaco daccarren neque, eta lan andijagaitic. Esateraco: dago bat guexotegui, edo hospitale baten guexuai lagunduten, edo echeren baten egunez eta gabez; eta onetan daucan nequia andija dalaco, ecin baru eguin leique, edo ichi biar deutzua guexuai lagunciai, ausi leique baruba. Bardin; da-



bil gach, edo enfermedade itzatzicor, edo laster itzatziten dan bat; dauca batec cer lagundu, senar, emaste, guraso, seme, edo besteren bati; deritza bestetan icusi danetic, baru eguiten badau itzatzico jacala gacha; ausi leique baruba. Norbaitec ecin bete, edo cumplidu al badi-tuz bere estadu, edo oficiuari dagoquihozan lanac baru eguinagaz, edo baderitza osasuna orregaitic galduco dabela, edo ecin eguin badi-tuz biar dana leguez, eztau pecatu eguingo baruba ez jaoterren. Onelaco gauzaric jazoten danian onen onena da itandutia Confesoriari cer eguingo daben, gustija arguitan ifinten jacala, ecerbere gueitsu, eta guichitu baga, eta jarraitu bere esanari, ceuben burutic erabagui baga. Bildur danac arrain, orijo, eta beste vigilijaco janarijac gach eguingo deutzala, itandu beijo medicu, edo barberu, edo cirujaubari, eta eguin begui berac dirautzana.

Baru eguin biar da garizumaco egun gustijetan, Domequetan ezpada, lau-demporetan, edo quarta demporetan, eta Santuben batzuben jai besperaco egun aurrecuctan. Zeinzuc dirian oneec Meza nagusijan esan oi da Domequetan: orregaitic gustijac ecin juan badira, bialdu biar dabe norbait, edo ehecoren bat jaquiteco ce baru, eta jaijegun dagozan astian. Onezaz ostian dagoz egunen batzuc, ceinzubetan baru eguin biar ezpada bere, ecin araguiric jan leitequian, celacuac dirian garizumaco Domecac, eta urte gustico barijacubac; Letañetaco egunetan baco-chac jarraitu biar deutzaz errico oitara, edo costumbriari. Ez bacarric eguingo dabe pecatu mortal baru eguiten eztabeenac, edo araguija jaten dabenac jan ecin leijen egunetan, baira bere onei jaten, edo araguija emoten deutzenac. Esateraco: daqui ostatari, edo ardao-zain, edo tabernarijac, urlijac, edo urlicijac ez

rauquela gachic, edo beste gauzaric cegaitic jan leijen araguija, eragotzitic daguan egunetan; dua au taberna, edo ostatura onelaco egunen baten, escatuten deutza ostatari, edo tabernarijari ifini deijola araguija, ecin ifini, edo emon leijo, eta emoten badeutza pecatu mortal eguingo dau. Bardin da, jaten emoten deutzanac, jaquinic baru eguin biar dabela egun atan, eta emoten jacan janarijagaz galduco dabela baruba. Eguingo dabe pecatu ostatari, tabernazain, edo beste edocinec baru egun, edo vigiliacuan, aragui, eta arraina jatordu baten emoten deutzanac. Eztinot datoza, eta duazan gustijai itandu biar jaquela baru eguin biar badabe, ala ez, edo jaquin biar dala norzuc eguin biar daben; eta alan dinot jaquin ezquero baru eguin biar dabela, eta austera duazala; bada orduban emoten badeutzee, euren pecatuben lagun eguiten dira.

*Bostgarren mandamentuba: Amarren primicijac paguetia.*

Elexaco bostgarren mandamentuba da, amarren primicijac peguetia. Amarrenen izenian aituten da amarric bat. Primicijac gaitic aituten da, lenengo arbola, solo, edo aberiac emoten daben frutuba, edo errijetan oneen orde emon oi dana. Legue gustijac aguinduten dabe onec paguetia. Aguinduten dau legue berez jaquinac, edo naturalac; bada edonoc daqui bacochari emon biar jacala bere biar eguinaren sarija; eta Elex guizonac biarra eguiten badabe bestien arimien oneraco, errazua andija da, onec biurtutia, gorputzeraco biar dabeena. Aguinduten dau Jaungoicuen leguiac; bada Jaungoicucac berac aguindu euan, Sacerdote, eta Levitai amarren primicijac enotia. Aguinduten dau Elexaco leguiac; bada da-

cuzcu, Batzar, edo Concilio ascotan aguindu au ifini dabela. Auxe berau dirauzcu San Paulo Apostolubac. Altaran servietan dabenac, Altaratic jan biar dau. Orregaitic amarren primicijac pagadu biar dira, eta paguetan eztituzanac pecatu mortal eguingo dau. Amarrenac pagadu biar dira Jaungoicucac emoten daben moduban, ez charrena, ez cascarrena; baña eztago obligacinoeric onena emoteco, ezpada arcen dana leguez, ona arcen danetic ona, onchubagua arcen danetic onchubagua, eta charra arcen danetic charra. Amarrenac biar dan moduban paguetan eztituzanac, ez bacarric eguingo dau pecatu, ezpada biurtu biarco deutza eurac arceco escubidia daucanari quendu deutzan, edo guichijago emon deutzan gustija. Amarrena pagadu biar da oso osoric, ecerbere quendu baga, ez erin dan acija, ez erin, batu, eta componduteco costa dana, ez besteri emon jacona.

Emetic ezagututen da noc pecatu eguiten daben mandamentu onen contra. Lenengo: eguiten dau pecatu mortal soluan artuten daben arto, gari, edo beste laboreen amarrenac paguetan eztituzanac; bardin da bildotz, auma, edo aberenic paguetan ezpadau, edo sagar, gastaña, edo beste edoceimbere gauzarena. Onetan beguiratu biar da ce oitura, edo costumbre daguan errijetan, eta ce gauzac paguetan daben amarrena, eta cec paguetan eztaben. Bigarrenengo: eguiten dau pecatu artu daben baño guichijago emoten dabenac. Irugarrenengo: charrena emoten dabenac. Esateraco: larrinondocua, lastoz, edo lurrez beterico arto, edo garija; bildotzie, edo aumaric erquin, caden, edo argalena. Sagarran barriz, chachar, edo chiquinena, generoric charrena, dagoquijon beste emon arren bere. Esan gura dot; daucazuz eun zaran sagar, berrogueta amar genero ederrecuac, eta berrogueta

lamar ez ain onecuac, edo venturaz chacharraguac; bada eztozu beteten aguindu, edo mandamentu au, amar zaran genero ez ain oneco, edo charrecuac amarrenari emonagaz; emon biar dozuz bost onecuac, eta bost ez ain onecuac: bardin beste edoceimbere gauzatan. Aguinduten badau bere Elexiac primicijac paguetia, eztau inos icentadu, ce gauza, edo cembat, ez ce modutan pagada biar dan, eta alan onen ganian gorde biar da erri baco-chian daguan oitura, edo costumbria. Bardin dinot frutu batzuc paguetian, eta beste batzuc ez paguetian.

Amarren primicijac Jaungoicuari berari emoten jacaz, nai Abade, edo Sacerdote, edo beste Elexguizonac artu daijezala, nai Elexa, altara, edo beste tresna, apaingarri, edo ornamentubac eguiteco izan deitezala, nai Patroe, edo besteren batzui emon daquijuezala; bada modu onetan errepartetan badira amarrenac, Elexa Ama Santubaren aguinduz eguiten da, eta zubei eztagoquizube jaquitia ondo, edo dongaro eguinic badago; biar dan moduban gastetan badira ala ez: zubenat asco da jaquitia Elexa Santubac alan aguindu dabela, berari ez escurric arceco, eta ciatz, eta biar dan moduban zor dozubezan Amarren primicijac paguetaco. Jaquin eguizube bada au ezta la beste gauzaric, ezpada Jaunari berac ngari emoten deutzunetic puscachu bat biartutia, onetan adi erasoteco, sinistu, eta confesetan dozubela, beriac diriala daucaguzan gauza gustijac; beragandic datorcuzala, eta bera baga ecin ecer euqui guinajala. Alainche cirautzen anchinaco leguan: Gauza gustijen Amarren primicijac emongo deütazubez, bada gustijac dira neuriac. (1)

*Erasoguimza.*

Eztago cerura elduteco beste moduric, gueure ara-

(1) Levit. cap. 27 v. 30.

guija ecitia baño. Onen gurarijac aspiratuten eztituzanac eztauca ce icharon Jaungoicua arpeguiz arpequi icustia. Auxe nai leuque Elexa Ama Santubac eguin daijen bere semiac, aguiduten deutzenian baru eguin daijela. Baña cembat achaujiya villatuten ez ete dira aguidu au ez jaoteco? Batzuc ozta ozta eguiten dabe legua bat, edo bateterdi, uste dabe eztaquela cer eguin baruric. Beste batzuc buruco min pusca bat dauqueneco, austen dabe baruba. Ascoc eta ascoc jan ala jan arren, ase ase eguiten ezpada, edo gueijago jan al leijela gueratuten bada, uste dabe baru eguiten dabeela. Sarri eta sarri naico beste lo eguiten ezpada, bertatic isten da baruba. Ascoc nequezale izan ezquero, edo baserrico modura vicibadira, eurac biarric eguin ez arren, eztabe baruric eguiten: Crijadu, eta otzein ascoc ez euqui arren echeco arazubac, edo echecereguinac baño, eztabe baruric eguin gura. Batzuc eztaque pecatutzat coipe gauria arrain eguian jatia, orijo orde arrainagaz beragaz bada bere. Beste batzuc uste dabe eztaala pecatu puscaca puscaca jatia; dinuela, pusca onec ezta baruba austen, ezta beste pusca onec bere. Baña onec gustijoc eztira bide bagaco achaujiyac baño. Beti beti dado Jaungoicua aguiduten baru eguin daigula, berac icentadurico egunetan. Anchinaco leguian eucazan icentaduric baru egunac. Igarla, edo Profetac ez bacarric esanez, edo verbaz, baita euren eguite, eta ejemplubagaz bere iracatzi euzcuben baru eguiten. Moyses berrogei eguneco barubagaz guertu, edo prestatu zan leguia artuteco. Elias beste aibeste eguneco barubagaz disponidu zan Jaungoicua icusteco.

Baña ichiric beste gustijac, icusi daigun celan santutu euan baruba Jaungoicuaren semiac. Bere Jaungoicutasama mundubari adi erasoco eutzanian, bastertu, edo cr-

retiretan da basamortu icaragarri batera, eta dago bertan berrogei egun osuan ecerbere ecerbere jan, eta edan baga. Christinauben lotzarija benetan! Jaungoico benetaco, ceru luurreco, Aingueru, guizon, abere, chori, eta arrainai jaten emoten deutzena dago berrogei egunian ogui copau, eta beste ganzaric bere auan sartu baga, ez bere araguija eci biarric eucalaco, ez peccaturic eucalaco, ez bere Aita beticua aserraturic eucalaco, ezpada guizonen bitarteco eguinic, euren peccatuben zorrae bere ganian artu citubalaco; eta guizon peccatuz betia, aragui eci bagaz inguiraturic daguana, Jaungoicua aserraturic daucana, dago atzera baru eguiteco, dabil al daizan achaquijen billa, ez jaoteco? Peccaturic eztaucana, eta euqui bere ecin leijana, dago araguija eciten eci biar baga, eta peccatuz beteric daguana dago bere arerijo araguijari, nai daberen janari gustija emoten? Ce bildur izan leitequezan onelacuac, jazo eztaquijen San Paulo Apostolubac dinuana. (1) Asco dagoz Jesu Christoren curutzian arerijo dirianac, eta euren sabela Jaungoicotzat dauquenac; baña onen amaija zoriguestocua izango da, eta euren glorijs lotzari biurtuco jaque. Onelaco gach negargarrizcorie jazo eztaquizuben, eci eguizubez ceuben gorputz, edo araguijac baru bagaz, eta ecin dabena eguin beguiz beste al daizan obra onac; opa, edo ofrecidu beguijox Jaunari bere neque, eta lanac; paciencijatan eruan beguiz jazoten jacazan gachac, artuten dituzala Jaunaren escutic etorrijac leguez. Baña baruric onen onena da peccaturic ez eguitia, bere pelleburu gustijetatic igues eguitia; bada alperrie gorputzari quenduco jaca janarija, vorondatiari ucatuten ezpajaca peccaturaco gurarija. Baru au eguiten badozu, zabal euquico dozu ceruraco bidia. Amen.

(1) Philip. c. 3 v. 18.

CHRISTINAUBAREN ICASBIDE,

EDO DOCTRINIAREN LAUGARREN ZATIYA.

cein dan

*Cer escatuco daben, edo ce oracinoe eguingo daben.*

*L. VERBALDIYA.*

*Aita guriaren ganian.*

Christinau batec jaquin biar daben laugarren gaucia da, cer oracinoe eguin, edo cer escatuco daben. Au jaquingo dau jaquinic Aita guria, Ave Mariya, eta beste Elexaco oracinoiac. Ain da argala guizona, ain ichuba, ain ezetaracoeza Jaungoicua baga, ce eztaqui ez cer, ez celan escatu, dino San Paulo Apostolubac. (1) Ezaguturic eguija au Apostolubac esan eutzeen euren Maesubari: Jauna iracatzi beguigu oracinoe eguiten; eta ontasun, eta biguntasunez beterico Jaunac eranzun eutzen: ara bada; modu onetan ceuben oracinoe, edo escabidia eguin eiquezube: Aita guria, cerubetan zagozana, santutu, edo santificadu bedi zure izena, betor gugana zure erreinuba, eguin bedi zure vorondatia celan ceruban alan lurrian: egunian eguniango gueure oguija egun iguzu; parcatu eiguezuz gueure zorrac, gueuc gueure zordunai parcatuten deutzeguzana leguez; ez eiguzu ichi jausten tentacinoian; baña libradu gaizuz gachetic Amen. Verba oneetan iracatzi euzcun Jaungoicuaren semiac, ez bacarric nori escatu biar deutzagun, cer escatu biar dogun, eta celan escatu biar dogun, ezpada ifini bere cituzan gure auan verbac eurac, ceinzucaz escatuco guenduban. Orregaitic ez-

(1) Rom. 8 v. 26.

tago ceruban, ez Iaurrian escabide oberic berau baño, iru guiza gaitic.

Lenengo: Jesu Christoc berac bere aotic iracatzi evalaco. Ez, ezta oracinoe au Aitalenen, edo Patriarcaren batec iracatzija, ez Igarla, edo Profetaren batec compondaba, ez Aingueruben batec cerutic ecarrija, Jaungoicnac berac bere ao bedeincatutic iracatzija da. Bigarren-go: bere laburtasuna gaitic; bada guizon atzeratuben, eta sensun guichijenecuenac icasi leique buruz, eta eztauca sorric sorrenac achaquijaric buruz ez jaquiteco, gustiz dalaco erraz verba guichi onec icastia. Irugarren-go: bertan escatuten jacolaco Jaungoicuari, escatu al leijon gustija; bada bere zaspic escari, eta peticinoietan zarratuten da caridade gustija, alan Jaungoicuaganaco, ceinda proximuan ganaco. Lenengo irurac dagoquijoz Jaungoicuaren honriari, eta beste laurac proximuan amodijo, eta provechubari, eta agundu bi onetan zarraturen diriana leguez legue, eta Igarlac agunduten deuzcuben gustija, alainche Aita gurian escatuten dogu, legue, eta Profetac escatuteco agunduten deuzcuben gustija. Izanic bada oracinoe au ain miragari, ain ceruco, ain Jaungoicozcua, gustiz da biarra jaquitia cer escatuten dan escabide, edo peticinoe baco-chian, eta cer esan gura dan verba baco-chian; bada dancazan gustijetatic eztago bat bacarric bere utsian. Auxe da urrengo verbaldi, edo platiquetan azaldu, edo explicadu nai neuzquezena.

*Aita guria cerubetan zagozana.*

Escari, edo peticinoiac eguiten abijau baño lenago agunduten deuzcu Jesu Christoc, esan daigula: *Aita guria, cerubetan zagozana*, ereguiric gueure vijotza Jaungoicuagana, uste, edo confianza oso oso, eta humiltasunardi bategaz berari eguin deioguzan gueure escari-



jac. Benetan cec obeto sendatu leique gure uste, edo confiancia jaquitia baño gueure Aita dala gueure escariya emon biar deuzcuna? Nogana juan guinaitequez uste betiaguagaz gueure Aita maite, lastan gaituzanagana baño? Orregaitic aguindu euzcun Salvaguiac dei eguin deijogula ao betian Aita. Gueijago eta gueijago aci dedin zuben ichoromen, edo confiancia oracinoe au esatera zuazanian, beguira ce errazoe andijagaz dei eguiten deutzagun Aita. Lenengo: berac emon deuzcu izatia bere anz, edo irudira. Guizon bat bada beste baten aita izatia emon eutzalaco, combat eta errazoe andijagaz izango ezta gure Aita Jaungoicua? Guizon batec ecin emon leijo beste bati gorputza baño; baña Jaungoicua emon deuzcu gorputza, eta arimia. Orregaitic Jaungoicua obeto da gure Aita, izatia emon deuzcuben gurasuac baño. Bigarrenengo: da gure Aita gugaz daucan arduria gaitic. Berac zainduten dau gure vicitzia, berac emoten deuzcu janariya, jastecua, osasuna, vici lecuba, eta beste biar dogun gustiya, ain moduran ce eztaucagu, eta ecin euqui bere guinaique bere escubetatic eztatorquingun gauzaric. Irugarrenengo: da Aita berac erosi guenduzalaco bere odolagaz. Emenche bal ezagututen dala ce Aita maite, Aita erruquior, edo misericordiosu, ce on, ce biguna dan. Ondo eta ondo ezagututen da gure Aita dana, izatia emotian; ondo eta ondo ezagututen da gure ardura euquitian; baña ez ain ondo inun, cein da gu pecatupetic bere erijotza, eta odolagaz ateratian baño. Emenche, emenche inun baño obeto ezagututen da, ce Aita benetacua dan, eta ce errazua andijagaz dei eguin biar deutzagun Aita,

*Guria.*

Eztirauzeu Jesu Christoc esan daigula Aita neuria,

ezpada Aita guenria, adi erasoteco sinistu, eta confesetan dogula, gustijoc gariala Aita baten semiac, eta bata bestien anaijiac; eta alan Christinau gustijoc gara bardinac jaijotza onetan, andijac, eta chiquinac, guizonic erreguijenac, eta pobrechuric pobrienac, Erregueric alsu, edo poderosuenac, eta esquian dabilzanac. Alainche dirauzcu Jesu Christoc. (1) Zubec gustijoc anaijiac zare, eta eztaucazube Aita bat baño, cein dan ceruban daguana. Baña cer dinot? Ez bacarric mundu onetaco Lenen, edo Principe, Aguintari, eta Erreguiac dira gure anaije; baña Jesu Christo gure Jauna daucagu gueure anaije nagusi; eta alan dino San Paulo Apostolubac: (2) Eztala lotzaturten Jaungoicuaren semia guri bere anaije dei eguiten. Izanic bada gu gustijoc anaijiac, maitetu, edo amadu biar dogu alcar ceruco Aita baten seme leguez. Dinogu bere, Aita guria, adi erasoteco eztozula gneuretzat bacarric eguiten oracinoe au, ezpada gustijenzat, eta gustijenzat nai dituguzala emen escatuten dirian ondasun, eta mesediac. Au iracatzijagaz estutu nai gaituz Salvaguiliac Christinau, eta guizon gustijoc alcarganaco amodijo, eta carcladian.

*Cerubetan zagozana.*

Lecu gustijetan dago gure Jaungoicua; berac beteten dituz ceru luurrac, eta alan estago bera eztaguan lecuric; alambere dinogu cerubetan zagozana, curetan ezagututen dalaco inun baño obeto bere anditasun neurri baguia, bere escubide alsu, edo poderosua, bere jaquituri miragarrija, eta bere onoidade beste gustijac. Orregaitic dinogu Jaungoicua lecu gustijetan badago bere gustiz, edo especialmente, edo berezco moduban daguala ceruban, eta Altaraco Sacramentuban. Dinogu bere cerubetan za-

(1) Math. 23 v. 8 (2) Hebr. 11 v. 15.

gozana, gomuta daigun nundic gatozan; ceruco Erregue gandic jaijuac gara, bere odola daucagu, eta casta erriala gara; eta orregaitic lotza izan biar gara infernuco urdequerija, eta pecatuben ciquinquerija vilauben artian ibilten. Dinogu bere cerubetan zagozana, ezaguturic verba eguiten guazan Jaunaren anditasun pare baguia, eldu gaitazan humiltasunic beeren, edo andijenagaz. Orra celan verba onen bitartez viztuten dan gure uste, edo confiancia, eta gueitu, edo aciten dan gure humiltasuna. Esanic Aita, artuten dogu seme batec bere Aita maitiagan cuqui al leijan usteric oso, eta betiena; eta esanic cerubetan zagozana, beteten gaituz bere anditasun pare baguiac humiltasunez. Aita gurien sarrera onetan ezagututen dogu, bera dinogunian Jaungoicuagaz berberagaz gagozala verbaz, berari arteztu, edo dirigietan deutzaguzala gueure escari, edo peticinoiac, eta beragandic icharoten dogula escatuten doguna.

*Santutu, edo santificadu bedi zure izena.*

Guertu, edo prestadu ezquero gueure vijotza escabide, edo oracinoeraco, lenengo eguiten dogun escari, edo peticinoia da, *santutu, edo santificadu bedi zure izena.* Errazoe andijagaz asiten gara oracinoe eguiten emetic; bada lenengo billatu biar doguna gauza gustijetan da Jaungoicuaren honra, eta alabancia. Dinogunian santificadu bedi zure izena, eztogu escatuten Jaungoicua dan baño santubago izan deila, edo bere izenaren santutasuna aci, edo gueitu deila; bada ecin inundic bere dan, edo izan dan baño santubago izan leiteque gure Jaungoicua; bada beti izan da neurri baga, asquen baga, eta cabu baguia bere santidadia. Escatuten doguna da, mundu onetaco guizon gustijac ezagutu, eta cuqui daijela Jauna euren Jaungoicotzat; honradu, eta alabadu daijela bere izen

santuba, ez hacarric mijnagaz, ezpada obracaz, edo vici-  
tza santu bategaz bere. Escabide au eguinagaz erregututen  
deutzagu; lenengo: Gentil gustijac ecarri daizala bera eza-  
gututera, arturic bateo, edo bautismua sartu deitezan  
Elexa Santuban, eta izanic bere seme benetaco, alabadu  
daijen bere izen santuba mijnagaz, eta honradu euren vi-  
citziaz. Bigarreno: idigni deijuezala heregiai euren ari-  
maco beguijac, ezagutu dagnijezan euren utsune, edo si-  
nisquera oquerrac, eta biurturic euren Ama Elexara, ala-  
badu deijela bere izen santuba. Irugarreno: eztaij la pe-  
catarijac blasfemadu Jaunaren izen beneragarrija, ez ha-  
carric euren juramentu, eta birauacaz, baña ezta euren  
pecatu, eta vici modu charragaz. Ecarri dagnizala one-  
taraco penitencijaco bidera, garbituric euren arimac be-  
deincatu, alabadu, eta honradu dagnijeen bere izen san-  
tuba, alan verbaz, cein da eguitade, edo obrac. Lau-  
garreno: santubago eguin daizala santubac, obiago onac,  
artezago, edo justubago artez, edo justubac, obeto, eta  
gueijago santutu, edo santificaduba izan dedin euretan  
on gustijen emoilia. Verba baten: escabide onetan erre-  
gututen deutzagu Jaungoicuari munduco guizon gustijac,  
on, eta santubac izan deitezala, gustijac santificadu dai-  
jen esate, eta eguitiacaz bere izena.

*Betor gugana zure erreinuba.*

Bigarren escari, edo peticinoia da; *betor gugana zure  
erreinuba*. Ezagututeco cer erregututen deutzagun Jauna-  
ri, jaquin biar dogu iru modutan aitu leitequiala Jaun-  
goicuaren erreinuba: bata da naturalezacua, au da, ceru  
luur, eta euretan dagozan gauza gustijac; bigarrena gra-  
cijacua, eta irugarrena glorijacua. Escabide onetan ezteut-  
zagu Jaunari erregututen emon, edo bialdu deigula le-  
nengua; bada au munduba eguin zanetic beti dago, eta

irauten dau, eta bacarric escatuten deutzaguz bigarren, eta irugarrena. Lenengo bada: dirautzagunian betor gugana zure erreinuba, escatuten deutzagu bialdu deigula bere gracia gure arimatara; modu onetan erreinadu daguijan gure arimetan. Gauza jaquina da, graciajan daguan arimia Jaungoicuaren vici, eta jar lecuba dana, bera dauca erreguetzat, bera jauntzat, bera aguintaritzat. Orregaitic dirautzagunian betor gugana zure erreinuba erregututen deutzaguna da, datorrela bera gure arimara, agiundu daijala bertan, erregue batec bere erreinuban leguez, eruan gagiuzala bide artecetatic, eta izan deila graciajanen birartez gure arimia bere erreinuba. Bigarren: emen escatuten deutzaguna da ceruco erreinuba, edo gloria, nun agiundu, edo erreinetan dabeen Santubac Jesu-Christogaz batera. Erreinu auxe da gueure gogo gustijagaz nai izan biar doguna, auxe gauza gustijac baño lenago villatu biar doguna, eta ceingaitic galdu biar dituguzan mundu onetaco gauza gustijac. Au escatubagaz erregututen deutzagu banatu, edo deseguin daijala demoninuaren erreinuba, cein dan pecatuba, agiundu eztaijan, ez gure vijotzian, ez gure gorputzian, eta quendu daguiguzala bere erreinura juateco arerijuac ifinten dituzan estropezu gustijac.

*Eguin bedi zure vorondatia, celan ceruban, alan hurrian.*

Irugarren escabide, edo peticinoia da, *eguin bedi zure vorondatia, celan ceruban, alan hurrian.* Erregatu ezquero Jaunari bigarren escari, edo peticinoian emon deigula ceruco erreinuba, irugarren onetan escatuten deutzagu erreinu onetara elduteco biar doguna; bada nai badogu eldu cerura, zaindu biar dituguz legueco agiundubac, eta onexec jaotia da Jaungoicuaren vorondatia eguitia. Escatutia bada eguin deila bere vorondatia, da or-

regututia emon deigula bere gracia, berac bere leguiari aguindurico mandamentubac gordetaco. Ain da biarra, ain preminazcua escabide au eguitia, ce ecin inundic bere eguin guinaique Jaunaren naija, edo vorondatia, berac emoten ezpadeuzcu bere laguntasuna, era gracia. Ain gara argalac, ain ecetaracoezac, ce dino San Paulo Apostolubac, ez gariala duin gueurez pensamentu onchu bat bere cuquiteco, eta gure duintasun gustija Jaungoicuagandic datorquigula. (1) Ecin inos Jesus bere esan leique biar dan moduban, Jaunaren gracia baga, dino Apostolubac berac. Orregaitic, beti beti egozan Santubac escari, edo peticinoe au eguiten Jaunari. Batzubetan eirautzen iracatzi eijuela bere vorondatia eguiten; beste batzubetan eruan eguizala bere vorondateco bidetic; orain, idigui eijuezala arimaco beguijac ezagututeco berac cer nai evan; eta guero adi eraso eijuela bere vorondatia.

Dinogunian, celan ceruban, alan luurrian: escatuten deutzagu Jaunari emon deigula gracia luurrian gagozanoi, eguiteco bere vorondate, edo aguinduba ceruban dagozan santu, eta Ainguerubac eguiten daben poz, vicitasun, eta gogo onagaz. Baita bere erregututen deutzagu, cerutar arec ecin alderatu, edo apartadu al leitequezana leguez bere vorondatetic, ecin ecer eguin leiquiena leguez bere aguindubaren contra, alainche gu bere ez gaitetzala inos juan bere vorondatiaren contra. Dempora gustijetan cuqui biar dogu ao, eta vijotzian escabide au; beti beti esan biar deutzagu Jaunari: *Eguin bedi zure vorondatia*; baña araco gach, neque, lan, eta atzacabez inguiraturic gagozarian da, nos sarrijago, eta vijotz barrubagotic esan biar dogun: onetaraco beguiratu daigun nundic datorquiguzan gachac, eta gurata gura ez confe-

(1) 2 Cor. cap. 3 v. 5.

saduco dogu eztaguala bat bacarric Jaungoicua ren vorondatetic eztatotrenic. Datorrela demoninuagandic, datorrela gueure arerijuacgandic, datorrela gorrotoric andijena deuzcubenacgandic, beti beti dator Jaungoicuagandic. Eztago bere escubeetatic eztorren gachic. Auxe da beguiratu biar doguna, eta esan Jaunari: *Eguin bedi zure vorondatia*. Sicate, euri, edo izotzac galcen badituz laboriac, esan deijogun Jaunari: *Eguin bedi zure vorondatia*. Gach, edo enfermedadiac bagaucaz oe baten, esan deijogun Jaunari: *Eguin bedi zure vorondatia*. Pobreciac, estura, edo premina andijan isinten bagaituz, esan deijogun: *Eguin bedi zure vorondatia*. Guizonac deuzcuben gorrotuac, edo vorondate oquerrac quenduten badeuzcu daucaguna, zauritu, eta gachez beteten bagaitu, esan deijogun Jaunari: *Eguin bedi zure vorondatia*. Au eguiten badogu biar dan humiltasun, eta devocinoiagaz, icusico dozube celan poztuco gaituzan gach, eta lanic andijenen erdijan; bada ezagutuco dogu Jaunac deuzcun amodiotic datozaala gustijoc.

*Erasoguinza.*

Lenengo iru escabide oneetan escatuten doguna da, guizonac honradu daijela Jaungoicua; baña ez gara verbetan bacarric gueratu biar. Nai badogu benetan, bete dedin lenengo escabide, edo peticinoia, santutu, edo santificadu daigun Jauna gueure vici modu onagaz. Jesu Christoc dirauzcu bacochari: Argui eguin begui zuben vici modu onac, icusiric guizonac zuben obra onac, be deincatu, eta alabadu daijen ceruban daguan zuben Aita. Bestelan, celan esan cinaique santificadu bedi zure ize na, ceubec deshonetan badozube ceuben vici modu charragaz, ceuben pecatubaçaz, ceuben ecandu citalacaz? Errazoe andijagaz esan leiquezube: zubeçgaitic blasfemetan

da Jaungoicuaren izen santuba. Badaquizube celan? Eze-  
 quiel Igarla, edo Profetiac dirautzabe: Icusitic gentil, eta  
 heregiac Christinauben vici moduba, ain diriala loijac,  
 ain lapurrac, ain irritubac, cein da eurac, edo venturaz  
 gueijago, ecin sinistu dabe Jaungoicuac aguindurico le-  
 guia, obia dana eurena baño, edo gure erliginoe, gure si-  
 nisquera, eta Elexa santubac iracasten dabena artezago  
 dana eurac dauquena baño. (1) Moduric onena bada esa-  
 teco Jaunari, santificadu bedi zure izena, da baco hac  
 santututia bere vicitza onagaz. Bestelan, judegubai baño  
 errazoe obiagaz esango deuzcu Jaungoicuac: Oneec mijna-  
 gaz alabetan nave; baña euren vijotza urrin dago niganic.  
 Bigarren escabidia biar dan moduban eguiteco gueure  
 aldetic, artu biar ditugu erreinu au irabasteco modubac.  
 Eztaigun uste esanagaz Jaunari: betor gugana zure er-  
 reinuba, eta alperric egon, eta nai dogun moduban vici  
 izanagaz emongo jacula. Ecin erreinu atan sartu guinai-  
 tequez; lan, neque, negar, cispuru, eta gachen bide gar-  
 ratzetic baño. Jesu Christoc iracatzi euzcun eguija au,  
 ez bacarric aoz, edo verbaz, baita bere eguitade, edo  
 obracaz. Berac viztu gura izan guenduzan bere ejemplu-  
 bagaz vide onctatic ibiltera. Izanic glorijaco Jaun, ceru-  
 baren jauve, eta Jaungoicuaren seme, bera juan zan gure  
 aurretic. Irago evan pasinoeric gogorrena, eta erijotzaric  
 crubelena bere Aitareu glorijara elduteco. Bada conve-  
 ni bazan erru бага, pecatu бага, eta berez santu, eta ar-  
 tez, edo justuba onelaco bide astunetic iragotia, cer uste  
 dogu guc pecatari errucarri, eta autz pusca bat baño ez  
 garianoc? Neure Christinaubac, ecin Christogaz batera  
 egon leiteque ceruban, bera ibili zan bidetic eztabilena  
 munduban. Alperric villatuco dozu curutziaren baño

(1) Eccl. cap. 36. v. 20.



besteric ceruco erreinura elduteco, eztozu aurquituco; beste gustijac infernuracuac dira, araxe duaz.

Astun eguiten bajacu vide onetatic ibiltia, eguin daigun biar doguna leguez irugarren escari, edo peticinoia, eta gustiz gozo eguingo jacu. Ain da andija Jaunac deuzcun amodijua, ce icusiric ez gariala vorondatez sartu gura bide onctatic, indarrez eruan nai gaituz, eta bialduten deuscuz gueure vorondatez artu gura eztituguzan nequiac. Bai Christinaubac, sinistu eguidazube, auxe da Jaunaren vorondatia lan, eta naibaguiac bialduten dituzanian. Ezteuzcuz onec bialduten gorroto deuzculaco, ez ecin icusi gaituzalaco. Gugaz daucan arduriac, deuzcun amodijuac bialdu erasoten deutzaz. Vide oquerretic guaz, vide galdutic guaz; emoten deuzcuzan azote onecaz sartu gura gaituz ceruco erreinuraco bidian. Esan deijogun bada: *Eguin bedi zure vorondatia, celan ceruban, alan luurrian*, eta icusico dozube celan czaguturic ceruco Aitaren escuba dala joten zaituzan cigorra darabilena, ez bacarric ezteutzuben nequeric emongo, ezpada poz andi bategaz artuco dituzuzan Aita maitiac deutzun amodijuaren czaugarri, edo señaletzat, eta gustijac diriala bere asmubac gu cruateco cerura Amen.

## LI. VERBALDIJA.

*Asquenengo lau escari, edo peticinoien explicacinoia.*

**L**augarren escabide, edo peticinoian dinogu: *Egunian eguniango gueure oguija egun iguzu*, edo *gaur emon eigu-zu*. Vicitza bi daucaz guizonac; bata gorputzecua, bestia arimacua. Ez barac, ez bestiac iraun leije janari baga, eta au ecin cuquiric guizonac ceruco Aitac emoten ezpa-

deutza, orregaitic escatuten deutzagü. Jaquin daguizabence janari dan emen escatuten doguna, azaldu, edo explicaduco dot, lenengo, cer dan gorputzarenzat escatuten dan oguija, eta guero arimarenzat nai doguna. Lenengo: escatuten dogu oguija gorputzarenzat. Oguijaren izenian aituten da vicitzia iragoteco biar dogun gustija, artua, arraina, oquelia, eta frutia, nai beste edocimbere janari, eta edari. Aituten bere da erropa, edo soñccua, vici lecuba, edo echia, eta beste vicitico biar dogun gustija. Baña beguira cer dinogun; *egunian eguniangua*; esangura dau, eguna, edo vicitzia iragoteco biar doguna, eta alan peticinoe onetan ezteutzaguz escatuten Jaunari janari gozo, ez erregalubac, ez edari, edo ardao ugarijac, curacaz aseteco, ez erropa urte, cirar, sedasco balijosuac, eta ederrac, ez Jauregui, edo Palacijo zabal, eta ederto apaindubac, ez diru, eta ondasunac; bada onec baga vici leiteque, edo irago leiteque vicitzia; bacarric escatuten deutzagü vicitico biar doguna. Onexegaz duin dauca Christinaubac. Euquiric cer jan, eta cegaz estaldu araguijac, eztogu beneric gura, cinuan San Paulo Apostolubac. (1)

Dei eguiten deutzagü ogui oni gueuria: au da ondo irabacija, eta modu onian etorrija, ez lapurretan ostuba, ez tratü oquerracaz irabacija, edo beste bide char, edo oquerretic artuba; bada modu onetan daucaguna eztaguria, ezpada inoena; eta alan Jannari escatuten deutzagun oguija da, edo gueuc gueure lan, neque, eta icerdijagaz irabacija, edo norbaitec emona, edo gueure gurasuacgandic etorrija. Dinogu gaur emon eguigazu. Gaur dinogunian aitu guinaique mundu onetan vicico garian dempora gustija; esango baguendu leguez; ezteigula uca-

(1) 1 ad Thim. c. 6 v. 8.

tu mundu onetan gagozan artian vicicaija, edo viciteco biar dogana; bada ceruban eztago onen biarric. Aitu bere guinaique gaur dinogunian, emon daigula Jaunac gaur biar dogona, bijarcuen arduraric artu baga, edo bildurric euqui baga bijar euquico dogun ala ez; bada eztaquigu bijarrera elduco garian. Etzacu emen galazoten gutoraco biar doguna gordetia, edo batutia nai dala modonian irabacijagaz, nai dala soluan batuten dana gordiagaz gueuretzat, edo gueurienzat. Jesu Christoc berac gorde oijeban emparetan jacona onguiliac emoten eutzene-tic. Eragotziten jacuna da, ondasunen ardura larreguija, eta ondasunac batuteco arrastaca ibiltia, Jaungoicuac ez-paleuca leguez beste moduric emoteco guri biar doguna. Biarra eguin begui bacochoac biar daben janari, eta jastecua irabasteco; baña izan bedi arimia astu baga, eta gorputzac biar dabena batzeco bera galdu baga.

Peticinoe onetan escatuten deutzagu Jaunari arimaco janari, edo oguija bere. Iru gauza aitu guinaiquez oguijaren izenian, eta irurac escatuten deutzaguz Jaunari verba onectan. Lenengo: sermoia, edo Jaungoicuaren verbia: au da, eztaquigula falta noc iracatzi deigun doctrina christinauba, eta cer eguin biar dogun; bada onixe dei eguiten deutza Jesu Christoc Jaungoicuaren, edo Jaungoicuac emonico oguija. Bigarren-go: bere gracia, eta laguntasuna; bada gorputzac ecia vicitzaric euqui leiquiana leguez janari baga, alainche gure arimiac bere ecin vicitzaric euqui leique bere gracia baga, eta au faltaco bali-jaco, bertatic ilgo litzateque. Irugarren-go: oguijen izenian aituten dira Sacramentubac; bada janari baga ecin jaijo, aci, eta iraun guinaiquiiana leguez; alainche gure arimia bere Jaungoicozco izatian ecin jaijo, aci, eta iraun leique Sacramentu baga. Baña Sacramentu gustijen ar-

tian ceini dei eguiten jacan bestiai baño obeto, da Altaraco Sacramentuba; bada Jesu Christo gure Jaunac dirauzcu; bera dala Sacramentu onetan cerutic jatzirico oguija, bera dala benetaco janarija, berac emoten dabela betico vicitzia. Iru arimaco janari onexec escatuten deutzaguz Jaungoicuari, dirautzagunian: *Egunian eguniango gueure oguija gaur emon eiguzu.*

*Parcatu eiguzuz gueure zorrac, gueuc gueure zordunai parcatuten deutzegubezana leguez.*

Bostgarren escari, edo peticinoia da: *parcatu eguiguzuz gueure zorrac, gueuc gueure zordunai parcatuten deutzegubezana leguez.* Emen escatuten deutzagu Jaunari parcatu deiguzala gueure pecatu gustijac, alan mortalac, ceinda venialac; bada onexec aituten doguz zorren izenian. Cegaitice pecatu eguiten dogun bacochoian, arcen dogu gueure ganian zor bat, cein pagadu biarco deutzagun Jaunari, mundu onetan penitencija, eta obra onacaz, edo bestian, mortalac badira infernucos u icaragarrijetan, eta venialac badira Purgatorijuan. Erregututen deutzagu bada Jaungoicuari lenengo: parcatu deigala pecatuba bera, eta irago gaguizala bere arerijo bagara bere adisquide izatera, eta guero parcatu deiguzala pecatu onecc gaitic merce izan dogun castigu, edo zorra. Baña nai badogu enzun daguijan Jaunac gure escabide au, eta parcatu deiguzan gueure pecatuben zorrac, eguin biar dogu bera aserratu dogulaco damubagaz; bada bestelan eztau Jaungoicuac enzungo gure oracinoia, edo obeto esateco, pecatuben parcacinoia escatu, eta curetan irauteco ustia-gaz, edo eurac isteco vorondateric ez enquitia, oracinoe baño gueijago da, Jaungoicua tentadu, eta berari burla eguitia.

Begaira cer dinozuben escari onetan: *Guene gneure zordunai parcatuten deutzegubezana leguez.* Gura dozu parcatu deizuzan Jaungoicuac ceure pecatubac? Parcatu eijezu ceuc bere ceuri gach eguin deutzuben gustijai; bes-telan eztau Jannac enzungo zure escari au. Jesu Christoc dino: (1) Nai dozube Aita cerucuac parcatu deizube-zan deutzazubezan zorrac? Parcatu eguijzube ceubec bere zor deutzubenai; bada ceubec parcatuten ezpadentzazubez ceuben zordunai, ezteutzubez zubei parcatuco Aita cerucuac. Auxe berau dinozube ceubec bere, ceuben arerijai parcatu baga, eta parcatu bere gura baga, Aita guria errecetan dozubenian; bada esatia parcatu eguigu-zu guene parcatuten doguna leguez, da escatutia ceubec ceuben zordunai parcatuten badeutzezube, parcatu deizubezal ceuben zorrac; eta ceubec parcatuten ezpadozubez ezteizubezal parcatu: auxe da ceubec parcatuten dozubezana leguez parcatutia. Ay neure Christinauba, ce bildur izan cinaitequezan ceure proximuaganaco gorrotuagaz esaten badozu Aita guria, ceure contra biurtu eztedin zure escarija, jazoten jatzula David erregueren biraua: pecatu biurtu daquijola bere oracinoia? (2) Ceuc ceure buruba condenetan dozu. Alambere esan beguije gorrotuan dagozanac bere Aita guria, bigundu deijuen Jaunac emren vijotza parcatuteco gach eguin deutzenai. Zorren izenian ezta emen aituten norbaitec zor deuzcun diru, ondasun, edo beste gauzaren bat, eztana leguez aituten beste Evangelijoco lecu ascotan; bada etzacu inos aguinduten zor oneec parcatutia, ezpada, edo eguin deuzcuben gacha, deuzcuben gorrotua, esan deuzcubezan verba astunac, edo euqui deuzcuben ecin icusi, eta aser-racuncia.

(1) Math. cap. 6 v. 15. (2) Ps. 908 v. 7.

*Ez eiguzu ichi jausten tentacinoian.*

Scigarren escabide, edo peticinoia da: *ez eiguzu ichi jausten tentacinoian*. Emen escatuten deutzagu Jaungoicuari, euqui gaizala sendo consentidu eztaiguzan demoinuac bialduten deuzcuzan pensamentu charrac, ceinzucaz jausi eraso nai deuzcun pecatuban. Guerra vici, eta gogor bat da guizonaren vicitza gustija luurraren ganiandino Job Santubac. (1) Dancaguz iru arerijo crubel, ceinzuc dirian demoninua, araguija, eta munduba. Ain modutan eguiten dabe iru arerijo oneec aleguina gu galceco, ce egunez, ez gabez, echian, ez campuan, mendijan, ez errijan, ezta Elexan bertan bere ichiten deuzcube baquian. Eztogu pausuchu bat emoten, eztogu cirquinchu bat eguiten tentacinoe artian baño; alde gustijetatic gagoz laquijoz inguiraturic. Ain dogu biar Jaungoicuaaren gracia, eta laguntasuna tentacinoe, edo laquijo onectan ez jausteco, ce bera baga ecin puntuchu baten bere egon guinaitez euretán jausi baga. Gracia auxe bada escatuten deutzagu Jaunari escari, edo peticinoe onetan, jaquinic argal, eta cadenac bagara bere, ecin arerijoric sendo, eta indarsubenac goitu, edo vencidu al guinaizala, berac lagunduten badeuzcu bere gracijagaz.

Ezteutzagu Jaunari escatuten ezteigula tentacinoeric euqui, ezteijuela ichi arerijuai gu tentetan; cegaitice on, eta provechu andijac datorquiguz tentacinoietatic. Lenengo: eurac esagutu erasoten deuzcube ce argalac, eta guichiracuac garian, ezauera onegaz humildu, eta becratu daigun gueure arroquerija, edo sobervija. Bigarren: tentacinoiac eguiten gaitu zur, eta arduratsu; bada icusiric celaco pelleburuban gagozan pecatuban jausteco, pelleburubac gaucáz iratzarri, eta arduratsubago. Irugarren:

(1) Job. c. 7 v. 4.

go: pelleburu, eta tentacinoe onec goitu, edo vencidu-  
bagaz irabasten dogu ceruba, noraco eztaguan bideric  
tentacinoien erditic baño. Laugarrengo: tentacinoian eza-  
gututen da nor dan, eta celacua dan bacocho: ona, san-  
tuba, eta Jaungoicuaren bildurtija obago, santubago, ar-  
guijago, eta garbijago eguiten da tentacinoian; eta char-  
rago, gvestuago, eta dongago eguiten bada peccatarija,  
ezta tentacinoiaren erruba, beria baño; bada escatu ba-  
leutza Jaunari bera aspiratuteco gracia, dudatzaca emon-  
go eutzan, eta ez bacarric etzan jausico tentacinoian; ba-  
ña irabacico cituzan mercedentu andijac. Escatu deijo-  
gun bada Jaunari, ez quendu deiguzala tentacinoiac, ez-  
pada emon deigula eurac goitu, edo vencietaco gracia.  
Baña ez gaitezcan gueratu oracinoian bacarric, eguin bere  
daigun aleguina pelleburu gustijetatic igues eguiteco, eta  
araguijaren gurarijac eciteco, eta icusico dogu celan aspi-  
ratuco dituguzan gueure arerijo gustijac.

*Baña libradu gaizuz gachetic.*

Zaspigarren, eta azquenengo escari, edo peticinoia  
da: *Gorde*, edo libradu gaizuz gachetic. Gach batzuc di-  
ra arimacuac, beste batzuc gorputzecuac. Nai batecuac,  
nai bestecuac dira gue neurto al guinaizan baño andija-  
guac. Arimacuac dira: Lenengua, eta andijena, eta gus-  
rijen sustraija da peccatuba. Bigarrengo: demoninua, nori  
dei eguiten jacan Escritura Sagraduban donguia, charra,  
gvestua, tentalarija, eta gachquina, norganic asi zan, eta  
datorren gach gustija. Irugarrengo; bertatico, edo uste  
uste baco crijotzia. Laugarrengo: Jaunaren aserracuncia,  
edo bere arerijo izatia: eta bostgarrengo, infernucos su,  
eta asquen bagaco ala, edo tormentubac. Onexec dira  
gach benetacuac, eta euretatic zaindu gaizala da lenen-  
go escatuten doguna. Beste gach batzuc dira gorputze-

cuac. Onec dira guexua, osasun faltia, ecachac, trumoia, luicaria, arraijuac, urolac, labore faltia, edo urritasuna, guerra, pobrecia, eta beste esan bere ecia leitequezanac. Gach gusti oncetatic jaon gaizala erregututen deutzagu Jaunari, alan arimacuetatic, cein da gorputzecuetatic. Baña eztoqu bardin escatu biar gorputzeco gachetatic, eta arimacuetatic libretia. Arimaco gachac beti dira gachac, eta beti dira gure calteraco: orregaitic beti escatu biar dogu euretatic urtetia, edo euretan ez jaustia. Barriz gorputzecuac, guc uste arren gachac, edo gure calteraco diriala, sarri eztira onac baño. Pobrecia, esateraco, uste guinaique gach, edo caltia dala, eta alambere izan leiteque gure oneraco: eta bestera, guc uste arren ondasunac onac diriala guretzat, jazo leiteque benetaco gacha izatia, eta calte andijac guri ecartia. Orregaitic biar dan moduban eguin nai badogu escari au, nai izan biar dogu Jaungoicuaque quendu deiguzala gorputzeco ondasun, osasun, zorion, poz, atzeguin, eta beste guc onzat daucaguzan gaurza gustijac, gute arima, eta bere saluaeinoiaren calteraco izango badira; bada orduban bene benetan gachac dira. Onetan uts eguin nai ezpadogu, escatu biar deutzaguna da libradu gaizala, ez bacarric guc gachac diriala uste dogunetatic, baita bere berac gachac diriala daquijenetatic, eta onelacuac badira guc zorionzat daucaguzanac, libradu gaizala euretatic bere.

*Amen.*

Verba onexegaz zarratu euan Jesu Christoc mirarizco oracinoe au. Orregaitic nai izan dau, alainche, eta aldatu baga gueratu dedin bere Elexan. Esan gura dau alan deila, edo alan izan deila: au da, Jaungoicuaque aurtortu, edo concedidu dagujala orain escatu jacan gustija, eta alan *Amen* esanagaz barristetan dituguz, edo barrira



eguiten dituguz zaspi escari, edo peticinoiac. Baita bere esan gura dau: Alainche da: au da, enzun dau Jaunac zure escabidia, eta autortu deutzu zure erreguba; guri adi erasoteco, leijala dala Jaungoicua bere isquini, edo promesetan, eta guc gueure aldetic eguiten badogu escabide, edo oracinoia, lenago faltaduco dabela cerubac, eta luurrac, berac ucatu deigun baño gure escabidia. Modu onetan aituten dau izen au S. Paulo Apostolubac. (1)

*Erasoguinsa.*

Orra, neure enzula maitiac, azalduric, edo ezplicateduric, laburrian baño ezpada bere, ceruban, eta luurrian aurquitu al leitequian escabide, edo oracinoeric miragarri, andi, eta oneena, jaquin daguizuben guchienez abasberuan, edo ilun abarrian, cer escatuten dozuben bera errecetan dozubenian; bada bertan zarraturic dagozan escabide gustijac arguitan ifintia ezta guizonenzat. Guc ascodogu jaquitia araco Jaungoico, anchina Igarla, edo Profeten bitartez verba eguin oijebanac berberac ecarri euzcula cerutic, berac iracatzi euzcula bere aoz, berac aguin du euzcula esaten, eta berac opa euzcula enzuna izango zala ceruban bertan, beragaz escatu guenguijana. Orregaitic egunian egunian, edo sarri egunian esan biar dogu *Aita guria*; bada beticua izanic gure biar, edo necesidadia, eta ecin euquiric gueurez, edo gueugaz cegaz bete, edo erremedijau; beti egon biar gara ezque biar doguna emon al, eta gura deuzcunari.

Baña esango deutzazube: egunian egunian, eta sarri egunian esaten dogu *Aita gutia*, eta gueure premina, eta esturetan esaten oi dogu; baño alambere ezteuzcu emoten Jaungoicuae escatuten deutzaguna. Badaquizu cegaitic? Gauza bi gaitic. Lenengo: eztozulaco esaten *Aita*

(1) 2 Cor. cap. 1 v. 20.

guria biar dozun moduban. Iñaten zara esaten, edo errecetan arrastaca, arin aringa, beguiratu baga, ez nogaz zagozan verbaz, ez cer dan escatuten dozuna, ez celan daucazun ceure arimia, bazagoz ala ez gustijori pecatuz atsitu, usteldu, eta Jaungoicuaren arerijo eguinic; eta orregaitic bere anditasun neutri baguiari zor deutzazun itzal, edo erreverencija baga; eta bera ceure humiltasun, eta bildur santubagaz gozatu biarrian, bere aurrera daruazuzala pecaturic icaragarrijenac bere justicija aserratuteco. Celan nai dozu enzun zaizan Jaun onec badaruazuz bere aurrera ceure escubac bere seme maitiaren odolez orbandu, edo manchaduric? Zelan nai dozu emon deizun escatuten deutzazuna badaruazu ceure vijotzian ceure pecatuben curutze lotzagarrijenian josiric bere seme bacar maitia, eta bazagoz berari burlaz? Eta pecatuban ezpazagoz bere, celaco oztasun, celaco epeltasun, eta celaco naguitasunagaz esan oi dozu Aita gurria? Gueijenetan ceure gogua beste lecutan dozula, ceuben arazu, cereguin, tratu, edo jolaz, eta olguretan. Orera cegaitic enzuten etzaituzan Jaungoicuac Aita gurria errecetan dozunian, dirautzu Santijago Apostolubac. (1) Escatuten dozube, eta eztozube arcen dongaro escatuten dozubelaco.

Bigarrenko: escatuten dozu, eta ezteutzu Jaungoicuac emoten conveni etzatzulaco escatuten dozun gaurcia, edo emongo baleutzu ceure gach, eta calteraco izango litzatequialaco. Nai badogu enzun daguizan Jaunac gure escarijac, eguin biar dituguz Jesu Christoren izenian, eta conveni ezpajacu escatuten doguna, eztogu escatuten Christoren izenian. Guexoric gagoz, escatuten deutzagu Jaunari osasuna; bada conveni ezpajacu pecatubetan ira-

(1) Jacob. cap. 4 v. 3.

go, edo emongo gueunquialaco, eztogu escatuten Christoren izenian; eta orregaitic ezteuzcu emoten Jaunac. Escatuten deutzazu il aguinian daucazun seme, edo alabiaren osasuna, etzazu conveni daquijalaco Jaungoicuac vicico balitz, bere, eta ceure condenagarri izango litzatequiala, eta ucatuten deutzu. Escatuten deutzazu atera zaguizala ceure pobreza, estura, edo preminatic, dacuz Jaungoicuac autortu, edo concedidaco baleutzu ceure escarija, galduco ceunquiala humiltasuna, beteco cinatequiala arroquerija, edo sobervijaz, eta condenaduco cinatequiala, eta etzaituz enzuten. Escatuten deutzazu emon deizula, edo ceuri, edo seme, edo aidiari lecu eregui, officio, edo empleo onen bat, ezteutzu emoten, daquijalaco emongo baleutzu zuri, zure seme, edo senidiari, galduco cinatequezalá, eta etzaituz enzuten. Sarri eta sarri jazo oi da guc úste izatia conveni jacula au, edo beste gauria, eta escatutia Jaunari; baña Jaunac ezaguturic gure gach, edo calteraco izango dala, ucatuten deuzcu. Orduban ucatutia bere erruqui, edo misericordija andija da, eta autortu, edo concedietan bañeuzcu daquijana gure gacheraco izango dala, bere justicija beragandic arteza, baña guc ecin ezagutu guinaijenetic dator.

Nai badoguz baña artu Aita gorian eguiten doguzan escarijac, esan daigun oracinoe au devocinoe andi bategaz: beguiratu daigun onetaraco, gagozala verbaz ez luurreco erregueren bategaz, ez Apostolu, Aingueru, edo Ama Virginiagaz, ezpada ceru luurrac bere anditasunez beteten dituzan Jaungoicuagaz; noren aurrian bildurrez icara dagozan ceruba euren ganian dauquenac, eta noren izena enzunagaz luur joten dabeen luur, ceru, eta infernuban dagozan belaun gustijac. Bete gaitezán begui-

raune onegaz devocinoe, itzal, edo errespeto, eta bildur santuz, eguin daigun escari au al daigun humiltasunic bere nagaz, baita bere uste, edo confianzaric osuenagaz, jaquinic gueure Aita maite, bigun, eta maitetsubena dana. Eztaigun duda, ez bildurric equi ucatuco deuzcula gure oneraco bada, eta ucatuten badeuzcu ciur ciur gagozan bere gurarija dala gure salvacinoia emotia ceruban Amen.

### LII. VERBALDIJA.

*Nun azaldu, edo expliquetan dan Agur, edo Ave Marija.*

**D**a Ave Marija oracinoe bat, ceinetan emoten jacazan Ama Virginiari emon al leijozan alabanzaric andijenac, eta nun dagozan zarraturic bere anditasun miragarri, eta onoidade, edo virtuteric arrigarrijenac. Daucaz iru zati, edo parte. Lenengua dira verba oneec: *Ave Marija gracijaz betia, Jauna da zugaz, bedeincatuba zara anra gustijen artian.* Oneec esan cituzan San Gabriel Ainguerulenen, edo Arcangelubac, cerutic jatzi zanian esatera Virgina chito doatsubari: bere errai garbijetan guizon eguin nai zala araco Jaungoico ceru luurrac ecin cabidu dabeena. Bigarren zati, edo partia dira verba oneec: *Bedeincatuba zara anra gustijen artian, eta bedeincatuba da zure sabeleco frutuba Jesus:* oneec esan cituzan Santa Isabelec, bere lengusina Marija Santissima visitetara juan jaconian, eta bere lenengo verbiagaz gueratu zan santuturic erraijetan eucan seme San Juan. Irugarren zati, edo partia dira verba oneec: *Santa Marija, Jaungoicuaaren Ama, erregutu eguizu gu pecatarijoc gaitic, orain, eta gueure erijotzaco orduban.* Oneec esan, eta compondu cituzan Elexa Santubac, Ama Virginiaren alabanza

au berari eguínico escabide bere izan cedin; baita bere lotsatu, eta isilduteco herege batzuc, ceinzuc ucatuten even Marija gustiz doatzuba zala Jaungoicuaren Ama benetaco. Aingueru bat, emacume bat, eta Elexia badira bere verba onec esan citubezanac, Jaungoicua bera da euren aurquile, edo autore. San Gabrielec esan eutzazan Virginiari Jaunaren bialdu, edo embajadore, eta bitarteco leguez bere izenian: Santa Isabelec esan cituban Espiritu Santuz beteric eguala, eta berac eraso eutzazalaco. Elexiac badinoz, da Espiritu Santubac arguituric dagualaco. Orregaitic eguijagaz esan guinaique, Jaungoicua bera dala Ave Marijaren ipinle, edo autore, eta berac iracatzi deuzcula.

Ecín esan, edo errezadu guinaijo gure Erreguina andi, gure ama maitetsu oni oracinoe bere gogocuagoric, beretzat gozuaguaric auxe baño; bertan zarratuten dirialaco emon al daijoguzan alabanzaric andijenac, bertan dinoguzalaco Jaungoicuac beragan eguin cituzan mirariric arrigarrijenac, eta bere bitartez zabalduen dirialaco mundu gustitic bere onoidade, edo virtute, bere diñade pare бага, eta ceru luurrian, eta guizon Aingueru artian aurquitu al leitequian andijena. Eguija au ezagutu daizuben, verba verbaz azaldu, edo explicadu nai deutzubet oracinoe miragarri au, errezadu daizuben al dozun devocinoeric isijuenagaz.

*Agur, edo Ave.*

Verba onetan eguiten deutzagu Agur, ez bacarric adi erasoteco ezagututen dogula, eta bere ezagun garijala, baita bere dirautzagu poztu deila Jaungoicuac beragan eguin dituzan mirarijacaz, bera ereguiteco guizon, eta Aingueru gustijen ganera. Gueuc beragaz batera atzeguin dogula, daucagulaco Erreguina alsu, edo pode-

roso bat, Ama lastan bat, onguile asco gura deuzcun bat, eta Jaunaren aurrian bitarteco escu andico bat guri mesede andijac eguiteco. Milla esquer deutzaguzala Jaunari bera gueure Amatzat, gueure jaoletzat, gueure Erreguinatzat emon deuzculaco; bada beragandic icharoten dogula arceia ugari bere aguindura ifini dituzan ceruco ondasunac, eta verba baten esateco, bera eguin dabelaco bigarren Eva, erbestetu, edo desterretaco mundutic lenengo Evac ecarri cituzan aijari, cispuru, zotin, eta negarrac, eta idiguiteco arec zarratu cituzan ceruco atiac.

*Marija.*

Izen gozo, eztitzu, pozgarri, eta atzeguinzu onetan dirautzagu emacume miragarrizco Jaungoicozco oni, bera dala mundu, eta ceru, guizon, eta Aingueru gustijen Anra, edo Señora, eta Erreguiña. Ichasoco izar, munduco gau ilunian argui eguiten deuzcuna. Argui-emoilia, bada mundu gustija pecatubaren iluntasunic ichubenian eguala, ecarri eutzan cerutic osasuneco eguzqui ederra, cein dan Christo gure Jauna. Dirautzagu dala gracijaren ichasua; bada luurreco erreca gustijac ara duazana leguez, duaz beragana santu, eta aingueru gustijen gracija, santidade, onoidade, edo virtute, eta merecimentu gustijac, ostera gugana bere escubetatic etorteco, ichasotic urteten dabecen leguez ibai, eta iturri gustijac. Au gustijau, eta esan al daigun gustija baño gucijago dinogu esanagaz Marija. Izen au ez eutzen ifini guizonac Jaungoicuaeren Amari, ez even aurquitu Ainguerubac, Jaungoicuac berac Aitac, Semiatic, eta Espiritu Santubac, Irucada, edo Trinitade gustijac ifinija da. Jesusen izenen ostian eztago Marija baño izen santubagoric, gozuagoric, pozgarrijagoric, ez luurrian, ez ceruban: bera da beste

izen gustijen gania. Izen santu au da necatuben atze-  
guina, tristien poza, guexuen osasuna, ichuben arguija,  
argalen sendagarija, peccatarijen uste, edo esperancia,  
justuben honria, santuben gloriya, ceruben edertasuna, eta  
demoninuen bildurra. Ce olgura! Ce gozatasun! Ce po-  
za eztau arcen Christinau baten vijotzac Marija bere ez-  
panacaz esanagaz, edo belarricaz enzunagaz bacarric? Us-  
te leiteque ecin cabidu dala bularren barruban pozen po-  
zez. Beguira orain celaco devocinoe, celaco erreverenciya,  
celaco humiltasunagaz erabili biar dozuben ceuben ad,  
eta espanetan ceru luur, guizon, eta Ainguerubac poz-  
tuten dituzan izen au.

*Gracijaz betia.*

Agur eguin ezquero, edo saludadu ezquero San Ga-  
brielec Marija gustiz doatsuba, emon eutzazan iru ala-  
banza, oraindio inori emon ez jacazan, eta inos emon-  
go bere ez jacazanac, eta onexec berberoc emoten deut-  
zaguz guc Agur, edo Ave Marija dinogun bacochian.  
Lenengua da, *gracijaz betia*. Verba oncetan dirautzagu,  
beti beti bere sorrera, edo concepcinoetic aurquitu zala  
Jaungoicuaren *gracijaz beteric*, inosbere utsuneric equi  
baga. Ez bacarric ez evala inos galdu *gracija* au; baña  
etzala inos guichitu. Eztala inos beragan aurquitu peca-  
turic, ez mortalic, ez venialic, ez originalic. Ain izan za-  
la ugarija Jaunac beragan ifini euan *gracija*, ain modu-  
tan bete evala bere arimia Jaunac doe onegaz, ce andi-  
jagua izan zala bere concepcinoian equi evans, Santu,  
eta Aingueru gustijena bat eguino baño bere. *Gracija*  
onegaz batera aurquitu ciriala beragan virtute, edo onoi-  
dade gustijac, fede, esperanza, caridade, garbitasun, hu-  
miltasun, ertuqui, edo misericordija, eta beste luurrian  
eta ceruban aurquira al leitequezan gustijac. Aini daguala,

apaindu, eta ederturic gracia, santidade, eta onoidadez, ce dala bere semiaren urrengo ceruco edertasunic andijena, ain modutan, ce mirariz beneric Ainguerubac itanduten deutzela batac bestiari: nor da onaco emacume bere semiaren albuan jarriric dagan au, alba-izarra baño arguijago, ilarguija baño ederrago, eta egusquiya baño autu, edo escogidubago? Trinitade gustijac dirautza: gustijori zara ederra, neure lastana, neure maitia, neure usua, neure bacarra; eta eztago zugaran pecatubaren orbanic, ezta motaric chiquijenic bere. Edertasun pare baga au icusteco gurariz beneric ceruco erreguec dirautza: biurtu zaitez onunz icusi zaiguzan; bada gustiz da ederra zure arpeguija; Jaungoicozcuac zure beguijac, eta gracia gustija dago izuri, edo itzuliric zure espanetan. Bedeinca milla bidar emacume ain eder, ain zoragarri, ain icusgarri eguin evan Jaungoicua.

*Jauna da zugaz.*

San Gabriele Ama Virginiari emon eutzan bigarren alabancia izan zan, *Jauna da zugaz*. Verba onetan dirautzagü beti beti aurquitu zala beragaz Jaungoicua, ez bacarric gracia, eta laguntasunen bitartez, sarri peccatarijetan aurquitu oi dana leguez, ez bacarric bere adisquidetasunagaz artez, edo justubetan leguez, ez bacarric bera jaoten dabenagaz ceruraco autu, edo escogidubetan leguez; baita bere berezco modu guizon, ez Ainguerutan egon, eta egongo eztan modu miragarri baton; bada berac bacarric mereci izan evan bere erraijetan zarraturic euquitia bederatzi ila betian araco Jaungoico ceru zabalac cabidu ecin dabeena, berac bere ugatz gozuagaz aci evan mundu gustijari jaten emoten deutzan Jauna. Beragaz vici izan zan ogueta amairu artian; baña ez edo ecin modutan, ezpada seme humil, maite, lastan leguez,



bere ama bigun amodijotzu bategaz. Beragaz vici eche baten, beragaz jan mai baten, beragaz ibili, beragaz euqui verbaldi, edo conversacinoe luciac, eta enzun bere aotic ezti abaoa baño gozuago dirian verbac.

*Bedeincatuba zara anra gustijen artian.*

Aingueru San Gabrieleac Ama Virginiari emon eutzan irugarren alabancia izan zan: *Doatzuba, edo bedein-  
catuba zara anra gustijen artian.* Auxo berau emon eut-  
zan Santa Isabelec bere. Emen dirautzagu ceruco erre-  
guina oni, bera dala izan dan, izango dan, eta izan lei-  
tequian emacumeric andijena, santubena, eta miragarri-  
jena; bada berac bacar bacarric mereci izan euan bere er-  
raijetan sortu, eta beragandic jaijotia Espiritu Santuba-  
ren eguitez, edo obraz, ceru, eta luurraren jauvia. Berac  
bacarric mereci izan euan Virginia, eta Ama batera iza-  
tia; Virginia, bere semia beragandic jaijo baño leenago;  
Virginia, bere semia jaijo zanian, eta Virginia semia jaijo  
ezquero. Berac bacarric mereci izan euan Aita Eternua-  
gaz seme bat bacarric euquitia, ain modutan, ce Aita  
betico, eta emacume onen semia eztira seme bi, bat ba-  
carric baño: araco Aita beticuac munduba baño lenago-  
tic euqui euan semia berbera, axe bera da Marijarena be-  
re. Berac mereci izan euan enzutia Jaungoicuagandic  
Ama ao betian, eta dei eguitia semia araco ceru luur-  
rac ecerberecetatic eguin cituzanari. O Marijaren andita-  
sun pare baguia! O diñade inoren gogora bere ecin eldu  
leitequiana! Ce Aingueru, ce Serafin, edo ce Querubini  
esan deutzá orainguino Jaungoicuac emacume oni le-  
guez, zu zara nire Ama? Edo ce Aingueru, edo Serafi-  
nec esan leiyo Jaunari emacume onec leguez, zu zara ni-  
re seme neuc neure erraijetan sortuba, eta nigandic jai-  
jua? Emenche bai arritu, mitutu, eta concerturic gue-

ratu biar gariala, icusiric ez gariala duin diñade cabu baga onen alderic chiquijena bere adi erasoteco.

*Eta bedincatuba da zure sabeleco frumiba Jesus.*

Auxe da Santa Isabelec bere senide Marija chito doatsubari emon euzan alabancia. Verba onetan dirantzagu, bera dala araco Paradisuben erdijan daguan zugatz, edo arbola ederra, ceinec emon euzcun Inurrian, eta ceruban aurquitu al leitequian frutaric gozo, bigun, osasunsu, eta ederrera. Frutu au ecarri euzcula Aita bético, edo Eternuen alzotic. Frutu au dala Jesus lastana, cein emon euzcua gueure janaritzat, izan cedin guexuen osasuna, pecatarijen erremedijua, tristien pozgarrija, necatuben atzeguina, eta on gustijen iturri ugarija. Orain bada, frutatic ezagututen bada celacua dan arbolia, beguira celacua izan biar dan Jesu Christo Jaungoico, eta guizon eguijazcua emon euzcun arbolia. Alabadu, eta bedincata daigan gueure indar gustijacaz, onelaco arbolia gueure Elexaco ortuban ifini euzcun Jauna.

*Santa Marija Jaungoicuaren Ama.*

Elexa santubac ifinirico verba onetan confesetan dogu, Marija gustiz Santuba dala Jaungoicuaren Ama benetaeua, beste ama gustijac euren semien ama benetaeoco dirina leguez, eta onegaz batera emoten deutzagu, guizon, eta Aingueru gustijac emon al leijuen alabanzatic andijena; bada esanic dala Jaungoicuaren Ama, dinogu beragan ezarri euzala Jaunac berac emon, eta criatura batec artu leizan santidade, gracijsa, onoidade, edo perfeccinoe gustijac. Celan uste guinaique ucatuco reutzala Jaungoico batec bere Amari emon al leijon anditasun, eta edertasunic? Celan sinistra guinaique cequen, eta misquin izango zala bere Amagaz, araco Jaungoico ain ugari botaten dituzana bere ondasunac bere

criatura gustijen ganera? Eztaquit azartuco dan norbait onelaco burueraric euquitera. Gustijoc sinistu biar dogu; eregui evana leguez Jaungoicuaren beian aurquitu al leitequian diñaderic andijenera, alainche jaso evala Jaunaren beian aurquitu al leitequian santidaderic andijenera. Poz andi bat emon biar deuzcube verba oneec; bada ecin dei eguin guinaijo Jaungoicuaren Ama gomuta craso baga berari gure Ama dana. Jaungoicuaren Ama benetaco bada, da Jaungoico guizona bere erraijetan sortu, eta beragandic jaijo zalaco; eta izanic bere seme au gure anaije nagusi, eta gu bere anaijac, ecin arean Ama izan leiteque gur bere izan baga.

*Erregutu eizu gu pecatarijoc gaitic.*

Verba onectan escatuten deutzagu izan deila gure bitarteco bere seme maitiagaz; seguru gagozala berac erregututen badentza, ezteuzcula ucatuco gorputz, eta arimaraco biar dogun onic; bada alaco seme batec, celan ucatu leijo bera lezco Ama batec escatu deijen gauzaric, icusiric beragan araco sabel garbi bederatzi ilabetian erabili evana, eta araco bular gozo, nun astu ovan ugatz cecrucua? Obeto eta obeto gure erruqui izan dedin gure Ama maite au, dirautzagu, *gu pecatarijoc gaiti*, modu onetan iracusten deutzaguzala gueure zauriac, gueure gachac, gueure argaltasuna, eta gueure premina, edo necesidadiac. Onetan eguiten dogu esqueco pobriac eguin oi dabecena. Batec iracusten dau oin evaguija, bestiac beso sicutaba, beste batec epai andi bat, daezenac erruquitu deitezan, eta limosna emon deijuen. Alainche bada guc bere limosna escaturora guazanian Ama caridade, eta ontasunez betorico onegana, iracusten deutzaguz gure gach, eta meque andijac, esanagaz *gu pecatarijoc gaitic*.

*Orain, eta gure erijotzaco orduban. Amen.*

Orain dinogunian, aitu biar dogu gure vicitziac dirauben dempora gustija. Esango baleutzagü leguez; mundu onetan vici garian arte gustijan, erregutu deijola bere semiari, ezteigula ichi jausten gueure arerijuen escubetan. Baña gure vici gustija guerra vici bat bada bere, gueure erijotzaco orduban da nos indar gueijago eguiten dabeen, nos asmuric oquerrenac arcen ditubezan gure arerijuac gu galceco. Orregaitic orduban inos baño gueijago biar dogu gueure Ama onaren laguntasuna. Orduco premina, eta estura artian biar dituguz bere erregubac, eurac gaitic emon deigun bere seme bacar maitiac gueure arerijuac goitu, edo vencietaco biar dogun indarra. Bada orduban aspiratuten badogu gueure arerijua, beti betico zorioneco izango gara, eztagualaco gueijago guerraric, ez ostera pecatura biurtuteco pelleburic. Baña orduban goituten bagaituz arerijuac, galdu guinian betico; eztago penitenciaric, eztago atzera biurtuteric, eztago inundic bere erremedijoric. Orregaitic dirautzagu, erregutu daijala gugaitic gure erijotzaco orduban.

*Erasoguinza.*

Orra neure enzula maitiac, ce escabide gozua, ce es-titzuba, ce alsu, edo poderosua ifini deuzcun espanetan gueure Ama Elexiac, escatuteco mesediac Jaungoicua-ren amari. Poztu gaitazan gustijoc, jaquinic celan escatuco deutzagun ceruco Erreguina oni biar dogun gustija. Poztu bedi ona, eta Santuba; bada nai badau iraun daucan gracijan, eta aurreratu santidadian, dauca nori escatu, eta celan escatu. Esan beguijo Ave Marija gracijaren amari, eta beragandic artuco dau egoera zori onecuan irauteco sendatasuna, eta ichaso onetatic etotrico jaco naico beste santidade. Poztu bedi peccatarija; bada bildur

badeutza Jaungoicuaren justiciari, eta azartuten ezpada ain loi, eta atsituric ifinten Jaungoicuaren aurrian, bijua bere Amagana, Ave Marijaren bitartez. Ez ez, ez begui bildurric euqui, eztau beragan aurquituco, ez laztasunic, ez aserreric, ez becoqui astunic, ez verba garratzic. Gustija da ona, biguna, erruquiorra, samurra, eta leuna. Pecatur beteric badago bere, dei eguin beguijo ao betian Ama; bada eztago beretzat izen gozuagoric peccarijen Ama baño; onexec beteten deutza bere gogua, onexec emoten deutza pozic andijena, eta auxe da gure aotic enzun nai dabena.

Orregaitic, ceuben gach gustijetan, ceuben neque, eta premina gustijetan, elda zaiteze beragana, dei eguijozube vijotz gustitic, esan eijozube: Ave Marija, eta icusico dozube ce laster enzungo zaituzan peccarijen Ama onec. Demonino, mundu, eta araguijac estututen bazaitube, ezaizu Ave Marija, eta berac banatuco ditu zure arerijo oneen aleguinac; bere izena enzunic bacarric gueratuco dira deseguin, eta banaturic. Pobreza, ez euqui, eta edo ceimbere gauzaren faltiac, preminiac bazaucaz larrituric, ezaizu Ave Marija, eta ceruco ondasunen jauve onec emongo deutzu biar dozuna. Ceure peccatuben astuntasun pisutsubac macurturic bazaucaz luurteraño, eta desesperadu aguinian bazagoz, infernuba ceure aurrian idiguiric dacutzulaco, dei eguijozu peccarijen ama oni, ezaijozu Ave Marija, icusico dozu celan egusqui eder batec leguez arguiz beteco daben zure vijotza, ateraco zaituzan peccatubaren pisu esquerguiaren aspiric, eta beteco zaituzan arimaco pozez. Eztago, neure Christinaubac, mundu onetan gachic, nundic urtengo eztozun Ave Marijaren bitartez. Bera esanagaz guaz gueure Amaren egapera, eta nun dago beragandic atera al guinaizen

indarric, ez munduban, ez guizonetan, ez infernuban, ez demoninuetan?

Orra celaco Ama emon deutzun Jaunac. Orra celaco jaolia ifini deuzcun gueure Jaungoicuac. Misericordija andija benetan, dino San Bernardoc. (1) Ez bacarric izan nai izan evan gure aita, ez bacarric emon euzcun bere semia gure anaijetzat; baña icusiric gozuagua, bigunagua, amodijotsubagua zala Amaren izena beste gustijac baño, bere Ama emon euzcun gueure Amatzat. Baña celaco Ama? Eztago Ama, bere semia ain lastan, ain maite dabenic, cein da gu gaituzan ceruco Ama onec. Betor mundu gustija Ama onegana. Erdu erdu guizon gustijoc, andi, eta chiqui, zar, eta gaste, santu, eta pecarari, pobre, eta aberatz, ez inor gueratu etorri baga. Erdu erdu Ama maite onen alzora, eta berac cruango zaitu ceruco atzeguinetara. Amen.

### LIII. VERBALDIJA.

*Cer dirian Ainguerubac, eta celan daucagun bacochari Aingueru jaolia.*

Jaungoicuac eguin deuzcuzan mesederic andijenen artian ezta chiquijena, bacochari emotia Aingueru bat bere jaoletzat. Mesede au obeto ezagututeco, icusi daigun lenago cer dirian Ainguerubac. Dira bada gorputz bagaco espiritu utz, edo puru, sensun, edo entendimentu, eta vorondate dauqueen batzuc. Jaungoicuac berac eguin cituzan ecerbercetatic mundubaren asijeran. Urten even Jaunaren escubetatic gracijaz apainduric, jaquiturijaz arguituric, eta onoidade, edo virtutez ederturic. Ifini ci-

(1) Sermon de verb. Apoc.

tuzan ceruban bera beti beti alabadu eguijen, eta berari obediu eijuen. Baña ez eueen gustijac iraun Jaungoicua-  
ren aguinduban. Arroturic Lucifer beragan ecusan edert-  
tasunagaz, artu cituzan Jaungoicua bera beste izateco  
asmu zoruac, eta jagui zan bere eguiliaren contra beste  
asco bere lagun cituzala. Aserraturic Jauna lotzabaque-  
rija onegaz, bota cituzan cerutic infernucO ondarretara,  
beti betico condenaduric ango su icaragarrietara. One-  
xec dira demoninuac. Oneen cereguin gustija da gu pe-  
catura eruatia, modu onetan beti betico zorigalducnac  
izan gaitezana.

Aingueru onac dira Jaungoicuaren aguindu, eta obe-  
diencijan iraun eueenac, eta orregaitic Jaunac sendatu  
cituzan gracijan, eguin cituzan betico zorioneco, ceruco  
lenen, edo principe, eta bere erreinuco andi, edo nagusi.  
Ain dira jaquitunac, ce mundu onetaco jaquiturija gus-  
tija iluntasuna baño ezta eurenaren albuan. Ain dira al-  
su, edo poderoso, ce mundu onetaco indar gustija ezta  
margaltasuna baño eurenen parian. Ain dira ederrac, ce  
maguertuco balitz luurrian Aingueru bat bacarric daucan  
margui gustijagaz, egusquiya bera gueratuco litzateque  
ezain, eta ilunduric. Onexei bada aguindu deutze Jaun-  
goicucac, zaindu gaijezala gueure bide gustijetan. Baco-  
chari ifinten deuzcu Aingueru jaole, edo guardaco bat  
gueure arerijuaegandic gorde gaizan, ecec gachic eguin ez-  
teigun, eta beti beti guri lagun eguin deigun, inosbere  
inosbere gugandic alderatu, edo apartadu бага. Ez ba-  
carric ifinten deuzcu gueure Jaungoico maitiac Aingueru  
guardaco bat gaizon bacochari, baita bere Erreinu, Pro-  
vinciya, eta uri, edo erri bacochari. Eguiya au dacuzcu  
sari eta sari Escritura Sagraduban. Daquiguna da, San  
Miguel Ainguerulenen, edo Arcangeluba izan zala Is-

raelgo Elexa, edo Batzarren jaole, eta orain dala Elexa Santubaren gordezaile.

Jaquin gura badogu cer eguiten daben gugaz Aingueru guardacuac, eta cer eguin biar dogun guc beragaz, eztaucagu enzun baño cer dirautzan Jaungoicuac Moisesi, eta Moisesegan guri bacochari. Neuc bialduco deutzut neure Aingueruba; bera juango da zure aurretic; berac zainduco zaituz daruazun bidian, eta sartuco zaitu zuretzat prestaduric daucadan lecuban. Zagoz berari adi, enzun eguizuz bere esanac, eta ez eiquezu guichitan euqui, edo despreciadu; bada pecatu eguiten badozu, ezteutzu baquian ichico. Enzuten badozu Aingueru onen esana, eta eguiten badozu bere aguiniduba, zure arerijuen arerijo izango naz, eta gogor artuco ditudaz zuri gach eguin deizubenac. (1) Lenengo dirauzcu; cetaraco emoten deuzcun Aingueru guardia. Bigarrengo: cer eguin biar dogun Aingueru onegaz, nai badogu berac zaindu gaizan. Iru gauzataraco emoten jacula, dino Jaungoicuac berac; gure aurretic juan dedin bidian, zaindu gaizan, eta sartu gaizan berac isquinirico lecuban. Au da iracatzi deigun bidia, eta nosbait bide oquerretic baguaz, artecera biurtu gaizan; zaindu gaizan bide onetan urteten deuzcuben arerijuacgandic; eta asquenez sartu gaizan ceruban, cein dan lecu isquinija, edo promisinocco erri benetacua. Aingueru guardacuac eguiten deuzcuzan iru on onexec jaquinagaz, ezagutuco dogu ce mesede andija eguin euzcun Jaungoicuac bera lagunzat emonagaz.

Lenengo: emoten deuzcu Jaunac gueure Aingueru guardia, gure aurretic juan deitian, au da, iracatzi deigun ceruraco bidia. Au eguiten dau guri bialdubagaz vijotzera gurari santubac, vorondate onac, gogo artezac,



euren bitartez eguin daiguzan obra on, eta santubac, zeinzuc dirian ceturaco vide artezac. Nosbait ichiric bide au sartuten bagara pecatuco bide oquerrian, ce aleguinac eztituz eguiten atzera biurtu gaitazan, eta bide onian ifini gaitazan? Bialduten dau gure vijotzera Jaungoicuaren justicijaren bildur santuba, ichi erasoteco infernura garuazan bidia. Ce deijac berari jarraitu deijogun? Ce erre-gubac penitencijaco iturrijan garbitu daiguzan peacubaren loiquerijac? Ce aguiracac condenacibeco pelleburuban gagozalaco? Sinistu eguizube araco confesetaco gogua daucazunian, Aingueru guardiac bialduba da. Araco pisuba sentiduric, pecatubac triste zaucazanian, Aingueru jaoliac bialdu deutzu atzacaba ori, urten daguizun nabaga ori emoten deutzun pecatutic. Demoninuac tentetan bagaituz pecaturaco, ainche dago prest gure Aingueruba pensamentu on, eta santubac gure vijotzera bialduteco, sarzaijeraric emon ezteijogun gure arerijo oni, beguijen aurrian ifinten deuzcula celaco gach, eta caltiac dacarguzan emoten badeutzagu baija, edo consentimentuba gueure arerijo oni. Auxe da Aingueru zain, edo guardia aurretic juatia,

Bigarrengo: emoten deuzcu Jaungoicuac Aingueruba, zaindu gaizan gueure arerijuacgandic. Gure vici gustija da guerra vici bat. Guerra au eguiten deuzcuna da demoninua. Eztago arerijo au puntuchu baten bere gueldi. Echian, eta campuan, callian, eta mendijan, soluan, eta basuan, eguinez, eta gabez, goxian, eta arratzaldian, edonun, edocein demporatan dago pelietan; eztauca janen, ez luaren biatric, ezta inos aricatu, edo cansetan, eta alan eztago inos gueldiric. Baña celaco arrabijagaz, celaco indarragaz, celaco asmubacaz pelietan dau? Eztago munduban bere contra ifini leitequiatic. Cer eguin

guinaique gac argaloc, cadenoc, eta erquinoc arerijo ain indarsu, ain sendo, ain gogor onen contra? Baña, ez Christinaubac ez, ez gagoz bacarric, gueure albuan daucagu beti gueure Aingueru jaole, edo guardia gu zainduteco. Berac pelietan dau gugaz batera, berac quencen deutzaz daucazan armaac, berac quencen deutzaz bere indarrac, berac aspiratuten dituz bere aleguin gustijac; senduago, indarubago, errutubago da bera bacarric infernuco demonino gustijac baño. Ez bildurric enqui: gueuc nai ezpadogu ez gaitaz goituco: deseguinic guera-tuco dira bere asmu gustijac; obediu deijogun Aingneru onen aguidubari, eta orra irabaciric goitute, edo victorijaric andijena. Zagoz seguru ceu berangandic alderatuten ezpazara, ezala bera zure albotic quenduco. Zenc beragandic igues eguiten ezpadozu, etzaituzala bacarric ichico, eta zure arerijo gustijac icusico dozuzala zure onetan echunic, zatitu, birrindu, eta lotzaturic.

Irugarrengo: emoten deuzcu Jaungoicnac Aingueru guardacua, esquinirico luurrian, coin dan ceruba, sartu gaizan: auxe da gauza lenen, edo principalena. Onetaraco dua gugaz vici onetaco bidian, onetaraco zainduten gaituz gueure arerijuaçgandic, onetaraco da gure bide-lagun, onetaraco dira bere ardura gustijac. Gu sortu, eta bertatic emoten deuzcu Jaunac Aingueru jaole, edo guardacua, eta ordutixec asten da gugaz daucan arduria. Gueure amaren sabelian gagozala, eta arguitara urten baño lenago daucagu gueugaz Aingueru au. Ordutixec abijetan dira gu cerurunz arteztuten. Nai leuque demoninuac bautismoco ura artu, eta Jaungoicuaren seme izatera eldu baga il gaitezan; baña gure Ainguerubac galatzoten deutzaz onelaco guestaquerijaric, edo beste gachic guri eguiten. Jaijo, eta ibatiatu ezquero, celaco arduria

arcen eztau Aingueru onec guc zaindu daigun orduban arturico gracia? Berac guraso, maesu, eta beste gure ardura euqui biar dabenai adi erasoten deuzte doctrinia, eta ceruraco bidia guri iracasteco dauquen obligacinoia. Berac bialduten dau gure vijotzera Jaunaren bildur santuba, berac alderatu, edo apartetan gaituz pecatubaren pelleburubetatic. Oneraraco gure bitarteco eguinic erregututen deuzta Jaunari, ezteigula ucatu bere laguntasuna, ezteigula ichi jausten demoniuaren memplan.

Eta ce atzacabe, ce neque, ce naibaguia arcen eztau gu pecatuban jausten garianian? Ce aleguinac eztituz eguiten aibat lasterren urten daigun pecatupetic? Ce deijac, ce diadarrac gure vijotzera, daucagun lo sorrotic iratzartuteco? Ce otsac gure arimaco atetan, idigui dei-joguzan Jaunari bertan sartu dedin? Ce erregubac hota daigun andic gueure arerijua? Ez egunez, ez gabez dauca atzeguinic guri Jaungoicuagana biurtu eraso artian. Guc enzuten hadituguz diadar oneec, eta eguiten badogu penitencia benetacua; ce poza? Ce atzeguina? Ce olguria gure Ainguerubena? Dei eguiten deuzte, edo conuidetan dituz beste Ainguerubac, eta dirautze: poztu gaitzezan gustijoc; bada aurquitu dot galdu jatan ardiya. Celaco arduria ifinten eztau ostera galdu eztaquijon? Ifinten deuzcu poz, eta gozo andi bat modu onetan gozatu gaitzezan artu dogun gracijan egotera, icusiric pecatubaren mingotzasuna, eta gracijaren atzeguina. Modu onetan garuaz gueure Ainguerubac Jaungoicuac izquiniric deuzcun luurrera. Baña nos ardura andijagua ifinten daben gu zainduteco, da gueure erijotzaco orduban. Demoniuac icusiric dempora guichi daucala gu tentetaco, botaten dituz bere indar gustijac, gueituten dituz bere asma charrac, eta artuten dituz bere embidijac al daizan mo-

Du gustijac gu goituteco, jaquinic orduban urteten badau beriagaz, eruango gaituzala bera erre, eta quisquilduten daben su icaragarrira; baña gure Ainguerubac bere artuten dituz inos baño ardura andijaguac demoninuac goitu, edo vencidu ez gaizan. Noe esan leique? Noe adi eraso leique Aingueru on, eta donga oneen artian orduban eguiten dan guerra vicija? Onac gu cerura eruateco, eta donguiac gu infernuban ondatuteco gurarijagaz? Eztago guizonen artian bera azaldu, edo explicadu leiquianic.

Baña ezta emen gueratuten gure Ainguerubac gugaz daucan arduria, ezta erijotziagaz amaituten bere gu zaindutia, gueugaz dua Jaungoicuac eguiten daben icaragarrizco juicijora. Ainche egongo da gure albuan; bera izango da bitarteco, edo abogadu, berac verba eguingo dau gugaitic. Ainche ateraco dituz gure oneraco aurkitu al deitezan errazoe gustijac; ainche pranzungo deutzee demoninuaren salaquera, edo acusacinoe gustijai. Ifinico dituz gueure vici gustijan eguin dituguzan obra onac bapere ichi baga; ezta gueratuco isilian chiquijen chiquijen; escuturic escutubenian eguin dituguzanac ateraco dituz arguitara. Ce poza gure Ainguerubena, ceruraco sentencija emoten badeuzcu il, eta vicijen Juezac? Garbiric bagagoz berac garuaz cerubetara, ifinten gaituz Jaungoicuaren aurrian, eta eguiten dau fiesta andi bat beste Ainguerubacaz batera gugaz gueitu dalaco cerutar bat. Gustiz garbiric ezpagagoz berac garuaz Purgatorijoco garbiteguirra, poztuten gaituz cerura elduteco esperanciagaz, eta emoten deuzcu verbia eguingo dabela aleguina aimbat lasterren urten daigun ala, eta tormentu arcetatic ceruco atzeguinetara. Inuiric Jaungoicuaren aurrian erregatuten deutza arren atera gaizala aimbat lasterren lecu

atatic, eta eruan gaizala bera arpeguiz arpegi icustera, Onetaraco isinten dituz bere aurrian gugaitic luurrian eguiten dirian escabidiac, ateraten dirian mezac, emoten dirian limosnac, eta irabasten dirian indulgencijac. One-ec aibat lasterren, eta gueijen izan deitezan, viztuten dituz gure aide, adisquide, eta ezagunac al daijen gustija gugaitic eguitera. Araco gustiz garbiric gagozania, ce prest, ce pozic jasten dan garbitegui, edo purgatorijora gu andic ateratera? Berac garuaz cerura, eta isinten gaituz Jaungoicuaren aurrian beti betico alabadu daigun ceru luurren eguilia. Orra ce lagun leijala emoten deuzcun Jaungoicuac sortuten garianetic, eta bere glorijan sartu artian, infernuban gueure erruz jausten ezpagara.

*Erasoguinsa.*

Enzun dozu neure Christinauba, cer eguiten dabenezuz Aingueru guardacuac: enzuzu orain cer eguin biar dozun zuc beragaz. Iru gauza eguin biar dituzala beragaz, dirautza Jaunac Moisesi, eta beragan guri: Zagoz berari adi, edo bardin dana, equi eguijozu itzal, edo errespeto andi bat: eguizu bere aguinduba, eta ez eguiza guichitan equi, edo despreciadu. Iru gauza aguindutea jacuz verba oneetan: berari equitia itzal, edo errespetua beti aurrian daucagulaco; devocinoe gustizco bat deuzcun onguria gaitic, eta ichoromen, edo esperanza oso bat beragan, gure jaole dalaco. Lenengo: itzal, edo erreverencija beti gueure aurrian daucagulaco. Gagozan leucuban gagozala ainche dago gure Aingueruba, eta dacuz eguiten dogun gustija. Orregaitic bacarren bacartian zagozania, etzara azartu biar eguiten besteren aurrian lotzatu cinatequezan gauzaric. Esan eguidazu: eguingo ceunque itzal, edo errespeto andi bat deutzazunen aurrian, bera asco aserratuco leuguan gauzaric? Eguingo

ceunque plaza baten erdijan aimbat guizonen aurrian araco ceue ceure bacarrian eguin oi dituzuzan loiquerija, eta ciquinquerijac? Azartu, edo atreviduco cinateque ceure guraso, ceure anaije, edo ceure nagusijac zacuzela eguiten araco lotzariz beteten zaitubezan pecatubac? Ezetz deritzat. Bada, neure Christinauba, eztozu inos tuste biar ceure bacarrian eguiten dozula peccaturic. Leccuric escutubenian, iluntasunic ichubenian, guelarie zarratubenian, ainche daucazu ceure Aingueruba, dacuz eguiten dozun peccaturic lotzagarrijena, bere beguijen ~~arrian~~ eguiten dozu ezaintasunic itzusijena, ecin beragandic ecer escutadu cinaique. Cer dinot eguin? Ecin equi cinaique berac eztacuzan pensamenturic chiquijenic bere. Araco gauza lotzagarrijen bat eguiteco pensamentubari baija emoten deutzazunian, edo consentietan dozunian berac dacuz. Orregaitic demoninuac peccatura tentetan zaituzanian ezaizu: emenche dago neure Aingueruba, eta berac icusico dau eguiten dodan peccatuba. Araco ceure araguijac tentetan bazaituz loiquerijen batera, lotza izan zaitez Ainguerubac dacuzala olaco gauzaric eguiten.

Bigarrengo: equi biar deutzegu devocinoe andi bat, eurac deuzcuben ongura, eta vorondate onagaitic. Aingueruba da gueure adisquidia; baña ez edocein modutacua, ezpada aurqitu al guinaiquian leijal, eta sinzuena. Asco eta asco iracusten jacuz adisquide, ascoc eta ascoc eguiten deuzcubez mesediac; baña ezta erraz jaquitia benetaco adisquide badira, edo eguiten deuzcubezan mesediac badira gugandic icharoten daben beste mesede andijagoren bat gaitic. Baña Ainguerubac gure adisquide badira, mesediac eguiten badeuzcubez, bacarric da deuzcuben amodijuagaitic. Ce mesede eguin guinaijue guc

Ainguerubai? Gueitu guinaijue dauquen gloria? Aci guinaijuez euren ondasunac? Eguin guinaiquez dirian baño ederrago, zorionsubago, jaquinsubago, senduago, edo andijago? Cer gara gu luurrian gatzazan guizon pobre, argal, ichu, cadenoc ceruco principe. andi arei mescederen bat eguiteco? Cer icharon leije Jaungoicuaren aurrian gloria, atzeguin, eta ondasunez alde gustijetatic inguiraturic dagozan Ainguerubac, luur, autz, eta simaur pusca bat gandic? Orregaitic, seguru egon biar gara gucure adisquide benetacuac diriala; eguiten baduceubez aimbat mesede, aimbat on, dala deuzcuben amodijo, asco gura, eta vorondate ona gaitic. Jaungoicuac aguindu deutze jaon gaijezala, eta aguindu auxe zainduterren dira gure onguile.

Irugarrengo, gueure Aingueru zainzaile, edo guardiagan euqui biar dogu uste, edo confianza oso bat, eztagualaco mundu, ez infernuban bere contra al leiquian indarric. Batu bediz mundu onetaco gustijac, infernuco demonino gustijen aleguinaeaz; artu beguijez daquijezan, eta al daijezan asma gustijac; bota beguijez gure contra euren indar gustijac; bada gusti gustijac eztira asco izango gachic chiquijenic bere eguiteco, ezta ulechu baten ucututeco bere, egonic gugaz Aingueru guardacua. Ez urac, ez subac, ez eurijac, ez ecachac, ez leoe, ez artz, ez beste gauzac gach eguin leiquegu. Isio begui Nabucodonosorrec laba icaragarri bat; igon begui ceruraño garrac; bota beguiz iru mutil gaste Jaungoicuaren bildurtijac su onen erdira; bada ezteutze alsichu baten bere garrac ucutuco. Bota beguije Daniel Igarla, edo Profetia leoe gosez amurratucuen erdira, bada leoe gosiac ilico onen artian bat bacarric ezta azartuco berari ucututen bere. Eta cegaitic deritzazube ez eutzela gachic eguin subac, ez leoiac Jaungoicuaren servizaile onci? Euracaz egualaco euren Ain-

gueruba. Eneque amaituco ecarri gura banentzuz Escripturan dagozan ejemplu gustijac eguija an sendatuteco.

Bada, neure Christinauba, ceure premina gustijetan, ceure estura, biar, eta pelleburubetan nai gorputz, nai arimacnetan dei eguijozu ceure Ainguerubari, ceure zainzailiari, ceure jaoliari vijotz oso osotic, devocinoe al daizun andijenagaz; escatu eguijozu atera zaizala daucazun esturatic, eta berac ateraco zaitu conveni bajatzu. Araco tentacinoiac estututen zaitubezarian, eta pecatuban jausteco pelleburuban zauquezanian, diadar eguijozu: salvadu naguizu; bada galduba naz bestelan: icusico dozu celan ceure Ainguerubac lagunduco deutzun ceure arerijuua goituten. Ez inos bildurric euqui Aingueru guardiaren aldetic utzune, edo faltaric izango dala; eta nosbait emoten ezpajacu gueure escarija da, edo conveni ez jaculaco, edo biar dan moduban escatuten eztogulaco. Nosbait goitu, edo vencietan bagaituz tentacinoiac ezta Ainguerubaren erruz, ezpada gueuc jausi gura dogulaco. Jarraitu deijogun gueure Ainguerubac iracasten deuzcun vidiari, goituco dituguz arerijuac, eta elduco gara gueure Aitaren echera. Amen.

### ***BIGARREN LIBURUBAREN AZQUENA.***



Doctrina Christinaubaren irugarren Zatiya.

- XXVII. Verbal.** Jaungoicuaren legueco mandamentuben ganian, eta cer dan fedia. 1.
- Erasoguinsa.* Benetaco fedia eguinza, edo obra onacaz aurqitu biar da. 10.
- XXVIII. Verbal.** Esperanciaren ganian. 11.
- Erasoguinsa.* Celacua izan biar dan esperancia. 19.
- XXIX. Verbal.** Caridadiaren ganian, eta celan amadu biar dituguzan arerijuac. 22.
- Erasoguinsa.* Cegaitic gach eguiten jacan ascori arerijuac ametia. 31.
- XXX. Verbal.** Jaungoicuaren legueco lenengo aguin-  
dubaren ganian. 33.
- Erasoguinsa.* Ce erraz dan aginidu au jaotia. 42.
- XXXI. Verbal.** Jaungoicuari zor deutzagun adora-  
cinoiaren ganian, eta celan adoraduco do-  
guzan Santubac euren irudi, eta erliqui-  
jetan. 44.
- Erasoguinsa.* Santubac honradu biarrian eu-  
ren egunetan, ordubanche eguiten dira  
pecaturic andijenac. 53.
- XXXII. Verbal.** Jaungoicuaren legueco bigarren  
aguindubaren ganian. 55.
- Erasoguinsa.* Ce zabalduric daguan jura-  
mentu eguitoco ecanduba. 65.
- XXXIII. Verbal.** Jaungoicuaren legueco irugarren  
mandamentubaren ganian. 66.
- Erasoguinsa.* Ce ardura guichi ifinten dan

- jaijac gordetian. 75-  
**XXXIV. Verbal.** Jaungoicuaren legueco laugarren mandamentubaren ganian, cer zor deutzen semiac gurasuai. 77-  
*Erasoguiza.* Ce zorijonac dagozan isquini-ric seme onenzat, eta celaco gachen dirian diña seme dongac. 86.  
**XXXV. Verbal.** Cer zor deutzen gurasuac semiai. 89.  
*Erasoguiza.* Ce andijac dirian semien aciera donguiae dacarzan caltiac. 97-  
**XXXVI. Verbal.** Jaungoicuaren legueco bostgarren mandamentubaren ganian. 100.  
*Erasoguiza.* Ce gauza charra dan mijn donguia. 108.  
**XXXVII. Verbal.** Birao, edo maldicinoiaren ganian. 111.  
*Erasoguiza.* Biraocarijac bere burubari eguiten deutza calteric andijena. 119.  
**XXXVIII. Verbal.** Ordiquerijaren ganian. 121.  
*Erasoguiza.* Ce andija dan ordijen itsumendija. 130.  
**XXXIX. Verbal.** Jaungoicuaren legueco seigarren mandamentubaren, eta lenengo pensamentu loijen ganian. 132.  
*Erasoguiza.* Aleguin gustija eguin biar dau Christinaubac pensamentu loijen contra. 141.  
**XL. Verbal.** Itacune, edo verba, eta eguiza, edo obra loijen ganian. 143.  
*Erasoguiza.* Ce guichi ezagututen dan pecatu oneen pelleburuba. 152.  
**XLI. Verbal.** Jaungoicuaren legueco zaspigarren aguindubaren ganian. 154.  
*Erasoguiza.* Celan itsututen daben guizona

- aberaztu guriac. 163.
- XLII. Verbal.** Saldu-erosi, eta beste tratuben ganian. 164.
- Erasoguinsa.* Tratu oquer asco erasoten dituz irabaci gurarijac. 174.
- XLIII. Verbal.** Jaungoicuaren legueco zorcigarren aguindubaren ganian. 175.
- Erasoguinsa.* Ce osasunsuba dan proximua-  
ren eguitadiac oneranz ezartia. 184.
- XLIV. Verbal.** Murmuracinoiaren ganian. 186.
- Erasoguinsa.* Ce guichi dirian murmuretan eztabeenac. 194.

### ELEXACO BOST AGUINDUBAC.

- XLV. Verbal.** Elexaco lenengo aguindubaren ganian. 197.
- Erasoguinsa.* Celaco devocinoiagaz enzun biar dan mecia. 205.
- XLVI. Verbal.** Ce miragarrija dan Mecia, eta bere eguitade, edo efectuac. 207.
- Erasoguinsa.* Mezan daucagu gueure gach gustijen erremedijua. 214.
- XLVII. Verbal.** Elexiaren bigarren aguindubaren ganian. 217.
- Erasoguinsa.* Demoninuaren tentacinoia da confesinoia luzatutia. 226.
- XLVIII. Verbal.** Elexiaren irugarren aguindubaren ganian. 228.
- Erasoguinsa.* Ce pecatu icaragarrija dan pecatu mortalian comulguetia. 236.
- XLIX. Verbal.** Elexiaren lau, eta bostgarren aguindubeen ganian. 238.

- Erasoguinza.* Ce onac dacarzan barubac. 246.
- Doctrina Christinaubaren laugarren Zatiya.* IIIIX
- I. Verbal.* Aita guriaren ganian, eta bere lenengo iru escarijen azalde, edo explicacinoia. 249.
- Erasoguinza.* Ez bacarric mijnagaz, baita obracaz bere eguin biar dituguz iru lenengo escabidiac. 257.
- LI. Verbal.* Azalduten dira lau asquenengo escarijac. 259.
- Erasoguinza.* Celaco devocinoiagaz eguin biar dituguzan lau escabide oneec. 267.
- LII. Verbal.* Azaldu, edo expliquetan da Ave Marija. 270.
- Erasoguinza.* Cembat on dacarguzan Ave Marija devocinoez errecetiac. 278.
- LIII. Verbal.* Cer dirian Ainguerubac, eta celan daucagun bacochar Aingueru jaolia. 280.
- Erasoguinza.* Cer eguin biar dogun Aingueru guardacuagaz. 287.

**ESCRIBITZALLIAREN MENEA, EDO**  
*Protestia.*

Verbaldi Icasbideco, edo Doctrinaco oneetan datzan gustija puntuchuric chiquirainocua ifinten dot Elexa Ama Santu, Catholicu, Apostolicu, eta Erromacuen utzenda, edo correccinoiera; eta badago euretan berac iracatzi daben, edo daijanen contraco gauzaric, berbertatic desdinot, eta daucat utzune, eta guzurzat. Ez bacarric gura dot neure esan, eta uste gustijac egon deitezan eguijaren pilar, eta cimentu sendo onen sinisquerien beian, baita bere neure nagusi gustijen critzira.

*Fr. Pedro de Astarloa.*

## UTZUNE ARTEZTUBAC.

<u>Orrija.</u>	<u>Errengoloia.</u>	<u>Utsunia.</u>	<u>Arteztuba.</u>
1.	17.	bijotz	bijoc
3.	1.	onizdade	onoidade
6.	15.	Errumuneradoria	Erremuneradoria
25.	12.	leutzanac	deutzanac
Ibid.	17.	dauztazan	deutztazan
30.	10.	honrija	honria
40.	1.	gauian	ganian
53.	25.	ete	eta
54.	11.	gueijagu	gueijago
58.	17.	gazurragaz	guzurragaz
61.	20.	cemetuten	cematuten
67.	31.	oficijucu	oficijoco
80.	29.	eer	cer
81.	30.	euren	bere
98.	14. 15.	aguiraco	aguiraca
106.	30.	ezpaleutz	ezpaleuzt
118.	10.	estuten	estututen
122.	20.	dituzanian	dituzuzanian.
160.	17.	onelacuac	onelaco escubetan gauciaicustiac, ain merque
Ibid.	24.	dabela	dabenac
170.	22.	deutzazuzala	deutzuzala
221.	3.	confesetaco	confesadu baga
340.	2.	itandu	itundu
251.	27.	baño	
364.	23.	ezteigula	eztaigula



# DOMEQUETACO EVAN-

gelijuetatic Verbaldi, edo Platicac aterateco esacai, edo testuac; baita bere euren Sarzaljerac.

*Lenengo ifinten da cembatgarren Verbaldija dan; urrengo ce liburutun daguan; eta irugarrengo ce orri, edo ojatan.*

## DOMIN. I. ADVENTUS.

*Tunc vedebunt Filium hominis venientem in nube.* Luc. cap.

21. vers. 27.

**G**aurco Evangelijuan ifinten jacu beguijen aurrian ce icaragarriac izango dirian juicijo aurrian icusico dirian ezaugarri, edo señaliac. Ain bildurgarri izango badira ezaugarriac, cer izango da juicijua bera? Jaquinic ce alsuba dan gomuta au guizonac pecatutic aldendu, edo apartetaco, esango deutzubet celacua izango dan. 9 *Verbaldi. 1. Libr. 89 orrijan.*

*Tunc videbunt Filium hominis. &c. Ibidem.*

Gaurco Evangelijuac dirauzcu Jesu Christo etorrico dala vicijac, eta ilac juzguetara. Onetaraco guizon gustijoc viztucio gara, Credoco amargarren sinistamen, edo articuluban confesetan doguna leguez. Auxe da adi erasoco deutzubedana. 11. *Verb. 1. Lib. 112 orrijan.*

*Cælum, et terra transibunt, verba autem mea non transibunt.* Ibid. v. 33.

Ain da ciertu, eta eguijazcua Jaungoicua dinuana, ce leenago galdu, eta birrinduco dira ceruba, eta luurra Jaunaren esana guzurtadu baño: eta alan ecin inundie bere guzurra izan leiteque Jaunac Elexa Santubaren birtartez dirauzcuna. Orra cetan daguan gure fediarren ciurtasuna, eta cegaitic sendo, eta dudatzaca sinistu

## II.

blar dogun berac iracasten deuzcun gustija. Auxe da gaur  
azalduco deutzubedan virtutia. 27. *Verb. 2. Lib. 2. orrijan.*

## DOMIN. II. ADV.

*Tu es qui venturus es an alium expectamus?* Math. cap.  
21. vers. 3.

San Juan Bautistaren gurari gustija zan mundu gus-  
tijac ezagutu eguijan Jesu Christo Jaungoico eguijazcot-  
zat. Eguija an ezagutu eguijen bere icasla, edo discipulu-  
bac bialduten dituz Salvaguiliari itandutera: zu zara etor-  
rico zariana, ala beste bati icharon biar deutzagu? Esan-  
go baleu leguez: zu zara Jaungoico benetaco guizon  
eguija? Sinistu eguijen San Juanen icasla, edo discipu-  
lubac alainche zala, dirautzez berac eguinico mirarijac.  
Eguija au sinistu, eta ezauera onegaz jaquin daguizuben  
ce neurribaguiä dan Jesu Christoren anditasuna, esango  
deutzubet cer dan Jaungoicua 3 *Verb. 1 Lib. 25 orrijan.*  
*Ceci vident, claudi ambulant, leprosi mundantur, surdi  
audiunt, mortui resurgent.* Ibid vers. 5.

Gaurco Evangelijuan danzugu ce arrigarrijac izan ci-  
rian Jesu Christoc eguinico mirarijac. Ichubac dacuze,  
dino, errenac dabilz, sarnatijac garbituten dira, gorrac  
danzube, eta ilac vistu, edo erresucitaduten dira. Baña  
ez eguizube uste eztiriala mirari onec orain eguiten; ba-  
da orduban gorputzetan eguiten zana, eguiten da orain  
arimetan Sacramentuben bitartez. Eguija au ezagutu da-  
guizuben esango deutzubet cer dan Sacramentuba, cem-  
bat dirian, eta celactuac dirian euren eguinza, edo efec-  
tuac. 12 *Verbal. 1 Lib. 118 orrija.*

*Ecce ego mitto Angelum meum ante faciem tuam, qui pre-  
paravit viam tuam ante te.* Ibid. vers. 10,

Jesu Christoc San Juan gaitic gaurco Evangelijuan  
dinuana, esan leiquegu guri bere gueure Aingueru jaole,



### III.

edo guardacuagaitic; bada berac emoten deuzcu guizon bacochari prestadu deigun ceruraco bidia. Jaunac eguiten deuzcun mesede au adi erasotia, izango da neure gaurco lana. 53 *Verb. 2 lib. 280 orrija.*

#### DOMIN. III. ADVEN.

*Confessus est, et non negavit.* Joan cap. 1 vers. 20.

Gaurco Evangelijuan icusten dira alde batetic Phari-seuen uste oquer, edo juicijo char, eta guestaquerijaz be-terico itauniac, eta bestetic San Juanen eranzute artez, eta eguijazcuac. Eta cetatic deritzube etorrela areen ma-licijaz beterico itandutia, eta San Juanen artez, eta egui-jazco eranzutia? Ara; Phari-seuac diabrubaren semiac ci-rian, Jesusec sarri esan eutzeena leguez, eta orregaitic gu-zurtijac: San Juan barriz Jaungoicuaren semia zan, eta alan beti ebilen eguijazcuac. Emetic ezagutuco dozube cela-co gorrotua euqui biar deutezuben uste, edo juicijo don-ga, eta guzurrari, esatera noiana leguez zorcigarren aguin-duba azaldubagaz. 43 *Verb. 2 lib. 175 orrija.*

*Medius vestrum stetit, quem vos nescitis.* Ibid. vers. 26.

Adi erasoteco San Juan Bautistiac ce miragarrija izan-go zan Jesu Christoc emongo euan bautismua, dirautze Phari-seuai: nic bateatuten dot uragaz; baña ceuben ar-tian egon da zube eztaquizubena; onexec bautizaduco zaitubez Espiritu Santubagaz. Auxe da Jesus onac bere Elexa Santuban ifini euan bautismua, cein noian azal-dutera. 13 *Verb. 1 lib. 128 orrija.*

*Non sum dignus, ut solvam ejus corrigiam calceamenti.* Ibid. vers. 27.

Izanic San Juan Bautistia ain santu andija gracijan jaijua, eta Jesu Christoren adisquide ain maitia, badino eztala diña bere zapateraco ugala ascaruteco; cer esan guinaique gue peccatori icusijoc? Celan azartu guindaitez,

## IV.

ez bere onetaco locartijari ucututera, ezpada Jaungoico baten anditasun neurri baga gustija gueure bularran artutera? Auxe gomuta biar gueunque comulgadu nai dogunian, humilduric lurperaino aleguin gustija eguin daigun al daigun onduen prestataco gueure arimia. 16 *Verb. 1 lib. 160 orrija.*

## DOMIN. IV. ADVENT.

*Venit Joanes predicans baptismum penitentiae in remissionem peccatorum. Luc. cap. 3 vers. 3.*

Gaurco Evangelijuan daucagu San Juan Bautistia Jesu Christori bidiaac prestatan. Eta celan prestatan dituz? Penitencija predicadubagaz, berau dalaco bide onetaco estropezubac, ceinzuc dirian pecatubac, quencen dituzana. Auxe berau nai neuzquezube predicadu nie bere, eta izanic pecatuben damu benetacua onetaraco biarren dan gaurcia, esango deutzubet cer dan pecatuben damuba. 18 *Verbal. 1 lib. 182 orrija.*

*Erunt prava in directa, et aspera in vias planas. Ib. v. 5.*

Jesu Christo mundura etorri baño leenago zarraturic egozan ceruraco bidiaac. Etorri zan Jesus ona, eta ez bacarric idigni cituzan bide onec, baita bere bigundu, eta lautu cituzan Sacramentuben bitartez. Alambere astun, eta garratz eguiten jacan guizonaren argaltasun, eta astuatasunari Jaunafi cutzan zorra penitencijaren bitartez paguetia. Icusiric Elexa Ama erruquiorrac bere semien atzeracuncia bide onetatic ibilteco, eguin dan aleguina bide au bigunduteco Indulgencijac autortu, edo concedidubagaz. Jaquin daguizuben bada cer dan Indulgencija, eta celan irabasten dan, azalduco deutzubet. 22 *Verb. 1 lib. 223 orrija.*

*Erunt prava in directa &c. ut supra.*

Orainguino bide eguerra izan dana arteza izango da,

## V.

eta bide latz, eta garratza bigun eta celai biurtuco da, ci-  
rautzen San Juanec Judegubai. Auxe borau dirautzubet  
zubei. Ceubec benetan nai badozube, orainguino pecatu-  
bacaz oquerturic erabili dozuben bidia arteza izango do-  
zube. Eta badaquizube celan? Confesetan bazare gogarte,  
edo propositu sendo, eta irme bategaz. Orregaitic nua  
esatera celacua izan biar dan confesinoera eruan biar do-  
zuben proposituba. 19 *Verb. 1 lib. 193 orrija.*

## DOMIN. INFRAOC. NATIV.

*Maria mater ejus. Luc. cap. 2 vers. 33.*

Ce egun gozuac Jesusen jaijotzacuac? Eurretan bete  
dira Aitalenen, edo Patriarquen gurarijac, Igarla, edo  
Profeten escarijac, eta anchinaco leguoco santu gustijen  
erregubac. Etorri da Salvaguilia mundura; gucugaz dau-  
cagu Jaungoicua, eta beragaz ecarti denzcuz luurrera ce-  
ruco ondasun gustijac. Eguija auxe gaur adi eraso nai  
neuzquezube azalduhagaz bere araguiguinza, edo Encar-  
nacioeco misterijua. 5. *Verb. 1 lib. 4 orrija.* baita jaijot-  
zacua bere. 6 *Verb. 54 orrija.*

*Perfecerunt omnia secundum legem Domini. Ibid. vers. 39.*

Gaurco Evangelijuac dirauzcu Jesus, Marija, eta Je-  
sepec eguin eveela ciatz Jaungoicuaren leguiac agundu-  
ten evan gustija; au da, juan ciriala Jerusalengo Elexa,  
edo Templura Jesus eruatera, eta opa, edo ofricidu ci-  
tubezala usacume bi, eta beste umeguin barriai aguindu-  
ten jaquena. Jarraitu deijogun Jaungoicozco echadi, edo  
familija oni, eta leguiac aguindu deigunian meza enzu-  
ten, enzun daigun al daigun devocinoeric andijenagaz.  
Elexa Ama Santubaren lenengo aguindu auxe gura deut-  
zubet azaldu. 45 *Verb. 2 lib. 197 orrija.*

*Ana loquebatur de illo omnibus, qui expectabant redemp-  
cionem Israel. Ibid. vers. 38.*

## VI.

Gaurco Evangelijuan daucagu Ana emacume Igarla, edo Profetia mirari arrigarrijae esaten Jesus gaitic. Baña norzui? Ez edonori, ez Jaungoicuagan ichoromien, edo esperanzaric ez euquenai, equijalaco alper alper dala Jaunaren mirarijae esatia virtute au eztauquenai. Orra ce gauza biarra dan esperancia. Auxe nua azaldutera. 28 *Verb. 2 lib. 11 Orrija.*

## DOMIN. POST CIRCUNC.

*Surge, et accipe puerum, et matrem ejus, et vade in terram Israel. Math. cap. 2 vers. 20.*

Izanic Jesu Christo Jaungoico benetacua esan zatequian ez eguala Aingueruben esanen biarric, ez Isitura igues eguiteco, ez andic biurtuteco; bada esanagaz Jesussec guazan Isitura, guazan Judeara, eguingo zan bere vorondatia; baña nai izan euan Jaunac San Josepec echeco buru, eta nagusi leguez aguindu eguijan bata, eta bestia, berari etorquijolaco Jesus, eta bere Amaren arduria, eta onei San Joseperi obedietia. Emenche ezagutuco dabe senarrac celan amadu biar ditabeezan euren emastiac, eta emastiac celan obediu biar deutzen euren senarrai. Orra ce doctrina gura dodan azaldu. 26 *Verb. 1 lib. 265 orrija.*

*Surge accipe: ut supra.*

Ce bat eguinic egozan Jesus, Marija, eta Jose ceruco Aitaren vorondatiagaz! Irurac cirian munduban inos aurquitu, eta aurquituco dirian Jaungoicozcuenac, eta iragoric aibat neque, alan Isitura igues eguiteco, cein da andic biurtu, eta Nazateta juateco, ez jaquen inos mutic bere enzun. Equijeti auxe zana Aita beticuaren vorondatia, eta auxe eben asco neque gusti oneec poz podic iragoteco. Auxe berau jazoco litzateque gugaz bere nai baguendu benetan Jaunaren vorondatia eguin dedin celan ceruban alan laurrian, iragarren Aita gureco escabi-

## VII.

dian dinoguna leguez. Auxe da gaur azalduco dodan doctrinia. 50 *Verb. 2 lib. 249 or.*

## DOMIN. INFRAOC. EPIF.

*Aseendentibus illis Jerorolimam secundum consuetudinem diei festi. Luc. cap. 2 vers. 42.*

Gaurco Evangelijuac dirauzcu Jesus, Marija, eta Jose juan oi ciriala Jerusalenera Pascuetan jai andi au gordetara, Jaungoicuac aguinduten evan moduban. Ce ejempluba emoten deutzen Christinaubai echadi, edo familia Jaungoicozeo onec! Jarraitu deihozuben enzuzube cer galazoten daben Jaungoicuaren leguoco irugarren aguindubac. 33 *Verb. 2 lib. 66 or.*

*Requirebant eum inter cognatos, et notos. Ibid vers. 44.*

Celaco arduriagaz, celaco neque, eta atsacabiagaz ibili cirian Marija, eta Jose Jesusen bila Jerusalenen escutadu jaquenian? Emetic ezagutuco dabe gurasuac, celaco arduria euqui biar dabeen euren semiacaz. Alan eguin daijen adi erasoco dodaz gurasuac euren umiacganaco dauquezan biar, edo obligacinoiac. 35 *Verb. 2 lib. 89 or.*

*Et erat subditus illis. Ibid vers. 51.*

Jaungoicuaren seme benetacua daucagu gaurco Evangelijuan Marija, eta Joseren aguindupian: baña ce humil, ce aguindugarri, edo obediente? Ezta oraindio aurquitta bera baño gurasuacganaco seme men, edo obedizailiagoric. Icasi beguije semiac ceru luurren eguiliagandic euren gurasuai zor deutzen beguirane, edo errespeto, lotza, eta obediencia. Orra nire gaurco Verbaldija. 34 *Verb. 2 lib. 77 or.*

## DOMIN. II. EPIF.

*Vocatus est Jesus ad nuptias. Joan. cap. 2 vers. 1.*

Ce zorionsubac gaurco Evangelijoco estegubac? Bada euretara dei eguin jacan, eta euretan aurquittu zan.

## VIII.

Jesu Christo. Elduco balira Christinaubac esconzaco Sacramentuba arrutera biar dan gogo, vorondate, eta intencinoiagaz, dudatzaca aurquituco litzateque euren esregubetan, eta doatsu, edo bedeincatu izango litzatequez. Begnira bada ce intencinoe eruan biar dan esconzara. 25 *Verb. 1 lib. 254 or.*

*Vocatus est Jesus ad nuptias.* Ibid.

Cergaitic aurquitu nai izan zala deritzube Jesu Christo gaurco Evangelijoco estegubetan? Jaquin guenguijan bera zala Sacramentu onen ipinle, edo autore, eta orregaitic ezaguru guenguijan santuba zala, eta gauza ona escondutia. Eguija au jaquingo dozube enzunagaz cer dan esconzaco Sacramentuba. 25 *Verb. 1 lib. 254 or.*

*Haurite nunc.* Ibid. vers. 8.

Cembat postuco ete litzatequez barristadu balegui Jesu Christoc gaurco Evangelijoco estegubetan eguin euan mirarija, eta ardao biurtu baleguiz iturrietaco urac? Cembat juango elitzatequez iturri oneetara ardaoz asetera? Baña eztaue cer icharon ordijac onelaco mirariric; bada eztau Jaunac mirariric eguingo, ecandu eitalai aurrera bideric emoteco. Ezagutu daguijen ordijac ce galgarri dan ordiquerija, bere gauran izango da gaurco Platiquia. 38 *Verb. 2 lib. 121, or.*

DOM. III. EPIF.

*Ostende te Sacerdoti.* Math. cap. 8 vers. 4.

Ce icasbide, edo doctrina miragarrija emoten deuzcun Jesu Christoc gaurco Evangelijuan! Verba bategaz, eta ucutu bategaz garbituten dau aurrian ifini jacan leguendun, edo leprosua; baña alambere aguiduten deutzaz doiala, eta iracutzi deila Abade, edo Sacerdotiari. Cer deritzube esan nai izan evala onetan? Ara: adi eraso gura izan euan penitencijaco Sacramentuba. Guc uste arren

## IX.

damubaren bitartez quendu, edo garbitu jacula pecatubaren leguen, edo leproia, iracutzi biar deutzaguz Sacerdote, edo Confesoriari pecatu oneec, ciatz gustijac confesadubagaz Elexiac aguinduten daben demporan. Auxeda bere bigarren aguinduba, cein noian azaldu, edo expliquestara. 47 *Verb. 2 lib. 217 or.*

*Domine si vis potes me mundare.* Ibid vers. 2.

Ce humiltasuna gaurco Evangelijoco leguendun, edo leprosuarena! Nai leuquian garbitu eguijan Salvazailiac; baña etzan azartu mesede au escatuten, eztau beste gauzaric eguiten ezpada adoradu Jesus, eta esan: Jauna, nai badozu garbitu ninaiquezu. Emen iracasten deuzcu celacua izango dan oracinoia. Lenengo: adoradu evan Jaungoicótzat, auxeda Jaunaren izena santututia. Bigarrenengo: sinistu evan eucala escubidia gachac osatuteco, eta auxeda Jaunaren erreinuba etortia; eta irugarrenengo: ez evan urten Jaunaren vorondatetic. Orra celan eguin cituzan Aita guriaren lenengo iru escabide, edo peticinoiac; oneexec azalduco deutzubedaz. 50 *Verb. 2 lib. 249 or.*

*Tantum dic verbo, et sanabitur puer meus.* Ibid vers. 8.

Ce andija izan zan gaurco Evangelijoco Euntari, edo Centurionen fedia! Bada confesadu evan Jesusen verbat zala asco bere otsein, edo crijaduba osatuteco. Escubide andija benetan. Baña ezteuzcu guri andija eritzi biar, jaquinic bera zala cerubac, eta luurra ecerberecetic eguin cituzan Jaungoico gustiz alsu poderosua. Credoco lenengo sinistamen, edo articulu auxeda azaldu, edo explicaduco deutzubet. 1 *Verb. 1 lib. 33 or.*

## DOMIN: IV. EPIF:

*Domine salva nos perimus.* Math. cap. 8 v. 25.

Ichaz ondo, eta ecach gogor baten erdijan ito aguiñian ifinten deuzcuz Apostolubac gaurco Evangelijuac.

## X.

Jesus barriz lotan eguan chalupan bertan, euren ardura-ric ezpaleuca leguez. Baña ez olacoric. Ichiten badeutza ichasuari aserratuten, eta lotan badago bere icaslac pelleburu artian dagozan artian da, icasi daijen Jaunari erregututen euren esturetán, eta alan dacuzcu berari erreguz asi cirianian bertatic agüñdu eutzala ichaso, eta axiari, eta bigundu zala ichaso, eta axiaren aserria. Auxe berai nau dau eguin daigun güc bere gueure tentacinoe, estura, eta preminetan, eta orregaitic iracatzi euzcun esaten ez eiguzu ichi jausten tentacinoian; baña atera, edo libradu gaizuz gachetic. Escabide bi onexec azaldutia izango da nire gaurco lana. 51 *Verb. 2 lib. 259 or.*

*Textus ut supra.*

Gaurco Evangelijuac dirauzcun ecach, ichas andi, eta axe gogorra mundu onetan daucaguzan tentacinoien irudi benetaco dira, dinue Elexaco guraso, eta icaslarijac. Guizona jaijo deinic, eta il artian dirau guerra onec, ceinetan güre arerijnac beti eguiten ditubezan aleguin gustijac gu galceco. Baña nun botaten ditubezan euren indar gustijac da güre erijotzaco orduban. Orregaitic ifini euzcun Jesu Christoc Oleacinoeco Sacramentuba. Enzuzube bada cer dan Sacramentu au, eta ceinzuc dirian bere eguinza, edo efectuac. 23 *Verb. 1. lib. 233 or.*

*Textus ut supra.*

Gaurco Evangelijoco Apostoluben estura, eta premia izan zan güc mundu onetan daucaguzanen irudi benetaco bat, dino San Bernardoc, eta alan dirauzcun, Apostolubac Salvaguiliari esan eutzena leguez: salva gaizuz Jauna, bestelan galdubac gara, alainche esan biar deutzagula gueure Aingueru guardacuari. (1) Au uste oso batogaz esan al daiquezuben, adi erasoco deutzubet cer

(1) Bern. Serm. 12 super qui habitat.



XI.

dirian Ainguerubac. 53 *Verb.* 2 *lib.* 280 *or.*

DOMIN. V. EPIF.

*Domine nome bonum semen seminasti in agro tuo?* Math.  
cap. 13 vers. 27.

Ací ona eriten daben guizon baten irudijan ifinten ja-  
cu Jesu Christo gaurco Evangelijuan, Berac dino, bera  
etorri zala cerutic aci au guizonen vijotzetan critera: au-  
xe izan zan bere vici gustico cereguina, esatera noiana  
leguez verbaldi onetan, nun esango deutzubedan bere vi-  
citzia jaijo zanetic, eta bere pasinoeraño. 6 *Ver.* 1 *lib.* 56 *or*  
*Venit inimicus, et superseminavit zizania.* Ibid vers. 25.

Edonun, eta edoceimbera demporatan daqui demo-  
ninuac eriten guizonen vijotzetan pecatubaren zoragari,  
edo cizainia obra onenen gari artian; baña nire crichijan  
gueijen, eta sarrijen eriten dabena murmuracinoia izan oi  
da. Bildur izan zaitecen au jazo eztaquizuben, enzuzube  
cer dan. 44 *Verb.* 2 *lib.* 186 *or.*

*Sinite utraque crescere usque ad mesem.* Ibid vers. 30.

Mundu onec dirauban artian beti ibilico dira nastá-  
duric Elexa santuban onac, eta dongac gaurco Evange-  
lijoco soluan gari, eta zoragarija leguez; bada fedia cuqui  
ezquero gustijac dira Elexiaren seme, eta orregaitic dau-  
que santuben comuninoia. Cer dan Elexa au, eta Santu-  
ben comuninoia nai deutzubet adi eraso, 10 *Verb.* 1 *lib.*  
99 *or.*

DOMIN. VI. EPIF.

*Simile est regnum calorum grano sinapis.* Math. c. 3 v. 31.

Ceruco erreinubac bostatza, edo mostacia dirudi, di-  
no Jesu Christoc gaurco Evangelijuan. Bere acija da bes-  
te aci gustijetatic chiquijena; baña aci deinian da ortu be-  
dar gustijetatic andijena, eta ain modutaco arbola egui-  
ten da, ce chorijac ifinten dabe bertan euren eche vicitzia.

## XII.

Curutze Santubaren irudi vicija benetan! Ce gauza chiqui, ilun, eta lotzagarrijagoric bera baño Jesu Christoc bere vicitzia bertan galdu baño lenago? Eta ce gauza andi, miragarri, eta veneragarrijagoric bera baño Jesus maitia bertan il ezquero? Curutziaren anditasun auxe esan gura deutzubet. *1 Verb. 1 lib. 3 or.*

*Simile est regnum celorum fermento. Ibid vers. 33.*

Ceruco erreinubac urun, edo oriagaz nastadurico chanchadura, azcarri, edo lebaduria dirudi, dino Jesu Christoc. Chanchadura, edo lebadura au pusca bat baño ez izan arren, urun, edo ogui-ora gustija chanchartu, edo aciten dan. Ce ederto dirudijan azcarri, edo legama onec Altaraco Sacramentuba? Ogui copautzu bat da, eta alambere bera da asco, ez bacarric guizon bat, baita bere Elexa gustija bigundu, samurtu, eta gozotuteco. Eguija au ezagutu dagnizuben enzuzube cer dan Sacramentu mirarizco au. *15 Verb. 1 lib. 149 or.*

*Donec fermentatum est totum. Ibid eodem vers.*

Itanduten badeutzagu San Agustini cer esan nai daben gaurco Evangelijoco chanchadura, lebadura, edo legamiac, eranzungo deuzcu, dala Jaungoicuaganaco amodijua; bada berac bigundu, eta gozatuten dabena leguez oguija, alainche caridadiac bigundu, eta gozatuten dau guizonaren vijotza. (1) Alan jazo dedin zubecaz, esango deutzubet cer aguinduten deuzcun Jaungoicuaren lenengo mandamentubac. *30 Verb. 2 lib. 33 or.*

### DOMIN. SEPTUAG.

*Ite et vos in vineam meam. Math. cap. 20 vers. 4.*

Gaurco Evangelijuan adi erasoten deuzcu Jesu Christoc echeco jaun baten irudijan bere Elexiagaz daucan arduria. Beti bialduten dituz Elexa onetara biarguinac bera

(1) August. lib. 1 quest. Evang. quest. 12.

### XIII.

achurtu, nabastu; eta goldatutera. Naico dozu jaquin norzuc dirian biarguin oneec? Bada dirautzut diriala Obispo, eta Abade, edo Sacerdote, Predicadore, eta beste Elexguizonac: eurac dira Christinauben gurasuac, eta alan zor jaque obediencia, honra, eta beguirane, edo errespetua. Au obeto ezagutu daguizuben esango deutzubet cer dan ordiaco Sacramentuba. 23 *Verb. 1 lib. 238 or.*

*Quod justum fuerit dabo vobis. Ibid.*

Artestasun, edo justicijac agunduten daben gaucia da biarguinai aloguera emotia, gaurco Evangelijoco echecho aitac bere mastico biarguinai leguez. Ez bacarric gorde biar da arteztasun au gorputzeco lanetan, baita arimacuetan bere; eta alan Elexa Ama Santubac dauca ifiniric Abade, edo Sacerdote, Arima-zain, eta beste Elexguizonai amarren primicijac paguetia euren biar sari, eta alan ciatz pagadu biar jaquez. Elexaco bostgarren agundu auxen nua azaldu, edo expliquetara. 49 *Verb. 2 lib. 244 or.*

*Tolle quod tuum est. Idid vers. 14.*

Echecho Jaunac gaurco Evangelijuan aloguereco bati esan eutzana esan biar leuzquiyo bacochoac bere burubari: artu eguizu ceuria dana: au da, ez eguizu artu inoena; bada artu arren ecin inos ceure eguin cinaique. Jaungoicuaeren legueco zaspigarren agundu auxen azaldu gura deutzubet. 41 *Verb. 2 lib. 154 or.*

### DOMIN. SEXAG.

*Exiit qui seminat seminare semem suum. Luc. 8 vers 5.*

Urten evan eriliac bere acija eritera, dino gaurco Evangelijunac. Aci au da doctrina Christinauba. Au icasten dabenac eriten dau ceruco aci au bere vijotzian, eta eguiten badan berac dirautzana artuco dau santatasuneco frutu ugari, eta gozua. Alan eguin daguizuben enzuzube Christinaubac doctrina christinauba jaquiteco daucan bi-

*Eguin  
eguipude*

XIV.

ar, edo obligacinoia. 2 *Verb.* 1 *lib.* 12 *or.*

*Aliud cecidit inter spinas, et simul exorta spina suffocaverunt illud.* Ibid vers. 7.

Gaurco Evangelijuan dirauzcu Salvaguiliac, cegaitic ascoren vijotzian eztabeen fruturic emoten sermoiac, eta da aci au aranza artian jausiric sasitziac itoten dabelaco an jausirico garauba. Itandu deijogun Salvaguiliari cer dirian aranza, eta sasitza oneec? Berac dirauzcu: diriala ondasunac batuteco ardura larreguija, ceinec daruazan asco eta asco bide bagaco saldu crosi, eta artu emon oquerretara. Orregaitic da gauza gustiz biarra zubei adi erasotia onetan dagozan pecatubac. 42 *Verb.* 2. *lib.* 164 *or.*

*A voluptatibus vitæ euntes suffocantur.* Ibid.

Jesu Christoc dirauzcu gaurco Evangelijuan: gurari citaletan vici danac Jaungoicuaaren verba, eta sermoiac enzun arren eztabela arimaco fruturic emongo. Orregaitic ceruraco fruturic ecarri gura dabenac eci beiquez bere araguijaren gurarijac. Au eguingo dozube sarzaijeraric emoten ezpadeutzazube pensamentu loijai. Onexen ganian verba eguingo deutzubet. 39 *Verb.* 2 *lib.* 132 *or.*

DOMIN. QUINQ.

*Filius Hominis tradetur gentibus, et occident eum.* Luc. 18 vers. 32.

Gaurco Evangelijuan dirauzcu Jesu Christoc bere negargarrizco pasinoe, eta erijotzan iragoco evan gustija. Gure Elexa Ama Santubac gura deuzcu barriztadu gomuta au gaur. Auxe beran nai neque nic bere, eta alan ifinico deutzubet aurrian pasinoe, eta erijotza au. 7 *Verb.* 1 *lib.* 64 *or.*

*Cæcus sedebat secus viam.* Ibid vers. 35.

Eztaquigu nor zan gaurco Evangelijuac dirauzcu bide onduan eguan ichuba, baña dino San Gregorio

XV.

andijac: (1) lenengo gurasuen pecatubagaz ichuturico guizonen irudi benetaco bat zala; eta Jesu Christoc ichu an arguitutia, Jesu Christoc gu pecatutic bere graciazagaz ateratiaren irudija. Mesede pare baga au ezagutu daguizuben esango deutzubet lenengo, cer dan pecatu originala. 11 *Verb.* 1 *lib.* 107 *or.*: esango deutzubet guero cer dan graciaja. 12 *Verb.* 1 *lib.* 121 *or.*

*Jesu fili David miserere mei.* Ibid vers. 38.

Ichu bat Jesu Christori erreguz daucagu gaurco Evangelijuan. Nai leuquian icusi, gurari onegaz diadar eguiten evan: Jesus Daviden semia erruqui nizaz. Beguita, esan eutzan Jesusec, eta beste baga ecusan. Auxe beran escatu biar leuzquijue Salvaguiliari pecatubaren ichumen-dijan dagozanac. Baña ce atzeracunza negargarrija ascorenena? Naijago dabe ichuric egon ariman, Jaunari penitencijaren bitartez graciajaco arguija escatu baño. Icusiric Elexa Ama Santubac bere seme oneen sortasuna, aguin-duten deutze urtian bein guichienez confesadu deitezala. Aguindu auxe nai deutzubet gaur predicadu. 47 *Verb.* 2 *lib.* 217 *or.*

DOMIN. I. QUADR.

*Ductus est Jesus in desertum a Spiritu.* Math. cap. 4 v. 1.

Basamortu itzalsu baten daucagu Jesus gaurco Evangelijuan. Baña cetara doiala esan guinaique Jaungoico pecaturic ecin euqui leiquiana lecu bacar atara? Berroguen eguneco penitencija eguitera. Gauza lotzagarrija benetan pecatari astun penitencijaric eguin gura eztabenenzat, icusiric Jaungoico eguijazcua penitencija eguiten inoen pecatubac gaitic, ez berac eguin nai izafia beracgaitic. Lotzatu gaitazan penitenciraco daucagun atzeracunziagaz, eta vizturic Salvaguiliaren ejemplubagaz eguin dai-

(1) Gregor. Hom. 2 in Evang.

## XVI.

gun gneure pecatuben penitencija. Enzuzube cer dan Sacramentu au, eta cer dan ondo confesetaco biar dan lenengo gaucia. 17 *Verb.* 1 *lib.* 171 *or.*

*Cum jejunasset quadraginta diebus, et quadraginta noctibus postea esuriit.* Ibid vers. 2.

Nor arrituco ezta enzunic Evangelijuan gosiac ilic daguala araco Jaungoico guizon, abere, chori, eta arrainac janariz aseten dituzana? Eta alambere ain astun eguingo jacu baru eguin, eta gose pusca bat iragotia? Aimbeste achauquijaren hilla ibilico gara baru ez eguiteco? Neure Christinaubac jarraitu deijogun pecatarijoc pecaturic ez eucanari, eta baru daigun Elexa Ama Santubac aguinduten deuzcunian. 49 *Verb.* 2 *lib.* 238 *or.*

*Dominum Deum tuum adorabis, et illi soli servies.* Idid vers. 10.

Ce lotzabaquerija demoninuarena! Jaungoicuaren semiari dirautza adoradu daguijala: beste onembeste dirauzcu guri bere peccatura tentetan gaituzan gustijan; baña eranzun deijogun Jesusec eranzun eützana: esanic dago; ceure Jaun Jaungoicua adoraduco dozu. Jaquin daguizuben cer aguinduten jacun verba oneetan, enzuzube cer aguinduten deuzcun Jaungoicuaren legueco lenengo mandamentubac. 30 *Verb.* 2 *lib.* 33 *or.*

### DOMIN. II. QUADR.

*Duxit illos in montem excelsum seorsum, et transfiguratus ante eos.* Math. 17 vers. 1.

Erraz jacan Jaunari ibar baten iracustia S. Pedro, Santijago, eta S. Juani mendi baten gan ganian aguertu zan cerubaren irudija aibat aldatz pica irago eraso baga; baña adi eraso gura izan euzcun, ecin inor eldu leitequiala ceruco atzeguinetara penitencijaco aldatz garratza irago baga. Penitencija au benetacua izateco aurquitu biar da

XVII.

pecatubaren damubagaz; bada au baga alperric eguingo dira gorputzeco penitenciaric andijenac, eztabe ecer valijoco santu gustijen gaubela', baru, eta miragarririe andijenac. Orregaitic azalduco deutzubet ondo confesetaco biar dan bigarren gauza au. 18 *Verb. 1 lib. 182 or.*

*Domine bonum est nos hic esse, Ibid vers. 4.*

Celaco poz, atzeguin, eta olguraz beterie etzan egongo S. Pedro araco icusi eguijarian bere Maesuba arpegui egusquiya baño arguijago, eta soñeco eurra baño zurijagaz? Mirari au icusten egoteco guraritan isioric dirautza bere Maesubari: Jauna, gagozan emenche. Dudatza edonoc esango evan beste onembeste an aurquitu balitz. Nai badozu Christinauba orduco mirariya icusi, egunian egunian barristadu cinaique poz au. Viztu eguizu ceure fedia, eta edocean mezatan icusico dozuz arimaco beguijacz mendi ataco mirarijac. Alan eguin daguizun, enzuzu meziaren anditasun miragarriya. 46 *Verb. 2 lib. 207 or.*

*Hic est Filius meus dilectus. Ibid vers. 5.*

Ce verba gozo, eta estitzubac enzuten eztira Aita betico, edo Eternuaren aotic gaurco Evangelijuan? Auxeda, dino, neure seme maite nogan betetan jatan neure gogua. Norgaitic dino au Jaungoico andijac? Dudatzaca araco seme beragaz izate bat euquiric guizon eguinagaitic. Eguiya au sendo eta irme sinistu guenguijan, aurquitu cirian testigu ez bacarric iru icasla, edo discipulubac, baita bere Moyses, eta Elias, mundu gustijac sinistu eguijan eguiya au, eta sendo egon guendizan Jesu Christo Jaungoico eguijazco, eta guizon eguijazco dala. Orra gure fediarene sustraiya, cein artu guenduban bautismuan, eta ceinetan sendatu guenduzan confirmacinoeco Sacramentubac. Sendo egon zaitecen fede onetan, eta jaon daizuben orduban emon cenduban bai, edo promesia, esango

## XVIII.

deutzubet cer dan confirmacinoeco Sacramentuba, baita bere cer esan gura dabeen bautismo, eta confirmacinoeco ceremonijac. 14 *Verb. 1 lib. 138 or.*

### DOMIN. III. QUADR.

*Invenit eam scopis mundatam, et ornatam.* Luc. cap. 11  
vers. 25.

Eztau nai Jaungoicuac erdiz erdi emoten jacan vi-  
jotzic, eztau artuco oso osoric emoten ezpajaca. Berac di-  
rauzcu gaurco Evangelijuan. Nigaz eztabilena nire areri-  
jo da. Auxe da penitencijaco Sacramentuban jazoten  
dana. Alperric eguingo dau confesetan danac examinaric  
ciatzena, alperric confesaduco dituz pecatu gustijac bape-  
re ichi baga, alperric eguingo dituz penitencijaric icara-  
garrijenac, ezteutze ecer valijoco ezpadauca pecatu, eta  
pecaturaco pelleburu gustijac ichiteco gogarte, edo pro-  
positu sendorie. Ara bada celacua izan biar dan proposi-  
tu au. 19 *Verb. 1 lib. 193 or.*

*Locutus est mutus, et admiratæ sunt turbæ.* Ibid vers. 14.

Mesede andija izan zan Jesu Christoc gaurco Evan-  
gelijoco mutubari eguin eutzana verbetia emonagaz; baña  
nire erechijan andijagua izango litzateque ascori eguingo  
leuzquijona mututuric ifinijagaz, orregaz ez litzatequez  
enzungo aimbeste birao, aimbeste maldicinoe, eta aim-  
beste aneniño. Pecatu caltegarri auxe azaldu, edo expli-  
cadu gura deutzubet. 37 *Verb. 2 lib. 111 or.*

*Cum spiritus immundus exierit ab homine.* Ibid vers. 24.

Izen ascogaz dei eguiten jaca demoninuari Escritura  
Sagraduban: baña gaurco Evangelijuan dei eguiten deut-  
za Jesu Christoc espiritu loi, eta atsituba. Eta cergaitic?  
Araguijazco pecatu ciquinagaz guerraric vicijena eguiten  
deutzalaco guizonari, eta beronegaz gueijenac goitu, edo  
yencietan dituzalaco. Orregaitic pecatu onec arduraric



## XIX.

andijena emon biar deuzcu, beraganic igues eguiteco. Alan eguin daizuben esango deutzubet celan garbi izan biar garian itzcune, edo verba, eta eguinza, edo obretan. 40 *Verb. 2 lib. 143 or.*

### DOMIN. IV. QUADRAG.

*Videbant signa magna, quæ faciebat super his, qui infirmabantur.* Joan. cap. 6 vers. 2.

Gaurco Evangelijuac dirauzcu Jesu Christoc mirari andijac eguiten cituzala guexuen ganian, eta euracaz osatuten cituzala; baña andijac bacirian orduban eguiten cituzanac gorputzac osatuteco, andijaguac dira egunian egunian eguiten dituzanac arimac osatuteco. Onetaraco nai dau, orduban guexuac escatu, eta ce gach modu euguen esaten eutzena leguez; alainche orain arimaco gachac osatuteco, gura dau berari erregutu, eta ce gach modu daucan bacoachac esan deijon. Au eguingo dozu Confesoriari ceure pecatubac confesadubagaz. Auxe da confesinoe on bat eguiteco biar dan laugarren gaurcia. 20 *Verb. 1 lib. 202 or.*

*Cum gratias egisset distribuit discumbentibus.* Ibid vers. 11.

Mirari andija benetan gaurco Evangelijuan daucagun! Bost ogui, eta arrainchu bigaz aseten dituz Jaunac bost mila guizon. Arrituten zaituz mirari onec? Bada gustiz da andijagua Jaun onec egunian egunian eguiten dabena altaraco maijan; bada ogui copauchu bategaz aseten dituz aibat mila milinoe arima. Mirari onen anditasuna ezagutu daguizuben esango deutzubet cer dan altaraco Sacramentuba. 15 *Verb. 1 lib. 149 or.*

*Erat proximum Pascha dies festus Judeorum.* Ibid vers. 4.

Urrian zan Pascuaco jaija, cein zan jairic andijena Judgubenzat, Jesusec ase cituzanian bost mila guizon bost ogui, eta arrainchu bigaz; dirauzcu Evangelijuac. Jai

## XX.

onetan ecin biarric eguin leijen Judegubac, orain ecin dabeena leguez Christinaubac jaijetan. Jaquin daguizuben ce biar modu galazoten jacun jaijegunetan nua adi erasotera. 33 *Verb. 2 lib. 66 or.*

## DOMIN. PASSION.

*Quis ex vobis arguet me de peccato?* Joan. cap. 8 vers. 46.

Ce zorionecuac izango guinatequezan esan albaguinaijo demoninari Jesu Christoc gaurco Evangelijuan bere arerijuai cirautzena: nor zuben artecoric azartu, edo atreviduco da esaten pecaturic daucadala? Etzaca erraz guizon aragui argalez jancijari. Alambere aleguina bada-gui Jaungoicuaren gracijagaz ondo confesetaco, eta betetan badau osoric emoten jacan penitencija, esan leijo Christinaubac diabrubari, eztaucala cegaitic salatu, edo acusadu leijan. Alan esan al daizuben, azalduco deutzubet celan bete, edo cumplidu biar dozuben penitencija. 21 *Verb. 1 lib. 213 or.*

*Vos inhonorastis me.* Ibid vers. 49.

Cembat Christinauri esan ete leijue Jesu Christoc Judegubai gaurco Evangelijuan dirautzena? Zubec deshonetan nozube. Bai neure enzula maitiac. Asco eta asco dira guzurrezco juramentubac eguiten ditubezanac, eta au ezta beste gauzaric ezpada Jaungoicuaren izen santuba deshonetia. Bildur izan zaitecen onelaco lotzabaqueri-jaric Jannari eguiten, enzuzube cer dan juramentuba. 32 *Verb. 2 lib. 55 or.*

*Nunc cognovimus quia Daemonium habes.* Ibid vers. 52.

Eztago munduban gauza charragoric mijn donguia baño, dino Santijago Apostolubac. (1) Eztago inor bera-gandic seguru, ez bacarric lurrian, ezta ceruban bere. Ezteutza Jaungoicuari berari bere parcatuten. Gaurco

(1) Ep. Jacobi. cap. 3 vers. 8.

## XXI.

Evangelijuan daucagu eguija au. Celaco lotzabaquerijac ez deutzez esaten judegubac Jesu Christori? Samaritarra, demoninua daucana, guzurti, arro, eta aora datorquiuen gustija. Orra noraino eldu leitequian mijn donguia. Eci daizuben ceuben mijna, enzuzube cer aguinduten daben Jaungoicuaren legaeco bostgarren mandamentubac. 36  
*Verb. 2 lib. 100 or.*

### DOMIN. PALMAR.

*Ecce Rex tuus venit tibi. Math. cap. 21 vers. 5.*

Celaco poz, atzeguin, eta vijotz gozuagaz arcen ezta-  
 be Jerusalemarrac Salvaguilia euren urijan? Alainche gue-  
 bere artu biar gueunque Jaungoico auxe berau gure bu-  
 larrian; bada esanic beuquen Igarla, edo Profetac jude-  
 guben oneraco etorquela euren erregue, auxe berau di-  
 rauzcube guri bere; eta alan gure gurari gustija izan biar  
 litzateque ceruco erregue auxe gueure bularrian arceia.  
 Auxe berau nai leuque gure Elexa Ama Santubac bere;  
 baña icusiric bere semion oztasun, eta atzeracuncia erre-  
 gue au arceco, aguinduten deutze guichienez comulgadu  
 deitezala Pascuetan. Aguindu auxe nua adi erasotera;  
 eta viztu zaitezen aimbat sarrijen comulguetara, esango  
 deutzubet cembat ondasun miragarrizco datoza oitura  
 onetatic. 48 *Verb. 2 lib. 228 or.*

*Salvite, et aducite mihi. Ibid vers. 2.*

Zuace urrian daucazuben baserrira, ascatu eguizubez  
 loturic aurquituco dituzubezan asteme, eta bere umia, eta  
 ecarri eguidazubez, esan eutzen Jesusec bere icaslai. Ala-  
 inche eguin eben. Orduban Apostolubac eguin eveena  
 abere bi arecaz eguiten dabe orain Abade, edo Sacerdo-  
 tiac pecatarijacaz. Onec daucaz demoninuac loturic, eta  
 ascaturic daruez Sacerdotiac Jesu Christogana. Escabide  
 auxe adi erasoco deutzubet azalduric credoco amargarren

## XXII.

sinistamen, edo articuluban, ceinetan dinogun daguala  
Elexan pecatuben paracainoia. 11 *Verb. 1 lib. 107 or.*

*Passio Domini nostri Jesu Christi secundum Matheum*  
cap. 26 vers. 2.

Elexa Santubac ifintén deuzcun ezquero gaur Jesu  
Christoren Pasinoia, esan gura deutzubet auxe berau la-  
burrian baño ezpada bere. 7 *Verb. 1 lib. 64 or.*

### DOMIN. RESSUR.

*Surrexit. Math. cap. 16 vers. 6.*

Ce egun gozua gaurcua! Ce egun pocezcu! Amañ-  
tu cirian Salvaguiliaren nequiac, eta aspiraturic demoni-  
no, infernu, eta erijotzia urten dau ilen arteric ateraten  
gaituzala gu bere pecatubaren obipe, edo sepulturatic,  
Jaunaren viztute, edo erresurrecinoeco misterijo auxe  
izango da azaldu, edo explicaduco deutzubedana. 8 *Ver.*  
*1 lib. 77 or.*

*Præcedet vos in Galileam, ibi eum videbitis sicut dixit vo-*  
*bis. Ibid vers. 7.*

Ce esperanza gozuac emoten deutzezan iru Marijai  
Ainguerubac. Zuace dirautze Galileara, ainche icusico  
dozube zubez billatuten dozuben Jesus, berac esanic deut-  
zubena leguez. Ichoromen, edo esperanza auxe berau eu-  
qui biar dogu Christinaubac Jesus lastana ceruban icus-  
teco; bada deuzcu esanic ainche icusico dogula. Esperan-  
za au viztu daguizuben esango deutzubet cer dan virtu-  
te au, eta celacua izan biar dan. 28 *Verb. 2 lib. 11 or.*

*Surrexit. Ibidem.*

Esanagaz Ainguerubac iru Marijai viztu zala Jesu  
Christo esan eutzen Jaungoico eguijazcua zala; bada ez  
izanic, ecin bere buruba viztu, edo erresucitadu leijan, es-  
cubide au Jaungoicuarena bacarric dalaco. Auxe da Cre-  
doco bigarren sinistamen, edo articuluba, cein noian

## XXIII.

azaldu, edo expliquetara. 5 *Verb. 1 lib. 43 or.*

## DOMIN. IN ALBIS.

*Sicut misit me Pater, et ego mitto vos.* Joan. cap. 20 v. 21.

Ni Aitac bialdu nindubana leguez bialduten zaitubedaz nic bere zubez, dirautze Jesusec bere icaslai. Eta cetera bialdu euan ceruco Aitac bere semia mundura? Bere leguia iracastera. Onetaracoxe bada bialduten dituz Jesusec bere icaslac. Legue, eta doctrina auxe da guizon gustijac jaquin biar dabeena. Orra cer predicadu nai deutzubedan, atz da: Christinaubac jaquin biar dau doctrina Christinauba. 2. *Verb. 1 lib. 12 or.*

*Noli esse incredulus sed fidelis.* Ibid. vers. 27.

Ce gogortasuna Santo Thomasena! Dirautze beste Apostolubac icusi dabeela euren Maesuba vizturic. Aintche egon dala euraez; baña ezteutze sinistu gura berac. Lenago sinistuco dau gustijac dinuela guzurra, bere critzija ichi baño. Orra ce sustrai, edo fundamentu бага euzqui cituzan guzurtitzat beste Apostolu gustijac. Auxegaitic aguiraca eguin eutzan Jesusec esan eutzanian: etzaittequez izan sinisezcorra, leijala baño. Onelaco juicijoric eguin eztaizuben, enzuzube zorcigarren aguiduba. 43 *Verb. 2 lib. 175 or.*

*Beati qui non viderunt, et crediderunt.* Ibid. vers. 29.

Verba guichitan adi eraso euan Salvaguiliac fediaten anditasuna esan eutzanian Santo Thomasi: doatsubac icusi бага sinistu dabeenac. Fediaten anditasun auxe nua zubei azaldu, edo expliquetara. 27 *Verb. 2 lib. 2 or.*

## DOMIN. II. PASC.

*Ego sum Pastor bonus.* Joan. cap. 10 vers. 11.

Neu naz arzain ona, dino Jesusec gaurco Evangelijuan, eta daucadaz neure ardijac. Verba oneetan adi erasoten deuzcu Jaunac ce ardura andija daucan bere aguita-

## XXIV.

dura dagozanacaz. Ejemplu onixe jarraitu biar deutzeguru rasuac euren umien aciqueran, esatera noiana leguez Verbaldi onetan. 35 *Verb. 2 lib. 89 or.*

*Cognosco oves meas. Ibid.*

Beti iracutsi da Jesu Christo eta iracusten da orainche bere gure arzain on; baña ez inun obeto Mezaco demporan baño. Ordubanche barristetan ditu gure oneraco eguin dituzan mirari gustijac; ifinten deuzcu biar dogun janari, eta edarija, eta beinguan esaterren, eguiten dau gugaz arzain arduratzu batec bere ardiacaz eguin leiquian gustija baño gueijago. Au ezagutuco dozube jaquinie meciaren auditasuna. 46 *Verb. 2 lib. 207 or.*

*Fiet inum ovile, et unus pastor Ibid. vers. 16.*

Jesu Christo lurrera etorri artian ez eguan Jaunaren ardiric Judean baño; baña goituric edo venciduric Salvaguiliac pecatuba bere erijotziagaz, mundu gustitic asi cirian Jaunagana ardiac batuten. Auxe dino gaurco Evangelijuan; beste ardi abeleche onetacuac eztirianac dauca-daz: arec bere ecarri biar neuquez, gustijac eguin daijen arditegui bat arzain baten beian. Orra cer dan Elexia, eta bertan daguan Santuben comunioia. 10 *Verb. 1 lib. 99 or*

## DOMIN. III. PASC.

*Vado ad Patrem. Joan. cap. 16 vers. 16.*

Ce necatu, eta tristeric gueratuco etzirian icaslac esan eutzenian Maesubac bera baga gueratutera juazala. Icusiric Jesusec bere Icaslen atzacabe au poztu gura dituz esanagaz: conveni jatzube ni juatia; bada nua zubezgaitic erregututera, baña nori? Zeuben Aita gustiz lastan, eta maitte zaituzanari, ceinec etzaituzan bacarric ichico, berac euquico dau zubeacaz ardura andija. Eztaigun uste Apostolubai bacarric esan eutzela au Salvaguiliac, dirauzcu guribere, eta alan euqui biar dogu uste oso bat Aita ceruban

daucagan onegan. Uste au viztu daguizuben adi erasoco deutzubet ce Aita maitetsuba dan Jauna. 50 *Verb. 2. lib.*

249 *or.* *Mulier cum parit præsura[m] habet.* Ibid vers. 21. *ibid*

Emacumia seina eguiten daguan artian estura gogorian dago, dino gaurco Evangelijuac. Gomuta balebe seme alabac euren gurasuai emon deutzezan min, lan, ardura, eta nequiac, alan mundura etorteco, cein da eurac aciteco, beti euquico leuzquijue amodijo, beguiranne, edo errespeto, eta obedienciaric humilena; bada ezagutueo leuquee ecin pagadu leijuela deutzen zorra. Eguin daigun aleguina biar au beteteco, esango dot semiac gurasuaeganao dauquezan biar, edo obligacinoiac. 34 *Verb. 2. lib.*

77 *or.* *Non meminit præsurae propter gaudium, quia natus est homo.* Ibid vers. id.

Seineguiten daguan emacumiagaz jazoten dana jazotenda Elexiagaz bere. Gembat neque, lan, ibilera, izerdi, gorse, egarri, eta beste gach icaragarri iragoten etzitubezan Apostolubac, eta iragoten eztitubez orainche bere Predicadore ascoc guizon ichubac federa ecarri artian? Baña celaco poz, eta atzeguina seme oneec bautismuaren bitartez jaijoric icusi deijezanian? Asturic ichiten ditubez neque gustijac Elexiaren seme bat jaijo dala icusi dajenian, eta eztaunquez ecetan iragorico neque gustijac. Eta badaquizube nos icusten dan jaijotza au? Bautismuan, ezagutueo dozubena leguez Sacramentu onen ganian esatera noian icasbidian. 13 *Verb. 1. lib.* 128 *or.*

**DOMIN. IV. PASC.**  
*Arguet mundum de peccato, quia non crediderunt in me.*  
Joan cap. 16 vers. 9.

Fede baga ecin Jaungoicuaren vorondatia eguin lei-

## XXVI.

tēque. Jesu Christoc dino: Espiritu Santubac iracutzico dau mundubaren pecatuba nigan sinistu ez evalaco. Onelaco aguiracarie enzun eztaiquezuben enzuzube cer dan fedia, eta cer sinistu biar dozuben. 27 *Verb. 2 lib. 1 or.*

*Arguet mundum de Justitia. Ibid vers. 10.*

Espiritu Santubac arguituco dau mundubaren oquererija, edo injusticija, dino Jesu Christoc: au da, ezagututen emongo dau ez evela pecatarijac arteztasun, edo justicijarie euqui. Justicija au austen da zaspigarren mandamentuba ez gordiagaz; jaon daguizuben, enzuzube cer agünduten daben. 41 *Verb. 2 lib. 164 or.*

*Princeps hujus mundi jam judicatus est. Ibid vers. 11.*

Celaco poza emon biar ezteuzcu gaurco Evangelijuan Jesusec dirauzcunac? Mundu onetaco lenen, edo Principia (cein dan demoninua) ija dago juzgaduric: au da: loturic, eta indar baga dago; orregaitic ecin gachic eguin leiquegu gñeuc nai ezpadogu. Baña cembat eta andijagua dan mesede au, aibat eta estubagua izango da azque-nengo egunian gueure pecatuben gamian artuco jacun contuba. Enzuzube celacua izango dan conta au. 9 *Ver. 1 lib. 89 or.*

## DOMIN. V. PASC.

*Petite, et accipietis. Joan. cap. 16 vers. 24.*

Ce verba gozuac danzuguzan gaurco Evangelijuan! Escatu eguizube, eta emongo jatzube. Ce pecatari, dan andijena izan arren, vitzuco ezta bere pecatuben paracinoia escatutera? Norc uste, edo esperanza oso bat euquico eztau enzunic Jesu Christori: escatu daiquezuben gustija emongo jatzube, bete betia izan dedin zuben poza; bada ceruco Aitac gustiz zaitubez lastan? Confianza, edo esperanza auxen sendua izan dedin zubezan, enzuzube cer, eta celacua izan biar dan. 28 *Verb. 2 lib. 19 or.*



## XXVII

Idem Ibidem.

Gure biar, edo necesidade gustijac dacuzaz Jaungoicua, eta eztauca gure erregu biarric gu euretatic aterateco; baña nai dau escatu deijogun arguijago. ezagutu daigun ez gariala gueurez euretatic urteteco duin, eta ezauera onegaz beti vici gaitezan humilduric; eta jaquin daigun cer, eta celan escatuco dogun, berac iracatzi euzcun celacua izango zan gure escabidia. Escabide au da Aitauria. Oracinoe onen zarzajera, eta bere iru lenengo escabide, edo peticinoiac gura deutzubedaz azaldu. 50 *Verb. 2 lib. 249 or.*

*Exiui a Patre, et veni in mundum; iterum relinquo mundum, et vado ad Patrem. Ibid vers. 28.*

Jesu Christoren eguinza, edo accinoe gustijac gure oneraco izan cirian. Auxe da adi eraso nai euzcuna garurco Evangelijuan cinuanian; urten neban Aitagandic, eta etorri nintzan mundura, orain isten dot munduba, eta nua Aitagana: esango baleu leguez: mundura etorri baintzan, zubezgaitic etorri nintzan; eta cerura banua zubezgaitic nua. Credoco zaspigarten sinistamen, edo articulaba jaquinagaz ezagutuco dozube eguija au. 9 *Verb. 1 lib. 85 or.*

### DOMIN. INFRAOC. ASCENS.

*Venit hora, ut omnis qui interficit vos arbitretur obsequium se prestare Deo. Joan. cap. 16 vers. 2.*

Noraino eldu zan Jadeguben arrabija, eta ichumendija Jesus, eta bere icaslen contra? Eldu cirian sinistutera, eurac il eguizanac, Jaunari honra andi bat emoten eutzala. Ichumendi gogorra benetan! Baña gogorragua oraindio bere Christinau ascorena. Cembatec ezteutze isten azur osoric euren proximuari euren min citalacaz, eta alambere dagoz sinisturic, ez bacarric eztabeela pecatu-

## XXVIII.

ric eguiten, ezpada Jaunaren vorondatia eguiten dabeela al daijen dongaro gustija esanagaz. Ascoren ichumendija auxe arguitu nai neque azaldu, eta adi erasuagaz ce gach esquerguia dan murmuracinoia. 44 *Ver. 2 li. 186 or.*

Idem Ibidem.

Noc esan leique celan ichutu cituzan Judegubac Jesus, eta bere icaslacganaco gorrotuac? Eztago gauza jaquinagoric ecin inor il leitequiala baño; eta eldu cirian guizon areec sinistutera Aita beticuaren vorondatia eguiten eveela Apostolubac ilagaz. Orra noraino eruan leiquian guizona proximuaganaco gorrotuac, eta bera ecin icusijac. Sortasun onetara eldu etzaitecen enzuzube Jaungoicuaren legueco hostgarren mandamentubac aguinduten deuzcuna. 36 *Verb. 2 lib. 100 or.*

*Hæc locutus sum, ut cum venerit hora eorum reminiscamini, quia ego dixi vobis.* Ibid. vers. 5.

Esan ezquero Jesu Christoc Apostolubai Judegubac euquico eutzeen gorrotua, eta eguingo eutzeezan gachac; dirantze: gomuta eiquezube orduban, celan esan neutzuben au gustijau irago biarco cendubela: esango baleutze legacz: jaquin eguizube ez jatorzubezala neque oneec nire vorondate baga, eta ez eguijozube gorrotoric cuqui ceuben arerijuai, ezpada amadu eiquezubez; bada dira ceuben urco, edo proximo. Auxe berau dirauzcu guri bere caridadiac aguinduten deuzcuna leguez; cein noian azaldu, edo espliquetara. 29 *Verb. 2 lib. 22 or.*

DOMIN. PENT.

*Paracletus autem Spiritus docebit vos omnia.* Joan 14 v. 26

Gaurco egunian bete, edo cumplidu cirian Jesu Christoc Apostolubai aimbat bidar eguinico isquini, edo promesac; bada bialdu eutzen Espiritu Santuba bete eguizan jaquiturija, sendotasun, caridade, iscune gusti, eta beste

## XXIX.

Elexaco lenengo arri izateco biar cirian onoidade, edo virtute gustijacaz. Izanic ain andijac Espiritu Santubac gaurco egunian Elexa Santubari eguin eutzazan mesediac, esango deutzubet cer dan Espiritu Santuba, eta cer dan Elexia. 10 *Verb.* 1 *lib.* 97 *or.*

Idem Ibidem.

Danzugunian gaurco Evangelijuan Jesu Christoc dirautzela Apostolubai Aita cerucucac bialduco deutzela Espiritu Santuba, eztoigu uste biar eurai bacarric eguin jaquela opetzi, edo promesa au, ezpada Christinau gustijai; eta orainche bere gustijacgana jatziten da; baña nun, edo nos emoten dan gustiz, edo especialmente da Confirmacinoeco Sacramentuban. Enzuzube bada Sacramentu au, baita bere Bautismo, eta Confirmacinoeco ceremonijac. 14 *Verb.* 1 *lib.* 138 *or.*

*Si quis diligit me, Pater meus diliget eum, et ad eum veniemus, et mansionem apud eum faciemus.* Ibid vers. 23.

Nor poztuco ezta Jesu Christoc gaurco Evangelijuan diruanagaz? Ni ametan nabena nire Aitac lastan izango dau, beragana etorrico gara, eta beragan vicico gara. Nor isioco ezta Jaungoicua beragan euquiteco guraritan? Noc eguingo eztau al dajian gustija, beragan Jaun ain mirariguilia euquiteco? Eta cer escatuten jaca onetaraco? Gauza gustiz erraz bar. Ezteutza Jaun onec escatuten guizonari bera maitetu dagujala baño. Ez gaitezcan bada zoruac izan: amadu daigun Jaungoicua guere vijotz gutitic, izan gaitezcan bere vici lecu. Auxe da esatera noiana lenengo mandamentuba azaldubagaz. 30 *Verb.* 2 *lib.* 33. *or.*

### DOMIN. TRINIT.

*Baptizantes eos in nomine Patris, et Filij, et Spiritus Sancti.* Math. cap. 28 vers. 19.

Gaurco Evangelijuae dirauzcu cer sinistu biar dogun

### XXX.

gaurco jaijan, eta da Irucada, edo Trinidadeco misteri-  
jua, au da, Jaungoico bat bacarric iru personetan. Orra  
cer azalduco deutzubedan. 3 *Verb.* 1 *lib.* 25 *or.*

Idem Ibidem.

Gaurco Evangelijuan iracasten deuzcu Jesu Christoc  
celan emon biar dan Bautismoco Sacramentuba. Enzu-  
zube bada cer dan eta celan emon biar dan. 13 *Verb.* 1  
*lib.* 128 *or.*

*Docentes eos servare omnia quaecumque mandavi vobis.*

Ibid vers. 20.

Bateatuten dituzubezanai aguindu eiquijazube, zain-  
du daijela nic esan deutzubedan gustija, cirautzen Jesu  
Christoc Apostolubai. Orra cer dan Christinaubac jaquin  
biar dabeena. Onetaraco gustijac icasi biar dabe doctrina  
Christinauba. Enzuzube bada celan jaquin biar dozuben.  
2 *Verb.* 1 *lib.* 12 *or.*

### DOMIN. II. PENT.

*Homo quidam fecit cenam magnam, et vocavit multos.*

Luc. cap. 14 vers. 16.

Afari baten irudijan ifinten deuzcu Salvaguiliac gaur-  
co Evangelijuan Altaraco Sacramentuban emoten jacun  
janari Jaungoicozcua, eta afari atara juan gura izan ez  
evenacaz aserratu zana leguez afarija ifini evan echeco  
Jauna; alainche aserratuten da Jesu Christo altaraco mai-  
ra eldu nai eztirian Christinaubacaz, mila achaguija bi-  
llatuten ditubezala onetaraco. Viztu zaitezen bada aim-  
bat sarrijen ceruco janari gozo au artutera juaten, esan-  
go deutzubet ce osasunsu dan sarri, comulguetia. 48 *Ver.*  
2 *lib.* 228 *or.*

*Juga boum emi quinque, et eo probare ea, rogo te habe me  
excusatum.* Ibid vers. 19.

Gaurco Evangelijoco afarijan daucagu guizonen as-

### XXXI.

tuntasunaren irudi bat. Jaungoicuac guizon gustijac eruan gura lituquez ceruco afari, eta atzeguinetara; baña ascoc eta ascoc munduco ondasunac batuterren eztave nai artu araco bidia. Onec dirudije araco bost bustarridi probetara juaterren afarira juan nai izan ez evana. Onetan aituten dira bide bagaco saldu erosi, eta artu emonacaz aberaztu gura dirianac. Onexen ganian izango da nire Verbaldija. 42 *Verb. 2 lib. 164 or.*

*Uxorem duxi, et ideo non possum venire. Ibid vers. 20.*

Eztau guizona ecec aibeste ichututen, cein da araguijazco pecatubac. Eguija au dacuzcu gaurco Evangelijoco irudi, edo parabolan, nun araco dei eguin eutzenian Jaungoicuac guizonai, pecatu loijan sarturic eguacnac cranzun evan, emastia artu dot, eta ecin juan nindeque. Igues eguin daguizuben pecatu icaragarri onetatic, esango deutzubet celan seigarren Jaungoicuaren legueco mandamentubac galazoten deuzcuzan verba, eta obra loijac. 48 *Verb. 2 lib. 143 or.*

### DOMIN. III. PENT.

*Murmurabant Pharisei, et Scribae. Luc. cap. 15 vers. 2.*

Ce zoraquerija andijagoric Phariseo, eta Escribeena baño? Jaungoico baten contra dagoz murmuretan. Baña uxala eurac baño beste murmulariric ezpalego; baña larregui dacuzcu mundu gustitic daguala zabalduric pecatucital au, eta eztaguala suguien mijn infernucotic libradu leitequianic. Pecatu onen contra predicaduco dot gaur. 44 *Verb. 2 lib. 186 or.*

*Gaudium erit in calo super uno peccatore panitentiam agente. Ibid vers. 7.*

Atzeguin, eta poz andi bat artuten dabe Cerutarrac peccatari batec penitencija eguiten dabenian, dino Jesu Christoc. Cegaitic bada ucatu, edo guichienez luzatu nai

## XXXII

deutzezu Jaungoico, Aingueru, eta Santubai poz au penitencia egunerie egunera ichijagaz? Etzaitetz ain esquer dongaco izan aibat mesede eguin deutzuzan Jaunagaz; emon eijozu gozo au aibat sarrijen confesadubagaz, eta onetara viztu zaitezan, enzuzu cembat on dacarzan sarri confesetiac. 47 *Verb. 2 lib. 217 or.*

*Gaudium erit coram Angelis Dei.* Ibid vers. 10.

Ezagutu nai badogu ce amodijo erre, eta vicija deuzcuben Ainguerubac guizonoi, eztaucagu enzun baño Jesu Christoc dirauzcuna gaurco. Evangelijuan: araco peccatari batec penitencia eguiten dabengan poz gustizco bat arcen dabe Ainguerubac. Emetic ezagutu cinaique ce mesede andija eguin euzcun Jaunac guizon bacochari Aingueru guardacua emonagaz. Auxe izango da nire Verbaldija. 53 *Verb. 2 lib. 280 or.*

DOMIN. IV. PENT.

*Per totam noctem laborantes nil cepimus.* Luc. cap. 5 v. 5.

Alperric eguingo dau guizonac bere aleguin gustija aberastuteco, ezpadago Jaungoicua beragaz eztau ecer aurreratuco, eta esan biarco dau San Pedrogaz; gau gustijan necatu arren arrain arcen bapere eztogu artu. Auxe jazo oi jaque ascori eta ascori: beti dagoz nequepian, eta dabilz aticaturic inoona quencen, eta azquenez urtic aurquituten dira, Jesu Christoren izenian aleguin oneec eguiten ezitubezalaco; bada berac au galazoten dau bere legueco zaspigarten aguinduban. Aguindu auxe nai deutzobet azaldu. 41 *Verb. 2 lib. 154 or.*

*Exi a me, quia homo peccator sum Domine.* Ibid vers. 8.

Arritu, eta bildurrez icata San Pedro Jesu Christoc bere chalupan eguin euan mirijagaz, humilduric lurrerano uste izan euan ez evala mereci alaco Jaun mirariguille bat bere chalupan euquitia, eta alan echunic bere one-

### XXXIII.

tan dirautza: Jauna urten begui nire chalupatic; bada ni peccatari andi bat naz. Cembat eta S. Pedroc baño obeto esan biar gueunque araco Jaun andi au gugana datorrenian: eztot nic Jauna mereci berori nigana etortia? Cembat eta Apostolu onec baño errazoe andijaguagaz esan biar eztogu: Jauna peccatari andi bat naz? Ezauera onegaz humilduric eguin daigun aleguina gueure arimia garbitu, eta al daigun onduen vici lecuba Jaunari prestetaco. Au celan egingo dozuben izango da nire gaurco lana. 16 *Verb. 1 lib. 160 or.*

*Relictis omnibus secuti sunt eum. Ibid vers. 11.*

Eztaigun uste, neure Christinaubac, Apostolubac bacarric ichi biar ditubezala euren gauzac Jesu Christori jarraituteco. Cerura eldu nai dabeen gustijac ichi, bota, eta galdu biar ditubeez mundu onetaco ondasun, anditasun, eta diñaderic andijenac, Jesu Christori jarraitutia galerasoco badentze; eta auxe da Jaungoicua ameria gauza gustijen ganian, lenengo mandamentubac aguinduten deuzcuna leguez, cein noian azaldu, edo expliquetara. 30 *Verb. 2 lib. 33 or.*

### DOMIN. V. PENT.

*Non occides. Math. cap. 5 vers. 21.*

Verba guichitan ifinten jacu gaurco Evangelijuan Jaungoicuaren legueco bostgarren aguinduba; bada dino: ez eiquezu il. Baña eztogu uste biar ez jacula verba onetan beste gauzaric galazoten inor iltia baño; bada cragozten bere jacu gach eguitia, gogoz, verbaz, eta obrax, azaldu, edo expliquetara noiana leguez. 36 *Verb. 2 lib. 100 or.*

*Omnis, qui trascitur fratri suo reus erit Judicio. Ibid v. 22.*

Jaungoicuaren legueco bostgarren aguinduban galazoten jacuzan gaucen artian bat da biraua. Auxe berau

## XXXIV.

eragotziten deuzcu Jesu Christoc gaurco Evangelijuan, esanagaz: bere urco, edo proximuaren contra irrituten dana juicijuaren erradun, edo juzgaduba izango da. Beldur izan bediz biracarijac Jesu Christoren cematute, edo amenaza au euren ganien jausi eztedin, eta eguin beguije aleguina dauquen ecanduba quenceco. Au eguin daijen azalduco dot cer dan birae, edo maldicinoia. 37 *Verb. 2 lib. 111 or.*

*Vade prius reconciliari fratri tuo. Ibid vers. 24.*

Ain modutan nai dau Jesu Christoc alcar amadu dai-gun, ce eztau ecer artu nai gure escutic amodijo au baga. Gaurco Evangelijuan dino: bazuaz altarara doeren bat isquini, edo ofrecietara, eta gomuta badaquizu aserraturic daguala zugaz zure urco, edo proxima, ichi eguizu bertan doia, zuaz lenengo baquiac eguitera, eta guero opetzi, edo ofrecidu cinaique. Auxe gura deutzubet adi eraso azaldubagaz caridadia. 29 *Verb. 2 lib. 22 or.*

DOMIN. VI. PENT.

*Manducaverunt, et saturati sunt. Marc. 8 vers. 8.*

Andija izan zan Jesu Christoc eguin evan mirarija, lau mila guizon zaspigui, eta arrain chiqui puscachu batzucaz asse cituzanian, eta alan gustijac gueratu cirian arrituric au icusijagaz; baña ez gaitu gu mirarita biar, jaquinic au eguin evana zala Jaungoico gustiz alsu, edo poderoso cerubaren, eta lurraren eguile, edo Criadoria. Creadoco lenengo sinistamen, edo articulu auxe azaldu, edo explicaduco deutzubet. 4 *Verb. 1 lib. 33 or.*

*Ecce jam triduo sustinent me. Ibid vers. 2.*

Ce gozo eguitenjaquen Jesu Christori jarraituten eutzenai bere icasbide, edo doctrinia! Bera enzuterren iru egunian juazan bere jarrai ecer jan baga. Ce beste moduac dirian gaurco eguneco Christinau asco! Ain dau-



que guichitan icasbide, edo doctrina Christinauba, ce eztabe ecetambere ardura guichijago ifinten bera icastian baño. Ichumendi gogorra benetan! Gach galgarri zoriguestoco, au ezaguru daguizuben, enzuzube ce biar estuba daucan Christinaubac doctrina Christinauba jaquiteco. 2 *Verb.* 1 *lib.* 12 *or.*

*Misereor super turbam.* Ibid.

Celaco arduria eztauca Jesu Christoc bere jarrai dabilzanacaz? Erruqui andi bat emoten deuzt guizadi, edo gente gusti onec, dino; bada iru egunian eztabe ecer jan, Ain ardura andija beucan Salvaguiliac gorputzeco janarija emoteco beriai, eta ain mirari andija eguin beban euqui eijen cer jan, cembat eta ardura andijagua euquico eztau arimaco janarijagaz? Eta cembat eta mirari andijaguac eguingo eztituz, euqui daguijen cer jan arimac? Eguija au ezagututeco eztoгу beste gauzaric biar, cer dan mecia jaquitia baño, bertan ifinten jaculaco ceruco janari au altaraco maijan. Enzuzube onetaraco ce arrigarrija dan meciaren anditasuna. 46 *Verb.* 2 *lib.* 207 *or.*

DOMIN. VII. PENT.

*Numquid colligunt de spinis uvas, aut de tribulis ficus.*  
Math. cap. 7 vers. 16.

Noc orainguino batu ditu sasitic matzac, edo aranzatic picubac? Ez inoc dino Jesu Christoc gaurco Evangelijuan: esango baleu leguez: ez beique inoc uste obra char, eta pecatutic artuco dabela frutu gozoric. Edocein gauzatan eguija au icusi guinaique; baña ez inun ain ondo cein da bide bagaco esconcetan. Alacoric jazo eztedin esango dot ce gogo, edo intencinoe eruan biar dan esconzara. 25 *Verb.* 1 *lib.* 254 *or.*

*Non potest arbor mala bonos fructus facere.* Ibid v. 18.

Ecín arbola charrac frutu onic emon leique, dino Je-

## XXXVI.

su Christoc gaurco Evangelijuan. Baña o gure Jaungoienaren ontasun pare baguia! Guizonac berez ecin dabena, eguiten dau Jaunaren gracia, eta laguntasunagaz. Ce arbola dongagoric pecatuba baño? Bada bere ezaintasun, eta berac eguिनico calte icaragarrietatic urteten dau bere damu benetacuac, cein dan frutu gustiz gozo, eta osasunsuba, ceinegaz birrinduten dan pecatuba bera, Damu auxe azaldutia izango da nire gaurco lana. 18 *Verb. 1 lib. 182 or.*

*Omnis arbor, qui non facit fructum bonum eradetur, et in ignem mitetur. Ibid vers. 19.*

Ce bildurgarrija dan Jesu Christoc gaurco Evangelijuan dinuana: frutu ona emon eztaijan arbolia evagui, eta surtara botia izango da: au da: obra onac eguin eztaizaa Christinauba onacganic aldendu, edo apartaduric infernucoc sabetara jausico da. Onelaco zori gogorric jazo eztaquizuben izan zaitezze arbola on ichiric ceuben pecatabac, artu daguizuben frutu onen zarija beste munduban. Onetaraco Elexa Santuban dago pecatuben parcainoia, noren bitartez emongo jatzun betico vicitzia. Articalu onec azaldutia izango da nire gaurco icasbide, edo doctrinia. 11 *Verb. 1 lib. 107 or.*

*DOMIN. VIII. PENT.*

*Redde rationem villicationis tue. Luc. cap. 16 vers. 2.*

Gaurco Evangelijuan dirauzcu Jesu Christoc aberatz baten irudijan, ce ciatz, eta estuba izango dan asquenengo egunian emon biarco deutzagun contuba. Orduban esange deuzcu Jaun onec: emon eguidazu ceure vici gustico contu. Nor larrituco ezta orduban? Ce esturia orduea? Ez eguizu inos astu contu au, eta gomuta onegaz ez eguizu eguin orduban ardura emon leiquezun gauzaric. Ara bada celacua izango dan. 9 *Verb. 1 lib. 89 or.*

### XXXVII.

Idem Ibidem.

Gaurco Evangelijoco ugazabac bere otseguinnagusi, edo mayordomubari esan eutzana esan biar deutzagu bacoachac gueure burubari, nai badogu parcatu daquiguzan gueure pecatubac Penitencijaco Sacramentuban: au da; artu biar deutzagu gueure conciencijari eguin dituguzan pecata gustijen contu, eta auxe da gueure conciencia examinetia. Celan examina au eguin biar dozubena deutzubet adi eraso. 17 *Verb. 1 lib. 174 or.*

*Quantum debes Domino meo. Ibid vers. 5.*

Gaurco Evangelijoco otseguinnagusi, edo mayordomubac bere ugazabaren zordunai eguin eutzen itaunia eguin biar leuzquijo bacoachac bere burubari: cembat zor deutzazu ugazabari: au da, Jaungoicuari? Itaune onegaz vitzuco gainatequez zor au paguetara vicitziac dirauzcun artian, guero ceruco echian artu gaijezan. Alan eguin daguizuben esango deutzubet celan bete, edo cumplidu biar dozuben penitencia zor au paguetaco. 21 *Verb. 1 lib. 213 or.*

### DOMIN. IX. PENT.

*Videns Jesus civitatem flet super illam. Luc. cap. 19 vers. 41.*

Nor arrituco ezta icusiric Jaungoicua bera negarretan urturic? Baña cec negar erasoten ete deutza cerubetaco poz eta glorijari? Jerusalenen ichumendijac, ezagutu nai bage Jaunac eguinico mesediac, eta ichumendi au gaitic etorrico jacazan gachac. Christinauba, ezta au zugaz jazoten dan irudi benetaco bat baño. Cembat eta andijaguac dira zuri Jaunac eguin deutzuzan mesediac, Jerusalem eguinac baño? Eta orregaitic cembat eta gogorra-gua zure esquet donguia arena baño? Jesu Christoc zugaitic irago evan pasinoe, eta erijotzia beguiratubagaz ezagutuco dozu mesede onen anditasuna. 7 *Verb. 1 lib. 64 or.*

### XXXVIII.

*Circumdabunt te inimici tui vallo.* Ibid vers. 43.

Etorrico dira egunac nos inguiratuco zaitubezan ceure arerijuac, eta euquico zaitubezan estuturic larrizain artian. Auxe citautzan Jesu Christoc Jerusalem; eta berau esan lestequezu zuri, Christinauba. Etorrico da erijotzaco orduba ceinetan demoninnac inguiratu, eta larriz estuturic euquico zaitubezan. Baña, o Salvaguiliaren ontasuna! Ifinten dau ordu ataraco Extremauncinoeco Sacramentuba, emon deigun indarra gure arerijuacaz irime pelietaco. Auxe berau da gaur explicadu nai deutzubedana. 23 *Verb.* 1 *lib.* 233 *or.*

*Domus mea domus orationis vocabitur; vos autem fecistis illam speluncam latronum.* Ibid vers. 46.

Cembat Christinauri esun etc leiquijue Jesusec gaurto Evangelijuan Judegubai dirautzena: nire echia oracinoe eguiteco echia da, zube barriz lapar cobao eguin dozube. Cembat etc duaz Mezafara, eta dagoz bertan devocinoe baga, beguirane, edo erreverencija baga, eta modu baga; nun, eta cetan dagozan gomuta baga, cale, plaza; edo beste edocein lecutan balegoz baño itzal gueijago baga? Jaquin daguejen oneec, eta beste gustijac celan aurquitu biar dirian misterijo ain miragarrian, esango dot celan enzun biar dan mecia Jaijegunian. 45 *Verb.* 2 *lib.* 197 *or.*

### DOMIN. X. PENT.

*Jejuno bis in Sabato.* Luc. cap. 18 vers. 12.

Edocein Christinauc eci biar dau bere araguija, beselan betico ilgo da, dino San Paulec. Modu ascotan au eguin guinaique. Oncetatic bat da baruba. Orregaitic aguinduten deuzcu Elexa Ama Santubac baru eguitia, anchinaco leguian aguinduten bere zana leguez: orregaitic cinuan Pharisuac gaurco Evangelijuan: astian bir-

### XXXIX.

sitan baru eguin oijebala. Elexiaren agundu auxe azal-  
duco deutzubet. 49 *Verb. 2 lib. 238 or.*

*Decimas de omnium, que possideo. Ibid.*

Justicijac agunduten dau biarguinai aloguera paguetia. Elexguizonac biarra eguiten dabe Christinauben arimen oneraco, eta alan errazoe andijagaz emon biar jaque gorputzeraco biar dabeena. Eta cer da zori jaquena? Legue zar, eta barrijan agunduten dana da amarren primicijac. Pharisetiac dino eucan gustijaren amarrenac emoten cituzala. Elexiaren bostgarren agundu auxe adi eraso nai deutzubet. 49 *Verb. 2 lib. 244 or.*

*Deus propitius esto mihi peccatori. Ibid vers. 13.*

Gaurco Evangelijuan dacuzgu ce andijac dirian penitencia benetaco baten indatrac. Pechubatzaile, edo Publicano bat juan zan pecatuz beteric templu, edo Elexarra, eta esanagaz: Jauna erruqui ni peccatarijagaz, gueratu zan santuturic. Orra ce alsu, edo poderosua dan penitencia: baña benetacua izateco izan biar da peccatura ez biurtuteco gogarte, edo propositu senduagaz, esatera noian leguez. 19 *Verb. 1 lib. 193 or.*

### DOMIN. XI. PENT.

*Solutum est vinculum lingue ejus. Marc. cap. 7 vers. 35.*

Ce mesede andija eguin eutzan Jesu Christoc verbia emonagaz gaurco Evangelijoco mutubari! Alambere andijagua izango litzateque beste mutu modu ascori eguingo leusquijona. Onec dira araco euren peccatubac ciatz, artez, eta argui confesadu nai eztitubezanac, nai dala lotziagaitic, nai dala bildurragaitic, nai dala beste gauzaren batgaitic. Onelacoric eguin eztaguizuben enzuzube celacua izan biar dan peccatuben confesinoia. 20 *Verb. 1 lib. 203 or.*

*Loquebatur recte. Ibid.*

Mirari andi bat daucagu gaurco Evangelijuan: gor,

eta mutu bat osatu euan Jesusec: baña beste mirari ez  
chiquijago bat dacuzt Evangelijuan; eta da mutu izan za-  
nac artez verba eguitia: bada ain da gach mijna artez era-  
biltia, ce dino Santijago Apostolubac: ecin guizonec be-  
ra eci leiquiala. (1) Egunian egunian dacuzcuz mijnaren  
caltiac. Noc adi eraso leiquez gustijac? Gaur bacarrie  
esango ditudaz guzurrezco juramentubarenac. 36 *Verb.*  
2 *lib.* 55 *or.* *Prædicabant, et admirabantur.* Ibid vers. 36.

Ecusirie guizonac gorrac enzubela, eta mutubac ver-  
baz, mirariz beteric alabetan even Jauna, dino Evange-  
lijuac. Egunian egunian dacuzcuz au baño mirari andi-  
jaguac, eta alambere ez garue Jaungoicua bedeincatu, eta  
alabetara. Beguijen aurrian daucaguz berac eguinico ceru  
lurrac, eta otz otzie beguiratuten deutzegu bere escubeta-  
co eguinza, edo obra onei. Orra noraino elduten dan gu-  
re sortasuna. Lo sottre onetatic iratzartu zaitecen, azaldu,  
edo explicaduco deutzubet celan dan Jaungoicua ceru  
lurren eguitia. 4 *Verb.* 1 *lib.* 37 *or.*

## DOMIN. XII. PENT.

*Diliges Dominum Deum tuum ex toto corde tuo, ex tota  
anima tua, et ex omnibus viribus tuis.* Luc. cap. 10 v. 27.

Amadu eiquezu ceure Jaun Jaungoicua ceure vijotz  
gustitic, ceure arima osotic, eta ceure indar gustijacaz,  
dirauzcu gaurco Evangelijuac, eta auxe beran dirauzcu  
Jaungoicuaaren legueco lenengo aguindubac, eta auxe be-  
ran da azaldutera noiana. 30 *Verb.* 2 *lib.* 33 *or.*

*Samaritanus approprians aligavit vulnera ejus, infundens  
oleum, et vinum.* Ibid. vers. 34.

Ce erruquiorra izan zan Samaritarra lapurrao zauriz  
beteric, eta erdi ilie ichi even guizonagaz! Elduten da

XLI.

beragana, lotuten deutzaz zaurijac, ezarten deutzaz euren  
 tan orijua, eta ardaua, darua ardura cuqui al deijuen  
 echera, eta eguiten dau bera osatutea aleguina. Nor da-  
 la, edo nor dirudijala, esango ceunque Samaritar onec?  
 Elexaco Guraso, edo Icaslarijac dinue, dala Salvaguilia-  
 ren irudi benetaco bat. Infernuco lapurac ifini even gui-  
 zona villoxie gracia baga, zauriz beteric, eta il aguinian.  
 Etorri zan Salvazailia mundura, eta Sacramentubetan  
 ifini evan gure gach gustijen osasuna. Auxe esango deut-  
 zabet gaurco verbaldijan. 12 *Verb. 1 lib. 118 or.*

DOMIN. XIII. PENT.

*Occurrerunt dessem viri leprosi. Luc. cap. 17 vers. 12.*  
 Amar sarnati daucaguz gaurco Evangelijuan; baña icu-  
 si al baguinaiz arimac, gustiz gueijago icusico gueunquez  
 ariman pecatu loiz atsituric. Igues eguin daizuben pecatu  
 onetatic explicaduco dot seigarren mandamentuba. 39  
*Verb. 2 lib. 132 or.*

*Jesu præceptor miserere nostri. Ibid vers. 13.*  
 Nai badogu gueure gach gustijen erremedijua, escatu  
 deijogun Jaunari gaur lepratijac leguez, eta Jaungoicuac  
 emongo deuzcu. Jaquin dagueizuben celan escatu, azaldu-  
 co deutzubedaz Aita gureco lau escabide, edo petici-  
 noiac. 51 *Verb. 2 lib. 239 or.*

DOMIN. XIV. PENT.

*Non potestis Deo servire, et mammona. Math. c. 6 v. 24.*  
 Eztago gauza gachagoric aberastufeco gurarija cu-  
 qui, eta Jaungoicuaren adisquide izatia baño. Auxe di-  
 raucuzcu Jesu Christoc gaurco Evangelijuan; eoin Jaungoi-  
 cua, eta diruba servidu guinaiquez. Orregaitic deritz on-  
 do adi erasotia ceimbat pelleburu dagozan artu emon, eta  
 saldu erosijetan. 42 *Verb. 2 lib. 164 or.*

XLII.

*Quærite primum regnum Dei, et justitiam ejus, et hæc omnia adjicientur vobis. Ibid vers. 33.*

Gura dozube euqui mundu onetan biar dozuben gustija? Villatu eguizube lenengo Jaungoicuaren erreinuba. Alainche dino Jesu Christoc. Au eguingo dozube esanagaz Jaunari Aita gureco ira lenengo peticinoiac. 50 *Verb. 2 lib. 249 or.*

DOMIN. XV. PENT.

*Defunctus efferebatur filius unicus matris sue. Luc. cap. 7 vers. 12.*

Gaurco Evangelijuan ifinten deuzcu Elexa Santubac alargun baten seme bacarraren lurpetute, edo entiterruba. Sarri eta sarri ifini oi deuzcu gure Ama arduratsu onec gueure aurrian erijotzia, nai leuquialaco gomuta daigula beti erijotzia, eta gomuta onegaz prestadu gaitezán ordu ataraco. Au egaingo baguendu, ez gueuzquijo aimbeste bildur euquico Oleacinoiari, eta guen arrreratuco guinateque escatutera. Alan eguin daiquezuben, esango deutzabet cer dan Extremauncinoia, eta ce miragarriac dirian bere eguitade, edo efectuae. 23 *Verb. 1 lib. 233 or.*

*Resedit, qui erat mortuus, et cepit loque. Ibid vers. 15.*

Gorputzian ilic eguan bat daucagu Evangelijuan vizturie: cembat viztuten ete dira egunian egunian ariman? Jesu Christoc mutil gastia viztu evana leguez viztuten dira ariman. Viztute bi onexec azaldaco ditudaz Verbal-di onetan. 11 *Verb. 1 lib. 107 or.*

DOMIN. XVI. PENT.

*Cum intraret Jesus in domum cujusdam principis Pharisæorum Sabbatho manducare panem. Luc. cap. 14 vers. 1.*

Jan, edan, eta combit artian eguinico mirari bat daucagu gaurco Evangelijuan. Eztaquit arquitu al leitequian gaurco jan, edan artian onelaco mirariric: larreguitan da-



### XLIII.

cuzcuna da ascoc eta ascoc orditic urteten oi dabeela, eta mirari orde euren gorputz, eta arimac galcen ditubezala. Ezagutu daguijen ordijac celaco caltiac dacarrezan enren burubeenzat; gaurco berbaldija izango da ordiquerijaren ganian. 38 *Verb. 2 lib. 121 or.*

*Si licet Sabato curare?* Ibid ver. 3.

Celan escandalicetan cirian Phariseuac Jesu Christoc jaijetan eguiten cituzan mirarijacaz? Cer esango even icusi balitubez Christinaubac biarran? Ecandu onexen contra izango da nire gaurco Verbaldija. 33 *Verb. 2 lib. 66 or.*

### DOMIN. XVII. PENT.

*Diliges proximum tuum sicut te ipsum.* Math. cap. 22 vers. 39.

Amadu eiquezu ceure proximua ceure buruba leguez. Phariseuai esan beutzen bere au Jesu Christoc, guizon gustijacgana zabalduten da agundu au. Urco, edo proximiaren icenian aituten dira guizon gustijac, nai dala senidia, nai dala adisquidia, nai dala arerijua, nai dala erbestecua, nai dala onguina, nai gatzquina azaldutera noiana leguez. 29 *Verb. 2 lib. 22 or.*

*Quid vobis videtur de Christo? Cujus filius est?* Ibid v. 42.

Eguingo baleutzube Jesu Christoc gaurco Evangelijuan Phariseuai eguin eutzen itaunia; cer derichu Christogaitic? Noren seme da? Bertatic eranzungo ceunquee da Jaungoico, eta guizon benetacua. Da Jaungoicuaren seme, baita bere Ama Virginiarena. Alainche da, eta alainche sinistu, eta confesetan dogu Credoco bigarren, eta irugarren sinistamen, edo articuluban. 5 *Verb. 1 lib. 43 or.*

*Nemo poterat ei respondere verbum.* Ibid vers. 46.

Mututuric dagoz gaurco Evangelijuan Phariseuac cu-

## XLIV.

qui baga cer eranzun Jesu Christori. Uxala alainche ifini albaleguiz ascoren mijn loi atsitu, eta infernuco loiqueri-  
jaz beterico asco. Badaquit eztala erraz; baña alambere  
esango dot celan seigarren Jaungoicuaren legueco aguin-  
dubac galazoten daben verba loijac esatia. 40 *Verb. 2 lib.*  
143 or.

### DOMIN. XVIII. PENT.

*Videns Jesus fidem illorum dixit paralitico: Confide fili re-  
mittuntur tibi peccata tua. Math. cap. 9 vers. 2.*

Gaurco Evangelijuan daucagu fede vici bat; bada  
dago obra onacaz batera, eta orregaitic mereci izan evan  
Jesu Christoc bere aurrian ifini eutzen guizon caden, eta  
perlesijac jua osatutia. Onelacoxia izan biar da gure fedia  
bere; bada obra on baga ezta gauza. Fede auxe nua zu-  
bei adi erasotera. 27 *Verb. 2 lib. 2 or.*

*Ut quid cogitatis mala in cordibus vestris? Ibid vers. 4.*

Enzuten dabe Phariseuac Jesu Christoc dirautzala gue-  
xuari: parcatuten jatzuz pecatubac, eta dinue blasfeme-  
tan dabela. Dirautze Jesu Christoc ez eguizube juicijo  
charric eguin. Auxe da zorcigarren mandamentuban  
aguinduten jacuna, eta azalduco dodana. 43 *Ver. 2 lib.*

175 or.

### DOMIN. XIX. PENT.

*Fecit nuptias Filio suo. Math. cap. 22 vers. 2.*

Erregue batec bere semiari eguinico estegubac dauca-  
guz gaurco Evangelijuan. Itanduten badeutzegu Elexaco  
guraso, eta iracaslarijai, ce estegu dirian onec? Eran-  
zungo deuzcube; dala Jesu Christoc Elexa Santubagaz  
eguin evan esconcia. Bera artu evan bere emaste, edo es-  
posatzat, eta gustiz dau lastan. Elexiac barriz obedietan  
deutza Jesu Christori. Elexiaren arteco matrimonino  
au ifinten deutze San Paulo Apostolubac escondubai,  
jarraitu biar daben ejemplutzat. (1) Auxe berau eguin

(1) Ephes. cap. 5. v. 22 et seq.

XLV.

gura neuque nic bere esanagaz senar emastiac alcarri zor  
deutzezan biar, edo obligacinoiac. 26 *Ver. 1 lib. 265 or.*

*Quoscumque inveneritis vocate ad nuptias.* Ibid vers. 9.

Jaquin gura badozube cer esan nai daben gaurco  
Evangelijoco esconziac, San Gregorijo andijac azalduco  
deutzube. (1) Esconza au, dino, izan zan Jaungoicua  
guizon egnitia; bada bertan batu cirian izate, edo natu-  
raleza bi persona baten. Combidaubai dei eguitia izan  
zan Apostolu, eta beste Predicadoriac gentiac federa ecar-  
tia: esteguco echia da Elexa santuba, eta combidadu  
gustijac mai baten egotia Christinau gustijac santuben co-  
muninoia euquitia. Auxe da Credoco bederatzigarren  
sinistamen, edo articulu azaldutera noiana. 10 *Ver. 1 lib.*

99 *or.*

*Impletæ sunt nuptiæ discumbentum.* Ibid vers. 10.

Norzuc ciriala derichu gaurco Evangelijoco esteguco  
echian sartu cirian combidadubac? Christinaubac dino S.  
Gregorijo andijac. (2) Bada echia Elexia da, eta Elexan  
eztagoz Christinaubac baño. Ce zorion andijagoric euqui  
leique guizonac au baño? Zorijon auxe ezagutu daizuben  
nai neuque; eta alan esango deutzubet cer dan Christi-  
nauba, eta cein bere ezaugarri, edo señalia. 1 *Ver. 1 lib.*

1 *or.*

DOMIN. XX. PENT.

*Domine descende priusquam moriatur filius meus.* Joan  
cap. 4 vers. 49.

Guraso semé guexuaren osasunagaitic arduraz beteri-  
co bat daucagu gaurco Evangelijuan. Ardura onegaz er-  
regututen deutza Jesusi, osatu deijola bere semia, eta en-  
zunic Jesusec bere erregubac osatuten dau semia. Emetic  
ezagutuco dabe gurasuac, celan aleguina eguia biar da-  
been euren semiac gorputz, eta arimaco osasuna euqui

(1) Rom. 88 in Evang. (2) Ibid.

## XLVI.

daijen; au obeto jaquin daijen azalduco ditudaz euren semiacganaco biar, edo obligacinoiac. 33 *Ver. 2 lib. 89 or.*

*Idem Ibidem.*

Baleuque Christinaubac euren seme, alaba, guraso, anaije, eta adisquidiacganaco biar dabeen amodijua eguingo leuquee euraraz guexoric dagozarian, gaurco Evangelijoco erreguechubac bere semiagaz eguin evana. Au da, eruan deijuezala Elexaco Sacramentubac il deitezan bano leenago, eta gustiz artu daijela bildur baga, eta demporaz Extremauncinoia. Auxe berau esango deutzubet neure sermoian. 23 *Verb. 1 lib. 233 or.*

*Credidit homo sermoni, quem dixit ei Jesus. Ibid v. 50.*

Esan eutzanian Jesu Christoc erreguechubari vici da zure semia, dino Evangelijuac sinistu eutzala bere esanari. Auxe berau eguin biar dogu; jaquinic cerbait esan deutzala Jaungoicua Elexiari bertatic sinistu biar dogu, onetanche dagualaco gure fedia azaldu, edo expliquetara noiana leguez. 27 *Verb. 2 lib. 2 or.*

## DOMIN. XXI. PENT.

*Voluit rationem ponere cum servis suis. Math 18 v. 23.*

Gaurco Evangelijuan ifinten jacu Jesus; erregue bere otseinai contu arcera doian baten irudijan. Edonoc daqui contu au artuco jacuna guizon gustijoi juicijoco egurian: contu auxe izango da azaldu, edo explicaduco dodan icasbide, edo doctrinia. 9 *Verb. 1 lib. 89 or.*

*Misertus Dominus servi illius dimissit eum, et debitum dimissit ei. Ibid vers. 27.*

Beguiratuten badogu Jaunari deutzagun zorraten anditasuna, eta ce valijo guichicua gueuc eguin al daiguna, ezagutuco dogu ecin inundic bere pagadu al guinajala. Baña o Jaungoico baten amodijo, erruqui, eta ongura pare baguia! Berac emoten deuzcuz zor esquerga au pa-

## XLVII.

guetaco modubac. Asco dira onec; baña oneetatic bi esango deutzubedaz; bata da Confesoriac emonico penitencia bete, edo cumpletia. 21 Verb. 1 lib. 213 or. Bestia Indulgencijac irabastia. 22 Verb. 1 lib. 223 or. Bata nai bestia predicadu leiteqnez.

*Nonne oportuit, et te miserere conservi tui, sicut et ego miserus sum tui. Ibid vers. 33.*

Erregue aserratu baten irudijan iracasten deuzcu Jesu Christoc celan aserratuten daben Jaungoicua gachi eguin deuzcubena ez parcatutiac, eta dirauzcu berac bere ezteuzcula parcatuco parcatuten ezpadogu. Auxe beran predicaduco deutzubet. 29 Verb. 1 lib. 22 or. baita bere 51 Verb. 2 lib. 259 or.

### DOMIN. XXII. PENT.

*Redite quæ sunt Cæsaris Cæsari. et quæ sunt Dei Deo. Math. cap. 22 vers. 21.*

Gaurco Evangelijuan dirautze Jesu Christoc Escriba, Phariseo, eta Herodesena: emon eguijozube Aguintari, edo Emperadoriena dana Emperadoriari, eta Jaungoicuarena dana Jaungoicuari. Orra ce verba guichitan zaratu evan Jaunac legue gustija; bada da esango baleu leguez: emon eguijozu bacochari zor jacona. Cer zor jaca Jaungoicuari? Bera gauza gustijen ganian ametia. 33 Ver. Cer zor jaca Jaungoicuari? Domeca, eta Jaijac gordetia: irugarren mandamentuba. Cer zor jaca Jaungoicuari? Guzurragaz ez juramentu eguitia: bigarren mandamentuba. Cer zor deutza semiac gurasuari? Honretia. Cer zor deutza gurasuac umiari? Aciqueria. Cer zor jaca proximuari? Ez iltia, ez gachic eguitia, ez murmuretia. *Modu onetanche predicadu leique Cura Jaunac edoceimbere aguindu, edo mandamentu, nai dala Jaungoicuaren legueco, nai dala Elexa Ama Santubena; bada edoccin Christinauc zor deutza berari obediencia.*





XLVIII.

DOMIN. XXIII. PENT.

*Ecce princeps unus accessit, et adoravit eum. Math. cap. 9 vers. 18.*

Gaurco Evangelijoco lenen, edo principiac iracusten deuzcu celan adoradu biar dogun Jaungoicua, baita Santubac bere. Orra nire Verbaldija. 31 *Verb. 2 lib. 44 or.*

*Salva facta est mulier ex illa hora. Ibid vers. 22.*

Jesu Christoren erropa erza ucutubagaz osaturico emacume bat daucagu Evangelijuan. Au eguin beban erropa erzac, cer eguingo eztau Jesu Christo gustija artutiac? Viztu zaitezeta bada aibat sarrieten comulguetara. 48 *Verb. 2 lib. 228 or.*

DOMIN. XXIV. PENT.

*Ubicumque fuerit corpus, illie congregabuntur, et aquila. Math. cap. 24 vers. 28.*

Gaurco Evangelijuan emoten deuzcu Jesu Christoc ezaugarri, edo señale bat ezagututeco celacua dan baco-cha. Gorputza, edo araguija daguan lecuban ainche batuco dira arranuac, dino Jesu Christoc. Au da arranuac aragui zale dirialaco, araguija daguan lecuban batuten diriana leguez, alainche guizonac zale dirian gaurcia daguan lecura. Murmularijac murmularijacgana, 44 *Verb. Aberastu nai dabeenac tratu, eta saldu erosijetara. 49 Ver. Ordijac ardaua daguan lecura. 38. Loijac loijacgana &a. Onac barriz gauza onetara. Eta alainche aguri da celacua dan baco-cha. Emen artu leique Cura Jaunac nai daben Sermoe gueija.*

*... et aquila. Math. cap. 24 vers. 28. ...*

